





JON KORTAZAR

LUMA ETA LURRA  
EUSKAL POESIA 80KO HAMARKADAN

BILBAO BIZKAIA KUTXA  
LABAYRU IKASTEGIA  
BILBAO  
1997

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eskainitako PI 95/107 eta Euskal Herriko Unibertsitateak luzaturiko 108/95 laguntzei esker egin da lan hau.*

© Jon Kortazar

© Edizio honena: Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa

© Irudiak: Jesus Mari Lazkano

Diseinua: Ikeder, S. L.

Fotokonposizioa: Ikur, S. A.

Silutegia: A. G. Rontegui, S. A. L.

Lege Gordailua: BI-617-97

ISBN: 84-86833-98-1

*Miren,  
Jon eta Paulori.*



## AURKIBIDEA

Aurkezpena .....	11
Esker onez .....	13
Sarrera .....	15
1. Hamarkadaren mapa marrazten: Kostaldeko ikuspegia .....	19
2. Hamarkadaren mapa marrazten: Orografia .....	26
3. Hamarkadaren mapa marrazten: Talaiako ikuspegia .....	33
Azken oharra .....	35
Lehen atala. Pott Bandaren poesia .....	37
Desertua, oihana eta hiria .....	39
Sarrera .....	39
1. Bizitza zertzeladak .....	39
2. Bernardo Atxagaren poesia .....	40
3. Nire bihotzak muga latzak maite ditu .....	41
4. Erdian, hiria .....	47
5. Atzeraka egindako poemak .....	49
Bernardo Atxagaren <i>Etiopia</i> Walter Benjamin-en begietan .....	53
Izuen gordelekuetan barrena .....	65
1. Hitzaurreak irakurriz .....	66
2. Liburua irakurriz .....	71
Irudien gordelekuetan barrena .....	77
Hiru irudi .....	91
1. Penelope .....	91
2. Eguna. Odile Redon .....	94
3. Heroiak, martiriak .....	96
Hnuy Illa Nyha Majah Yahoo (Poemak 1985-1995) .....	103

Manu Ertzilla. Hitzaren ezpondetan .....	119
Bigarren atala. Esperientzia poesia .....	131
Sarrera .....	133
Felipe Juaristiren olerti lana .....	137
1. Poetika marrazten .....	139
2. Sentikortasunaren poetika .....	141
3. Gogoetaren poesia .....	145
Juan Kruz Igerabide. Izadia eta esaldia .....	149
1. Antzekotasunaren analogia .....	149
2. Kosmosaren Erreinua .....	155
3. Bizitzarekin solasean .....	159
4. Haikuaren sarean .....	166
Amaia Iturbide. Ele epela .....	175
1. Amaia Iturbideren poesia ikuspegia .....	175
2. Iruditik deskripziora .....	178
3. Gelak eta zelaiak .....	182
Intermezzo. Imanol Irigoien. Argia, pintura eta poesia .....	195
Juan Ramon Madariaga. Mundu egin zen sinonimoa .....	203
1. Sarrera orokorra .....	203
2. Hiritik izadira .....	206
3. Tradizioaren pisua .....	209
4. Mozart-en <i>Requiem</i> aren oihartzunpean <i>Galera errepikatuak</i> ...	215
5. Arristoria sinatzen .....	219
Maria Jose Kerexeta. Asperdura eta melankolia .....	223
Hirugarren atala. Iparraldeko poesia .....	237
Ikuspegi orokorra .....	239
1. Aroak eta arazoak .....	239
2. <i>Maiatz</i> aldizkaria .....	242
3. Idazleak mintzo .....	244
<i>Maiatz</i> : Uhargi saila .....	247
Jean Louis Davant .....	259
Itxaro Borda. Minbera eta oroimena .....	265
1. Poetika .....	265
2. Biografiatik esperientziara .....	272
3. Garrasia Iratiko basoan .....	279



4. Alde biak	282
5. Kaleidoskopioaren inguraketa	287
6. Hizkera poetikoaz	291
Jon Casenave. Sinboloaren bidean	295
Aurelia Arkotxa. Atari ahantziak	305
Henriette Aire. Egiaren poesia autobiografikoa	319
Laugarren atala. Susa Taldea	325
Ustela saila	327
Susa Saila	341
1. Susa: estetika desberdinak	343
2. Gorka Setienen <i>Ez sinkronia</i> , adibide bat?	351
Koldo Izagirre. Alkandora Horia	357
1. Poesiaz ikuspegia	357
2. Esperimentalismoa	369
3. Parodia	373
4. Balizkotasuna	374
Iñigo Aranbarri. Apoarmatua	383
1. Poetikaren bideak	383
2. Poema liburu bi	390
Omar Nabarro	405
1. Poetika baterako	405
2. Poema liburuak	408
3. <i>Gizaeuropa</i>	418
4. Joseba Urizarren <i>Girovago</i>	422
Jose Luis Otamendi	423
1. Poesiaren zeregina	423
2. Amodioaren xerka iheska doa ene zoriona	424
3. Zure isilak beste indar du zure hitzak	430
Xabier Montoia	435
1. <i>Anfetamiña</i>	437
2. <i>Likantropo</i>	441
3. <i>Narraztien mintzoa</i>	444
Bosgarren atala. Hamairu poeta	447
Patxi Ezkiaga. Topografia estetiko eta morala	449
1. Poetika	450
2. Patxi Ezkiagaren poesia: Milton eta Heaney-ren artean	457

Pello Zabaleta. Oroimenaren ildoan .....	473
Tere Irastortza. Gabeziaren kantorea .....	483
Joserra Garzia. Bezpera eta biharamuna .....	503
1. Bezperaren kronika .....	503
2. <i>Zotal egunak</i> .....	510
Luis Berrizbeitia. Dolumen eta esperantzaren solasa .....	517
Joxe Austin Arrieta. Kontzientzia zoriongabea .....	535
1. Poetika .....	535
2. <i>Arrotzarena</i> . Kontzientzia zoriongabea .....	541
3. Hitza eta poesia .....	546
Patziku Perurena. Irudimenaren eremuan .....	555
1. Poetika .....	555
2. Pertsonaien ahotsa .....	558
3. Irudimena nagusi .....	560
4. Eta hala ere .....	565
Luigi Anselmi .....	569
1. Ispiluaren beste aldean .....	571
2. Hiria eta bizitza .....	578
3. Catulo-ren omenez .....	581
Andolin Eguzkitza. Sentimendutik gora .....	585
Felix Zubiaga .....	597
1. Poetika .....	597
2. Zure argi kliskak .....	599
3. Beste zenbait liburu .....	601
Karlos Santisteban .....	605
Joxean Muñoz .....	611
Migel Anjel Unanua .....	615
Bibliografia orokorra .....	619
Bibliografia .....	619
Hustutako aldizkariak .....	621
Bibliografia idazlez idazle .....	621
Eranskina: Poema liburuak urtez urte .....	643

## AURKEZPENA

Hamabost urte igaroak dira Labayru Ikastegikoak oraingo Bilbao Bizkaia Kutxarekin euskal literatura eta euskal jakintza gaiak argitaratzen bidelagun gabiltzala.

Poz handia da guretzat aurrerantzean be alkarlanean ekitea, eta oraingoan gainera, hain sarri aitatzen ez dan gai baten inguruan: euskal poesia.

Bestetik, aspaldiko laguna dogu Jon Kortazar, obra honen egilea. Derioko Udako Euskal Ikastaroko irakaslea izan genduanetik edota gure literatura mintegietan bere lehenengotariko lanak eta ikerketak agertzen hasi zanetik urte asko igaro da, baina barriren barri bat egin dogu bidean, atondu deuskun liburu barri hau dala-ta.

*Luma eta lurra. Euskal poesia 80ko hamarkada* obrak, hamar urteko epe laburrean euskal poesiak idazle- eta irakurle-kopuruz be urria izan dan honek emon dauanaren barri dakartso irakurleari. Baina bere txikitasunean, eta poesiaren literatura-generoak berak urteokaz jasan dauan krisialdia bitarteko dala bere, euki dau gure poesiagintzak markatu beharreko ekarriren bat edo beste, eta gailendu egin jakuz behin baino gehiagotan euskal literaturaren barruan betiko geldituko diran mugarri batzuk.

80ko hamarkada aldizkarien loraldiarekin eta olerkari-talde indartsuekin hasi zan. Urteakaz, hasiera haretako taldeen finkotasuna eta idazleen dotrinen gogortadeak alde batera itxi eta apurka-apurka kolore askoko eta autore bakotxaren burubideari jarraituz eregitako proposamen literario eta artistikoak eskueran ditu gaur eguneko euskal irakurleak.

Izan dira tarteka-marteka eztabaidak... zorionez. Poesiagintzak berak be barruko eztabaidak eta zalantzak ditualako, eta ez dalako erraza urtenbidea topatzen gaurko olerkariarentzat.

*Luma eta lurra...* honetan Jon Kortazarrek zehatz aztertu ditu gurean aspaldiko urteotan eta azkenengo hamarkadan egon diran eztabaida honeek eta poetek onik urteteko egin dituen ahaleginak. Alde batertik, idazleak eta euren lanak sailka edo “giro”ka, moltsoka agertu ditu (hori egitea posible dan

neurrian). Gero banan-banan hartu eta bakotxaren ezaugarriak eta emaitzak zehatz aztertu ditu. Hortxe agertu dira behin eta berrero errepikatu diran gaiak: poesia zertarako, euskal poesiak mendebaldeko literaturaren barruan bete beharreko tokia, euskal poesia eta Euskal Herria,... betiko itaunak eta, betiko moduan, erantzun zuzena emoteko betiko ahaleginak.

Liburu honek gure olerkigintzaren zati txiki bat baino ez dau hartzen, baina ez da dudarik, erreferentzia-puntu saihetsezina izango da hemendik aurrera euskal literatura modernoaren azterketan hasi dedinarentzat.

*Bilbao Bizkaia Kutxa - Labayru Ikastegia*

Bilbao, 1997.eko martiaren 30ean.

## ESKER ONEZ

Honelako lan bat ez da egiten beste askoren laguntzarik gabe.

Sorrera eta asmamen garaian lagundu ninduten Juan Mari Lekuona, Ana Toledo, Karlos Otegi eta, batez ere, Juan Kruz Igerabideri nire eskerrik zabalena.

Idazketa sasoian eta nire galderak argituz ene ondoan izan ziren Jon Juaristi, Kosme Barañano, Iñaki Aldekoa, Mari Jo Olaziregi, Felipe Juaristi, Amaia Iturbide, Aurelia Arkotxa eta Jon Casenaveri ere eskerrak luzatu nahi nizkieke. Joseba Urizarrek eta Itsaso Izagirrek bibliografia lana erraztu zidaten.

Jesus Mari Lazkanok eta Ana Elorduik badakite zenbat estimatzen ditudan lanean argitaratzeko utziriko paisaien margoak, ziur naiz euren eskuzabaltasunik gabe galduagoa izango zela testu honen letra moldea.

Argitarazio lanean, zorretan nago Labayru Ikastegiarekin eta BBK Fundazioarekin eurgana hurbiltzea nahikoa izan zen proiektu honen etorkizuenan sinesteko, eta aurrera eramateko. Ander Manterolari, Adolfo Arejitari eta Asier Astigarragari eskerrak ematen dizkiet lan hau hurbiletik jarraitu dutelako.

Ene letra bihurria irakurtzen eta lana makinatzen aritu ziren Maite Ruiz de Eginok, Amaia Eceizak, Arantza Leonek ene esker onaren berri izan behar dute.

Liburutegietako arduradun eta langileekin ere zordun naiz. Filologia Fakultateko liburuzainek, Labayru Ikastegiaren Euskal Bibliotekako Jon Elorriagak, Habeko eta Bizkaiko Aldundiko liburuzainek, Mungiako Kultur Etxeko Idoia Ortiz de Zarete eta Itziar Aurrek eramankizun handiarekin hartu zituzten ene etengabeko bisitak.

Eta azkenak izan arren, ez horregatik eskerron txikiago, Peru Urrutiari eta *Dena-Onakoei*, lan honen prozesu zabalean behera nentorrean gai izan zirelako zuzkidura zuzenez, bai janariko bai umoreko, ene izpiritu galdua hornitzen.

Lan hau Eusko Jaurlaritzak eraturiko Ikerketa proiektuetarako laguntza bati (PI 95/107) eta Euskal Herriko Unibertsitateko beste bati (108/95) esker burutu dut, haien sustapenek, Gellner-ek esango lukeen moduan, “galerarik ez izaten lagundu didate”.

## SARRERA

Urteen buruan lan hau egiten ari nintzen artean, bati eta besteri zein asmo nuen azaltzen nien artean, sortzen zen galdera bat beti urduritu egin nauena: “Baina poeta gazteek merezi ote dute...?”. Ez dakit zehatz zer esan nahi zuten, gehienetan galdera bukatu gabe geratzen zelako. Zer esan nahi zuten: ahalegina, horrenbesteko lana, atentzioa?

Bazegoen beste galdera bat ere, aurrekoa bezain zitala. Guzti horietatik nortzuk geratuko dira hurrengo gizaldian? Nortzuk aitortuko dituzte etorkizunean poeta gisa, eta nortzuk alboratu?

Aitortu behar dut ez dudala erantzunik ez lehenengoarentzat, batez ere honentzat, ez bigarrenarentzat, nahiz eta asmatuko nituzkeen izen batzuk, baina gaurkoa ez da asmaketa-lana.

*Laberintoaren oroimena* liburuan, 1985. urtearen aldean, poesia berrian agertzen ziren zenbait ezaugarri nagusien deskribapena egin nuen. Herri honetan beti gertatzen den moduan, edo niri gertatzen zaidan legez behintzat, ikuspegi orokor bat argitaratzen den bezain pronto, monografiak eskatzen dira, eta monografiak argitaratuz gero, ikuspegi orokorrak.

Oraingo honetan, *Luma eta lurrari*, beren-berengi eta gogo betez monografiaren bidea aukeratu dut.

Inork baino hobeki dakit hemen zehatz asko eta oihan gutxi aurki ditza-keguna.

Baina gaurkoan, poetak banan-banan irakurri ditugu, eta bere baitan onartu, eta beren garapena ikusi, eta beren ezaugarriak begiztatu, eta lurreko bakarra balitz bezala, aztertu. *Tractatus* baten bidea jarraitu dut. Fenomenologiak agintzen du, baina ez gaitzen itsutu. Ez fenomenologiak bakarrik. Poeta bakoitzaz ari izan naizen artean, bilatu ditut estetika, soziologia, eta politikarekin loturak. Baina egia da, zehatz asko daude. Batez ere zehatzak, eta sarrera honen lana da oihanaren marrazketa egitea. Abiapuntuan, ordea, poeten, batez ere xaloen, asmoa jarraitu nahi izan dut: bakoitzaren poesia pertsonala da, nahastezina, berekoia, nabarmena, aldendua. Denok dakigu hori ez

dela guztiz egia, eta garaiak, eta sasoiak eta idaz-lagunek eragina dutela, eta testu batean idazlearen nortasunaz gain ageri dela garaiaren aztarna. Baina abiapuntua bakaneko lana izan da, eta, beraz: informazio lehena, interpretazioa ondoren.

Bizirik dagoen, bizi dudan eta bizi nauen garaia delako aukeratu dut 80ko hamarkada, edo Frankoren heriotzaren ondoko poesia berriaren azterketa. Bizirik dago, dialektikoa da. Garaikoak ditut idazleak, batzuk adiskideak, eta elkarrizketa hain ahaztua duen herri honetan, adiskideekin elkarrizketan jarraitu nahi izan dut, baina ez akort gauden arloetan soilik, desberdintasunak ageri ditugun arloetan ere bai.

80ko hamarkada erakargarria da poesiaren arloan, ugaritasunaren aroa delako, baina ez soilik ugaritasun kuantitatiboaren sasoi. Eusko Jaurlaritzak emaniko laguntzei esker argitarazioa ugaldtu, zabaldu eta barreiatu den aroa, ugaritasun kualitatiboarena eta kalitatearen ugaritasuneko ere bada. Frankismo ondoko garaietan bizitza berri batek heltzen gintuela zirudien; literatura lanetan baino areago bizitzan zegoen. "Ttikitasunaren aroa" deitu dio, ttikitasuna bera sortu eta bultzatu zuen Koldo Izagirrek, baina egin beharra zegoen. 1991. urtetik aurrera krisialdi ekonomikoaren ondoren, argitarazioak bestera egin du. Baina bor-borreetan zegoen garaia, trumoiatsu, barroko, jokae-ra desberdinekoa bere osoan. Ertz ugari ditu, idazle asko, idazle desberdinak, joerak martxan, moduak desberdin. Paisaia da aberatsa. Liburu honen azken aldean jarri den liburu argitarazioaren estatistika begiratu besterik ez dago konturatzeko nolako ugalketa gertatu den. 1980. urtean 11 olerki bilduma argitaratu ziren. 1981ean 4, 4 1982an, 1983an berriz 8, 1984an gorantza doa jokabidea: 12. Eta 1985. urtetik aurrera ikaragarri ugaltzen da poesiaren bidea: 18 liburu 1985. ean; 20 1986an; 16 1987an; 11 1988an; 16 1989an eta 16 1990ean. Beti ere ene datuen arabera.

Beste kontu bat litzateke literatura bonsai bat izan den ala ez aztertzea; hau da, neurri berean babestua eta estalia. Hamarkada horretan, nik ez dut zalan-tzarik, bere gorabehera guztiekin, euskal literaturaren sendotze-prosezua gertatu da, eta ez soilik literatur sistemaren sendoketa lana, literatur hizkeraren joerak ere indartu egin direla uste dut. Narratibak lagundu du eta narratibaren hedapenaren bidez heldu da sendotze eta indartze lan hori. Orain itzulpenen bidez ere gertatu dela diote. Bego hori ere, eta betor ordu onean.

Poesiak, berriz, nahiz eta sozializatzeko prosezutik ezin urrundu, bere bide propioak dituela dirudi. Nolabaiteko, eta nolabaiteko soilik, autonomiak laguntzen diola esango nuke. Ez da guztiz autonomia, zeren uzta ugaria egon denean, fruituaz profitatu da, eta krisialdia heldu denean, edo argialetxeen irizpide zorrotza, denentzako heldu da. Baina izan du bere bidetxoa poesiak eta indar handiz agertu du bere burua hamarkadan.

Lehen unetik nekien XIX. menderako oso aproposa zen lan batean sartzen



nintzela, baina asmo entziklopedikoa nuen, eta, ahalik eta zehatzen izan nahi nuen azterketan.

Lan honek helburu nagusi bat du. *Pott* eta *Ustelarekin* hasitako eta 80ko hamarkadan jarraitutako mugimendu poetikoaren azterketa. 1980-1989 urteen artean bere poesia lana hasi zutenen liburuak aztertu dira, eta haien lana jarraitu da 1995. urterarte.

Beraz, 1980. urtea baino lehenago zerbait argitaratu zutenak, *Pott* edo *Ustelarekin* lotuak badira soilik aztertu ditut. Badira urte horietan, 80koaren mugan, poesia idazten edo argitaratzen hasi zirenak: Jesus Etxezarraga, Kepa Enbeita. Gotzon Alemanen liburu ere 80an argitaratu zen. Ez ditut lan honetan sartu, hain zuzen ere abanguardiareneko lana interesatzen zitzaidalako, eta izen horiek, ziurrenik, 70ko hamarkadan garatu ziren estetikatik hurbilago direlaketan. Muga, beti ere, eta edozein idazleren lehen liburuaren argitarazio data, 1990. urtean jarri dut, noiz edo noiz bukatu behar nuela, eta urte horretatik aurrera estetika zentzu berriak agertzen direlakoan.

Hasieran banekien lan egin nahi nuela Bernardo Atxagaz, Joseba Sarrionandiaz, Koldo Izagirrez, Felipe Juaristiz, e. a., izena eta izana lortu dituztenen lanak ahalegin handirik gabe etortzen zitzaizkidan burura. Baina jakin banekien bazirela gehiago.

Juan Mari Torrealdayren *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa (1900-1992)* lan eskergarria eta bere gehigarria *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa II. (1993-1994)* hustu nituen poesia arloa ikertuz (548-570 eta 122-125 orrialdeak). Zenbait huts baditu ere, prosazko lanak agertu baititu poesia balira bezala, horrek ez dio meriturik kentzen lanak eskaintzen duen informazio erabilgarriari.

Ondoren *Argiaren Urtekariak* begiratu nituen panorama osatzeko asmoz, eta azken urteetan Juan Luis Zabalak egiten dituen zerrenda ez behar bezain beste eskertuez baliatu nintzen. Horrela, oker ez banago, 72 idazleren, eta gutxi gora-behera 170 libururen zerrenda osatu nuen. Zerrenda oso luzea gertatu zenez, zera deliberatu nuen, kanpoan uztea hamarkadan liburu bakarra argitaratu dutenak, batez ere liburu hori argitaletxeek atunduriko poesia saileetatik kanpo egonez gero. Poesia sailtzat hartu ditut Ustela, Maiatz eta Susa, ondoren azalduko diren arrazoiengandik. Irizpide horrek zenbait arrazoiengandik salbuespen nabarmenak ditu.

Beste horrenbeste, egin nuen liburu kolektiboekin, eta autoedizioekin. Horrela, aztertzeke geratu dira *Intxaur azal baten barruan* edo *Zergatik ez Sigrid* liburuak. Autoedizio aldetik ez ditut kontuan hartu gaurkoan Gotzon Loberaren edo Urtziren liburuak. Ez zait erraza egin Lasarteko Udalak eta Pasaiako Udalak antolaturiko poesia sariketetan irabazle gertaturikoen lanak biltzea. Horiek ere aztertzeke daude. Zalantzan izan dut Marisa Gutierrezen *Zeruaren mugetan / En los márgenes del cielo* (1987). Euskarara itzulita

denez, alde batera utzi dut. Hutsuneak-hutsune hauek dira aztertzeke dauden liburuak, edo hamarkadan poesia liburu bakarreko zelako idazlea, edo kolektiboa zelako, edo itzulpena zelako, edo 70eko hamarkadaren azterketarako utzi dugulako.

- Albizu, B. (1984): *Olerkiak*. Santi Onaindia. Larrea.
- Aldalur, A. (1989): *Hainbat gau izarrik gabe*. BBK. Bilbao.
- Aldelur, M. A. (1986): *Itsas oiartzunetan oro malenkonía*. GFA. Donostia.
- Anasagasti, P. (1980): *Olatuak*. EFA. Arantzazu.
- Arroyo, G. (1987): *Eskeintzak*. Baroja. Donostia.
- Baraiazarra, L. (1985): *Hitzezko txirlorak*. Elkar. Donostia.
- Bidegorri, J. (1983): *Emeki itxaropendutako egunkaria*. BBK. Bilbao.
- Elkarlanean (1983): *Zergatik ez Sigrid?* Susa. Donostia.
- Enbeita, J. (1980): *Inguruaren arduraz*. Hordago. Donostia.
- Gil Bera, E. (1989): *Hortus botanicus*. GK. Donostia.
- Gutierrez, M. (1987): *Zeruaren mugetan/En los márgenes del cielo*. Maiatz.
- Idoate, T. (1988): *Arantzak elorritik begiratzén dizu*. Pamiela. Iruña.
- Puerto de Santa Mariako Presoak (1983): *Intxaur azal baten barruan*.
- Rikarte, I. (1988): *Bide ertzeko poema bilduma*. Pamiela. Iruña.
- Sestorain, G.: (1986): *Basamortuan oasis bila*. Maiatz. Baiona.
- Tejeria, M. (1980): *Zer nahi batez*. Erein. Donostia.
- Villasante, M. (1988): *Xaguak soka saltuan*. Baroja. Donostia.

Horrela, oker ez banago 55 idazle geratzen zitzazkidan, eta, gutxi gorabehera, 150 liburu. Askotxo ziren banan-banan joateko. Eta, une honetan, banaketa bat egin nuen. Monografia bana eskainiko nien liburu bi edo gehiago dituzten idazleei, eta beste monografia orokorragoa poesia sailei. Horrela, Ustela, Maiatz, eta Susa sailei monografia orokorrak eskainiz, liburu bakarreko diren zenbait idazlez hitz egiteko beta nuen. Beste guztiek, eta aurkibidea begiratzea besterik ez dago, beren monografia dute.

Ez dut ukatuko liburu bakarreko zenbait idazle ere patxadaz aztertu ditudala, liburuak berebiziko kalitatea zuelako, gaia hitzaren harira zetorkidala edo, arrazoi arrunta ematearren, gogoak eman didalako. Liburu bakarreko idazle hauek aztertu ditut: Mari Jose Kerexetaren *Ezezagun baten kua-dernoa* (1988), Imanol Irigoienaren *Argiaren barne distantziak* (1988), Henriette Aire *Egiaren egarriz* (1989), eta Aurelia Arkotxaren *Atari ahantziak* (1993).

Idazleak aukeratzeko orduan, muga, gorago aipatu bezala, noizbait jarri behar zen, eta 1990. urtean jarri dut. Hau da, kasu batean izan ezik, Iparraldeko poesiari toki berezia eman diot eta horregatik onartu da, salbues-

pen gisa, Aurelia Arkotxaren lana ez daude azterturik 1990. urtetik aurrera argitaratzen hasi diren idazleak. Idazle kopurua aukeratzekoan, beraz, zenbaki berria da muga, ondotxo baitakit hamarkadak 1 urtearekin hasten direla. Baina, 80an hasi zirenenak 1995. urterarte, Sarrionandiak bere *Hnuy...* argitaratu arte, izan ditut kontuan. Lanaren helburua, beraz, *Etiopiatik* (1978) *Hnuy...ra* (1995) doan bidearen azterketa da, edo, nahi izanez gero, *Itsaso ahantzia* (1976) liburutik Itsaso galduetara.

Badakit irizpideak beti direla bitxiak, beste norbaitentzat, baina lanak duen hedapena kontuan hartuz, nolabaiteko muga jarri beharra zegoen, kontuan izanik idazleak eta lanak, eta ez garapenaren deskribapena, zirela lanaren helburu.

Irizpideak laburtuz, bada, liburu bi edo gehiago idatzi dutenei buruzko lanen azterketak, liburu bakarrekoak aztertzeke, beren liburuak ez badira hiru poesia sail nagusitan agertu, kasu horretan sailaren ikuspegi orokorra aztertzen da eta ez idazlea. Garaia dela-eta, abanguardia poesia eta 80ko urteetan argitaratzen hasi zirenen lanen azterketak 1995. urterarte, eta ez da 1990. urtetik aurrerako izenik aipatu, salbuespen bat izan ezik.

Izan ere, eta etorkizunak esango du asmoa betetzen den ala ez, *Luma eta lurra*, azterketa hau plangintza orokorrago batean kokatzen da, XX. mendeko euskal poesiaren historia baten barruan. Ez dakit inoiz burutuko dugun lana, baina mendean argitaraturiko poesia-liburuen azterketa osoa egitea ez litzateke zaila, eta lantalde gisa, aurreratua dugu 70ko hamarkadari buruzko lana. Proiektu honek alde bi izango lituzke: Garai jakin batzuei buruzko agerpena eta poeta nagusiei buruzko monografia solteak. Juan Mari Lekuonaren poesiak, Amaia Iturbide eta Sebas García Trujilloekin egindako lana, bigarren alde horren adibide litzateke. Baina liburu honek lortzen duen oihartzunak zerikusi handia izango du asmoarekin jarraitu ala ez ebazteko orduan.

Asmoak, bidean hasi aurretik, baditu arazo larriak, eta argitarazioarenak ez dira txikiak, argitarazio-batasuna laster bihurtuko litzateke, adibidez, arazo larri.

Beraz, 90eko hamarkadan bere poesia-lana hasi zutenek zerbait itxaron beharko dute, baina kontua ez da soilik hamarkada bukatzea...

## **1. Hamarkadaren mapa marrazten: Kostaldeko ikuspegia**

Garau desberdin asko eta zorrerik ez. Zuhaitz asko, bai, oihan handirik ez esan dugu. Baina ez gaitezen erratu, poetak banan-banan aztertu badira ez da ahaztu zubiak egitea haien lanen artean, haien pentsakizun poetikoaren eta estetikoaren artean; bakoitzak bere nortasuna izango du, baina kulturak ere agertzen du islada lanen artean.

Lan hau hasi aurretik banituen hurbilketak idatzita gai honi buruz. Aurrerapen gisa bost talde nagusi aurreikusten nituen. Potten inguruan eraturakoa izango litzateke lehena, Bernardo Atxaga, Joseba Sarrionandia eta Manu Ertzillaren lanekin. Jon Juaristik aipatu duenez, oso desberdina zen taldeko jendearen moldapen estetiko eta ideologikoa, eta banaketarekin garbi geratu zen kontua izan zen hori. Geroak Jon Juaristiri arrazoia eman dio eta abanguardiaz eta hitzaren zentzu faltaz eraturiko *Hitzik aitz idatzi dut*, *Etiopia* eta *Izuen...*en ondoren desberdinak izan dira partaideen bideak. Abanguardiak eta neurri baten nihilismoak sortzen duten irtenbide ilunetik irteteko ahalegin desberdinak egin dituzte hirurek eta hori geroago eta nabarmenagoa da. Ertzillak estetizismoa landu du. Atxaga “atzeraka” hasi da, Felix Ibargutxiren artikulua zioen moduan. Lerro hauek idazten ditudan unean poesia-liburu berria argitaratzeko omen dago Atxaga eta horrek emango digu estetika berriaz informazio zabalagoa. Sarrionandia “literaturatik bizitzara” igaro omen da eta marxismoak literaturarako irekitako bideak *Marginalian* azaldu ondoren, xamurtasuna eta joera analogikoak landu ditu bere lanean, duintasuna agertuz balio nagusi gisa.

Liburu honetan, Atxagaren poesian nagusi diren zenbait sinbolo aztertu ditut lehenik. Ondoren Walter Benjaminen lanarekin elkartu dut berea, eta ahalegina urruna badirudi ere, Benjaminek abagadune ederra erakusten du modernitatea eta modernitatearen krisia zer diren azaltzeko; bere neurrian *Etiopiak* egin zuena izan zen. Baina Benjamin ekarri badut harira beste zerbategaitik ere izan da. Rella-k bere *Isiltasuna eta hitza* deituriko lanean gogoratu duenez, modernitateak isiltasunaren tentazioa bizi izan du, eta hitzaren berbalorazioaren tradizioan Benjaminek toki aparta du. *Etiopiak* isiltasunaren tradizioa erakutsi bazuen, eta Atxaga ibili badabil bideak aurkitu nahian, ziur naiz Benjaminek lagunduko diguna poetak hartuko dituen bide berriak interpretatzen.

Onartu beharko dut, hala ere, abanguardiak baduela oraindik nigan lilura berezia, Atxagak gaur onartzen ez diona. Eta horregatik baino ez bada ere, *Etiopia* azterbide egokia iruditzen zait eta hartara itzultzen naiz gure mendealdeko gizartearen krisialdi-aztarnak aztertu nahiz.

*Izuen gordelekuetan barrena* liburura itzultzen naizen antzera. Sarrionandiaren lanari lau lan eskaini dizkiot. Lehena, 1983. urtean agerturiko artikulua baten berridazketa da, gaur pentsatzen dudanari hurbilduz. Planteamoldez berriagoak dira beste hirurak. *Izuen...* liburuan agerturiko irudiei buruzko lanak liburuaren mezu ezkutuak landu nahi ditu. “Hiru irudi” lanak pertsonaia nagusi bi hartu ditu kontuan aitzaki gisa, poesiaz hitz egiteko. Azkenak, ordea, *Hnuy...*ren deskripzioa aurkeztu du.

Ertzillaren lanak ere momentu desberdin bi ditu, eta bere liburu bien azterketaren bidez, estetikan gertatu den garapena azaldu nahi izan da.

Lehen talde honek, bada, abanguardiaren definizioan, isiltasunaren poetikan, literaturaren liluran hasiko luke bere bidea, irudiari garrantzia emanaz. Baina Pottekoek garapena aurrera eramanez eta gaur egun Potteko talderik ez dagoela esan dezakegu, hain desberdinak direnez haien idazmoldeak. Garapenean beste ezaugarri batzuk nabarmendu dira: abanguardiaren uxaketa, estetizismoaren eta nihilismoaren ukapena, etsipenaren berrirakurketa eta beste joeren agerpena. Agian, surrealismoaren bideetatik interpretatu beharko litzateke poesia primitiboaz egin duten baliapena. Laburpen arin honetan aurkez dezakegu Potten taldean izanekoena.

Bigarren talde estetikoak, esperientzia poesiatik hurbil izandakoak dira. Talde estetizista da, hizkuntzaren balio ederretan sinesten duena eta poesia-manifestutik urrun dabilena. Felipe Juaristik, Juan Kruz Igerabidek, Amaia Iturbidek, Mari Jose Kerexetak eta Juanra Madariagak hartuko lukete bertan parte, eta, ondoren, haien atzetik etorri diren beste poeta batzuk ere. Esperientzia poesiak norberaren historia banakakoa hartzen du gaitzat, eta bere definizio zuzenik eman du Gerardo Markuletak (1995). Gutxi gorabehera hauek lirateke taldearen ezaugarriak: norberaren egunerokotasunetik abiatzeko gogoak; poema narratiboak idazteko joera; etsipenaren adierazpena, zenbaitetan etsipena gizarte girotik sortua delarik eta beste zenbaitetan, aldiz, egoera pertsonalek bultzaturikoa delarik; ardatz baten inguruan moldaturiko liburu batuak egiteko joera; poesia hiritarra, nahiz eta *Izuen...*en influentziaz bidaiak eta Europak bere lilura mantendu, eta nahiz eta sinbologia behar dutenez izadiak ere zeresan handia izan; nitasun poetikoaren fikzionalizaziorako joera; tradizioaren irakurketa zuzena, Lasa eta Lekuona direlarik maisu nagusiak; esperientziaz gain, poeta horiengan badago sinbolismoaren hizkeraren trataeran jarraitzeko borondatea; maitasunak, erotismoak eta sentsualitateak beste poeta batzuegan baino presentzia haundiagoa du.

Ez da zalantzarik desberdinak direla ahots poetikoak eta Juaristik eta Igerabidek gunea agertzen badute ere, desberdina dela pasabidea. Biok poesia filosofiko eta estuago batera eman dute pausoa, erretra eta maximen bidea jarraituz. Kerexetak ez du berriz argitaratu eta Iturbidek bere bide sinbolistei jarraitzen die, geroago eta zabal eta aberatsago.

Imanol Irigoienek lana taldean sartu badut, ez da izan taldean tokia zuela uste nuelako, bidera irten zitzaidalako baino. Talde honetan berezia da literatura eta arteen arteko loturaz mintzatzea, berezia da Iturbidek literaturaren eta pinturaren artean egiten duen elkarrizketa. Hitz jario horren barruan ikusten dut Imanol Irigoienek lana eta gai berezia iruditzen zitzaidan bien arteko joerak ikusteko.

Eztabaida dezakegu Juanra Madariagaren izaera ere. Badakit zenbait ezaugarritan baduena idazleak Sarrionandia eta Berrizbeitiarekin lotura. Baina autobiografiaren, esperientziaren pisua nabarmena da bere hasierako liburu

bietan, nahiz eta iparraldeko lilura dei dezakegun ezaugarria nabaria izan. Baina, Berrizbeitiarengan horrek nagusitasuna hartzen duen moduan, ez dut uste berbera esan dezakegunik Madariagaz. Halaz ere, hamarkadan nagusia den berritzaileen eta tradiziozaleen arteko kinkaren agerbideak dira poetika hauek.

Iparraldea ez da berez talde poetikoa, kontzeptu geografikoa eta kulturala baino. Halaz ere, ez naiz ni bakarra hau baieztatzen, *Maiatz* aldizkari eta argitaletxearen inguruan bilduriko poetek badute zerbait amankomunean.

Eta, hori ere baden arren, ez da euskalkiaren erabilera soilik. Badago hizkerari buruzko espresaera forma bat, baina Maiatzen inguruko poetek badute tradizio-poetak izateko joera. Molde ezagunak erabili ohi dituzte bere poesietan, batzutan post-erromantikoak, bestetan exotismoan oinarriturikoak. Zenbait kasutan hausnarketa poetikoaren falta ere nabari da. Irakurketak, aldiz, Parisa begira egiten dira eta bitxiak dira ikusle honentzat; ez, noski, haientzat. Konpromezua ere ez da falta, bai GALaren atentauei eman zaien erantzunaren aldetik, bai kolonizatuen gaia erabiliz, bai Frantziako atzerri-politikak (Argelia, Indotxina) eraginiko gaien agerpenaz.

Iparraldeko poesiaren inguruan zertzelada bi eman behar nituzke. Lanarekin hasi aurretik berri gutxi nuen Iparraldeko literaturaren egoeraz, eta sartu ahala, zenbait berri interesgarri agertu zaidanez, liburu honetan beste inon egin ez dudan moduan, Iparraldeko literaturari sarrera bat eskaini diot bertakoen zertzeladak bilduz ikuspegi orokorra eman nahiez, beti ere hango informazioa bilduz.

Bigarren oharra zeresan handiagoa du. Kontzeptu kulturala erabili dudanez, Itxaro Borda, Jon Casenave eta Aurelia Arkotxaren poesia eta estetika dindilizka geratzen dira. Maiatz taldekoak ote dira hirurok? Ezaguna da Itxaro Bordak liburu bi argitara eman dituela Maiatzen eta beste bi Susan. Orduan, hango zein hemengo. Jon Casenavek oso bide propioa egin du. Eta Aurelia Arkotxak, Pamielan argitaratzeaz gain, ez du bere poesia talde horretan ikusten.

Ene iritziz, Iparraldeko poetarik nonbratuenak Maiatzetik kanpo ere aritu dira. Ez dakit zein neurritan den hori esanguratsua. Uste dut “Iparralde” edo “Maiatz taldea” aukeraketxearen ondorio ez desiatuak, ez goxoak, direla. Estetikari begiratu, Itxaro Borda, berezitasun guzietan, literatura konprometituan sartzeko arrazoirik badago; ez da falta, baina, izadiaren deskripziorik bere lanetan; abanguardia ezagutzen du, baina pop belaunaldiaren eragina ere nabarmena da. Ez zaio inori estaltzen idazleak Susa mugimenduari duen lotura, ezta ere, eta datuaren garrantzia ez da inon ageri, Tere Irastortzaren poetikarekin agertzen duena.

Susa argitaletxearen inguruko poetek oretzen dute laugarren egotaldia. Koldo Izagirreraren irudiaren eta lanaren inguruan bildurik talde-itxura argi

eman dute, eta Jose Luis Otamendiri kasu eginez gero, beren arteko iritziek eragina dute lan poetikoaren moldapenean. “Poesia militantea” deitu izan zaio egin dutenari. Zuzen ala oker, sistemari eginiko kritika hainbat agertu da beren lanean. Halaz ere, zalantza dut hori denik soilik agertzen duten ezau-garri amankomun nagusia.

Talde-lanean abanguardiak hartzen duen nagusitasuna ez zaio inori estal-tzen. Beraz, gai aldetik sistemari egiten zaion kritika eta forma aldetik ager-tzen den abanguardiarene defentsa batera joango lirakeke.

Abanguardia ez da bat eta bakarra. Eta hiru esparru agertzen dira taldea-ren barnean. Batak, Omar Nabarro-Edorta Jimenez delarik nagusi, surrealismoaren inspirazio joera defendatuko luke zuzenean, surrealismoak ekarri duen irudiaren bindikapenarekin batera. Beste poeta batzuek, Iñigo Aranbarrik eta Jose Luis Otamendik, espresionismoan jarri dute, Paul Célan delarik lehenengoarentzat poesian lan egiteko abiapuntu nagusia.

Espresionismoa futurismoarekin nahastua agertzen da Koldo Izagirre-ren lanean. Baina idazle honen kasuan, zertzelada bakarrak ez du bere lan poeti-ko osoaren garapena hartzen. Kreaionismoaren eta surrealismoaren ondoan landu zituen bere lehen lanak. *Pastichea* egin zuen ondoren. Azken liburuak bere lana aurreko lerroetan marrazturiko irudira ekartzen du. Ttikitasunaren poesia deitu duenak garrantzi handia duela onartu behar badugu ere, berean sistemaren kritika egin ohi duenean, tradizioaz egiten duen irakurketa berebi-zikoa da. Arestiren irakurketarik gabe nekez uler dezakegu Izagirre-ren azken lana. Kulturari egindako kritikan begi zorrotza agertu du Izagirrek atzerantza egindako irakurketan.

Bestelakoa da Montoiaren jarrera. Poeta honek berrikuntza, edo proboka-zioa, maite du. Hizkeraren erabileran modernitatearen izpiak ahaleginik gabe etorriko zaizkio. Tradizioarekin loturiko elementuetan ere desberdintasunak ageri dira taldeko kideen artean.

Dena dela, idazle hauek mantendu dute beren buruaz irudi berezia: edo-zein arloren aurreko kritika. Maiakovski-k bere buruaz egin zuen irudiaz ari naiz. Poeta gizabanako berezi gisa ulertu nahi dute, edozeri eta edonori kriti-ka egiteko prest, teoriarik behintzat. Iñigo Aranbarrik idatzi duenez: “Maia-kovskiren indibidualismo iraultzailea bat etorri da iraultza proletariora, baina ez da berarekin nahastu... Maiakovski Iraultzarekin dago, ez alderdiarekin”. Hitz hauetatik sortzen den irudiak eta ereduak eratu dute poeta hauek ager-tzen duten jarrera.

Bosgarren atal batean sartu ditut literatur talderik ez, edo arnas handiko eta ibilbide luzeko, edo noizbehinka agerturiko poetak. Badakit jakin ez dagoena eskolarik. Hamairu poeta horiek estilo pertsonala egiten saiatu dira. Badakit tendentziak aurki ditzakeguna horien artean. Nabariena, ez dut ukatuko, tra-dizioarekin lotzeko idazleen artean agertzen da. Luis Berrizbeitiak, Joxe

Austin Arrietak eta Patziku Perurenak iragana bisitatu dute, gure iragan idatzia edo ahozkoa, neobarrokismoa proposatzeko edo aho-literaturan eta Leitzako errege-erreginen soinuan poesia babesteko. Klasikozaletasunaren eta aho-literaturaren eraginpean agerturiko moldeak dira idazle hauenak, nahiz eta ondoren bakoitzaren bidea bakarka ibiltzen dena izan.

Sinbolismoaren eragina nabaria da Patxi Ezkiaga edo Felix Zubiagaren moldeetan, baina harengan hain ondo ezagutzen duen poesia englandarrak irtenbideak eman baditu egunerokotasunaren hausnarketara, hausnarketa antropologikora, poema narratiboaren epika-ohiartzunera, honengan, berriz, sinbolismoak kristautasun-poesiaren moldeak ondu ditu Lizardi eta Lauaxetaren itzalpean.

Bada, baita ere, filosofiara hurbiltzen den poesia gure artean. Eta izenburu honen pean jar ditzakegu, adibidez Tere Irastortza eta Joserra Garzia. Baina zein testu diferenteak idazten dituzten! Tere Irastortzak, ibilbidea luzea egin du 1980tik gaur arte, euspen formalean mantendu ditu bere poemak, laburtasunean, Espainian “isiltasun poesia” deitu ohi denetik hurbil, poesia huts garbiaren bila, sugerentzian oinarrituz, hitzaren emotibotasuna eskuratu nahiz; begirada, intuizio, sugerentziaren bidez hutsarteak sortuz poemetan, zuritan geratu dena irakurlearen irudimenak bete lezan zirrikituak zabalduz, hisituki sortuz hizkera poetikoa; unearen poesia, ekialdeko poesiaren irakurketak bultzatua, minimalismo lirikoaren argi distira agertuz. Modu horrek badu agerbiderik ere, Ungaretti-ren eraginari esker, Joseba Urizarren lanean.

Bestelakoa da, nahiz eta filosofiak agindu, Joserra Garziaren emaitza poetikoa. Ironiak, ingenioak, gogo-zorroztasunak agintzen du bere lanean. Bertsolaritzaren paradoxa ikusteko beta izango dugu bere lanean, baina Zambranoren hitz poetikoaren jarrera bizia eta Enzesberger-en hausnarketa historikoak bestelako moldeak eratu dituzte bere poesian. Berea ez da estutzea, baizik eta hitz jokoaren uhinak sorturiko higiduraren joan-etorria.

Bizkaiko poeta bik, Andolin Eguzkitzak eta Luigi Anselmik ere, merezi dute hemen oharra. Nola bildu horien lana iritzi geografikoa alde batera utzirik? Eguzkitzaren bizikunaren poesiaren ondoan, Anselmik gauaren, hiriaren eta oroimenaren inguruko poesia sugerikorra idatzi du. Hark narrazioaren ezpala maite du. Honek lirikan biltzen ditu bere sen poetikoaren emaitzak.

Ez dakit, eta ironiarekin diot, taldeak eta tendentziak asmatzen hasi ote nintzen eta argialetxeen zerrendan ez ote dudan bukatu. Begira dezagun. Bizikunaren poesia egiten dutenek Erein eta Alberdanian argitaratu dute nagusiki. Iparraldekoek, ez denek, batez ere Maiatz inguruko Uhargi sailean agertu dira. Susak bere bide propioa erabili du, geroago eta autonomia handiagoaren bila bere entrepesa propioa sortu arte, lehenago Ustela sailaren



inguruan moldatu badira ere. Eta Pamielaren inguruan agertu dira Tere Irastortza, Berrizbeitia, Perurena, nahiz eta Elkarrek ere agertu dituen zenbait idazleren lanak.

Pottekoen abanguardia: hitzarekiko mesfidantza, isiltasunaren indarra; Pottekoen itzulera: poesia primitiboa, errealtateaz begirada bikoiztuak, Sarrionandiarena gartzelan agertua, Atxagarena konpromezu osteko egoeraz; bizikunaren poesia, haikuen estetika, esperientziaren etsipena, literaturaren eta artearen arteko lotura; erromantizismoa, *beat* belaunaldi galdua, Ekialdeko literatura; abanguardia: surrealismoa, espresionismoa, futurismoa; sinbolismoa; tradizionalismo joerak; minimalismoa; poesia eta filosofia: hona hemen aztertu dugun hamarkadako tendentzia nagusiak. Bada batasunik? Ugaritasunean dago batasuna eta Manuel Rivas-ek inoiz adierazi duenez: “Ez dago belaunaldi baten estetika, baizik eta adierazpenen ugaritasuna”. Agian, literatura autonomoaren eta konpromezuaren arteko eztabaida ziklikoaren gainetik, horixe, ugaritasuna, litzateke hamarkadak erakutsi duen aurpegi nagusia. Rivas-en beste esaldi bat aipatzearen, poesia egitea “jainko-ekintza eta deabrueria da era berean. Jainkoari hitza lapurtzea eta Deabruari arrazoia kentzea” bada, 80ko hamarkadan era askotara bete da eginbeharra hori: tradizioa joz eta tradizioa ukatuz; bat-bateko unea goratuz eta poema trinkoak moldatuz; norbanakoan atentzioa jarriz edo lurraren deiari erantzunez; bizikunean oinarrituz eta sistemaren kritika agertuz; isiltasuna goretsiz edo hitz jariora maitatuz.

Bada, hala ere, beste joera bat garrantzizkoa dena hamarkadaren barnean. Hamarkada postmodernitatearen erlatibismoaren gidaritzapean hasi zen: egia bakarra ez dela adieraziz eta Wittgenstein-ek esandakoari kasu eginik: “Ezagutzen ez dugunaz, hobe da isiltzea”.

Erlatibismoak, baina, nihilismo-joerak dakartza berarekin eta, laster, horren aurrean jarrera desberdinak agertzen joan dira: norbanakoaren esperientzia historikoaren agerpene izango litzateke lehena, bizikunaren poesia sortu delarik; konpromezu eta militantziaren fedea izango litzateke bigarrena: arrazoi politikoak kontuan hartuz, abangardiaren hizkera erabiliz, nihilismoaren aurreko erantzun bat asmatzen saiatu dira poetak; ikuspegi kritikoa izango litzateke moldatzen ari den beste joera. Erlatibismotik eta nihilismoaren eraginatik irten eta, agian, lilura nola eten lirateke poesiak aurrean dituen erronka nagusiak gaur egun. Era batez edo bestez, erantzuteko ahalegina nabaria da aspaldi.

Belaunaldi literarioetan sinesten ez dugunontzat, areago literatur belaunaldien azterketak poeta bakoitzaren irakurketa ilundu duela uste dugunontzat, beharrezkoa zaigu, poeta bakoitzaren irakurketa pausatua egin ondoren, dialektikoki talde eta tendentziez hitz egitea: zuhaitzen artean basoez ere hitz egin dezagun.

Gure artean bizi dugun tendentzien beste eraketa bi ere egin dira. Iñigo Aranbarriri eta Felipe Juaristiri zor dizkiogu hurrengo hauek.

Iñigo Aranbarririk lau talde nagusi markatu ditu:

a) Dialektika-poesia. Lehen hitz hori, dialektika, letra ttikiz idatzi beharko litzateke, poetak bere inguruko gauza ttikien deskubrimendua egiten duelako; nitasunera itzuli da, existentzialismoa desagertu da, sentimenduak gogo-hausnarketak baino garrantzi handiago du; poemaren taiukera grafikoak indarra hartzen du. Agian, horiek lirateke Koldo Izagirreraren poesian nagusitzen diren ezaugarriak eta haren jarraitzaileak bereak egin dituzte, nahiz eta hauengan molde desberdinak ikusten diren; ingenuitatetik matxinadara doan bidean, poemaren desakralizazio joeran eta Rimbaud-ek aipatu zuenez, “nire baitan ni ugari dira” esaldiaren onarpenean.

b) Poesia tradiziozalea, Miranderen eta Zuberoaren lilurapean egina. Luis Berrizbeitiak eta Juanra Madariagak oretuko lukete talde hau.

c) Poesia minimalista. Ustela sailean nagusi gertatu zena, eta ondoren, Valenteren eraginez, beste bide batzuk hartu dituena.

d) Metaliteratura. Literatur erreferentzietan oinarrituriko literatura. Potten lehen aldea horretan oinarriturik agertuko litzateke.

Felipe Juaristik ere eman dio arreta pixka bat gaiari eta honako mapa hau osatu du:

a) Poesia metaliterarioa. Atxaga eta Sarrionandiaren moldeetan oretua.

b) Poesia erlijiosoa. Talde honetan egileak poeta existentzialistak zein metafisikoak sartu ditu. Hiru izenek hartzen dute parte: Juan Mari Lekuona, Juan Mari Irigoien, Xabier Lete. Gainera Patxi Ezkiagaren izena gehitu beharko genuke.

c) Esperientzia poesia. Bere burua Igerabide eta Madariagarekin batera jarri du egileak. Estetizismoak, neorromantizismoak eta egunerokotasunak moldatuko luke taldea.

d) Poesia soziala. Ideologiak eta mezuak hartuko lukete garrantzia.

## **2. Hamarkadaren mapa marrazten: Orografia**

Poesia-talde edo mugimenduei buruzko ikuspegiak ez du guztiz agortzen gaia. Talde eta joerei buruzko ikuspegiak hamarkadaren barnean gertatu diren tentsioei eta kinkei buruzko berri ematen badu ere. Baina taldeei buruz marraztu dugun kostaldeko mapak bere arazoak ditu, geldoa da, urrunetik atera genukeen argazkiaren antzera. Eta literatura dinamikoa da, ikuspegi orografikoa behar du, gora egiten duten mendien eta behean dauden haranen berri eman beharko genuke, ikuspegia, pixkanaka-pixkanaka osatzeko asmoz.

Hasi aurretik esan beharko nuke ez dudala sinesten zenbakiaren magian, 80an, berez, ez da ezer hasten eta 1995. urtean, bat-batean, bukatu. Zen-

bakiaren balio pedagogikoa onartzen badut ere, kontuak bestelakoak dira. Artean horregatik hasten da lan hau 1976. urteko liburuak kontuan hartuz, eta 1977ko bat aztertuz eta 1978ko beste bat, eta jarraitu egin du hamarkadak 8a galdu eta 1990 urtetik aurrera 1995ean bukatuz nonbaiten jarri behar zelako muga. Baina bizirik dagoen zerbait aztertzen dugunez, onartu beharko dut irizpideak ere ez direla, han eta hemen, zehatzak eta saiatu naizela esku-zabaltasunez jokatzeko.

80ko hamarkadan agerturiko poetek ugaritasuna dute ezaugarri nagusi. Urte horietan sorturiko poetek (eta desagerturikoek) euskal literaturak eta poesiak inoiz ezagutu duten garairik oparoena osatzen dute. Eta hori nabarmenagoa da gaurko ikuspegitik.

Kalitatearen gaia alde batera uzten badugu, eztabaidaezina da literatur sistema baten sorrera, neurri batean, indartsua. Jaurlaritzak eman dituen laguntzei esker, argitaletxeen profesionalizazio joerei esker, sarien moldapenarekin —“esker” kendu dut oraingoan— eta irakurle-ikasle ugaritzeari esker euskal liburugintzak sistema kondensatua sortu du urteotan. Ez dut zalantza egiten narratibagintzaren eta hitz laxozko beste genero batzuren mesedetan gertatu dela sistema-bihurtze hori. Nobelek, ipuin liburuek, haur literaturak, bidaiia-liburuek, zinema edo rock-bandari buruzko erreportaiak prosaren gorpuzketa osatu dute. Sistema bihurtzeak batez ere prosari eragin badio, poesiaren mesedetan ere izan dela aitortu beharko genuke. Genero horretan, hala ere, beste eragin bat ere kontuan hartu beharko litzatekela uste dut: garaian poesia argitaratzeko dagoen gogoia. Ustela sailak edo Susakoek behin eta berriro esan zuten, eurek arreta berezia jarriko ziotela poesiari, inork kasurik egiten ez zionean, edo argitaletxeak poema liburuen plazaratzea urritzen hasi zirenean.

Literatur sistema oretzeak horixe esan nahi baitu azkenean, literatura eta komertzioa elkarri hurbiltzen hasi direla. Urteekin gauzak estutzen joan dira eta nabaria da 90eko hamarkadan literatura eta poesia, orohar, urriago kale-ratzen dutela.

80ko garaiari literatur aldizkarien hamarkada deitu zion Mikel Antzak *Susako* artikulua gogoangarri batean. Ikusiko denez liburuetan oinarrituko dugu gure azterketa, baina orografiaren mapa kronologikoa marrazterakoan, kontuan izango ditugu aldizkarien jaiotza-datak.

Euskal poesian Gabriel Arestiren magalpe editorialean sortu zen poeta talde bat. 68ko urte gatazkatsuaren ondoren 69an *Euskal Elertia* liburua argitaratzen da eta 72an *Euskal literatura* 72. Arantza Urretabizkaia, Ibon Sarasola, Mikel Arregi, inguru horretan kokatzen ditugu. Beste aldetik, *Ez dok hamairu* taldearen inguruan sortu ziren beste batzuk: Xabier Lete, Jose Anton Arze, Jose Anjel Irigarai. Bere bide propioa eragin zuen Mikel Lasa ezin dugu ahaztu giro honetan. Poesia sozialak ere eman zuen jokoia: Joxe

Azurmendi, Mikel Azurmendi. Poesia existentzialista ere sorturik zen: Xabier Azurmendi, Mikel Zarate. Juan Mari Lekuonak eta Bitoriano Gandiagak ere berrikuntza egin zuten bere poesietan eta giro soziala eta existentzialismoa landu, nahiz eta lehenagotik arituriko poetak izan. Hamarkadak aurrera egin ahala beste izen eta joera batzuk agertu ziren: Gotzon Aleman, Patxi Zabaleta, Iñaki Zabaleta, Kepa Enbeita, e. a.

Literaturaren autonomiaren alde, berriz, *Ustela* aldizkaria sortu zen lehenik eta Izagirre eta Atxaga banatu zirenean, *Pott*, ondoren, Bilbon.

Gure gogoetan 1968-1970 urteen artean poesia talde bat agertu zela dagoen moduan, era berean pentsatzen dugu *Ustela* eta *Potten* inguruan beste talde bat sortu zela, liburugintzan *Hitzik anitz idatzi dut*, *Etiopia* eta *Izuen gordelekuetan barrenari* esker hedatu zena.

Poesiari ekarri ziotena literaturaren autonomiaren aldarrikapena izan zen. Poesia sozialetik, Aresti mirestuz, urruntzeko saioa izan zen, Europako poesia berriarekin lotzeko ahalegina, ironia eta umorea erabiltzeko saioa. Norberaren militantzia ez zen zuzen literaturan azaltzen.

*Ustela* desagertu ondoren, Koldo Izagirrek *Oh Euzkadi* aldizkaria sortu zuen. Nahiz eta ez den zuzenean sorkuntzazko literatur aldizkaria, bere helburuetariko bat literaturaz hausnarketa egitea izan zen, Estatutuaren indarrez, instituzionalizazio prozesua gertatzen ari zenean.

1976tik 1981 urterarte, *Itsaso ahantziatik Izuen...* libururarte, abanguardia berri bat sortu da (Artzeren ahaleginetik desberdin), hitz poetikoak errealitatea adierazteko duen ezintasunaz hitz egingo dute, surrealismoaren irudia landu da, eta metaliteratura ere bai. Irakurketa askoren garaia da eta irakurketa horiek (Pessoa, Kavafis, Holan, Celan, Dylan Thomas eta beste asko) poema-lanetan agertuko dira.

*Potten* abangardiaren ondoan, eta 1977. urtetik aurrera, eta poeta gazteak argitaratzeko asmoz, *Ustela* sailari eman zion hasiera Koldo Izagirrek. Ondoren, minimalismo izenarekin, edo ttikitasunarekin ezagutu den mugimendua dator. Unean-unekoa azaltzeko poesia ttikiak dira, poema solteak *plaque*-tan bilduak, xumeak, intuizio poetiko baten agerbide. Talde nahiko zabala agertu zen hor: Azkue, Casenave, Egiguren, Garbizu, Korta, Lasa, Lizarralde, Otamendi. 1983. urtean bukatu zuen ibilbidea.

Baina artean, 1979. urtean promozio berri baten ahotsa izango zen *Susa* aldizkaria plazaratu zen Donostian EUTGn. Josu Landa, Iñaki Uria, Xabier Montoia, Mikel Hernandez Abaitua, Mikel Antza agertu ziren hor. Eta promozio berri bati hasiera eman ziotela esan beharko dugu 1983. urtean Xabier Montoiaren liburua, *Anfetamiña*, argitaratu zutenean.

Iparraldean 1982. urtean hasi ziren *Maiatz* aldizkaria argitaratzen, eta Uhargi sailarekin poesiari toki berezia eskainiz, 1984. urtean argitaratu zuten Itxaro Bordaren lehen lana.

Iñigo Aranbarrik ikusi duenez, berebizikoa gertatu da 1983. urtea. Gauza asko gertatzen dira urte horretan eta era berean: *Etiopia* berrargitaratzen du Ereinek, Susak argitaletxe ibilbidea hasten du, artean motel zebilen poesiaren argitarazio prosezua azkartzen da (1981an 4 liburu; 1982.ean 4 liburu; 1983. urtean 8; 1984an 12; 1985ean 18), lehenago poesiara hurbilduriko zenbait jendek poesia idazteari uzten dio eta beste zerbait egiten du: antzerkia, telebista, kazetaritza, prosara pasatzen da edo denbora-pasak asmatzen ditu.

1983. urtetik gerora garrantzi handia izango duen beste fenomeno baten hasiera ere gertatzen da: gartzelako poemak argitaratzen dira Puerto de Santa Maríako antologiaren bidez. Eta prosari dagokionez Sarrionandiaren *Narrazioak* liburuarekin Elkarrek bere literatura sailari hasiera eman dio.

1985. urtean eta Felipe Juaristiren *Denbora, Nostalgia* liburuari esker abangardiaren eta ausardiaren literaturaren ondoan, beste mugimendu batek indarra hartzen du. Sinbolismoa eta estetizismoa ez du ukatzen, eta Tere Irastortzaren liburuetatik hurbilean (1983: *Hostoak. Gai eta gau aldaketak*), esperientziak, fikzionalizazioak, narratibitateak tokia hartzen du poeman. Felipe Juaristiren inguruan beste zenbait literatur ekintza ere aipatu beharko litzateke. 1984. urtean Mikel Lasaren *Poema Bilduma* argitaratzen du Ereinek, eta Juaristik *Porrot* aldizkariaren ale berezia argitaratu zuen suizidoaren inguruan, ziurrenik Altaió abangardiazale katalanaren *Biothanatos* gogoan izanik. 1985. urtean eta Barojaren etxean *Literatur Gazeta* aldizkariaren jaiotza izan zen, Juaristik berak zuzentzen zuelarik.

1987. urtean panorama aldatuko duen *Marinel zaharrak* liburua argitaratzen du Joseba Sarrionandiak. Ordurarte, beharbada, panorama, gutxi gorabehera, honela zegoen. Atxaga, Izagirre eta Sarrionandia poema libururik argitaratu gabe. Joera sinbolista eta estetikoa agertzen da, ondoan abangardi eta konpromezuaren aldeko joerak, Ustelako zenbait poetak Susara igaro direlarik, surrealismoa indartu da. Poeta berriak ere agertuz doaz: Ezkiaga (1984), Nabarro (1985), Perurena (1984), Iturbide (1986).

Baina *Marinel zaharrak* konpromezua militantzia bihurtu du, eta haren ondotik etorriko da mugimenduaren teorizazioa: *Marginalia* (1988).

Koldo Izagirrek *Balizko erroten erresuma* argitaratzen du hurrengo urtean (1989). *Mudos blues de la nada* deituriko lanean (1990) gartzelan egindako poesiaz luze mintzo da, baina 1989. urtean Susak zenbaki berezia atondu zuen gai horren inguruan. Eta 1989. urtekoa da ere Iñigo Aranbarriren *Dordokak eta elurrak*, eta ezaguna da idazleak liburuari zentzu politikoa eman diola. Jarrerak aurrera egin du Sarrionandiaren liburuen bidez, *Gartzela poemak* (1992), *Hnuy...* (1995), Mikel Iburgurereen poema liburuarekin (1996) eta prestatzen ari den gartzelako poemien antologia baten bidez.

Beste alde batetik, 1987. urtea: “Idazle guztiak aztoratu ziren urtea” non-bratu zuen Felix Ibagutxik euskal idazlegoaren barnean gertatzen ari zen kri-

sialdia aipatuz: Jon Juaristik *Antología de la narrativa vasca actual* kritikatu zuen. Azkargortak Atxagaren, Iturraldere eta Ordorikaren *Henry Bengoari* burgesa iritzi zion. Pako Aristiri ez zitzaion atsegin Urretabizkaiaren *Saturno*. Saizarbitoriak Aristiren jarrera kritikatu zuen, gazteen puritanismoa. Joxerra Gartziak Laura Mintegiren idazkeraz gogarteak egin zituen. Asturiaseko Verinesen egin ohi den topaketaren ondoren, Jon Juaristi euskal literaturaren artifizialtasunaz mintzatu eta gero, eztabaida sortu zen Mikel Hernandez Abaituarekin. Valentzian eraturiko Galeuzcan ez ziren eztabaidak falta izan: askatasuna eta zentsura ulertzeko modu desberdinak agertu baitziren bertan.

1987. urtetik aurrera gauzak ez dira nabarmenki aldatu. Autonomia eta konpromezuaren arteko kinkak indarberritzen badu euskal poesiaren eremua, 1987. urtetik aurrera konpromezuaren molde berriak ikusi ditugula aipatu behar. Baina noiz arte? Badugu mugarik? 1987. urtetik aurrera ikusi dugu nola garatzen den Sarrionandia eta Izagirreraren lanen bidez konpromezu alorra. Baina beste bide batzuk ere zabalik daude. Garai hauetan zenbait poeta prosara itzuliko da (Juaristi, Omar Nabarro, beranduago Iñigo Aranbarri bera), haur literaturak hartzen zuen esparru zabalaz hitz egiten hasten dira idazleak, itzulpenen garrantzia ere hor da.

Poesian ahots berriak agertuz doaz: Mari Jose Kerexetak eta Juanra Madariagak bide berriak —agian, intimoagoak eta xumeagoak formari errepatur gero— eskaintzen dizkie esperientzia poesiari. Ahamendabururen izena ez nuke ahaztu nahi. Baina esperientzia poesiak, badirudi, jarraitu egin duela bide bilustuago, garbiago, xumeago batetik 90. hamarkadan Gerardo Markuleta, Rikardo Arregi, Pardo eta beste zenbaiten lanen bidetik. Kerexetak eta Madariagak 1989. urtean argitaratu zituzten beren lanak eta sentsibilitate berri bat agertuz zihoala eman zuen, ondorengo urteekin eta promozioekin bat egingo zuena.

Urte berekoa da, gorago esan dugunez, Izagirreraren *Balitzko...* liburua ere. Eta Harkaitz Canoren hitzak ekarri nahi nituzke hona egoera baten adierazgarri. Canok defendatu du bere literatura Atxaga eta Izagirre besarkatuz sortua dela. Aitorpen hori gertatu arte urte batzuk igaroko badira ere, 1989. urte berean gertatzen da neurri batean euskal literatura aldatu duen ekintza sozio-literarioa: Bernardo Atxagari Narratiba Sari Nazionala eman zioten *Obabakoak* liburuagatik.

1987. urtean hasitako epe berriak badu ikusle berezirik bidean. 1991. urtean argitaraturiko artikulua batean Jose Luis Otamendik “transitoan” zela poesia idatzi zuen. Berezia da berak aipatzen duen esaldi hau:

Gogoeta sasoiak izan da: poesia nondik nora dabilen, joerak finkatzekoa, bandera zahar edo berriak jaso eta hildakoei maitasuna aitortzeaz bat lur ematekoa... 90-91tik aurrera ezingo da poesia berdin idatzi.

Otamendiri kasu eginik, 1987tik 1991raino luzatuko dugu gure garaiaren epea. Eta arrazoa izan zuen, 80ko hamarkadan poesia idazten hasi zirenek ez zuten berriro berdin idatzi. Atxaga itzulika hasi zen, poesia teorizatu egin zuen, baina narratiban errealismorantzako joera eman zuen.

Sentsibilitatearen eta esperientziaren poesian aritutako Felipe Juaristik eta Juan Kruz Igerabidek askoz ere poesia intelektualagora jo zuten. Madariaga ere autobiografismotik irteten saiatu da. Joxe Austin Arrietak neobarrokismotik harago jo nahi zuela adierazi zuen. Sarrionandia *Hnuy...* liburuan gartzelako poemaz gain beste bideak esploratzen abiatu da, maitasun gaiari bide berriak emanez. Tere Irastortzak findu egin du bere idazmoldea. Baina nork aldatu du zeharo bere poetika? Otamendik berak. 1995. urtean *Lur bat zure minari*, nire ustez azken urteotako poema libururik hunkigarria ez ezik teknikoki borobila eta handienetakoa, argitaratzen duenean zeharo aldatu du estetika: inpresionismotik espresionismora doan bidean, barne sentimenduetatik ikuspegi orokor eta gotorrera eman du pausua.

Arrazoa izango zen berdin idatzi, batez ere 1991. urtetik aurrera ezin izango zelako berdin argitaratu. Guggenheim museoaren eraikuntza eta krisialdi ekonomikoaren subentzio murrizketa bide direla urritu egin da literatura-liburuen argitarazioa, gehiago poesian, eta nabermenago oraindik poesian izen berrien agerpenean. 8 liburu 1994. urtean; 10 1995ean; eta 8 1996enean, bilduma eta berrargitarazioak barnean izanik. Argitaletxeek zorrotzu egin dituzte irizpideak, baina sorkuntza arazoa ere ba omen dago, ez omen dira originalak heltzen argitaletxeetara; hala izango da, ez dakit, sariketak ere husturik agertzen dira aurten (1996. urtean). Gorka Setienen hitzetan esateko:

Literaturaren historian gazteenak izan ohi dira beti sektorerik dinami-koena, krisiak sortarazten dituena. Gaur egun, euskal literaturan, idazle gazteenek ez dute konpromezu hori hartzen.

Eta hori argitaletxe bateko arduradunak dio...

Agian musika-taldeak dira poesia agertzeko modu berriak, kanta-letren bidez. Agian liburua ez den moldea aukeratu du poesiak: kantua, poema-errezitaldia...

Laburpen gisa, nik uste, eta beste norbaitek periodizazioa berritu arte, lau aro nagusi jar ditzakegu hamarkadan poesia idazten hasitakoen lana, "hamarkada" hitzari eman diogun zabalpena, kontuan izaki:

1) 1977-1983: Poesia mugimenduaren definizio puntua. Abanguardiarren agerpena. Lau izen: Koldo Izagirre kreazionismoaren ildotik; Manu Ertzilla hitzaren ezintasuna agertuz; Bernardo Atxaga *Etiopia* liburuarekin egindako iraultza poetikoa; Joseba Sarrionandia intertestualitatearen eta kulturalismoaren bidetik abiatuz. Ttikitasunaren poesia: inpresioen agerpena, poema xumeak, egunerokotasunaren agerpena, giro urbanoa, sugerentzia, hitzaren motibo

sentsuala, hitz joko. Gerora, Tere Irastortzak eta Jose Luis Otamendik, garapenarekin, biek mantendu dute poesia lana.

2) 1983-1987: Moldeen aldaketa. Esperientzia poesiaren agerpena: F. Juaristi, A. Iturbide, J. K. Igerabide. Susa argitaletxearen fundazioa. Montoiaren lanaren argitarazioa. Poesia liburu argitaratuen ugalketa. Ezkiagaren lehen poemak argitaratzen dira. Moldeen ugaritasuna da nagusi, eta ezin da esan mugimendu bat besteen gainetik dagoenik. Joera neobarrokoak eta tradizionalak agertzen dira. Poesiaren autonomiak indarra hartzen du, eztabaidarik ez bada falta ere.

3) 1987-1991: Sarrionandiak *Marinel zaharrak* argitaratzen du. Hurrengo urteetan poesia militanteak indarra hartuko du, eta nagusi agertuko da. 1989: Aranbarrik *Dordokak eta elurrak* eta Izagirrek *Balizko erroten erresuman* poema liburuak argitaratzen dituzte. Gartzelaren gaia, eta gartzelan egindako poesiaren jarraibidea.

Esperientzia poesia eta intimismoa poeta gazteen lanaz hornitzen dira: Kerexeta, Madariaga, Imanol Irigoien. Sentsibilitate baten lehen arnasak lirateke, beharbada, hemen agerturikoak eta 1990. etik aurrera ere indartuko direnak.

4) 1991-...: Argitarazioen beherakada. 80ko hamarkadan poesia idazten hasi ziren idazleek berplanteamentua egiten dute. Batzuk (Aranbarri) prosan saiatzen dira. Modu berriak idazleengan: pentsakizun joera, apologoa eta errefrau moldeak: Juaristi, Igerabide. Espresionismoaren indarra: Otamendi.

1995ean bukatu da, egia esan ene gogoz, lan honen muga artifizial hori, nonbaiten bukatu behar nuen-eta 80a baino lehenago abanguardian eta 80 hamarkadan poesian hasi ziren idazleen lanen irakurketa hau.

Aurreko orografiako mapan hamarkadan poesiak izan dituen kinkak, barne-kinkak, zehazten saiatu naiz, poesiaren sorkuntzaren garapena bere barne-bizitzan ikusiz. Guztia aitortu beharko banu ez dut kontuan izan, eta horrek ere mapa aldatu lezake, aurreko belaunaldiko idazleek izan duten eragina. Nola neurtu Gandiagaren *Hiru gizon bakarka* liburuaren berrargitarapenak egin duen eragina edo Joxe Azurmendiren *Manifestu atzeratuak* izan duen irakurketa? Nola adierazi Juan Mari Lekuonaren *Mimodramak edo ikonoak* liburu enetzat gailurrak, besteentzat ilunak, ekarri duen joera idazleengan? Zer esan itzulpenez? Uxio Novoneyra-k sortu du poetarik? eta Auden-ek? Poeta bakoitza irakurtzen dudanean ez dut alde batera utzi intertestualitatearen arazoa, baina, jakin arren poeta batek ez duela soilik irakurtzen bere garaikidea, oraingoan nahiago izan dut barne bizitza hori, arazoz betea, agertu. Arazoz betea diot poeten adierazpenak ere kontraesaka ari direlako. Kontraesaka, bai, eta ez soilik militantzia, konpromezua, estetizismoa, autonomia hitzak ahora dakartzatenean, nork eragin dion aipatzerakoan ere bai. 1987an ala 1989an, non dago muga? Sarrionandia ala Izagirre? Idazleek



Izagirreraren eragina (Cano, Aranbarri) aipatzen dute, nik egin ditudan inkestetan, irakurleek Sarrionandiaren poesia aipatzen dute.

Bizi gaituen aro bat da. Bakoitzak bere biografia du, bere oroimenaren aztarnak geografian ondo erroturik. Proposamenak izango al du zuzenketa-rik?

### **3. Hamarkadaren mapa marrazten: Talaiako ikuspegia**

Garaikideen arteko poesiaren barne garapenak eraginda marraztu dugu aurreko mapa. Gauza asko gertatu da hamarkada horretan. Denok dakigu literatura ingurugiro historiko batean mugitzen dela. Hamar-hogei urte hauetan badaude mila gauza esateko. Badago Euskal Herrian dialektika historiko bat, badago Espainian beste bat, Mundu osoan beste eginkizun bat dagoen moduan. Hiru errota dira ardatz baten inguruan mugituz. Historiaren ikuspegia hartuko bagenu, agian, jarritako lau epe horietan zehaztapenak agertu beharko genituzke. Goazen bada, garaia alde historikoaren ikuspegitik begiratzeraz.

1) 1978-1983: *Etiopiaren* argitarazioarekin zabaldu dugu garaia. Historian beste zenbait gauza gertatu dira. 1978an Espainiako Konstituzioaren Erreferenduma egiten da: giza-askatasun politikoak onartzen dira, Monarkiarekin batera, Autonomien eraketa sortzen da Estatuaren moldapenean. Autonomia Estatua 1979an onartzen da, Demokraziaren instituzionalizazio-prozesua indartzen delarik. 1981ean, ordea, Tejeroren Estatu Kolpea gertatzen da eta badirudi, gau batez, XIX. mendeko mamuak solte direla kaleetatik. Argitarazioen aldetik 1983ko muga jarri badiogu poesiari, 1982. urtea berezia da politikan: PSOEk Hauteskundeak irabazten ditu, eta agian Espainiako alde historikoari begiraturaz, hauxe litzateke une egokia muga jartzeko.

Baina euskal poesian, eta historian, eragin latza eta garratza izango duen unea da 1983: GALen terrorismoa agertzen da urte horretan Segundo Mareyren bahiketarekin.

2) 1983-1987: 1986ko urtea berebiziko da, eta nolabaiteko eragin handia izango duena gure barnean eta gure bizitzan. 1985. urtean Espainia Europako Batasunean sartzen da. 1986. urtean Yoyesen aurkako atentatua da, PNVren zatiketa urte horretan izan zen eta EA eregi zen. Eragin eta une bereziak sortzen dira euskal abertzaletasunaren barnean. Eta, agian, 1987ko literatura emanaldia indarkeri egoeraren ondorioa litzateke. Batetik GALEk erahilkete-kin jarraitzen du, bestetik Hipercor-en atentatua egiten du ETAK.

Idazle bakoitzaren lana aztertzen dugunean, ikusiko dugu 1987an azpimarratu dugun joera lehenago hasia zela, eta bazetorrela. Baina dinamikoa den prozesuan urteak bata bestearen ondorio besterik ez dira.

3) 1987-1991: 88an Ajuria Eneko Hitzarmena sinatzen dute alderdi politikoek (Herri Batasunak salbu). Urte berean Amedo eta Dominguez prozesatzen dituzte GALaren erakuntzaren eta sei hilketaren ardura leporatuz. 89an Argeleko bake prosezua zabaldu eta hersten da. Urte berekoa da Muguruzaren hilketa Madrilan. 1989an Berlingo harresia jausten da eta Komunismoaren Estatu burokratikoak desegiten da.

1991. urtean ONUk eraturiko Nazioen Arteko ejerzito batek Irakekin gerra hasten du. Maastrich-eko Tratatuak onartzen da. Gainera, Espainian berandurarte nabaritu ez den krisi ekonomiko gogorra zabaltzen ari da Europan. Uda hartan Moskun komunistek Estatu kolpe bat eratu zuten.

Gugandik hurbilago urte horretan Bilbon eratuko den Guggenheim museoaren onarpena egin zuen Eusko Jaurlaritzak. Krisiarekin batera horrek kultura sailak kultur laguntzari eskainitakoa murriztu omen du. Arrazoia zein den zehatz ez badakit ere, argi dagoena da urte horretatik aurrera euskal literaturaren argitarazioak kopuruz behera egin duela.

4) 1991-...: Gaur arte historiak mila itzuli eman ditu eta gogoratu nahi nituzke ekintza nagusi batzuk. 1991etik aurrera ustelkeriaren agerpena egin izan da instituzio desberdinetan, GALen arazoa eta Roldanena direlarik entzutetsuenak. 1992a Olinpiaden urtea da eta Demokratek Estatu Batuetako lehendakaritza lortzen duten urtea. Bidarteko atxiloteta. Pazifismoaren eraginpean Bakearen Aldeko taldeak zabaltzen dira Euskal Herrian.

1992ak, baina, Sarajevo dakarkigu, giza ankerkeriaren agerbiderik larriena.

1994. urtean Chiapas-eko altxamendu indigena gertatzen da. Gerra osteko abertzaleak Israel eta Txipreko borroka liluraturik agertu baziren, eta betikoak Irlandaz, gaur egunekoek lau erreferentzia puntu dituzte: Kuba (1994an gertatu zen ihesaren ondoren, 1995ean euskaraz Kubari buruzko hainbat liburu argitaratu dira), Nikaragua (sandinista zenean gorago zegoena), eta Chiapas. Ez da ahaztuztekoa Palestinoen Intifida (1987). Nahiz eta Arafat-ek bakea sinatu, Intifidak eman du eredurik gure artean dagoen "biolentzia hedatua"ren moldapenean. Ez dakit zer ikusirik duen PPK hauteskundeak Espainian irabazteak zikloak eratzeko orduan, lehenago esan dudanez 1995eko muga lan-interesez jarritako muga da, Sarrionandiaren liburu berriaren agerpena profitatuz.

Guzti horiek egin eta moldatu gaituzte. Badakit, hala ere, historiagile baten lana dela sintesia egin eta sortzea, adieraztea noiz eta zenbaten izan duen guzti horrek bizi dugun bizitzan. Ni ez naiz historiagile, eta, gainera, ziur nago oraindik asko faltako dena datu guztion ikerketan eta ondorioen zehaztapenean. Gurea, gaurkoan, aipatzea besterik ez da, literatura kontestualizatzeko asmoarekin, eta, halaber, aipatzea soilik geratzen zaigu, interpretazio biderik eman gabe.

Onartu beharko genuke, beste aldetik, historiak eta politikak soilik ez gaituztela egiten eta gizartea aldatu egin dela 1978tik hona. Aldizkarietan “Gizartea” titulupean agertzen den guztiak zerikusia izan du gure bizitzan. Poesian agertu edo agertzearen diren hainbat gai ekarri nahi nituzke orain, hona ekarri besterik ez, ikuspegiaren osotasunaren mesederako. Feminismoarena eta emakume idazleena litzateke lehena. HIESaren birusaren agerpena. Homosexualitatearen joerak, poesian ere badirenak. Sexualitatearen aldaketa, antisorgailuen hedapena. Telebista eta Komunikazioaren globaltasuna. Internet-en jaiotza. Ruanda, Burundi eta Zaireko triskantzak eta errefuxiatuen arazoa. Integrismoaren gorakada, Iraneko estatutik Argeliako triskantzara.

Ekologiaren eta berdeen pentsakizunaren eragina.

Corputzaren gurtzearen eta hedonismoaren agerpena. Gosea munduan.

Ikuskizunaren garaia omen da gurea, gaur, Erdi Aroan katedralak eraikiko bagenituzke bezala, futbol zelai erraldoiak, Olinpiadetarako atletismo estadioak altxatzen omen ditugu. Gure garaiaren ezaugarria omen da. Modernitatearen eta postmodernitatearen arteko kinkan, Gellner-ek idatzi duen bezala, aro berria agertzen zaigu aurrean, erlijio, postmodernitatearen eta arrazoiaren artean.

Ateak zabalik daude. Inork ez daki nolakoa izango den etorkizuna.

## **Azken oharra**

Irakurketaren mesedetan ez da notarik jarri testuaren barnean. Aipamenak idazlearen abizena, liburuaren argitarazio-urtea eta orrialdea parentesi artean jarriz egin ditut.

Aspaldi honetan jarraitzen dudana ohitura ez apurtzearen, *erabilitako* bibliografia atalaren bukaera eman dut, eta *ezaguturiko* bibliografia zabalagoa liburuaren azken aldean. Horrela atal bakoitzak berari dagokion bibliografia darama.

Poeten lanen txatalak aipatzeko orduan liburuen anagramak erabili ditut (E: *Etiopia*, IGB: *Izuen gordelekuetan...*), eta ondoan orrialde zenbakia. Poeta bakoitzaren sorkuntza lanen zerrenda atalaren bukaera aurkituko du irakurleak.

Bibliografian hiru atal bereizi ditut: poetaren sorkuntza-liburuen bibliografia, poetak idatzi eta argitaraturiko poetiken bibliografia eta aipamenak bildu ditut azkenean. Aipamenok euskal prentsan bilatu eta bildurikoak dira. Baina, sarritan, kanpoko bibliografiarekin batua agertzen da.

Poemen aipamenak luze eman ditut. Baina, noiz edo noiz poema barruko (edo aipu barruko) zatiren bat ez dut transkribatu, eta jauzia gertatzen da poemaren barnean. Horrelakoetan puntutxoak (...) erabili ditut testua osorik ez

dagoela adierazteko. Euskal poesian ez dira usu agertzen, eta horregatik parentesi artean jarri gabe erabili ditut. Idazleak, baina, puntxoak erabiliz gero (Luigi Anselmiren kasuan adibidez) orginalak aske doaz eta jauzia adierazteko darabiltzadanak parentesi artean doaz. Noizbait, gutxitan, okerrik sortuko balitz barkamena eskatzen diot idazleari.

Idazketa prosezua luzea izan du lan honek, eta inoiz argitaragabea zen lanen bat erabili izan dut eskuarte; liburua bukatu dudanerako haietarik zenbait argitaratu egin dira. Egunean jarri ditut jakin izan dudanean, Felipe Juaristik euskal poetez zabalduko lanak izan ezik. Argitaratuak direla jakin arren, gehienek aipamenak ez ditut aurkitu eta aipamen gabeen zerrendan utzi ditut.

*Laukariz, 96-11-25*

LEHEN ATALA



POTT BANDAREN POESIA



## DESERTUA, OIHANA ETA HIRIA

Las dictaduras fomentan la opresión, las dictaduras fomentan la crueldad; más abominable es el hecho de que fomentan la idiotez. Botones que balbucean imperativos, efigies de caudillos, vivas y mueras prefijados, muros exornados de nombres, ceremonias unánimes, la mera disciplina usurpando el lugar de la lucidez... Combatir estas tristes monotonías es uno de los muchos deberes del escritor.

(*J. L. Borges*)

### Sarrera

Lan honetan Bernardo Atxagaren poesian agertzen diren giltzarri zenbaiten azterketa egin nahi dugu. Sinbolo horiek gurutzebidean dagoen pentsabide bat adierazten dutela uste dut, eta zuzen seinalatzen dute mundu ikuskera berezia, idazleak bere lanean sortu duena. Poesia aztertzea erabaki dut, eta ez narratiba, poesian argiago geratzen direlako sinboloen esanahiak eta poetaren mezu sakonak, nahiz eta noizbehinka narratiba aipatu beharrea aurkituko naizen.

### 1. Bizitza zertzeladak

Bernardo Atxaga, Joseba Irazuren ezizena, Asteasun jaio zen 1951. urtean. Datu xume honek bere garrantzia du, zeren jaioterria bihurtu baitu bere narratibaren espazio-kokapen Obaba izenaren pean. Obaba Asteasuren mixtifikazioa eta mitifikazioa besterik ez da. *Obabakoak* lanaren lehen zatian kokaturiko ipuinek asko zor diete idazlearen haurtzaroari eta bere autobio-

grafiari. Atxagaren amak, adibidez, herri horretan maistra izan zenak, lotura egin du idazlearen bizitzan herri kulturaren eta kultura jantziaren arteko zubia eraikitzerakoan. Badakigu, baita ere, idazleak liburutegi publikoetan asko irakurri zuela, eta bere haurtzaroko irakurketok —Stevenson, Melville, Conrad— bere lanaren sorbururako erabili zituela.

Ekonomiako karrera Bilbon ikasi ondoren, Banketxe bateko lana utzi eta Bilbora itzuliko da, Pott Bandarekin batera literatur lanean murgiltzeko. Ez zen, hala ere, bere lehen literatur lana, 1975. urtean Donostian, eta Koldo Izagirre eta Ramon Saizarbitoriarekin batera *Ustela* aldizkarian parte hartu baitzuen.

Pott bandak (partaide nagusiak Jon Juaristi, Joseba Sarrionandia, Josemari Iturralde, Manu Ertzilla eta Ruper Ordorika ziren) literaturaren autonomiaren alde egin zuen, eta ordurarte literatura sozialaren alde egiten zuen euskal panorama berri zuen. Literaturaren autonomiak bultzatu zituen Italo Calvino-rengana edo Oulipo taldeko idazleengana hurbiltzera. Pott bandak hitz joko eta irudimen munduaz interes berezia agertu zuen.

Poesia sozialak agintzen zuen giroan, literaturaren autonomiaren alde agertu ziren taldeak bizirik iraun zuen lehen aroan, 1978-1983 urteen artean. Ondoren, taldea banatu zenetik, bakoitzak bere bidea hartu du, eta konpromezua, hitzaren zentzu desberdinetan, agertzen joan da idazle bakoitzarengan. Jon Juaristik bere konpromezua agertu zuen nazionalismoari eta arrazoi nazionalari egindako kritikan. Joseba Sarrionandiak, beste muturrean, ETAn militatu ondoren, arrazoi pertsonal eta politikoengatik literatura eta politika uztartzen joan da bere lanean, poesia militantearen aurrelari bihurtu arte.

Aldaketa-joera horretan Atxaga ere bere burua giro politikoan agertzen joan da. Ohiko bihurtu da esatea aro bi direla bere lanean, bata *Etiopiaren* ingurukoa, poesia autonomo eta abanguardiarren aldekoa, eta beste bat plan-teamendu politikoetara hurbiltzen dena. *Henry Bengoa Inventarium* adibidez, ezin da ulertu jarrera politikoak kontuan hartzen ez badira.

Lehenago beste lan umotu batzuk argitaratu bazituen ere, Atxaga *Etiopia* argitaratu ondoren egin zen ezagun euskal irakurleagoaren artean. 1983. urtean Bartzelonara joan zen Filosofia ikastera eta ikasketa horiek lagunduko diote estetikan sakontzen eta irmoago adieratzen bere literaturaren oinarria.

1988. urtean *Obabakoak* lana plazaratu zuen eta bide berriak zabaldu zitzaizkion: irakurleago zabalago batengana heltzeko aukera izan zuen Espainiako Narratiba Sari Nazionala irabazi ondoren eta Europako hizkuntza nagusietara itzuli zutenean.

## 2. Bernardo Atxagaren poesia

Bernardo Atxagaren lan poetikoa ez da oso zabala. *Ziutateaz* liburuan agertu zen zenbait poema. *Etiopia* liburua etorri zen gero (1978). Eta erda-



rara itzulpena egin zuenean, *Poemas & Híbridos* deitu zuen liburua, eta aurreko poesia lana berrordenatu zuen. Testu horrek *Etiopian* agerturiko poemak hautapena egin du, poemarik abanguardistenak alboratuz, eta balada itxura dutenak aukeratuz, rock taldeentzat egindako abesti letrak argitaratu ditu, eta *Henry Bengoa Inventarium* errezital testua sartu du. Azken sail bion agerpenak badu zeresanik poesiaren ulermen mailan. Dylan Thomas poeta galesaren antzera, Atxagak ere badaki gaur egun poesiak bizi nahi badu espektakuluan, ikuskizunean bizi beharko duela, ez liburuetan, baizik eta kontzertu antzeko eraketetan, ez irakurketan, baizik eta entzumenean. Abestiak eta *Inventariuma* entzuteko testuak dira, ez bakarrik irakurtzekoak, taldean gozatzekoak baino.

1990. urtean, Donostian Euskal Herriko Unibertsitateak eratzen dituen Udako Ikastaroetan emaniko hitzaldi batean, Atxagak ideia berria eman zuen bere poesiari buruz. Han esandakoaren arabera, atzeraka hasia zen. Esan nahi da, abanguardia alde batera uzten eta poesia primitiboaren sinpletasun, abestiaren argitasun, eta bat-batean ulertzen den poesia baten alde eginik.

Sinboloei buruzko gure lanean ere ibilbide hau kontutan hartu beharko dugulakoan gaude.

### 3. Nire bihotzak muga latzak maite ditu

Atxagaren poema giltzarri bat honela hasten da:

Bizitzak ez du etsitzen  
ezpada muga latzetan;  
ezpadu Oihanarekin egiten amets  
egiten du Desertuarekin.

Eta hala, Iraila Garo Gorridunak  
soilik Elur, soilik Otso,  
Barren zabal eta izoztu  
izan nahiko zukeen... (PH, 16)

Mugak agertzen dira horrela lehen sinbolo giltzarri gisa, Atxagaren fantasia eta sormen ahalmena piztuz. Desertuak eman zion izena bere lehen liburuarri, *Etiopia* ez baita desertuaren bigarren izena baino. Eta liburua horrela deitzen da, askotan aipatu den legez, hitz joko bi ezkututzen dituelako bere barnean.

1) *Etiopia* desertua da, harearen eremua, lur mortua. Iñigo Aranbarrik erakutsi zigunez, Celso Emilio Ferrero-ri jarraituz Atxagak idatzi zuen:

Harea lurrik anonimoena.

Eta horrela gogoratuko du bere poema batean:

Gauero ez da harea baino geratzen  
Ilargi krudelaren azpian.

Harea hori poesia sozialaren sinbolorik nagusienaren ironia da. Gabriel Arestik, gaurko euskal poesiaren fundatzaile eta aita freudianoak, Euskal Herria sinbolizatzeke harriaren ikurra erabili zuen. Hareak jadanik ez den harria adierazten du, harri desegina, harri joa, harri desagertua, “mila ispilutan multiplikatur”, Eliotek idatzi zuenez: “A heap of broken images”, mila zatitan egindako harria da harea: egoera baten jeiskera. Harri ez den gauza da harea.

2) Utopiaren ordezkoko erretrukea da *Etiopia*:

Hareaz eginak desparadisuen zutabeak

idatziko du Atxagak. Harea desparadisuen tokia da, utopia paradisuarena den bezalaxe. Utopiaren ideia galdu dela gogoratzen du hareak.

Badu oraindik hirugarren interpretaziorik ere *Etiopiak*. T. S. Elioten *The Wast Landen* itzulpena besterik ez da: lur mortuarena, eremuarena. Hain zuzen ere, modernitatearen zatiketaren eta agortasunaren erakustoki.

*Etiopia* desertuaren eta harearen sinboloen inguruan eratuko da bere bederatzir zirkuluetan, Etiopiar heldu arte, *descensus ad inferos* bat osatzen delarik.

Beste lan batean gogoratu dut nola lotzen den poesia lan hau Rimbaud poeta frantsesaren irudiarekin. Liburuaren eraketan parte handia hartu du Rimbaudek. *Etiopia* horrela, poetak Somalian bizi izan zuenarekin lotuko litzateke, hau da, inspirazio poetikoaren agorrarekin. Atxagak Rimbaud maite du, baina Rimbaud surrealista, liburuan behin baino gehiagotan aipatzen den poeta, eta poesiaren zeregina arbutzen duen Rimbaud trafikatzailea. Biak dira presente liburuan: poesian sinesten duena, eta poesiaz beste egiten duena.

Isaiah Berlin ideien historiagileak zera ikusi du: utopiaren galera gure mendebalde honetan erantzunezina zen egiaren ideien desagertzearekin lotua izan dela. Idealaren munduaren aurrean errebeldia gertatu da.

Utopiaren ideia beste guztion elkarkidetzan oinarritzen da:

a) Benetako arazoarentzat benetazko irtendibe bakarra dago, eta bat bakarra gainera, beste guztiak egiaren desbideraketak direlarik, eta, beraz, faltsuak...

b) Bada irtenbide zuzena agertzen duen metodorik.

c) Benetako soluziobide guztiak elkargarriak dira. Ezin dute elkarren kontra joan, zeren benetako proposizioak ezin du beste benetako proposizio batekin elkar jo, denen artean osotasun armonikoa osatu behar dute.

Idea guztion lotura silogistikoek utopiaren izaera ziurtatuko lukete.

Baina erromantizismoan beste ideia berria agertzen da: irtenbide zuzen guztiak ez dira elkargarri: eta beraz, egoera guztietarako baliogarri den soluziobidea aurkitzen ez da erraza.

Horrek guztiak erlatibismoa dakar. Eta erlatibismoaren ideia —nolakoak egoerak, halakoak irtebideak— da Atxagak liburuaren hasieran aurkezten duena. Aipu berezi batek ziurtatzen du hori guztia:

Utopia guztiak hain zikoitzak ez balira hemen.

Liburuan, baina, eta aitortzea on da, hiru hasiera desberdin aurkitzen dira. Kontakizun bik hasten dute lana eta batek bukatu. Lehen narrazioak Kain eta Abelen kontakizuna hartzen du gaitzat, eta Kainen ondorengo gisa aipatzen ditu poetak. Bigarrenak Piolet deitzen den poeta bati buruz hitz egiten du, eta isurtzen den tesiak poeta modernoa Pioleten gisakoa dela dio, bere buruaz beste egiten duela, bere lanak ez duela ezertarako balio ikusten duenean. Pioleten gisakoa da poeta modernoa, gizartearen beste aldean dagoen gizakia. Baina Atxagak, Pioleten gisakoa denak, eginkizun poetikoaren alde biak hartu ditu kontutan: ez du oihartzunik, baina erak eta moldeak hautsi behar ditu irakurleko zabal batengana heltzeko asmoz.

Poemak hasten direnean, egiten den lehen baieztapena hauxe da:

Hautsi da ANPHORA

Anfora, osotasun, batasun, tradizio klasikoaren sinbologia, hautsi da, bat eta bakar denaren sinbologia zatitu da.

Testu honek erlatibismoa plazaratzen du, eta horretaz behin eta berriro aipatu da Wittgenstein filosofoaren eragina, filosofoaren irakurketa zuzenak baino gehiago, testuaren eraketan izan duen garrantzia.

Desertuak, eta berarekin batera agertzen den agorreria, erlatibismoaren ikur dira, testuan nagusitzen den erlatibismoaren sinbolo. Baina agorra esanahi biko zeinua da. Gaiarekin lotua da, eta lotua da hizkeraren tratamendua-rekin.

Eta halaxe da, *Etiopiako* hizkera agorra da, agorra estetizismoa ukatuz, agorra jakinaz sentimentalismoa ez dela poesia egiteko modurik onena. Wallace Stevensen hitzetan esateko: “Sentimenduaren frakasua da bihotzberatasuna”. Erromantizismoa ukatuz: “Ez da posible lehen pertsonan mintzatzeari” esango du Atxagak; estetizismoa ukatzen duen hizkera ironikoa erabiliko du idazleak.

Abanguardiarren bidetik, erregistro ugarien erabilera, hiztegi arrunt eguneroaren sarrera eta erromantikoaren estetika eta hizkera modua ukatzeko bidea agertzen dira.

Ironia testuaz jabetzen ari da estetika berri bati ateak irekiz. Ironia idealismoaren eta analogiaren beste aurpegia da. Poeta etikazaleak Naturaren bidez hitz egiten zuen Jainkoaren hitza jaso nahi bazuen bere lanetan, eta analogiak mundu honetako gauzen eta beste munduko gauzen arteko korrespondentziak, antzekotasunak bilatzea nahi bazuen, ironiak ezerezaren, deusaren

ahotsa, isiltasunaren margoa plazaratu nahi du, hutsaren misterioak sortzen duen izuarekin lan egin nahi du.

Atxagak isiltasunaren poesiaren mugetan aurkitu du bere estiloa, ezereza-ren hurbil. Ondoren, ironiak testuan garbi geratzen den nihilismoaren espresioarekin egon behar du.

Desertua erlatibismoaren muga da, beraz.

Denboraren sinboloa ere bada, erlojuaren barnean denboraren berri ematen duen harearena:

Denbora gara, kontinuitate bat apika, eta kristalaren bestaldetik ixur-  
tzen harea nekazezina da gure epaile bakarra, gure dimentsioen neurtzaile  
exaktoena... eta erloju guztiek ahanztura eta ihesa.

Desertuaren ondoan agertzen da zenbaitetan bere aurkakoa: oihana edo itsasoa:

Itxasoa baita basamortuaren beste izena  
Bigarren maskara  
Harearen erre sumarik zabalena.

Baina sinbolo horien lana desberdina izango da. Itsasoa gutxi agertu da Atxagaren poesian eta narratibagintzan. Oihana, berriz, hiriaren aurkakoa da. Oihana zibilizaturik gabeko paisaia da, izadia nagusitzen den aldea. Platonek bidali zuen hiritik poeta eta Atxagak haren oihartzuna jasotzen du, poeta mitoz eta irudimenez baliatzen baitzen, hain zuzen ere arrazoizko munduaren aurkako ziren erramintez.

Grazia klasikoak hiru arlotan banatu zuen espazioa: hiria, zibilizazioen eta jakinduriaren seaska; hiritik hurbil zegoen lur landua, eta basoa. Hiritik urruntzea giza irudiko den izaeratik urruntzea da, izadiko denera hurbiltzeko. Arrazoa ukatu eta pasiora heltzeko. Hiriaren eta oihanaren arteko kontrajarpenak oposaketa kulturala eta soziala dakar berekin. Grezian hiriak gizatasuna adierazten du, *pentsatua*, arrazoizkoa den gizakia adierazten du.

*Literatura fantastikoa* deituriko lan batean luzatu du Atxagak iritzi hau: arrazoiak ez du gizakiaren izaera osoa esplikatzen, monstroak arrazoizko mundua goitik behera botatzen dute; monstroek arrazoiaren mundua ukatzen dute.

Kausalitate magikoaz baliatuz, Borges-ek kausalitate logikotik eta haren ondorio zen literatura errealistatik urrundu izan nahi zuen modu berean, Atxagak literatura fantastikoa erabiltzen du arrazoiaren aurrean zabaltzen den pitzadura esploratzeko eta errealismoaren muga estutik aurrera egiteko moduak eskaintzen dizkion azalezina aztertzeko.

Artikulu horretan Atxagak munstroak hartu ditu mintzagai, azalezina denaren sinbolo direlako, salbuespenaren adibide, gertatu behar ez lukeenaren gertakari, logikaz eta arrazoi zientifikoaz azaldu ezinaren joera. Az-

ken batean, galdera nagusira heltzen da Atxaga: zergatik da gaitza munduan?

Fantastikoak barne paisaiatz hitz egiteko aukera ematen du. Artikuluko aforismo batek dioen bezala: “Monstruoen bidez hitz egiten dugu gure buruaz”

Zientziatik urrun den ikuspegi honek subjektibitatearen apologia osatzen du. Atxagarentzat, eta gurea bezalako erlatibismoan sinesten duen garaiarentzat, egia absoluturik ez dago. “Hautsi da anphora” gogoratu duenak erlatibismoa maite du. Zatiaren eta iraungaitza den garaian bizi gara, biluztasunaren eremuan, bai artearen munduan —ezina da araua— bai zientzian.

Oihana, bada, arrazoitik urrundu direnzentzako babeslekua da, eta irakurketa politikora igaroz, hiriko *statu*setik joan direnzentzat.

Puntu honetan gelditzea komenigarri da zeren narratibagintzan marginatuen eremua da oihana, baina poesian marginatuak eta galduak hirian bizi dira.

Ohianaren esanahaia adierazi duenenan, Atxagak ez du hitz egin Greziari buruz, baizik eta Erdi Aroaz mintzo da. Eta dio: Erdi Aroan hiritik bidalitakoak ziren bideetan erromes, desherrituak, sistematik kanpo zirenak.

Desertua, oihana dira poetak mugei emandako izenak:

Nire sexoan aurkitzen dun Bagdag  
Nire zerebroan hazten ditun Kanadako basoak.

Mugek tentsioan osatzen den poesia sortzen dute. Atxagaren poesia dramatikoa dela esan da eta testuak noizean behin aipatzen du hitza:

Edonon aurki genezake dramatikotasuna.

Dramatismoa idazleak aurkeztu dituen kontrajarren zorrotzetatik dator, esaldi honetan aurkezten den bezala:

Tienen los peces abisales presentimiento del sol...

idazten duenean, kontrajarren bortitzen adibidea erakus dezakegu. Ez da soilik “abisal / sol” hitzen artean agertu duen aliterazio eta hitz jokoa, baizik eta espazio aldaketan sortzen den tentsioa da aipagarria: sakonenean dagoena eta goitikakoa dena, biak batera esaldi berean. Atxagak tentsioa sortzeko erabiltzen duen beste teknika bat egoeren arteko kontrajarpenean agertzen da. Askotan kontrajartzen ditu egoera “hotzak” eta “beroak” eta bien jokoa sortzen du irakurlearen barneko uren mugikera.

Mugak maitatzea poetaren bilakaera oinarritzakoa da. Baina zer dira mugak? Lehen-lehenik, bakardade tokiak:

Milaka jezarlekuren artean geunden bikote eta pertsona bakartiak bakantasunaren ispilu ederra ginen, ozeanoko irla tipiak.

Baina, era berean, bakantasunarenak. Bakar eta bakan den gizakia heltzen da soilik mugetara, eta han bizitzeko gai da, tristeziaren metro koadratu batean bere bizitza osoa etsipenez ikusten duen esploradore nekatu horren moduan, edo hirira itzultzen den Etxahunen moduan.

Mugek bidaia eskatzen dute: bidaiatzea bizitzeko beste era da, mugek bidaian aurkitzen dute beren izaera. Eta hori holaxe da bai *Obabakoak* liburuko ipuinetan eta bai poesian. Literatur lan osoa bidaiez inguraturik dago. Bidaiatzea inimiziazio kontzeptuarekin loturik da, norbera ezagutzeko bidaiatzen da, norberaren nortasuna aurkitzeko. Atxagak, ordea, bidaiaren beste ezaugarri bat agertu du: bere inimiziazioak moztuak dira, ez dira bukaeraraino iristen, heroiek ez dute beren bidaia bukatzen, ez dira benetan heroi.

Mugek neurrigabearekin loturik agertu dira testuotan:

Eta hala, Iraila Garo Gorridunak  
soilik Elur, soilik Otso,  
Barren zabal eta izoztu  
izan nahiko zukeen... (PH, 16)

Poema honen erdal bertsioan, baina, garbiago geratzen da neurgabetasunak eta zabaltasunak duten papera:

Veo que Septiembre,  
el de los Rojos Helechales  
deplora su materia;  
que hubiera preferido ser  
sólo Nieve, Inmensidad y Lobos... (PH, 17)

Elurraren desertua lotua dago izuarekin, Poek bere nobela idatzi zuen momentutik. Muga esploratzea kontzeptu desberdin bi esploratzea litzateke: estetizismoa uxatzen duen hizkeraren muga eta izaera eta nortasunaren muga, zabal, iraunkor, neurgabe izan daitekeen zerbaitetara heltzeko modua, azken batean.

Mugak, azkenengoz, hiritik ihes egitea margozten dute:

Hegorik banu, ni ere saiatuko nintzateke  
Lur berriaren bila, jasoko nuke nire kanpamendua  
Bandera beilegiz seinalatutako kostan;  
Hobeto egin dezan denborak bere lana,  
Ahantz nadin betirako  
Hiri honetako murraila eta jendeaz... (PH, 12)

Ohar bedi kanpamendua hondartza batean kokatzen dela, itsasotik hurbil, ez baita itsasoa askotan agertu poesia honetan. Halaz ere, bada liburuan itsasoa eta izua lotzen dituen erreferentzia:

Lemazaina itsuaren atzean itsaso zuri bat  
Itsaso zuri bat eta haruntzago murrailak  
Eta horizonte hauskorren bertan ziutatea.

Kolore zuria gaitzaren eta okerraren sinboloa da, Melville-engan balea zuria den bezala eta zuria baita ere *Camilo Lizardi* ipuinean agertzen den basurdea. Horrela oihana hiriari kontra jartzen bazaio, itsasoa desertuaren eta hiriaren arteko lotura litzateke.

#### 4. Erdian, hiria

Atxagaren literaturan hiria gunerik garrantzitsuenetakoa da. *Ziutateaz* deitu zen bere lehen nobela, poema liburu ere bazena. “Hiria” deitzen da *Poemas & Híbridos* liburuan agertzen den testu bat, lehenago *Etiopian* izenbururik gabe agertu zena.

Espresionismoaren mugetan eta modernitatearen agerbide gisa osatzen den poesian, hiria maitekorra ez denaren eremu bihurtu da. Lurreko paria eta marginatuen topaleku da: sukalde proletarioak, antxetak, tren apatridak, moskorrak, kale garbitzaileak, prostitutak, taxistak, boxeadore hila, arrats-behera ilunak, denak bizi dira hirian.

Hiriak etsipenduen eta sufrikarioz hil direnen artean muga egiten du. Hirian dute aterpea ezinak eta ezerezak, eta askatasuna haien alaba eta arre-bentzat etorriko da:

Ezinaren arrebaontzat  
Ezaren alaba garenoi.

Desertuak aszesia eskatu du, eta desertutik etorriko zaio Etxahunen esku-tik salbamera hirirari, Etxahun, poeta deserriratu bera ere, bere familiak desertura bidali zuen, hain zuzen ere lur landu gabea. Poeta horrek eraman-go ditu desertuko ihizik hirira, eta horrela askatuko ditu ezinaren arrebak eta ezaren alabak.

Atxagarentzat hiriak stablishment-aren esanahia hartu du. Han da sistema eratua, han ordena. Eta sistemaren azpian diren injustiziaz konturatu eta arduratu da Atxaga, eta desheradatu eta marginatuen egoera aldatu nahi luke.

Juan Jose Lanz kritikoa idatzi du Atxagaren poesia marginalitatearen poesia dela. Eta ziurrenik bertan aurki daizteke Carlos Bousoño-k Guillermo Carnero-ren poesia aztertu zuenean, marginalitateaz emandako ezaugarriak: errealitatea ezagutzeko arrazoi arrazionalistak duen ezintasuna; gizakiengana-ko interesa, zehatz eta bakarra den alde egin delarik; hizkuntzaren mugak errealitatea azaltzeko; poema errealitatearen esperientziatzat hartzea.

Halaz ere, Bousoño-k defenditzen duen eran, marginalitatea “Estatu zentralizatzailea litzateke etsairik handiena” lema pean hartu beharko genuke;

zehaztaper batzuk egin beharrean aurkituko ginateke: lehena, Bousoñok aipatzen duen marginalitateak literatura beraren marginalitatea dakar:

Consecuencia de todo lo dicho [gorago aipatu ditugun lau ezaugarriez ari da] será que el poema ostente un contenido irreductible y propio: la realidad dada en el lenguaje sólo en él existe.

Marginazioa, beraz, aho biko ezpata litzateke, poesiaren beraren aurka doana. Bigarrenez, marginalitateak Atxagarengan bere eragina badu ere, esan beharra dago bere estetika “novísimo”en estetikatik urrundu egin dela, eta inoiz haien parodia ere egin duela, urrundu egin da estetika ulertzeko erak desberdinak direlako, eta desberdinak marginalitatea adierazteko moduak. Estetizismoa, “novísimo”ek esaten zutenaren alderantziz, ez da balio bat berez Atxagarentzat, eta noizbait, “bihotzeko” aldizkari arrosen hizkera erabili du, hizkera oso arrunta, bere lana osatzeko: “Poema polaroid sobre la muerte de John Lennon” testuan adibidez, edo *Henry Bengoa Inventariumen*.

Zuzen adierazi du Juan José Lanz-ek mugek inguruaren eta gunearean arteko oposaketa osatu dutela, ikusten ari garenez. Baina oposaketa espazial hori, beste era batera ere agertu da bere lanean: izadiaren eta kulturaren arteko oposaketa, hain zuzen ere. Bien arteko borroka joera dramatikoak hartu ditu “Trikuarena” deituriko poeman, adibidez.

Hiritik ihes egiteak bere sinbolo propioa du Atxagaren literaturan, hegoalderantza doazen antzarrak dira, zeruan V bat egiten dutenak:

Negua heldu zen azkenez eta antzerrek V bat egin  
zuten zeruan... (PH, 20)

Sinbolo hori behin eta berriro agertu da poesian eta narratiban.

Esandakoaren ondoren, galdera bat dator harira: Atxagak hiriaz uste duena ikuspegi ezezkor eta antimodernotik dator? Erantzuna matizatu beharko litzateke *Obabakoak* liburuko kontaketa kontutan hartuz. Jakina denez, espazio mitiko biz osatua du liburua: Obaba, haurtzaroko espazioa eta Hamburgo, Bilboren ispilu den hiria, modernitateko espazioa. Ondorioz, pentsa liteke ezinbesteko egin zaiola hiria. Baina hiria ez da idazlearentzat berrikuntzaren eremu. Ez. Bere ikuspegia Baudelaire-k erakutsi zuenarekin lotua dago: hiria eta modernitateak sortu duen errealitatea gorrotagarriak dira, ez soilik edertasunik ez dutelako, ezta edertasuna sortzeko ahalmenik ere —nahiz eta “Kalatxoriak” deituriko poeman onartzen zaion ontasun exkax bat hiriari— ez bada ere hirian agertzen direlako liberalismoak bere inguruan sortu dituen txirotasun-eremuak eta marginalitate tokiak.

Modernitatearen bizigunea beti izan da anbigua, kontrajarria eta, askotan, dramatiko. Eta esanahi horiek eman dizkio Atxagak bere lanean agertzen den hiriari.



## 5. Atzeraka egindako poemak

Gorago aipatu dugunez, 1990. urteko Donostiako Udako Ikastaroetan bere poesian bigarren aroa hasten dela aitortu zuen Atxagak. Bere hitzaldian argi geratu zenez, poesia hau argitasunera eta ulerkotasunera itzultzen da, eta aldaketa bi ekarri ditu, bata azalean, primitiboen poesiara iturri bila joan den neurrian, eta beste bat sakonean.

Tonalitate berri horretan idatzitako testuak ez dira asko. “Trikuarena”, “Negukoa”, “Bizitzak”, “Orduan”, eta, agian, “37 galdera mugaz bestalde dudak kontakto bakarrari”, horiek baitira *Etiopia* argitaratu ondoren plazaratu direnak. *Poemas & Híbridos* liburuan agertzen diren eta lehen liburuan argitaratu ez ziren beste poema batzuk ez dira aro berri honetakoak nahiz eta argitarazio datatik hurbil ibili.

Asko ez dira, ez, baina bai garrantzitsuak. Atxagak bere ikuspegi literarioa argitu egin du, mehetu, eta itzuli da lehenago debekatua zuen lehen pertsona erabiltzera: “la vida que yo veo” deklaratu.

“Trikuarena” poema testu boskimaniar batean oinarriturik dago. Eta hor aho literaturak ezagunak dituen espresabideen alde egin da: errepikazioek eta paralelismoek indar berezia dute poema horietan.

Espresabide horiek ez dira berriak bere lanean. Lehenago ere erabili zituen *Etiopiako* poemarik argienetan eta narratiboetan. Liburuan poema pigmearen baten eragina aitortu zuen eta *Poemas & Híbridos*etarako aukeratu dituen poemak aho joeratik hurbilen direnak dira: “Etxekoak II. Ainhoa”, “Kalatxoriak”, “Hiria”, edo orain “Kantak” sailean aurkezten dituenak.

Primitiboetara, edo nahi bada, antropologiara, itzulera hori estetika barretik berritzeko ahalegina da. Era honetan primitiboak gelditu eta ustel dagoen gizarte baten indarrak eraberritu ohi ditu.

Alde honetatik hausnarketarako bide dira idazlearen beste jarrera batzuk. Europa osoan xenofobia eta arrazakeria indartzen ari direnean, Atxagak bere biziko tokia eman die afrikarrei eta arabiarrei, bere lanetan agertu eta desagertu ari diren bigarren mailako pertsonaien bidez. Ez da soilik bere hezkuntza sentimentala, bere biografiaren oihartzun ilun bat, beste zerbait da hor agertzen dena, arrazoi ideologiko bat, begirada zorrotz bat marginatuen artean marginatu berriak ikusteko modua, azken batean, adi dagoen begirada.

Primitibotasuna beste zenbait teknikatan ere agertu ohi du idazleak: animaliak narratzaile gisa aukeratzen dituenean, errealitatea animalia baten ikuspegitik eman ohi duenean, Atxagak munduaren indar desberdinetan sinesten duela sinatzen du. Shola txakurra (“mezcla de pekinesa y fox terrier”, PH, 53) edo *Behi baten memoriak* liburuko behiak errealitatea marginalitate adierazten dute. Errealitatea harrapaezina dela esateko beste formula bat edo marginalitateera heltzeko ispilu jokoak? Esku artean animaliek gure kultura moder-

noan duten tokia, haien sozialitatearen historia esku artean bagenu asko ikasiko genuke joera hau interpretatzeko orduan. Gizakiarengan konfidantzarik eza erakusten du idazleak narratzaile horien aukeraketa egiterakoan? Agian, horixe izango da txakurra pertsonaren lagunik leialena gertatu den aroan.

Sakonean, atzera itzulika hasteak Atxagaren poetikan giltzarri zen beste ideia bat hartzen du kontutan: gizartean nagusi den mezua alboratzearena. Oker dabilta itzulera honetan forma hutsaren berriketa gertatzen dela uste dutenak. Nire iritzian itzulera honekin Utopiaren ideia berriketa bat dakar Atxagak eta puntu honetan da sakona bere joera.

Itzul gaitezen Isaiah Berlinen iritzien irakurketara. Bere azalpena utopia-  
ren krisiak erlatibismoa sortzen zuen unean utzi genuen. *Etiopia* beti iruditu zait utopiara heltzeko ezina azpimarratzen zuen obra zela. Agian, Atxagarengan bazegoen hitz nagusien aurkako mesfidantza. Hitz nagusi horiek ideia nagusien espresabide dira eta ideia nagusiek, edo potoloek tragediak ekarri dizkiote XX. mendeko pertsonari, tragediak ideia nagusien izenean eginak, Miloszek idazten zuenez, iragartzen ez diren tragediak dira, “katu urratsez hurbildu diren” tragediak.

Utopiaren ideia krisialdiak irtenbide bi izan ditu baina: erlatibismoa batetik eta pluralismoa bestetik. Berlinek azaltzen duenez, Maquiaveloren, Vico-ren eta Herder-en dotrinek behin eta berriro azpimarratu zuten benetako galdera guztiek benetako erantzun zuzen bakarra zutela eta, ondoren, beste erantzun guztiak okerrak zirela. Erantzun horiek Utopiaren ideia ahultzen zuten. Baina, horratio, idazle horiek ez ziren erlatibismoan jausi, pluralismoa bultzatu zutelako: hau da, azken balio nagusiei buruz kultura bakoitzak bere erantzuna izan dezakeela adierazi zuten konbentzimenduz. Pluralismoak adierazten duena zera da: gizartearen barnean helburu desberdinak aurki ditzakegula, haien bila abiatu eta, hala ere, jokabidea zuzena litekeela.

Pluralismoak kulturen arteko interkomunikazioaren ideia dakar berarekin. Galdetuko nuke primitiboan poesiaz agertzen duen ardura ez ote den Atxagaren poesian dagoen pluraltasun kulturalaren agerbidea. Galdetuko nuke balio dominatzaileen ukazioa egiten duenean, ez ote dagoen beste utopia bat osatzen, bere arau berezietan eta lehen araua sufrikarioa galeraztea litzakeelarik.

Primitiboan poesia maitatuz Atxaga erromantikoagoa egin dela, baina era berean ideia eta balio nagusiak historikoak direla konturatuz ari dela erantzungo nuke. Erantzungo dut esanaz politikoagoa bihurtu dela, baina jakin dakiela balio nagusiak ez direla utopiazko etorkizunean suertatzen, baizik eta behin eta berriz, egunetik egunera orekatu beharreko tentsioan.

Pluralismoa totalitarismoa uxatzeko era bat besterik ez baita.

\* \* \*

Artikulu hau *Poemas & Híbridos* katalanera itzuli zeneko sarrera gisa idatzi zen, eta Bromera argitaletxeak plazaratu zuen 1995. urtean poemari atari gisa, Vicent Llorca-k egindako itzulpenari lagunduz.

Ondoren, idazlearen pentsakizuna argiago bihurtu da, eta artikuluan zehazten eta aipatzen diren bideetatik aurrera egin du. Nazionalismo erradikalaren kritika etorri da ondoren, nahiz eta Atxagarengan normala denez beste puntako nazionalismoaren kritika ere etorri den, baina pluraltasunaren aldeko apostuak berarekin ekarri du idazleak aipatu berriak dituen garapen pausuak bide horretatik.

Ziurrenik Madrilen 1996. urteko maiatzaren 29an emaniko hitzaldiak adierazi du, ezerk baino hobeto idazlearen pentsakizun berria. Ez da, nik dakidala, hitzaldia argitaratu, baina “Atxaga atzeraka hasi da” esan ohi zuen hitzaldi haren antzera baditugu prentsa laburpenak. Lehena *El Mundo* aldizkariak argitaratu zuen egun berean, idazle hizlariari eginiko elkarrizketa baten bidez —eta datua ez da hutsala, kazetariaren ahotsaren ordezkariarena entzuten baitugu—.

Aldizkariak argitaratu duena zera da:

Para Bernardo Atxaga ese dogmatismo necesario en literatura ha de convertirse en apertura total cuando se trata de política. La ficción es indiscutible, sí, “pero no es sano ni desde luego esperanzador que sea así la política; es fundamental que el lenguaje que utilizan los diferentes grupos en discusión sea un lenguaje muy abierto que permita al otro entrar en el razonamiento”.

Horraino pluraltasuna baieztapena besterik ez dugu, baina aurrera egiten du idazleak:

Considera que el gran problema en el sur de Europa es que la política se parece demasiado a la religión y eso no puede ser; eso ocurre mucho en el País Vasco y por eso no se avanza nada. “Lo que no puede ser es meter elementos metafísicos en esa cuestión... ya estamos en una espiral antidemocrática donde vale todo”.

Esaldi horretan aurrerapausua eman da, eta demokraziaren aurkako joera kritikatzeko da. Handik egun bitara *El Correok* hitzaldiaren laburpena eman zuen eta Manuel Mediavilla-k egindako laburpenetik esaldi hauek har ditzakegu:

“Hay un esencialismo que empapa toda la política vasca y parte de la cultura vasca”... considera un disparate político “pensar que existe una esencia y no una historia”... En el fondo remacha el escritor, ese componente romántico entra siempre en el cóctel sociopolítico del País Vasco. De modo que en los jóvenes de Jarrai habría un cruce de la estética y de la ideología de la violencia con esta ideología romántica' y en el origen de la vio-

lencia, “un cruce del leninismo, tal como se materializó en los años 60-70, con la línea romántica”.

Kakotx artean dagoena hizlariaren ezpainetan jarritakoa dela esan beharrik ez dago. Egun bat lehenago Atxagarekin egoteko parada izan nuen eta hitzal-di horretaz mintzatu ginen, une berezia omen da hori, zeren nazionalista izateari utzi ziola esan zidan. Beraz, hirugarren pausua gauzatu zela pentsatzeko bidea dago. Pluralismoa eta nazionalismoari luzaturiko kritikaren ondoren, aldaketa dator. Badakit prozesua den bezain luze eta mingarria ez dela horrelako esaldi labur baten sartzen. Baina, horrela adierazi zidala gogoratzen dut. Baina ez da ene oroimena elementu bakarra bide honetan. *El Mundok* bere igandeko gehigarriko elkarrizketa bat argitaratzen dionean abuztuan kazetariak hauxe dio:

P.—Vive usted en el País Vasco, escribe en euskera y no es nacionalista. ¿Cómo lo hace?

R.—Es una situación difícil. Lucho por seguir diciendo lo que quiero decir, por mantener una coherencia y por no consentir que me malentendan, ni los de arriba ni los de abajo... Políticamente me han influido Kropotkin y Marx, y las teorías federalistas me han interesado más que las nacionalistas. No me siento representado por los grupos nacionalistas de Euskadi.

Ez dakit geroak ez dion arrazoirik eman artikuluari, baina han planteatzen dena, pixkanaka-pixkanaka, argiago adierazten dela esan genezake.

## Bibliografía

- ATXAGA, B. (1986): “Poética”. *El estado de las poesías. Cuadernos del Norte*. Monografikoa. 150-1. Oviedo.
- KORTAZAR, J. (1990): *Literatura vasca. Siglo XX*. Etor. Donostia.
- LANZ, J. J. (1991): “Bernardo Atxaga o la literatura como ilustración”. *El Urogallo*. Diciembre 1990-enero 1991.
- (1993): *La luz inextinguible. Ensayos sobre literatura vasca actual*. Siglo XXI. Madrid. 80-93.
- SARASOLA, I. (1989): “A modo de introducción a la literatura vasca”. ATXAGA, B.: *Obabakoak*. Ediciones B. Bartzelona.
- ZURGAI (1989): *Poetas de los 70*. Monografikoa. 1989ko abendua.
- (1990): *Poesía vasca, hoy*. Monografikoa. 1990eko abendua.

## BERNARDO ATXAGAREN *ETIOPIA* WALTER BENJAMIN-EN BEGIETAN

1927. urtetik aurrera Walter Benjamin bere lan nagusiarentzat, *Passagen Werk* deituko zuen liburuarentzat oharrak hartzen hasi zen. Benjaminek Pariseko Arkadetan oinarrituz gizarte industrializatu baten argazkia eman nahi zuen. Arkadak, gaur eguneko gune komertzialen gurasoak, gizarte burgesaren ikur gisa hartuz, Benjamin-ek historia bat sortu nahi zuen, postindustrialismoaren historia, hain zuzen ere, baina ideia eta ekintzetan oinarritu beharrean, marxismoaren asmoa zen bezala, gauza eta elementu niminoei atxikiz, horrela, historiaren filosofia materialista bat sortuz. Arkadetan salgai ziren objektuak interpretatzeko ahaleginetan historia berriko kontzeptu gune nagusiak deskribatu nahi zituen Benjamin-ek, konturatu baitzen “arkada bat hiri bat da, mundu bat neurri txikitik”.

Dendaz beteriko galeria horiek, objektuz hornituriko arkada horiek beren apaltasunean, toki apartak ziren Benjamin-ek egin nahi zuen filosofiarako, zeren bilatzen zuena eguneroko esperientziaren eta hausnarketa filosofikoaren arteko zubia baitzen. Ez zen ohikoa bere ahalegina, eta bere inguruko filosofoen kritikak ere jaso zituen. Adorno-k, adibidez, zalantzak zituen ahalegin hori filosofia ote zen ala ez jakiteko. Ez da zalantzarik, ordea, materialismoaren ikuspegia zela Benjamin-ek azaleratu zuena, joera hori azkeneraino eramaten saiatzen zelarik, fenomeno historiko beraren ahotsa eragin nahi zuelako.

Proiektu horri eskaini zizkion bere azken urteak Walter Benjamin-ek, harik eta 1940. urtean naziengandik ihes egiteko asmotan Espainiako muga igaro eta Port-Bou-en bere buruaz beste egin zuen arte, frankistek berriro nazien menpera itzuliko zutela uste zuelako. Urteen buruan Benjamin-ek milaka ohar hartu zituen egunean egunean erraldoiegia egiten zitzaion proiektua burutzeko asmoz. Hasieran galeriak eta arkadak hartu bazituen aztergai edo ulergai, azkenean Paris osoa, burgesiaren hiri miresgarria, hartu zuen idazgai. Garaikidetasunaren interpretazio asmo enziklopedikoak XIX. mendeko aztarnak biltzen zituen modernitatea aztertzeke asmoz.

Materialearen berria Port Bou-n galdu zen. Testigu batzuk diote Walter Benjamin-ek asko pisatzen zuen maleta batekin igaro zuela muga, eta norbaitek adierazi du hor ote zegoen *Passagen Werken* eskuizkribua. Baina 1927tik 1940. urtera doazen 13 urteetan Benjamin-ek milaka ohar hartu bazituen ere, ez zuen liburu bakar eta osoa idatzi. Hala ere baieztapen horrek zehaztapen txiki bat eskatzen du. Milaka oharrok Benjamin-ek arkibutan eratu zituen, nolabaiteko gaien batasunean bilduz. Arkibuok, 36 guztira, lanaren ardatz nagusiak ziren eta haietariko bateko, J arkibuko oharrak *Baudelaire*ri buruzko lana idazteko erabili zituen. Hasieran Baudelaire-ri buruz idatzi behar zuen liburua *Passagen-Werken* atalburu bat besterik ez zen, baina Frankfurtoko Institutuaren eraginpean atal hori osatu eta artikulu luze edo liburu gisa aurkeztera behartu zuten.

Baina *Passagen-Werkeri* buruzko ikerketa-oharrak, lana eratzeko proiektuak, gutunak, hitzaldietarako laburpenak, Parisen geratu ziren eta 1982. urtean argitaratu zituzten Benjamin-en Lan Guztien argitalpenaren arduradun izan ziren Tiedemann eta Schweppenhäuser-en esku.

*Passagen-Werk* ez da, bada, liburu bat. Liburu bat egiteko material bilduma da eta, berriki, Susan Buck-Morss ikerlariak materialaren interpretazioa eman du. Ez du liburua osatu edo moldatu, ez. Oharretan eta Benjamin-ek utziriko lanaren proiektuetan onarriz filosofoak zuen modernitateari buruzko irudia osatu du eta lan honen ardatz gisa hartu dugun lanean azaldu.

*Passagen-Werk* Benjamin-ek bizi duen egoeraren iturrien historia da:

El *Passagen-Werk* es texto doble. Historia social y cultural del París del siglo XIX, pretende en realidad proporcionar una educación política a la generación de Benjamin. (1996, 65)

Idatziko du lanaren asmoaz Buck-Morss-ek, Benjamin-en lanaren garaikidetasuna azpimarratuz.

Lan erraldoian tratatzeko ziren gaiak hauek dira, 1935. urtean idatzitako laburpen baten arabera:

Fourier edo Arkadak.  
Daguerre edo Dioramak.  
Grandville edo Erakusketa Unibertsalak.  
Louis Philippe edo Etxe-barnea.  
Baudelaire edo Parisko kaleak.  
Haussman edo Barrikadak.

Pertsonen eta gaien arteko loturan aurkitu zuen Benjamin-ek mundu ikuskera bat azaltzeko bidea. Hor dira burgesiak XIX. mendean sortu dituen pertsona nagusiak, eta gaiak, eta mitoak... eta arazoak. Mass-mediaren arteak, pribatasunaren eta publikotasunaren arteko kinka, artearen eta teknikaren arteko arazoa, burgesiaren mitoak eta miseriak, poetaren begi zolia eta gizarte ara-

zoaren gogortasuna. Sei izenburu nagusiok liburuaren nondik norako jokabi-dea erakutsi badigute ere, Benjamin-en asmoa arkibuen sailkapenean nabarmenago agertuko litzateke. Gorago esan dugunez, guztira 36 dira eta horietarik batzuk besterik ez ditugu aipatuko: Arkadak, saltzaileak; moda; asperdura; barrikadetan borroka; burdina eraikuntzetan; publizitatea, biltzailea; etxe barnea; Baudelaire; nihilismoa; ametsen etxea; museoa, flaneur-a; aurrerapenaren teoria; prostituzioa; apustuak; panorama; ispilua; Fourier, Marx; fotografia; Boltsa; Sena; Comuna...

Garaiaren irudi osoa eman nahi du Benjamin-ek eta bere Historiaren Filosofian edozein objektu du tokia mendearen ikuspegi zabala egiteko orduan. Gure garaiaren ardura nagusiak antzetzu ditu Benjamin-ek bere lanean. Bada bat garrantzizko bihurtuko dena: burgesiak, eta gizarte industrialak, zorion itxurako mundu bat sortu dute, baina haren mugetan eta bazterretan pertsona galduak daude: prostitutak, galtzaileak. Beste bat: nahasmenaren aurkezpena egin nahi zuen filosofoak, baina ez aurkezpen nahasia. Aurkezpen hori, hala ere, zatiaren bidez eman zuen, ez lan oso eta zuzen baten bidez. Zati guztien bilgunea, baina, Benjamin-ek agertu nahi zuen joera politikoan agertu da: modernitatearen kritika egin du, eta gizartearen sinbologiaren prozesua agerian jarri.

Kontua da Benjamin-ek *Passagen Werk* bildu duela (“idatzi” hitza jartzeko tentatua egon banaiz ere, “bildu” hitzak hobeto deskribatzen du lanean egin dena) bidegurutze batean zegoenean. Bidegurutzea zenbait alderdi desberdinetan agertu da. Egoera pertsonalean lehenik: emakume biren artean zalantzan zegoen unean, Dora Benjamin-en eta Asja Lacis-en artean ezin erabakirik. Geografia laukituan ondoren Berlin-Napoles; Paris-Mosku koordinaden artean; lana eta atsedaldia, burgesia eta komunismoa. Gune politikoan ondoren, nazismo, komunismo, burgesia eta XIX. mendeko irudi utopikoan artean. Buck-Morss-ek beste dialektika bat proposatzen du Benjamin-en lanean: bere iturriak materialistak dira *Passagen-Werk* idazten duenean, baina mistizismo judutarrak zerikusi handia du liburuaren moldaketan.

Bada oraindik beste gurutze bat, hemen aipatu beharrekoa: estetiko. Walter Benjamin-ek ikerketa eta idazketa molde biren artean kokatzen du bere burua. Alde batetik, Unibertsitatean sartu nahi zuenean, Benjamin-ek *Alemaniko Drama barrokoaren sorrera* idatzi zuen, giro akademikoetan ohi zen moduan: ohar, aipu eta hizkera akademikoaren menpe sortua. Bestetik, *Zuzenbide bakarreko kalea* landu zuen bere aforismo, amets eta jolasekin. Liburu biak 1928. urtean agertu ziren eta nahikoa da azalak ikustea estetikan dagoen desberdintasunaz ohartzeko.

*Drama barrokoaren sorrera* lan akademikoa bada, *Zuzenbide bakarreko kalea* zatiez osaturiko liburu da, batasun formalik mantentzen ez duena, asmoaren batasuna ahazten bada behintzat lehen liburu akademizismoak

bultzatu du, bigarrena surrealismoak. Han diskurtso batua dager, hemen zati-tua. Hartan hizkera diskurtsiboak agintzen du; honetan irudiak. Honela mintzo da Buck-Morss liburu biotaz:

*Passagen-Werk* emergió del remolino formado por dos movimientos antitéticos, por un lado la forma anticuada del *Trauerspiel* y el mundo intelectual burgués que representaba, y por el otro su nueva actitud literaria de vanguardia y su compromiso político con el marxismo. (1996, 38)

Halaz ere, liburu biotan asmo bakarrak egiten du amets eta arnas: drama barrokoa tristea da, tristea den bezala modernitatearen egoera. Eta forma aldetik ere bada batasunik bien artean. *Dramak* alegoria barrokoaz mintzo da, *kaleak* alegoria erabili egin du:

El estudio sobre el *Trauerspiel* intenta “redimir” teóricamente a la alegoría. *Calle de dirección única* lo hace prácticamente, y en el proceso transforma el significado de la redención. Se redime no el objeto alegórico (el drama trágico), sino la práctica alegórica. En los dramas del Barroco, las imágenes naturales ... son representaciones emblemáticas de ideas. En los fragmentos modernistas, las imágenes de la ciudad y de las mercancías funcionan de manera similar. (1996, 35)

*Zuzenbide bakarrek kalea* liburuan erabilitako hizkuntza bera da *Passagen Werken*, inoiz idatzi ez zuen liburuan, erabili zuena: zatiaren eta alegoriaren hizkera. Zatiak irudia dakar berarekin, alegoria zentzuen bila abiatu-riko espresabidea da. Zatia eta alegoria modernitatearen deskripziorako espresabideak.

Walter Benjaminen *Passagen-Werken* eta Bernardo Atxagaren *Etiopiaren* arteko lotura egiteko orduan, begiratu beharko genuke zein puntutan dagoen batetik bestera pasabidea. Bi dira, nik uste, bien artean dauden paralelotasunak.

Paralelotasun horiek ingurukoak besterik ez dira. Baina aipatu nahi nituzke. Benjamin-ek bere lana desoreka tragikoaren eta gogorraren erdian bildu zuen. *Etiopia* ere bidegurutzean idatzita dago, bidegurutzea hainbat apalagoa eta ahulagoa bada ere. Frankismoaren bukaera gertatu da; erreforma politiko edo hausdura aipatzen dira. Euskal Herriak modernizazio prozesu bat (beste bat) bizi du eta laizismoa nagusitzen ari da marxismo zabal baten eskuetan. Giro internazionalen petroleoaren krisiak (1981) beste mundu bat dagoela adierazten du.

Bigarrena hizkuntzarekikoa da. Abanguardiak (irudiaren eta zatiaren) hizkera da *Etiopiak* dakarrena, eta nahiz eta lehena izan ez (poesian Artzeren ekarria begi bistan zegoen, narratiban Saizarbitoria aipatu beharra dago), berritasunak berak dakar hizkera biren arteko kinkaren sakontasuna.



Horrez gain, bada, beste lotura bat: lan biek adierazten dute hiriari eta modernitateari buruzko iritzia. Gure lanean Walter Benjamin-ek aurkeztu duen hiriaren irudia, alegoria, hartuko dugu, Buck-Morss-ek deskribatu duen eran, *Etiopian* agertzen den irudiarekin parekatzeko eta elkartzeko.

Walter Benjamin burgesiak XIX. mendean agertu zuen baikortasunaz ohartu zen. Baina bat-batean ikusi zuen XX. mendeko hiriak sortzen zuen irudia desberdina zela. Irudi hori da guztiz bukatu ez zuen proiektuak agertu duena, eta irudi hori da *Etiopian* zehar ikusi nahi genukeena. Asmo horrekin ez dugu baieztatzen Benjamin-en kritikak eratu zuela *Etiopia*. Batetik, gora-go aipatu dudan moduan Atxagaren lana argitaratu ondoren agertu baitzen alemanez *Passagen-Werk* hori, nahiz eta Baudelaire-ri buruzko lanean, Benjamin-ek berak aitortu duenez, agertu duen hiriari eta modernitateari buruz berak uste zuena:

Este libro no es idéntico a los “Paris Passages”. Sin embargo, contiene no sólo una porción considerable del material informativo recopilado en este último, sino también cierta parte de sus contenidos más filosóficos. (1996, 232)

Bestetik, Benjaminek Baudelaire eta Paris aztertuz lortzen zuen modernitatearen irudia ez zen berea soilik. Beste sare estuan ideia eta irudi antzekoak agertu zituzten T. S. Eliotek bere poesian eta surrealistek (Bréton eta Aragon-ek) poesian eta manifestuetan. Ez nabil, bada, defendatzen Benjaminen eragin zuzen bat, baizik eta adierazten zeharkako bide bat erabiliko dudala, *Etiopia* Benjaminek sorturiko sintesiaren argitan ikusiko dudala; burgesiari eta hiriari buruzko ideiak barneraturik bazebiltzan ere, Benjaminek sintesi garbia eman du hiriari eta modernitateari buruz eta horixe jarraituko dugu *Etiopia* irakurtzeko orduan.

Walter Benjaminen idazkien zati handi bat “aurrerapen” kontzeptuaren inguruan dabil. Ez da dudarik, burgesiak aurrerapen ideia agertzeko hainbat metafora erabili zituela: zentzu komertzialak, arkadak, galeriak eurak, Erakusketa unibertsalak, hirien proiektu berriak, aurrerapen jainkotua lan handien bidez, trenak... Guztiak dira bere buruaz harro agertu zen gizarte eremu baten metafora: burgesiaren metafora, hain zuzen ere. Baina horren guztiaren azpian Benjamin gai da kontrairudi bat sortzeko.

Berrian, nola mugatu errealitatea eta antza?

galdetuko dio bere buruari Benjaminek. Eta horrela, sakonean aurrerapenak ezkutazen dituen zeinuak atarako ditu argitara, eta honen ondorioz aurrerapena denboraltasun modernoaren fetitxea besterik ez litzateke. Berritasunak bere bihotzean estaltzen du “beti berdina” dena. Ideia hori giltzarri deritzot, *Etiopiak*, azken batean, gauza bera azaldu duelako: modernitatearen fetitxeak agertu ditu, kontsumoak masen ametsak piztu ditu, baina era berean, per-

tsonaren bihotzean gordetzen diren betiko kezkek agertu ditu: tristezia, etsipena, galera. Eta guztien gainetik, gaitzaren izatea, Girard-ek azaldu zuen eran, errugabeen heriotzarekin bukatuz.

Benjaminen modernitatearen irudi ezkutu, beti-berdin eta aldaezina adierazi nahi duenean, ezaugarri hauek jartzen dizkio: hautsa, hauskortasuna, moda, antzutasuna, heriotza, Pariseko bazterrak, itzulera, pekatua, asperdura. Bederatzi sinbolo, bederatzi giltzarri *Etiopia* aztertzeko orduan, modernitatea deskribatzeko joeran. Bederatziok banan-banan aztertuko ditugu *Etiopian*, Benjamin-engandik egon litezkeen eta dauden zehaztapenak ikus diezaizkio-gun.

Hautsa da lehen hitz klabea. Modernitatea bizi da neoi argietan, baina bizi da neurri berean neoi argietara begiraturaz ikusten ez dugun lurreko hautsan. Atxagaren liburuko hitz garbia harea da; hainbatan aipatu den poema errepikatuz:

Harea lurrik anonimoena  
Hareaz eginak desparadisoaren zutabeak  
Eta Lurra planetaren aidea ere  
Hareazkoa... (E, 87)

bada, momentu batean hautsaren eta harearen arteko lotura liburuan agertu da, biak gauza bera direla azpimarratu nahi balu bezala:

...hauts eta harea artean, mendetako bizitza haietan... (E, 47)

Egipto —hauster— hainbat harea... (E, 90)

Gizartearen eraginak, dordokak izan duten izaera aldaketa kontatzen duen ipuinean dago bildurik. Hautsa eta harea gauza bera dira liburuan eta modernitatearen agerpenean.

Hareak baditu lotura handiagoak literaturarekin, eta gogoratu izan dira behin baino gehiagotan: Arestirekiko lotura eta harenganako urrunketa azpimarratu du, Rimbaud gogoratzeko balio du.

Harea loturik dago antzutasunarekin, paradisuak eza dagoen, desparadisoaren irudiarekin. Beraz, T. S. Elioten lanak, Lur eremuak edo, beste izenez, Lur antzuak adirazten du zein den euskal poetaren mezu garbia. Produktibitate ekonomikoaren aurkakoa da izadiaren (eta emakumearen) antzutasuna. Dordodek norabide zentzua galdu duten antzera, agertzen da antzu izadia. Antzua da emakumea; eta antzua izadia:

Arratsaldean pozoina eman zieten  
kalatxoriei dantzaldia amaitzerakoan leihotan  
Emakume jelatuak... (E, 69)

Basamortua leihotatik sartzen  
Gau erailea... (E, 79)

Benjamin-entzat moda izango litzateke antzutasunaren sinboloa, zeren modan izadia aldarazten da merkantzetara; salgaietara. Atxagaren kasuan ez da moda horrenbeste agertzen, baina bai industriaren produkzioaren etekinak, teknologiaren agerbideak. Bai modak eta baita ere kongeladore made in Germany horiek deshumanizazio berria dakarte.

Halaz ere, aipaturiko bertsoetan bada beste zertzelada bat aipatu beharrekoa; nola idazleak ez duen ahaztu “betikoa” aipatzea, aldatu ez dena, beti berdin iraun duena: “mendetako bizitzan”. Teknologiak oreka hautsi du, baina beritasunean denak iraun du berdin.

Fosforozkoak gure desesperantza ertzak (E, 91) direlako, eta fosforoa hautsaren beste izena delako.

Hautsa eta antzutasuna loturik daude heriotzaren ideiarekin. Edo nahi bada, denboraren izaerarekin. *Etiopian* denbora neurtzen duen erlojua hareazkoa da:

Denbora gara, kontinuitate bat apika, eta kristalaren bestaldetik ixurtzen harea nekazina da gure epaile bakarra, gure dimentsioen neurtzaile exaktoena. (E, 70)

Denboraren jarioak eta liburuak duen joera etsipenduak eraman du Atxagaren idazkera nihilismorantza. Heriotza oso presente dagoen neurrian, bihurtu da etsipendua *Etiopian* agertu den pertsona. Beharbada puntu honetan banatu da Atxaga *Passagen-Werken* Benjamin-ek adierazi duen mezutik. Modernitateak sortu du ametsen bila, ametsen desioan bizi den pertsona. Atxagak ez du ulertzen bizi joerari hori:

Nola bizi liteke adimen ilunduko gizona  
plazerra eta oreka persekutatuz... (E, 80)

edo behintzat ez du seriotzat hartzen, esaldi ironiko batean filme baterako argumendu ona dela gogoratuz, fikzio topikorako gai aproposa dela aipatuz, alegia.

Benjamin-ek, ordea, iraultzan sinesten du oraindik, eta gizartearen aldaketan. Neurri batean, eta ikusi dugu hori aurreko lanean, Bernardo Atxagak ere zerbait larregizko ikusi du joeran, eta atzeraka hasi dela esan dezakegu.

Biak etorri dira bat zatiketan jarriz hiriaren izaera. Benjamin-ek Haussmanen urbanismoak ekarri zuen Paris hauskor baten irudia zuen gogotan, Atxagak Rimbaud-engandik datorren pertsona izaeraren aniztasuna. Izaera ez da bakarra, pertsonaren barnean pertsona desberdinak daude. “Ni beste norbait naiz” esan zuen Rimbaud-ek. “Izadian gauzak zatituak daude eta hori da bere izaera naturala” Atxagak. Anphora hautsi zen momentutik mila itzuli eman diogu gaiari. Modernitatearen ezaugarria omen da. Ez dakit zenbat modernitate dauden, baina guk bizi dugun modernitatearen ezaugarria

da behintzat. T. S. Eliotek aipatu zuen gaia, poeta izan aurretik idatzi zuen tesi batean. Freud-en pentsamenduaren onarria liteke kontzeptua: gudan persona desberdinak bizi dira.

...mila ispilutan multiplikatua... (E, 41)

izatea da errealtatearen islada, izatearen izaera. Modernitatearen zeinua; asko izatea baten barnean.

...udazken hartan izen ugariko emakumea bihurtu hintzenan  
Casiopea eta Pollux edo Isis and Pandora eta Berniceren  
ilea elemental Mr. Watson... (E, 67)

Burgesiak modernitatea Urre Arotzat bazuen, Benjamin-ek adierazi zuen Infernua dela modernitatearen ezaugarria. Eta infernu hori zeinu hauetan agertzen da: asperdura, apostuak, pobrezia.

Asperduraren gaia, Baudelaire-ren spleen-aren ondoren, zabala izan da sinbolismotik aurrera, eta Atxagak ere tratatzen du modernitateko gai hau, nahiz eta arrazoi desberdinengatik.

“Dena esanda dago” dioen poeta bati gutxi geratzen zaio asperdurara jeisteko. Arrazoi literarioak lehenak badira sentimenduaren sorreran, eta horrela agertu badira ezer esaten ez duten hitzak:

Baina zegatik edo non, nor, no comment... (E, 80)

Libro ma-o-meno, ezta?... (E, 100)

O-nou O-nou erantzun zigun Malonek... (E, 111)

asperdura sakonagoa da eta pertsonaien bizi joeraren gune bihurturik dago liburuan. Humphrey Bogart-ek hartu du asperdura kinuaren agerbide.

...(esan zuen Humphrey Bogartek sonbreilua okertuz).

Dena da hutsala, dena baliogarri filme baterako:

Ez da gai txarra filme batetarako... (E, 80)

Oso gai ona filme batetarako... (E, 112)

Bide berriak bilatzen dituen gizonaren (E, 80 eta E, 112), ametsak, desioak hutsalak besterik ez dira:

Hutsalak my love zure setazko galtzerdi diztiratsua  
Hutsala fita doratuko zigarro horren fantasia  
Oroimen edo zu ke beldurtia... (E, 101)  
Edo hutsala fita doratuko zigarroaren fantasia... (E, 112)

Eta horrek badu arrazoi garbia. Atxagarentzat utopiak ez du agintzen eta zuzen edo oker etorkizuna ez da hitz urrundu bat besterik.

Utopia ausartenak ere hain zikoitzak ez balira hemen... (E, 102)

Asperduraren topiko nagusia aipatuz:

Igande arratsalde hil ezin bat... (E, 102)

etorkizuna huts geratzen da:

Berresan ahal ditugu zenbait hitz etorkizunaz ere... (E, 102)

Horrela denborak itzuleraren antza hartzen du, zikloka edo zirkuluka ari da.

Begira egien berriro masustei... (E, 63)

...bere maitasunak erreparatzeko... (E, 53)

“Berresan”, “berriro”, itzuli behin eta berriro, jira eta biraka doa denbora; itzulera da. Eta estazio aurrean biltzen diren kalatxoriek:

...zer maite dezakete gehien  
egunen mudapen amaiezina ezpada  
egunen mudapen infinitoa baino gehio... (E, 53)

Denboraren aldaketa maite dute, baina arratsero-arratsero erreparatzera itzultzen dira estazio aurrera, modernitatearen denboran berritasunaren azpian betiko gertatzen baita, berritasunak berdintasuna ezkututzen baitu. Ez dago jada heroerik:

...imajina ezina dun Lope Agirre bat... (E, 68)

Catalina de Medicis-en palazioko goardiak, aspaldi galdu ziren... (E, 70)

Horregatik, Borges-en arrabalak gogoratuz apika, agertu du Atxagak Bilboko bazterreratuen ejerzittoa: eskaleen sakelak, sukalde proletarioak, berripaper saltzailea, bus txoferrak, boxeolari hila, moskorrak, kale garbitzailak eta prostitutak. Hiriko ikuspegi berria, gristasunaren ejerzittoa, desitxaropenaren eta desparadisuaren bataila.

Benjamin-ek begi zorrotzez agertu zuen hiriaren aurpegia. Baina begirada zolia urrunago heldu zen. Ez zuen soilik deskribapena egin, etorkizuna ere agertu zuen hiru puntu garrantzitsutan: klasizismoaren ukazioan, artearen teknifikazioan eta hiriaren eta izadiaren artean sortuko ziren loturetan

Gizarte burgesak badu motor bat: desioa hain zuzen ere Atxagak alde batera utzi duen desioa:

Nola bizi liteke ...  
plazerra eta oreka persekutatuz... (E, 80)

etorkizunik ikusten ez duelako, ziurrenik:

Urkamendia jasota jadanik etorkizunaren bihotzean bertan... (E, 90)

Desioa gauzatzen denean, berriz, forma berriek forma zaharrak gaurko-tzen dituzte, modernitatearen joera iraganean oinarritzea delarik, iraganaren bidez moderna justifikatu behar balu bezala. Benjamin ohartzen da XIX. mendeko gusto burgesak maite duela era bateko edo besteko klasikotasuna, antzinakotasuna. Baina horrekin batera sortzen da haren aurkako artea, hura parodiatuz Grandville-ren karikaturetan agertzen den joera kritikoa.

Atxagarengan ere zeresan handia du klasikotasunak. Baina hondatua dakar, bere onetik jeitsia, galdua; haustua eta hautsia.

Catalina de Medicis-en palazioko goardiak, aspaldi galdu ziren eta berak grabatutako izenak misterio bat dira gaur egun (E, 70)

Horituak erloju  
Hautsiak  
Hiztegi liliputiarra  
Espartako eskuta herdoildua... (E, 87)

Kheops, Khefrén eta Mikerinosek ...  
Egipto —hauster— hainbat harea... (E, 90)

Eta gu ere katedral zapuztu horietarantz... (E, 93)

Hiru esanahi desberdin eman diezazkiekegu aipuei. Lehenak, garbienak, denboraren joanaz eta kultura nagusien galeraz hitz egiten du. Bigarrenak neoklasizismoan oinarrituriko kultura ofizialaren aurka egingo luke, gogoratzekoa baita, neoklasizismoa dela frankismoaren arkitekturaren eredu nagusia.

Hirugarrenak, ordea, kultura aldaketa batez hitz egingo luke, modernitate-tik postmodernitateara doan bidean, kultura bat kolokan jarri da, idatziaren kultura ikusentzunezko kulturaren aurrean, liburua, fotografia, zinema eta telebistaren aurrean. Eta horren berri eman dute bertso hauek:

...eta herrestan doaz halaber  
ziutate idealaren planoak  
zintak teori iraultzaileak  
izerdiak horrenbeste min moeta  
Ofeliaren ile beilegiahula... (E, 92)

Hain zuzen ere, teknologia berrien aurrean gaude. Benjamin-ek ikusi zuen artea aldatu egingo zela teknologia berrien aroan. Forma berriak hartuko zituen: egunkaria, fotografia, zabalagoa eginez, jende multzo handiagoetara helduz, artea merketuz eta hedapena erraztuz. Atxagaren *Etiopian* bada forma teknologikoak artean utzi duen aztarnaren berririk. Bada publizitatearen hizkuntza, bada eguneroko hizkuntzaren tratamendu dadaista. Baina antzinateko monumentuak hondatuak heldu zaizkion moduan, galduak, zeinu linguistiko huts bihurtuak, dei gisa, hots gisa heltzen zaizkio kaleko hizkuntzaren oihartzunak:

O-nou, zer moduz, comantalevu, eta abar, eta abar... (E, 112)

Poetaren hizkera —ez dago ezer berririk esateko— hots huts bihurtu da, azken muturreraino eraman du hizkeraren deuseztapenean poetak, dadaisten joerak indartuz. Hiriko zarataren soinu estilizatua besterik ez da zentzurik gabe esaten den, ahoskatzen den hizkera hori, desnortasunaren zeinu, hiriak sortzen duen masifikazio eta anonimotasunaren neurri.

Burgesiaren kultura teknologikoak aurrean izango du izadia. Benjamin-ek ikusi zuen bien arteko kinka, eta argi idatzi zuen hartaz teknologiaren ametsak gaitzetsiz. Honela deskribatzen du bere jarrera Susan Buck-Morss-ek:

El mito de la omnipotencia humana, la creencia de que el artificio humano puede dominar a la naturaleza y recrear el mundo a su imagen, son elementos centrales de la ideología de dominación burguesa. Benjamin denomina esta fantasía (sostenida con mortal seriedad por aquellos que empuñan su poder tecnológico sobre los demás): “Infantil”. (1996, 175)

Hiriak eta teknologiak sortu duten egoeraren aurrean badu Atxagak bere iritzia. Izadia era xumez baina sartu egiten da hirian, kalatxorien bidez besterik ez bada, bere maitasunak erreparatzeko. Edo ikuspegi anarkista eta apokaliptiko bati dagokion eran, Etxahuni deituko dio, hirira datorrela, animalien bidez egoera berri bat sor dezan:

Jarri zara bidean Ba zatoz Etxahun ...  
Eta zu ere abiatu zara Ba zatoz Etxahun ortotsik  
Mantekila eta mermelada eskutan duzula  
Eta gariz jantzia ikusiko zaitugu  
Gariz jantzia eta uda zabaltzen... (E, 107)

Historia den hondamendiaren aurrean, hondamendi gertatu baitira burgesi-ak eta teknologiak sorturiko ametsak, poetak etorkizunerako izadiaren agerpena uzten du, zirrikitu hits balitz bezala, iraganarekin (eta historiarekin) eten egiteko modua izango litzateke bat-batean agertzen den soluziobide mesianiko batez.

## **Bibliografia**

- ATXAGA, B. (1978): *Etiopia*. Pott liburutegia. Bilbao.  
BUCK-MORSS, S. (1996): *Dialéctica de la mirada. Walter Benjamin y el proyecto de los pasajes*. Visor. Madril. 418 or.





## IZUEN GORDELEKUETAN BARRENA

*Izuen gordelekuetan barrena* liburuari buruz hitz egitea 80ko hamarkadaren hasieran argitaratu zen liburu handi bati buruz hitz egitea litzateke. Egia da liburu argitaratzen denerako, idazlearen bizitzako baldintzak aldatuak izan direla. 1980. urtea bere urterik libreena izan omen zen, Joseba Sarrionandiak bere hitzaurrean dioen moduan: “hogeita bi urte egin ditut, eta inoiz baino askeago senditu izan dut ene burua hazilaren hamairuan —aurkezten ari naizen poema bilduma hau osotu berri nuela— gartzelera, dirudienez luzarorako, sartu nauten arte”.

Aldaketa erradikal horrek desberdintasun argiak ekarri dizkio libururari. Batetik, idazlea ez da bere buruaz irmo senditzen. Hitzaurrean behin eta berriro hitz egiten du bere zalantzaz liburuaren aurrean: liburu pribatua da berez, baina publikoa egin beharrean aurkitzen da, lagunentzat idatzia eta plazara irten beharrez; “heriotz naturalerantz” doan liburu da.

Zalantzak poetaren estetikan ere agertzen ditu Sarrionandiak: “Beti iruditu zait poemagintza literaturaren eremuko alor sagratuena, idazteko zein irakurtzeko zailena, eta, aldi berean, profanatuena. Bigarren: zalantzan nago ez ote den nire idazlan hau ere profanadorea” (IGB, 5). Poesiaren garbitasunaren aurrean, poetak bere joeren aurrean duda mudak sentitzen ditu, liburuan agertzen den estetika (kulturalismoa, estetizismoa) zerbait galdua balitz bezala, eta beste garai bati dagokiona.

Beharbada, estetika aldaketaren beharra haragian sentitu du idazleak, garbiri azaltzen baitu:

Edozelan ere badakit gauza bat, aitzakia izan nahi ez duena: ez dudala aurrerantzean era honetako poesiarik eginen. (IGB, 5)

Erabakia hartua dago. Pott bandaren inguruko lehen aroa bukatutzat ematera doa idazlea. Gartzela garaiari hasiera emateko *Zeruko Argia* aldizkarian “Bazterrekoak” saila idazten hasiko da. Geroago sail hori *Marginalia* liburu bihurtuko da. Poesia modernoak estetizismo eta konpromezuaren artean izan duen borrokan Sarrionandiak lehena aukeratu zuen liburu honen garaietan

(bigarrena falta ez zelarik ere) eta bigarrena ondoren. Poesia kultista batetik, poesia militantero heldu zen.

Bada, gainera, beste froga bat: idazleak liburuarekiko duen mesfidantza, hitz gogor bat erabilteko, edo iritzia, bigunagoa, ezagutzeko. 1987. urtean *Marinel zaharrak* liburua argitaratzen duenean, bere poesiaren antologia nagusi den liburua kalean jartzen duenean oso gutxi da lehen liburu honetatik salbatzen dena. *Marinel zaharrak* testuak hiru atal ditu, atzekoz aurrera atonduak: lehenak “Tren ilun eta bustiak”, *Hnuy illa nyha majah yahoo. Poemak (1985-1995)* liburuan agertuko den sail nagusiaren hautapena, “Gartzelako poemak” 1992. urtean izenburu berdineko liburuaren antologia, eta *Izuen gordelekuetan barrena* liburuko zenbait poema. Guztira, berriak barne, 33 testu berrargitaratzen ditu Sarrionandiak. Batzuk, berriak dira, beste poema bat bitan banandu da, zenbaitzuk aldatuak agertzen dira. Horrek guztiak badu, ziurrenik zentzu zuzenik: aukeratzen duen aroan liburuak ez ditu betetzen idazlearen espektatibak. Poetak, agian, ez zituen oso gustora idatzi —eta batez ere argitaratu— lehen liburuko poema guztiak. Zalantzan sortu da, eta zalantzan argitaratu. Bat-batean, zahartuta agertuko balitz bezala.

Jarraitu du libururak “Neuri eta adiskideei bakarrik dagokigun lan katea” izaten, zerbait pribatu balitz bezala, Pott taldekoen estetika bidea markatu balu bezala, berea guztiz ez den bidea. Halaz ere, bere bukaeran hitzaurreak aitortu du liburua ez dela jada berea, irakurlearena ere badela eta, beraz, irakurtzeko eta gozatzeko bidea libre dugula esaten zaigu aitorten xume horretan.

## 1. Hitzzaurreak irakurritz

Liburua gidatzen duen estetika hiru mugarri nagusi ditu, hitzaurrean aitortzen denari jarraitzen badiogu, behintzat:

—Erreferentzia literarioaren bidea. Neokulturalismoak agintzen zuenez, behar bestekoa zen aurreko poesia ongi ezagutzea eta bere testuetan aurreko poeten lanaz baliatzea. Metaliteraturaren —inoiz era irrigarri erabili izan den joera bada ere— bideetatik abiatutako poemategia da hau, Europako kultura oinarriturikoa. Gerora mintzatuko gara eragin literarioez, baina gogoratu nahi nuke, prosan joera hau nabariago bada ere (“Enperadore eroa” eta Yourcenar), noizbait bertsioak egitera jotzen duela Joseba Sarrionandiak. Dena dela, erreferentzia eta metaliteraturaren eragina delakoa dela lan honetan, ezin da ahaztu T. S. Elioten eragina. Anglosaxoiari jarraituz, Sarrionandiarengan presente dira tradizioa eta eraberriketa, Europako poesia berria, eta Zuberoako kanta, abanguardia eta (abanguardiaren eraginez) primitibismoaren joera. Erreferentziak zeintzuk diren zehazteari baino garrantzitsuagoa deritzot beste puntu honi: tradizioa eta eraberriketa lotzeko ahaleginari, alegia.

—Bizimodu arruntetan oinarrituriko poemak ere badira poemategian.

Literatura eta bizitzaren arteko joeran, Sarrionandiak ez du bizitza ahanz. Ez da soilik errealtatea “Epigramak” sortzeko joera nagusia. Liburua balantzaka ari bada, estetizismo eta konpromezu politikoaren artean, eta hala dela ustedut, errealitateak bidea ematen dio bigarren honi. Egia da poesia lantzeko orduan, errealtatearen aipamenaren bidez, hurbiltasuna dela Sarrionandiak bilatzen duena: testuak haurtzaroko aberria bersortzen du. Idazleak berak aipatzen duen joera bat hona ekarriz, Garaizarko itsuarena genuke: Sarrionandia umeak zaintzen zuen eta haren omenez “Oskorriko arragoak” poema idatzi (IGB, 19). “Amatxiren heriotza”k ere bide hau aukeratu luke (IGB, 27).

—Pott bandaren aipamena estezismoaren beste modu bat da. Taldeak eragina izan du Joseba Sarrionandia poetarengan, eta eraginak ondu du poemategiaren tonua. Esan genezake taldearen poderioz, Sarrionandia berak uste baino urrunago joan zela. Beharbada, horrelaxe gertatu da. Baina Potten eraginez aitorten bat egiten da hitzaurrean, eragin hori zertan den aipatzen ez delarik. Ondoren arbuiatu egin den estetizismoa, ez ote zen bandaren eragina?

Eragin hori zehazteko moduak ere badira, gizakiaren eta taldearen arteko kinkan defini genitzakeen moduak, hain zuzen. 1981. urtean telebistan egin-dako elkarrizketa batean, Bernardo Atxagak taldearen hasieran izan zituzten idazle mirestuei buruz hauxe esan zuen: poesian Eliot maite zutela, eta prosan Marcel Schowb, Borges-en maisuetariko bat. Eliot-en eragina taldearengan, eta batez ere taldearen poesian uka ezina da. Etsipenerako joera, erlatibismoaren sustapena, mundua zatitua dela baieztatzeko indarra, desertuaren agerpena, modernitatea eta tradizioa lotzeko ahalegina, irudien moldaketa, kulturalismorako joera, ezaugarriok, batetik edo bestetik, Eliot-engan dute iturburu, nahiz eta, ondoren, taldeko bakoitzak (Atxagak, Sarrionandiak, Juaristik) bere erara, eta beste irakurketen bidez osatu eta aberastu badu ere irakurketa molde hori.

Baina horiek biak izan baziren ere Pott bandaren zutabeak, Joseba Sarrionandiaren kasuan bada beste eragin garbirik: Alvarez eta bere *Museo de cera* “berrogei IZEN SONETOA egiteko” sortzeko orduan, Pere Gimferrer eta *Muerte en Beverly Hills*, eta poemategian aipatzen diren beste hainbat poeta: Pessoa, Dylan Thomas, Holan, eta beste asko. *Marinel...*a sortzeko orduan XIX. mendeko marinel nobelen egileak: Conrad, Melville, Poe. Eta Mexikoko iraultza kontatu zuen kazetari ezkertirra: Jack London. Eta literatura fantastikoaren egileak: Cortázar, Borges. Eta Irlandako kanta herrikoiak. Eta Mirande, nori poema luze bat eskaintzen zaion liburuan.

Hori guztia beste hitz hauetan labur dezakegu: poesia ebokatzaille, autonomo eta harrigarria egiteko asmoa. Pott bandako izan zen Manu Ertzillak, Paul Meabe ezizenaren azpian honela laburtu zuen asmoa, Bilboko *La Hoja del Lunes* astekarian:

La diferencia entre ambas poesías (sentimental y literaria) es que en la sentimental se plasma la vida en la escritura, mientras que en la literaria se trata de emplear la escritura como forma de vida.

Literatura eta poesia bizitzeko erak dira, eta horiek gabe ezin da bizi, literatura ofizio bihurtzen du idazleak, eta bere bizitza literaturarekin lotua agertzen da. Friederich, poesia modernoaren ikerlariak dioenez, XX. mendeko lirikaz mintzo delarik:

Renuncia a la inteligibilidad limitada, substituyéndola por una sugestión plurivalente y afirma su voluntad de convertir el poema en algo independiente y autónomo, cuyos contenidos se mantienen gracias al lenguaje, a lo ilimitado de su fantasía o a su irreal juego de ensueños. (Friederich, 1974, 186)

Hizkuntza, fantasia, ametsa poemaren oinarri gisa, horixe omen da poesia autonomoan sinestea. Poemaren mugetan barrena sakontzen dugu gure ebokazioaren bila, poemak mundu bat sortzen du, eta errealtatearekin lotura egiten badu ere, bere izaera sakonago dago, ametsa eta hizkuntza batzen diren tokian.

Hala ere, erratu egiten da kulturalismoaren eta estetizismoaren azpian poesia politikoa ikusten ez duena. Beherago aipatuko dugu nola lotzen diren konpromezua eta gaien edo herrialdeen aukeraketa. Baina, tartean eman dezakegu daturik. Ez kasualitatez, Irlandaz ari denean, erakusten du bere joerarik markatuena. “Irlandar herriaren aldekoak” (IGB, 94), “Gudu olerkia” (IGB, 97) edo “Soldadu hilaren ama” poemek ongi adierazten dute kulturalismoaren gainean edo azpian, badagoela borondate *engagéa* Sarrionandiarengan, azken poemak gainera bertsio argiagoa izan du *Marinel Zaharrak* liburuan argitaratu duenean.

Prosazko lehen hitzaurrea helburuen eta nahien proposamena bada, “Bitakora kaiera” (liburuan diren poemaren artean ederrenetarikoa) gaien eta kontzeptzioaren deskribapena da. Gaiak: bertan dira laberintoa, oroimena, etsipena (noraieza), horiek direlako liburuaren gai nagusizat hautatzen, gaurko literaturaren joerak jarraituz; eta kontzeptzioarena, liburuan zehar bidaia proposatzen zaigulako batasun hari gisa. Idazleak berak adierazi duen eske-man: toki abstraktu bi jartzen dira poemategiaren ataurre eta bukaera gisa, Sorterria eta Deserria; tartean, txandakatuz, hiru hiriburu eta herrilade bi: Paris, Grezia, Lisboa, Irlanda, Praha.

Paris alde batera uzten bada, eta Paris neska zaharra da, Europa merkantilistaren ikurra, eta Miranderi egindako gorazarrea, era berean, beste lau herrialdeek ezaugarri bi dituzte amankomunean: herrialde txikiak dira, eta askatuak Europa barnean; ereduak dira, neurri batean, Euskal Herriarentzat. Txekiak, Portugalek, Greziak, eta batez ere, Irlandak eredu politikoa eskainiko lukete Euskal Herriarentzat.

Era berean Europa laberintoa da. Geografia asmatua da, idazleak bere burua aurki dezan.

...altxorren mapak besapean  
etxea utzi eta ondinen  
abestien xerka abiatu ninduzun  
izuen gordelekuetan barrena...  
denborak bidea ahorturik  
etxera itzuli ninduzunean  
berria zizun ateko zura  
eta serraia ere... (IGB, 68)

Bidaiariak bidea bete duenean, historia aldatu egin dela ikusten du, eta sorterrria ez dela berak utzitakoa eta berriro jarri behar duela martxan ikusiko du:

Antzinako solasen bat atzeman nahiz  
itzuli naiz gaztaroko etxera. Erraturik,  
ez gaztarora... (IGB, 142)

Liburuaren azken poema den honetan etsipen larregirik erakusten du Sarrionandiak: bere burua aurkitu ez duenaren kanta da erakutsitakoa:

...eta atarira abiatzen naiz, atea hersteke... (IGB, 142)

bere burua betiko bidaiatzera kondenatua balitz bezala.

Europa laberintoa da, noraezaren, ezjakintasunaren eta existentziaren irudizat har dezakeguna. Laberintoa egiten da bidaia, norberaren buruaren bila, nahiz eta jakin bukaera den bezalakoa dela, "Iragan dira horik oro" esaten duenean, batez ere guztia iraganean kokatua dela ulertu eta adierazi. Oroitzapenaren funtzioa bestea da: nortasun eta identifikazioaren oinarria da. Oroitzapena gorde den joeraren sinboloa da. Kondaira, iragana, buruak bizi duena adierazten du.

Liburuan gordetzen den literatur kontzeptzioarekin jarraituz, zertzelada bi aipatu behar genituzke testu inguru honetan, bere zentzu hertsian kontzeptzio desberdin bi agertzen baitira bigarren hitzaurre poetiko honetan. Bidaia untziz egiten da, literatur giro bat bersortuz, lehenago aipatu dugun marinel erromantikoaren giroa sortuz, London, Melville eta Conrad-en mundua aipatu nahi da bitakora kaiera aipatu den une berean. Baina, horrezaz gain, badago Coleridge-ren *Marinel Zaharren baladaren* aipamen berezirik testu honetan. Coleridge-ren marinelari heriotzak berak egiten dio galde zer maite ote duen gehiago: bizitzan hilak bezala bizi, edo heriotzean benetako bizitza lortu.

Galderak, eta erantzunak, lotura dute transizio garaian sortzen den joerarekin: ez da onartzen bizitza arrunt bat, erromantikoek bezala, bizitzari gehiago eskatzen zaio eta, politika arloan ere, oniritzen dira joera konprometituak

eta ez egunerokotasunean oinarritutakoak. Aszetika kristauarekin lotura duen joera honek (hobe da sakrifizioa, heriotzan bizitza lortuko baita) izan du gure gizartean erantzun zabalik.

Bigarren zertzelada sakonagoa da, eta badu zer ikusirik idazketa ulertzen den erarekin.

Ondorengo argitarazioetan aldatu den esaldian, poetak baiesten du honela idazten duela:

...ez prophetaren antzera, eroaren antzera baizik;  
ez Jainkoentzat, marionetentzat baizik;  
marionetak marionetentzat bezala eskribatzen du... (IGB, 12)

Badira hemen hiru kontzeptu aberats, literatura nola ulertzen den zehazteko. Ez du profeten gisa idazten: galdu da, beharbada, tonu epikoa, ez da abarrotsa maite, tonu barnekoa bilatzen da, eta era berean, onartzen da, neurri batean behintzat, zein den literaturak duen indarra gizartea aldatzeko orduan. Ez da bat-bateko eragina berea, ez du lortzen joera zuzenez, aldaketa garrantzitsurik. Liburua argitaratzen den unean, eta agian ez ondoren, Sarrionandiak literaturaren eraginari buruzko iritzi ezezkor bat darabil, literatura sozialetik urruntzen duen eragina da: zuzeneko eraginik ez, baina bai agian, zeharreko eragina. Literaturak ez du gizartea aldatzen, baina gizakien kontzientziak aldatzen ditu, eta horiek aldatzen dute gizartea.

Eroaren aipamenak poesiaren irrazionaltasunarekin egiten du topo. Arrazoiaren aurka, logikaren aurka mugitzen den poesia da hau. Rousseau-k adierazi zuenez, “Poetak! Izan zaitezte ilunak”. Iluntasunak ez du liburu honetan esaeraren iluntasuna esan nahi. Hemengo iluntasuna irrazionaltasunarekin lotzen da, arrazoiak ikusten ez dituen zirrikituetan aurkitzen da, paradoxa maite du. Poetika erromantikoaren agerpenak eskatzen du arrazoi uxa-tzea, eta arrazoiaren gainetik dagoenaz mintzatzea.

Bigarren edizioan esaldia aldatu izan bada ere, marionetak marionetentzat bezala idazten duela esan zuen Sarrionandiak lehen argitalpenean. Esaldiak gogora dakar generoen teoria: epika heroiez mintzo zen, nobela gizaki arruntez, lirika horri tokatzen zaiona marionetentzat idaztea da: hau da, beren patuaren jabe ez direnentzat, beren bizitzak beste norbaitek mogitzen dituentzat. Ziurrenik, bazterreratu eta marginatuen lehen aipamena dugu Sarrionandiaren lanean.

Agian, parodiaren mugetan mugitzen den esaldia da, parodia literatur generoarean zentzuaz ulertua: literatur genero erreztatuen garaia igaro da; galduetz hitz egitea geratzen da bakarrik, soilik beste norbaitek esandakoa errepikatzea.

Parodia jokoa leundu egin da bigarren edizioan, eta 1985. urtean “gizonak

gizonarentzat bezala” idazten duela adierazi du durangarrak, bere mintzoaren hartzaileen izaera altxatuz, bere hizkera literarioari prestakuntza eskainiz.

Literatura ulertzeko eraz hainbat gauza esan ditugu jadanik. Sarrionandia XX. mendeko literatura garaikidearen arazo eta ildoen barnean kokatu beharrez gaude. Usu dira erabiltzen garaietan nagusitzen diren hainbat ulermen modu, hainbat literatur topiko, hainbat jolas eta iritzi. Honen guztiaren laburpen gisa baina, Pessoaen aipu bat ekarri nahi nuke hona, liburuaren tonuaren ispilu delakoan:

Cada uno de nosotros quedó entregado a sí mismo en la desolación de sentirse vivir. Un barco nos parece el objeto cuyo fin es navegar, pero su fin no es navegar: es llegar a un puerto. Nosotros nos encontrábamos navegando sin la idea de qué puerto nos debía acoger. Reproducíamos en versión dolorosa la fórmula aventurera de los argonautas: navegar es preciso, vivir no lo es. (Pessoa, 1978, 15)

Esaldia behin eta berriro erabili du Pottteko beste partaide batek Jimu Iturraldek, eta horegatik, beharbada, agertu da horrenbeste bidaia bere lanean, horregatik gertatzen dira bere historiak Euskal Herriatik kanpo. Baina Joseba Sarrionandiarengan esaldiak indar berriak hartu ditu. Bidaiaren zentzu mingarria da testuak agertu duena. Patuaren ezinbestekoaz gain, bidaiatzea ere galbidea dela erakutsi du liburu honek.

## 2. Liburua irakurriz

*Izuen gordeleketan barrena* liburuaren barna abiatu hainbat gauza gus-tagari agertzen direla esan beharko nuke lehen-lehenik. 1980. urtearen inguruan euskal poesiaren eraberritze garaia gertatzen denean, Joseba Sarrionandiak liburu honetan, garaiko elementu eraberritzaileak sartu ditu: estetizismoa, kulturalismoa, abanguardiarene ohiartzuna, poesia narratiboa, gerora esperientzia poesia deitu izan denaren zenbait ezaugarri: lehen-lehenik poetaren irudiaren agerpena, literaturak sorturiko lilura... Artisan gisa eginiko lana bada ere, prozesuak agerian utzi ditu liburuaren zenbait birtute eta zenbait arazo:

Berriro joko beharko dugu hitzaurrera:

Bada, urte betean, 1980. urtean zehar, eginikako poemek osatzen dute. Irailan eta Urrian idatzi nuen, gehiena, baina urte guzian zehar bildurikako ohar eta gogotez... Esan bezala, 1980. urtean zehar sorturikoak dira poemak eta, banan banan, sortuak direnez areago da poema bilduma, poema oso bat baino. Eta poema bilduma den arren ere, badu bilakaera edo egiturazio orokorra. (IGB, 5)

Esaldi horretan aurkitu ditzakegu liburuaren indarrik nagusienak. Batetik bilketa lana egin da urte oso batean: irakurri, oharrak bildu, irakurriari buruz-

ko iritziak eman, ideiak idatzi, intuizioak batu... Eta gero horri forma eman, eta bidaiaren egitura bakarra sortu. Bien arteko joerak erakusten du liburuaren alderik onena eta ez hain ona.

Oharren arteko desberdintasunak liburuari itxura berezia eman dio. “Poema bakoitzak du bere autonomia”, eta era berean egitura orokor bati begira daude. Batasuna eta zabaltasuna batera. Ohar eta ideiek desberdintasuna agertzen dute. Idazle desberdinen oihartzunak (eta batzuk lehenago aipatu ditugu), hari askori begira daude: poema forma, poema narratiboa, bilketaren bidez sorturiko poema...

Poemari homogeneizazioa kanpotik ekarri zaio, poemategiari asmatu zaion bidaiaren egituraren bidez.

Idazleak berak ere idatzi du:

Izan ere bilduma ez bait da homogeneoa, ez lengoaiaren, ez gaiaren ez tankeraren aldetik. (IGB, 6)

Agian, larregizko baieztapena dirudi, poeta lanarekin konforme geratu ez balitz bezala. Ahots eta oihartzunen arteko banaketan, badirudi idazleak berak oihartzun handia aurkitu duela bere lanean. Hori da, behintzat, bere esaldi horrek erakusten duena. Nik, ordea, uste dut badagoela poemategian idazleak ikusi ez duen batasuna: tonuarena, hizkeraren tonuarena. Molde desberdin askotako poemak agertzen badira ere testuan, Friederich-ek Eliot-i buruz esan zuena esan dezakegu Sarrionandiari buruz ere:

Esta obra llena de incongruencias resulta fascinadora por su musicalidad... El lenguaje transcurre, siempre de modo imprevisto, por las más diversas modulaciones: relato escueto, nostalgia, contemplación, melodía de flauta, de vez en cuando patetismo y luego otra vez ironía, sarcasmo, estilo coloquial descuidado. (Friederich, 1974, 257-8)

Badirudi garaiko poesiak hizkera molde bat, Miranderegan ikasitako modernismoa, eta topika bat eskaini dizkiola Sarrionandiari: bidaia, ispilua, haurtzaroaren garrantzia, exotismorako joera, irakurketaren garrantzia, idazleen biografiarekiko atxekimendua, abaildura... Eta asko eta asko sartzen saiatu dela bere liburuan.

Tonu aldaketa bilatu izanak, teknikak ugaritzera darama idazlea, batzuk zentzuz erabili izango ditu, beste batzuk tentuz, azkenekoak joera bat erakusteko, edo lilura bat, beste barik, ariketak direla esatera ausartuko ez banintz ere. Teknika arloa aberatsa da: poema narratiboak eta lirikoak, bata bestearen ondoan agertzen dira, nostalgiak bere tokia du, elkarkidetasunean oinarrituriko poemak ere aurkituko ditugu, pilaketaz jokatzen dutenak, hitz jokoan oinarriturikoak, lerro xume baten garapen direnak, kopla zaharraren joko epigrametan. Tonuen aldaketak eta elementu desberdinen pilaketak liburuaren birtutetzat jo ditzakegu. Baina joera horrek ere sortu ditu poema ahulak, hasi eta



amaitu era berean egiten direnak, adibidez, formaren geometriari lotuak (40. or., 48. or.), edo literaturaren forma baten liluraz sortuak. Emozioa baino gehiago lilurak, eta literaturaren ohiartzunek agintzen dute hor. Badirudi Rilkeren aholku bat jarraitzen ari dela Sarrionandia:

Sálvese de los temas generales y vuélvase a los que le ofrece su propia vida cotidiana: describa sus melancolías y deseos, los pensamientos fugaces... descríballo todo con sinceridad interior, tranquila, humilde y use para expresarlo, las cosas de su ambiente, las imágenes de su sueño y los objetos de su recuerdo. (Rilke, 1980, 25)

Halaz ere, liburuak mantentzen duen hizkera azpimarratu beharko genuke. Miranderen aztarna nabari da han, esan nahi da modernismoak —Baudelaire urrunean agertzen da— sorturiko hizkera bat. Ez da, baina, eragin bakarra. Iparraldeko hizkerak eta Zuberoako herri kantetan agertzen denak osatzen dute hizkera poetiko honen tonua. Hizkera honen barnean hiru ezaugarri nagusi aipatu beharko genituzke:

1) Hiztegia: Hiztegian eta hiztegiaren aukeraketan fineziara eta leuntasunera jo da. Baina arlo honetan badira alderdi bi zeharo desberdinak. Hiztegi zuzenarekin lotuko nuke bata: badira liburuan hainbat izen zehatz poemaren argitasuna eta batasun semantikoa markatzen dituztenak. Arlo semantikoa garbiak dira izadiarekiko lotura agertzen duten arbola eta txorien izenak. Guztiak dira fonetikari eta musikaltasunari lotuak, eta poema liburuen ozentasuna azpimarratzen dutenak. Hizkuntza poetiko garden horren zutabe dira: karnabak, behi mantsoak, kalatxoria, maluta, txakur deslaidak. Ez da ahaztu behar horrelako elementuen joko sinbolikoa, bai poesia hau poesia primitibo batekin lotzen dutelako, bai irudi expresionistarako bide direlako.

Mundu poetikoa eraikitzen duten izenok asko dira, batera nemiño eta haundi. Badirudi euskalkien hiztegi ahaztu eta berezi baten berbiztuera dugula begien aurrean, hitzaren balio sinestesikoari lotua.

Bigarren alderdiak literatur topikoen eragina azpimarratuko luke. Idazle asko aipatzen dira orriotan, eta idazleon hiztegi ekarria ere nabaria da. Ispiluak, bibolinak, irudiak hormetan ikusteak: guztiok literatur giro baten aztarnak dira lanean.

2) Matizazioa: Oso poesia fina dugula esan dugu. Matizatua ere bada. Ezaugarri hau nabari da joskera eta adierazi mailan, agertzen da definizio bila abiatzen diren poemetan: poema paraleloak dira, definizio bat ematen da eta esaldien bidez kontzeptuaren muinaren bila abiatzen da poeta.

Nekez uzten du bere sorterrria  
sustraiak han dituenak.  
Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak  
ez bada abaildu eta oholetan.

Ez du niniak begia uzten  
ez bada erroi edo arrubioen mokoetan.  
Nekez uzten du gezalak itsasoa  
ez hare harriak basamortua... (IGB, 25)

Begira itzazu itsasontziak haretan zurkaiztuak,  
eta jauregiko leihoetako arno eta urdai usaina.  
Begira zer ukanen duzun etxera itzultzean:  
aitoren semeen ospea, ator usain gozotuak... (IGB, 65)

Pilaketa eta ugariketaren teknikak erritmo paraleloak eskaintzen dituen artean, poemak bere osotasuna agertzen du kontzeptuaren zehaztasunean.

Zehaztu behar duenean, Sarrionandiak esaldiak errepikatu egiten ditu, erritmo lasaia bilatuz olerkiarentzat. Kostaldean jotzen duten olatuen antzekoak dira esaldiok, monotonian jausi barik esanahia luzatzen duten testuak dira.

Badira, baina, liburu honetan harritzen nauten hainbat zehaztasun ttiki. Bata da *Etiopiarekin* agertzen duen lotura, bestea agertzen duen urruntasuna. Idazle biok lagunak izaki normala da litertaur mugimenduaren joera antzekoak plazaratzea.

Hala agertzen dira sinbolo nagusi batzuk lan biotan: bidaia, zirkulua, eremuaren agerpena. T. S. Eliotek bere *Lur eremuan* agertzen duen modernitatearen ikuspegiaren pean agertzen dira idazle biok, eta normala da neurri horretan handik harturiko joerak poesian agertzea. Aipatu beharreko beste izen bat Borges da, honek eman baitie literatur hiztegiaren neurria.

*Etiopiar*en kontzeptzioa barrokoagoa iruditzen zaidan artean, kontrasteen biolentziari lotuagoa, hizkera modernistak leundu egin du *Izuen gordelekue-tan barrenak* sortzen duen sentimendua. Iragana eta nostalgia liburu biotan agertzen bada ere, abangardiak eta ironiak garrastu dute Bernardo Atxagaren obra, eta modernismoak leundu Joseba Sarrionandiarena. Bigarren pertsonaren erabilera, hauxe baita dramaren eta tragediaren sena adierazteko modua, urriago da durangarraren lanean. Beraz, ikuspegia zerbait “idilikoa-goa” da, nahiz eta gaiak tragikoak izan.

Zuzendu beharko nuke nire aurreko iritziren bat. Lehen argitarazioan idazten nuen ikuspegi horrek ez zuela tentsiorik sortzen irakurlearengan. Gaur ez dakit horrenbeste esango nukeen, eta ziur naiz adibidea aldatu egingo nukeela, ezin baita esan “Soldadu hilaren ama” deituriko poema ez dela tentsioa. Baina nabarmena da idazle bien erretorikaren arteko desberdintasuna, erretorika moldatuagoa da Sarrionandiarena eta abangardiaren irudiekin lotuagoa Atxagarena. Horrela, liburua irakurri nuenean, ez nituen izuak aurkitu, bai ordea oroitzapenak, sentipenak, narrazio ongi taiutuak, idazketa baten entseguak.

Joseba eta bion lagun batek esan zuen liburu honetan Josebari bere adina

larregi igartzen zaiola. Gaztea eta umatu gabea ikusten zuen liburu, eta idazlea bere alde jartzera etorri da, ez baita berrargitaraziorik ezagutu, eta berriz eman denean oso moldatua eman baita. Ezin da ukatu liburuaren joera erromantikoa, batez ere kontzeptuala, estiloan agertzen duena baino areagokoa, baina ikuspegi hori estalia geratzen da erromantizismoa arazo kontzeptual (ideia joko, ideien garapen) bihurtzen duenean: “Irlandar herriaren aldekoak” poema izango litzateke horren adibide garbia:

Ez da deus ere ortzearen azpian  
irlandar herriaren aldekorik,  
itsasoa eta haizea salbu...  
Eta bada arrazoi bat  
biak aldekotzat ukaiteko:  
hazi egiten bait dugu itsasoa gure malkoez  
eta, halaber, haizea gure hasperenez... (IGB, 94)

Epigramak izango ditugu mintzagai. Hitzaurrean garbi utzi du idazleak horien zergatia:

Ikuskizun, ideia eta egoera minimoak atzeman nahi izan dira epigrametan.

Epigrametan distantziamendua bilatu da poemekiko, joko ironikoa balitz bezala idazketa zatikatu hori. Ez da dudarik, ordea, Eliot-ek poesia moderno-arako zuen eraginarekin bat datozela:

Con estos fragmentos he apuntalado mis ruinas. Debemos aceptar [hitz horiek] como adhesión al fragmentarismo, que es la ley de la poesía de Eliot. El fragmentarismo determina su modo de expresarse... Lo que se dice en un grupo de versos, se destruye en el siguiente o se olvida. (Friederich, 1974, 258-9)

Hirugarren ikusteko modua ere badago. Epigramak omenaldiak dira: poema labur txinoei, grekoei, irlandesei, Pound-i eta filme fotogramei egindako omenaldiak. Horixe baita epigramek bilatzen dutena: gaurko gure munduaren ziurtasunik eza eta fragmentarismoa, osotasun falta, inpresionismo azaltzea.

Ez naiz ni hemen Joseba Sarrionandiaren idazkeraren birtuteak argitan jartzen hasiko. Bere literatur aldi bat erre duela dirudi: “Edozelan ere badakit gauza bat: ez dudala aurrerantzean era honetako poesiarik eginen”. Etorkizunaren txanda zabalik dager.

Lan hau *Jakin* (23, 1982, apirila-ekaina, 133-141) aldizkarian agerturiko: “Joseba Sarrionandiaren *Izuen gordelekuetan barrena*” artikulua berridazketa da. Eskerrik beroenak aldizkariko zuzendariei nirengan jarri zuten konfidantzagatik.

## **Bibliografia**

- SARRIONANDIA, J. (1981): *Izuen gordelekuetan barrena*. Bilboko Kutxa Munizipala. Bilbo.
- CABRERO (1981): "Paul Meabe". *Hoja del Lunes de Bilbao*. 1981-8-31. 14.
- FRIEDERICH, H. (1974): *Estructura de la lírica moderna*. Seix y Barral. Bartzelona.
- PESSOA, F. (1978): *Antología de Alvaro de Campos*. J. A. Llardent Ed. Editora Nacional. Madril.
- RILKE, R. M. (1980): *Cartas a un joven poeta*. Alianza. Madril.

## IRUDIEN GORDELEKUETAN BARRENA

Poema liburuak ongi begiratuak argitaratzen dira Euskal Herrian. Letra tipoak, testuaren diseinuaren eraketa liburuaren azala eta tipografiari dagozkiozan hainbat alderdi ongi pentsatuak eta erakargarriak izateko moduan eskaintzen dira eta jartzen irakurlearen eskuetan. Pamiela argitaletxeak ospe handia hartu du alor honetan bere argitarazio zainduei esker. Baina, Pamiela izan aurretik bada poema liburu bat, Joseba Sarrionandiaren *Izuen Gordelekuetan barrena*, diseinuari eta irudi munduari begiramenez agertu dena. Poemen kalitateaz aritu beharrean, poemen ondoan lagungarri gisa jarritako irudiak hartuko ditugu mintzagai, bazterreko alorra nahi bada, baina ziur gaude irudiek ere ematen dutela liburari buruz eta idazlearen poetikari buruzko informazioa.

Liburu baten irudiaz aritzeak baditu oinarri teorikoak. Adibidez, Gérard Génette-k proposatzen du “paratestu” kontzeptua. “Paratestua” izango litza-teke testu izan gabe, testuari buruzko informazioa ematen duen testu ondoan jarritako “testua”: azala, idazlearen argazkia, idazleari buruz argitaletxeak ematen duen berria. Guztia da paratestu. Aipagarria da, bidenabar, liburuaren atzeko azalean jarri den Joseba Sarrionandiaren argazkia, haur sasoiari agertzen da eta beharbada, argazkiak azpimarratzen du literatura haurtzarora itzultzea besterik ez dela.

Génetteren bideari jarraiki Darío Villanueva-k honelako deskripzioa eman du kontzeptua borobiltzeko asmoz.

El conjunto de elementos verbales —títulos de la obra, de sus sus capítulos, notas, marginalia, etc.— o incluso gráficos —retratos, dibujos, croquis, ilustraciones en general— que acompañan al texto novelístico propiamente dicho y que por lo tanto forman parte del discurso. (1989, 195)

Lan honetan aztertuko ditugun paratestuak liburuari jarritako irudiak izango dira. Banan-banan aipatuz, hauexek lirateke agertzen direnak.

Azalean, Escher grabatzailearen “Eskilara gora eta behera” irudia. Liburua

zabaltzeko eta “Bitakora kaiera” poemari aurre emanaz, Gustavo Doré-k Coleridge poeta igelesaren “The Rime of Ancient Mariner” poema irudiz hornitzeko egindakoetatik bat, hain zuzen ere, esanguratsua, poema hori 1996. urtean euskaratu argitaratu duenenan Sarrionandiak bera aukeratu du azalera-ko. “Sorterri hautatuan” deituriko atalaren aurrean, Word Breayd-en irudi bat, identifikatu ez duguna. “Paris neskazaharra” Miranderen bertsoa gogoan, irudikatzen duen irudi orokorra: burges batzuk beharbada Eiffel dorrera igoten dira, burgesiaren modan eta teknikaren indarrean sinestuz. Grezia atalaren atearrean, identifikatu ez dugun andere baten argazkia jarri du idazleak. Lisboa sailerako, Colombina eta Arlekinen argazkia dator. Irlandaren lurraldeak irudikatzen duen irudi prerrafaeliten grabatu bat aukeratu du, han ikusten da Artur erregea zaldi gainean, neska ederrez inguratua. Praha gaia aurkezteko Werdeger zinegilearen “Golem” filmeko argazkia eman digu idazleak. Azken atala, “Iragan dira horik oro”, sinbolizatzen duen behera etorri den eraiki laberintiko baten (Orbaizetako ola datorkit burura) irudia. Eta testua bukatzeko irudi surrealista bat: eremuaren erdian (nork ez du *Etiopiaren* usaina sentituko), maniki-egitura bat, hutsik. Guztira, beraz, hamar irudi, azala, zazpi eremu geografiko, hitzaurreerako bat, eta liburua bukatu denerako bestea.

Irudiaren azterketak ere pausu handiak eman ditu azken urteotan. Aipagarria da eremu honetan Roger de Flore-k aurkeztu duen *Emblemas. Lecturas de la imagen simbólica* lana. Ikonografia eta ikonologiaren alorrean dabil ikerlari hori, honela aipatuz metodo horren bideak.

La experiencia a que nos convoca la imagen, especialmente la imagen con clara intencionalidad simbólica, no es en ningún caso una experiencia aislada ... Percibimos lo icónico en tanto que su sentido puede alcanzar a ser dicho.

Es en todo momento la organización interna de lo lingüístico —el “halo verbal”— aquello que nos revela la imagen, lo que da cuenta de su alcance significativo, así como de las tecnologías específicas desde la que ha sido conseguida o mediante las cuales logra entrar en conexión con un receptor. Lo propio de la representación es ser semiotizada a través del lenguaje. (1995, 11)

Egia da Roger de Flor-en lana literatura barrokoaren eremuaren azterketan kokatzen dela, eta ez duela modernitateaz ari den ikonologiarekin lotura zuzenik. Baina, de Flor-en lanak badauka Sarrionandiaren lanarekin loturarik, azken batean, honen poesia neobarrokotzat har dezakegulako. Irudiari emandako tokia bera, kultura barrokoak irudiari emandako garrantziaz ere ari da. Ezin da ukatu, bestalde, Sarrionandiaren lanean irudiari eman zaion tokia lotua dagoela masa-kulturak irudiari eta ikuskizunari eman dion tokiarekin, ez da alferrik zinemaren eta fotografiaren eragina Sarrionandiak aukeraturiko irudien artean. Baina ez genuke ahaztu behar Barrokoa izan zela masa-kultura

ereiten eta jorratzen lehena. Badago, neurri horretan, loturarik XVII. mendeko kulturak irudiari eta irudiak liburu horretan duten garrantzien artean.

Roger de Flor-en liburuak, hala ere, intuizio ederrak zabaltzen ditu gurea bezalako lan baterako. Hamar irudiok irakurtzen hasiko bagina bat-batean aurkituko genituzke loturak haien artean, eta loturok Sarrionandiaren literatura aztertzeko balioko ligukete

Gaiekin loturiko irudiak dira liburuak aurkezten dizkigunak. Baieztapen hutsa da egin duguna baina bere sinpletasunean aukeraketaren zioa azpimarratuko luke. Praha Golem-aren bidez sinbolizatzen du idazleak, Prahako leienda bat profitatuz. Paris, burgesia eta teknologiaren bidez, eta Irlanda ziklo arturiko miresgarriaren bidez. Arlekinek eta Colombinak, commedia dell'arteko pertsonaiek, eta berez Italiarekin lotura dutenak, Lisboako nostalgia, negarra eta kanta, patu tragikomikoaren seinale lirateke. Sorterria hartzaroaren irla zoragarriarekin lotuko genuke, eta iragana etsipen, beherapen eta suntsidurarekin, Piranessi-ren gartzela gogora ekartzen duen eraikiaren grabatuarekin. Gaiari lotua, beraz, gaiaren irudi, baina azpiko zeinu ere badira irudiok.

Lotura mundu baten seinale. Irudiok, kartak mahai gainean zabaltzen diren gisa zabalduz gero, Sarrionandiaren literatur jokabide bi irtengo zaizkigu bidera: estetizismoaren jokabidea eta abangoardiaren ezpala. Estetizismoa, edo nahi bada kulturalismoaren eragina agertuko litzateke Doré eta prerrafaeliten aipamenean. Estetizismoak kultura amestu eta mirestu bat jar-tzen du begien aurrean. Estetizismoa, bestalde, kulturalismoarekin loturik dago. Pere Gimferrer-ek poesian egin zuen moduan, kultura jantzia eta masa-

kultura biltzen dira irudiotan literaturan bide berriak osatzeko, eta testuetatik poemetara igaroz, hor dugu “berrogei IZEN SONETOA egiteko” diogunaren erakusgarri. Kultura biren arteko joeran zinemaren eragina garbia da Sarrionandiaren literaturan, prosan garbiagoa bada ere.

Zinemak eta fotografiak, Werdeger eta irudi surrealista horrek Sarrionandia eta abanguardiaren arteko lotura estua gogoratzen dute. Surrealismoaren indarra, abanguardiak sorturiko fetitxismoa, irudimen mundua sortzeko ahalegina, poesia eta arte primitiboarekiko atxikimendua, ezaugarri guztiek dute iturburu bakarra, abanguardiak kultura barnean sortzen duen aldaketa.

Beste alde batetik, zinemaren aipamenak Sarrionandiaren lanean zine-kritikak izan duen tokia gogoratzen du. Noiz edo noiz aztertu beharreko gaia izango da zein toki izan duen zinemak bere lanean. *Narrazioak* liburuko “Estazioko begiradak” ipuinak toki handia eman dio ikuskizunari, eta, ziurrenik, lan hori zinemaren eraginez sorturikoa da. Orohar, aztertu gabe, eta irakurri gabe ditugu zinemari buruz Sarrionandiak zenbait aldizkaritan barreiaturiko lanak. Poema liburuaren kontrazalean poetaren irudia marraztu zuen irizleak ez zuen ahaztu “bere idazlanak, literaturari eta zineari buruzkoak, batez ere” zirela azpimarratzen. Dena dela, ez dira falta abanguardiaren teoriari buruzkoak ere, eta irakurri beharko ditugu artikulu hauek ere bere literatura eta arte kontzeptuak hobeki ezagutzeko.

Irudiek marrazten dute, ondoren, Sarrionandiaren zenbait mito pertsonal. Bi aipatuko ditugu, zehatz-mehatz agertzen dutelako ondorengo lanetan zabaldu duen joera. Bata, nola ez?, Doré-ren grabatua litzateke. Bestea, Golem-aren aipamena egiten duen Werdeger-en irudia. Aurrerago aipatu dugunez, Doré-ren irudia Coleridge-ren lana edertzeko sortu zen, urteak aurrera joan direnean irudi bera erabili da Sarrionandiak Coleridgeren poema euskaratua argitaratu duenean. *Marinel zaharraren baladak* eragin bi izan ditu durangarraren lanean: *Narrazioak* liburuko “Marinel zaharra” ipuina, Coleridge-ren argumentuaren birmoldaketa da. Eta hau da lehena. Bigarrenez, marinel zaharra, marinel zahar erromantikoa, poetaren lanean konstante bat bihurtu da, lanaren giltza izatera heldu arte.

Coleridge-ren lanean, marinel zaharrak albatros bat hiltzen du, tabu sakratu bat hautsiz, eta horrela bere errua ordaindu behar izango du, errua garbitu arte. Ez dakit ez ote dugun irudia alde horretatik interpretatu behar. Sarrionandiaren esanahi munduan zaharrak tabu bat hausten du, sugeri genezake indarraren erabileraren tabua dela hori? Ausarta da marinel zaharra, eta bere ausardiaren ardatza legeen hausketan legoke. Beraz, borondatez, gizartetik kanpo, edo gizartearen bazterrean kokatzen den gizakia da: lur eta itxasoaren arteko gizakia, mugetan bizi dena. Zentzuaren bila abiatzen garenean, ez dira zailak asmatzen bere ezaugarriak: joera indibidualistak ditu, historia



luze bat, oroimen zabala. XIX. mendeko nobelagileek sorturiko (Conrad, Melville, Stevenson) irudietan oinarritzen da, eta XIX. mendeko pertsonaia horiek ezaugarri nagusia dute: gizarte ordenatua alde batera utzirik bihurtu dira menturazaleak.

Baina marinelok zaharrak dira. Bizitza zer den ezagutu dute, eszeptikoak dira, baina batez ere hunkigarriak. Beste une batean aztertu beharko da zein garrantzi handia duten agure eta atsoak, aititak, amonak, zaharrak, Sarrionandiaren lanean, gaurkoz nahikoa dugu marinelaren esperientzia aipatuz.

Marinela gizarte hau ukatu duenaren irudia da, ausarta izan denaren sinboloa eta beste eremu batzuetan bere burua arriskutan izan duenaren adibide. Ordena maite ez duenaren ikur. Coleridge-k marraztu zuen moduan, Sarrionandiaren marinela muga igaro du eta tabuak hautsi ditu.

Marinel zaharraren irudiarekin lotzen da Wegenerren *Golem* filmearen aipua liburuan. Golem-ak Praha ekartzen du gogora. Kontatzen denez, XVII. mendean, Rodolfo II. Erregeak ikerketa kimikoak bultzatu zituenenean, zientzia gizon batek, Rabbi Löw-ek pertsona baten modura zebilen Golem-a sortu zuen. Fantasia munduko izaki honek eta leiendak Gustav Meyrinck-ek inspiratu zuten eta honek *Golem* deituriko nobela espresionista idatzi zuen. Nobelan oinarrituz Wegener-ek izen bereko filma egin zuen. Meyinck-en nobela Borges-ek irakurri zuen eta, hartaz hauxe idatzi:

Gustav Meyinck hizo uso de la leyenda, cuyos pormenores detalla, para esa inolvidable novela que reúne el ámbito onírico de *Alicia detrás del espejo* con un palpable horror que no he olvidado al cabo de los años. Hay, por ejemplo, sueños soñados por otros sueños, pesadillas perdidas en el centro de otras pesadillas. (Barnatán, 1995, 79)

Golemak, gizonak sortzen duen gizona, robotaren aurreforma, “lur-mukurra” esan nahi du hebraieraz. Baina pertsonak sortzen duen izakiak gogoratzen du sorkuntza lana. Jainkoaren gisa ari da sortzailea, gizaki berriak sortuz. Meyincken nobelak eta Wegener-en filmak garbiro azaltzen dituzte Sarrionandiaren lanean agertuko diren bide bi: fantasiarena eta espresionismoarena. Fantasia —zuzena da Aliziaren aipua Borges-en esaldietan— mundu errealetik, eta zientziak sortu duen kausa logikotik ihes egiteko bidea da, neurri honetan, marinela zahar erromantikoaren kide izango litzateke. Biak dira Europa industrializatutik, teknikutik eta zientifikotik irteteko bideak. Fantasiak, harrigarritasunak, bideak zabaltzen dizkio egoera ez onartzeko joerari. Marinela zaharraren errebeldiaren aurrean, fantasiak irtenbide intelektuala dakar, baina biak dira mundu propioak sortzeko bideak eta moduak.

Amets mundu horretatik hurbil dago espresionismoa. Mugimendu hau ere adi dago barne munduan sortzen denari. Eta bertan lantzen den joera onirikoak zerikusi handia du izuaren adierazpenarekin.

Munduak eta haren ordenak sorturiko izua da espresionismoan agertzen dena.

Fantasiak eragin handia izan du Sarrionandiarengan, eta ez da, alde horretatik, harrigarri Artur Erregeren aipamena agertzea grabatuaren bidez. Fantasia da surrealismoa eta irudimen askatasuna prosara eta narratibagintzara eramateko modua, eta beste alde batetik, lilurarako bidea. Arturren lilurak ondare bi utzi ditu durangarraren literaturan. Batetik, ziklo arturikoa gertatu zen tokien lilura sortu da. Ez da soilik Britainia agertzen eremu horretan, baizik eta eremu zeltiko osoa, eta batez ere Eirek izango du toki zentrala irudimen mundu horretan. Lilurak zentzu politikoa du, beraz, eta geografikoa ere bai: Eire toki miresgarritzat aurkezten da, Arkadia berria balitz bezala; paraje garbiak, landa zabalak eta nazioa estatu bihurtuta. Espazioak sortzen duen lilura berarekin maite da Erdi Aro utopikoa, denborarik gabeko denbora bat:

Harek ere amets egin bait zuen Tir na n-Og lurraldeaz: “itsasoaz bestaldean, heriotze gabeko Gazteen Lurra, kritalezko abardun sagar-ondo estalia den hura”. (IGB, 99)

Irlandak daukan indarra bere identidadetik sortua da, iraun egin du denboran zehar eta, paralelismo zehatza egiten da sakonean Euskal Herriarekin. Poemak adierazten duenez:

Gure harmak nahi dituzu, hartzera zatoz,  
baina ez dauzkizut emanen.  
Haietan da dirdiratzen Irlanda  
zena, dena, izanen dena... (IGB, 97)

Identifikazio prozesuen gainera ondorio literario bat ere aipatu beharko genuke. Alvaro Cunqueiro-k bere *Merlin e familia* kontakizunean egin zuen moduan, poesian baino ugariago narratibagintzan, Sarrionandiak ere akronia bera erabili du Artur Erregearen mitoarekin: Durango aldean jarri du bizitzen egunerokotasunak eman ohi duen normaltasunarekin. Narrazio honetan maila mitikoa eta maila arrunta biltzen dira narrazio puntu batean.

Nihilismorako joera da aipatu beharreko ezaugarrietako bat. Irudiak begiratzen baditugu, simetria batek jotzen du begia. Liburu barnean agertzen den lehen irudia marinel zaharrarena da: masta gainean dago loturik, beheantza begira, ekaitzari aurre emanez; bukaerako irudiak maniki puxkak agertzen ditu, egitura hutsa, bandera galdua, makila batean zut, desertuaren erdian. Bigarrenak, ume aldra bat erakusten du olgetari, haurtzaroaren baratz zoragarrian: bukaera aurrekoak, ordea, eraikuntza bat erakusten du, laberintoaren irudia, pertsonarik gabe, hutsik hau ere. Errealetik irrealtasunera doan bidaian, Sarrionandiak garapen bat aurkeztu du, beherapenerako eta etsipenerako garapena bada ere. Entzungarriak dira “Etxe zaharreko armiarma” deituriko poemaren bukaera-bertsoak:

Aintzinako solasen bat atzeman nahiz  
itzuli naiz gaztaroko etxera. Erraturik,  
ez gaztarora. Tantoka pareterlojuaren hotsa.

Panpina elbarri bat gela bazterrean. Han,  
armiarma bat zanpatzen dut atzamarretan,  
eta atarira abiatzen naiz, atea hersteke. (IGB, 142)

Azken epigramak datoz poema honen buruan, baina, horregatik ere, azken poematzat har dezakegu hau, eta azken hitzarekin batera, “hersteke” honekin batera hertsu da liburua.

Askotan esan da bidaia baten azken helburua norberaren buruarekin bat egitea dela. Azken poema honek eskaintzen dituen erreferentziak, etsipenarenak dira, denboraren iraganaren seinale: “armiarma, erloju zaharra, izpilu huts, ez pinpilinpausarik, ez gerizarik, ez irrizabalik, pareterlojua, panpina elbarria. Pertsonaia “erraturik” heldu da etxera, eta ezer ez da gogoratzen zuen moduan.

Tonu berekoak dira liburu bukaerako irudi biak: laberintoaren irudia, eta panpina elbarriarena, honela dei bagenezake, behintzat, azken argazkia. Eraikin hutsaren irudiak beherapenaren irudia hartzen badu lehenik, hartzen du neurri batean, arkitektura konplikatuen irudia ere. Laberintoa, berez, galbidea da, izuaren agerpena, onirismoaren babeslekua. Nahasmenaren topabidea. Gogoragarria da nola sortzen den irudi honen eta haurtzaroko irudiaren arteko kontrastea, “Sorterri hautatuan”ek eta “Iragan dira orik oro”k adierazten duten berbera. Haurtzaroko irudia pozez beterik agertzen da, mutiko batek zirko-ariketak aurkezten ditu, eta miresmenez begira du inguruan lagun aldra bat. Txantxak jarraitzen du, lehoiaren ordez txakur bat aurkezten dutelako.

Lilura eta miresmenaren orde, toki abailduak desolazioa besterik ez du aurkezten.

Laberintoaren irudiak manikiaren irudian presente jarraitzen du: eremu baten erdian agertzen da hau, eta desertua da laberintoak eta zabaltasunak eta infinitoak; hartzen duten formatako bat. Aurreko irudietan, jendea egon ala ez egonaren artean egiten bazen kontrastea, bortitzagoa da lehen irudiaren eta azkenaren artean egiten dena. Bulartsu eta ausarta zen marinel zaharra, panpina elbarri bihurtu da. Giza ausardia, gorpuzkia besterik ez, gogoa, egitura mekaniko eta giza kontzientzia harietatik dindilizka den eremu huts besterik ez.

Panpina elbarria, txorimalo bihurtu den gizakia modernitatearen ondorengo itxaropen faltaren sinboloa da. Nihilismoak eragin handia izan du poesia modernoan eta Sarrionandiak agertzen duen indarra —lehen poemategian, behintzat— garbia da. Irudiko eremua T. S. Elioten *Lur eremua* da, eta Atxagaren *Etiopia*. Jon Juaristik idatzi zuen moduan, denbora ziklikoa argitu da Atxaga eta Sarrionandiaren lanean, aurrera ez doan denbora, Sarrionandiak liburuko azken poeman agertzen duen modukoa: Europa korritu ondoren, etxera itzultzen da, dena etsipena dela ikusteko, gauzak berak uste zuen moduan ez direla konturatzeko.

Nihilismoa Nietzscheregandik dator, horrek jarri zuen denbora borobila-ren kontzeptua martxan. Nietzschek proposatzen duena Ulises berri bat da, bidaia egin ondoren, bere etxera itzultzerakoan bere identitatea galdua dela deskubritzen duen bidaiaria. Sujetoa jausi egin da, Mendebaleko kulturak ezin du ziurtatu sujetoaren identitatea, haren nortasunaren banaketa, aniztasuna, zatia da nagusitzen, osotasunaren, egiaren kontzeptua behera dator, zatiak besterik ez dira geratzen.

Claudio Magris-ek bere *Clarisseren eraztuna* lan erraldoian aztertu du aniztasunaren kontzeptua nola zabaltzen den Alemaniako literaturan. Magris-ek aipatu duen moduan: “Poeta modernoak expatriazio transzendentalean bizi da”. Expatriazioaren keinua da Sarrionandiak azken poema hartan agertzen duena, etxera itzuli eta ikusi ondoren, kalera berriro itzultzen denean; urrunketa da, sorterririk gabeko lurra da azken irudian eman duena: eremua, harea, azken batean, zehaztasunik ez duen lur eremua da, bereiztasunik ez duena, beti bera eta beti aldakor, geografia nihilista bat.

Orain arte, apropos, liburuan diren irudien azterketarekin landu dugu iritzia; oraindik aipatu ez duguna, azaleko Escherren irudia da. Eta defenda dezakegu lanean agerturiko hainbat indar, hainbat “atraktor”, ardatz bateragile, esanahi erakargarri irudi honetan batzen direla. Orain arte aipaturiko hainbat ideia, denbora ziklikoa, nihilismoa, laberintoaren irudia, fantasia, ordenaren aldaketa, denak agertzen zaizkigu *Eskilara gora eta behera* deitzen den irudi honetan.

Irudiak era berean gaztelua eta jauregia den eraikina aukezten du, bere dorre eta solairu desberdinekin, goitik ikusita. Goialdean eta ikusten ez den patio baten inguruan eskailera sail bat dago. Ipotx batzuk eskailera forma duen inguru honetan itzulika ari dira. Eta hor gertatzen da perspektiba joko: igotzen ari diren ipotxak behin eta berriro itzultzen dira planu berera, nahiz eta ez duten inoiz jeitsierarik egiten, eta, alderantziz, jeisten ari direnak beti itzultzen dira puntu berera, nahiz eta ez duten inoiz igoerarik egiten. Escherrek logikaren —edo perspektibaren— legeak hausten ditu, mundu ezina agertzen du. Irudiak gora eta gora joan arren behean geratzen direla erakusten du.

Irudia, bere horretan, liburuaren metafora nagusi bihurtzen da. Maurits Cornelius Escher (1898-1972) Holandako pintore, margolari eta grabatazaila izan zen. Bere lanik garrantzitsuenek perspektibarekin jolasten dute, eta espazio ezinak sortzen ditu. Bere espazioetan ez dago ez goirik, ez beheirik, barnerik, kanporik, eskuinik eta ez ezkerrik, nahiz eta konbentzio topologiko guztiak agertzen dituen. Geometria eta psikologia nahastuz espazio paradoxalak sortzen ditu. Bere metodo geometrikoak zehatzak dira, baina emankizunak harrigarriak, fantasiaren arloan kokatzen direnak. Surrealismoa eta joko geometrikoa biltzeko gai izan zen eta ez da alperrik batzen bere lana, Carrol eta Magritte-kin. Aliziak bezala, Escherrek ispiluaren beste aldean dagoena erakusten du. Baina beti logikaren bidetik abiatuta. Escher-en lanean logikaren barnean mogitzen gara, ulertu egiten dira bere irudiak, figuratiiboak diren heinean, behintzat.

Teknikoki Escher-ek egin duena da perspektiban diren puntu biren tokia aldatu. Nadir eta zenit deitzen dira puntu biok eta perspektiba klasikoan alda ezinak dira, edo aldatu gabe ematen dira behintzat. Escher-ek nadir bat baino gehiago jartzen ditu bere irudietan eta horregatik sortzen dira ezinezko munduak, horregatik da posible igoten eta igoten egotea beti toki berberera itzultzeko, gure ipotxek egiten duten eran.

Joko hau geometriak indartzen du. Irudi geometrikoek irmotasuna adierazten dute, ohituta gaude ikustera, eta beti ikusi ditugu berdin. Geometriak logikaren pisua ziurtatzen du. Bada, Escher geometriaren indarrak baliatu da, geometria ironiaz tratatu du, geometriaren barnean, gaztelu jauregi horren erdian, joko ironikoa agertzeko. Horregatik gonbara dezakegu Lewis Carroll-ekin, biengan gertatzen da logikaren eta irudimenaren arteko ezkontza.

Sarrionandirengana itzuliz, eta irudia haren lanaren argitan irakurriz, Escher-en grabatuak esanahi hauek hartzen dituela baieztatu dezakegu:

Joera autobiografikoa. Liburua 1980. urtean idatzi zen. Argitaratu zeneko, ordea, Sarrionandia gartzelan zegoen eta handik bidali zizkion Jose Ramon Bilbao liburua argitaratze saioko arduradunari (eskerrak zor dizkiot emaniko argitasunengatik) irudiak eta liburuaren diseinurako oharak, nahiz eta idazleak berak idatzi zuen “Prologoa”n: “Argitarazioari begira, poemagintza bera bezain garrantzitsua da liburuaren tankera eta aurkezpena eta ezin ditut inprentalana eta enparauak ezertan zaindu”. Pentsabide dugu poetaren gogo arduradunak beteko zukeela.

Patio bati, irtenbiderik gabe, itzulika ari diren ipotxen joerak, gartzelako egoera irudikatzen dutela esango nuke. Ipotxen higiduran egoera pertsonal baten seinalea da, patu gogor baten agerkari.

Gogorapen hau ezinbestekoa zen, baina, Sarrionandiak idatzi du gartzelan egonik ere, libre dela presoaren gogo, irudimenaren bidez. Escher-en irudiak irudimenaren garaipena dakar berarekin, fantasiari egindako jaia eta ospakizuna da. Logikaren ordenari egiten zaion aldrebeskeria. Nahi bada, Borges-i egiten zaion omenaldi isila.

Baina fantasiaren azpian bada arrazoi metafisiko bat. Logika burgesiaren teknologiaren eta zientziaren aldeko, arrazoiaren aldeko joera bada, fantasia beste horren aurkako bihurtzen da. Logikak ordena dakar, zentzu sozialean ere; fantasia orden sozial horren aurkako apostua litzateke. Sarrionandiak norentzat idatzi duen liburua azaltzen duenean, gutxi aipaturiko prologoko esaldi batean, joera erromantiko eta “irrazionalak” defendatu dituztenen zerrenda egiten du: haurren inozentzia gorde dutenentzat, maitasunez erotutakoentzat, margo berri bat asmatu duenarentzat (Escher-en aipamen izkurtua?), eta zentzu politikoa azpimarratuz:

Esan dezaket: aizkoraz eta sugeaz sobera sinetsi gabe ere arriskuan hurbil somatu ditudanentzat, aztarnarik utzi gabe alden duenentzat, Efiartes

sortua dela jakinda ere Termopilak defendatzen dituztenentzat, haiduru ditudan bi begi ederrentzat, asturuak alde gaitza seinalatzen diententzat. (IGB, 7)

Zerrenda osoa da erromantizismoaren mugetan koka genezakeen aipamena: sentimendu, eromen, sakrifizioaren mistika, “kausa galdu ororen gerlarientzat” esaldiak argituko lukeenez.

Fantasiak orden logikoari begiratu beharrean orden magiko eta mitikoari begiratzen dio. Neurri batean, errealitatea aldatzeko ahalegina besterik ez litzake. Errealitatea zentzu politikoa onartzen badugu, eta errealitatearen harreara, zentzu psikologikoa kontutan hartuz gero.

Escher-en arteak, eta fantasiak, orohar, zientziaren paradigma aldaketak sortu duen egoera berriaren testigantza eman du. Zientzia berriak, kaosaren teoria, konplexotasunaren paradigma, ezagutza sistema sortu ditu. Escherren lana ez da kaosaren agerpena, geometriak ikuspegi honetan erakusten du bere balioa, argia da, ordenatua dago, baina errealitatea konplexua da, honegatik nadir bat baino gehiago agertzen da bere lanetan, perspektibak ez du ardatz jerarkiko bakar bat sostengatzen, ez dira lerro guztiak puntu bakar batera zuzentzen, ugariak dira lerroak biltzeko guneak, eta gainera aldakorak lan beraren barnean. Perspektiba klasikoaren sinpletasuna ahaztuz, Escher-en perspektiba konplexua asmatu du, zenit eta nadir anizduna.

Kaosaren paradigmaren lehen metafora mitxeletaren hegakada izan zen: Lorenz ikerlariak ikusi zuenez, Cariben mitxeleta batek egiten duen hego dardarak ekaitza sortu lezake Atlantikoan. Sistema konplexuen kontzeptuaren sorketa zen: errealitatea ez zen fisikako erregela ximpleaz azaltzen (perspektiba errenazentiztarekin) konplexua zen errealitatea (perspektiba harrigarria), eta konplexotasunaren arauak zailak dira azaltzen, nahiz eta nolabaiteko desorden ordenatua gertatzen den. Nahasmenaren paradigma sistema konplexuak azaltzeko sortu zen, eta Escher litzateke pentsakizun zientifiko berri honen irudi-metafora.

T. S. Eliotek aurkeztu zuen poema zatikatu bat, bere *Lur eremua* poeman, egia bakarra ez zela adierazi nahiz. Errealitatea zatikatua agertzen da eta beraz, haren irudi desberdinak ezagutuko ditugu. Horrela hurbiltzen gara geometria fraktalera: lerroa ez dena ez da arraroa izadian, borobila litzateke konplexotasunaren geometria-oinarri. Eta konplexotasunak badu bere figura totemikoan ere: espirala. Horregatik, beharbada, espiralaren agerpena Juan Kruz Igerabide eta Aurelia Arkotxaren poemetan, adibidez. Escher-en irudietan ere, eta *Izuen gordelekuetan barrena* liburuaren azalean zehazki, borobiltasunaren bat agertzen da, ipotxak behin eta berriro ari dira inguru berari itzulika, lerro zuzenen artean.

Era berean interpreta genezake Sarrionandiaren literatura, edo, hobe esan, liburu honetan agertzen den literatura. Teoria zientifiko berrien ildotik, berak ere zatiketari sinesten du; epigramak, adibide garbiak dira. Konplexotasunean



poemak ez dira hari bakar baten inguruan sortuak bai eratuak, ordea: “bilduma ez bait da homogenea ez lengoiaren, ez gaiaren, ez tankeraren aldetik”. Borobiltasunean, hau da, egituraketak bidaia borobila adierazten du, bete denean, idazleak berriro zabaldu du atea, joateko, berriz hasteko. Zirkulua, *Etiopian* hain nabarmen zen zirkulua agertzen da hemen ere, ipotxek irudian betetzen dutenaren antzekoa, Jon Juaristik denbora borobilaren aldeko hipotesia botatzeko oinarri izan dezan. Denbora borobilaren kontzeptua azalduko lukete behin eta berriro itzuli-mintzulika diren ipotxak, denboraren joana, gau eta egunaren itzulian agertzen den moduan.

Honaino irudiek esan digutena. Baina prologoan, Sarrionandiak estetika aldatzeko gogoia erakutsi zuen:

Badakit gauza bat, aitzakia izan nahi ez duena: ez dudala aurrerantzean era honetako poesiarik eginen. (IGB, 5)

Aldatu du estetika, aldatu dira irudiak ere.

## **Bibliografia**

- SARRIONANDIA, J. (1981): *Izuen gordelekuetan barrena*. Bilbo Aurrezki Kutxa. Bilbao.
- BARNATAN, M. R. (1995): *Borges. Biografía total*. Temas de hoy. Madril.
- DE FLOR, R. (1995): *Emblemas. Lecturas de la imagen simbólica*. Alianza. Madril.
- MAGRIS, C. (1993): *El anillo de Clarisse*. Península. Bartzelona.
- VILLANUEVA, D. (1989): *El comentario de textos narrativos. La novela*. Júcar. Gijón.



## HIRU IRUDI

Historia irudietan zatitzen da, ez kontakizunetan.  
(W. Benjamin)

Historia irudietan agertzen da. Benjamin-en esaldia erabiliko dugu Joseba Sarrionandiaren poemagintza garratzera hurbiltzeko. *Marinel zaharrak* eta *Gartzelako poemak* esperientzia pertsonaletako kontakizun dira, baina neurri batean estetika aldaketa baten agerbide ere badira. Estetika eta politika hurbil bilbatzen dira liburuotan. *Ni ez naiz hemengoa Izuen gordelekuetan barrena* liburuko sostengu estetiko baten, *Marginaliak* (bide batez, “Bazterrekoak” deituriko sail bat idatzi zuen Sarrionandiak *Argian*) emango die oinarria burgesiaren aurka eta sistemaren aurka (beste sistema bat sortzeko pentsatzen dut) egindako poesia honi. Bigarren zikloa zabaldu du Sarrionandiak poema liburu honekin Gerardo Markuletak “burdinaren dialektika” deitu duen aroari hasiera emanez. Ziurrenik ez naiz ni poesia hau azaltzeko irakurlerik egokiena, baina Sarrionandiaren poesiaren irakurketan irudi batzuk, Walter Benjamin-ek nahi dituen bezala irudi alegoriak, agertzen direnez, bada poesia honetaz hitz egiteko era bat egokia dena: irudiak erakusketa batean jartzea eta poesiaren eta artearen artean sortu den elkarrizketaz mintzatzea. Horregatik egingo dugu erakusketa batetik paseoa, hiru margotan Sarrionandiaren poesiaren gunek azpimarratuz.

### 1. Penelope

Joseba Sarrionandiaren poesian ibilbidearen hasiera-hasieratik *Izuen gordelekuetan barrena* garaitik, bada joera nagusia behin eta berriro agertzen dena: Ulisesen irudiaren agerpena, hain zuzen ere. Poetak bere burua bidaia-

ritzat hartu du. Lehen poema liburuan bidaiari hori literatur irudi bat zen, ondoren gartzelatik ihes egiten duen gogo da.

Barruan dugun mundua ez da kabitzen  
barruan gaituen gelan... (GP, 42)

Ondoren, exilio esperientziaren irudi bihurtu da Ulisses. Claudio Magris-ek idatzi duenez Ulisses mendebaldeko gogoaren agerbidea da:

El yo occidental está simbolizado por Ulises que construye fatigosamente su propia identidad y su propio dominio —sobre Itaca, sobre su tripulación, sobre sí mismo— renunciando a las sirenas, a Calipso y a la flor de loto, es decir, resistiendo a la tentación de abandonarse a la beata indiferencia en el seno de la naturaleza. (Magris, 1993, 11)

Sarrionandiak agertu dituen hiru Ulisses nagusiak, literatur-irudia, gogo, exilioaren esperientzia, Magrisek deskribaturiko Ulisses mitiko horretan bilduko lirateke. Deserriratuak etxera itzuli nahi du, eta, nahiz eta Sarrionandiak askotan itzuleraren garratzasuna aipatu eta marinela zaharraren gisa itsasoz itsaso ibili nahi izan, egia da Penelope zain duela. Penelopek poesia honetan irudi bi hartzen ditu: mundu afektiboarena lehenik, ama eta amonaren irudien bidez adierazia, eta haurtzaroa. Gartzelan dagoenak, exilioan dagoenak ama du zain etxean, lotura afektibo legez, itzuleraren arrazoik gisa, artilea ehuntzen, orain gutxi zabalduriko kartel batek adierazi duenez, pazientzia eta eramanaren adierazpide gisa.

Amaren irudia arin agertu du Sarrionandiak bere poesian “Soldadu hilaren ama” (*Izuen*, 103) litzateke lehen adibidea. Bere semeak frentetik bidaliko gutuna eta haren heriotzaren berri dakartena batera hartzen dituen amaren joera erakusten du. Gutunean semeak almendrak bidaltzeko eskatu dio eta nahiz eta bigarren gutunak haren heriotzaren berri eman:

Amak eutsi egiten ditu malkoak. Ezkutatu egin du  
bigarren gutuna amantalpean. Senarraren gosaria atondu,  
eta haltzaria irribarreka garbitu ondoren,  
gona gorria jantzi eta almendrak eroatera abiatzen da.

Ondoren *Gartzelako poemetan* amaren irudia gehiagotan agertu ohi da. Edo, behintzat, poema gogoangarrietan ikus dezakegu. Badago, hala ere, *Gartzelako poemak* liburuan poema bat non biltzen diren Penelope biak, haurtzaroko Penelope eta zahartzaroko Penelope: “Haurtzaroko erretratua” deitu du poetak. Bizpairu urte zituenean argazki bat atera zuten elkarrekin aitona, amonak eta hirurok, “haizeak aieru igartezinak” bidali zituela konturatu gabe, hogeik urte beranduago gartzelako bisita gelan elkartuko direla jakin gabe:

Hiruretatik inork ez du susmatzen  
hogeik urte geroago, azken aldikoz,

gartzelako bisita kabinan  
aintzinako paisaia hori eskuetan  
elkartuko direla... (GP, 30)

Amek ez dute negar egiten. Tinko irauten dute, isilik. Isiltasunaren esanahia ere aztertzeke legoke. Baina ez da zalantzarik, isiltasuna duintasunaren keinua litzatekeela, isiltasunak funtzio handia betetzen baitu hizkuntzaren barnean, komunikazio bidean, zuzenago. Isiltasunak mila esanahi ditu. Burke-k bi eman dizkio, orokortasunera joaz:

Parece que en el sistema de silencio imperante en Europa durante la primera parte de la Edad Moderna había dos principios... En primer término en el seno de la comunidad lingüística, estaba el principio de respeto o deferencia, uno de los principales signos de una sociedad esencialmente jerárquica ... En segundo lugar, especialmente en relaciones exteriores a la comunidad, estaba el principio de silencio por prudencia. (Burke, 1996, 168)

Poema horietako amek bere buruaren jabe direlako ez dute negar egiten, ez dute adierazten, esaten. Esan ordez, egin egiten dute: egunerokotasunean iraun (“mahaia atondu” ekintza poema bitan agertzen da), semeak esandakoa egin (“almendrak erosi”), semea gogoratu. Gartzelako bisita kabinan ere isiltasunean imajina ditzakegu hiru pertsonaiak. Isiltasuna beti gerta ohi da emozio handiko uneetan. Eta hori, dirudienez ezin da hitzekin esplika.

Horregatik bihurtzen da poesia eta poesiarekin batera hitza, alfer iraultzaren, ekintzaren aurrean. “Literatura eta Iraultza” deituriko poemak, hain zuzen ere, horixe adierazi du: erromantizismoak nahi zuen moduan, azken puntuan hitzak ez du zentzurik:

Zein da literaturarentzat errebeldiaren, iraultzaren mentura orenen balio etiko ahortezina?

Zer izkiriatu da *Voprosi Literaturi* edo *Tel Quel* aldizkariaren ertzean eskal presoen gose greba amaigabeetaz?

Zer axola zaio konpromezua polizien tiro artean —bere bihotza errebo-luzioaren bandera legez ezkutarik gabe— ihes doan mutilari? (MZ, 22)

Galderen indarraren inguruan, Blake-k bezala, Atxagaren moduan, idatzitako poema honek ez du erantzunik ematen. Galderaren tentsioari isiltasunak darraikio.

Steiner-ek adierazi duen moduan: ekintza hitzaren gainetik dago:

La abdicación de Rimbaud ... significa la superioridad de la acción sobre la palabra ... Tras haber dominado y agotado los recursos del lenguaje como sólo un excelso poeta puede hacerlo, Rimbaud se vuelve al más noble lenguaje de los actos. El niño sueña y balucea; el hombre hace. (1994, 78)

Baina “Iraultza eta Literatura” poemaren barne zentzua ez da hori bakarrik. Poema isiltasunaren aurrean kokatu da. Eta hor dago inguruko errealitatea, tortura, deshumanizazioa, handiegiak direlako esateko.

Adornok adierazi zuen: “ez lirikarik Auschwitz ondoren”. Tortura eta juduen genozidioa lotzeko eta barkatzeko ahaleginean, isiltasunak lantzen du poema. Poeta ez da gai deshumanizazioa adierazteko.

Orduan, juduen genozidioaren aurrean, Steinerrek adierazi duenez, isiltasunak zentzu politikoa du:

El segundo aspecto es político, en el sentido básico del término. Es preferible que el poeta se corte la lengua a que ensalce lo inhumano, ya sea por medio de su apoyo o de su incuria. (Steiner, 1994, 85)

Literaturak ez du euskal militanteen sufrikarioaz hitz egin, dio Sarrionandiak, eta horregatik hutsala bihurtu da, isiltasunaren mugetan.

## 2. Eguna. Odile Redon

Leihotik begira daude Sarrionandiaren pertsonaiak.

Oroitzen zaitudanean, ama,  
Sukaldean egoten zara  
Mahaia bostentzat atondu,  
Aulkian eseri eta  
Leihotik begira  
Kristala lausotzen duen lurrina kendu gabe  
Eta ni -badakit-  
Zeure begien hondoan nagoela.... (MZ, 65)

Patioan jolasean eta lagun batek:  
—Itolarria sentitzen diat ...  
Zer den amaren begian egotea!... (GP, 33. gehitua)

Poemak adierazten du melankolia garratza, baina beste aldetik, irrealtasunean sartzeko bide da leihoa. Arte modernoan bada zeinu bat bere-berea duena: erretikula, lauki txikiz osaturiko margoa. Erretikulak pinturaren forma hutsa adierazten du, narratibitaterik eza, pintura gainaldea, azala, besterik ez dela baieztatu nahi du. Narraziorik ez da agertzen, egitura soil bat besterik ez, egitura laukitua, margoaren forma berekoa, egitura huts, errealtateari bizkar emanda. Erretikularen antzinako forma, eta forma sinbolista gainera, leihoa da. Sinbolo horren agerpenez honela idazten du R. Krauss arte kritikariak:

En manos de los pintores y poetas simbolistas, esta imagen toma una dirección explícitamente moderna: la ventana se experimenta como una entidad simultáneamente transparente y opaca. Como vehículo transparente, la ventana permite el paso de la luz —o del espíritu— a la antes oscura

habitación. Pero además de transmitir, el cristal también refleja. Los simbolistas también perciben la ventana como un espejo —algo que congela y encierra al yo en el espacio de su propia entidad reduplicada—. Flujo y congelación; *glace* en francés significa cristal, espejo y helado; transparencia, opacidad y agua. En el sistema de asociaciones del pensamiento simbolista, apunta en dos direcciones. Primero, hacia el flujo del nacimiento —el líquido amniótico, la “fuente”—, pero, después, hacia la congelación de la éxtasis o la muerte —la estéril inmovilidad del espejo—. (Krauss, 1996, 31)

Leioha ispilurekin lotuz, esanahi sakonak sortzen dira, azken batean, amaren eta semearen arteko begiradak bat egiten dutenean, sortzen baita elkar ezagutza. Irrealtasunerako bide gisa, leioak pasabidearen zeinua hartzen du. Gregorio Moran-ek ere azpimarratu du poema honen grazia.

Leioha irrealtasunerako bidea da. Leihotik begiratzen duenean amak semearekin bat egin du. Hau haren “begi ondoan” dago. Begiradak mundu desberdin bi batu ditu. Urrun direnak lotu, begiradaren indarrez espazioak bere izaera galdu du, eta horrela preso dagoenak “itolarría” sentitzen du. Mundu bi batu dira. Amaren begiradak semearekin bat egiten du espazio irreala sortuz. Ziurrenik une horretan itzultzen da Ulises erratua etxera. Ulisesen irudiaren azpian pertsona bikoitua ere ageri da: “El poeta moderno vive en la expatriación transcendental... en la disparidad entre ideal y realidad, entre verdad y presente” (Magris, 1993, 20).

Bikoiztua da Ulises:

Beti dago bihotz zatitu bat  
Erdiz trenean doana  
Eta erdiz estazioan geratzen dena. (MZ, 13)

Jorge Amado-ren nobela baten izena duen *Marinel zaharrak* liburuan esaten den legez. Bikoiztasuna larrialdiaren oinarria da; nitasunaren bila abiatzea:

A ello se debe que la búsqueda del yo, sobre todo en los problemas de desdoblamiento, esté siempre ligada a una suerte de retorno obstinado al espejo, y a todo aquello que puede representar una analogía con el espejo: por ejemplo, la obsesión por la simetría en todas sus formas, que repite a su manera la imposibilidad de restituir esa cosa invisible que uno intenta ver, y que sería el yo directo, u otro yo, su doble exacto. (Rosset, 1993, 84-5)

Ulises bikoiztuak, ni erdibituak amaren begiradan, hobe, amaren begi ninietan aurkitu du baretasuna.

Poema honek, baina, badu antzeko paralelo bat, eta era berean, guztiz aldakaitza dena. Kasu honetan, amak leihotik begiratzen du, baina desberdina da bere begirada:

Tiro hotsak, eta harrizko isiltasuna.  
Ezertaz ohartu gabe doaz hodeiak.

Polizia espainol bat erori da espaloian.  
Zer tinta moeta da saihetseko gorri hori?

Leihotik andere zahar batek  
Pentsatu du: ez diat hire arnasagatik negar egingo  
Harik eta gure semea etxera itzuli arte.

Gorputza espaloian odolostuko da, isilean,  
Hodei berri gehiagoren azpian... (MZ, 36)

Egoera bera da: andere bat leihotik begira. Zentzua guztiz bestelakoa. Testu honek aurkakoaren ezeztapena adierazi du, aurkakoaz ez da penarik izango, nahiz eta muga bat jarri zaion sentimendu horri: “harik eta semea itzuli arte”. Errukiaren falta nagusi da testuan mugak muga direlarik ere, eta errukiaren falta horrek nagusitu du testuaren gogortasuna.

Iñaki Aldekoak aipatu duenez Greziako tragedia sortzen da, hain zuzen ere, bere lehen sentimenduen aurka egin duenean andere horrek, eta errukiaren indarrez aurkakoa lagundu duenean. Baina hemen ez da horrelakorik gertatu. Testuak bere gogorrean darrai, ezaguna baita borrokarako beharrezkoa dela aurkakoa objektu bihurtzea eta saminaren aurrean zirkinik ez egitea. Errukirik ezaz zuzen hitz egin du Manuel Rivas-ek, adibidez (1996).

Poema honetan pertsonaiez kanpo badago beste metafora nagusi bat: hodeien pasabide lasai hori. Azken batean zera adierazi da; hodeien joana naturala da, hori gertatzea naturala den bezala. Ez dakit erretorikaren eta poemak lortu nahi duen hunkiduraren azpitik ez ote den etikaren argia nagusitzen eta zalantza ez ote den pixkanaka zabaltzen.

### 3. Heroiak, martiriak

Ulisses nagusiak, marinel zaharrak, marinel izaten zaharrak egin direnak bere aberriagatik bizitza emateko prest direnak dira. Sarrionandiak honela idatzi zuen *Ni ez naiz hemengoa* liburuan:

Halaere, egun ez dago burruka harmatuaz beste aukerarik. (201, or. )

Ez da ondo ezagutu Sarrionandiaren historiaurrea. *Argia* eta *Anaitasunan* idatzi zuen aroa. Ignazio Aldekoa Saria eta Bilboko Udalaren Bilbo Hiria irabazi aurretik egin zuen bidea, zinemaz eta abanguardiaz aritu zeneko aroa. Baina *Anaitasunan*, 1980. urteko apirilean eta Jon Sendagorta ezizenarekin “Demokrazia edo Fazismoa” artikulua argitaratu zen. Nor ote den Jon Sendagorta? Agertu zen bezalaxe joan zen, baina Jon Sendagortaren lehen izkiak J. S. dira, eta euskara txukun, txairo eta polit bat darabil, nahiz eta



azkarregi idatzia. Artikulu horretan sistema demokratikoaren hutsuneak salatzzen dira. Eta tesi nagusia lehen parrafoan aipatu zaigu:

Hauteskundeetatik datorkigun sistema demokratikoa apurka apurka onartzen dugun fazismo moeta batean bilakatzen zaigu.

Jon Sendagortaren bidetik, Joseba Sarrionandiak sistemaren aurka, aberriaren alde aurkeztuko du bere pertsonaia: heroia.

“Erdi mina” deituriko poeman (GP, 87) Sarrionandiak bere pertsonaiaren izaera eman du. Ama bezalakoa da, hil egin da, bizitza sortzeko:

Hik oinaze bidaia horretan heriotzerantza  
emaniko pausu bakoitza  
hire herriak bizitzara ematen duen  
urratsa dela

Poema eredugarria dugu, azken batean Kristoren irudi pean eginiko poema delako. “Berreterretxe kantoriaren” azpian Kristo gurutzeratua izan zen narrazioa ezkututzen dela frogatu da. Poema honetan ere beste horrenbeste adierazi da: Kristoren oinaze bidaiaren antzekoa da hemen pertsonaia detentituak egiten duena ete hitzak eurak dira: “oinaze bidaia”, eta haren antzera prest dago bere bizitza besteengatik emateko.

Derrotaren mistika bat sortu du Sarrionandiak lehen-lehen liburutik:

Azken hatsarekin batera  
ene eskuetatik abaildurikako harmak  
beste irlandarren haiduru itsatsiko zaizkio lurrari.  
Gupidatu behar al zaitut, garailea?... (*Izuen...*, 97)

Kristoren eredia —literatur eredia— behin eta berriro agertuko da, heriotzarako prest izateak ematen baitu nagusitasuna. Heroiak ez dakite zergatik borrokatzen diren:

...zergatik hiltzen diren  
zehaztu gabe hilgo dira, hitz hil  
isilean, beren herriagatik ez balitz  
beren duintasunagatik... (GP, 35)

Heroitasunaren ezaugarria martiri izateko baldintza betetzea da:

Harmen kainoiak haien gorputzen aurka  
zuzendurik daudela jakinaren gainean  
aitamen baserrietatik irten, aterdiak  
zabalik utzi eta badoaz  
ibarretan behera, biderik gabe bezala  
belarra zapalduaz, atramadak saltatuaz.  
Urratsik gelditu gabe joanen dira beti,  
oroimin zaharren bat begietan,

eta hala suertatuz gero, zergatik hiltzen diren  
zehaztu gabe hilko dira... (GP, 35)

Gazteak, batez ere gazteak dira heroiak:

Harmakin burukatuko gara  
gaztetasunak ematen duen  
ausardiarekin... (GP, 76)

Ausardia erakutsiko dute, eta ez dira koldarrak. Gazte idealista baten  
argazkia da hemen ematen dena. Eskuzabala:

Bizitza  
zikoitza da gurekin,  
Aldean geneukan guzia  
eman dugu, eta dena eman dugunez  
gero ez dugu deusere... (GP, 76)

Ikuspegi horretatik aipagarria da biolentzia nola agertzen den. Badirudi  
iraultza gauza alai dela. Baina Sarrionandiak, eta hementxe dago bere mai-  
sutasuna, gupidaz begiratzen du halabeharra, baina, ohar gaitezen, halabeha-  
rra ez da kontzeptu politikoa, mistikoa baizik.

Badirudi  
iraultza maitasunez ere egin daitekeela.  
krabelin gorriak harma kainoietan imini eta  
iraultza berez azalduko dela kaleetan...  
Baina gero gauzak bestela dira, oihuak eta tiroak,  
orratz gorriak aidea han eta hemen eritzen,  
polbora usaina bihotza estutzen, eta  
gorputz gazteak zerraldo erortzen.  
Eta beti dago nor edo nor agerrean eta zutik  
bere herria ederregia eta krudelegia delako... (GP, 38)

Tragikoagoa da joera, zeren azken batean helburua urrun dago, eta pertso-  
nariak esperantza mantendu behar du nahiz eta jakin helburua ez dela beteko.  
Derrotaren estetikak mantenduko du duintasunean:

Baina ekibokatuaren ohitura eta  
ausardiarekin  
zin egin dezakegu: maite genituen gauzengandik  
erori ginen preso  
baina gure maitasuna oraindik  
ez dago preso.

Eta herria urrun dago. Guzti horregatik, beharbada, herioia bere bizitza  
emateko prest dagoelako, inguruko hipokresia salatuko du poetak:

Defenda ezazue uso zuriz, banko biletez  
Eta harma astunez ereindako zuen atsedena,  
Defenda ezazue zuen libertate beltza  
Lan egiteko, kirol egiteko, otoitz egiteko ...  
Gu otsanda ilunen baten semealabak gara,  
Tenorea da, seinala egiguzue zuen hatz luzeaz,  
Zuen poliziek tiro egin dezaten... (MZ, 27)

Sistemakoak, bakarrik ez dira errudunak, baina:

Zuek, lore paper ederreko logelan  
Lo egin duzuenok, zer senditzen duzue  
Gosaldu ahal egunkaria leitzean?  
Goardia zibilek hil dute mutil hura,  
Ihes zebilena, zuen atea jo zuena ...  
Bizitza zuen moduko jendeagatik eman!  
Hobe gau egunak edozein putaetxetan  
Limonada zerbitzen pasatzea... (MZ, 30)

*Gartzelako poemak* liburuak garapen bat du bere barnean. Egunkari gisa eratu denik ezin daiteke esan, baina badirudi hari kronologiko bati lotua dagoela. Detentzio ondorengo tortura, kartzelan lehen kolpea, epaiketa, kartzela, epaiketarako bidaia, kartzela, erresistentzia, gose greba, galderak, zenbait poema, “Zuziak eta aizkorak” zenbait ekintzekin loturik daude, *O Marinheiroren* itzulpenarekin, paisaiak —eta hau ere liburuaren bigarren batasun haria litzateke— aldatzen doaz, udaberria (19. or.), udagoiena (39. or.), negua (62. or.). Ondoren, *Post Scriptumak* gartzela utzi ondorengo egoe-ra azaltzen du.

Jakin nahi nuke nork betetzen duen orain  
nik utzitako zelda... (GP, 110)

Garapen honek lotura esankor bi zabaltzen ditu. Batetik, heroia / martiriaren irudia luzatu egin da, heroia ez da soilik borrokan hil dena, gartzeleratua ere, noski, kategoria horretan sartu behar da.

...euskal preso guztien sakrifizioa  
eta duintasuna ikusten da  
kristal bakoitzaren bestaldean, aberriaren astuna paparrean  
papagorriek bezala daramatelarik... (GP, 104)

Sarrionandiaren poesiaren alderik hunkigarriena “aberriaren astuna” nola gertatu den barrutik adierazteko ahaleginean datza, samina barrutik agertzeko sasoi. Batzuk “terrorista”tzat dituzte, besteak “heroe” gisa (112. or.), artean gizakiak dira:

...zuei, estatuen harri gatibutza inola  
ametzitzen ez duzenoi,  
libertatearen aldeko borrokan libertatea  
galdu duzuen giza zatitioi... (GP, 112)

Desmitologizazio mitologitzaile horrek, paradoxak, ematen dio poesia honi bere alderik sendoena, nik uste.

Bigarren ondorioa, autobiografiaren erabilerak dakarren pentsakizuna kontutan hartzeko gaia genuke. Liburuaren tematikan gertatzen den garapenean ikusi dugu nola hurbiltzen den Sarrionandia autobiografiara. Datua ez da alde batera uztekoa *Ni ez naiz hemengoa* liburuaren bidez dietarioaren generoa agertu baitzuen Sarrionandiak, eta nitasunaren diskurtso bati hasiera eman.

Autobiografian, *Gartzelako Poemak* liburuan agertzen den literatur joeran badirudi zehaztapen bi egiteko modua dagoela. Badirudi autobiografia literatur genero bat baino gehiago idazketa era bat dela, bere arazo guztiekin. Egikortasunerako bidea eman du eta irakurlearenganako hurbiltasuna, oinarri biotan eusten delarik Sarrionandiaren poesia oroigarria. Ez da dudarik, kontzientzia bat idazten hasten denean, aldatzen hasten dela: “zure bizitza zeure fikzioa izanen da” (GP, 12).

La identidad de la primera persona, que es comunmente asumida por el pronombre yo, remite a la instancia autobiográfica, pero también a la ficcional. (López Alonso, 1995, 16)

Nora Catelli-k (1991) idazten du bere autobiografia egiten duenak beti duela tarte bat bere aurpegiaren eta erakusten duen moztorroaren artean, eta aire kamara horretan sortzen dela fikzionalizazioa. Sarrionandiak garbi utzi du errealitatea dela poesiaren gune bakar. Autobiografiaren erreinuetan, bada, Sarrionandiak ez baitu idatzi “ni”, baizik eta “gartzelan egon denei” edo “harrapatu duten mutila”, nahiz denok jakin Sarrionandiaren bizitzan oinarritutako ekintzak direla hor agertzen direnak.

Nia garbi dagoenean, Sarrionandiak niaren egoerari buruzko hausnarketa eskaini du, niak mugetan, niak azken puntuko egoeratan nola isurtzen den azaldu du, existentzialismoa litzatekeena ezabapenaren mugetan jarririk. Eta ni horren alde dantearra argi utzi du hasiera-hasieratik:

Materialismo dialektikoaren klasikoetan ez zen argitzen  
torturan gizakia, modurik indibidualenean  
munduaren epilogoia bihurtzen dela... (GP, 12)

Nortasunaren galeraren gaiak jarraitu du hainbat poematan, sufrikarioan nitasuna nola galtzen den adieraziz:

Baina zelan igarri unibertsoaren batasun  
eta orden organikoa

bakardadearen osinean, gelan dena ausentzia,  
dena gabezia denean,  
norbere burua ere apenas,  
identifikatu ahal denean.

Nortasunaren galera gertatzen denean, bihotz biren irudiak hartzen du gogo:

Beti dago bihotz zatitu bat  
Erdiz trenean doana  
Eta erdiz estazioan geratzen dena... (MZ, 13)

Nik ere bihotza banaturik diat gartzelatik irten nintzenez geroztik, zati bat hor utzi nian. (*Marginalia*, 49)

Horregatik, agian, da Sarrionandia Ulisesen irudiarekin horrenbeste identifikatzen, horregatik da bera marinel zaharra, munduan barrenean barreiatu-rik, zatiak ezin baturik.

## **Bibliografia**

- SARRIONANDIA, J. (1987): *Marinel zaharrak*. Elkar. Donostia.  
— (1992): *Gartzelako poemak*. Susa. Donostia.  
BURKE, P. (1996): *Hablar y callar*. Gedisa. Bartzelona.  
CATELLI, N. (1991): *El espacio autobiográfico*. Lumen. Bartzelona.  
KRAUSS, R. (1996): *La originalidad de la vanguardia y otros mitos modernos*. Alianza. Madril.  
LÓPEZ ALONSO, C. (1994): “La escritura autobiográfica: estado de la cuestión”. *República de las Letras*. 46. 13-23.  
MAGRIS, C. (1993): *El anillo de Clarisse*. Península. Bartzelona.  
MORAN, G. (1996): “Pasión y guerra de Joseba Sarrionandia”. *La Vanguardia*. 1996-VI-8.  
RIVAS, M. (1996): “Te preguntas viajero, por qué”. *El País*. 1996 -II-11.  
ROSSET, C. (1993): *Lo real y su doble. Ensayo sobre la ilusión*. Tusquets. Bartzelona.  
STEINER, G. (1994): *Lenguaje y silencio*. Gedisa. Bartzelona.



## HNUY ILLA NYHA MAJAH YAHOO (POEMAK 1985-1995)

Joseba Sarrionandiak bere azken liburua argitaratu duenean ziklo bati, gartzelako zikloari bukaera, eta beste bati, exilioko zikloari, hasiera eman diola esan dezakegu. 1995. urtean *Hnuy illa nyha majah yahoo (Poemak 1985-1995)* liburua kaleratzen duenean, bere barnean daude *Marinel zahar-rak* (1987) antologia pertsonaleko poemak “Tren luze eta bustiak” eta “Hutsik geratu ez ziren zeldak” eta “Gure hilak” sailetan berargitaraturik. Nolabait esateko, antologia hartan zehazturiko bideak, eraikitako sinboloak, sorturiko irudiak aipaturiko sailetara iristen dira, eta bertan bukatzen. Eta, era berean, sinbolo, gai, eta joera berriak —maitasun poemak, adibidez— agertzen ditu poetikan.

Lehen begiradan, eta lehen irakurketan, iritzi emaileek bai *Argian* eta bai *Egunkarian* agerturiko iruzkinetan, liburuaren autobiografia joera azpimarratu dute, Otamendiren eta Aldairen lumetan:

Emaile hutsa da Sarrionandia, oso autore pertsonala, bizitza eta literaturaren arteko mugak estutzen dituena, biak bat bihurtzeraino kasu askotan bederen arestian aipaturiko bizitza/literatura bereizteko ezintasunagatik. (Aldai, 1996)

Baina literatura eta bizitzaren arteko lotura inon baino garbiagoa Aldaik bere artikuluari jarri dion izenburuan dago: “Bizitza bera bezala bizitza bera”.

Iritzi hau, garbi ikusten denez, Jose Mari Iturralde *Gartzelako poemak* liburuari egindako hitzazetik dator. Dena dela, erraztasunagatik *Poemak 1985-1995* deituko dugun lan honetan bada materiale poetikoaren eraketa zuzena, bada autobiografia mozorroa ere badela aitortzen duen praxis poetikoa, bada, zuzenak izan gaitezen, fikzionalizazioa. Erro-erroan errealitatea badago ere, poetak, eta hau liburaren hasieran ikus dezakegu, moldatu, eratu eta sortu egin du material poetikoa. “Denbora presentea eta denbora pasatua”

testuan bertan, T. S. Eliot-i harturiko pasartez izendatu den ipuin fantastikoan idazleak moldaketaren berri eman digu:

San Agustinek *Aitorkizunetan* izkiriatu zuenean desegokia dela hiru aldi bereiztea bereizi ohi dugun bezala: iragana, oraina eta etorkizuna. Eta akaso egokiago litzatekeela beste hiru aldiok haintzat hartzea: iragandako gauzen oraina, oraingoan oraina, eta etorkizunekoan oraina. Gure gogoan behintzat, beste inon ez balira ere, badira hiru aldiok: iragandakoen oroi-mena, orainaren bizikera eta gerokoaren esperantza. (P, 20)

Sehaska gisa zabalik dugun liburu hau hiru elemendu horien, oroimenez, bizikeraz eta esperantzez sorturikoa, eta neurri batean, eratua da.

Lehendabiziko eraketa egindako aukeran agertuko litzateke. “Tren luze eta bustiak” saila ez zaigu *Marinel zaharrak* liburuan agertu zitzaigun bezala agertzen. Poema gehiagoz inguratuak daude argitarazio berri honetan. Eta, zenbait kasutan, esanahi berriak hartu dituztela esan genezake.

Ez dira jadanik ikuspegi autobiografiko soil. Eremua zabaldu den neurrian zabaldu dira-eta beste esanahi batzuk. Har dezagun, adibidez, “Gure hilak” saila eta sail honetan 1987. urtean *Marinel zaharrak* testuan agerturikoak. Han hildakoek, batez ere, zentzu ideologikoa edo politikoa hartzen zuten; nahi bada, omenaldi-poesiak ziren. Oraingo honetan, ordea, poema berriez inguraturik, heriotzaren gaiak, hasierako ideia hori galdu ez badu ere, igoa edo altxatua agertzen da, heriotzari buruzko pentsakizuna dutelarik lehen helburu. Heriotzari buruzko hausnarketa, kontzeptu batek eman ohi dituen joeren trataera litzateke testuak agertzen duena:

Heriotza ez da ederra eta ez da  
sekula izango... (P, 219)

litzateke testuak agertu nahi duen mezu nagusia, heriotzaren bakartasun esentzialaren agerbidea:

...neu bakarrik eroriko naiz zulora eta egundoko  
egunik bakartiena izanen da.  
Eta mundua orohar ez da ene hutsuneaz  
ohartuko  
ortzean zehar iragandako basahatearen hutsuneaz  
baino gehiago,  
eta ni (ez dea galera ikaragarria?) ez naiz  
harrezkero enea izanen... (P, 231)

Honelako bertsoak irakurri ondoren, poetak heriotzaren ondorengo bizi-tzaz galdetuz ikusi ondoren, heriotzak beste zentzu bat hartu duela esan dezakegu. Eta hor sentitzen dela moldakuntza.



Hala ere, liburu honek, eta neurri berean *Gartzelako poemak* (1992) liburuak arazo beraren azpian daude, *Marinel zaharrak* poemategiak eurretan sortzen duen itzalaren eta iritziaren menpe. Liburu honetako zenbait poema —eta zenbait irudi nagusi— aurreko liburuetan emanak daude eta irakurleak, nahi gabe edo nahirik, hemengoan hura ikusteko tentaldia du, *Poemak 1985-1995* haren argitan irakurtzeko joera. Nik uste zorionez bukatu zaigu ezaguna genuena, bukatu da, dirudienez, aurre argitarazio hark, edo antologia hark egin dituen errepikamen joeraren durundiak, irakurleari ezagutzen zuenaren aurrean zela, berriz, sortzen zitzaion sentipena. Hemen, hura ere presente dago, baina beste zerbait ere bai. Aurkezpen zutabearen egileak dioen bezala:

Gai ugari ageri da poemotan: maitasuna, borroka, bidaiak, denbora, poesia ... Azken batean, bizitza bera.

Bigarren moldaketa unibertsalizazio jokoan agertuko litzateke, aurrekoarekin banatzeko egindako ahaleginean, objektu eta gai poetikoetatik urruntzeko egindako ahaleginean. Objektu poetikoa —maitasuna, heriotza, itsasondoko marinela— ez da berez eta bat-batean agertu. Poetak gai jarriak —norbere buruari jarriak bezala— hartu ditu eta gaiaren inguruko osaketa egin du. Gaiaren hustuketa hau, ikuspegi zabala hartuz, joera moldatuz, ez da autobiografiak agindua, gaiaren moldaketak eratua, baino. Neurri batean, joerak poetaren borondatea eta gogoak erakusten ditu. Poemak egitura baten barnean kokatuak dira, zatiez osatasun handia sortu arte.

Hirugarren moldaketa liburuaren egituraketan agertzen da. Taiukera hori borondate baten islada da. Erakusketa baten margoen erritmoa esanguratsua den bezala, liburu batean poemen agerpenak ere bere mezua dakar. Eta argitarazio erritmoan bada zerbait *Marinel zaharrak* liburutik alderatua dena. Han poemak “Tren luze ta bustiak”, sailean bildurik eman ziren. Hemen poema horiek hiru atal desberdinetan daude egokituak: “Tren luze eta bustiak”, “Hutsik geratu ez ziren zeldak” eta “Gure hilak” arloetan. Eta gainera, lehenak liburua zabaltzen du eta beste biak bukatu. Datu txiki honek adierazten du, zuzenki, liburua ez dagoela kronologikoki eratua, baizik eta poetaren gogo bati erantzunez moldatua. Gartzela garaiek eta ondorengo hurbil batekoek zabaltzen eta uzten dute liburua.

Pixka bat gehiago sakontzen badugu, berehala konturatuko gara poetaren gogoak nolabaiteko simetria maite duela. “Tren luze eta bustiak” sailaren ondoren “Gure arbasoak” saila dator, beste era batez esateko, hildako eta aurrera joanen omenaldia da liburuko bigarren sail hori. Kontraste bera, gartzelako bizikunea eta ondoren heriotzaren aipamena jarriko luke liburuko bukaera osatzen duten sail bietan: “Hutsik geratu ez ziren zeldak” —gartzela— eta “Gure hilak” —aurrerakoak, hildakoak— sailetan.

Lau horien tartean ditugu hiru atal nagusi:

“Marinel korapiloak”, borroka eta etsipenaren arteko bizikuneaz, “Merkatu beltza”, poesiaz eta derrotaz, eta “Monogamo inperfektoak” maitasunari buruzkoa.

Moldaketaren beste pista bat poemategietan tartekaturiko ipuinek osatzen dute. “Denbora presentea eta denbora pasatua”ren pean kokatuko litzateke “Tren luze eta bustiak” eta “Gure arbasoak” saileko poemategiak. “Eta denbora futuroa” ipuinak, aldiz, ateak zabaldu dizkie esperantzaren eta etsipenaren artean moldaturiko “Marinel korapiloak” eta “Merkatu beltza” arloei. “Afrikak eta Europak” ipuinak maitasunari eman dio ahotsa eta “Monogamo inperfektoak” sortu da. “Hutsik geratu ez ziren zeldak” eta “Gure hilak” poemategiek hasierara jo dute, kasu honetan sarrerarako ipuinik gabe, liburuaren borobiltasuna azpimarratuz.

Gaien garapena egongo litzateke, beraz, oroimenetik heriotzaraino, edo nahi bada, iraganetik etorkizunera, apurka-apurka moldatzen den bidean.

“Tren luze eta bustiak” gartzela eta exilioaren bizikunea biltzen duen artean, tradizioaren bidetik egin du bidaia poetak “Gure arbasoak” sailean. Bidaia eta marinel irudiaren inguruko testua da “Marinel korapiloak”. Tirabira baten ostean lehorreraturiko testuek oratu dute “Merkatu beltza”. Sentimenduen bidetik zabaldu du maitasunari buruzko saioa: “Monogamo inperfektoak”. Sufrikarioaren maskara da “Hutsik geratu ez ziren zeldak”, torturaren agerbi-de ere eginik. Heriotzan, ibaiko ur guztiak azkenez badian aurkitu dute bukaera: “Gure hilak”.

Laugarrenez, tonua moldatua den bezala eratu da poema bakoitzaren egitura. Ikuspegi orokor bat hartuz, ez da zaila Sarrionandiaren tonu liburu liburu trebatu hori modernismoaren hizketaz sortua, bizikunez bilbatua eta errealismoz osatua ikusten. Testuak, *déjà vuren* inpresioa sortzen badu ez da soilik poema batzuk ezagunak direlako, idazlearen idazkera moldea ere ikusia delako baino. Poemek, eta hamar urteko produkzio honetan kalitateari begira denetarik ere badagoela esan beharko genuke, Bertolt Brecht-en poesia dakarte gogora: kontakizun baten oinarritzen dira asko, eszenaren hausnarketak poemaren mamia osatu duelarik. Narraziora hurbiltzen dira horrela hainbat poema. Eta irakurritako zerbaiten ikuspegi paradoxala ematera.

Barnealdera begiratzuz gero, lehen aldeetarik poema askok honelako egitura jarraitu dute, poemaren barne erritmoa moldatuz, hasiera narratiboan egoera bat aurkeztuz:

Urteak eta urteak iragan ziren eta, azkenerako,  
itzuli zen.

Itsas ertzetik paisaia aldatu samarra zegoen,  
zakurrak zaunka hasi zitzaizkion... (P, 133)

Ondoren, poemak pilaketa bat aurkezten du. Eta ekintzen, edo esaldien edo elementuen pilaketa. Anafora erabiliz edo objektuak bata bestearen atzean jarriz:

Eta eskaini zioten saldaren zaborea ez zen  
gogoratzen zuen saldaren zaborea.  
Eta lotarako eskaini zioten ohea ez zen behialako  
ohea bezain leuna.  
Eta Penelopetzat aurkeztu zitzaion anderea  
ez zen Penelope... (P, 133)

Bukaerarako Sarrionandiak paradoxa maite du:

Eta Ulisses ... Baina bera ez zen Ulises Jaun  
Zuriano zen, Elantxobera itzultzen. (P, 133)

edo ironia:

Eta Arnaut Oihenart tutik esa gabe.  
Beraz: X/X/X/ (Ez daki Ez du erantzun)... (P, 95)

edo denon gogoan geratuko den esaldi bipil, borobil eta zuzena.

Ez diren gauzak ere  
badira.  
Bizitza, ez diren gauzez ere  
osatzen delako... (P, 147)

Aforismotik hurbil, esaldiak egiaz egiaz aurkeztu ohi du. Sarrionandia maisua da horrelako aforismo estu bezain zabalak, interpretagarriak azken batean, sortzen eta asmatzen.

Sarrionandiak liburu honetan agertzen dituen irudietara igaroz, poema ezagunekin izan duen antzeko arazoa sentituko du irakurleak. Aurrerago ezagun dituen irudiak aurkituko ditu orrialdeetan: heroearen irudia, haurtzarorearen nagusitasuna, exilioaren agerpena, marinel zaharrak itzaropenaren eta errebeldiaren irudi gisa; paradoxaren nagusitasuna...

Denboraren ikur den bidaiak sortzen du liburua irakurtzeko lehen ardatza. Bidaian nortasuna agertu du poetak, baina neurri batean bidaia paradoxala da, nortasuna paradoxala den neurrian.

Bidaian joan direnak:

Geratu egiten gara ala joan.  
Halaere, geratzen garenean ez gara  
apur bat joaten?  
Eta joaten garenean ez gara  
geratu egiten? ...  
Abiatzen dena ez da egundo inon  
geratuko?

Ala itzuliko da? Baina, itzultzen dena  
abiatuko zeneko lekura itzultzen da ala?... (P, 25)

Poemak *fatumaren* indarra azpimarratzen badu ere, geratzea eta joatea gauza bera balitz, paradoxa azken punturaino eramanez, ezin da ukatu abiatzeak aldatzea ekartzen duela.

Paradoxaren langintza bada ere poema liburuaren alderik nabarmenena, bestalde poetak bidaiak aldaketa dakarrela baieztatzen du zalantzarik gabe:

Den dena da aldatzen  
ez bada momia.  
Aldatzen da azala  
aldatzen da mamia.

Mundu honetan dena  
sortzen da aldatzeko,  
ni ere aldatzea  
ez da harritzeko.

Erabat aldatu naiz  
hamaika urteotan,  
baina ez da aldatzen  
zerbait ene baitan... (P, 67-68)

Etxera itzuli den poetaren gogoak ere kanpora ateratzera behartua dago bere izaeran:

Eta logureak nago, eta zapatak erantziko nituzke  
eguerdira arte behintzat lo egiteko.  
Baina gauaren ibaia berdatzen eta ...  
gabardina jantziz alde egin behar dut... (P, 73)

Geratze eta joanaren artean dagoenak, denboraren jarioa ikusiz baina guztiz onartu gabe —eta denboraren aurka egin den keinu errebelde hori, sistemaren aurka egin denaren bezainbatekoa da—, erdibiturik du bihotza eta “han egonik hona naiz” esaldiaren pean pilatu ditzakegu poema liburu-ko aipuak:

Beti dago bihotz zatitu bat  
erdiz trenean doana  
eta erdiz estazioan geratzen dena... (P, 26)

Aldaketa arrazoi politikoak ere eragin dio eta nortasunaren galeraren bide-tik abiatu da poeta:

Bere izena arriskutsua zenez gero beste izen bat jantzi zuen  
alkandora berria janzten den bezala.  
Beste sorleku eta beste jaioteguna gogoratzen  
eta beste izena sinatzen ikasi zuen.

Auskalo abots berririk lortu duen, edo pausuak emateko  
era berririk... (P, 42)

Bidaiatzea, azken batean, bertso honek dioena bada

Ezeren bila doaz, gu bezala,  
ilunabarrean,  
alde batetik bestera, aspaldian galdutako  
zeozeren bila... (P, 132)

nortasuna ere ezerezean, edo Kafka-k asmatu-rik animalizazioan geratzen  
da:

Hemen itxadoteko agindu digute eta hementxe,  
ezeren esperoan,  
kriseiluaren azpian, intsektuak bezala,  
argitan, bonbila ukitzez  
hegalak galtzen. Int-sek-tu bat bezala  
zatituak, zailkatuak... (P, 165)

Horregatik geratzen den bide bakarra haurtzarora itzultzea da, “Alter  
orbes, alter ego” izendaturiko poemak gogoratzen duenez:

Eta hatz markak? Batzutan hatz mamietako  
bidelako marroi begira geratzen da:  
inoiz izan zinen haur singlea laberinto horretan  
galduta dabil... (P, 42)

Hatz marken laberintoa, azken batean, munduak sortu duen laberintoaren  
ispilua besterik ez da, eta munduan exiliaturik dabilen gizakiak —ez ote da  
exiliatuaren irudia kristautasunak barrokoan zabaldu-rik moldea?— bilatzen  
ditu irtenbide bi.

Bata haurtzaroan eta haurtzaroko paisaian kokaturik da. Bestea, urrun eta  
etorkizunean agertzen den Euskal Herri amestuan.

Iraun beharrekoa dena errepatatzen badugu, haurtzaroko paisaiarekin  
egingo dugu topo.

Laket zait ibiltzea  
larre arteko estartetan barrena ...  
Gure baitan habia egiten duen harridura hauxe da  
iraun behar lukeen guzia,  
eta hau guzi hau da galduko dena... (P, 32)

Elurra ari zen erortzen lurra estaliz  
elurra elurra estaliz  
eta elurtzan barrena irten nuen... (P, 63)

Laku sakonetara murgilduko gara  
ohantze hobeen bila... (P, 175)

Sarrionandiak haurtzaroko Agrarian kokatu du bere ametsa, eta nahiz eta jakin mundu hori galdu egingo dela, edo haurtzaroak bere bukaera duela, Agraria maitatuz jarraitu du, izadiaren barnean bere kabia bilatuz. Agraria maite duten guztiek ez lukete ahaztu behar baina, Agrariak bere gizarte moldea eragin duela, eta molde hori estamentala dela, eta horretan gerlariak beharrezkoak direla, eta ez hori bakarrik, gerlarien ahalmena mugarik gabekoa dela, eta indarkeriaren mundu batera kondenaturik dagoela Agraria.

Paradisura biderik ez da, Paradisurik ez da... (P, 175)

aipatzen duen poetak amesten du urrunean Euskal Herri batekin:

Munduan bada bazter bat (ez genuen guk  
sortu orduko hautatu)  
gure herria erizten duguna. Eta mundu guzia da geurea  
gure herria gurea bada... (P, 55)

Euskal Herria hurrutietara begira gelditzen da  
goizero, planeta lurretik hurrinena bailitzen,  
bere izen propioa entelegatu ezinik... (P, 70)

Euskal Herri hori proiektu politiko bat baino gehiago sentipena da, lurralde bat, geografia, sorkuntza kultura kultura politikoa bihurturik, beste barik. “Herri proiektua” deituriko poeman eraten da nolabaiteko etorkizuna, baina, batek baino gehiagok uste zuenez, gerlari zaharrak normaltasunera itzuli nahi du:

Bene benetako herria dadinean  
asmaketa ahaztuko dugu.  
Estatu tekniko bat utzi eta ikurriñak  
sukaldeko trapu bihurtuko ditugu,  
euskal herriak izatearenekin batera  
ez izatearen abaintailak izan ditzan... (P, 31).

Norbaitek azaldu beharko luke zein diferentzia dagoen estatu tekniko (P, 31) eta iraultza sozialaren (P, 49) artean. Tartean, Euskal Herria ez da proiektu bat, ametsen topografia eta asmoen geografia baino.

Horregatik dute luzapen kognitiboa “Marinel zaharrak”, horregatik hedatzen da poesia kontzeptu horren inguruan. Joseba Sarrionandiaren poesiaren aurkikuntzarik handienetakoa da sinbolo hori, Iñaki Aldekoak esan duen moduan, eredia Auden-en lanetik etorri edo etorri ez beste delarik. Marinel erromantikoak Sarrionandiak, testuen arabera, maite duen joeraren eredu dira.

Batetik aldatzeko joan dira, liburuko lehen poeman gertatzen ez zen bezala, bidaiaren paradoxa puskatuz horrela:

Itsasoaz bestaldera joan ziren eta  
ez dira egundo itzuliko ...  
Eta inoiz itzuliko balira ere, iadanik,  
ez dira joan zirenak izango... (P, 119)

Patua betetzen dute:

Arrats arratsero tabernara sartu eta  
harik eta konortea galdu arte edaten dute,  
beren fatua haur batek jaurtiriko  
dadoa balitz bezala... (P, 135)

Eta patua betetzen dute beren gaineratik diren indarren gaineratik jartzen dire-  
lako:

Biharamunean itzuliko dira itsasora. Harrigarria da  
marinelon bizimodua:  
miseriazko soldatak dituzte, eta ez dakite  
igeri egiten.

Itxaropenik ez dute eta horregatik ere, ez dira etsipenean jausten; aurrera  
egin dute bere bizitzarekin:

Ezen eta gizakumea, pospuluaz lez, baliozko  
ezer utzi gabe akabatzen duk,  
bere kantua soilik dituk etxe aldera  
dortoka zaharren antzera itzultzen... (P, 124)

Eta, okerragoa dena, badakite ez dela Paradisurik, jakinik:

Mörlandgo portuan ez dago sekulan  
itsasuntzirik... (P, 135)

Aurkako arrazoien gaineratik, baina, marinela aurkezten dira eredu gisa:

Eta ez ditugu liburu guziak irakurri: liburu hertsia  
atautak dira, liburu irekia itsasuntziak ...  
Ortze mugen handikaldean irlak eta derrotak  
bilduko ditugu,  
balea zuriaren kontra ekinen dugu, irabazi ezin arren  
akaberara arte burrukan.  
Ikas ditzagun marinelen kanta, asma ditzagun  
marinelek kantatzen ez dituzten kanta... (P, 140)

Mitoan kokatzen direlako, eta ez historian, dira eredu garriak marinela,  
eredugarriak ez gizaseme arruntarentzat baizik eta kontraesanean bere onar-  
tzen duenarentzat, "ortze mugen handikaldean" ikusteko gai denarentzat.

Aipatu dugu lehenago ere heroiaren izaera. Bera ere mito mailan dago, ez  
baita eginkizunaren kontziente testuaren arabera.

Estrategia hitzari darion odola kalkulatu gabe, irabazteaz  
harrotu gabe, galeraz etsitu gabe,  
laudatedan barrena doan harmadak erreboluzio sozialaren  
banderak zabaltzen ditu... (P, 49)

Idazlea saiatzen da heroaren alderik intimo eta humanoena azaltzen eta deskribatzen, egoera intimoa eta egoera politikoa bananduz, eta deskripzioa egiteko orduan, ohiko ez diren erregistroak erabili ditu, baina alde bat azaraturaz, lanbroak estali dituelarik “estrategia” hitzaren alde ilunak eta ondorioak. Heroiak bizi ditu une larriak, eta aipagarriak dira tortura (“Kirofanoa”, 208, “Bainera”, 210) eta heriotzaren aipamenak (“Joseba Asensio”, 209). Heroiek bizi dituzte etsipen momentuak; eta maisu da Sarrionandia, barnetik ikusteko horrelako aldeak:

Denbora bere hamaika sare-orratzekin  
eseri da bere aldamenean;  
eskuetan eusten duen harmak ez du iagoitik  
babesten;  
ez kargadore berriak, ez gainbizitzeko gogoak,  
ez gerla irabazteko esperantzak,  
Batzutan inola ere ezin da ihes egin  
norbera den errauts pilotik... (P, 54)

Agian, esan beharko genuke Sarrionandiaren pentsakizuna koordenadetan mogitzen dela, ez diela egiturazaleek maite dituzten pare biko aldeei erantzuten, baizik eta pare bat baino alde gehiago dituen egiturari. Eta, goiko hori horrela agertu badu ere, beste hau ere idatzi du:

Euskal herria gainpopulatuko dugu ..  
euskaldunez, koreanoz, swahili beltzez  
eta eskandinabiar blondez... (P, 31)

Baina hori etorkizunean izango omen da.

Heroien ekintzen arrazoiez galdetuko bagenu, barne indar batek —heroi-tasuna azpimarratuz— bultzatu dituela esango genuke. Estimaten dutenaren alde presaz lan egin dute (“Joseba Asensio”), baina arrazoiak sentimenduak direla esango genuke. Eta, azken batean, mitoari bere azken arrazoa bilatuz, beste erremediorik ez dagoelako. Bada poema bat liburu honetan, historiaren garapena ikuspegi naturalez eta biologizistaz azaldu duena.

Uharte ezezagunetako “albisteak” deituriko poeman, hain maite dituen apologoen bidez, idazleak gerla ezinbestekoa dela baietsi duena:

Zer esan itsasoak  
munduaren azalean zabaldu zirenetik  
irlak itsasoaren azalean lekutu zirenetik



bakerik gabe, treguarik gabe,  
ia etenik gabe  
dirauten gerlei buruz... (P, 136)

Arrazoiaren aurkako joera arrunta eta ezaguna da, orden burgesaren sostengua den neurrian. Liburuan aurkituko diren aipamenak, logika erromantikoaren pean kokaturikoak dira ia; eta azken batean maite ez den gizarte bat sortu du:

Begira ezazue, gero ere,  
sineskeriak,  
sineste bidezkoak,  
zitalkeriak,  
behar bezalako portaerak,  
zuzentasun politikoa,  
garbiketa egin beharrak,  
bakea,  
eta zentzunezko beste gauza asko  
aipatuz helduko direnek,  
ez ote duten beste inkisizio bat  
antolatuko... (P, 92)

Gizarte honek sortu duen kulturaz ere:

Baina gustora alde eginen genuke hemendik  
zaborraren  
zibilizaziotik eta espektakuloaren mekanikatik  
hurri... (P, 139)

Urruntzeko arrazoiak handiak dira. Ez dira soilik arazo pertsonal bezain politikoetengatik gertatzen. Kultura bera, gizartearen ondarea den neurrian, ez da onartzen, gizarte teknologiko eta mendebalekoa maite ez delako. Horregatik, kulturak sortzen du “kulturaren ondoeza” (P, 150), eta zuzenean altxa da kultura postmodernoaren aurka:

Karl Marx, Sigmund Freud, Albert Einstein,  
Andre Breton akabatu egin dira... (P, 156)

“Zenbatekoa den ondoeza” idatziko du poetak, eta nahiz eta kultura honek bere lana zipristindu, alderantzizko mundu bat amesten da: “Filmerako bazterturiko fotogramak” izeneko poeman:

Filmerako bazterturiko fotogramak,  
soberazko pasarteak,  
deusetarako erabiliko ez diren irudiak,  
geu bezalako zati ezetsiak... (P, 169)

Esentziak diren neurrian dira epikoak mito mailan aurkituko ditugun marinel zaharrak.

Harresien kontra burrukan ortzemugaren  
aldean  
derrotarik derrota elezaharretako marinelen  
gisan ibili  
eta biziminez hiltzeko gauza direnak. Bizitzak  
kondekoratuko ez dituenak... (P, 161)

Heroiak mitoan bizi dira derrotaren mitikan bizi direlako, historiaren aurka edo irabazleen historiaren aurka.

Derrotatua irabazlea baino duinagoa da

esango du pertsonaia batek barregura ematen duen grabetatez. Baina barre-gura gutxi dago liburuan, behin eta berriro, ideia errepikatu egin baita:

...derrotak  
bilduko ditugu,  
balea zuriaren kontra ekinen dugu, irabazi ezin arren  
akaberara arte burrukan... (P, 140)

Maitasunaren gaia “Monogamo imperfektoak” saileko hamabi poematan trataturik dago. Joera pertsonalaren (“Zertarako ekarri izua eta ikara / izara artera” P, 187) eta kolektiboaren artean (“amodioa ez delako / (baten batek uste duenez) bi edo hiruren gauza, / amodioa denon arazoa da” P, 194), Sarrionandiak tonu desberdinak erabili ditu poemien sorketan: harrigarria, zine pantailatik irteten duen maitalearena kontatzerakoan (“Hogetailau segunduko”), ironikoa, Miranderen eran maitasunaren iraukortasuna gutxie-tsiz (“Amodio iraunkorra”), edo ironia sarkasmoa bihurtuz, Heine-k maite zuen eran (“Desastre amandi”) edo ironia ahotsen tonuan bilduz eta tonu desberdinak tartekatuz (“Polizia, detektibe Interpoleko agente sekretuok”); apolo-goa idatziz eta gonbaraketak eraikiz (“Maitaleak eta katuak”).

Liburuan badira atal bi, ordea, maila mitikotik, lirikoagoak, pertsonalagoak diren neurrian, behintzat, desberdinak edo tradizionalagoak direnak: “Merkatu beltza” eta “Monogamo imperfektoak”. Sail biotan, lehen-lehen, ikusten dudan zera da: gaia zabal tratatzeko gogo, ikuspegi zabaleko trataera.

Baina lirikotasunak bere aurpegia dager hainbat poematan. Adibidez, poesia gai ez denean errealitatea adierazteko:

Larruak ematen duenarekin aski da... (P, 187)

Edo maitasunak ez duela ezer konpontzen adierazten duenean, ideia nagusiek gutxi konpontzen duten eran, norberaren egoera zuzen azalduz:

Honezkero mundu guziak daki paradisu-  
rik ez dela. Inor ez doa  
inora, Thule esate baterako izen hutsa da... (P, 188)

Agian, aitormen gisako esaldi honek:

Bizitza heldu da eta zeure begiak ditu... (P, 194)

eman diote indarra poesia honi. Baina teknika aldetik, aipagarriak dira erregistro aldaketak: eguneroko hizkuntzaren erabilera, hiriko gau giroko modernitatearen aipamenak, edo hizkera surrealistaren zipristinak. “Zu” eta “ni” izenordeak nagusi diren atal honetan, lirika serioz —eta ironiaz— hartzen denean sentsazio borobilak sortzen ditu idazleak, nahiz eta beti dagoen presente joanaren ondoren, denak berdin jarraituko duela:

Joan zinetik dena berdin dago ...

Zu joan zinen eta

nik bakarrik nabaritzen dut zure hutsunea... (P, 201)

Maitasun-huts horren irudiak badu zerikusirik Sarrionandiak heriotzaren ostean geratzen den egoeraz uste duenarekin. Ezer ez da aldatzen bat doanean, eta nihilismo puntu hau bere poetikan osatzeko ahaleginak egin ditu durangarrak.

“Merkatu beltza”, poema modernitatearen naufragiotik salbaturiko gauzen zerrenda dela ematen du, Atxagak eta taldeak *Henry Bengoa* lanean egin zutenaren antzeko:

Hamairu kilo babarrun=zaku bete puntu eta koma=

hiru litro gasolina=

larruzko txaketa bat=idazmakinarekin teklak=

zapatila pare bat=... (P, 144)

Zatia eta modernitatearen zatiketa bada nagusi ere, “Merkatu beltza”k beste hausnarketa bi eskaintzen dizkio irakurleari: modernitatearen eta post-modernitatearen arteko krisia eta poesiari buruzko iritzia.

Agian, sailaren ardatza protestan datza. Poetak Europako egoera aldatu nahiko luke, zeren:

Eta ustegabeko gertaera ugari espero da oraindik,

orain artean deus gertatu ez balitz bezala... (P, 170)

Horregatik, agian, aurkeztu ditu “Filmerako bazterturiko fotogramak” (P, 168) gerta litekeenaren gisa.

Testuinguru honetan poesiak tokirik ba al du? Anitza da Sarrionandiak poesiaren duen iritzia, eta, ziurrenik, aldakorra, edo irizpide bakar baten pean ez sartzekoa.

Ezaugarri nagusi bi ditu. Idealtasunaren seinale da, lehenik, idealistek bere poesiarentzat nahi zuten moduan. Poesiak hitza asmatzen du, eta, neurri horretan, errealitatea ere bai. Gauza fundatzailea da, beraz:

Kriptogramak izkiriaturen ditugu, ailitzez eta  
geroez, mintzaira asmatzeko... (P, 110)

Etorkizunaren eta ametsaren gunea, “ailitez eta geroez” osaturiko hitza den neurrian, subjektibitatearen eremua da. Eta, neurri horretan, idealismoarekin jarraituz, oraindik egiteko dago, edo, bere bila abiatuz gero, behin eta berriro urruntzen den gizakia da. Oraindik egiteke dagoena da.

Poemarik behinenak izkiriatzeko  
daude ...

Ez diren gauzak ere  
badira.  
Bizitza, ez diren gauzez ere  
osatzen delako... (P, 147)

Poemarik behinenak idatzi gabe diren bezala:

Mezurik sakonenak ez dira  
oraindik esan... (P, 147)

Poesiak mantentzen du, hortaz, bere izaki sakratua, bere joera urrundua. Joera idealista honen lehen ondorioa litzateke benetan poesia ez dena salatzea eta deuseza bihurtzea.

...denoi itzuli digute testuren bat  
antologiaren baterako.  
ia denok idatzi dugu enkarguz  
bideo gidoi bat,  
ia denoi eman digute sariren bat  
lausengu eta guzi ...  
lore jokoan ondoren, zer iruditzen zaizue  
poesia egiten hasten bagara?... (P, 171)

Poesia, era berean hilda dago, “Poesia hilda dago, baina ez naiz ni izan” poemak ironiaz defendatzen duen moduan. Baina jolas huts izan:

Poesia egitea ez da gauza itzela, lengoia  
ber egitearen joko hutsala,  
gogoeta harilkatzeko manera emendatzea... (P, 108)

ala arriskua pizten duena, paperetik errealtatera igarotzen duena izan; eta honi poemarik behinena —oraindik idazteke dagoena— deitu:

...hotelei  
sua emateko moduko poema bat, bizitzea  
bezain arrisksua,  
hatz erakuslea irakurlearen bihotzean sartzea lako  
krimen kolektibo bat... (P, 172)

Aldakorra da, idazlearen iritzian poesiak gizartean lor dezakeena. Batzuetan, gehienetan, badirudi poesiak ez duela eraginik gizartean eta “giltz tipia” besterik ez dela:

Ai sasoi makaletako poetok,  
zer eginen dugu,  
zer irekiko dugu poesiaren  
giltz tipiaz?... (P, 153)

Besteetan, ordea, poesiak ezer aldatzen ez badu ere, jarraitu beharra dago poesia egiten.

Poesiak ez du deus aldatzen, ez inor  
fanatiko bihurtzen  
baina ekin dezagun harik eta gure aberri eta  
sasoiaren tankerako hitzak aurkitu arte... (P, 108)

Mugatu bada poesiaren funtzioa, mugatuagoa da “Literatura eta Iraultza” kontrajartzen badira, eta hitza, azken batean, ez da ezer iraultza egiten duenarentzat:

Zer axola ote zaio *konpromezua*  
polizien tiro artetik —erreboluzioaren bandera lez  
ezkutarik gabe— ihes doan mutilari... (P, 28)

Hor agertzen da poesiaren porrota, bizitzak eta bitalismoak bere indarra agertzen dutenean.

## **Bibliografia**

- SARRIONANDIA, J.: *Hnuy illa nyha majah yahoo. Poemak 1985-1995*. Elkar. Donostia.
- ALDAI, X. (1996): “Bizitza bera bezala bizitza bera”. *Egunkaria*. 1996-III-2.
- OTAMENDI, J. L. (1996): “Nola itzuli?”. *Argia*. 1.566. 1996-II-25.



## MANU ERTZILLA HITZAREN EZPONDETAN

1977. urtean, Pott banda sortu aurretik hasi zen Manu Ertzilla poesia argitaratzen bere *Hitzik ainitz idatz dut* liburuaren bidez. Durangon Leopoldo Zugaza kultur eragileak atera zuen “Irrisko Sorta” bildumari hasiera emanaz agertu zuen bere burua liburuak. Hurrengo urtean kritika saria eman zioten liburuagatik Manu Ertzillari.

Idazlea Durango aldean jaioa dugu. Bilboko Jesuiten Ikastetxean irakasle. Pott bandaren fundatzaileetariko bat, ez du gerogo tarteka-martekako presentzia baino izan literaturan, edo, hobeto esanda, literatura inguruko bizitzetan, harik eta 1989. urtean *Ezpondetako pneumak* liburuarekin Bizkaiko Diputazioako Saria irabazi arte. Ordurako Krutwig jaunak eraturiko Jakintza Baitha erakundeko partaide da, eta eragin linguistiko garbiak ditu Ertzillak joera kulturalista honetatik hartuak.

Biografia meharra dugu, Pott bandako beste norbaitekin gonbaratuz gero. Inguruko idazlea da Manu Ertzilla, baina bandaren ezaugarriak garbi agertu dituena bere lanetan.

*Hitzik ainitz idatzi dut* testuak izenburutik bertatik adierazten du nondik nora higituko den bere joera propioa. Testuak ezaugarri nagusi biren artean mugitzen da. Lehen pertsonaren joera nagusia da, bestetik berbalismoak bere tokia hartzen du. Izenburuak ixiltasunaren poesiaren alde egiten zuela badi-rudi ere, esan nahi dut testuan hitz poetikoak errealitatea adierazteko duen ezintasunaz ez duela zuzenean aipatzen. Izenburuak azpian gordetzen duen asperdura puntu hori (“hitzik ainitz idatzi dut, eta ondoren aspertua nago”, ulertuko balu bezala irakurleak) ez da gordin agertzen testuan.

Baina nolabait eta noizbait agertzen da hizkeraren ezintasuna, eta arruntasuna egoera zenbaiten aurrean. Poetikotasunaren falta azken punturaino eramaten duenean, Manu Ertzillak honelako poema idazten du:

—ah zu zera urlia  
ze moduz?  
—ederki jauna  
—ah zu zera orduan...  
—bai jauna  
—bai bai... (HAID, 41)

Elkarrizketa aidean geratzen da xaboi-punpa balitz bezala, komunikazioa galdurik balego legez, ezina balitz legez. Baina testu hori ixiltasunaren poetikatik hurbilen dagoena da. Nik uste, nabariago da idazleak agertzen duen nitasun honetan ezintasun nagusi bat bizitzaren aurrean, gogaituta balego bezala, giroak bentzutuko balu legez, eta berak bere burua indarrrik gabe ikusiko luke, egoerari aurre egiteko gogorik ez balu bezala, Historiaren erritmo nekerik gabea bere kontua ez balitz legez, eta berak dena urrunetik ikusiko balu bezala. Begira dezagun joera hori urteko zikloa deskribitzen duen poema honetan:

...garizuma guztia  
erregutan  
igaro genuen...  
udazkenean atsedena  
  
gure amak  
hamaika esker  
eman zizkion jainkoari  
  
gabonetan  
hazak bixigua eta intxaursaltsa  
  
gure ama behintzat zoriontsu zen... (HAID, 40)

Urteak berea eman du, ama zoriontsua da. Eta idazlearen nitasuna? Nola da, nola dago pertsonaia? Ez dakigu. Urrun, agian. Niaren joera nagusia gogaigabe, nekatua, aspertua dagoela ematen du. Frantziako sinbolisten nekadura eta dandismo puntu bat erakusten du pertsonaiak, agian harrokeria bihurtzen ez dena, eta harrokeriatik urrun dagoena. Baina mantentzen du, agian, adoleszentiaren begirada ozpin eta mikatza, nekadurarekin batera puntu insolentea. Aipamenik garbiena testuan, agian, bere irudirik garbiena eta testuaren nondik norakoa gardenen agertzen duena baieztapen hau litzateke.

...ezin dut etorkizunean pentsa  
lehena dut oroimenean... (HAID, 92)

Poema programatikoa da, ertzik gabekoa. Etorkizunerako indarrrik ez eta nostalgiaren poesia eginez mogitzen da idazlearen irudia liburuan, melankolia eta gogagabearen artean. Aipatzen dugun poema honek garbi adierazten du non kokatzen den nitasuna:



...eguneroko guda hotzean  
ohartzen ez direnek  
ez dute herririk  
kafetegi eta kaleetako  
begirada maltzur eta belarri erneetan  
konturatzen ez dinenek  
ez dute izan-nahirik... (HAID, 92)

Oharketa eta izan nahiaren artean mogitzen den izaki horrek bere aurpegia erakusten du nabari testuaren barnean. Halaz ere, ondorio nagusi bi dakartzkio testuari joera horrek. Lehena egunerokotasunaren agerpena testuan. Manu Ertzillaren poetikotasunak eguneroko bizitzan biltzen du bere inspirazio puntua; ohiturazko keinuak, ekintza arruntak, kale giroa, hona hemen bere poesia agerbidearen pausuak. Antiheroi baten ibilerak dira hemengoak, nahiz eta batzuetan, gerorako utziko dugun gaia, poesia sozialak ere bere burua erakutsi orrialdeetan zehar.

...nere gelako hertzek  
egunero  
ipui bana kontatzen dute  
  
hertz bakoitzeko euliek  
bonbileari jira bira batzuk emen  
eta aurreko hertzera jotzen dute... (HAID, 33)

Batzuetan giro arrunt honek absurdorantzako joera hartzen du:

...nerekin zetorrena  
kale mutur hertzean  
adiskide batzuekin aurkitu  
  
bitartean erakustegietan  
ageri ziren pattar sal-nehurriak  
buruz ikasi nituen... (HAID, 37)

Edo feismo puntu bat:

...lau horma horiren  
erdian  
argi horixka bat  
kaka pilo horizka baten gainean... (HAID, 64)

Baina bigarren ondorio edo prozedura teknikoa da nabarmenagoa. Formalismo ingenuo baten azpian jartzen da poetikotasuna, poetika hitz bilkera adua balitz moduan. Poema bitan defenditzen da joera horren teoria:

...haurtzaroan ikasitako hitzak  
paper hontara erori dira  
paper hau aurkitu dute  
nire baitan elkartutako hitzak... (HAID, 9)

Poesia, ba, hitzen erorketa da, elkartasun aurkitutakoa, indargabea, arrazoi gabetua. "Erori", euria jausten den moduan. Inspiraziorik gabe geratzen denean poeta, duen irtenbide bakarra hitzen jostaketa da:

...gizona jarri zen  
paper zuriaren aintzinean  
eta ezin izan zuen  
ezer sortu  
asmabidearen iturria agortua bai zuen... (HAID, 27)

Praxian hitz-jostaketa hutsa den poemetan osatzen da testua:

boteila huts honekin  
zer egingo ote dut  
ote dut boteila huts honekin  
zerbait egingo  
huts honekin  
boteila egingo dut... (HAID, 39)

Edo Sarrionandiaren poesiak geroago agertuko den poesia moldearen antzekoa den beste adibide hau:

...wiski hartu dudala  
esan behar nuen  
nuela hartu behar  
wiski esan  
esan wiski  
hartu dudala... (HAID, 44)

Hitzekiko formalismo esperimental horrek badarabiltza beste ezaugarri jakin batzuk: aliterazioa adibidez, soinu berdinen jokoa, edo aliterazioaren eta paranomasiaren arteko espresabidea. Aliterazioari, liburuaren izenburuan agertzen denari, garrantzi handia ematen zaio poetikan, eta, behar bada, bere bidez sortu dira testuko poemarik ederrenak.

...adarra dardar dardarka  
zubipean...  
tokitik tokira  
dagoen trokan  
trunpaturik trukatu nuen  
nere tronoaren trontzoa... (HAID, 65)

Joko hutsaren seinale izan liteke, beharbada, baina ingenioa ez zaio falta poesia honi, aliterazioa eta soinu berarekin hasten diren hitzak josteko. Poema honetan gertatzen den bezala:

...gure garia gurea genuen  
gero  
gerla galduz  
gaitzak guztiak gureganatuz... (HAID, 90)

Baina erabilpen teknikoen artean aipagarriena da testuan nagusitasuna hartzen duen inpresio, eta bisualizazioaren erabilpena.

Manu Ertzillak maite ditu giro zehargabeak, dena esan gabe geratzen den hoietakoak, irudi batek sortzen du inpresioa, bai irakurlearengan eta bai idazlearengan eta irudi sentipenen arteko orekan oratzen da poema txiki, sugerikor, saltarina.

...zure bular mantsok  
ur gaineko  
xalupen bezelako dantza  
  
nere baitan  
haragi gose  
izugarria sortuaz... (HAID, 71)

Badira, horrezaz gain beste adibiderik liburuen:

...lehiotik lehiora (*sic*)  
hitzak dihoaz  
hegoez baliatu gabe  
jostunen oihal zuria  
beztu gabe... (HAID, 49)

Baina poesia honek heldugabea dirudi. Heldugabea, irudian bertan jartzen duelako atentzioa idazleak eta ez duelako intentsitaterik jarraitzen. Poemak bere horretan geratzen dira, bukaeran jarraibiderik ez balute bezala, prestatu-rik ez baleude legez.

Agian ez dio mesede handirik egin liburuaren hasieran testuak erakusten duen zehazgabetasunak, idazlearen nitasuna galdua dirudi, harat honat:

...liburu arte hontan  
dagoen gizonak  
ez du  
itxaropen handirik  
  
beharbada  
bihar aurkituko du erantzuna  
beharbada inoiz ez... (HAID, 14)

Edo:

...nere baitan daramadan  
amorroa eta gorrotoa

ez dakit non hustu  
ez dakit noiz  
eta norainokoak izanen diren... (HAID, 15)

Ez jakintasunaren zehazgabetasun horrekin hasten da bost zatitan banatzen den liburua. Agian, garbiegi ez bada ikusten ere zatikekaren arrazoia, ibilbide bat aurkezten du Manu Ertzillak. Etsipendurik, gogorik eta itxaropenik gabe agertzen den pertsonaia horrek garapena egingo du, maitasunaren bila, izadiarekin bat egin arte.

Liburuaren hasieran aurkitzen dugun pertsonaiak joera nihilista du: liburuaren hasieran ez dira faltako poetika bat osatu artioko esaldiak. Hona hemen pertsonaiaren izaera ondoen marrazten duen etariko bat:

...nere bakardadean itxuratuko ditut  
nere adimen eta gogoaren semeak...  
  
papel zuriaren aintzinean  
une larrietan  
oro hoztasunezko giroaren baitan  
  
edo baldin izaki hoiek  
sortzeko ahalmenik ez badut  
etsipenaren zokora  
eroriko naiz  
ezereztu artio... (HAID, 12)

Ezereza eta etsipenaren adibide egokia da aurkezten dugun beste hau ere.

...irrifar egiten ahaztu zaio  
moskorra zer den ez daki  
lanerako gogorik ez du  
munduan zehar ibiliko da  
eskuak sakelean dituelarik.... (HAID, 14)

Joera pasibo horretatik pitinka-pitinka joango da irteten, portaera nietzschear baten bidez: izadiaren gorespenaren bidez.

Manu Ertzilla izaditik hurbil agertzen den pertsona da. Izadiak bere nagusitasuna erakusten dio. Eta testuko pertsonaiak, idazlearen irudiak bere nortasuna izadian galtzen utziko du, bere gogoa izadian urtzen, joera panteistaren bidez. Agian liburuko poemarik hunkigarriena den honetan, bere gorpua izadiarekin bat eginda ikusten du idazleak:

...toki egokiagorik  
ez dut aurkituko  
hilda iraunteko  
  
hemen pago adartsu hauen azpian  
sustrai eta harrien artean  
pakean... (HAID, 70)

Egia da izadiari begiratzeko sentsibilitate sotila erabiltzen duena Manu Ertzillak, baina askotan ikuspegi hori poeman jarri behar duenean, paralelismo eta paranomasietan galtzen du, indarge, sentsibilitatearen ahalmena:

...eskertzen dut haizea  
isilean eta benetan  
hartzten duelako nere egia  
nere hitzaren  
entzule paregabea dalako...  
eskertzen dut lurra...  
eskertzen dut sua...  
eskertzen dut ura... (HAID, 89)

Izadiarekin batera maitasunaren gaiak indar handia hartzen du. Bera ere baita idazlearen irudia bere pasibotasunetik ateratzeko modurik egokiena. Poema liburuan agertzen den nortasunak maitasuna ezagutzen duenean, zerbait pizten zaio, eta bere nortasunetik bestearen nortasunera egiten du bidaia:

...brusapetik  
ageri zen bikaintasunak  
ez zuen nehurririk  
  
berehala  
larriaren lehuntasunetik  
ile beltzaren kizkortasunera  
zugandu nintzen... (HAID, 73)

Izadia eta maitasun gaien inguruan badira beste azpigai bi. Bata maitasuna oztopatzen duen heziketa erlijiosoarena litzateke, testuak aurrera egin ahala antiklerikalismoia itzultzen dena:

...ene atzaparren trebetasunak  
ez zuen  
zure haragia piztu  
erlijioak sartutako  
bekatuaren itzalak  
estali zintuen  
anitz esker  
erlijioa.

Herriaren gaiak irudi desberdin bi hartzen ditu. Batetik, idazlearengan ohiko denez, pasibotasunez, ezjakintasunez erantzuten zaio egoera soziopolitikoari:

...gaur inoiz baino ederragoa  
iruditu zait nere hizkuntza...  
  
bainan gaur ere ikusi dut  
gure aurka jasotako gerla

ikusi dut  
gudari beharra  
gaur isilean eta luzaroan  
negar egin dut... (HAID, 84)

Bestelako erantzunik ere badago arazo horri buruz liburuan. Manu Ertzillak, Gabriel Aresti horrenbeste gogoarazten duen ingenioaz erantzuten dio egoerari, hain zuzen galderak eginez, erantzuten dio:

...gero egonen ahal da  
txiroarentzat ogirik  
gaizoarentzat oherik  
eta guretzat lurrik?... (HAID, 93)

...noren  
erroaren  
errua  
ote gara?... (HAID, 100)

Baina beti dago joera nekatu hori begien aurrean, ezerazen tentaldia idaz-tian:

...nere etxeko atepak  
ixten badizkirate...  
eta etxe berri bila joateko  
nekatuak gaude... (HAID, 91)

Nekadura, asperdura, noragabea, jakin eza... sentsazio ilun eta zehazgabe-en espresio bihurtu zen Manu Ertzillaren lehen liburua. Garaiko arazoak azaltzen zituen liburu horretan: nor izateko gogoia, prosezuz luze baten zalantza artean. Ikuspegi pertsonala ekarri zuen, subjektibitatearen agerpena ongiegi ulertzen ez zen mundu baten aurrean. Bertso sinpleak, hizkera sinple batean azalduak, egizkortasun eta edertasunaren bila.

Bere bigarren liburuak bestelako planteamentuak egin zituen!

Bizkaiko Aldundiaren Poesia Saria 1989. urtean jaso ondoren, erakunde berberak atera zuen plazara *Ezpondetako pneuma* poemategia. Liburuko tonalitatea guztiz desberdina da. Ordurako Manu Ertzilla Bilbao aldean sortu eta ibili dabilen Jakintza Baitha taldeko partaidea da, eta liburuan erabiliko duen hizkuntza abstrahizkuntza zaila da, euskara eta grekeraren arteko hizkera kulturazale omen dena, urrundua, asmatua. Klasikotasunaren desiragatik baino ez bada ere, desberdina da liburuaren tonua, poemak luzeagoak dira eta Manu Ertzillak ez du poema laburren zorrotasuna erakutsiko. Gurago du orain poema luzea pentsakizunez betea. Baina jarraitzen du, hala ere, oraindik Manu Ertzillaren idazkeran hain bereizgarria dena, poemen bukaerako zehaztasun falta, bukaera gogorra, egituraren gradazio berezia, jausika ari dena,

espero ez den bukaera batera heldu arte.

Liburuaren gaia dialektika bat da, itxaropenaren eta etsipenaren arteko pentsakizuna, yin-yang berezia da, liburuaren maila guztiak zeharkatzen dituena, hizkeratik hasi eta gairaino mailaketa gogorrean.

Dialektikarik bereziena, nik uste, liburu horretan, eta bere izaera azkene-raino definitzen duena, zera litzateke: begien aurrean agertzen den alegori-zazio joera. Manu Ertzillaren poema gehienetan joko bera gertatzen baita: poetaren nitasunak begiz eszena bat ikusten du, agian, hiri nagusi batean (Bilbon) gertatzen den eguneroko eszena xotil eta xamur, garrantzirik gabeko-a. Ondoren poemak beste joera bat hartzen du, begiradaren mundutik pentsakizun mundura igarotzen du, eta poetak errealtateak eragin dion haus-narketa eskaintzen du. Hirugarren une batean hausnarketa alegorizazio bihurtzen da.

Irakur dezagun, adibidez “Acquarella” (EP, 18); eta begiratu beste teknika joera bat jauzia, nola gertatzen den:

Gauez, gente nagusia mintzo da  
etxaurreko porchean.

Hau da poemaren abiapuntu. Jente nagusiarekin kontrajarriz, poetak muti-koak ikusten ditu eta haiengan jartzen du atentzioa, eta honen ekintzak, badu pentsakizun-abstrakziorako biderik:

Muthikoak, zurezko aulxhian datzalarik,  
pausaturik daduka bere burua  
gau-hizkuntza hunen aintzinatikotasunean.

Mutiko honek ipurtargi bat du eskuan eta galdera, enigma batekin buka-tzen du idazleak poema:

Ira eta sagar umotuaren haroa.  
Ez da hil muthiko hura,  
ni ordea bai. Hortaz, nor naduka ni.

Egunerokotasunaren deskripzioak saltu egin du fantasia, izu, errealtatetik at dagoen egoera batera.

Egoera deskriptiboa aukeratzekoan agertzen du Manu Ertzillak lehen liburuan agertu zen idazle harekin loturarik handiena. Poema zenbaitetan ego-era hirian gertatzen da. Bilboko kaleetan poeta paseiatzen ari den artean, paseiatzen eta bere inguruari begira. Beste batzuetan, ordea, izadiak hartzen du poetaren atentzioa, eta, koplak zaharreko irudiak bailiran, sentsibiltate han-diz daki Manu Ertzillak irudien fintasuna aukeratzeko:

Haizeak narras darama horbel multipodoa  
plazan zeihar, aldenik alden... (EP, 20)

Egunak ezarri du bere nekhearen gailurra  
horrá bada, negu-sosoaren hegaldatze oikonomikoa  
phikondo adarretatik eta sastraka bihotzeraino... (EP, 23)

Izadiaren aipamen sotilduetan agertzen da Manu Ertzillak irudi aukerarako duen finezia. Deskripziotik alegoriako bidean beste dialektika bat aurkituko genuke, geografikoa.

Benetan geografia bi dira liburuan zehar tinka larrian. Alde batetik, Bilbao hiria agertzen da, bere geografia errealarakin poemaren abiaburuetan. Bilbao, zein idazlearen beste geografia erreala, edo, apika, errealista, hala nola “Hilherriko gizona” deituriko poeman agertzen dena:

Ba da gizon bat, bethiere guri aurre harturik,  
Shakespeare recitatzen duena  
gure hildakoen hilhobi ertzean... (EP, 13)

Bigarren unean geografia mitikoa bihurtzen da poemaren higiduran eta literaturako ohiartzunak ekarriko dizkio idazleak irakurleari. Bai Fidji mendiaz ari dela, bere exotismo puntuarekin, bai, aipaturiko poeman gertatzen den bezala, literaturako aipamenak eginik:

Hunela Grinzing-en Thomas Bernhard-en lur ôrhakararen aintzinean  
Hunela Mühlau-n, Geor Trakl-en oinetan.  
Hunela Père Lachaise-n, Paul Eluard-ekin  
Hunela Prahan, Vladimir Holan-ekin  
Hunela Paul Celan-ekin.

Kulturalismoa nabarmen agertzen du Manu Ertzillak liburu honetan bestean ez bezala. Eta datu honek ziurtatuko luke bere estetika hurbiltzen eta moldatzen doakiola Pott Bandak eraturiko poetikaren guneari.

Ez da soilik kulturalismo formala hemen agertzen dena, ez da fikzioaren eta errealtatearen arteko joko poema liburuak eskaintzen duena. Liburuak badu beste dialektika bat, beste kinka larri bat hizkuntzan. Eguneroko hizkuntzarekin batera adierazten du poetak hiztegi kultu eta neologismoz josia. Eguneroko hizkerak bere pisua du liburuan, errealtateak, inguruak agintzen duelako poetaren sentipen puntuaren abiadura eta abagadunean. Baina, gogoz eta borondatez, arkaismoz (Leizarragaren joskera eta aditz sistemaren ikutua ez daude urrin), grekismoz (“apoteosi”, “dinasteia proira to agrion”) zein ingelesetik harturiko izen berriez ziprisdunduriko testu ulergaitza eskeintzen du idazleak. Eta hau da behar bada bere pekatu astuna (horrelakorik literaturan balego ere), erregistroz behin eta berriro aldatzea eskatzen eta eragiten baitio irakurleari, azkenean nekatu arte.

Erregistro aldaketak sortzen duen nekadura errazteko jotzen du pleonasmora idazleak, eta indizioetara, “hona hemen” edo “hona hori” keinuz adieraztera, irakurlea gal ez dadin errealtatetik abstrakziora egiten den bidaian.



Hortantxe, bada, heldu zitzaikun...  
Hortantxe, orobat, irakhasi zeraukin... (EP, 26)

Ahapaldi hasiera berakoak ugariak dira testuan, baina bat aukeratzearen “Batan-urdina” (EN, 23) poeman agertzen dena aipatuko dugu:

Hôra huntan, pentsamentua belhaunika iausi da  
egunaren retabloaren aitzinean...  
Hôra huntan, cicuta dosi aphurra  
hartzen ohi da batan-urdinaren azpian... (EP, 23)

Ibilaldi hau egin ondoren, agian galdera bat geratzen da liburuaren mezuaz. Teknika dialektiko baten bidez liburuak bilatzen duena da izenburuak adierazten duena: Nerbioi ibaiko ezpondetako pneuma, arima, aidea, tonua aurkitzea. Inguru eta abstrakzioaren arteko jokoak eratu du izenburua, eta ez hori bakarrik, liburua. Beraz, nolakoa da pneuma hori?.

Sinkretikoa erantzutea da gogora datorren lehen hitza, eta hala da, nahas-mahasean sortua, materiale oso desberdinak erabiliaz eraikia. Baina liburuak badu, estalia, hari gorri bat dena lotuz, bateratze asmoa lana sortzeko: herioaren aipamena. “Ibaizabal, Nervion” deituriko poema giltzan, idazleak adierazten du zeintzuk diren lurralde honen pagua, eta patua:

Ibaizabal, Nervion  
Sposaturik, zigur zoazte  
suicidiu bikhoitzaren duintasunean inmolatzerat.

Hortaz, nor da hemen, gutarik,  
altxa ditekena haur legitimutzat  
bi zendutako haien... (EP, 27)


*Ezpondetako pneuma* liburuan orainarte ikusitakoetara beste eszenatoki bat gehitzen du Manu Ertzillak: ezpondaren kontzientziarena, norberaren gogoan errenditzen den geografiaren eszenatokia.

## **Bibliografia**

ERTZILLA, M. (1977): *Hitzik anitz idatzi dut*. Leopoldo Zugaza. Durango.  
— (1989): *Ezpondetako pneumak*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbao.



BIGARREN ATALA



ESPERIENTZIA POESIA



## SARRERA

Talde honetan bildu ditugun poetak bost dira: Felipe Juaristi, Juan Kruz Igerabide, Amaia Iturbide, Juan Ramon Madariaga eta Maria Jose Kerejeta. Bost idazle desberdin, baina nahiko antzera agertzen direnak. Olerkigintzaren deskribapenarekin hasi nintzen bakoitzak idatzitakoa nondik nora zihoan ikusteko eta zehazteko asmoz. Gauzak, agian, lerratu egin dira eta bidea maldatu. Hasieran deskribapena zena, oraingo orduan, lanaren aurrean, adimentuz, jakitez eta lanez saiogintzara aldatzen joan da. Gure artean askotan entzuten den esaldia da gure poetek badutela zer ikusirik inguruko lanekin eta ez dutela zertan lotsatu behar beren lanak beste herrialdetako poetek egindakoekin erkatzeko orduan.

Horrelakorik zerbait badago gure artean usu korritu duen hitzez deitu dugun “esperientzia poesia” da. Konpromezu poesia deitu izan den poesia aberkoiatik urrundu nahiez, poetaren barnekotasunean jarri dute begirada, eta, hala deitu izan bazaie ere, ez da poesia hau konpromezurik bakoa, norberaren egunerokotasunak sortzen duen ardura maila unibertsalera jasotzen saiatzen delako. Norberengandik hasten den poesia honek ez du bukaera norbererian, elkarkidetzan baino. Zeren haren oinarritik hasten bada ere nahikunde filosofiko batek bultzatzen baitu urrunago joan beharrera.

Hizkera sinbolikoaren oinordeko izaki, ordea, urrunago joan behar horrek hizkeraren tratamenduan ere bortizki agintzen du, eta hemen aurkeztu eta bilduriko poeten artean nagusitzen den ezaugarria, behar bada, hizkera analogiko eta sinbolikoaren erabilpena liteke.

Esperientzia poesiak (hitza atsegin ez bazait ere, zabalduena denez erabiltzen jarraituko dut, bestalde, “atün” hitza ezezagunegia gertatzen baita) hizkera poetikoan beste ekarpen batzuk egin ditu. Gune eta bihotz bezala hiru ezaugarri nagusi jar ditzakegu: bizitzaren poetizazioa, autobiografiaren nagusitasuna eta egunerokotasunaren garrantzia. Baina bihotzaren inguruetan beste ezaugarri batzuk altza dituzte, karabana herratuak legez, kanpamenduak: banguardiaren joera harrigarria ez da, orohar onartzen, surrealismoaren

zipristinak mantentzen dira, baina poemategi eratuak egiteko joera dute idazleok. Norberaren esperientzia giro errealistetan agertzen da, eta beraz, badute figuraziorako joera berezia. Batzutan ez dute modernitateak horrenbeste aldarrikatu zuen berritasuna, beste barik, bilatzen: poesian askotan erabili izan diren gaien agerpen pertsonala eginaz konformatzen dira. Egunerokotasuna erroetan jartzen da, eta egunerokotasuneko bizipenak eguneroko hizkera ere behar du, elkarrizketa arrunteko hizkeraren erabilpena ez da zaila aurkitzen poesia honetan.

Baina, agian, moztorroaren asmaketa da poesia honek egin duen erabilpenik aberatsena.

Poetok badakite poesia asmakizuna dela, artifizioa, tresneria edo trepeta, beste zerbait adierazteko bidea, eta artifizio joera honetan bakarrik moztortua da idazleek gehien erabiltzen duten espresabidea, hau da, beste norbaiten, beste idazkera baten ahotan jartzen dute bere diskurtsoa poetok. Noizbait norbait hori pertsonaia historikoa, edo kultura munduan aditua izan da, beste batzuetan, idazlearen nitasunaren beste alde. Bakarriketa dramatikoak poesia honetako abenidetan askotan ikusiko dugu paseiatzen.

Pilaketa litzateke nagusitzen den beste espresio bat.

Baina eskola taldeko argazkia egiten gaudelarik ere, eta gogoan harturik inor ez dela etiketa zalea, galdera bi datozkit burura: ez ote dago idazleonean artean desberdintasunik? Eta hauek baino ez dira mogimendu horretan sarzatekoak?

Desberdintasunak badaude egon, baina ez dut esango antzekotasunen beste direnik, batez ere, eta historiak hemen asko agintzen du, alde nabarmena sortzen da 80. hamarkadaren hasieran plazaratu ziren Juaristi eta Igerabide, eta hamarkadaren erdi aldera agertu zirenen artean. Gainera taldeko nagusien artean lotura estuak direla esango nuke; argialetxe aldetik, errezitalak batera ematen dituzte, e. a. Joera tradizionalagoa nabarmentzen zaie biei, eta intimoagoa beste hirurei. Eta banan banan irakurriz gero, orduan eta argiagoak banaketak. Juaristik sentipena eta pentsakizuna batera maite ditu. Igerabidek izadia jartzen du sentipenaren aurretik. Amaia Iturbidek joera sentsual eta mitikoa jarraitu du bere lanean. Madariaga eta Kerexeta autobiografiaren alde agertzen dira, nahiz eta aurrena zintzoagoa izan eta artifizioa gehiago nabarmendu bigarrenaren lanean.

Filosofia eta poesia lotzeko ahaleginak ez dira txikiak eta urriak Juaristi zein Igerabiderengan. Arazo hau ez bada desagertzen, poesiaren eta artearen arteko ezkontzaz arduratuago agertzen dira gazteak. Iturbidek poesia eta pintura ikusten ditu elkarlanean. Madariagak poesia eta musika. Kerexetak poesia eta zinema.

Hau dela eta lan honetan hartu den bidezidorraren justifikapena egitera behartuta gaude. Amaia Iturbideren poesia azaldu ondoren, *Intermezzo* bat

zabaldu dugu eta Imanol Irigoienen lana irakurri dugu, harira letorkeela pentsatuz. Hain zuzen ere, poesia eta pinturaren arteko kinkak merezi zuen, nik uste, desbideraketa txiki hori egitea, gai berezia delako poeta biongan. Hemen saiogintzak aurre hartu dio beste edozein asmori eta gaiaren aldetiko batasunak agindu du norabidean.

Daudenak badira, beste inor falta al da? Baliteke, baina ziur nago abiapuntuan: idazleen arteko loturek asko egin dute taldearen marrazketan, eta, behar bada bai. Felipe Juaristirekin izan duten hartueman poetiko, argitarazio aldetiko edo adiskidetasuneko lotura garbiak dira sarea eratzeke orduan. Kerejeta da honetan inguruago kokatzen dena, baina oraindik liburu bakarreko poeta izanik ere, joera horren aldeko agertu da orain arte, baina bera da esperientzia poesiaren ezaugarriak, formalki bederen, erabiltzen dituenetari-koen artean garbiena, eredugarriena.

Ez dut ukatuko beste irizpiderik hartuz gero beste era bateko joerak agertuko liratekela. Adibidez, Madariagak eta Berrizbeitiak badute erabiltzen duten hizkeraren aldetik loturarik. Edo izadiaren indarrez Igerabide eta P. Perurena elkartzeko arrazoiak leudeke. Baina poesia mogimenduen osotasunari begiratzuz elkartu ditugu lantxo honetan agertzen diren bost (sei) poetak aldeztetik bakoitzak duen nortasuna errespetatu dugularik. Halaz ere, gai honek kontaketa lasai eta zabalagoa aurkituko du orrialdeetan zehar.





## FELIPE JUARISTIREN OLERTI LANA

Felipe Juaristik (Azkoitia, Gipuzkoa, 1957) hiru poema liburu argitaratu ditu orain arte: *Denbora, Nostalgia* (1985), *Hiriaren melankonia* (1987) eta *Laino artean zelatari* (1994). Baina ez da olertigintza literatura eta kultura munduan egin duen lan bakarra. Biografia labur bezain estua gogoratu, orrialdeotara ekarri beharko genituzke bere ekintza hauek: Madrilen Kazetaritza ikasketak egin zituen, eta Euskal Herriratu zenean, komunikazio munduan egin zuen lan. *Porrot* eta *Literatur gazeta* aldizkarien fundatzaile eta bultzatzaile izan dugu, eta *La Primitiva Casa Baroja* deituriko argitale-txearen bidez Euskal Herriko kultura bizkortu zuen.

Felipe Juaristiren poesia, bere lanaz arduratu diren kritiko guztiek aipatu dutenez, Bernardo Atxaga eta Joseba Sarrionandiak egindako berrikuntza lanaren ondoren sortzen da, eta kokapen historiko honek ondorio bereziak ekarriko dizkio bere literaturari. Atxagaren lana, ezaguna denez, abangoardiaren eta sinbolismoaren artean mogitu zen, Rimbaud poeta frantsesa maite zuen, eta bere sinboloaren inguruan eratu zituen bere literatur mitorik bereizgarrienak. Ez zeuden bien lanak, batez ere Sarrionandiarena, *novísimoek* sorturiko poesia motatik urrun: hiztegiaren fintasuna, literatur kulturalismoaren goraiapamena, ideia eta gustu estetiko berrien hausnarketa, bilketa eta euskalduntzea. Metaliteraturaz egin zuten lana ere aipagarria da, zeren arazorik gabe jartzen zuten agerian maitaturiko idazleengandik harturiko uzta. Pott Bandak, bukatzeko, poesia sozialaren aurrean literaturaren autonomia defendatu zuten, baina, hala ere, ez zuten inoiz bere aita pontekorik nagusia albo batera utzi. Gabriel Arestirengan zuten miresmenak gaur arte iraun du, baina hori ez da oztopo izan Utopiak eskatzen duen denboraren kontzeptu zuzena zalantzan jar dezaten.

Agian, gaur eguneko ikuspegitik begiratu mereziko luke poesia sozialarekin egin zuten apurketa berriro ikustea, desoreka sortzen delako ideia honen inguruan. Behar bada, egia da, Potten barnean askotan gertatu den moduan, ideiekin apurtu dutela, baina pertsonak defendatuz: Gabriel Aresti eta Blas.

Zentzuzkoa da hau, ez baita berdina poesia sozialaren poetarik handienen aurka joatea, edo bigarren mailako poeten aurka, edo nahi bada, poesia sozial-eko topikorik arruntenen aurka. Beste aldetik, abertzaletasun erradikalak defendatu du poesia epiko, sozial eta politiko baten beharra Euskal Herrian. Eta urteak aurrera joan ahala, garbi ikusi da Joseba Sarrionandiak, arrazoi historiko zein pertsonalengatik poesia errealista eta sozialera itzuli dena. Guzti honegatik, beraz, honela labur dezakegu Pott Bandakoen ekarria euskal literatura: monotema soziala alde batera utzi zuten, literaturaren autonomiaren alde egiteko eta ahots desberdin eta estetika ugarien defentsan agertuz, poesia sozialak zuen irudiarekin bukatu zuten, mogimenduko poetak errespetatuz, hala ere.

Baina bada, nahi edo nahi ez, Pott Bandakoez euskal literaturara ekarri zuten balio garrantzizko bat: erlatibismoa. Geroztik ideia nagusiek ez dute poeta deitzen. Erlatibismoak norberaren subjektibitatearen alde egiten du, ikuspegia behetu, epika azentua mehetu, abarrotsa xurumurru bihurtu. Utopiaren orde, erlatibismoa eta ikuspegi ironikoa erabiltzen dira. Orduko esaldia dugu: “Literaturak ez du balio mundua aldatzeko”.

Felipe Juaristiren olerkia bide honetan kokatzen da. Bereak subjektibitatea maite du, ez ditu nahi eta nahi ez, ziurtasunez, ideia nagusiak erabiltzen. Krisialdia gertatu ondorengo poeta da, beraz autonomiaren alde egin lezake, arazo larririk gabe: poesia sozial eta estetikoaren arteko kinka geratu ondoren urrunetik ikusi lezake jokia, eta bide bat naturaltasunez aukeratu. Ondorioz, munduari buruzko ikuspegia ironikoa izan daiteke, baina xamurtasunez osatua; nihilista, baina paradisu txikien sinesmenak iraun egiten du; poetak bere izaeraren mehatxu den heriotza eta denboraren igaroa sentiduko ditu, baina oroimenerako tokia geratuko zaio oraindik bizirik.

1985ean, poesia idazten hasten den unean, Pott Bandaren abangoardiatik urrun dago Felipe Juaristi, eta abangoardia alde batera utzirik, errazago zaio, gerora “esperientzia poesia” edo “poesia figuratiboa” deitu izan den mogimendura hurbiltzea, nahiz eta irakurleak nabaritu dio oraindik, eta batez ere lehenengo liburuan, kulturalismora egindako hurbilketa, eta Sarrionandiaren aztarnaren usaia: Miranderen begirada estilizatua, hiztegiarekiko atxekimendu sinbolista.

Agian normala da Sarrionandiaz duen miresmen puntu hori, Felipe Juaristik idazten duen poesia apurketarik gabe sortu baita. Bere idazkerara batera heldu dira, lagunkiro, edertasun estetizistaren zaletasuna (Mikel Lasarengandik hartua), egunerokotasunaren hizkera eta egunerokoaren erabileraren gaiak aukeratzekotan, poema anekdotatik at mitoraino bidaliko duen irudi poetikoaren garrantzia erakustiko dioten poeta txekiar (Holan, Seifert) eta poloniarren (Milosz) irakurketa eta mitoaren erabilpena, Sokrates aurretikoen filosofoetan ikasia.

Oleri honi noizbait “dekadentea” (Koldo Izagirre) deitu izan bazaio ere, aitortu beharko genuke izenondoko horrek ez duela bere neurria ematen, aitzakia besterik ez den “art déco” dekorazioren ondoren barneko ikuspegia erakusten duen poesia bilatzen duelako sakonean Felipe Juaristik.

## 1. Poetika marrazten

Bere lehen poema liburua argitaratu zuenean, Felipe Juaristik bere lehen liburuetako baliogarri gertatuko zen poetika idatzi zigun hitzaurre gisa. Han honelako esaldiak jarri zituen:

Beti pentsatu izan dut Miltonek bezala poesiak apal, sentsual eta suharrak izan beharko lukeela.

Hiru mugarri Felipe Juaristiren poesiaren eremurako. “Apal”ak adierazten du poesia ez dela ikuspegi heroikotik idazten; behetik begiratzen duen moralak da Juaristik darabilena, indibidualismoaren garaian, ideia nagusiek tokia utzi diote gizabanakoaren ikuspegiari. Gaurko gizartean badirudi poesiak bazter tokiak duela, eta poetak ontzat ematen du egoera, bazterretik egiten du hitz, hitzarekiko konfidantza mantenduz, baina munduan izan lezakeen ondorioak mesfiatuz. *Hiriaren melankonia* liburuan hauxe idatzi zuen poetak:

Batek badaki hitzak ez direla urrutira joaten  
hegoak hautsirik dauzkatelako  
aingeru zaurituak bezala... (HM, 22)

Nostalgia hitzak ere ikuspegi honetaz hitz egiten du, nostalgian dabilena estetika *minor* bat lantzen ari da. Victor Hugo-k adierazi zuenez, melankolia zoriongabeen zoriona da.

“Sentsual” hitza *Denbora Nostalgia* liburuan zabaltzen den mapa mundi erotikoan gida dugu. Maitasuna da poesia honen indarrik sakonena. Maitatua poetaren nitasunaren babeslekua da, bere nortasunaren irudia. Maitatuaren gorputza Kreazioaren islada. Mundua eta haragia besarkada hestuan lortzen dute batasuna. Maitatuaren gorputzak babesten du, betetzen du, bizitzen du poetaren arnasa. Paradisu galduren marrazkia da, intimitatearen sorkuntza toki, denboraren mehatxuaren aurrean aterpe, baratz, babesa, baina inoiz ez betiko estalpea, betiko itxaropena. Maitearen desioak lotzen du poetaren sentipen mundua, eta denbora bada bere bildurrik oinarritzkoena, maitasuna paradisu da non poeta galtzen baita, munduari zentzu berria ekartzeko.

“Sentsual” hitzak idazkera ere adierazten du. Sinbolismoaren lexikoak, irudi dirdiragarriek, hitz jokoek, esaldiaren zentzu musikalak, sinestesiek, guzti horrek poesia tonua osatzen dute: nostalgia eta melankoliaren tonua.

“Suharra”k testuaz idazleak duen portaera deskribitzen du. Etsipenez begiratu du mundua poetak, baina hala ere, poetaren lana gogotsu hartzen da,

indarrez, zintzo bete beharrez. Horrelakorik ikusteko nahikoa izango dugu hemen *Hiriaren melankonia* hasteko aukeratu duen Bibliaren parafrasia gogoratzea:

Desioa haragia bihurtu zen  
eta hantxe bizi izan ginen supitoki... (HM, 15)

Indar ahaltu batek bultzatzen du poeta idaztera, eta haren manua suharrez batetzen du Juaristik.

Ezin bada sinestu:

Bakarrik gure begiek ikuitzen dutenaren jabe gara,  
gure irribarreak altxatzen duenaz,  
ezpain batetik besterainoko munduaz... (HM, 15)

sortu ahal da. Azkeneraino sortu: hau da “suharra” izatea.

Hiru hitzok Felipe Juaristiren poesia asmoa osatzen dutela zalantza handirik gabe esan badezakegu ere, hitzaurre horretan kokaturiko beste esaldi bik ere osatzen dute poesiaz duen ustea. Esaldi batek poesia eta bizitzaren arteko loturaz hitz egiten du: bizitza higikorra eta aldakorra da, poesia, barriz, geldoa eta sendoa. Biek osatzen dute poetaren mundua, baina honek poesia behin eta berriro zuzuendu eta zuzendu nahi luke higiduran bizitzaren erritmoa osatu arte, eta ez dadin izan oroimenak betirako lotu duen une baten agerbide.

Bigarren esaldiak atentzioa piztu digu, ordea. Parrafo txiki batean hauxe idatzi du Juaristik:

Poesiaren hizkuntza unibertsala da. Horrelako ondorioa atera daiteke Octavio Pazek esandakoaz: “testu bakoitza bakarra eta era berean beste testu baten itzulpena da”. Inork ez du bere errealitatea isladatzen, kolektibo handi batena baino.

Errepika dezagun: “Inork ez du bere errealitatea isladatzen, kolektibo handi batena baino”. Indibidualismoaren, gizakiaren aldeko ideologiaren irakurketan kutsu berekoia bilatu du Felipe Juaristik eta gizabanakoaren ideologiari buruzko irakurketa hau aipagarria iruditzen zait, zeren idazle estetizista zela esanez kritikak sortu eta ugaltu zirenean, poetak beti gogoratu du poesiaren ulermen mota hau, beti esan du poesia ez dela ahots bakartiaren islada, errealitate orokorra defendatzen duen ahotsa baino. Metaforizatuz bada ere, poesia honek talde eta gizarte batek sentitzen duena erakusten du.

Indibidualtasun gizarteratu horrek berezi du bere poesia. Badu joera estetizalea, bai, baina bere ahots kritikoak ihes egiten du Euskal Herrian usu agertzen diren mezu zuzen bezain ximpleegietatik, eta bere sorkuntzaren gogoak ardura sakonak ikusi eta aztertu ditu gure gizartean. Sokratikoen aurreko filosofoen irakurle den aldetik, Juaristik filosofiaren ikuspegia kontu-

tan izan du poesia idazterakoan. Alde honetatik, bere poesia gizarte eta gizatalde baten ardura, asmo eta joeren komunikatzailea dugu.

Filosofia eta poesiaren arteko elkarkidetzaz bere poesiaren oinarrian kokatzen da, ondorioz irakurleak oso kontutan hartu beharko ditu testuetan agertzen diren mitoak, horiek baitira poetaren ahots eta gizartearen ardura arteko zubiak. *Denbora*, *Nostalgia* liburuan egon zitekeen berrikuntza ez zegoen gaian, ez poesia tratamenduan, baizik eta gai jakin batzuei buruz (bakartasuna, babesik eza, egunerokotasunaren gristasuna) modernitateak zuen eritzi joera bat, ardura bat ehotzen jakin zuen aldetik baino. Gai horiek adierazteko gai izan zen aldetik.

## 2. Sentikortasunaren poetika

Aurreko orrialdeotan Felipe Juaristiregan poesia mota bi zabaldu direla adierazten aritu gara, lehenengo aldeak bere aurreneko liburu biak hartuko litzuke, eta bigarrenak, oraindik hirugarren liburua dena. Haiek biak sentikortasunaren poetikaren behera etorriko lirateke, *Laino artean zelatari*, ordea, gogoetaren poetikaren pean kokatuko litzateke.

Sentikortasunaren poetikak sinbolismoaren hizkuntzatik xamurtasun eta sentiberaren aldeko joera lantzen du. Baina beharrezko zaigu orain poesia honetako oinarritzko ideia bat hartzea kontutan: Isaiah Berlin-ek dioen moduan XX. mende honetara horrenbeste samin eta dolumin ekarri dituzten ideia nagusietatik urruntzen da Felipe Juaristiren poesia. Ideia demokratikoen defendatzaile den aldetik, Felipe Juaristik ez du poesia militanterik idazten, gutxiago poesia pedagogikorik. Ikuspegi moral batetik idazten du, gizabanako gizarteratu baten alde egiten duen neurrian. Eta ideia hau oinarritzkoa dugu, bestela ideologiatik urruntzen dela esanak oker ulertzea ekarriko lukeela uste dudalako. Ideologia ez dago poesia honetatik at, kanpo dagoena Euskal Herrian, kontzeptu nahasketa eder batean, poesia militante, sozial eta konprometituak defenditzen duen ideologia da.

Horrela *Denbora*, *Nostalgia* eta *Hiriaren melankonia* “esperientzia” poesiara hurbiltzen dira, batzutan urte horietan Espainian idazten zen antzerakora hurbiltzen direlarik. Baina bazituen Euskal Herriko poesian bere erroak ondo loturik. Mikel Lasaren poesia erreferente ederra da Juaristiren lanak irakurtzeko orduan, biek lantzen baitute etsipen eta nostalgiaz mezu poetikoa.

Sentiberatasunaren poesia hau “Esperientzia poesia” deitu izan da, eta era berean, neorromantikotzat jo dute, eta garapen zuzena eraman du, kulturazaletasunetik irten eta norberaren historiaren portua jo arte. Poetak munduaren bihotza hartzen du eta bertotik mintzo da bere eguneroko bizitzaz. Giro hiritarrak, egunerokotasunak, tradizioren itzulketak, nitasunaren fikzioak, poesiaren kontakizun joerak eta etsipenak osatzen dute poesia honen gune berezia.

Hiri giroak pertsonaren lehen geografia osatzen du. Poeta hirian bizi da, eta hiritik idazten du *Hiriaren melankolia*, Donostiari eskainiriko poema elegiako. Baina hiri honek bihotz bikoitza du. Lehen liburuan agertzen diren hiriek presentzia sugeritua dute, hiri mitikoak sugeritzen dira: Paris, Viena, Berlin, New York... poetak oihartzun mitikoaz hitz egingo balu bezala. Bigarren testuan, Donostiak fokoaren argia hartzen du unoro, espazio osoa hartzen du, eta liburu hau bere elegia da. Hiriko gauzek (teletipoeak, idazteko makinek, idazlearen eguneroko gauzek) badute zer esanik liburuaren barnean. Baina Donostiak handiagoa hartzen du. Donostia ez da, halabaina, espazio gisa, industria hiria, eta bertan izadiak toki aparta hartzen du, eta olerkariak portua eta badia bilatuko ditu, liburuan era berean hiriko eta larrako poesia sortuaz. Badu joera horrek arrazoirik idazlearen biografian, larrako giroan sortua izan baita poeta. Baina, gainera, Juaristik ez du izadiko elementu simbolikoen indarra inoiz gaitzetsi. Izadia maite du, eta bere sinbolizazio indarra erabili egiten du, eta joera azkeneraino eraman du bere *Intzesua lurlean bezala* (1988) nobelan, zeina loreen hizkuntzan oinarritu baitzuen.

Egunerokotasuna, idazlearen eguneroko abentura poesia honen gairik oinarritukoena da, maitearen ikuskizun erotikoarekin batera. Nitasunak poetikaren gunea hartzen du. Poemak lehen pertsonan idazten dira, sujetoak maitea ikusten du bere ondoan (liburuen eskaintzetan ere presente dagoela) eta egoera hau da poesiaren abiapuntu. Honelakoetan da Felipe Juaristi errealista, nitasunak maitearekin duen abentura kontatzen duenean. Autobiografiaren erabilera nitasunaren inguruan kokaturik gaudela indartzera dator. Madrileko aipamenek eta eguneroko kazetari laneko anekdotek nitasunaren inguruan jartzen gaituzte irakurleok, eta testuak mundu pertsonalaren joera simbolikoak aztertuko ditu.

Mundu pertsonala eta maitea, poesia egiteko ardatz bi dira testuan, etsipenaren aurka babesleku bi, testuetako behin eta berriroko gaiak. Bizitzaz duen nekadurak, mundu galduen aurrean sentitzen duen etsipenak, denborak aurrera egiten duela eta ilusioekin bukatzen duela sentitzeak txikitasunaren sentimendua sortzen dute, mundu elegiako idatziko duen idazlearen etxean. Erotismoa paradisu galduen aterpe izango da. Eta honetaz mintzo zaigu Iñaki Aldekoa:

El poeta ausculta un cuerpo (mujer) que es un mundo, ciudad y paisaje... o el de la memoria que acaba revistiéndose con los atributos de la femineidad, ansioso el poeta de la plenitud del instante que culmina con la fusión de los contrarios y parece abolir el tiempo y la duración. Tras la plenitud orgiástica del instante, de ese vislumbre fugaz de la “unidad perdida” vuelve a ser expulsado a la realidad del tedio y del amor.

Testu narratiboak aukeratzen ditu Felipe Juaristik bere poesiarako. Testuek istorio bat kontatzen dute, beti ere bukaera harrigarria eta ezustekoa bilatzen

dutelarik. Poemotan, baina, kanpo narratibitatea ez da bere hartan geratzen, beti bilatzen du kontzientziaren egoeraren bat edo irudi baten garapena. Irudiari eman zaion ardura kanpo istorioari eman zaiona baino handiagoa eta sendoagoa da, esanguratsuagoa. Nitasunaren espresaera eta abangoardiaren falta esperientzia poesiaren hage bi dira. Testu ulergarriak idatzi nahi ditu poetak, eta horregatik urruntzen du abangoardia. Poemaren lehen gaia erreferentzi hurbil eta ulerkerrek osatzen dute. Hortik, eta irudimenetik salto eginez, irudi poetikoak aurrera egiten du zeinu sinbolikoen bila. Testugintza honek hartuko zuen hartu Mikel Lasaren tonua, bai, baina Holan eta Milosz-en irakurketen ondoren ehundura pertsonala hartzen du. Testuen atalburuan jartzen diren irudiek beti kontzeptuen sorketari begira daude. Irudiaren bidez, poesia honek sentiberatasunaren eremutik filosofiaren atarteraino egiten du bide. Horrela sentikortasunak ez du bere burua poesia alorrean uzten, haraindi baino, abstrakzio joera hartzen du poetak adierazi nahi duen filosofia eta gizartean agertzen diren ideiekin bat egin arte: etsipenaren filosofia, txikitasunaren elegia, ziurtasun guztiak zalantzakor diren eremuan bizi arte. Puntu honetan, eta apika poetaren iritziaren aurka, Poesia eta Metafisika besarkatzen dira.

*Denbora, Nostalgia* eta *Hiriaren melankonia* sentikortasunaren poetika deitu dugun estetika honen pean sortu eta jaiotakoak dira.

*Denbora, Nostalgia* zazpi sailez osaturiko poemategia dugu; poema batek zabaltzen du zikloa eta beste bik bukatu. Sail bakoitzak hitz lauz idatziriko obertura batez hasten da; txatal hauen funtzioa sailaren tonua ematea litzateke, ziurrenik, erreferentzia jasotzea, eta irakurlea sailaren atarian jartzeko. Errealitatearen abiapuntua beti da Donostia, eta idazlearen eguneroko paisaia. Sail bakoitzak —joku zenbakiko zein mitiko batean— zazpi testuz osatua dago: hitz lauzko txatala eta sei poema.

Aldekoak defendatu du liburua poetaren kontzientziak egin duen bidaiaria dela, Sarrionandiak *Izuen gordelekuetan barrena* liburuan egin zuenaren antzekoa. Eta on da iritzi hori, kontuan izanik bost sailetan zenbait hiri europetar eta New York aipatzen direla; paralelismoa indartua da lehen sailean agertzen den irudi baten bidez. Hortxe eskuratzen du Juaristik “Sorterrira pozik itzultzen den mutila”ren irudia, durangarrak egin zuen moduan. Baina hortxe bukatzen dira Sarrionandiarekin dituen loturak. Desberdintasunak handiak eta zabalak dira, zeren Juaristirengan ez bait bidaiarik, baizik bidaiari eginitako aipamena; ez da inoiz erabiltzen Sarrionandiaren liburuan giltza den hiri eta idazleen arteko paralelotasuna (Lisboa Pessoa-rekin lotzen zen, Praga Holan eta Kafka-rekin eta abar). Felipe Juaristik hiriak aipatu besterik ez ditu egiten, eta turistaren begirada arinez izendatu, hiri guztiak, oinarrian, berdinak baitira, eta denek marrazten dute etsipenaren mozorroa.

Hala ere, sail guztietan aurkitzen du marrazki berdina, egituratzeko asmo bera, diseinatzeko joera antzekoa, errepikatzen den egitura baten aztarna.

Hitz lauzko txatala igaro ondoren, aurreneko poema bietan poetak baieztapen sendoak egiten ditu:

Berdin da Mendebaldea eta Ekialdea  
Metafisika eta Poesia nahastea.  
Iraganak ez du deus balio... (DN, 16)

Lehen gai txango honek poetaren haurtzaroraino heltzen da, edo idazleak denboraren igaroaz hausnartzen du. Bigarren pertsona darabil eta testua maiteari zuzenduriko bakarrizketa dramatiko da. Poema erotikoak dira liburuan identifikagarrienak, maitearen gorputzaren metaforizaioaren bidez osatzen baitira gehienetan. Hirugarren bidaia tematikoa paisaiarekin lotzen du poetak. Sail honetan gertatzen da hirien aipamena. Maitiarekin batera doa poeta hiri mitiko horietara: Paris, Viena, New York, Madril, Berlin, Praga, Tom-buktu: paisaia arrotza da non gertatzen den etsipenaren baieztapena. Azken zikloa hausnarketa metafisikora itzultzen da: isiltasuna eta nostalgia dira gai-rik aipatuena, batzuetan metapoetika ere egiten du Felipe Juaristik bere hizkera poetiko gai harturik, poesia egiten duenean, poema gogoangarri hartan bezala:

Maite aditza iraganean jokatzen dut.  
Iragana da maitasun eta euriaren aroa.  
Sufritu aditza aldiz orainean... (DN, 22)

*Hiriaren melankoliak*, nahiz eta erreferentzi sinbolista azalean idatzia eraman, antzeko lana egin zuen poetak sofritzen dituen kontzeptu abstraktu zein orokor (bakartasuna, maitasuna, nostalgia, iragana), eta haien euskarri diren irudien begi-pertzeptzioaren artean. Agian berau dugu Felipe Juaristiren poetikaren idazkera ezaugarririk behienena eta bereena, eta bertan aurkitzen dira bere poesiaren indarra, eta gerora egingo duen lanaren garapena, hain zuzen ere Poesia eta Metafisikaren arteko besarkadan; helezineko eta haztamukoaren arteko orekan, abstrakzioa eta sentipena batzeko joeran.

Orain ere orekatua eta zaindua da libururaren egitura. Hiru zati nagusi ditu liburuak: “I Genesis” (hamar poemaz osatua), “II Teletipoa eta beste poemak” (bost olerki), eta “III Krepuskularioa” (beste hamar). Horrela hasierak eta bukaerak aurpegi bakarreko alde biak osatzen dituzte: goizalba eta arrats behera.

Genesis sailak *Denbora, Nostalgia* liburuan erabiliriko gaiak gogora erakartzen ditu. Maitasunezkoak dira poema horien lehen notak. Izan ere, argi hasten da poemategia:

Desioa haragia bihurtu zen... (HM, 15)

Hasi, jaio, sortu: poetaren lehen kintza, maitasunaren lehen pausoa ibai bihur dadin, eta gero, desagertu, beste gorputzean urturik. Bigarren sailak ere



gai ezagunak hartzen ditu kontutan, hala nola, poesiari buruzko poesia (“Smoothy” poema, adibidez) edo desio guztien kumplimenaren ezinaz (“Itsasoari begira dagoen estatua bati”).

“Teletipoa eta beste poemak” sailak girorik hiritar eta egunerokoena hartzen du gaitzat. Testuen erreferenteak bere kazetari laneko espazioetan gertatzen dira: irrati bateko albiste zerbitzuan. Teletipoa munduarekin bat egiteko hariaren sinbolo bihurtzen du poetak, eta haraindi, mundua izan zitekeenaren ispilu. Baina mantentzen da oraindik bigarren pertsonaren erabilera, poeta “zu” bateri ari da mintzoka, eta maitasun elkartzearen poza etsipenarekin bazten da, ausentzia sentipenarekin:

Tristezia borrero fina dela uste duzu.  
Ez duela arrastorik lagatzen.  
Ez hautsik, ez itzalik. Ezereza. (HM, 44)

“Kreuskolaria” poetaren nitasunarantza itzultzen da eta begiratu egiten du poeta. Gai nagusiei buruz mintzo da hau, ezagunak ditugun gaiez ari zaigu. Hiru poema nagusitzen dira sail honetan: “Tristeziaren teoria”, “Poesiaren ezina” eta “Autorretratoa”.

### 3. Gogoetaren poesia

1987. urtean *Hiriaren melankolia* argitaratu ondoren, Felipe Juaristik, beste poeta gazte batzuk egin zuten moduan, nobela idaztera eta argitaratzera igaro zen. Joera honen fruitu izan zen *Intzensua lurrean bezala* (1988) nobela lirikoa, eta *Arinago duk haizea, Absalon* (1990) nobela esperimentalak. Poeta gazteok poesiatik hitz lura egiten duten bidaiak bazituen bere arrazoiak: esperimentatu nahi zuten, poesiarekiko mesfidantza zabaldu zen, eta gainera, ez da kasu arraroa euskal literaturan non idazleek, egoera normaltzat ager dadin, genero bat baino gehiago lantzen baitute.

Narratiban eginiko lan honek eta haur eta gazte literaturan emaniko astiak azaltzen dute 1993. urteko isiltasun aroa, eta bere poesiaren garapena. Urte horretan, Juaristik *Laino artean zelatari* liburua argitaratzen du.

Nahiko historia nahastua duen liburua da berez. 1989. urtean eta izenburu berarekin *plaque* txikia argitaratu zuen La Primitiva Casa Baroja argitaletxeak Gabon oparia egin ziezaien bezeroei. Liburutxoa *Espía de la niebla* (erdaraz) deitu zuen, baina bertan ba zen “Metropolis” saila, edo “Vanitas vanitatis”. Dena dela, erdaraz edo euskaraz, testu honek iragartzen zuen etortzeko zena.

1992. urtean eta *Metropolis* izenburupean Antonio Jiménez Millán-ek Malagan zuen poesia bilduma batean argitaratu zituen Felipe Juaristik “Metropolis” saileko hiru poema eta “Panamako Istmoa”.

*Laino artean zelatari* liburuan idazkera berriari hasiera eman dio Felipe Juaristik. Metrikak berak, arnas handiko bertso lerro horiek, ziurtatzen dute erregistro poetiko berriaren aurrean aurkitzen garela. Idazkera honi gogoeta-  
ren poesia deituko diot, liburuak idazkera berria erabiltzen duelako, nahiz eta sentimendu erotikoa presente izan oraindik orrialde artean, denboraren igaro-  
aren aurrean kontsolamendu gisa.

Non kokatzen dugu *Laino artean zelatari*? Ene iritziz gai nagusi bi dira testuan: nortasun ugaripean berea galtzen duen izaki baten hausnarketa eta erotismoaren errebeindikapena.

Lehendabiziko gai hori aurreneko orrialdetan agertzen da:

Nere 2 Niek (Ni1 + Ni2) bihotz 1 dute amets.

Pertsonaia bikoiztua da, errefrau eta apologoek teknika darabilena poesia honen idazkeran.

Testuko ideia pilaketa nahastuaren teknika sarritxotan erabiltzen da tes-  
tuan, eta espresabide hau nahiko litzateke sujetuaren ugaritasuna adierazteko. Joskeraren aldetik Juaristik esaldi nagusi, solte eta baiespenetara jo du, eta bertso lerro bakoitza baiespen toki bihurtu. Joskera hau erabiliz bertso lerro bakoitzean aforismo bana jarri du. Esaldi biren arteko lotura elipsiaren bidez eman du, eta bien arteko lotura irakurlearen esku geratu da. Aforismo joko hau *ingenium* froga da, eta *ingeniuma* da liburu birtuterik nagusia. Aforismoa, bestalde, zatikatua den errealitate baten agerbidea da. Kontzep-  
tuekin jolasean dabil, formaz hestu eta laburra, esanahiez luze eta zabala.

Poetak ezarririko bikoizketa hartan, poesia eta metafisikaren arteko bana-  
ketan, errefrau joko metafisikaren alde agertzen da. Liburu honetan Felipe Juaristik metafisika, orainaldiko filosofia adierazi nahi du.

Auden-ek, Ingalaterrako poeta handiak, “Poeta eta hiria” saio ezagunean lau ardatzen inguruan jarri zuen poeta modernoa: unibertso fisikoan sinisme-  
naren galera, fenomeno sensorialen izaeran sinismenaren galera, inguratzen gaituen munduan arintasunaz kontzientzia hartzea, eta bizitza publikoan jasatzen dugun anonimotasuna. Lau ardatz hauen inguruan mogitzen da Felipe Juaristiren nitasun erdibitua: gaurko munduan jasatzen diren aldaketen jakitun agertzen den kontzientziaren mezua.

Kontzientzia horrek aforismoa maite du. Baina era berean tentsioz eta ironiaz mintzo da. 1989. urtean argitaraturiko liburutxoan Felipe Juaristik hone-  
la idatzi zuen “Máximas y preguntas metafísicas” deitzen zen poema batean:

Es difícil hacer cotidiano de lo extraordinario.  
¿Qué sería, sin embargo, si lo cotidiano sucediera  
una vez cada año, lustro o década?

Egunerokotasun eta harrigarriaren arteko tentsioa da testuan agertzen

dena, batez ere idazlea konturatzen denean modernitatearen aldakortasun mugaezinak harrigarria egunerokotasunean sartu duela.

Tentsioa modu bitara azaltzen da liburuan, metonimiaren bidez, egunerokotasunaren azalpena eginaz (etxea, sua, ezkia) eta harrigarria aipu kultu, parodiatu eta ironizatuaren bidez.

Horrela “Metropolis I” eta “Metropolis II” poemien ezker aldean agertzen diren zenbakiak Wittgenstein-en *Tractatus*aren parodiak dira. Europako poesia desberdinen aipu ezkutuak agertzen dira zenbait poematan, surrealismoa “Panamako Istmoa”n edo Marx-en aipua “Vanitas vanitatis”en, beti ere irriz begiratuak.

Arrazoiez idatzi zuen Auden-ek gaurko artistak “baserri unibertsalera” heltzeko bide eta modua zuenean, heterogeneitatean agertzen dela bere nortasuna, nahas mahasean: originaltasuna ez da batekotasunetik sortzen, kultura desberdineko agerpenez, baino; berez, modernitateak tradizioaren irakurketa berria egin beharko du originalitatea maite badu.

*Laino artean zelatari* poemategian erabili den kultur aniztasunak hiriaren nahasduraren irudia dugu, oroimenaren hondamenaren inpresioa.

Horregatik da garrantzitsua surrealismoaren aipamena, zeren liburuaren oinarria esaldi elkarkidetzak bada, orduan esaldi aske biren arteko lotura zehazgabea izango da, isildua. Isiltasuna beti gertatu da bertso lerroaren bukaeran, eta ideia biren arteko zubia da, kalderoia. Irakurlearentzat, aldiz, isiltasuna interpretazio unea da, zeren irakurlearen gogoan gertatuko da soilik ideia biren arteko lotura.

Ideien lerraketa idazkeraren beste espresabide nagusia dugu, ideien elkarkidetzan sortua hau ere. Jakina denez, lerraketak nahasduraren ilusioa sortzen du, nahiz eta elementurik nagusienetatik hasi eta txikienean bukatu, idazlearen gogoak orden intimo eta berekoia sortu arren ere.

Poemak hiruna batuz, Hegel-en dialektika gogoratzen duen triptikoen egitura sortu du borondate horrek. Baina idazlearen orden gogoak kontrajarpena maite du era berean eta denen ganetik aforismo filosofiko eta irudi poetikoaren artekoa maite du Juaristik.

Irakur dezagun txataltxo hau:

Zer zinen zu denborarik ez zenean?  
Zu eta denbora jaio baitzarete batera.  
Orain haizeak jotzen zaitu aurpegian,  
Eguzkiak egiten dizu keinu...

Aipamen metafisikoak, nortasunari buruzko galderak, espazioak eta denborak izadiko irudiekin kontrajartzen ditu idazleak. Irakurleak gogoratzen du, behar bada, Felipe Juaristiren irakurketa eta eragin poetikoez gorago esan duguna: zentzuen pertzepzioaren bidez errelitatearen misterioan sartzen den

Holan poeta maite duela, edo Czeslaw Milosz gogotsu irakurtzen duela. Ez litzateke ahaztu behar azken honek Nobel Saria jasotzerakoan emandako hitzaldia euskaratu zuela Juaristik. Bertan poetaren ezaugarri oinarritzko bi definitzen dira, ikusteko irrika, eta ikusitakoa idazteko desioa. Formula hain orokorra izan arren, eta orokorra denez, poeta askori aplikagarri gertatu arren, zuzen zuzenean doa Felipe Juaristiren idazkera definitzera.

Begizko irudia, kultur aipamena, filosofia maxima, idazkera poetikoa nor-tasunaren barreiatzearen aurka.

Batasunaren bilaketa hirunakako diseinuan garbi geratzen da. Liburuak burdinezko egitura du: hiruna poemako hamar sail. Jolas ironikoa? Agian, eta batez ere “Enpririka” saila begiratzuz gero. Baina beste guztia nitasunaren inguruko hausnarketa da. Nitasuna “absurdoa eta desioa” gisa definitzen duen “Metropolis I” poematik hasi eta bakartasunak nitasuna marrazten duen “Perspektiba Nevstky”ra heldu arte (bidenabar, ez ote dago liburuaren poema izenburuetan Marshall Berman arkitektuari eta honen *Todo lo sólido se desvanece en el aire* liburuari eginiko aipamen gehiegitxo?), liburu kontrakoen batasuna bilatzen duen erantzun bilaketa da.

Poetaren ni kontraesankor, anitz, bakanduak:

Baina babestuko lukeen tenplorik aurkitzen ez.

Pentsamenduak gorritzen diren lorebaratzerik ez.

Fedearen begiez ez baitu so egiten.

atsedenik gabeko bidaia osatu beharko luke, pentsamenduzko eta begiradazko mogimendu borobila aurrea eraman eta bere gogo beste inguratzen duten errealitatekin kontrajarri, iragan eta orimenarekin, maitasun eta emakumearen babesarekin, haurtzaro eta hiriko paisaiarekin, errealitate eta ametsaren arteko kinkarekin, bizitzarekin, heriotzarekin, sorkuntza poetiko eta ezabapenarekin. Azken finean, borroka baten kontaketa da liburu. Alde batean dago mapa eta geografia gisa pentsatzen den nitasuna, eta bestean izatearen irudi helezina eta aldakorra sortu duen mundu modernoa.

## **Bibliografia**

- JUARISTI, F. (1985): *Denbora, Nostalgia*. Baroja. Donostia.  
— (1987): *Hiriraren melankolia*. Baroja. Donostia.  
— (1994): *Laino artean zelatari*. Alberdania. Irun.

## JUAN KRUZ IGERABIDE IZADIA ETA ESALDIA

### 1. Antzekotasunaren analogia

Juan Kruz Igerabidek poetika bi idatzi ditu. Atal honetan poesiaz duen iriztiaren azterketa egingo dut, haren poesiaren irakurketarekin hasi aurretik, mundu poetikoaren ulermena egiteko asmoz.

Poetika biak hitzaldiak dira. Lehen a Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian 1990. urtean eraturiko ikastaldietan emanikoa da: “Hegoaldeko Itsasoetan barna” deitu du poetak. Zoritxarrez, ikastaldiko hitzaldiak argitaratu gabe geratu ziren, eta han esandakoaren berri urrunetik ezagutzen dugu. Gaur egun, *Eganen* argitaratua da. Besteak, “Haur poesia edo lihoaren neke eta penak”, ordea, argia ezagutu du Udako Euskal Unibertsitateak eratu duen Heda Sailan 14. alean, *Haur literaturaren inguruan* deituriko alean.

Biak testu garrantzitsuak ditugu Igerabideren lana ulertzeko. Lehenak, ziurren, bere hasierako liburuak ulertzeko lagunduko digu. Besteak haikuaren bidetik harturiko bidea, eta orain arteko bere lanik borobilena: *Sarean leiho*.

Poeta bat bere lanari buruz hitz egiten hasten denean, bere lanaren ispilua ematen digu. Egia da, ordea, ez direla ispilu guztiak fidelak, eta irakurleak bere mesfiantza jarri behar duela martxan. Baina ez da horrelakorik gertatzen Igerabiderekin. Zuzena da bere diskurtsoa, bere poesiaren oinarri bihurtu dena. Goazen, ba, luzamendutan ibili gabe, bere lehen testuaren irakurketarekin.

Juan Kruz Igerabideren ulermen poetikoak idealismoan ditu bere erroak. Octavio Paz-ek bere *Los hijos del limo* liburuan azaltzen duen moduan, poesia modernoak elkarriketa batean dihardu bere barne mundu eta bere kanpo munduarekin. Kanpoarekin, errealitatearekin darabilen elkarriketan erlijioa eta iraultzarekin hitz egiten du, instantzia hauen alde edo aurka joateko. Barnean duen elkarriketan, poesiak hizkera poetikoa bilatu nahiez analogia eta ironiarekin egiten du mintzaira. Juan Kruz Igerabidek erromantizismoan

bilatzen du bere ibilbidea eta hori oso garbi du bere bihotzean. Begira dezagun guzti hau nahiz eta ironia pixka batekin esana dagoen, bere hitzetan:

Poesiaren eginkizuna egia bilatzea omen da poeta handi askoren ustez ... Ur handietan barrena doa poeta ere, balea zuriaren bila eta bila, untzi-kapitain erotuaren seta gogorrez ... Ikuspegi horrek, ordea, poeta gizaki arraro, xeblere eta agian sagaratu ere ba-dela esatera eramango ninduke; nolabait poeta jainkoen semetzat hartzen zuen ikuspegi erromantiko haren ondotik nenbilke horrela. (“Hegoaldeko...”)

Elkarrizketa horietan Igerabidek analogiaren alde egin du:

Funtzio poetikoaren aldetik, analogia izango litzateke funtzio poetiko-arekin loturik lihoakeen prozedura mentala ... Eta musikarekin eta pinturarekin eta abarrekin batera lantzeko daukagu funtzio poetikoa, haurraren adimen analogikoaren adierazgarri paregabea bilakatzen dena. (“Haur poesia”, 51)

Analogia bere burua kokatzen duela ikusteko, nahikoa genuke adierazpen horrekin, baina agerbide handiagoak ematen ditu poetak bere hausnarketa bideen barrena. Batetik, errealtatea bitan bananduta ikusten du:

Poesian ari garen gehienok lilura baten atzetik goaz ... Gizakia, gizakia denetik doa liluraren atzetik; hori da, beharbada, gizakia beste izakiengandik bereizten duen ezaugarrietako bat: liluraren atzetik joan beharra.

Poesiaren helburua, bera, beste nonbaiten kokatzen da, liluran, ez hemen. Gure espazioa eta beste espazio baten tarteko aldeak marrazten ditu idealismoaren bidaiak. Gu alde honetan gaude, eguneroko bizitzan, eta beste aldean, mugaz harandi, lilura dago, harandi, hegoaldeko itsaso epelean, beste aldean. Joera eskizofreniko honetan modu askotara deitu zaio beste ezpondetan aurkitzen den horri: lilura, utopia, zerua, Jainkoa. Beste froga bat ere eman dezakegu Igerabidek analogia aukeratzen duela adierazteko. Joera honetako idazleengan bada topiko-arrazoinamendua beti gertatzen dena, poesia eta zientziaren arteko banaketa, alegia. Zientzia objetiboa omen da, nahiz eta aitortu gaur egunean krisialdian dagoela. Poesiak beste eginkizun batzuk ditu, beste mundu batean kokatzen direnak. Kontua, ba, zera litzateke mundua bitan banatzen dela, unoro-unoro. Hau eta bestea, poesia eta zientzia, kanpo mundua eta barnekoa.

Zientziak bakarrik du nonbait objetiboaren zineman sartzeko txartela. Irudimenak bide xeblearekin erabiltzen ditu eta unibertso ttiki horiek ez dira batera fidagarriak ... Ezin daitezke neurtu, ezin formula baten zehaztasunera makurtu.

Badirudi XIX. mendeko pentsakizunak erro sakonak utzi dituela poetika honen agerbidean. Eta hala da, ez soilik zientziaz esaten denagatik, poetaren

eginbeharraz dioenagatik ere bai. Hurrengo testuak nahiko adierazgarri egiten du poetaren barnean dagoen banaketa ere.

Irudimenaren lurraldeetara doa poeta eta hor sortzen ditu herrialde eta paraje imajinarioak, paraje fisikoak baino gehiago paraje psikikoak direnak. Errealitatea deitu ohi diogun horretako paisaiak badu eraginik gure barne-munduan, eta sentipenak eta gogoetak sorrarazten dizkigu ... Eta paraje horietara gonbidatzen gaitu poetak. Irudimenezko paraje horiei ez-errealak deitu izan zaie, eta fisika klasikoaren ikuspegitik ez dago ezetz esaterik. Baina, paraje horiek poetaren barnean bene-benetakoak diren bizipenen isladapen dira, eta horren egiatasuna eta errealismoa, maila psikikoan, ukaezinak dira.

Analogia antzekotasunarekin lotua dago, kidetasunarekin. Analogiak defendatzen duen moduan, hango errealitateaz hitz dezakegu, hemengo hitzekin, bien artean analogia dagoelako, antzekotasuna, bata bestearen kide den neurrian.

Honela definitzen du analogia Wallace Stevens poetak:

La concebimos como parecido, como semejanza entre paralelismos e incluso entre paralelismos que sólo son paralelismos en la imaginación ... Por último, estamos pensando en la analogía desde el punto de vista del efecto que produce.

En suma, la imagen tiene su origen en una emoción, estaba cargada de esa emoción y [la analogía] se convirtió en el vehículo para comunicarla. Así pues, pertenece a la extensa clase de las imágenes de origen emocional ... si una imagen emocional o, digamos, una analogía emocional transmite la emoción que la genera, su efecto es despertar la misma emoción en los demás. (Stevens, 1994, 83-4)

Octavio Paz-i jarraituz ikusiko dugu analogia poesia egiteko abiapuntua dela, baina gainera, denborari buruzko kontzeptua ere bada, eta irudi munduak bere espresaera ere badu. Analogiak berarekin dakar denbora linealaren kontzeptua, eta ez, oker, Igerabidek defendatzen duen denbora borobila, hori Paz-i jarraituz egiten badu ere. Analogian sinesteak berarekin dakar lilura zein idealetik geroago eta hurbilago garela sinestea, hau da, aurrera-pausuetan ari garela historian.

Sineste horrek bere espresaera du: metafora nagusitzen den idazkera. Metafora analogia bat baita, eta izendatzen ez den errealitate batez hitz egiten du, beste objektu baten izena erabiliz, gauzen bien artean dagoen antzekotasunaz baliatuz. Metaforak estetizismoaren estetika ekarriko du besotik. Eta mundu honetan ibiliko zaigu Juan Kruz Igerabide.

“Hegoaldeko itsasoetan barna”k poesiaren kontzeptua azaltzen badu, “Haur poesia”k poetizatzekeo darabilen tresneriaz mintzatuko zaigu, baliapidez eta ondorioz, lanabesez eta efektuz.

Lan honen gunea haurren pentsamentu munduan, eta bidenabar poesiarenean, gertatzen den intuizio pentsakizunaz ari da. Hausnarketa honekin kontu handiz ibili behar dugula iruditzen zait. Oker geundeke haurrentzako soilik eginiko hausnarketa dela pentsatuko bagenu. Ez da horrela. Haiku forma aukeratu delarik poesia aurrera eramateko, forma poetiko horren barrenean dagoen sugerentzia maila, sinbolo erakusgarria eta forma haur zein helduentzat baliogarri gerta daitekeena dugu. Halaz ere, diskurtsoa haurrentzako teoria poetiko baten garapena badirudi ere, ez da horrelakorik gertatzen benetan. Teoria poetiko osoa da aurkezturikoa. Eta praktikan beste horrenbeste gertatzen da. *Begi niniaren poemak* liburutik *Sarearen leiho* liburura etenik gabeko baliabidea dago, osotasuna bilatzen duen haria. Irakurleak ezin lezake muga jarri eta esan, hau haurrentzat, hau helduentzat.

Nahiko alferrikakoa da haur poesiaren eta helduen poesiaren arteko bereizketarik egitea. Biak liho-lana direlarik, ez dago alderik.

Artea, sentipenezko eta senetzko den aldetik, maila berekoa da haurraren eta guregan. Aldea, arte horrek lerramakeen joskera eta edukin kontzeptualean dago; alegia, haurren adimena ez dela gauza sinboloen eta kontzeptuen irakurketa konparatiboa, induktibo-deduktiboa osatzeko, hots, ezaguera logikoa zein linguistikoz poesiaz jabetzeko. Horrek ez du esan nahi, ordea, haurren bizipen poetikoa edo zirrara estetikoa gurea baino ahulagoa denik. (“Haur poesia”, 44-6)

Hona hemen Igerabideren hitzetan puntu bera azaldurik. Baina funtzio poetikoz eta haurren intuizio bideari buruz ematen den ikuspegia irrazionaltasun poetikoarekin lotua agertzen da, analogia, intuizio, magia hitzak erabiltzen dira prozedura poetikoaren ibilbidea deskribatzeko orduan, eta puntu honek Igerabideren poesia osoa ulertzen laguntzen duela uste dut.

Kontzeptu poetikoen azterketarekin hasi aurretik, komenigarria litzateke alde pedagogikoa eta alde poetikoa banatzea. Poetika honen alde handia haurrari begira dagoenez, pedagogia kontuetan jartzen du bere atenzioa. Alde hau ez dut kontutan hartuko, eta poesia arloan ipiniko gure arreta.

Hasi analogiaren kontzeptua erabiliz hasten da Igerabide:

Funtzio poetikoaren aldetik, analogia izango litzateke funtzio poetikoarekin loturik lihoakeen prozedura mentala.

Denok dakigunez, analogia funtzio poetikoarekin loturik doan prozedura da, baina ez da bakarra. Analogiaren *aukera* egiten du Igerabidek. Edo beste hitzekin esateko, teoria jakin batean jartzen du bere idazkera, idealismoarekin hasi, izaditik igaro eta etikan bukatzen duen poetika du berea. Poesia egiteko bide jakin batean kokatzen da Igerabide sentsibilitatearen alde, sentipen eta edertasunaren alde.



Poetika hau analogia definituz hasten da:

Analogiak ez du bereizketarik egiten subjektuaren eta objektuaren artean; hots, subjektua inguruarekin bat egina sentitzen da ... Analogiaren oinarrian korrespondentzia-sistema bat ikusi beharko genuke. Eta korrespondentzia-sistema horrek dakarren adimenaren garapen “poetikoa” ez da berez arrazoiaren kontrakoa, paraleloa baizik. (“Haur poesia”, 51)

Kontua ez da horrenbestez paralelo deitzen dugun ala ez, kontua bereizketa egiten den neurrian gertatzen da. Logikaren ondoan kokatuz bere poesia Igerabidek erromantiko idealisten bidetik jotzen du, idealismoaren barneko ildotik. Eta paralelo esan badu ere, eta horrela da, agian, pedagogiaren alde-tik, poesiaren eremura igaroz bestelakoa da gertatzen dena, edo gertatzen zaiona, azken batean, hurrengo esaldi honetan frogatzen denez:

Analogia, bestalde, poesia iturri amaigabea da, pentsamolde arrazionalistaren bidez uki ezin ditugun eremuak ukitzeko bidea da. (“Haur poesia”, 52)

Beraz, ez da bakarrik bide paraleloa, haruntzago doan bidea ere bada, dirudenez, eta esaldian garbi geratzen da Rousseau-ren formula haren oihartzuna: “Poetak, izan zaitezte ilunak”, arrazoiak argitasuna ematen bada, poesiak arrazoiak ikusten ez duena azaltzeko gai dela sinesten baita.

Analogia, poeta honek, beste kontzeptu birekin lotzen du. Batetik, animismoarekin; bestetik izadiarekin. Animismoarekin, edo pentsakizun primitiboarekin, zein sinboliko, zein magikoarekin lotura egitea ez da harrigarria. Analogiaren oinarria antzekotasuna eta kidesuna delarik. Victor Turner edo Pete Winch bezalako antropologoek agerian utzi dute zein erabakiorra den antzekotasuna mundu sinbolikoa eraikitzeke orduan, zein esanguratsua kidesutasuna magia arloan. Igerabidek objektu desberdinen arteko elkarkidetzaz hartzen du kontuan poesia analogikoa egiteko orduan.

Animismoaren aipamenak bide bi zabaltzen dizkio bere poesiari, alde batetik sugerentzia sortzen duen neurrian, eta, bestetik, elkarkidetzaz solteak egiteko bidea eskaintzen diolarik.

Normala da ikuspegi horretatik izadiaren nagusitasuna agertzea. Idealismoak bultzatzen du hortara, animismoak ere bai:

Analogiak egiteko, bestalde, edozein gauza erabil dezakegu; hala ere, eremurik emankorrena izadiak eskaintzen digu ezbaierik gabe, izadiak, nolabait, denbora eta espazioa mugagabeak adierazten dizkigu, eta bizipen estetikoari infinituaren sakontasuna eskaintzen dio. (“Haur poesia”, 53)

Izadia infinituarekin parekatzerakoan ez ote dago Igerabide joera erromantikoa berplanteatzen? Ez ote dago panteismoaren oihartzuna adierazten? Hala dirudi. Halaz ere, ez dugu esaten idaztankera erromantiko batetik ari

dela izadia isladatzen. Ez da zuzen hori defendatzen duguna, hurbilago dago honako esaldia: izadiaren balorazioaren azpian dagoena erromantizismoaren aurkikuntza ideologikoa dagoela.

Abrams jakintsuaren liburua esku artean hartuz gero, bat-batean egingo dugu topo baieztapen honekin: izadia, poetaren armaren ispilu dela, eta izadiak transzendentziarako bide dela. Izadia analogiaren esparrua da, nitasunaren ispilu ere badelako.

Apenas ha empezado Wordsworth la historia de su vida de niño ... cuando pasa a la correlativa presentación de su alma directamente comprometida con la naturaleza ... Wordsworth representa repetidamente su espíritu desarrollándose gracias a un sostenido intercambio con “esos dos atributos”, los “cuernos hermanos que constituyen la fuerza [de la naturaleza]”, cuya “doble influencia ... de paz y excitación” infunde en el espíritu una mezcla de “emoción” y “calma”, de “energía” y “feliz quietud”. (Abrams, 1992, 91)

Wordsworth-en antzera, Igerabidek ere izadia hezitzailea dela uste du. Eta saiatzen da, honez gero, analogia eta izadiaren hizkuntza deskribitzen:

Paralelismoak, errepikak, errima, erritmoa, ez dira haurrentzat prozedura mnemotekniko soilik, ... aitzitik, prozedura horiek haurren pentsatzeko moduan txertaturik daude, bere adimenaren bideratzaile dira. (“Haur poesia”, 53)

Prozeduren deskribapenak garbi uzten du zein neurritan agintzen duen erromantizismoak poetika honetan, azken batean espresabide guztiak ahoz-kotasunaren menpe daudenak baitira, eta ahoz-kotasuna mogimendu poetiko horrek bultzaturiko espresio-joera baita.

Baina analogia, gorago ere esaten genuen, ez da espresaera forma soila. Edukin kontutzat hartzen du idazleak:

Analogia, eta honen animismoa, hain txertaturik badago haurren adimenan, nahiko erraza da ikustea nola haurrak asko maiteko dituen errepikak eta paralelismo-prozedurak, forma aldetik; edukin aldetik, berriz, irudi analogikoetatik hasi eta, konparaketatik eta sinbolotik igaroz, metaforaraino iritsiko da. (Haur poesia, 53)

Aipu honek adierazten du ezerk baino hobeto non mogituko den poesia hau, zein den bere norabidea, bere jaioterria eta helmuga.

Egia da pentsakera analogikoak eta metaforikoak joera oso kreatzaileak bultzatzen dituzketela giza arazoaren aurrean, eta puntu hori heziketa mailan oso garrantzizkoa dela, baina gizartearen arazorik garrantzizkoena ez da beharbada, irudimenez beteriko buruak edukitzea (hori oso lagungarria izan litekeela nork uka, ordea), beharbada arazoaren oinarria etikoa da, eta beharbada arazoaren muina zenbaiten ustetan izpirituala da. (“Haur poesia”, 61)

Erreserba guztiekin adierazita badago ere, arazoa idealista da poetika honetan. Ederra du helburu:

Poema eder batek ez du mundua konponduko, baina ederragoa egingo du behintzat, salbuespenak salbuespen eta penak pen. (“Haur poesia”, 63)

Baina ez da kontua edertasunean bukatzen. Neoplatonikoek eta postkantianoek adierazi zuten moduan, estetikaren bidea, etikan bukatzen da, ederra eta ona eta egia biltzen diren tokian: idealtasunean.

## 2. Kosmosaren Erreinua

*Notre-Dameko oihartzunak* poemategiarekin irabazi zuen Juan Kruz Igerabidek IX. Azkue Saria, eta horrekin hartu zuen argitarazioen bataio, poesia munduan bere izena ezaguna izaten hasten zelarik.

Gaurko egunetik begiratuta *Notre-Dameko oihartzunak* hasiberriaren liburur dirudi, hiru lau arlo desberdin batzen saiatzen dena, baina, era berean, bere barruan gerora etorriko dena agintzen duena.

Ohi duen moduan, poemategiaren zolan historia bat dago, narrazioa, kontakizuna. Idazlearen ahotsak Errezilen du bere etxea, eta Erreziltik hasten da kantatzen herri honen sufrikarioa. Tartarok mehatxu egiten du, kanpotiarren mehatxua jasotzen du Errezilek, eta historia honen kontaktak gorpuzten du historiaren zutoina. Kanpotar horiek Compostelako Sain Jakuaren turuta deia pean datoz, azken batean, Errezil menperatzera. Eta sinbolo hori nahikoa ez balitz, “El Ferrol”eko laguna aipatzen da triskantzaren eragile gisa. Lehen maila honetan liburua arazo politiko baten alegoria baino ez da, eta konpromezu poesiaren alorrean kokatzekoa,

Eta mendi sakratuak  
mendebaleruntz  
belaunikatuz  
burua makurtu du... (NDO, 38)

Mirande atzekaldean egon eta ezin da pentsatu kulturaren ordezkapena maila politikoan gertatzen dela soilik. Maila kulturalean gertatzen da batak besteari egiten dion kaltea. Eta Galizian Compostelak hango druidak bildu baditu, beste horrenbeste gertatzen da Euskal Herrian, non oraindik druidak otoitz egiten baitute:

Erniopeko  
haran orotako  
druida,  
azti  
eta gizon zintzoek,  
bizar eta ile zuri

luze artetik  
otoitz  
egin diote  
eguzkiari. (NDO, 41)

Esaten dugunagatik badirudi testuak ardatz semantiko bi lantzen dituela, menpekotasun politikoa eta kultura, zeltiarraren zapalketa. Baina oraindik testuaren arlo bi baino ez ditugu ukitu: Errezil-Compostela. Liburuak, ordea, Parisko Notre-Dame hartzen du garrantzitsutzat, eta handik idazten du, “Sena ertzetik” (NDO, 43).

Notre Dame aipatzen duelarik, edonori etortzen zaio burura Monet-en pintura, haren inpresionismoak utziriko aztarna. Eta ez du aipamen hori alde batera uzten poetak.

Pintura, pintorea elementu poetiko gisa erabiliak dira testuan:

Pinta ezak, artista,  
ezkerraldeko dorrea,  
erraldo zelataria;  
biziki apaina,  
arras dotorea. (NDO, 19)

Oraingoz hor utziko dugu aipamena, gure irakurketarako nahikoa baita. Pintura eta inpresionismoa hor ditugu liburuan:

Kuadro inpresionistan  
leudekeen uhin mugiezinak... (NDO, 18)

agertzen dira testuan. Baina, agian, agertu besterik ez, zeren Notre Damek beste esanahia du liburuan, estetikatik at, dudarik gabe.

Notre Dame munduaren gunea da liburu honetan, hara doaz Errezilgo jentilak, eta Tartalo Notre Dameko torre bihurturik bizi da, goian erdika aipaturiko bertsoaren bukaerak azaltzen digunez:

...arras dotorea;  
baina begi bakar duen  
ziklopea  
tartaloa;  
basajaun eta herensugeren  
lagunei:  
Jentila  
azken finetan... (NDO, 19)

Munduko gune eta bihotza da, han biltzen direlako liburuan aipatzen diren hiru espazioetako ezkilak.

Erdi Aroko erromesaren  
jomugaruntz

ezkilek dei.

Eta “Paris”-ko  
enparantza honetan  
milaka kanpai-hots,  
euri zipristin bailiran,  
saltoka  
“Compostela”-tik etorriak  
edo Errezildik (NDO, 17)

Notre Dame-n biltzen dira, ba, hirurak. Han sortzen da oihartzuna. Poetak irudimenezko bidaia egin du. Erreziltik Parisa lehengo, eta Notre Dame-tik Errezilera berriro. Liburuak, hasiera batean, artistaren lanaren hausnarketak izan badu gaitzat, poeta eta pintorearen hausnarketak argituz, oihartzunak hasten direnean ematen dio hasiera Errezilek kanpotarren aurka egiten duen borrokari. Eta borrokaren kontaketa erdian, poetak bere benetan komunikatu nahi zuen mezua bidaltzen digu. Ekialdeko zeinua duen mezua da; yin eta yang-a biltzen dituena, Alfa eta Omega, Aleph eta Tau-aren bitartean, budismoaren oreka adierazten duena, erlijio orientalisten mezua.

Bi-hiru modu desberdinetan emana dago ekialdeko erlijioen mezu hori.

Formalki kaxotxen artean ematen dira erlijio horretakoak diren mezu zein erretrauen itzulpena diruditen esaldiak:

“Haizearen arnasa,  
ezereza, hutsa ...  
bagoaz horrunta:  
Hiltzeko jaiotzen da  
gizonon gorputza”... (NDO, 41)

Edo oraindik argiago dirudien:

“Hiltze eta jaiotze  
gurpil baten erdi bi:  
Hau konpreni dezanak  
zorientasuna duke”... (NDO, 41)

Baina kontzientzia existentzialista horren aurrean, badaude ekialdeko erlijioen kontsolamendu mezuak. Hauek ez dira agertzen kaxotxen artean, idazleak bere barnean eramaten ditu, bereak eginak ditu, eta bere diskurtsoan sarturik agertzen dizkio irakurleari.

Kosmosaren  
errainu izpi  
ikuskaitza.  
Atomozko  
atomo.

Ezereza eta  
guztia.  
“Alfa” eta “Omega”  
eguzkia eta ilargi,  
egun eta gau;  
izar eta galaxiazko  
Mikrokosmosa.  
Jainkoaren lekuko,  
izpirituaren sostengu;  
naturaren  
langintzarik  
perfektoena;  
arimaren ispilu,  
Jainkoaren irudi. (NDO, 39-40)

Aurkakoen arteko borroka lazgarrien arteko oreka mina da idazleak bilatzen duena, horregatik liburuak zuzenean hartzen du simetriaren joera, oreka armonikoaren bila.

Ekialdeko erlijioen mina bada bihotzaren erdian, liburuak, hemendik aurrera, alderantzizko bidaia egingo du: igaroko da Erreziletik Parisgo artistaren hausnarketara itzultzeko.

Baina liburuko oreka jokoak alde batera utziz, azpimarratu beharko genuke, orientalismoa berebiziko indarra dela Igerabideren olerkigintza aztertze-ko orduan. Ekialde zaletasunez hasi du bere bide poetikoa eta haikuak idazten bukatu du, orain arte ezagutzen dugun ibilbidean, behintzat.

Ekialdeko erlijioen aipamena lotuta dago, Mendebaldean behintzat, 68ko maiatzaren ondoren sortzen diren mogimenduen jarraipena da, eta horrela ulertu behar dugu Juan Kruz Igerabide ere. Orientalismoa modernismoak modan jarri zuen exotismoa zen; 68ko maiatzaren ondoren kontrakulturaren oinarri sendo bihurtzen da, Mendebaldeko kulturaren aurkako alternatiba da, Compostela zein Ferrol-eko mamuari erantzuteko modua. Ekialdeko erlijioek sistematik kanpo norbera norberarekin orekan egoteko metodoa eskaintzen zuten, industrializazioak gizaseme zein alabaren barnean sorturiko desorekari erantzuko bidea. Erlijio bakezaleak ziren Vietnam-eko triskantzaren aurrean, eta utopia berri baten adierazle.

Ekialdeko erlijioek mendebaleko pertsonari batez ere imaginarioa eskaintzen diote, esan nahi dut, ez denaren, hemen ez denaren irudia, eta, behar bada, hori baino gehiago, hau ez dena; ekialdea mendebaldea ez dena den neurrian. Beste aldea, beste munduaren agerpena litzateke erlijio hori, orekaren bila eguneroko bizitzatik urruntzen denak maite du, bere mistizismo puntuarakin, izadiarekin errespetuarekin.

Juan Kruz Igerabidek erlijioen sinbologia erabili egiten du bere poesian, oreka sortu nahiaz.

Ez da orekarako, hala ere, bide bakarra. Gerora aurrera egingo duten formula poetiko batzuk hemen frogatzen dira lehen aldiz.

Izadia, hinduismoaren bidetik, oreka mundua da, eta Igerabide izadiak lan egiten duen idazlea bada, bere lehen liburuan aurkitzen du ja izadia bere oreka mundu gisa agertzeko modua. Ez bakarrik Jainkoaren egontokia delako izadia, joanaren joanean ere denboraren, izaeraren islada delako. Gerora oso aurreratua —edo behintzat askotan erabilia— ikusiko dugun estiloaren eredia da poema hau; gerora ikusiko diogunaren estiloaren agerbidea:

Ipurtargiek keinu dagite  
tristerik,  
burua makur  
uda eguzkiaren aurrean;  
diztira bortitzaren aurrean  
auspez,  
derrigorrez.  
Ipurtargiek,  
ilunpeko itxaroten txinpartek,  
kein u dagite. (NDO, 30)

Ez dira falta, han-hemenka, haiku berezien aurre aldakirik:

Izarrak lotsati ...  
Lizarrak itsu ...  
  
Aitzurrak beldur ...  
Zinturrak lehor ... (NDO, 58)

Bere sinismen ekialdetarra aitortu ondoren, itzulikako bidea hartuko du poetak. Aipatuko du “Compostela”, aipatu Done Jakue, Erreziltik igaroko da. Eta simetria orekatsuari bukaera emanez, pintoreaz hitz egingo du:

Bizar bateko pintzelaz  
ari zen artista  
belaunikatu egin da  
eta, errezatu gabe, geldi geldi,  
isilik dago. (NDO, 65)

Isiltasuna du artistak eta isiltasuna geratzen zaio, nolabiat ere, poetari:

Orain azken hitzak (NDO, 67)

isiltasuna dioen neurrian. Isiltasunean bukatzen da oihartzuna.

### 3. Bizitzarekin solasean

Juan Kruz Igerabideren bigarren poema liburuak bide desberdinak jarraitzen ditu. Goresmenaren liburua da izan, pertsonen bizitza, izadiaren dirdaia-

ren aurrean pozez eta liluraz erantzuten duenaren ahotsa da *Bizitzarekin solasean* entzuten dena. Goresmena eta lilura, adi dagoen kontzientziaren zantzua, ahots molde desberdinekin lan egiten duen poetaren ahotsa. Nabarmentzen da joera analogiko eta metaforikoak hurbiltzen duela poeta modernismoaren ildoetara. Inoiz Lekuonaren zantzuak entzungo ditu irakurleak, aho literaturaren arnasak musika egiten du orrialdeen artean. Aitortu dezaket inoiz Gandiagaren irakurketa somatu diodala Igarabideri izarrak irakurtzen dituen artean!

Liburua esplorazio liburua da, espresio formekin esperimentatzen ari dena, eta hiru lau forma desberdin lantzen dituena, metafora zainduz, ahozko joera inprimatuz. Bost zati nagusi ditu, bost sail desberdin. Lehenengo biak luzeera berdin antzekoa dute, hamaika eta hamairu poemez osaturik baitaude, eta antzerakoa gertatzen zaie beste hirurei, hamazortzi, hemeretzi eta hogeii poema biltzen baitituzte.

Sailen artean berebiziko loturak egin ditu idazleak. “Beltxaran” eta “Arima galdua”, lehen eta bigarrena tratamendu aldetik daude lotuak. Eszena txikia deskribitu da eta haren inguruko inpresioak bilduz poemategia sortu du poetak. Forma aldean begiratu gero, “Arima galdua” eta “Bizitzarekin solasean” sailek eraketa berdintsu dute izenburuak atontzekotan. Hirugarren arloak, “Amets”ek, ametsaren arlo semantikoa hartzen du gaitzat eta haren modulazioa, zentzu musikaleko bariazioa ematen du, beste horrenbeste gertatzen da “Bizitzarekin solasean” poeman, zeinetan arlo semantiko baten inguruko gorai-pamena sortzen baita. “Arristiria” saila, horrela, pixka bat aldean geratzen den inpresio sorta da, sentipen bilketa gisa.

Deskripzio urrun honek ez du ezer adierazten poemategiaz, izan ere ez zen hori bere asmoa, lehen hurbilketa egitea baino ez liteke hor bilatzen dena. Zer da, baina liburu hau?

Inpresio joko bat. Analogia erabiltzeko metodo eta bidea. Narrazio batzuren inguruko poemategia. Arlo semantiko baten, amets, edo biren, amets eta bizitza, prismadura. Lan egiteko modu baten erakusketa. Norberaren ahotsaren bila abiatu-rik ibilbidea. Batasuna eta prismadura. Lana eta esperimentazioa.

Berritasun saiakera ez da abangoardia. Gehiago du poetaren barne espresioaren moldapenetik, poesia berrikuntzatetik baino, poesiarekin isilean espresio bila abiatzekotik, harriduratik baino. Inpresionismoa da nagusi, eta inpresionismoaren bidean joateak ez du lotura handirik abangoardiarekin, nahiz eta zantzu batzuk han eta hemen agertu, batez ere “Arrastiriko poemak” sailean. Baina idazlearentzat berria den idazkera moldatzen ari da eta, aurreko estetikarekin etendura sortu ondoren, bide berrietik abiatzen den poetaren irudia ematen du Igarabidek. Zentzu pertsonal eta barnekoi honetan agertzen du esperimentazioa. Horregatik behar du poemategiak bateratze-zutoina,



argumentu bateragilea, poema guztien bateratzea egingo lukeen batasun haria, bai historia bat, argumentua sendotu eta bildu egingo lukeena, edo bai aidean joera logikoa.

Igerabidek beti izan du joera bateratzaile hori bere poema liburuen azpian, poemari kanpotik jarririko egitura batek egingo balu bezala poemategia.

Gai aldetik, Juan Ramon Madariagak esango lukeen bezala, betiko senti-menduak aukeratu ditu poemagai, denboraren joanaren etengabea, maitasuna, bizitzaren poza... Betiko sentimenduen inguruko hausnarketa poetikoa. Hari finez osaturiko luma.

Hain finez zeren, egiatik askorik aldendu barik, esan baitezakegu Juan Kruz Igerabideren poemategiak lerroa maite duela, ez pintura goratua, lerro bakar eta hutsez egiten den irudia da bere eremua. Eta olerkiak osotasunez jokatzeko du, irabazi ala galdu, irudiaren inpresiopean. Edo bat batean harrapatzen du irakurlea, edo betiko galtzen du. Horra dena, horra poetaren erronka.

Izpiritu eme malenkoniotsu horren itzala besarkatu nahi luke maisu zaharrak; denbora hautsi. Joana berreskuratzearentz denbora hil.

idazten du poetak liburuaren lehen orrialdean, poemategiaren hasieran, eta horixe da liburuko mezurik garrantzitsuena, hori poetaren begi-ninien atzekaldean geratzen den gogoia, asmoa. Joana berreskuratu, denbora hil. Asmo horren sarean jausten dira hemengo ahalegin poetiko gehienak; unea lotu egiten du poetak eta uneko deskripzioa damaigu, estu bezain justu diren testuetan.

Berea poesiaren bidezko denboraren geldiaraztea da, edertasunaren bihotzaren emanaldia, ikusitakoaren agerraldi berebizikoa.

Ikusitakoa da Juan Kruz Igerabidek poetizatzen duena, begien aurrean duena, begirada da bere poetikaren indarrak maitatuena. Eta begiratuaren zertzeladetan, poetika bihurtzen du begiradak bultzatzen duen barne sentipena. Inpresioak agintzen du. Eta inpresioa beti da aldakorra, denboraren jarioan, ura eskuetan bezala, galtzen dena. Horregatik inpresioa poesia bihurtzeko beharrezkoa da inpresio sarea sortzea; sentitutakoa, nabaritutakoa, barneratutakoa beste zenbait elementuekin lotzea. Inpresio lehertzen den begirada da, inguru osoa bere gain hartzen duena eta ingurua besarkatuz bizi dena. Inpresioa ihesi doa, denboraren ibaia bezala, eta guzti hori lotzeko poetak duen ibilbide bakarra beste inpresio batzuren sarean lotzea eta eustea da, xomorroa amarauan geratzen den bezalaxe. Irakur dezagun poemategiaren hasierako testu hau:

Beltxarana, Beltxarana  
Goldearen higidura makalean  
Lur amildua bezala  
Oroipen itzala besarkatuz

Beltxarana, Beltxarana  
Pikuondoaren adarretan  
Ezpainak bezala  
Gogo borobilak gozatuz  
Beltxarana, Beltxarana  
Eguzkiaren printzak  
Mendi sorbaldan nekaturik  
Etzaten direnetan  
Lasto gorri guri guritan... (BS, 18)

Egiz liburu osoko prozeduraren berri aurki dezakegu hemen. Erreferente bizi bat, beltxarana den neskaxa, Pío Baroja-ren “Maribeltza” pertsonariaren itzalpean sortua. Galaia gerran galdu du. Eta idazleak bere tristuraren berri eman nahi du, tristuraren inpresioa sortu nahi. Bestetik, hizkeraren luzapena dugu, ahozko erretorikaren bidez agertzen dena. Hor dira paralelotasunak eta errepikapenak. Baina hizkera gairi badago tristuraren gaia hedatzen duen hizkera jarraibidea hor. Identifikazio prozeduraz ari gara. Pertsonaiaren tristurak oihartzuna du izadian, eta izadia tristura berberaren sentipen bihurtzen da. Edo hobe, izadiaren tristuraren bidez, higidura makal eta amilduaren bidez, kargutzen gara beltxaranaren tristuraz.

Begia eta irudia diosku Igerabidek. Begiak ez du puntu bakarra hartu behar, ingurua da bere errainua, eta ingurua begistatuz eta jasoz sortzen da liburuko sentsazio mundua.

Eta hori da izan, hemengo gakoa: sentsazio mundu baten eskurapena.

Gorago aipatu dugunez, eta orain deskribatuko, Igerabidek sentipenok narrazio baten edo arlo semantiko baten inguruan sortzen ditu. Bai kasu batean, zein bestean, estilizazio baten prismadura dela bere poesia esan dezakegu, errankutzari bildurrik gabe. Estilizazio diogu, eta lehenago lerro marrazketa deitu diogu poesia honi, eta bada adibideak jartzeko ordua. “Beltxarana” eta “Arima galdua” sailek narrazio dute poetizazioaren azpian. “Beltxarana”k neskaxa bati begira dagoen eskola maisu baten inpresioa kontatzen du, honen melankonia, denbora lotzeko mina, eta lirartekeen beste bizitza batzuk bizitzeko gogo eta ezina.

“Laino mehe batek” estaltzen du maisuaren begia, oroiminak, ezinak. Sentimentu horren estilizazioa eskaintzen du poesiak, haren abstrakzioa, anekdotaren hari fina. Mehea eta xamurra den zerbaiten kontaketa da abiaburua:

Habikiderik gabeko  
Begirada elbarria:  
Erradan hire  
Gogoeten hilobia... (BS, 13)

Ahapaldi honek adieraz lezake poemategiaren bihotza eta tonua. Anekdota, finezia bihurtzen da, eta finezia elegai.

Artista gaitza da honetan Igerabide, sentipena inpresio bihurtzen eta inpresiotik metafora sortzen. Begi zolia eta zorrotza da berea, eta teknikarik nagusia pertsonaiaren sentipena izadi bihurtzeko joera litzateke.

Bigarren sailak antzeko joera hartu du. “Arima galdua” eternitatera ezin helduz itsasoari so ari den arimaren barne egutegia litzateke. Begirada eta sentipena ikuspegi kristalizatuan. Hein berean, jira-biraka dabilen kontzientziaren, sentipenaren deskribapena:

Atsedean hartzeko hobirik idoro  
Ezin duten hauts gaisoberak  
Harlosen tarteko zikin  
Pitzatuaren zirrikutan negarrez  
Egon dira luzaroan... (BS, 42)

Arima galduaren sentipena izadi bihurtzen den unean aurkituko du falta duen atsedena:

Garoa haragitu da ortzean  
Garoa haragitu eta  
Ilargia bete  
Garia harriztatu ere bai  
Garia harriztatu eta  
Ilargiak betirako segatu  
Hiru ahaire isil  
Hiru ahaire isilen  
Arima aurkitua... (BS, 45)

Aho literaturaren formulazioak eta garo eta gariren arteko homofoniak osatzen dituzte poemaren ardatzik aipagarrienak.

Estilizazioa esan dugu. Eta era beran, prismadura, sentipen eta begiradaren kiribilketa. Objetu bera ikuspegi desberdinatetik begiratzeko ahalmen eta gogoaren, irudimenaren dantza nekatugabea.

“Amets sailak”, liburuko hirugarrenak, adierazten du ederki asko kiribilduaren agerbidea. Egia da hari narratibo xume batek —gogo lotan jeitsi egiten da— ematen diola nolabaiteko batasuna testuari, baina ez da hori nahikoa narratibitatea baieztatzeko, hemen ez baitago pertsonaiarik.

Oraingoan semantikak agintzen du, edo, nahi bada, loaren eta ametsaren inguruko arlo semantikoak. “Amets aldegina”, “Amets emea”, “Amesgrina”, “Amesbertsoak”, “Ameszoro”, “Amets etena”, hona hemen idazleak bere buruari jarritako gaiak, behartuta balego bezala ikertzen ari den errealitatearen ertz eta bazter guztien berri ematera. Sostenga dezagun une batez begirada ideia honetan. Kanpotik datorkion ideia bati erantzunez ari balitz bezala egiten du poesia idazleak, asmo parnasiar batek, hain zuzen ere poemategiaren arkitektura agintzen duen asmoak, gogo logiko batek eutsiko balio beza-

la bere sormenaren eraketari, eginbehar batek, kanpotik datorkion egitura logikoak bultzatuko balu bezala.

Kanpo egituraren beharra askotan somatzen zaio Igerabideri, eta ez da sail hau bakarria orden behar hori azaltzen. Jada liburu guztiek dute poesia egin aurreko diseinu zehatza. Ondoren, sorkuntzaren orduan, poesiak aurrez jarritako bide horri jarraituko dio. Agian idazleak buruari jarritako muga, pentsakizunak lauki ongi moldatuetan emateko gogoia. Ez da besterik izango ez, baino irrazionaltasunarekin jokatzeko ari den poeta batengan, osotasun bilaketa honek puntu harrigarria jartzen du poetikan.

Antzeko berezitasuna aurki dezakegu prozedura osoan. Lehen esan dudana bezala, detaileetan oinarritzen den poesia da Igerabiderena, baina detaileak eta zatiak, nahasmenaren ideia bilatzen badute, ezin dezakegu esan hori denik idazle honen helburua. Sentsazioen biderkatzea bilatzen du askotan, prisma behin eta berriro biderkatu, nahiz hasieran puntua bat eta bakarria izan, Bat eta Anitz norberaren barnean dago, ikerketa psikologikorantza abiatu izateko. Poetaren izaeraren bila dabil, prismadurak ematen dituen isladen artean. Barne begiradak eskaintzen duen begirada prismatua, lausotua da poetak eskaintzen duena.

Baina era berean, abiapuntu bat da, eta horrek osotasun izpia jartzen dio poetari lanean. Poeta honek osotasuna bilatzen du, logikak sormenaren aurretik jarritako diseinu osoa, eta hori zati desberdinen bidez osatzen du. Beraz, idazle klasiko baten aurrean gaudela esan dezakegu.

Sormen prozeduran tentsioak nabari badira ere, poesia egiten duen unean bestelakoa da Igerabideren jarrera: poema hitzezko doaiaren agerbidea da, irudimenaren erabileran maisu denaren eskua ageri delarik: Irakur bedi poema hoen hasiera:

Gure gurarien guraize gurituek  
Zorte zorrotzaren zoritxarra  
Ebaki eta erabaki ziaten... (BS, 64)

Aipu honetan homonimiak aliterazioaren gainean igeri egiten du erritmoren konpasean mezu ezezkorra adierazi arte. Ahozko prozedurak eta paralelismoak ez badira falta ere, sail honetan aldatu egin du Igerabideak hizkera poetikoa: luzeagoa da bertsoa, izadia desagertu da, objektuek protagonismoa hartzen dute, diskurtsoa irudian oinarritzen da, sentsualitatea ilundu barne begiradaren bidean.

Orain arte aipaturiko prozedura biren fruitu da “Bizitzarekin solasean” poema saila. Badu narratibotik, jaiotzatik aurrera kontatzen duen neurrian, badu kontzeptuen *rondó*aren oihartzunik, amodio eta espiralaren inguruan idazten baitira poemak. Liburuari izena eman dion sail honek Igerabideren poesiaren gunea damaigu. Analogiaren poetika da, haikuaren usaina duena,

haurren hiztegiaren zertzelada erakusten duena, sentipen eta izadiaren arteko elkarrizketan diharduena. Analogiaren poetika da, beste errealitatearen bila abiatzen den poetarena:

Gero gauean garoz izkiriatu beharra  
Neuzkan eguzkiaren bestaldeko sekretuak  
Ilunpetako ihintzaren lurrunean... (BS, 95)

Ez kutua ehotu nahi nuke... (BS, 92)

“Eguzkiaren bestaldeko sekretuak” tonu maitekorrez osatzen ditu poetak. Begirada detaileetan geratu da dindilizka, izadia aurrean du poetak, eta Lizardik egin zuen eran, kanpo mundu eta barne munduaren artekoa da solasa. Haur hizkuntza, haurtzaroko liluraren seinale, zabaltzen hasi da literatura honetan, eguneroko hizkuntza liluragarri baten seinak balira bezala.

Haikuaren teknika, gerora guztiz esku trebez erabiliko duena, lehendabiziko arnasaldian hasi da. Begira dezagun “Espiralaren ama gaua” poema eta irakurri:

Badator ama beltza  
Amantalaren biguna!...  
Desagerpen irekia  
Amaitzen doan zorabioa  
Hatzik gabeko fereka.  
Taupada amaigabea  
Zorabio ebakiak  
Hilbeharraren guraizia... (BS, 93)

Astiro har ditzagun zertzeladok begi ninietan. Gaua, ama beltza, kolore batez eta sentsazio bakarrez azaldurik dago modernismoaren hizkuntzan ohi zen bezala, sinestesia munduari atek zabalduz, sentsazioen oihartzunari begirada emanez. Gero, errealitate horren deskribapena egiten da metafora kateatu eta erreferentzia mundutik deserroturik diren metaforen bidez: desagerpena, zorabioa, fereka. Berrito jotzen du kanpo mundu (gaua) eta barne munduaren arteko solasera Igerabidek, zenestesia deituriko teknikaz baliatuz, hau da, barne munduaren aipamena lortuz (zorabio, fereka, taupada), metafora nagusarekin bukatzen duelarik: hilbeharraren guraizia.

Denbora joan etengabearen gaia modernismoan behin eta berrito agertzen denetarikoa, “Beltxarana” sailean ikusi dugun bezala. Eskolak agintzen duen gaia da, beraz. Eta horixe adierazten du Igerabidek ere, orientalismoaren magalean hazitako hizkuntzaren bidez:

Denbora aidean zintzilik  
Lurrun emeak igo dira  
Zeru lumatura  
Eta haizea zintzilik jarri zaio

Artilezko lore epelari.

Bitarte ilunean segunduak

desitxuratu egin dira.

Urre dizdirak argitasun amaigabeen

Ezerezten diren antzera... (BS, 90)

Haiku antza dute bertsook. Baina ez dira oraindik haiku. On Manuel Lekuonak zerabilen hizkeraz baliatuz, zera esan dezakegu: intuizio hizkera nabarmen dela, eta irudi poetikoarekin jostatuz soilik sortzen dela hor poesia, lurruna igoten ikusiz. Hor, irudiaren aipamenean bukatuko litzateke haikua. Baina hezia ereinda badago ere, aurrera jarraitzen du Igerabidek, diskurtsoa luzatuz. Haiku ez izatearen gakoa ez dago luzeduran, ordea, intuizio hizkera bihurtzen duen unean, irudia azalpen egiten denean baino, metafora alegoria bihurtuz. Hau da, lurruna denboraren erakusgarri gertatzen denean. Hortxe egiten du huts haikuak. Intuizio poetikoak, ordea, azaldu dio, jada, nondik nora joan behar duen poetak. Eta honek hurrengo liburuetan (*Begi niniaren poemak*, *Sarean leihon*) intuizio hizkera erabiliko du, haikuaren bidetik zuzen joaz, ikuskera ilogikoaren mundua azalaratuz.

Artean “Arrastiriko poemak” emango dizkio irakurleari. Izenburuak Lauaxetaren *Arrats Beran* dakarkit burura, eta honen hizkera poetikoa usaintzeko eta dastatzeko beta emango digu Igerabidek. Kopla zaharren erabilpenetik hasi:

Bi enara kanpandorre gainean:

Bata negarrez dago, kotsolatuz bestea... (BS, 101)

eta prerrafaeliten *Ofelia* gogoratzen duen irudi poetikoan bikatuz:

Uretara erori dira

Ibaiertzeko loreak:

Lore lerdenak lehen

Orain zimelak... (BS, 110)

hizkera, zein tragedia klasikoaren aipamenean, zein baladaren oihartzunean, zein errepika aldatuaren kokapenean, hiztegia eta kopla zaharreko josturan:

Judithen begi leunak

Zein katekorraz bitxiak... (BS, 114)

denak ematen du hizkera poetiko batekin ari dela Igerabide jostari, eta neurri berean, jostailu zaiola irtenbiderako behar duen hizkera propioaren bila abiatu delarik.

#### 4. Haikuaren sarean

1992. urtean Juan Kruz Igerabidek haurrei zuzenduriko liburu bi plazara-

tu ditu: *Begi niniaren poemak* eta *Egun osorako poemak*, haur literaturan eta literaturaren pedagogian lan sakona egin ondoren. Lan horren azken fruitu izan da *Bularretik mintzora* ahozketasunaz eta pedagogiaz eginiko ikerketa saioa.

Poema liburu biok ezaugarri berdina dute: haikuz osaturik daude. Bide honetatik jarraitu eta 1994. urtean *Sarean leiho* poema eta aforismo bilduma argitaratu du. Hiru liburuak estetika bakar baten fruitu direla dirudi, eta hala da, izan ere, Igerabidek estetika mailan ez baitu desberdinatsunik egiten haur eta nagusien artean, gorago ikusi dugunez. Baina baieztapen honek ez du adierazi nahi hiru liburuak berdinak direnik. Zailtasunez mailakatuak daude. Lehenago irakurri diogu idazleari nola moldatzen duen bere espresio bidea, nola bere poetikan kontzientzia garbi batek adierazten duen zein den poesiaren bidea. Lehen pisu batean aurkituko lirateke prozedura mnemoteknikoa laguntzera datozen espresaerak: paralelismoa, errepikazioa, errima jokoak... Gero hortik bigarren mailara igotzen dugu eta han konparaketa eta sinboloa dauzkagu. Hirugarren pausaldian metafora agertuko litzateke:

Nahiko erraza da ikustea nola haurrak asko maiteko dituen errepikak eta paralelismo-prozedurak, forma aldetik; edukin aldetik, berriz, irudi analogikoetatik hasi eta, konparaketatik eta sinbolotik igaroz, metaforaraino iritsiko da. (“Haur poesia”, 53)

Haurraren munduaz ari da, noski, baina aldian aldiko joera garapen aldekoa agertzen du. Baina hori egiten duela ez da aldi bakarra. *Deia* egunkarian agertu zioeten elkarrizketan honela hitz egin zuen Igerabidek:

Pamielaren eskutik beste poesi bilduma bat aterako dugu [*Egun osorako poemak*], baina oraingoan haur txikiagoentzat, hots, errepikapen asko izango du, neurtuagoak izango dira, hau da, ahozketasunaretik oso hurbil egongo direnak.

Badago egokiera adin eta espresaeraren artean. Haur txikientzako egindako poemetan ahozketasunak agintzen du. *Begi niniaren poemak* liburuan bisualtasunak:

Oso forma txikiko poemak dira liburu honetako adibideak, hau da hiru edo lau lerrotakoak: une bateko ikuspegia, erakusten dutenak, alegia. Hortik dator, hain zuren ere, bere bisualtasuna.

adierazi zuen *Deiako* elkarrizketan.

Zein da, ordea, nagusientzako espresaera? Bisualtasunaren barnean metafora eta sinboloa bilatzen dituen abangoardiako hizkera. Haikuen sarean bisualtasuna beren-berengiko espresaera da, baina ez da nahikoa; bisualtasunetik pentsakizun zorrotzera, munduaren ikuskeran salto egiten du idazleak:

Lurra azkarrago  
dabil jiraka  
hirian... (SL, 27)

Edo absurdo umoretsua agertzen du:

Etxeetako argiak  
itzali dituzte:  
Ez da ikusten gaurik... (SL, 25)  
Ni, neu banaiz,  
nor da, bada,  
barrutik begira dagokidan hori?... (SL, 38)

Umore fin, pentsakor, zorrotza eskaintzen duen idazleak haikuaren forma aprobeztatu du urrunago joateko, haikuaren formaz baliatuz, munduaren forma adierazteko. Badu honek ateraldiarekin antzik, zorroztasun eta begi ernean kokaturiko testigantza denez, baina badu, baita ere, gregeriaren dilindanak airean uzten duen zantzuaren antzik.

Hiru liburu anaikor poesiaren goxotasunez begietatik hitz egiten ari direnak. Hala ere, desberdinak hizkera mailan, eta egitura. Haurrei eskainiriko liburu biak kanpotik eratuta daude, beste liburuetan idazleak egin ohi duen eran. *Egun osorako poemak*, bestela ezin zitekeenez, orduen liburu bihurtu du, eta denborak osatzen du haren jira-haria.

*Begi niniaren poemak* liburuak askoz ere irudi mundu libreagoa eramaten du paperera. Izadia da nagusi poemategian, haikuaren tradizioari jarraiki. Baina izadiak barne egindako bidaiaren ondoren, azken saila jartzen du Igerabidek, "Mundu txontxongiloa" deitua, eta hori dugu *Sarean leiho* liburura igarotzeko zubia, hemen nagusitzen baitira absurdo puntuak eta mundu ikuskera agertzeko formak. Begira hauek:

Bakardadea.  
Bidetxur bat besterik  
ez dago zelai zabalean:  
Eta inor ez.  
Hiru lagun.  
Hiru lagun pixaginean:  
Hiru erreka,  
eta hirurak elkarbidean.

*Sarean leihok* ez du eraketa formalik. 148 haikuek barne mogimendua sortzen dute, eraketa formalik gabe, etengabe, atertu gabe. Irudimenak askatasuna du nahi duen norabidea hartzeko. Liburuak zentzu biren artean kokaturik agertzen da. Batetik, haikuaren tradizioa onartzen du. Bestetik, munduko sentsazioen artean zabalduko leihoa da, begirada modua, ikusteko ahalegina, begirada eta ilusioaren arteko pintura. Haikuaren eta bidaiaren artean mogitzen da liburuak.



Haikua “zen” filosofiatik hurbil den poema japoniarra da. XVII. mendean gorpuztu zen tradizioa Matsua Basho (1644-1694) poetaren inguruan. Izena eta izana beste poema moten tradiziotik hartu zuen. Ahapaldi labur bezain interesagarri honen aurretik baziren tradizio japoniarrean beste poema mota bi: hikai renga deiturikoa bata, poeta bik osatzen zituzten koplak barregarri osatua, eta hokkun moldea bestea, konposaketa luze bateko lehen ahapaldiari ematen zitzaion izenaren arabera deitua. Izen biak laburtuz sortu zen haiku izena.

Formalki haikuak hiru bertso lerroz osaturiko 17 silabatako poema da. 5 / 7 / 5 silaba kopurua izaten dute orokorrean. Edukinari begira, haikuak zati bi ditu: alde deskriptiboa eta une bateko pertzeptzio sakona azaltzen duena bigarrena. Hortaz, gure tradizioko koplak zaharren antza badute itxuran. Bashoren eskutik haikua “zen” filosofiaren kontenplazio unea zabaltzeko tresna bihurtu zen. Haikuak bat-bateko argitasuna adierazten du, argitasunaren bidez poetak munduaren ulermena edo gauzen itxuratik sakonera doan jakintza adierazten ditu. Era ximple batez, munduaren sakontasuna adierazi nahi luke. Consuelo García Devesa irakasleak honela adierazi du haikuaren izaera:

Haiku é un estilo de vida —como o zen—. Vermos beleza onde antes non a vimos; vemos significado nas cousas que non o teñen; esta é a verdadeira natureza do home; isto é o poeta. O haiku ailla un instante no universo, afasta unha percepción ou un fenómeno dos seus arredores e exprésao con extrema brevidade. E un contacto súbito e profundo coa natureza. Por iso o haiku non é forma, non a pode ser; é contido, é a cousa mesma que se nos revela. (1993, 16)

Haikua sentsibilitatearen jokua da, bere barnean argia, kolorea, soinua biltzen ditu. Enigma ere bada, interpretazio bide, izadiarekin bat egiteko modu. Begirada eta ulermen bide. Oreka eta interpretazio. Esperientzi poetiko eta sakonaren bilgune.

Poeta zintzilik geratzen da aukeratu duen unean eta hori, bere argitasun sakonarekin eskaintzen dio irakurleari. Honek bere sakontasunean jo beharko du interpretatzera, izadiarekin bat egiteko joeraz, esaldiak eta irudiak dituzten irakurketa posibilitate guztiak hausnarturik. Irakur diezaiogun Igerabideri haikuearen bere definizioa: “Haiku: une baten adierazpena, guztira barreiaturik”.

Haikuaren tradizioa Englandeko imaginisten, irudi zaleek, ekarri zuten Mendebaldera, eta gero hizkuntza askotan aurki ditzakegu. Euskaraz egin izan dira, eta gainera, koplak zaharren irudi mundutik hurbil diranez, Aitzol eta Lauaxeta gidaritzapeko olerkariak (Jautarkol, Patxi Etxeberria) izan ziren lehenak irudi mundu horren aberastasuna bilatzen.

Kopla zaharraren irudimen mundutik sartu ziren Sarrionandia eta honen jarraitzaileak, Berrizbeitia, Madariaga. Haikuen moldatzaile izan zen Patri Urkizu. Eta bide honetako da Juan Kruz Igerabide.

Honen lanak berezitasuna du haiku soilez osaturiko liburuak eskaini dizkigulako. Igerabideren haikua sorpresa baten aurrean geldirik geratzen da.

Arrats gorri-gorrian  
une batez  
eguzkiak berriro jaiotzera dirudi...

Ezustea harrapatzeko uneak du garrantzi, ideia-aren nabarmentasuna agerian jartzen du poetak, ezin litekeena gure begien aurrean gertatzera doala dirudielarik. Ezin litekeena begien aurrean jarri, ezkutuko errealitatea irakurleari erakutsi, hona hemen poetaren lana, sarean lihoa agerian utzi.

Prozedura horretan begiradak agintzen du. Begiratzeko modu aproposa aurkitu du Igerabidek, ez du lupa zuzen erabili, detaileetan jarri du begi ninia-aren indarra eta errealitateari hurbiltzerakoan erakusten digun arduraren agertzen da bere joera nagusia; ez da berezia begirada, ez ditu gauzak txikitzen edo handitzen; baina, ineditoa da, lehenago ikus bako begirada! Detaileen tratamendu berrian ageri zaio Igerabideri duen sakontasuna, ageri zaio begirada poetikoa, zeinaren helburua errealitatearen beste agerpena bailitzateke. Poetak nahi duena errealitatearen gainean beste errealitatea sortzea da, berria bere egokieran.

Errealitate hori sortzeko asmotan dagoenean, detaile txikiaren nabarmena papeleratu nahi duenean, izadiaren edertasunaren berri ematera zuzentzen zitzaiagunean Igerabidek garrantzia ematen dio hizkuntzari, berebiziko berritasuna bilatzen duelarik, aidean testuaren gardentasuna dindilizka airean. Neobarrokotzat jo dezakegu idazkera hau, erabiltzen dituen espresio molde-enganatik, asmatutako metafora berrienganatik. Igerabidek jakin izan du sinbolismoaren hizkera taupadak entzuten eta bat bereziki, sinbolismoaren barnean biluztasunaren bila doan sugerentziaren taupada. Espresio hau izan zen eta, sinbolismoaren hizkera lotura logiko kontzeptualetik askatzen saiatu zena.

Zeintzuk dira, baina, hemen espresaera barrokoak? Izadiaren pertsonifikazioa lehendabizikoa da:

Ibaian urak handi:  
Haranak irribarre egin du  
kezkatu... (SL, 34)

Edo Axularren Midasen ipuina gogoratzen duen haikuak dioena gogoratu:

Soro bakartia  
arbasoen istorioak  
ari da kontatzen... (SL, 35)

Pertsonifikazioarekin batera, esaldiaren zentzu musikalak garrantzi handia du; erritmoak, aliterazioak, hitzen arteko sinestesiak osotzen dute poesia

honen alderdirik deigarriena. Ez da joera neobarrokoa hor bukatzen, parano-  
masiak bere tokia hartzen du, eta hitzen arteko jokoak berebiziko lana du esti-  
loaren sorkuntzan:

Urrunean erdibitzen doan  
bidezidorrean  
nondik joko ote du haizeak?... (SL, 34)

Idazkera honen oinarririk sendoena irrazionalismoan datza, hitzen arteko  
elkartasun berezian, metafora osatzeko orduan hitz bien arteko lotura espero  
gaitzean. Batzuetan irudiaren lotura finkoa da:

Oskorriaren errainua  
elizaren hormari  
zemaika... (LS, 16)

Besteetan bisualtasunak eman dio abiada irudimenari:

Kattagorriak salto:  
Haren isatsa  
airean zintzilik... (LS, 12)

Bidezidorrean galdutako  
satorrak  
apez zaharra dirudi... (LS, 24)

Besteetan ekintza arruntari irtenbide berezia ematen zaio, pertsonifikazioan  
oinarriturik, izadiak arrunt egiten duenetik atereaz eta zentzu berria bilatuz:

Bikotea musuka:  
Biltzen dituen iluna  
xurgatzen ari dira... (SL, 13)

Moralista zaharraren eran, poetarentzat irudiaren balio sensorial eta plas-  
tikoa ez da nahiko, eta paramiologiara jotzen du errefrau berrietan giza bizi-  
tza hiru pintzeladatan hartzeko asmoz:

Zenbat etxe  
hirian,  
eta zein babes gutxi... (SL, 18)

Eta horrelakoetan aurki dezakegu liburuaren zentzurik garbiena haiku  
honek gogoratzen duenez:

Lurrera erortzea,  
bat-batean  
bila hastea da... (SL, 40)

Juan Kruz Igerabidek galdera barrokoa egin du bere poemategian: bila-  
tzea, bizitzaren zentzua aurkitzea. Eta ez da bera, edo pertsonaia bilakaeran

ari den bakarra, izadia ere bila dabil. Soilik maitaleen besarkadak eten du izadiaren erritmoa:

Zeruan bakarrik  
egin zen gau:  
Bikote liluratua... (SL, 45)

Bizitzaren zentzuaren bila ari delako du garrantzia liburuan heriotzak:

Hildakoek, adioan,  
ortzadar bana  
osatzen dute... (SL, 46)

Baina, hil ala bizi, jarraitzen du izadiarekin dugun elkarrizketa, besarkadan. Ez dira hizkera, galdera eta zentzua soilik neobarrokoak: poemategiaren izaera ere joera neobarrokoan taiutzen da. Esan dudanez, haikuak bat-batean, unean du bere bizilekua, han agertzen da, gero, etorri den moduan desagertzeko. Orain aldiko garaia da berea, eta Igerabidek, bai “bat-batean” eta bai, “Une” hitzak erabiltzen dituen joeran erreparatuz gero, ez dugu ahalegin handirik egin behar, denbora orain aldi etengabean bizi dela esateko. Igerabidek unetik denborarik gabeko eternitatera joatea bilatzen badu ere, ez da gogoratu behar orain aldia gure garaiko denbora dela. Unearen ttikitasunaren paraleloa da poemaren ttikitasuna. Detailea maite du poetak, zatia, eta ez osotasuna.

Gure garaia zatizalea dela esan dezakegu, eta horixe da neobarrokoaren ezaugarrietako bat. Begira nola zaltzen duen detailea Omar Calabrese-k:

El fragmento como material creativo responde a una exigencia formal y de contenido. Formal: expresar lo caótico, lo casual, el ritmo, el intervalo de la escritura. De contenido: evitar el orden de las conexiones, alejar el “monstruo de la totalidad”.

La escritura fragmentaria ... ha llegado a ser ... un gesto creativo cada vez más consuetudinario, que ha seguido las más diversas manifestaciones: los aforismos, los pensamientos sueltos ... fragmentación para reencontrar tanto la “paleta” de palabras y frases, como para recuperar la poeticidad connatural a la anulación del principio de orden y de sus geometrías regulares. (1987, 102-3)

Zatia gaurko estetikan bizirik dirauen jokamoldea dugu, neobarrokoaren erakusgarria. Egunerokotasunaren berezitasuna delako begi aurrean jarri nahi digu Igerabidek.

Neobarrokoak dira, hainbaten, liburu honetan jarraitu diren beste bideren batzuk ere. Aipatu behar nuke, lehenengo, liburuak hizuz zati dituela: “Haiku xamurrak”, “Laino artean: Felipe Juaristiri oihartzun” eta “Alter egoaren mintzoa” aforismoz osaturiko saila. Hirurak hartzen dituzte neobarrokismoaren bideak, zein bere aldetik. Haikuak inpresionismoaren imaginez

egin du lan. “Laino artean” sailak idazkera baten idazkeraz. Eta “Alter egoaren mintzoa” zatiaren estetikan barneratzen da.

“Haiku xamur”en saila liburuan nagusia da. Xamurrak dira forma ahalik eta gehiena desagertarazten saiatu da, irudia biluzik utzi arte, irudi eta barne munduaren arteko lotura ahalik eta herstueena izateko asmotan. Xamurrak dira, esanahia ez delako askorik desbideratzen, hiperboletik ihesi.

“Laino artean: Felipe Juaristiri oihartzun”a liburu baten zatiez, oihartzunezko lana da. Zatia materialea da liburu bati buruzko liburua egiteko. Ez du testua hartu Juaristirengandik, islada baino, irakurketak barrenean utziriko zirrara eta bere hitzez eta moldez eratzen du poemategia alde biri kasu eginez: exotismoaren irudiak haikura bultzatzen du, irudiaren nabarmena adierazten delarik; eta denborari buruzko hausnarketa egiten da. Omenaldi? Oihartzun? Joko? Denetarik apur bat, eta denen gainetik, ikuspegi zorrotza denborari buruz; letren estetika da, batez ere, lan hau. Beste liburu baten aurkituriko galderari erantzuna, errepikapenaren estetika.

Aforismo sailean arreta tituluaren bertan jarri beharko genuke, lehenik, “Alter ego”an, lanaren joera neobarrokoaz konturatzeko. Klasizismoak batasuna maite badu, alter egoaz mintzatzen garelarik errealitatearen aniztasunaz mintzo gara.

Desoreka eta metamorfosiaren ideia da alter egoa, egon egonean bare dagoenaren aurkakoa. Ez du formarik, formaren bila abiaturikoa da alter egoa. Definizioaren bila dabil, poesia zer litekeen esan nahian. Horrela diskurtsoa behin eta berriro hasten da, bere forma definigaitzean, jaio eta sortu, ideia bat agertu eta utzi, beranduago berriro hartzeko inguru-minguruka, aldatuz, jausiz eta altxatuz, definizioaren bila, definiziorik eman gabe.

Aforismoak borobiltasuna bilatzen du, errefrau bihurtu arte zenbaitetan. José Antonio Marina-k, adibidez, aforismoak arbuiatu egiten ditu, ez baitute ertzirik uzten erantzuteko, ez betarik zalantzarako. Filosofo horrentzat bere betetasunean ez gaituzte konbentzitzen, lilura sortzen digute, besterik ez. Marina-k ez ditu maite, pentsakizun baino gehiago iritzi direlako, eta iritzi baino urrunago, irudi.

Igerabideren aforismoak hortxe kokatzen dira, iritzian, zertzelada laburrean. Argumentazio falta badago ere, zentzuaren bila agertzen zaigu idazlea, bizar bakarreko pintzelez gaur eguneko egoera artistikoa eta artea bera hesi nahirik:

Artea bizitzari zegokiok, kristal argiari bezala (argi egiten dik argiarekin). (SL, 79)

## **Bibliografia**

IGERABIDE, J. K. (1985): *Notre Dameko oihartzunak*. Elkar. Donostia.

- (1988): *Bizitzaren solasean*. Elkar. Donostia.
- (1992): *Begi-niniaren poemak*. Erein. Donostia.
- (1992): *Egun osorako poemak*. Pamiela. Iruña.
- (1994): *Sarean lehio*. Alberdania. Irun.
- (1991): “Poesia musika da eta izaditik ateratzen ditu soinuak”. *Enseiucarrean*, 6, 47-57.
- (1992): “Haur poesia eta heroaren neke eta penak”. ELKARLANEAN: *Haur literaturaren inguruan*. UEU. Iruña. 41-63. (arggb. ) “Hegoaldeko itsasoetan barna”.
- (1995): “Hegoaldeko itsasoetan barna”. *Egan*, 2. 29-46.
- ABRAMS, M. H. (1991): *El romanticismo. Tradición y revolución*. Visor. Madril.
- CALABRESE, O. (1987): *La era neobarroca*. Cátedra. Madril.
- GARCIA DEVESA, C. (1993): *77 haikus*. Espiral Maior. A Coruña.
- GARCIA NORA, I. (1993): “Igerabide”. *Deia*. 1993-10-24.
- STEVENS, W. (1994): *El ángel necesario*. Visor. Madril.
- TURNER, V. (1980): *La selva de los símbolos*. Siglo XXI. Madril.
- WINCH, P. (1994): *Comprender una sociedad primitiva*. Paidós. Bartzelona.

## AMAIA ITURBIDE ELE EPELA

### 1. Amaia Iturbideren poesia ikuspegia

Amaia Iturbide Bilbon jaio zen 1961. urtean. Euskal Filologia ikasketak egin ondoren, Getxon bizi da olerkiak idatziz eta pintura marraztuz. Hiru poema libururen egilea dugu: *Eskaileraren bi aldeetan* (1986), *Itzulbidea* (1992) eta *Gelak eta zelaiak* (1994). Oraindik ez du pintura erakusketarik egin.

Esperientzia olertiaren barnean, sinbolismotik estetizismora doan bidean, idazle heldu bi izango genituzke, Felipe Juaristi eta Juan Kruz Igerabide, 1956 eta 1957an jaiokak eta laurogeiaren hamarkadan erdialdean argitaratzen hasi zirenak, eta beste bi, Amaia Iturbide eta Juanra Madariaga, gazteagoak, 1961 eta 1963an jaiotakoak eta hamarkadak aurrera egin duenean hasi zirenak. Amaia Iturbide mogimenduaren alde gaztean kokatzen da, beraz.

Nik dakidala poetika bi argitaratu ditu eta haiei atxekiko gatzazkio oler-tiaz duen ikuspegia zabaltzeko asmoz.

Lehena, *Itzulbidea* liburuan argitaratu zuen, eta irakurriko egingo dugu beste ezertara joan baino lehen

#### *Huntzaren aitorpena*

Ez da damutzekoa  
bakean eta ironian diseinatutako bakardadea  
—zuriaren asmoak adinako laztanetan  
enseiukarrean bezala esnatuz doana—  
luxu osoz zaintzea,  
harriaren egonean dirauen  
ortzemuga itzaletan,  
amets kukutuek lilura hostotsuz  
bideak txirikordatzen dituzten uneetan,  
luxu osoz urtaroen soineko itxuraldatuaz

...ene bakardade bitxi janztea  
ez da, ez, damutzekoa. (I, 59)

Bakardadearen goraiaparena egiten da testuan, eta sentipen horretan mamitzen du bere lana Iturbidek. Inoiz esaten da idazlearen ofizioak baduela zerikusirik marrazkiloaren bizitzarekin. Adarrak etxe barruan dituela lan egin behar du bere barne-senaren magalean, bakartasunean, inora barik, idazleak. Lana bukatuta dagoenean bizi dugun giro komertzialak bultzatzen du, ordea, lanaren komertzializazioari ekitea. Amaia Iturbide bere bakartasunean ari den poeta dugu, eta gutxitan ikusten dugu lanaren zabalkundelana egiten. Bakardadeak adierazten du, ba, lanarekiko atxekimentua, ofizioaz duen inurri-sentipena. Baina bakardadea bada, esanahi berdinean, eskoletatik zein giro artistikoetatik banandua izatea, askea da bere iritzietan idazlea eta ez du talde batean ikusten bere burua. Horrek ez du esan nahi, baina, inork bidea erakusterakoan ez duela jarraituko, bere idazkera tradizioa batean kokatzen ez denik. Lehen liburuan Atxagaren eta gerora Juan Mari Lekuonaren indar eta ohiartzunak entzun dakizkegu bere lanetan. Hölderlin poeta handiaren jarraibidea erakusterakoan garbi azaltzen du Iturbidek non dagoen bere idazkera.

Ikusmena eta deskripzioaren lana da berea, pinturari zor diona ezin izango du ezkutatu eta. Huntzaren antzera harri gisa, geldirik dagoenaren begi zolia agertzen du Iturbidek. Zer begiratu ordea? Izadia, poeta erromantikoek begiratzen zuten antzera. Baina, Hölderlinek erakutsiriko moduan, izadia liluraz begiratzen da. Lilura hitz berezia da poesia honen antolaketa lanean, izadiarekin mantentzen duen elkarrizketaren tonua damaigulako. Iturbideren begirada errotik gozatzen duen etarikoaren lain da. Izadia beste transzendentzia baten agerbidetzat dauka eta. Irakurri berri dugun poeman izadia, Lizardiri egiten zaion aipamen argi bezala, “urtaroen soineko itxuraldatuaz” agertzen bazaigu, poeta “ortzemuga itzaletan” eta “amets kukutuen” eremuetan kokatuko zaigu, izadiarekin duen elkarrizketa ortzemuga eta ametsen errainuan jarri arte, erreallitate hau baino haruntzago. Iturbideren poesia uler dezagun kontutan hartu beharrezkoak dira ohar hauek, lilura bizitzarekiko duen joera nagusia delako, eta beste erreallitate lasai (luxozko) baten agerbi-dea ikusteko bide egokitzen agertzen duelako.

Amets horrek, ordea, txirikordatuz agertzen dira, ez dira zuzenak, ez; kontrajarpenez, paradoxaz, itzuli-mingulian agertzen dira poz-tristeziaren ataburuan, argi eta ilunaren atarian, alaitasun eta sofrikarioaren ertzetan. Txirikordatu hitza baliaigarria zaigu oso poesia horretan erabiliko den joskera adierazteko, esaldiak ez direlako zuzenak, tolesduraz beteak eta ñabarduraz osatuak baino, gainera, munduaren ikuskera marraz dezagun ere oso aproposa zaigu txirikorda. Pentsakizunaren ibilian ibilian harri bilketan ari den poesia da Iturbiderena lihoaren penak kantetan dabilen neskatza baten antzera.



Hasiera batean, olerki horrek izadia urrunean ikusiko du, baina laster gertatuko poetaren nitasun eta izadiaren arteko lotura eta elkarkidetzatza:

...inorenak ez diren objektu artean  
aienatzen naiz ...  
linboko doinuetan nagi zorabiatzen naiz  
eta itsaso guztietan erortzen... (I, 23)

Abiapuntu honetatik hasiz gero, ez da bat ere harrigarria izango Amaia Iturbideren poesia definitzeko hiru hitz erabiltzea. Hiru hitzok hauek dira: Sinbolismoa, intimismoa, esperientzia.

“Sinbolismoa presentzia duen hizkera da” idatzi digu gure poetak bere lana adierazi nahi izan duen artikulu batean, guztiz estonagarria eta hori bezain probetxugarria gertatzen den batasunean. Sinbolismoak, berez, hizkera metaforikoa darabil mundu honetatik at dagoen beste mundu bat, ederra eta ideala, dena, adierazteko, sinboloak mundu hartan dagoenaz hitz egiten digu mundu honetako hizkuntza erabiliz. Baina berebizia da sinbolismoa agerbidearekin batzea, zeren azken urteotan Europako kritikan entzutetsua egin den liburu baten izenburuan hitz hau aipatzen da: *Egiazko agerbideak* dei genezake euskal itzulpenean, eta George Steiner da egilea.

Liburu osoa poesia sinbolistaren defentsada, humanismo zaharren bideetatik. Horren arabera, kulturak hobexeak egiten gaitu. Baina ez da hori bakarrik testuaren helburua. Steinerren ustetan, eta honek sortu du eskandaloa eta dulua, poesia onaren atzean transzendentzia dago, beste izaki baten agerbidea litzateke orduan poesia. Ez dakit Iturbidek poesia idatzi orduko Steinerren berririk izan duen, baina kulturaren apal —eta itzal— aldi honetatik irtetzeko egiten den transzendentziari deia ikusgarria da poesia honetan. Sinboloa, era honetan, gaintekoaren, eta edertasunaren agerbide litzateke.

Intimismoa erabiltzen den ikuspegian dager poeta hau. Bere bizitza askotan bihurtzen da poemagai, ez dira autobiografiaren arrastroak falta, poetaren buruaren erretratoak ere aise dagerz testuan zehar:

Inguruarekiko maitemintze perpetuagaitik  
existitzen naiz ... (I, 23)

Kosmoaren beste atomo bat naiz ... (I, 24)

Batzutan zuzenean egiten ditu aitorpenok, besteetan beste izakiren baten izena darabil, hala Klara Lumo zein Karmen Agirre. Bere jakitez eta izatez idazten du poetak, bere ikuspegi xumea agerian jarriz, eta, beste behin baino sarriago, berak ezagutzen dituen ulermen giltzak azaldu barik utziz. Nor da Klara Lumo? Nor Karmen Agirre? Idazlearen hurkoak ditugu? Ziurrenik. Nortzuk diren jakinez gero aldatuko litzateke testuez egiten dugun irakurketa? Baliteke, baina ezin jakin.

Intimoa hurbilaren agertokia da. Objektuak, eguneroko gauzak aipatzea maite du poetak, nahiz eta xumeenak eta arruntenak izan. Baina modernistek jakin zutenez daki Iturbidek ere gauzengatik dugun begirada xamurrak aldatzen duela objektuaren izaera, eguneroko tratuan gauza gureganatu egiten dugu gu bihurtuz, gure antzaldatuz.

Esperientzia poesia da, norberaren sentipenetik abiatzen dena, mundu ikuskera sortu arte, ia poesia biografikoa, nitasunaren erraietan aurpegia luzatu duena.

Poesiaren bide hauetan lehenengoko liburu biek osotasuna marrazten dute, eta *Gelak eta zelaiak* apartatua geratzen da. Honela irakurriko ditugu, lehenengo biak batera eta hirugarrena bere aldan.

## 2. Iruditik deskripziara

Liburu bien artean lotura berezia egin du Amaia Iturbidek. Jakina denez lehen liburuko hamar poema berargitaratu ditu bigarrenean, beraz, lotura sendoa eman dio bien arteko desberdintasunari. Datu horrek dirudien baino garrantzi handiagoa du, zeren, astiroago begiratzen badugu joera, ondorio interesgarriak atera ditzakegu.

Hamar poemok lehen liburuaren azken aldean kokaturik zeuden eta bigarrenaren hasieran. Dударik ez da, berargitaratzea erabaki badu idazleak, ez dela egin dituen aldaketengatik izan, aldaketak xumeak baitira eta ortografiko, morfologiko zein joskerako arrazoiengatik egin dira. Berriro hartu eta papeleratu badira beren zentzua, beren semantikarengatik dela baiets dezakegu.

Zer diote hamar poema horiek? Zer dute besteek ez dutena? Sentsibiltate berria, ziurrenik, eta sentsibilitatearekin batera hizkera onduagoa.

*Eskailleraren bi aldeetan* liburuan joera paradoxala gertatzen da, neobarrokoa, alde deberdin bi batu nahi lituzke begiradaren pean Amaia Iturbidek. Aurkakoak batzeko joera hori barrokotzat har dezakegun neurrian uler dezakegu liburuua. Amets utopiko eta errealtate mingotsen artean mogitzen dira liburuko orrialdeak. “Itzaropena espiralez dibujatzen” ari den bizkitartean, “kamioiak gatzaren desmemoria garraiatzen” dutela ikusten ditu idazleak.

Kontrajerpenen joko liburuaren diseinuan ere agertzen da. “Odolezko orena” deituriko poema saila aurkitu dugu atarian. Hari jarraiki “Oren mingotsa”, eta bukaeran, simetria azpimarratu nahi izango balu moduan, “Oren hiadunia”. Tartean izenbururik gabe, 42 poema. Horien artean nagusitzen da gerora Amaia Iturbideren poetikan nagusituko den ezaugarria; poemen arteko elkarrizketa, hain zuzen ere. Ezkutuan dago oraindik, baina, astiro irakurriz gero, landareen izenekin hasten diren poemekin egingo dugu topo, adibidez:

Mandragoren erroek zangoetan gora... (EBA, 21)

Madreselbek urteen buruan... (EBA, 25)

Itzalean lerratzen / brioletak... (EBA, 37)

Lotoak irekitzearekin batera... (EBA, 54)

Lauaxetak *Arrats Beran* liburuan egin zuen moduan, taiukera berdineko olerkiak sakabanatuak agertzen dira liburuan zehar irakurleak bere mataza haria lot dezan, liburuaren tapiza osatu arte.

Liburuaren egiturak, baina, ez du oztopatzen barnean gertatzen den hizkera aldaketa, puntu bitan oinarritzen dena. Liburuaren hasieran, hizkerak mantentzen du joera abangoardista. Bernardo Atxagak *Etiopian* erabiliriko irudiak (trenak, taberna proletarioak) eta hitz jokoak ikus ditzakegu (patua, SOS) orrien barrena. Olerkiak irudietan oinarritzen dira surrealismoak agintzen zuen lotura inkonszientearen bidetik, eta irudiak ez dira azaltzen, idazlearen barnean kokatzen dira azalpen logikoak eta zertaz ari den garbi azaltzen duten giltzak.

Egitura aldetik irudien oreketan oinarritzen dira poemak, irudi batek sortzen ditu eta beste irudi batek ixten. Adibidez:

Oroimenaren lautadan  
zuhaitzak herdoiltzen dira... (EBA, 20)

esanez hasiko du poema, barne errealtatea (oroimena) izadiaren aipamenez begietara ekarririk (lautadak, zuhaitzak). Testuak jarraitzen du irudiz irudi, noraezean, irudimenaren dantza eroan joango balitz bezala, beste irudiz bukatzeko testua:

... zerebroan errefugiaturik dugun biblioteka  
minuturo txukuntzeagatik... (EBA, 20)

Irudia nagusitzen da testuetan, eta esanahia zehaztea ez du erreza izango irakurleak.

Hizkera hau malgutuz doa liburua aurrera doan heinean. Batetik izadiko aipamenak argiagoak dira, bestetik lexiko surrealista eta hiritarra, modernis-teago eta izadizaleago bihurtu da:

Kaio-hegoaren  
itsas-itzal bare-dongea  
arrats-beheraren bakoitzean  
beti  
inguru-minguruka  
kaio-hego negu-gris ezabatuaren  
oren geldia... (EBA, 46)

Aldeak aurki ditzakegu testuan. Irudia bakarra da orain eta diskurtsoa ez doa zuzen irudi batetik bestera, irudiaren inguruan mogitzen da, irudia definitu nahian, deskribitu gurarik metaforizazioaren bidez.

Neurri batean, baldintzak eman dira irudiaren azalpen den pilaketa agertzeko. Pilaketak, enumerazioak poema gune baten inguruan kokatzen du irakurlearen gogoan, eta ulergarriago egiten du testua.

Olertigintzan gertatu da beste aldaketa: pertsonen aldaketa. Lehen aldean, olerkariak kanpoko elementuez hitz egiten du, hirugarren pertsona erabiliz, poesiaren sujetoa kanpoan ari da ekintza bat egiten. Diskurtso tonu hori ez da nabarmenki aldatzen, baina azken aldera ugariago agertzen da elkarrizketa dramatikoak, bigarren pertsona bati zuzentzen zaiona, eta zerbait esan behar zaionean norbaiti diskurtsoa argitu egiten da.

Ez dakite izarrek lau behatzetatik esnea darienik... (EBA, 48)

poema bai diskurtsoaren pertsonalizazioaren eta bai enumerazioaren adibide ederra genuke.

Hain zuzen, liburu batetik bestera igaro duten hamar poemek diskurtso mota hori darabilte. Agian, tendentzia hauek hazia bezala, lurperatuta daude, udaberriaren zain, oraindik olerkaria bidegurutzean legokeen moduan eta zein bide hartzen duen garbi izango ez balu lez.

*Itzulbidea* liburuan aurrera darraite tendentzia hauek. Izadiak pisu handiagoa izango du, eta hiria ixildu egiten da irudi iturri gisa.

Liburu honek, sinfonia loratuaren antzera, hiru mogimendu nagusi ditu. Lehena, aipaturiko hamar poemek eta antzeko lau gehiagok osatzen dute, hamalau guztira. Poema txikiak, izadiko irudiz ostuak. Baina mezu desberdina somatzen da, garbiago zein den asmoa, eta liburuaren gaia:

Arimaren tenplutik pausaturiko paisaiak... (I, 20)

dira orain nagusitzen direnak lehen sail honetan.

Bigarren atalean, Amaia Iturbidek bizikun poesian hain usu erabiltzen den fikzionalizazioa hartzen du eskutik, eta Klara Lumo eta Karmen Agirrerren ahotsez ematen dizkigu haien bertsoak, bere kontrapunto eta guzti: Klara Lumoren “Estelak” dira, eta Karmen Agirrerrenak “Ulzerak”. Pertsonaia hauek eskaileraren bi aldeak dira, Klara Lumok bizitzaren aurrean joera baikorra duen artean: “mementua dastatzen dut, besterik gabe”, “laguntzen nauen udazkeneko / eguzkia / bezain zoriontsu nago”, Karmen Agirrek irudi ilun, eta literarioagoa ematen du, antzerti munduarekin eta testuekin lotzen duelako idazleak. Dena dela, bere ikuspegia bizitzaz ez da batere alaia:

Bizitza  
berbaro estupidoa... (I, 41)

Edo garbiago beste honetan:

Zeru eta lurraren arteko  
parentesiaren erdigunean

lorategi  
harrizkoetatik  
ilari infinitoki txikiak  
beltzak...

Klara Lumok pilaketa erabiltzea maite du (I, 27), Karmen Agirrek hiriko irudiak erabiliko ditu, mozkortiak eta boxeolariak, abangoardiko hizkera gogarazi arte irakurleari.

Hirugarren mogimendua hasten da orain. Lehenago intermezzo txiki bat, paisaiaren irudia gogoratu: “Gaua begiratzean” eta “Lainobeherakoak”. Ate biak igaro eta poetika bat izango dugu begi aurrean poema bitan: “Kantu liraina” eta “Balada zehea”. Tonua guztiz aldatu da, poema luzeagoak dira, ez dira inpresio baten definizio, metaforetan kiribiltzen ditu idazleak, eta askotan erabili irudiarentzako ate den esaldi anplifikatua, lerrotxo arteko metafora argigarria. Gainera, oraindik argigarriagoa dena, diskurtsoa lehen pertsonan ematen da. Ez du ahotsak orain Lumo edo Agirrereren maskararik behar, nitasuna bildurrik gabe agertzen zaio irakurleari:

Sendagile baten ukimenaz zuritu eta zabaltzen dut isiltasuna... (I, 63)

esango digu lotsarik gabe eta bere lanaren berri emanik idazleak. Isiltasunaren aurkako joera hori, hitz egitea:

Barne-paisaiaren mintzoari begira... (I, 58)

gertatzen da. Baditugu elkaturik hitza eta paisaia. Bakarrik falta da pintura. Eta laster agertuko da:

...poema baten hitzak  
akuarela-makulak bezala bataiatuak... (I, 63)

Bataiatu: izen berria eman eta hartu, poema pintura bihurtzen da, eta poetak idazten du

Kuadro batean sartzen naizen bakoitzean... (I, 67)

Berdinak baitira idaztea eta pintatzea. Idazleari dagokio bata, pintatzaileari bestea, baina biak dira kanpo-mundua eskuratzeko moduak. Biak dira hirugarren mundu batera heltzeko bideak: pentsatzera, hau da filosofoen lanera. Idaztea azken batean, kanpo errealitatea barneratzea besterik ez da, barnean ondu ondoen kanpora itzultzeko ideia.

Poemategia ixten duen testuak garbi azaltzen du Kanpo eta Barneren arteko besarkatzea eta ezkontza:

*Laburpena*

Gauaren gardena  
ezagutzen duen giltzaz

zabaltzen dut  
nire barne gela:  
une oroz sortu dudana isiltasuna  
ez nuke ezein preziotan salduko.

### 3. Gelak eta zelaiak

Oraindik bere produkzioko azkena den *Gelak eta zelaiak* liburuarekin Amaia Iturbidek Lizardi Olerki Saria irabazi zuen 1994. urtean eta urte berean eman zuen argitara Erein etxean. Liburuak izenburutik bertatik adierazten du zein den bere azken helburua: barne-mundua eta kanpo-mundua biltzea eta lotzea. Bere estetika mundua fintzen doan heinean Iturbideren poesiak garbiago azaltzen du nondik nora doan.

Izenburuak Juan Mari Lekuonaren *Ilargiaren eskolan* liburuako hasiera dakarkit gogora. “Bizileku” deituriko poeman, antzeko kontrajarpena adierazten du olerkari oihartzuarrak:

Ez zegoen soroko zola berderik,  
zokorik zoko, alfonbra gorria ...  
Eta leihotik kanpo  
paradisu galdu bat.

Mikel Lasaren paradisu galduak gogoratuko ditu norbaitek, atzean, ezkutuaren Baudelairearen irriparra ikusten duen artean. Iturbide horrela sinbolismoaren bidean kokatu da, edo oraintsu Steinerrek *Presencias reales* deituriko liburuan azaldu duenez, transzendentziaren poesian jarri da Amaia Iturbide. Steinerrek eztabaidatu eta izpide gertatu den iritzi batean, berriro itzuli da humanismoaren balio nagusiak adierazten. Berriro geundeke teoria zaharren bidean: poesiak idealera, edertasuna bultzatu beharko luke irakurlea honen etika bideak ere onduz eta lautuz.

Amaia Iturbidek ere balio etikoen bila abiatu dela dirudi.

Itxaropena marrazten duenarengan  
sinesten dut,  
haxe da nire erlijioa,  
haxe nire eguzkia... (*Gelak eta zelaiak*, 91)

Utopia zaharraren bideak zabaltzen dira berriro idealetan sinesten duen sinbolismoaren atalburuan, eta horrekin batera “itxaropen” edo “erlijio” hitzak aipatzen dira. “Ni” pertsona da nagusia liburuan, ia bakarra. Eta kanpo aldea (zelaiak) eta barne aldea (gelak) kontrajarrita agertzen badira ere (gero-ago ikusiko dugu zein berezkoa duen Amaia Iturbidek kontrajarpenaren erabilpena), ez dira guztiz urrunduak, ez behintzat kontzientzia batek, olerkariaren begiradak biak besarkatu arte.

Nitasuna behin eta berriro agertzen da poemategian eta guztiz garbi azal-  
tzen du nondik nora agertzen duten bere izaera, bere nortasuna.

Egia bat daukat barruan  
ahaleginean ardazturik zaharberritzen den egia,  
harriaren gunetik sortua... (GZ, 71)

Edo:

Aurkezten dizuet nire amorrua... (GZ, 80)

esango digu, olerkigintzaren lehendabiziko aroak gogoratuz zeinetan poetak  
bere izaera zuzen agertzen baitzuen. Aresti gogoratuz adieraziko digu poetak  
harriaren hatsetatik sorturiko lana dela berea.

Gelak bere barne munduarekin batzen dira zuzenean:

Nire etxeak barrurantz begiratzen duten leihoak  
eta oroimen gutxiko atea ditu,  
gordeleku bat da  
barne exilioa,  
dauzkadan gauza txiki guztien  
antolamendu ahalik eta atsegina... (GZ, 47)

Baina barne mundu eta kanpo munduaren arteko muga laster ezabatuko  
da. Lizardiri hain gogoko egingo litzaiokeen identifikazioa egiten delako oler-  
kariaren subjeto mundu eta kanpo munduarekin:

Egun aldakorren zati bat naiz... (GZ, 30)

idatziko du Amaia Iturbidek, nitasuna eguratsa bihurtuz, eguratsa, izadi, lur...

Bizikletaz nenbilela  
koma bat bezain garrantzitsua naizela  
pentsatu nuen  
abar batek osotasunari begira  
bere buruaz pentsa dezakeen bezala... (GZ, 42)

Kontrajarpena bai, baina neurri berean identifikazio, lotura, besarkatze eta  
batze, ez bait genuke ahaztu behar Van Gogh horrenbeste gogoratzen duen  
azaleko irudi inpresionista. Zer da inpresionismoa? Inpresioaren unean ikus-  
kizunaren osotasuna eskaintzea. Horregatik dago olerkaria munduaren biho-  
tzean. Eta “Bizikletaz nenbilela” poema irakurtzen jarraitzen badugu garbia-  
go ikusiko dugu nola jarraitzen duen identifikazioarekin olerkariak:

...esku nimiñoak  
hitza forma aditzez, hizki minuskuloez  
eta bukaera xeledun berboez  
beteriko sakeletara  
hurreratzen nituen neurri berean,  
nire bizitza zortziko txiki batean

ederki asko sar zitekeela otutzen zitzaidan bitartean  
nire herriarekin bat datorren  
nire bizitza txikia baina ez kaxkarra... (GZ, 42)

“Bizitza txikia, baina ez kaxkarra” esaldi esanguratsua bihurtzen zaigu poemategi honetan, zeren batetik, identifikazioa ez da nitasuna eta paisaiaren artean, herriaren erraiekin ere lortzen da identifikazio hori, bestetik, bizitza ez dela kaxkarra baietsi behar du olerkariak, dioenak zentzua har dezan, arrun-keria ez dela ziurtatu behar duen neurrian, olerkariaren ikuspegi erromantikoaren originaltasuna bilatuz eta aitortuz; hirugarrenez, txikitasuna aipatzen da testuan, eta tonu hau nagusia da liburuan zehar.

Har dezagun batasunaren haria. Nola lortzen da sujetu eta objektuaren arteko lotura? Hizkuntzaren bidez, hizkuntzaren magiak lortzen du barnekalde eta kanpoalde arteko argi dizdirako hariak sortua den zubia igarotzea, hizkuntza norberarena da, baina kanpoaldean agertzen da soilik, ez dago barnealdeko hitzik, eta mintzaira komunikazioa eta elkarkidetzaren dauden neurrian sortzen da, nire bihotzetik kanpora doana da hizkuntza. Nabarmena da badagoela barne pentsakizuna eta honen xupazterrean sortzen da hitza, baina hitza izateko, jaulki bat egin behar dut, niregandik bestearengana helarazi. Eta bide horretan gorpuzten da begirada eta hitzaren indarra. Ez du inork ukatuko testuan hitzak eta hizkuntzak lortzen dutela nitasun eta paisaiaren arteko berbaldia.

Lehenago ere ikusi dugu “ni”aren bizitza zortziko txikian sartzen, nimitasuna hikako aditz bihurtzen eta morfologia txikian itzultzen zentzua. Baina bada beste poema bat idazlearen burkoa garbiago azaltzen duena:

Erroa da dakiena  
bere biziaren ibai egitean  
besteak elikatzen dituen pentsamoldea,  
zuhurtziaz labaindutako eskua ...  
eta ahozkeria neurtuetan ematen  
jaten ez duen hitza. (GZ, 79)

Eta poema horretan baino indar handiz, poemategia bukatzen duen testuak ere gogo biziz adierazten du zein den hitzaren garrantzia testu honetan:

Bidearen hondoan geldituko naiz  
zuhaitzaren eta lagunaren ondoan  
han non txoria alaitasun txikia eta nahikoa den  
eta maite izan nautenen hitzek  
nire belarrietan habia egiten duten. (GZ, 100)

Hitzaren garrantzia ez da estonagarria poesian, baina errebindikapena egiten den neurrian, olerkariak bere bidea erakusten du estetizismoaren alde.

Hitzaren goraipamen honetatik datozkigu olerkarietako testuan egindako omenaldiak. Poema zuzena, berezia dute Xalbador, Lauaxeta, Gabriel Aresti eta



Lazkao Txikik. Bertsolari bi, herri hizkerari begira dauden ahozkoatasunaren artisauei zein artista bi eta Euskal Herriko poesia berritzeko eta Europaratzeko ahaleginetan zebiltzan poeta bizkaitar bi. Ez nuke estali gura badirela beste ohiartzun batzuk ere liburuan zehar. Adibidez, Bitoriano Gandiagaren trikiti soinua entzuten da noizbait testuaren barrenean, eta Juan Mari Lekuonak utzirikoa arrastroatik birigarroak utzirikoa bezain gardena da. Bai poesia ulertzeko eran, bai lexikoan (espirala), bai sinboloa ulertzeko bidean.

Hitzarekiko atxikimendua gorazarre bihurtu bada ere testugintzan, nitasuna eta izadia lotzeko bide bakarra ez da. Bestea pintura da. Sinbolistek, Baudelairek, Verlaineek, Mallarmék, hitza musikarekin lotu zuten hitzak barrenean zuen arimaren hesia lortu nahiean, baina bazekiten, batez ere lehenak, pinturak bazuela barne indarra poesiarekin lotzen zuena. Pintura, beraz, kanpo-espazioa da, baina, komunikabide ere badenez, paisaia den kanpo-espazioa niretu egiten du. Paisaia den kanpoaldia barneratu egiten du pinturak, objektua subjektiboratu. Eta lan hori nabarmenago egin du XX. mendean, pintura, figuraziotik ihesi, lirikara itzuli denean, XIX. mendeko pintura deskriptibo eta narratiboa ahaztuz.

Pintura ere edergai bihurtu denez liburuan, euskal artisten gorazarrea ere aurkituko dugu: Ibarrola, Balerdi, eta Ramos Urangaren aipamenak ezin dira alboratu “Kaxkarra ez den” bitzita honen agerpena egiteko orduan:

...dagoena baina ikusteko  
bilatu behar dena ... (GZ, 97)

omen da Ramos Urangaren pintura, eta hartaz esango digu argia dela, ur-isladako mogimendua, arnasa dela: izadia, haragia azken batean, nitasunetik paisaiara igarotzeko besarkada.

Artearen papera ulertzea ezinbestekoa dugu poesia hau ulertzeko orduan. Ez da bakarrik kasu egiten zaiola Juan Mari Lekuona bezalako olerkari bati, Artea bere poesiaren gunean jarri duen poeta bati. Zerbait sakonagoa da taula gainean jokuan duguna. Artean konfidantza jartzeak hitzarekiko olerkariak duen laguntza jasotzea litzateke. Begira dezagun azken urteotako poesia mendebaldean: isiltasunara etengabeko bidaia izan da berea. “Dena esanda dago” lemapean, mendebaldeko poesiak nihilismotik isiltasunera doan bidea egin du, hain zuzen ere idealismoarekin apurtzeko. Idealismoan, humanismoan kokatzen badu olerkariak, komunikazioan sinesten du, egia batean, sinesten du artea komunikazio bide dela, elkarren ulermenerako bide. Eta joera horrekin eten eta apurtu nahi bada, beharrezko du artea lagungarri. Zehar bidea da artearen papera poesian. Olertiak hitzarekiko konfidantza zuzenean lortu beharrean, arteari egiten dio deia, inork (eta inork baino gutxiago burgesiak) ez baitu zalantzan jarri (poesiak bere bidetik egin duen moduan) pinturak esan egiten duela, adierazteko gai dela.

Horregatik egiten da olerkaria pintatzaile, eta lumaren ordeztu, pintzela hartzen du:

Pintzel zail bat eman zidaten  
indartsua eta bakartzeko joerakoa  
egiatan egia pintatzekoa... (GZ, 81)

Pinturaren gorazarrea hitzaren ospakizun bihurtu da liburuan. Eta neurri berean “Esamoldeen kutxa” (GZ, 69) liburuaren erro eta gunea sortu da. Hitza erro egin da, begiradan (pinturan) egon ez-egonaren aldaketa geldiezinean:

Begi-ukaldi batez erro batean jo eta  
buru-urrats ohartuz ibilian egotea  
begiradaz ibiliaren ibiliaz ikusiz ikastea  
irautea eta iragatea  
iraganatzea eta gaurkotzea  
izatera heldu gabe orainean izatea... (GZ, 69)

Poema honetan, hitza, pintura, nitasuna eta izadia biltzen dira argi neurgabe, elkarren mugak deuseztu arte.

Baina ez da lotura honen adibide bakarra; bestela, irakur dezagun beste pasarte hau:

Isladatu, moldatu eta jagongo nauen  
erakusgai ez dagoen poema-kuadro baterantz  
zelairatuko eta eguzkiratuko ditut ...  
nire barne gelako orenen  
egun zorituak... (GZ, 83)

Bizitza hau txikia da, txikitasunarekin lot genezake, behin eta berriro diosku hori olerkariak:

...naizentxoarekin eta dudantxoarekin...

idazten du olerkariak.

Txikitasun horrek beste pentsagaia jartzen du begien aurrean. Txikitasuna heroia ez den olerkariaren irudia jartzen du begien aurrean, neurri batean, desagertu da olerkari erraldoi, apez, iluminatuaren irudia. Honek ez du arma nagusirik, bere bizitza du eta hori kontatzen du, beste barik. Bere orainaren jabetza du eta ez du besterik:

Orainari natzaio  
ez baitut besterik... (GZ, 98)

Txikitasunak bat-batean dakar gogora Emily Dickinson-en poesia, edo Cummings-ena. Poesia txikia, letra ttikiz, Atxagak esango zukeen moduan idazten dena. Emily Dickinson-en irudia garbia da testua zehar. Emily Dickinson Ipar Amerikako olerkaririk bikainetarikoa da. Bere poemak txikiak

dira, orainaldiaren inpresioa agertzen dute gehienetan, gaiak ez du pisu handirik, aitzakia izaten da olerkariak irudi poetikoaren indarra zabaltzeko, besterik ez. Dickinson-ek hurbilen zuenarik egiten zuen poesia, begiradak berebiziko pisua du testugintzan, eta olerkietan izadiari toki aparta bilatzen zaio. Zehaztasunak (objetu zein animalien izenak) ikaragarritzko tokia betetzen du bere poesian, eta ez ditu maite hitz abstraktoak. Etxeko mistika dario bere idazkerari. Tonua ere oso fina eta leuna du. Eta guzti hau nahikoa ez balitz, olerki solteek badute barne-hari bat ezkutuan liburuaren osotasuna bilatzen dutenak, gai bakarra osatu arte: Emily Dickinson-en barne-biografia.

Ez ote dira horiek Amaia Iturbidek liburu honetan erabiltzen dituen elementuak? Barne-biografia gai gisa, hurbileko errealtatea poemagai eta honi dagokion lexikoa, etxeko mistikaren agerbidea zein poesiaren osotasunaren bilaketa ere testuan garden diren arrastroak dira. Lehen irakurketa batean badirudi 90 poema laburrek osatzen dutela liburua, poemak solteak direla, inpresio xumeek egin dutela poemategia. Astiro irakurritz gero, aldiz, poemategia tapiza dela esan dezakegu, poema bakoitza hari fina da, eta denek batera osatzen dute lanaren harmonia. Ez da hau liburu sakabanatua, ez, ardatz tinko batek hage sendo batek mantentzen du poemategiaren etxea zutik.

Poemategiak hari desberdinak lotzen ditu, eta kontrajarpena litzateke poemak lotzeko lehendabiziko tresna, eta paralelismoa bigarrena. Egia esan, kontrajarpenak argiago ikusiko ditu irakurleak, azken batean begi bistakoak baitira eta begi bistakoak dira izenburuan bertan agertzen delako joera. Ikus ditzagun adibide batzuk: “Goiza eta Arratsaldea” (31-32), “Pagoa eta Haritza” (65-66), “Gela kaxak eta Zelai zatiak” (55-56), zein “Nire irribarrea eta nire negarra” (17-18); guztiak poema bikoitzak dira, tartean ispilua jarrita izango balute bezala, bata bestearen alderantzizko aldakiak dira. Baina ez da poemak lotzeko bide bakarra. Ohiartzunaren teknika ere erabili du idazleak liburu honetan. Poema batek aurrerago dagoen poema bati egiten dio dei, eta hark erantzun egingo du, bien artean elkarrizketa sortuz, poemaren gaia sakonduz, ñabardura erantziz, esanahia zabalduz. Horrelakoak dira, adibidez, olerkariaren definizioa ematen dutenak:

Galtzea tokatu zaion eguzkia naiz... (GZ, 20)

esango du behin olerkariak, eta handik hamar poemara berriro ekingo dio gaiari:

Egun aldakorraren zati bat naiz... (GZ, 30)

Geroago izaeraren ñabardura hein handi batean zabaltzeko:

Oin geldiko bidaiaria naiz... (GZ, 49)

Horren antzekoak dira idazleen omenaldiz idaztiriko poemak, barne oihartzuna sortzen dutenak, edo artistei eskainirikoak (Txillida, Ibarrola, Ruiz

Balardi, Ramos Uranga). Haiek argiagoak dira, hauek ezkutuagoan daude, baina ez horratio hain ezkutuan, zeren pintorearen izena testu barruan aipatzen baita.

Horien antzeko eta ez hain argiak lotura gehiago lor ditzakegu. Begira, adibidez, liburuaren lehen aldean nola biltzen den haria bidaiaren inguruan, eta nola bilbatzen den olerkariaren asmoa gaia hartuz eta itxiz, eskuratuz eta ezkutatuz. Edo nola ahapaldi mota batek, koplak zaharrak, lotzen dituen mutur batean (40. or.an) eta bestean (67. eta 87.ean) diren poema bi. Edo, beste gai bat hartuz, maitarearen irudia nola dabilen kikuka poemategian, nola agertzen den (“J-ri” 21) eta desagertzen, haren izaera otxana berriro agertzeko urrunago (84 eta 92).

Beste poetika batzuetan, inguruko olerti espainolean adibidez, gertatzen den bezala, txikitasuna orainarekin lotzen da, denbora eta denboraren gaia hausnartzen duela adierazi nahi nuke. Txiki egiten den poesia ez da arinka eta presaz egiten dena, baina bada arinean bizi den denbora baten beste aldea. Txikitasuna orainarekin lotua dagoen olerki mota da. Lehenago ere ikusi dugu orainarekin lotzen olerkariaren irudia, baina ideia bera aurkituko dugu poemategia zabaltzen dugun unean:

Daukaguntxo  
urriko arratsalde laburretako  
zoko lisatu poxi batean bilduko dugu... (GZ, 11)

Hor dugu begi aurrean txikitasuna (daukaguntxo, zoko, poxi) eta hor ere orainaldi labur batekin sortzen den lotura, arratsalde labur horretan.

Txikitasuna zatiarekin lotua dago, eta ez da alperrik testuko poema bat “Zelai zatiak” deitzen. Eta zatia unearekin lotua, unek ez du berez zabalkuntzarik, bat-batekoa da, orainaldian baino ez da, momentukoa jasotzen du, inpresioa eta, honen ondoren, paisaiaren inpresionismoa eta horixe zen, hain zuzen ere, pintura mogimendu honen helburua: unearen harrapatzea, orainaldia geldiaraztea. Orainaldia agertzeko beste modua denboraren metaforizazio prozesua liteke, eta liburuan aukeratu den metafora nagusia erlojuarena da, “Oren txikia” deituriko poeman (15. or.) edo bere bizkian: “Oren txikiko xirmuriaren” (16. or.).

Jarrai dezakegu oraindik txikitasunaren inguruan hausnartzen benetan olertikera honen gunea erizten baitiogu gai honi. Txikiak hizkuntzaren depurazioa eskatzen du. Poema txikiak indar handia ekarri behar du altzoan, ezin du inguru-mariatari ibili. Horregatik tentsioduna da poemategi txikia, osotasuna bilatzen du unean eta, alderantziz, isiltasunetik hurbil dago, eta bien artean mogitzea da bere kakoa, bere patua. Isiltasuna testuan baten baino gehiagotan aipatu du Amaia Iturbidek:

...isiltasun gela  
isiltasun zelaia... (GZ, 29)

aipatzen dituenean, adibidez. Edo:

...mila urtetako isiltasunaren inguruan  
denok garen isiltasunean... (GZ, 51)

Baina ez da isiltasunaren tentaldia, nihilismoaren estetika Iturbiderena. Hemen, ordea, pausalekua aurkitu behar dugu hitzen esanahia argitu beharrez. Isiltasun poesia deiturak gure artean besteetan ez duen esanahia hartu du. Isiltasun poesia deitzen diogu ezerezaren larridurak sortzen duen sentimendu lazgarria adierazten duenari, eta zentzu honetan erabili izan da Atxagaren poesia definitzeko, horrek aldatu baitzuen poesia idealistaren zentzua era honetan: poesia idealistak Jainkoaren hitza adierazi nahi bazuen, metafora erabiliz, metaforan gorpuzten baita idealistek errealitate bikoiztuaz zuten iritzia, Atxagak haren ordez ezerezak sortzen duen isiltasuna komunikatu nahi du, eguneroko hizkuntza ironikoa erabiliz. Beraz, Jainkoaren hitzaren ordez heriotzaren isiltasuna kokatzen zen poesiaren helburutzat.

Hori gure artean horrela izan bada, ez da berdin gertatu beste toki batzuetan. Espainan, adibidez, isiltasun poesia deitzen zaio bizitzaren gorazarrea egiten duenari, eta omenaldi hori hain indar handiz, hain intentsitatez, horrenbeste gardentasunez egiten duenez, poema txiki agertzen da, ezerezatik hurbil, ia poema ez izatekotan sortzen da hitza.

Bigarren alde honetan kokatuko nuke Amaia Iturbideren poesia, baina ez diogu esango isiltasun poesia, baizik eta bizitzaren gorazarreko olertia baino. Bizitza, bere eskasean, bere edertasunean maite duen poeta bat da Iturbide, egia edo erro gisako hitzak berriro idazten dituenetarikoa. Bizitza maite du eta paisaiari dion maitasuna, hizkuntzari diona horren lekuko eta ispilu dira. Liluraren olertia da begi bistan jartzen diguna:

—liluraren mindurak joa,  
marrubia gogoratzen duen  
irribarre mazustaz zeharkatu... (GZ, 44)

“Liluraren ilusioak trinkotu” (78) du poesia hau. Eta pozaren eta ederraren olertia, nahiz eta sufrikarioa eta mikatza zer den ere artean-tartean agertu eta adierazi. Beste sentimendu pozgarria, ordea, nagusitzen da testuinguru honetan. Eta Eder da askatasun tornua, eta itxaropenaren leihoa, eta argi luzame-na, eta aro berrien errota-besoa (87. or.). Lizardik bezala esan dezake:

Ederra baita bizia...

Txikitasuna, beraz, lilura olerti edo bizitzaren gorazarre olerti bihurtzen da Amaia Iturbideren ele epelean.

Badugu garaia irudimen brokatu hau zehazteko eta bere nondik norakoak ikustatzeko, ikusteko zein mintzaz maitemindu den. Amaia Iturbidek zuzen adierazten du zein den bere sinbologia mundua.

Nire sinboloak lehengaiak dira... (GZ, 78)

aitortzen du poema batean, eta berean aipatzen ditu lehengaiak diren sinbolo horiek:

...burdinak bizitzaren suak moldatuak ...  
liluraren ilusioak trinkotuak,  
egiak eginak eta egonak... (GZ, 78).

Baina bada bat, poema honetan aipatu ez arren, denen gainera nagusitzen dena: ibaia. Ibaia eta ura irudi nagusia da poemategian. Sinbolo honen aurrean bide bi zabaltzen zaizkigu. Batetik sinboloaren zabalera aztertzea litzateke gure lana, eta orduan ikusiko genuke sinboloa nola den beti konstelazioa, ez sinbolo bakarra. Ibaia, ura da, eta malko bihurtzen da, edo itxaso, eta ur zipriztina, edo ur-isladazko mogimendua. Sinboloaren formekin egingo genuke topo, baina ez dugu hori garrantzizkoena, asko baitira testuan sinbolo horren formak. Bigarren bideak esanahiari begiratuko lioke, eta testuan zehar sortzen diren identifikazio eta loturak hartuko litzuzke kontutan.

Auden-en lan bat jarraituz, Iñaki Aldekoa kritikaria izan da uraren sinbologia euskal poesian ikusi duena. Txillardegiren *Haizeaz bestealdetik* nobela lirikoan bazen ja uraren sinbologiari buruzko agerpen esanguratsua. Txillardegik itxaso eta lakua kontrajartzen zituen nobela horretan eta esanahi desberdina eman bakoitzari. Itxaso, egonezina eta askatasun-nahia bazen, lakua moldakuntza eta menperatuaren sinbolo bihurtu zuen. Gerora, uraren sinbologiak erabilpen zabala izan du euskal poesian. Txillardegik itxasoari emaniko esanahiarekin agertzen da ura Sarrionandiaren olerkigintzan, eta Felipe Juaristik erotismoan gertatzen den senaren galera adierazi nahi duenean ibaiaren sinboloa erabiltzen du. Bestelakoa da Amaia Iturbiderengan, sinboloak esanahien multzoa hartzen duelako.

Dena den, Amaia Iturbideren ustez, sinboloak duen zabalera osoa aintzakotzat hartzen badugu, logika osoz, ikusi behar dira liburuak moldaturiko gai nagusiak, gaitan ez ezik, sinbolo mailan ere eta horiei begira sorturiko tajua hartuko du ibaiaren sinboloak.

Hasteko, poetaren definizioa da ibaia, bere iribarrea “berez doan ibai mantsoa” (17) den neurrian, eta bera “urrezko haria” (30).

Baina kontrajarpen paradoxal batean, ibaia errodunaren adierazpide bihurtuz aurkezten digu Iturbidek:

Erroa da dakiena  
bere biziak ibai egiten... (GZ, 79)

Bere bizilaguna goratu nahi duenean ere ibaiaren metafora erabiltzen du:

Eramaten uzten ez den ibai oztana da  
nire bizilaguna... (GZ, 84)

Poeta bera ere, erotismo unetan ibai bihurtzen da:

...nire ibai hariztatuak hire gerri inguruan... (GZ, 21)

Pertsona-definizioa eta erotismo-uneen gainetik, ibaiak badu beste zeresan sakona. Paranomasiaz eta hitz jokoagatik baino ez bada, ibaia, ibilia eta ibilialdiarekin lotua da poemategian, bidaiarekin, hain zuzen. Eta badakigu ibiliaren eta bidaiaren inguruan tolestu dituela Iturbidek hainbat poema, hala nola “Bidenabarretik bidenabar” (41), edo “Bizikletaz nembilela” (42).

Ibaia bidaia delarik, egonezinaren eta orainaldiaren, unearen eta denboraren joanaren sinboloa da, denbora bera ere urezkotzat baitu idazleak (16).

Bidaia testuaren hari nagusia bada, hizkuntza bestea da:

Udako mintzaz maitemintzen naiz... (GZ, 27)

aitortu duen olerkariak mintzaira errekatzat hartzen du eta besarkada estu batean, irudi nagusi horren magalean biltzen ditu ibaia, bidaia, denbora eta mintzaira.

Ibai bat  
hitzez bide egina eta  
mintzoaz bideratua... (GZ, 19)

Hau honela bada, hitzezko ibaia ez litzateke olerkariaren nortasunaren islada soilik izango, nortasunaren eta emaitzaren (poesiaren) metafora izango litzateke ibaia, osotasunaren zirkulu.

Amaia Iturbideren poesia esperientziaren poesiaren inguruan moldatzen da, bizipenen poesia egin nahi duen neurrian. Eta neurri horretan Iturbidek poesia horren idazkeratik hainbat taiukera hartu ditu.

Kera autobiografikoa izango litzateke azpimarratzeko gendukeen lehen ezaugarria. Autobiografia, edo barne biografia lehenago deitu dudan moduan, esperientziaren lehen pausua litzateke, eta honetan berdin dio poeta benetan ari den bere egiazko bizitza adierazten edo, alderantziz, nitasunaren irudi fikzionala sortu duen, irudimenezko bizitza, alegia. Autobiografia sortzeko orduan, beraz, nahikoa da olerkariak, egiazkoa izan ez arren, irudi sineskorra sortu bada. Autobiografia batzuetan bizitza da, beste batzuetan maskara eta mozorroa. Batzuetan idazleak erabiltzen duen ahotsa berea da, beste batzuetan pertsonaia batena. Espainiako esperientziaren poesiaren barnean burua kokatzen duten idazle gazte askok esan dute beraien testuetan agertzen den ahotsa ez dela idazlearena, pertsonaia batena baino. Baina hau erdizka da egia, eta erdizka gezurra. Gezurra liteke beti pentsatzen bada, ahots horrek ez duela inoiz idazlearekiko loturarik ez zerikusirik. Garbi dago idazleak baduela erantzunkizunik testuan, ahots (faltsu) hori sortu duen unetik, nahiz ahotsa izan ez berea. Fikzionalizazio gertatzen da poesian, eta neurri horretan da erdizka egia, baina beti idazlearen asmoa betetzeko asmoz. Antzaldaketa prozesua egin ohi da aitorpen erromantikotik ihes egiteko. Baina autobiografia

egiten duenak badaki bizitza ez dela zuzenean igarotzen testura, eta olerkia beti dela artefaktoa, artez eta moldez eginiko lana. Amaia Iturbideren lanak benetako autobiografiaren antza du, aitorten tonua erabili duelako poetak, eta horrela fikzionalizazio txikia erabiliko luke bere testuan. Hau nabari dezakegu ikusiz gero nola moldatzen den autobiografia poetaren erretratu. Nahiz eta erretratu poetikoa eskaini, Amaia Iturbidek bere buruaren definizioa etengabe ematen du testuan:

Egun aldakorraren zati bat naiz... (GZ, 30)

Koma bat bezain garrantzitsua naiz... (GZ, 42)

Oin geldiko bidaiaria naiz... (GZ, 49)

eta abar luzea. Montaignek esan zuen bezala, Amaia Iturbideren liburu honetaz ere esan dezakegu: “Beraz, irakurle, nerau nauzu nire liburuaren gaia”.

Nitasunaren adierazbide gisa har dezakegu liburuak duen intimismo joera, zeren Iturbidek ez baitu egiten bere benetako erretratua, bere barne izaeraren berri ematen digu, eta errealitateetik urruntzen den eta sinbolora hurbiltzen den neurrian hartzen du testu honek bere sakontasuna.

Intimismoaren bidetik egin da lexikoaren aukera, txikitasunaren ildotik doana. Begira beza irakurleak zenbatetan ematen duen Iturbidek gauza txikien berri, nolatan agertzen den animalia txikia bere poesiaren edergarri, zelan jokatzen duen zehaztasunarekin. Berebiziki gogoan du Iturbidek objektu otzana, animalia apala, bere bizitza ere apala delako, azken finean.

Enumerazioa, pilaketa da idazkera honen hageatariko bat. Usu erabiltzen du espresatera hau olerkariak, anaforaz osatuz poemaren egitura. Aipagarriena, dudarik ez dago, “J-ri” litzateke anafora oso eta bakar den poema:

Nire loa hire loaren paraleloan  
nire euriaren luzea hire euri orraztuaren jarraian... (GZ, 21)

Baina ez da bakarra, Iturbidek esaldi bakarreko poemak egiteko ohitura baitu, eta horrelako joskera mantentzeko berezkoa du enumerazioa erabiltzea.

Poetak berak adierazi du nola idazten duen testu bat eta zein den bere barnean kontutan hartzen dituen eraketa indarrak:

Nire poemagintza orokorrari begira, ardatzik nagusienak bi dira: musika eta arkitektura poema eraikitzeke eta jasotzeko, barne erritmoa eta barne egitura irmatzeko.

Barne erritmoa paranomasia erabiliz lortzen du, antzeko soinua duten hitzak elkarren ondoan jarriz lortzen den espresabidea genuke hori: loa paraleloa, ele epela, kukubarrea kukubilkatua, sakela edo sabela, lardaskatu lar das-tatu hitz pareek adieraziko lukete zein motatan idazten duen Iturbidek, zein



eratan hitz baten soinuak eskutik ekartzen duen beste hitz antzeko bat poetaren kalejira osatu arte, olerkiaren sokadantza egin arte.

Testuaren egitura egin orduan, Iturbidek aise erabiltzen du esanahiaren amplifikazioa, metafora baten argibidea, irudiaren azalpena. Begira dezagun “Lauaxetari” poema. Esaldi batek osatzen du testua. Olerkariak gudari txikiaren omenez eskaintza bi egiten ditu: esku bateko ortzemuga, eta herriaren golkoa. Eskaintza bakoitza aipatzen duen unean zabaltzen du olerkariak tartea eta irudien bidez osatzen du esanahia, ortzemuga eta golkoaren esanahia-ri mezu berriak eskainiz. Joskera honetan, definizioa bilatzen duen joskeran erlatibozko esaldiak eta partizipioak beharrezkoak dira, haietan kiribiltzen delako, okertzen eta dantzatzen, irudi bihurtzen Iturbideren idazkera.

### **Bibliografia**

ITURBIDE, A. (1986): *Eskaileraren bi aldeetan*. Erein. Donostia.

— (1992): *Itzulbidea*. Erein. Donostia.

— (1994): *Gelak eta zelaiak*. Erein. Donostia.

(1994): “Paisaia eta musikalitatea”. *Jakin*. 84, 125-7.

—: “Poesía y nacionalidad” (argitaragabea).

GARCIA MARTIN, J. L. (1993): *La poesía figurativa*. Renacimiento. Sevilla.

STEINER, G.: (1992). *Presencias reales*. Gedisa. Bartzelona.



INTERMEZZO  
IMANOL IRIGOIEN  
ARGIA, PINTURA ETA POESIA

Argia duzu aldakorra  
(*León Felipe*)

Poesia eta Pintura. Pintoreek izan dute, badute oraindik, ahuntz hizkera berezia, inpresionismotik eta modernismotik datorrena, deskriptiboa dena, eta askotan hitz abarrots hutsa bihurtu dena. Ez dago katalogo bat zabaltzea besterik, bat batean konturatzeko nolako handi-mandi nahiez idazten duten pintoreek. Baina aitortu behar da horien ondoan badirela beste artista batzuk pintura eta poesiaren arteko zubia zabaldu nahiez dabilzanak. Horien artean, Imanol Irigoien.

Itzul gaitezen berriro galderara: zergatik bilatzen da gaur egun poesia eta pinturaren arteko lotura? Zer ematen dio pinturak poesiari? Noraino heltzen da arteak duen lilura poesian? Saiatu gara lehen erantzun bat Amaia Iturbideren poesia aztertu dugunean: pinturak ez du jaso, ez du sofritu arteak izan duen ixiltasunaren enbata, eta, beraz, bere hizkuntzarekiko joera mantentzen du, bidea erakutsiz hitzarekiko konfidantza berrindartu nahi duten poetei. Agian, erantzun orokorregia litzateke hau Mendebaldeko arte eta poesiaren jarraipenarekin lotua dagoena. Bila iezaioegun pinturari beste biderik poesiari lotzeko.

Euskal Herrian, eta bere jarraibide artistikoari begiratu, bat-batean aurkituko dugu Oteizaren irudia eta horren hutsartearen teoriak sortu duen joera garrantzizkoa. Hutsarteak izan da euskal berezitasunak eremu artistikoan, eta politikoa erratu duen mitoetariko bat. Baina estetikoki hutsarteak esentzien bila abiatzen den joera litzateke. Hutsa, metafisika baten hausnarketa estetikoa da. Eta izan du erantzunik poesian, Gandiagaren bidez edo Juan Mari Lekuonaren eskutik. Hirurogeiko hamarkadan zeharo indartu da hutsaren estetika gure artean.

Baina laurogeiko hamarkadan bestelakoak dira kontuak, Oteizaren itzala oraindik ere pizturik egon badagoen arren. Gaur badu pintoreak zer esanik poesiaren alorrean. Pintura eta poesiaren arteko elkarrizketan badaude beste lotura bi Imanol Irigoienek poesian ikusiko ditugunak. Bata pinturaren hizkuntzarekikoa da, bestea poesiaren hizkuntzarekikoa. XX. mendeak ezer ekarri badu estetikaren alorrean hizkera figuratiboarekin egin duen hausdura izan da. Eta artistari (era berean pintore eta poeta denari) galdera sortzen zaio bat-batean: posible ote pinturan gertatu den figurazio birrinketa poesian? Eta ezetza hor du begi ninien aurrean ate-joka. Hizkuntzak badu, berez, konbentzio den neurrian, lotura ezin hautsia errealitatearekiko eta, zentzu hauskor eta aldakor honetan okerragoa dena, hizkuntza sortu eta erabiltzen duen gizartearekiko. Beste hitz batzuekin esatearren, hizkuntzaren indar erreferentziala pinturak dezakeena baino handiagoa da, hitza beti dago adierazten duen objektuari begira. Ez du honek adierazi nahi ez denik posible poesia abangoardista, surrealismotik irten eta tipografiaren irudiak erabiliz poesia egiten duena. Baina hitzaren erreferentzia beharrak bide bi baino ez ditu uzten: eta erreferentziarekin apurtzen du poetak, edo hitzaren esentziaren bila abiatzen da.

Esentzia hitza aipatzen den unean, sinbolismoa dator burura, edo, hobe esan, sinbolismoaren tratamendua. Poeta batek nahi badu abstrakzioa jo, hitzaren errailetan sartzen bada, eta, esaten den bezala, originala izatea origenera itzultzen bada, guzti hori egiten duena hitzaren mozorroarekin jolasten ari da, hitzari kanpoan duen azala kentzen dio, eta, fruitua balitz bezala, barneko izaera egiten du kosk. Kosk! eta koska bilatzen du poetak. Hau da hitzarekiko geratzen zaion irtenbidea. Hitzaren estetika bilatzea izango litzateke portaera hau, figurazioarekin eten egitea poesiaren hizkuntzarekin jolastuz.

Figurazioa desagertzeko biderik badago, pinturaren hizkuntza eta poesiaren hizkuntza biltzen diren tokian. Cézanne pintore handiari sor zaio XX. mendeko begiradak egin duen aldaketarik nagusienetarikoa. Honela deskribatzen du José Luis Pardo-k (1990, 74-5):

Hemos de decir que lo que el artista pinta es eso, la modificación, la diferencia, el cambio, la novedad. Si tiene sentido afirmar que Cézanne se propone “pintar la sensación” es justamente porque no se trata de pintar la cosa concebida como sub-stancia o como ob-jeto; hay que dar toda la razón al empeño típicamente filosófico por distinguir las cosas (substancias, objetos, identidades) de las sensaciones (diferencias, modificaciones); no en vano se dice que la sensación es una modificación (afección), una *modificación del sentido*.

Testu honetan aurkituko dugu Imanol Irigoienek liburuaren kaxoa. Argiari barne-distantziak aurkitzea, aldaketaren deskripzio egitea da, xehetasunaren alde jartzea, unoro-unoro sentsazioa zein den marraztea, zeren joan doa denbora ibaietako ura bezala. Horregatik doa aguro:

Gu bizi izan gintuen instantea... (ABD, 107)

Edo paisaia denborarekin duen loturan deskribitzen da:

Paisaia hegazia da.

Dena da paisaia  
hegaziaren hego saihetsean ...

habiaren  
errauts urratsetan. (ABD, 71)

Espazioa (paisaia) denbora bihurturik ematen zaigu liburu honetan eta hori da azken batean, pintorearen eta poetaren lana, sensiblea harrapatu eta kiribildu esferaren dantza amaiezinean, espazioan denbora geldiarazteko “Harri filosofalek” (ABD, 101) egiten duten moduan. Zein da, ba, artearen lana? Pintatzea eta idaztea txanpon baten aurpegiak dira, eta txanpon hori pentsatzea deitzen da. Horixe izan zen Cézanne-k asmatu zuena: unea lotuerazi egin zuen, sensiblearen bidez egunerokoa zenari zentzu historikoa eman zion, sentidukotik sensiblerara igaro zuenean. Hain zuzen ere, pintatze, idazte eta pentsatzearen batasuna lortu zuenean:

Si Cézanne puede “pensar” en pintura, pensar con cuadros, el filósofo puede pintar con ideas (con ideas adecuadas, esto es, expresivas) y el escritor hacer cosas con palabras. Pintar, pensar y escribir la Modificación, una y la misma, como modificación, como diferencia que comunica lo incommunicable, que permite a la palabra expresar (hacer pensable) lo impensable de lo pintado y lo inscrito, y a la pintura expresar (hacer visible) lo invisible de lo pintado y lo dicho. (Pardo, 1990, 130)

Hiru ekintzok (pintatzea, idaztea, pentsatzea) bat egiten direnean sortzen da hitz poetikoa, esentzien hitza, Irigoienek Poetika idazten du:

Poesiaren erraietan,  
betidaniko txoria... (ABD, 70)

Poetika honetan paradoxaz jokatzen da, oximorona sortuz, kontraesanetan dirauten kontzeptu bi batuz: txoria, esan dugun lez lehenago, aldakortasunaren sinboloa dugu, joan doanarena, eta neurri baten, ura eta txoria batuta agertuko lirateke. “Betidanik” hitzak, ordea, iraunkortasunaren esanahia adieraziko luke. Beste alde, “betidanik” hitzak kontzeptua azaltzen badu, “txori”k ikusgai, ikuskizun bihurtzen du kontzeptua, oximorona sensibilitatea sortuz, eta ez bakarrik zentzu mailan.

Hitzaren esentziaren bila abiatu da Irigoien, eta hitzaren esentzia esatea, edo gizasemearen esentzia edo gauza baten izaera gauza bera esatea da, hirurak sinonimoak baitira.

Esentziaren bila abiatzea, ordea, Klee-ren esaldia baiezte litzateke: “ren-

dre visible” egitea ezkutuan dagoena, eta ez “rendre le visible”, hau da, agerian dagoenaren deskripzioa sortzea. Horregatik arras desberdina da pinturaren deskripzioa egitea, eta pinturak sorturiko sentsazioa komunikatzea. Lehen joera kanpoalderantz begira dago, bigarrena, ordea, barnealderantz, espazio denbora bihurtuz, hitza ezkutua agerbide, esana, izana, eta hizkuntza sormen.

Taiukera horren aldekoa da Imanol Irigoien: ez du koadroaren konfigurazioa deskribitzen, ez du pinturaren kolorea poema-gai hartzen, kolore eta pinturaren arnasa eta bihotza den argia baizik.

Argia mistikan erabilitako sinbolo nagusia da. Eta eremua hain aparta izanez gero, hain izaera, eta izatasunarekin lotua, bide bi geratzen zaizkio poetari bere irudimena zabaltzeko: eta kontzeptu kontrajarrien jokua egiten du, edo hitzaren zentzu semantikoa erlazioen bidez zabaltzen du. Bestela esateko, kontzeptuak ardatz nagusi eta argi baten inguruan agertu, enbor gisa, eta, neurri berean, zuhaitz baten orriak legez, irudimen-erritmoaren hegada entzun.

Kontzeptuen enborra deskribitzerakoan, kontuan izan behar genuke lehenago esandakoa: Imanol Irigoienen poesiak iraunkortasuna bilatzen du adierazlegai, bizitza-heriotzaren arteko kontrajarpena hartzen duelako adar nagusi gisa.

Irakur bitez testu biok honen adierazgarri:

Gauzen esentziak  
—itzal luzeak bezala—  
ihes, ihesi doaz beti,  
    bakartiak,  
Herioren itzal more  
    luzeagoan  
izkutu arteraino... (ABD, 49)

Beldurrez eta ikaraz,  
pintatu nahi nituzke,  
zure eskuz,  
bizigabetik sorturiko  
argiak. Hilak,  
bizitzak bizitzari heldu  
nahi bailioan... (ABD, 87)

Bizitza argiarekin lotzen bada, heriotza iluntasunarekin biltzen da. Baina esaldi horretan gauzak garbi badaude ere, ez da horrela gertatzen liburuan, hain zuzen ere, gizabizitza iluntasunarekin konpasean dabilelako, eta heriotzera zuzenean doan gizakiak sinestu nahi luke azkenean bizitzak argi egingo diola, baina tartean, duda-muda eta zalantzan bizi behar du, den eta hiltzera (itzaltzera) doan unea biziz. Etsipena eta itxaropenaren arteko borroka da

liburuak azaltzen duena ere. Ilunpean bizi denak badaki argiak zabaltzen diola iraunkortasunaren zirrikitoa, eta itxaropenaren atea guztiz idigiten saiatzen da.

Argi eta ilun, bizitza eta heriotzaren arteko kontraesan bezala agertzen zaigu liburu zabalduz beste barik agertzen zaigun María Zambrano-ren esaldia: “He preferido la oscuridad ... como penumbra salvadora, que andar errante, sólo, perdido, en los infiernos de la luz”.

Oximorona, kontrako gehiketa, eta gainera, ingenioa, gogo zorrotasuna, pintzelada baten, poema labur baten ideien agertzeko, kolore berri bat (Van Gogh kolorea) asmatzeko, metafora zorrotzeko, poetika adierazteko, irudi bat zorrotzeko, eta mezua biribiltzeko.

Kontrako bilketa eta ingenioaren erabilpena pentsakizun barrokoaren agerbideak dira, izana eta antzaren artean mugitzen denaren mozorroaren antzaldaketan sinesten duenaren arimak. Irudiak trukatzeko, esentziak bilatzeko Irigoienek pintura behar du, pintura delako hitzaren alde ezkutuan estaltzen dena argitzeko bidea, ikusten denaren ate ostean gorderik dagoena azaltzeko modua, sinbolismoaren neurria:

Quando las palabras no dicen nada, cuando los nombres no nombran, entonces los contemplamos como pintura, como paisaje, entonces *vemos* lo que decimos, y se dice a través del lenguaje, asistimos al nacimiento de un idioma que no es ya la designación de objetos pre-existentes ... la denotación de las cosas anestesiadas en la objetividad, sino la lengua de la sensibilidad, la lengua estética, como sentido, como sentida, que nos permite observar la palabra como si se tratase de un signo de un dialecto desconocido: otra lengua, la lengua de otro, la lengua del Otro, en la que podemos presenciar el advenimiento del lenguaje en los confines de los nombres. (Pardo, 1990, 141)

Hori egiten saiatu da Irigoien eta horretarako ezinbesteko aitapontekoa aukeratu du: Done Joane Gurutzeko. Mistikoen argia eta ilunaren sinboloak usu eta aise erabili dituzte. Argiaren munduak eta ilunarenak zuzen bereiztu dute arimak Jaungoikoaren aurrean sentitzen duena. Baina ideia bakarra, identifikazio bakarra ez da nahikoa lana aurrera eramateko. Sinboloek, aberastuko dituzten, loturak behar ditu, lotura semantikoak, esanahia zabaldu eta aberas dezaten.

Done Joane Gurutzekoak lotura semantiko zuzenak aukeratzen ditu, gero mundu teologikoa osatu eta azaltzeko. Horrela, adibidez, argiak, argitasun, tximista, argitu, kriseilu, bero, su, gar, labe hitzak lotzen ditu Jainkoaren maitasuna adierazteko. Baina maitasunak beste sakoneran, graziaren indarra, galtze unea, Jainkoak sorturiko ahazmena, fedea, grazia, jakinduria adierazten ditu. Hitza, sinboloa ez da beraz, bakarrik agertzen, familia osoa eginez baino.

Beste horrenbeste esan dezakegu Imanol Irigoienen poesiaz ere. Haga baten inguruan sortzen dela, baina hitz sendia osatzen duela, sinboloaren esanahia ertzak zabaltzen dituelarik, mundu osoa sortu arte.

Argia da bere munduaren haga. Eta iluna haren itzala. Baina inguruan beste sinbolo batzuk agertzen ditu idazleak. Aldarkortasuna argi eta itzalaren aldaketan ageri bada, loturak naturako elementuekin lortuko du poetak. Aldakorra da itzala, aldakorra ura, eta naturaren erritmoa. Ez da geldirik itzala, eguzkiaren adu geldiezinean, baina egoera berberekoak dira ibai, iturri eta itsasoak. Izadiaren elementu begetalek ere indartu egiten dute denboraren jarioak eskeintzen duen erritmoaren bidea. Eta normala denez mistikan, eta esentzia bilatzen duen poesian, erotismoa, bestearen gorputza, haren keinu eta soin-atalak sinbolo bihurtzen dira hitz-jarioaren etengabean.

Sinboloa kiribilduz, zabaldu egiten da etengabe. Baina laster guztiak hartzen du ritornelloaren itxura. Izenburu antzeko duten poemak erraz dira aurkitzen (“Argi ehortziak”, “Argi Jaulkia”), pintoreei eskeiniriko lanak sailez sail agertzen dira (Vermeer, De Chirico, Luis Fernández, Cristino de Vera), gai semantikoak ageri eta ezkutu egiten dira (Altziferra, Pikondoa), ideia batek sarri izaten ditu erabilpen bakarra baino gehiago.

Hagaren inguruan itzulika dabilen estiloa da Imanol Irigoiena, argi eta itzalaren arteko dialektika errotaren borobiltasunean ehotzen duena.

Horrenbeste miresten duen María Zambrano-ren estiloari begiratzuz gero, gehien batean, estilo “musikala” dela aipatzen dute iruzkin egileek. Zambranok behin eta berriro, elipsiaren mugetan kokatzen da, kiribilean, errotaren erritmoan. Sortu eta desagertu, indartu eta urtu, joan eta etorri darabiltzan gaiak aldakortasunean bizi dira Zambrano-rengan bere filosofiaren erraia orain aldi, une bizituan oinarritzen delako, eta horrela nahi luke filosofariak gaurko munduaren enigma den etorkizunaren aurreko bildurra deuseztatu.

Sinfonia batean gertatzen den bezala gaiak agertuz eta ezkututuz dabilta Imanol Irigoienek lanean, egitura musikalean bukatu arte. Sinbolismoak beti defendatu du poesia eta musikaren arteko elkarkidetzeta. Horrela egiten du Irigoienek ere. Poemategia ixtera doanean, Irigoienek bide tradizionala hartzen du zirkulua bukatuz. Pinturak eta Poesiak Musikan aurkitzen dute bere pausalekua. “Peter Gabriel”, “Isilun-konpasean” eta “Kadentziak” poemek adierazten dute nola lotzen diren hiru arteek sentipen bakarra sortu eta osotzeko. Musika uraren musikarekin batzeko, eta beste aldera heltzeko:

...muga berriak iragan azken mugek neurtu ahala  
—mugaren mugek gainezka—,  
horizonteko esfera eskergaren ahurgunean ibaika,  
arginabar etengabeak urratzen duen ibaiertzean. (ABD, 112)



Mugaren mugetan aldakortasunaren argia aldakortasunaren soinu bihurtzen da. Biak daude muga-ertzer begira. Biek azpimarratzen dute giza-esistentziaren tentsio nagusia, badakigu argia badela bere edertasunean, baina aldian aldikoa bizitzera kondenaturik gaude Sánchez Rosillo-ren poema hark gogoratzen duen moduan:

Vedlo ahora  
cerrar los ojos y escuchar la música  
que comienza a sonar y da a su pecho  
consuelo y alegría.  
Va adentrándose  
en una mansa luz, y poco a poco  
la misteriosa claridad lo lleva  
a remotos lugares. Vagamente,  
su espíritu recuerda como en sueños,  
la original pureza, aquella gloria  
que tuvo y que perdió ...  
Mas termina la música, y regresa  
de repente a su cuarto.  
Abre los ojos  
y es invierno otra vez. La noche avanza.  
Hace frío. Ya es tarde. Afuera llueve.

Tentsio berdinean bizi da Imanol Irigoien eta horren testigantza da bere liburua.

## **Bibliografía**

- IRIGOIEN, I. (1988): *Argiaren barne distantziak*. Erein. Donostia.
- ARRESE, G. (1989): "Imanol Irigoien". *Argia*. 1232. 1989-II-12. 49.
- ARZELUS, X. (1988): "Imanol Irigoien". *Hemen*. 1988-XII-23.
- ITURBIDE, A. (1990): "Pinturaren eta poesiaren arteko ortzadarra". *Hegats*. 3. 29.
- ITURBIDE, A. (1993): "Adjetibizazioa J. Irigoieren ... ". *Jakin*, 74, 129-135.
- ITURBIDE, A. (1990): "Argia eta itzala hizlari". *Egunkaria*. 1990-XII-22.
- JUARISTI, F. (1989): "Itzalaren obsesioa". *Zabalik*. 1989-XII-27.
- KORTAZAR, J (1990): "Argiaren arnasa". *Correo*. 1990-III-1.
- M. A. (1989): "Imanol Irigoien". *Eguna*. 1989-XI-2.
- X. X. (1989): "Argiaren barne distantziak". *Hemen*. 1989-XI-3.
- X. X. (1989): "Imanol Irigoien, adinaren argiaren atzetik". *Zabalik*. 1989-XI-1.
- FERNANDEZ LEBORAN, M.<sup>a</sup> J. (1978): *Luz y oscuridad en la mística española*.  
Cupsa Editorial. Madril.
- HEIDEGGER, M. (1982): *Arte y Poesía*. FCE. México. 3. argit.
- PARDO, J. L. (1992): *Las formas de la exterioridad*. Pre-textos. Valentzia.

- PARDO, J. L. (1990): *Sobre los espacios. Pintar, escribir, pensar*. Serbal. Bartzelona.
- ZAMBRANO, M. (1993): *La razón en la sombra*. Siruela. Madril.

## JUAN RAMON MADARIAGA MUNDU EGIN ZEN SINONIMOA

### 1. Sarrera orokorra

Juan Ramon Madariaga, Bilbon jaiotako poeta (1962-12-19). Aitortzen duenez gurasoek ez zioten euskararik erakutsi, baina bere aldetik ikasi eta Euskal Filologia ikasketak burutu ditu. Orain Deustuko Unibertsitateko Euskal Irakaslegoko irakaslea da.

Hiru poema libururen autore dugu, nahiz eta hirugarrenak argitarazio bi ezagutu dituen. Lehena, *Imentzioaren pergamuak* (1989) deiturikoak Bizkaiko Foru Aldundiaren saria jaso zuen 1988. urtean. *Galera errepikatuak* olerti liburuak 1992. urtean ikusi zuen argia Susa etxearen eskutik. Hirugarrenak bizitza azoratsuagoa eraman du. Imajina ezazu Euskadi saria jaso zuen 1989. urtean, eta argitarazio bi egin ditu egileak. Bata, zabalkunde eskasekoa, saria antolatzen duen Banketxearen eskutik. Kasu horietan ohi den bezala, testua besterik gabe ematen da argitara, ahalik eta merkeen. Bigarren argitarazioaren lana egileak berak hartu zuen eta Deustuko Unibertsitateko argitaletxeak jarri zuen liburudendetan. Liburu honen aldaki biek hainbat desberdintasun agertzen dituzte, batzuk garrantzi bakoak, denak deigarriak.

Deigarriena, zalantzarik ez horretan, tituluaren gertatzen da. *Elaien ausardia* deitzen da liburua, berez, eta hola agertu zen lehen argitarazioan, aipatuz baina, “Itsasuntziak ozeanoetan bezala” zela lehiaketan erabiliko lema. Bigarren argitarazioan, berriz, idazleak patuari aurre ezin zaiola egin eta, izenburua eta lema biak bateratzea erabaki du. Eta orain liburua *Elaien ausardia edo Itsasuntziak ozeanoetan bezala* deitzen da.

Hiru aldaketa nagusi ikusten ditugu argitarazio biak gonbara ezkekitino, hiru aldaera nagusi ziurtatuko ditugu: aldatu egiten dira liburu sarrerako zitak, lau poema berri esanguratsuak (hiru liburua bakoaren bukaeran daude) gaineratu dira eta eskaintza bat gehitu da. Halaber, aldaketa txikia dago poemenean.

Zentzuzkoa da testutik kanpo eta ataburuan ipiniriko ziten aldaketa. Lehen edizioan Octavio Paz-en testuez lagundurik agertzen zen *Elaien ausardia* eta bigarrenean Jenaro Talens-en poema zatiez. Jenaro Talens agertzen da ere *Galera errepiatuak* liburuan agertzen den “Ele Kodeak Inskripzioak” sailean.

Juan Ramon Madariagak, beste poetek ez bezala, bere poema liburuen gai, asmo, amets, aiduru, eta gogoak beste poeten ahotsez ematen du. Esaldi berriro irakurriz ikus genezake xehetasunen zain geratzen dela. Bi behar lituzke, behintzat. Bat: hori ez dela gertatzen lehen liburuan, edo alderantziz, poetak poeta izatearen konszientzia hartzen duenean hasten dela teknika hori bere fruituak erakusten, eta bi: ez dira bestelakoak ere falta.

Idazle honen poetika definitzerakoan, esaldi bi azpimarratuko nituzke, zalantza handirik gabe. *Imentzioaren pergamuak* liburua sarreran agertzen zaigu bata:

Ni ohizko gaietaz mintzo naiz: biziaz, amodioaz, heriotzeaz eta bereziki naturaz, hauek baitira idazlearen odola eta eidola.

Bestea, pixka bat ostondurik, *Galera errepiatuak* liburua solapan utzi digu idazleak:

Migrazioak beti esaten dit non nagoen.

Has gaitzen hasierako esalditik. Lehen begitandu batean, abangoardiaren aurkako aitopena dela dirudi.

Baina Juan Ramon Madariagaren biografia den lurrean atzazkalez urratuz gero, autobiografia agertzen da poesia honen erro eta oinarri. *Imentzioaren pergamuak*-en eginiko eskaintzak: “Nortzuoi eta aita-amak zirenoi”, argi uzten du emozio shock baten ondoren, gurasoak gaisotasun latz baten ondorioz galdu ondoren idazten duela. Heriotza gai nagusia da liburuan, maitasuna, maitasun hurbila den bezala.

Autobiografia, beraz, gai eta teknika suertatzen da liburu egile honengan. Joera giltza da testugintza hau ulertzeko unean, zeren autobiografia gai nagusi bihurtu da gaurko olertian.

Autobiografikoa da bigarren esaldia ere. Juan Ramon Madariaga mendizalea da, izadia gai nagusi gisa poesian agertzea esplikatuko lukeena. Eta gainera, bizi zertzelada moduan utz dezakegu hemen, 1993-1995 epean Txilen bizi izan da laguntza proiektu batean parte hartuz. Migrazioan ari den pertsona da. Baina esaldiak bere mezuaren besarkada esanahi zabalago batera garamatza. Hesperide berrien bila abiatuiko poeta baten aurrean gaude, urduria, ezinegona, konformagaitza eta, gainera, beste mundu batekin amesten duena. Joan eta etorrian, bere burua beste egoera batetan jarriz lortzen du idazle honek bere oreka. Poesiak bera egiten duen antzera, migrazioak

ematen dio oreka. Joera honetan ez da bat ere zaila, Sarrionandia edo Bernardo Atxagaren lanetan agerturiko antzarren zantzuak entzutea poemategian.

Autobiografia ispilu borobila da izatez. Ez da soilik anekdota (nahiz eta heriotza bezain lazgarria izan) poemaratzea; irakurlearekin hitzarmena sortzea da; anekdota fikzio bihurtzea; anekdota ahots antzaldatzea. Amaia Iturbideren lana irakurri genuenean gai honekin egin genuen topo, eta hangoa ez badugu errepikatuko ere, gogora ekarri nahi genuke nola osatzen den ezau-garri hau poesia figuratiboan. Autobiografia ez da norberaren bizitza zuzen kontatzea, zuzen poema bihurtzea, sorkuntza literarioaren galbaetik igaro ondoren gertatzen da autobiografia.

Batzutan, nola ez?, lotura estua da, eta poeman agertzen den datua (aitaren heriotza “Urriak 20” poeman adibidez) poetaren beste testuetan (liburuaren eskaintza) edo idazleari eginiko elkarrizketetan aurki dezakegu, hau da, testuan zein testutik kanpo. Beste batzuetan, hitzarmen autobiografikoak ez du benetako izatea agintzen, sineskorra izatea baino, eta badira kasuak zeinetan idazleak bere autobiografia asmatu duen. Edo, urrunago joanez, testuan idatzitakoa berea ez dela baieztatu duenik.

Egoera paradoxal honek argi uzten du zein den autobiografiaren gakoa. Batetik, fikzioaren barnean bere autonomia izan zezakeen ahotsa dago, idazlearen bizitza asmatzera heldu arteko autonomia. Baina bestetik, fikzio eta errealtatearen arteko jokoan, idazleak ezin du ukatu idazten duenarekiko ardura eta erantzunkizuna. Autobiografia, banaketa honetan, testuaren barnean kokatzen da, historia baten moldaketa da, lehen pertsona erabiltzen duena, baina batzuetan egiazkoa bada ere, besteetan sineskorra besterik ez da. Beste adibide biz bukatu nahi nuke arazoa. Miguel D'Ors poetak seme-alabak gaitzat hartuz hainbat poema idatzi ditu, nahiz eta bera komentu bateko nagusi izan, beraz autobiografia asmatu baten kasuan ginатеke. Gil de Biedma-ren kasuan, ordea, bestelakoa gertatzen da, bere poemetan aurkitzen ditugun datuak beste iturri batzuren bidez konproba dezakegu.

Non kokatzen da Juan Ramon Madariaga? Bigarren honengandik hurbilago, noski. Madariagak ez ditu bere poemen oinarri diren bizi zertzeladak asmatzen. Baina, autobiografiak baliatuz berea ez den ahotsa sortu du. Poemategian nortasuna dago galdezka eta nortasun horrek ahotsa egin egin du. Galdezka ari den nortasunaren izpia hartzen dugu *Galera errepikatuak* zabaltzen duen Benedetti-ren poeman. Hiru mezu-ardatz nagusitzen dira testu horretan, gero Juan Ramon Madariagaren testuan itzal erraldoiak bezala agertuko direnak. Heriotzaren presentzia da lehena, edo esaldia pixka bat finduz, hil den norbaitek utzi duen ausentzia; heriotzaren ondorengo bizibeharraren gogo da bigarrena, eta ausentzia presentzia bihurtzen duen hitz poetikoaren asistentzia da hirugarrena.

...ni que me atreva a preguntar si cabes  
como siempre en una palabra.

Hitz poetikoari buruzko galderak zabaltzen ditu autobiografia poesia bihurtzen duen goizalbak. Balizko sua izango genuke hemen hitz egiten, poesia sortzen, barneko mina irakurleari eskaini eta ematen. Bere lehen liburuak adierazten duenez “imenzioa” dago hemen, esan nahi baita, “inventione”a, asmazioa, fikzio bidea.

Adierazi dugun moduan, imenzioa ez da argumentu aldetik sortzen, ahotsa da, batez ere asmatzen dena.

Luis García Montero-k idatzi duenez, “poesia idazteko orduan jakin behar da genero poetikoa gezurra dela”, eta gezurraren bidez fikzioaren bidez hel ginateke egiara. Egia da ahots asmatu baten bidez heltzen dela Juan Ramon Madariaga bere sentipen sineskorra adierazi eta irakurleari ematera. Ahots horrek baditu bere tonu oso bereziak.

Lehen irakurketa batean Sarrionandiaren hatsa nabari du irakurleak, laino hots baten antzera orri eta sentsazio poetikoak melatzen. Hor dira marinel zaharrak, haren epigrama baten bariazioa, eta bidaian abiatzeko beharra. Egia da, hala ere, abiatzeko beharrak gorputza hartzen duenean, B. Atxagaren antzarren itzala igaroko dela umea balitz bezala, orrialdearen zuritasuna ilunduz.

Eszenografia soilik ez da Sarrionandiarena. Badago iparraldeko hitzekiko berebiziko miresmena Madariagarengan. Badirudi Iparraldeko hitzak errespetatuz ezeze miresmen eta goresmenez tratatzen dituela, berez-berez hitz bakoitza erregistro poetiko jasokoa balitz moduan. Inguruetara adituz gero, zuberotaletasuna darie Bizkaiko hiru poetei: Sarrionandia, Madariaga eta Berrizbeitiari. Azalpen ugari eman da zaletasun hori ulertzeko asmoz. Sinesgarrienak dio desorekaz joketzen dutela idazleok. Bizkaiko lurraldea industriak janda dagoelarik, hiriak hanpatua, giza-masak pertsona irensten duela, bada poetok konpentsazio bidea aurkitu dutela muturrera joaz. Bizkaitik Zuberoara, industria moldeetatik lar usaintsura, industrialdeko infernutik paradisu nahi izanera.

## **2. Hiritik izadira**

Hiruren jokamoldeak ez dira berdinak, baina erraz banatzen bada ere Madariagaren joera estetizista Berrizbeitiaren arkaismotik, Sarrionandiaren oreka Madariagaren irudi lausotik, hirurek dute aitaponteko bakarra: Jon Mirande, Sarrionandiaren lehen lanari begiratzen badiogu, behintzat, eta honengandik etorri dira ondoren beste biak, bakoitza bere adierazkortasunarekin.

Estetizista, lauso, biguna da Madariagaren begirada. Ahotsa sortu egin du, ahotsa esakera, moldakera bihurtu arte. Madariagarentzat hizkera poetikoa

langintza da, eta neurri baten zaletasun baten exagerazioa liteke. Ezin du bere lanaz esan, poesia hizkuntza harrigarria ez denik. Beste poeta batzuentzat poesia giza hizkuntzaren trataera pertsonal eta zehatza den bizkitartean, Madariagak gurago du bere joera harrigarria era pertsonal eta zehatzez aurrera eraman. Neurri baten ez zaio arrazoirik falta. *Maniera*, esku-era berezia lortu du, egoki ikusten du bere burua lan estetiko horretan, etekinak ateratzen dizkio. Esan nahi duena garbi eta garden, txukun eta zoli geratzen zaio, oskarbia da poesia honen bidea, eta agintzen duena eskaintzen du.

*Petit poète*, Koldo Jule Garaik nahi duen moduan? Ez, segurki. Nitasunaren erroetara abiatzen den poeta da Madariaga, poesiaren indarrean sinesten duena:

Poetikaren arkitektura.  
Poemaren angelutik at  
deuseztatzen da mundua  
eta koloreak barreatu.  
Erran nahi baita  
karraturen direla  
nire penak eta loriak,  
nere kexa eta ahagorak.  
Eta hori perfekzionatzera  
deliberatu baitut,  
poema angeludunak  
izkiriatuko ditut.  
Zuretzat.  
Poemaren angelutik at  
ezpaitago deus. (EA, 23)

Kuriosoa da boliaren dorrearen aldeko aitortpena! Tocqueville-k adieraziko lukeenez gizakiak gizakiaren alde egiten dueneko fenomeno bi gertazen dira: publikotik urruntzea eta pribatasunera erretiratzea. Zu batek lotzen du idazlea kanpo munduarekin. Zu batek eta izadira begira geratzeak. Helena Bejar-ek idatzi duenez, gure garaian nitasunaren kultura zabaldu da. Horrelakoa ote da Juan Ramon Madariagak eskaintzen duena? Ez nago ziur. Nik uste, indibidualismotik baino hurbilago dago ikuspegi ezezkorretik. Tonu bakarreko poeta dela dirudi, behin eta berriro gai, teknika, hiztegi poetiko berdina darabilena joan-etorri musikalean. Nitasunaren kulturaren gorderik dago? Ala gurasoen heriotzen ostean bere barne gazteluan kokatu da, bildurrez? Heriotzaren aurreko larridurak osatzen du mundu poetiko honen mapa. Eta nitasunak heriotza, munduaren deuseztapena, denboraren jarioaz ari den artean, zu hori ez da munduarekin duen lotura bakarra. Bihotza zabalik duela bere sufrikarioa erakutsiz, giza existentzian den misteriorik nagusiarena —heriotza— ulertzen laguntzen digu, ez baita alperrik falta Madaria-

garen liburuetan indibidualismoaren ezaugarri nagusi den hedonismoaren aztarna.

Egia da, halabaina, bakartia dela liburu hauetan agertzen zaigun intimitatea. Barnekoitasunaren eremua bost lore nagusiz hornitua dago. Kontzientzia honen lehen hornidura egiazkortasuna da: Madariagarentzat eremu poetikoa bere nortasunaren sortze tokia litzateke, eta toki honek kanpo alde zemaiti baten aurrean babeska eskaintzen du. Bigarrena, norberaren heziketa tokia da intimitatea, eta alde honetatik Madariagak bere poesiak galderaz osatzen ditu. Hirugarren hornidura ziurtasun dei dezakegu, intimitatea afektoaren eta xamurtasunaren egongela bihurtzen da, eta norberaren buruaren orekagile, eta horren aurrean Madariagak bere barnean aurkitzen duen kontenplazio tokia ematen digu. Laugarren hornidura intentsitatearen tokia da, lagunak (“Nota bene” poemari jarritako eskaintzekoak bezala) eta maitea (“Zu beti present hori”) hartzeko tokia. Azken hornidura, askatasunaren lerroz marraztua dago, eta bere aurrera heldzerakoan eta hari begira gelditu, Madariagak bere sentimenduak eta bere izaera adierazteko joera erakutsiko du.

Nortasunaren sortze, heziketa toki, galdera egile, maitekor eta askatasun eragile den neurrian ez da bakartia eta ustela Juan Ramon Madariagaren poesia hori, neurri honetan bihurtzen da ulerker, eta irakurlearen arazoetatik hurbil.

Nitasunaren poesia hau poema txikien zalea agertzen da, ez da maite abarrotsa, xurxulatu egiten du, ez du atsegin azentu handia, detaile txikiekin konformatzen da, ez ditu gogoko ideia nagusiak eta keinu anpulosoak, babes txikiarekin pozik ikusten du bere izaera. Txikitasunaren poesia talde honen ibilbidean konstantea dela esan genezake, behin eta berriro aurkitzen dugun joera. Moldakizun honek ez du interpretazio bide bakarra, anitza baizik.

Txikitasuna pertsonaren ikuspegiarekin lotuta dago, hasteko. Isaiah Berlin-ek askotan salatu duenez XX. mendean triskantza handiak egin dira ideia handien izenean. Guzti horrek sorturiko izutik ihes egiteko idazleari geratzen zaion esparrua ideia txikiena da, norberaren mundu babeskorra. Historia lehen pertsonan bizi dugu, eta ziurrenik ez dago beste biderik. Baina, García Montero-k gogoratzen duenez lehen pertsona historiaren emankizuna da eta ez hodeietatik jausiriko aingerua. Historian gertatzen den izakia delako, da, hain zuzen, lehen pertsona erantzun teorikoa mito nagusien aurrean.

Txikitasuna bada ere, Fanny Rubio-ren ustetan, denbora arin bati emandako erantzuna. Modernitatea aurreko, iraganeko eta zaharraren ukapena bada, definizio ezagunean, behintzat, gure garaian ukazio higidura horrek azelerazioa ezagutu du eta geroago eta tarte txikiagoa gertatzen dira ukazioak, dagoenaren iraupena ere geroago eta murriztagoa delarik. Arintasun prozesuari erantzuteko txikitasunaren poesia idazten da, arin doanari bat-batean erantzuteko asmoz.



Txikitasunak zatiarekin zerikusia du, fragmentoarekin. Bernardo Atxagak, bera da eta korronte europear honek gure artean izan duen oihartzunik garbiena, askotan esan du gauzak zatikatuak daudela eta hori dela bere izaera naturala. Modernitatean errealitatean gertatzen dena konplexua da, eta gaur ezin dugu dena bere osotasunean hausnartu, duen konplexotasunagatik, hain zuzen ere. Zatiari zatiarekin, fragmentuarekin erantzun zaio.

Zatia, ordea, kontzeptu nagusia da gaurko poesia aztertzeko, ez bakarrik praktikan gehien egiten dena poesia txikia delako, teoria mailan ere bere pisua handia delako eta gaurko poesiaren ibilbidean norabide asko markatu dituelako.

Spainako poesian aditua den Juan José Lanz-i kasu eginez gero, gaurko olertia eremu horretan bide bitan banandua ikusten dugu. Alde batetik, beste sentimentalitatea legoke, eta bestetik, zatiaren poetika. Zatia unearekin lotzen dugun heinean, lotu beharko genuke garbitasunarekin. Esatea ezinbestekoa denean, eta gainera asko esaterik ez dagoenean, garrantzizkoena esan behar du poetak: behar beharrezkoa duena. Neurri horretan, zatiak osotasuna lortu nahi luke une batean, osoa ahalik eta zatirik txikienarekin, gehiena adierazi nahi luke ahalik eta gitxienarekin. Eta tentsio dialektiko horretan betetzen du bere zirkulua. Osotasuna nahi eta zatia eskaini behar, tira-bira horretan zatiak isiltasunarekin egiten du muga. Pausu bat gehiago eta zatia isiltasun, ezereza bihurtuko litzateke. Horrela, zatiak hizkuntzaren absolutizazioa bilatzen du, zatian errealitateak sortzen duen lilura goraiatu nahi luke poetak.

Eta hemendik uler genezake Juan Ramon Madariagaren poesia zatikatua. Hizkuntza propioa bilatzen duen poesia da berea, eta errealitate baten —denboraren ihesaren— adierazpide bihurtzen dena.

Zatiak eta poetak ezaugarri bat dute elkar. Zirkulu baten barnean bizi dira: hizkuntza sortzen den zirkuluan.

Honaino, bada, poetika honen deskribapena. Hemendik aurrera lanaren irakurketari ekingo diogu.

### **3. Tradizioaren pisua**

Aipaturik geratu dira gorago zeintzuk diren Juan Ramon Madariagaren poetikak erabiltzen dituen gaiak, arrankurak eta asmo agerbideak. Hiru dira nagusiak: gurasoen heriotzak sortu dion sentipen latza, horretatik urruntzeko aukeratu behar duen babesa (maitasunarena eta adiskideena); eta izadiak sortzen duen oreka garrantzia.

Gaiak, betikoak. Espresio moldea, zuhur, laua, xamur eta bereizgarriz betea. Behar bada, espresio moldeetatik hasi beharko genuke gaiak nola funtzionatzen duen bere osotasunean ikusteko.

Poesia horretaz hitz egiten denean, bat-batean dator begietara hiztegiaren ñabardura. Zubererak utzi du laino ezti bat, gantzua orrialdeetan. Eta, horrela, hizkera arruntetik jasora igarotzeko erabiltzen da estetizismoaren kutsua duen hiztegia: inarrosi, arraildu, zohardi, xerloa, baratu, ziega, kanbor, estrosada... Hiztegi estetikoa: urrun, itzal gisa, Jon Miranderen keinua, urrunago Lauaxetak eginiko bazter-hiztegiaren aukera, eta joeraren iturri Rilke-ren joera estetikoa. Juan Ramon Madariagak, Berrizbeitiak egin duen antzera, Jon Miranderen hiztegiak baliatu da, baina, neurri berean edo handiagotan, hartu du kontuan herri-lirika, eta Iparraldeko —ez bakarrik Zuberoako— idazle zaharrak.

Baina hiztegia berezia bada, Berrizbeitiarengan ez bezala, ulergaria dela ematen du lehen irakurketan. Nondik sortzen da nolabaiteko paradoxa hori? Hiztegi berezia erabili eta, hala ere, ulergarria gertatu poema? Nire ustez, teknikatik. Oso teknika ximpleak erabiltzen ditu poemetan, edo, hobe esan, lehen liburu honen olerkietan. Normalean, Heineri bezala, lagungarri zaizkio paralelotasunak eta hirukoitzasunak, paralelotasunak poemaren bizkar hezurra taiutzeko orduan, eta hirukoitasunak bertsoa atontzea behar duenean.

Har dezagun, adibidez, “Urriak 20” poema, aitaren heriotza egunaz idatziriko poema.

#### *Urriak 20*

Ahanster dut eguna,  
non amaren besoetan hartzen ninduen loak  
non hondartza jolasteko desertua zen  
eta itsasoa munstroa,  
non losin batek pinpor-pinpor ipini zidan azala.  
Ahanster dut eguna  
non ene lonbardia gaztelu zuria zen  
non txori ttipi bat hil nuen tiroz  
non amodioak inarrosi zidan bihotza,  
baina ez dut ahantziko  
non ere bainago, nora ere bainoa  
nola negarrak ene musua arraildu zidan,  
nola uzteak ene gorputza ahuleziaz bete zidan,  
nola ezintasunak ene maina estali zidan,  
nola malurrak ama besarka arazten zidan,  
nola izarrik gabeko gauak heriotzaren  
oldarra ekarri zidan.  
Ez dut ahantziko nola  
arratsalde hartan betirako gero arte bat  
esan zenidan. (IP, 14)

Zerk egiten du poema hau ulergarri? Joskerak, arkitekturak. Paralelismo batek hasten du testua: “Ahanster dut eguna”. Zein egun? Haurtzaroko eguna.

Paralelismo horri beste bat kontrajartzen zaio: “Ez dut ahantziko”. Zer? Heriotzaren danbada. Gazte edo gizon eguna. Kontrajarpen sotil honek egiten du garden poema. Akumulazioak: nolakotasunaren zerrendak argitu egiten du testuaren esanahia, hitz ezezaguna delakoa kontestu argi batean kokatzen duelako, eta beraz, irakurleari irudituko zaio kontestu argia ulertuz, poema osoa (ezagutzen ez duen hiztegia barne) ulergarri egiten zaiola.

Hori da jokua poemategi osoan, pilaketaz kontestua argitu, hiztegia joskeraren menpe jarri eta poema sinonimoz, edo behintzat esaldi hirukoituz, edo hitz hirukoituz aurrera eraman.

Irakur ditzagun orain beste bertso hauek:

*Laguna dut maite*  
Laguna dut maite  
irri berdinez  
gaizkide,  
balizko menturretan  
errege ...  
Laguna dut maite  
goibel beroa, zabala,  
nehoiz  
peitu ez den  
anaia... (IP, 45)

Poema horretan, ahapaldi bakoitzaren barnean metafora bi jarri zaizkigu, “laguna” nor edo zer den adierazteko asmoz. Honela hirukoitasuna lortuko litzateke; laguna→ gaizkide, errege; laguna→ goibela, anaia. Inoiz prozedurak beste bide batzuk hartzen ditu eta pilaketak bere erritmoa ematen dio olerkiari:

Aita hil duk,  
liliak usteldurik,  
begiak herdoildurik,  
enbata belzturik,  
lanturua sakondurik... (IP, 56)

Ulegarritasuna, beraz, joskera jokoarengatik eta esaldi paraleloen pilaketarengatik sortzen da, hiztegia joko horretan peitua gertatzen delarik.

Badago iritzi honen aldeko beste frogarik ere. Iparraldeko hiztegi arras usu erabiltzen bada ere, ez da horrenbeste urruntzen morfologian edo adiztegian. Noiz edo noiz, Mirandek ere erabiltzen zituen “albaitator” gisako formak (IP, 29). Baina ez dira askotan erabiltzen joskeraren argitasunaren alde egiten delako beti.

Baina ez dira teknika aipagarri bakarrak horiek. Paralelotasunean oinarritzen den poemak zein ahapaldiak berebiziko itxidura behar dute, bukaeran

sorpresa agertu behar diote irakurleari, tentsioa, hemen adierazi nahi diren gai tentsioaren eta tentsio psikologikoaren adierazgarri. Normalean, bukaerak kontrajarpena edo paradoxa agertzen du, testua behar bezala ixteko, bertsolaritzan esango genukeen moduan, azken puntu harrigarri batekin bukatzeko.

Paradoxaren inguruan osaturiko poemak erraz dira aurkitzen liburu hone-tan:

Ene ohantzean agertu zinen  
ni besarkaturik  
goiz batean,  
eta ezin nuen besterik pentsatu,  
gauak asmatu eta  
egunak nereganatu zintuela  
baizik... (IP, 57)

non goiz, gaua, eta egunaren arteko jokoak baita poemaren osogarri eta ardatz. Baina itzul gaitezen “Urriak 20” poemara, eta begira dezagun testu hartan agerturiko azken bertsoen harridura puntua:

Ez dut ahantziko nola  
arratsalde hartan betirako gero arte bat  
esan zenidan.

Lehenago ere azpimarratu dugu, “ez dut ahantziko”k kontrakarga egiten diola “ahanstea” hitzaren inguruan sorturiko poema zatiari. Baina ez da kontraste puntu bakarra. “Nola” hitza, adibidez, eta hau litzateke joerarik txikiena, poema osoan bertso lerroaren hasieran agertzen zena bukaerara igaro da, zerbait garrantzitsuren mezulari balitz bezala. Mezu garrantzitsua “betirako gero arte” esaldiaren barnean dagoen kontraesana da, apika, zeren “gero arte”k beti adieraziko bailuke iraupenaren barneko etena, ez baitago betikoa den gero arterik. Baina elementu zuzen eta txikien gainetik badira beste kontrajarpen nagusi bi bukaera horretan. Bata aurreko esaldien pilaketa joera eta esaldi honen laburtasunaren artean egiten da, poema paralelismoz eta pilaketaz osatu den bizkitartean, erritmo jarraitu batean, esaldi honen sinpletasunak eta indarrak lo zorrotik ataratzen gaitu; bat-batekoa eta ertz bakoa da esaldia. Besteak badu zerikusirik Juan Ramon Madariagak tonuak erabiltzeko eta esku honez nahastatzeko duen jarrerarekin. Poemaren tonu nagusia estetiko eta literarioa izan da haurtzarotik orainaldira astiro-astiro zetorrena. Esaldi honek, ordea, eguneroko hizkuntzaren tonua hartzen du bere izaera gogorrean. Tonuen arteko kontrajarpenak osatzen du, ba, poemaren joera nagusia.

Poemen tratamendu ximpleak, egokituak, pertsonalak sortzen du heriotzaren aurreko begirada goibeldua, eta hala ere, hain zuzen, hain garden heltzen zaiona irakurleari.

Bai, heriotza omen da Juan Ramon Madariagak gehien aipatzen duen gaia. Poemak astiro irakurriz baina, ez da hori ageri. Gaien aldetiko munduaren ikuskera deskribitzerakoan, beste honelako sarea egin beharko genuke. Mundu ikuskeraren erdian Nitasuna dago, pertsona baten irudia marrazten dagoena. Bere balizko nitasunaz ez fidatzeko aholkatzen diguna, galduta galderaz beterik agertzen dena, amonaren kaideran eseririk beste inork ikusten ez duena ikusteko gai dena, bere barnekotasunaren etxeko hormetan idatzi ditu bere lehen hitz poetikoak:

Iraultzaren etorkizuna  
lizunkeria gogorrena  
perpausik lirikoena  
laido zuzena  
izenak, datak, hemen bizi dira ...  
Horma, gure baitako poetaren  
lehenengo papera... (IP, 23)

Nitasun horrek inguruan begiratzen du, eta inguruan hiru eremu nagusi aurkitzen ditu: heriotza, maitasuna eta adiskidetasuna, eta izadia. Maitasun gaiak, edo adiskidetasunari buruzkoak dira gehien erabiltzen dituenak Madariagak, gero izadiari buruzko gaiak. Heriotza gai harturik oso poema gutxi, lau besterik ez, agertzen dira poemategian.

Eta hala ere!... Eta hala ere, heriotza da gai nagusia, edo hori da behintzat liburuak nagusiki uzten duen inpresioa. Zergatik ote da? Hiru arrazoiren inguruan aurki genezake arrapostua. Lehena, liburua zabaldu egiten dute eta liburua bukatu. “Urriak 20” poemategiko bigarrena da, eta aitorpen lazgarriak irakurlearen gogoan irauntzen du liburua amaitu arte. Eta amaitu, “Itaun luzeak” deituriko poemarekin egiten du idazleak:

Zerendako ustegabeko heriotzak ditu  
aita ta ama zaharrak eramaten  
besarkatzen gaituen malurraz  
eta bakartasun iraunkorraz  
ohartzeko ezpada?... (IP, 58)

Bigarrenez, idazleak ez du kontsolamendurik aurkitzen. Nitasuna eta maitasuna ezezkorrak dira, eta giro ilun baten agertzen dira. Nitasunak bizitzaren zentzuaz galde egiten du eta ez du erraz erantzuna aurkitzen (IP, 27). Maitea urrun dago, eta ez du irtenbiderik eskaintzen.

Malurraren oldarrak  
sakonki nau punitu,  
zuk maite ez nauzunez  
ene bihotza duzu zauritu... (IP, 16)

Edo, inoiz, maitearekin izan bada ere ametsa, gezurra, ilusioa irudituko zaio pertsonari (“Ohea zimurtuta dago” IP, 23).

Izadiak ematen den irudia, hirugarrenez, tristea eta goibela da, malerusa, maluriaz eta melankoliaz betea, erroak erromantizismoan dituen, gau-girokoa:

Gaua, zu zoaz  
lertxunen zadorrak  
mamiki gordetuz,  
gure tristeziak  
poliki ahaztuz... (IP, 34)

Gaua eta tristeziaren arteko batasun joera egiten duenean agertzen da garbi nolako papera duen izadiak poetika honetan. Sentimentua izadian isladatzen da, hau haren ispilua da; biak bat dira, eta natura aipatuz, bihotza adierazten da. Heriotzari buruzko testuak ugariak ez badira ere, izadiak damaion hil kutsuzko tonalitatea melankoliotsuak indartu egiten du irakurleak jasotzen duen sentipena. Lizardik adierazi zuenez, poesia honetan ere, laino mehe batek estaltzen du idazlearen begirada eta lausoak agertzen ditu paisaiaren tonuak: negua, euria, itsasoa, hodeiak... izadiko elementu guztiek idazleak eskaini nahi duen inpresio xume eta sotilaren alde jokatzen dute.

Nagusi agertzen den egoera hau izan arren, Juan Ramon Madariagarentzat babesik balego, itxaropenik izango balu, izadian eta maitearen besoetan aurkituko lirateke babesa eta itxaropena.

“For a friend” poeman, adibidez, edertasuna maitearengan aitortzen du:

Hi ene zaldi bakarra  
ene zaldi eijerra... (IP, 24)

Eta, garbiago oraindik, bere inguruan ikusten duen heriotzaren hatsaren aurka itsasoaren jarreran aurkituko du, honek erakusten dion tinkotasunean, “Itsasoa III” poeman:

...eta ni bertzorduz niagon  
itsas-dorre honetan,  
zeinu baten aiduru,  
iraunkor eta irme,  
heriotzatik aldendu nahian,  
denborarekin batera urdinduz... (IP, 46)

Zerez ez baita ahaztu behar Juan Ramon Madariagak, Martínez Mesanza-k bezala, argia den tonu epikoa lantzen duela. Bere joera poetikoa ez da heroi-koa, baina badu epikaren jantzi eta gauzenkiko lotura eta lilura. Erdi Aroko leienden zantzuak (urrun Miranderen epopeia bere lehen poemetan), zalduen mundu batekiko atxekimendu berezia. Erdi Aroa, itsasoaren aurka borrokatzen duten marinel galdueneko gaia bezala, poema guztien azpitik dagoen

*atrezzo* da Madariagarengan. Guda garaiko min eta triskantza salatzeke balioko dio nonbaiten:

Eta furfuriaz jaurtikitako  
darda batek  
—jadanik odoleztaturik—  
guduaren eta  
triskantzaren hasiera eman du.  
Zintzurra irrintziz betea  
etxean aiduru  
emaztea eta umea... (IP, 17)

Erdi Aroko giro arturikoaren lilurak bere eginbeharrean lagunduko du, eta sakonagoa gertatuko da azken liburuan. Zergatik gertatzen ote da gai hau poetika honetan? Nostalgia da, agian, mundu utopiko baten bila bidali duen motorra. Eta horrelako zerbait legokeela esango nuke. Zalduneriak badu mundu orekatuaren topikoa bizkar gainean eta alde honetatik begiratu diola Madariagak esan genezake. Estetizismoaren azken jokoa? Mundu galdu baten lilura? Nostalgia da berriro hitz klabea. Eta, agian, heriotzak sortzen duen atrakzioa, ezpaten dirdaien artean, armaduren koloreak itsuturik, zaldien distira laino artean, mundu estetikoa, baina, era berean, krudelkeriaren erreinua:

Ez dira xoriak esistituko,  
herioaren hegalak eta urrinak  
gudako landak beteko baitituzte... (IP, 30)

Guzti honek, bai zalduneriaren irudiak, bai hizkuntzaren tratamenduak, garbi adierazten du Madariaga tradizioaren barnean kokatzen den poeta dela. Berak ere baieztza dezake, Andrés Trapiello-ren antzera, literatur-ibaiaren uretan, Sarrionandia, Mirande, Iparraldeko tradizioaren barnean gorantz doala, bere ahotsaren bila, bera ur gora doala eta ez larraz larra, abangoardistek nahi duten moduan. Ez dakit esango ote lukeen Trapiello-k gaineratzen duena: larraz larra ibiltzea galtzeko biderik onena dela, Cravan Mexikoko Golkoan galdu zen bezala.

Tradizioa keinu txikietan ere agertzen zaio. Sinbolisten jeinua jarraituz, Madariagak musikarekin elkartzen du poesia. Musikaz jantzia du bere bertsoa, errepikazioaren ritornelloan, aliterazioaren dantzan. Pentagrama gogoraturaz idazten dira “Eurigrama” bezalako poemak.

Eta joerak aurrera egingo du hurrengo liburuan.

#### **4. Mozart-en *Requiem*aren oihartzupean *Galera errepikatuak***

Musika nagusitzen da Juan Ramon Madariagaren olerkigintzan. Geroago

eta gardenago entzuten dira soinuen zantzuak, gero eta nabariagoa da lerroa pentagrama bihurtu dela. Pentagrama ez, dolugrama!

Mozart nagusitzen da testuan eta haren *Requiem*-aren musikak eman dio liburua bost zatitan banatzeko egiturantza. Hamar hitz nagusi, galerak eta ero-sioak, laboriak eta esentziak, dolugramak eta *angores*, heriotza eta lutuak, *resutitatio* eta zuhaur, bost abestiren inguruan: *Requiem*, *Dies Irae*, *Recordare*, *Lacrimosa* eta *Agnus Dei*. Bukatzeko bost ele-kodeak, liburuan zentzua eskaintzen duten testuak, bata bestea baino argigarriagoa. Apika, Juan Ramon Madariagak, Mozart-ek *Requiem*-a egin zuen antzera, bere buruarentzat egin du aitorten testu hau. Hemen aitortpena mozorro gabe ematen da, autobiografia lehen planura agertu da, eta tentsioa nagusitu da. Alegoria murriztu eta ni biluztua agertzen da poemategiko antzeztokian. Hori da lehen oharra eta testu osoa zeharkatzen duen ezaugarria.

Sentimenduen aldetik estutu egiten da nitasuna, mehetu teknika, esentzia agerian jarri da. Eta ausentzia bat, amaren heriotza, presentzia bihurtzen saiatu da poeta, azken hatsarekin sinestuz hitz poetikoa ezerezaren aurka egiteko bide bakarra dela. Ez alperrik batzen du poetak Argullolen aipu hau.

Al poeta corresponde *alzar el lenguaje contra la Nada* tal como lo ha hecho constar Leopardi en el frontispicio de sus *Cantos*: Es propio de las obras geniales el hecho de que, ... a pesar de que expresan las más terribles desesperaciones, sin embargo sirven de consolación y de renovación.

Kontsolamendu eta berriztapen bila abiatu da poeta. Gaiaren erregistroak aurreko liburutik berdintsuak izanik, badago berriztapenik oraingoan? Ba, lehenago aipatu beharko genuke sentimenduen aldetik berdinak agertzen dira: heriotza, amaren heriotza aurreko sufrikarioa, izadia. Baina antzinako imajineroak ohi zuten bezala, Madariagak esentziara ekarri ditu elementuak. Hiru dira pertsonaiak: nitasuna, zu (ama hilaren irudia) eta izadia. Desagertu da ia guztiz maitearen pertsonaia. Aitorten kutsua eraberritu egin da nitasunak toki handia hartzen duelako. Eta izadiak menpeko nortasuna hartu du, nitasunari atxikia dagoena.

Bada diferentziarik? Segur. Bai teknika aldetik, bai hizkuntzari gagozkio-larik. Testuan lehen planoan agertzen dena nitasun baten definizioa da, poemaz poema, itoginaren tantak bezala, astiro-astiro irudia antolatzen dutena:

Halaz niri, betikotz galtzean amaren zirarra... (GE, 18)

Lehen erromesa nintzen  
munduz mundu dabilen haietarik... (GE, 22)

Iguria naiz... (GE, 23)

Atzenduko dut ene iragana, beraren egoneza,  
ihesliar bat naizela nadin kontura... (GE, 28)



Min egiten dit ...  
herioak herbalduriko agurrak... (GE, 30)  
Bakarrik sentitzen naiz... (GE, 45)

Definizio gehienak lehen partean gertatzen dira, liburuaren hasieran gauzak garbi utzi nahi balitu bezala. Lehen zatian adierazten da ere nor den “zu”:

Zu zinen  
bedatseko sorbeltz arina,  
jareindako malko bakarra,  
leherturiko zinkurina,  
gauzez daridan negarra.

Ostargien dohatasuna  
eta urrumadan besarkada... (GE, 21)

Pertsonaia bion izaera ez da berriro eskuratuko liburuaren bukaeraraino, bertan “Resuscitatio”n nihurtu agertuko zaigu hitz poetikoak berriturik, eta “Zuhaur”en “zu”-a hitzaren konjuroan agerturik, eta horrela ixten da liburuaren zentzu eta mezua.

Tartean, hiru zirkulu poetaren sentipena agertzeko. Lehen zati honek dau *Imentzioaren pergamuak* liburuaren antz handiena. Paralelismoak nagusitu egiten dira. “Bihur albaneza iragana”, “Galeraren trilogia”, “Memorialea”, “Oroimena lahartzen ez denean” edo, luze ez egitearren zerrenda, “Atzenduko dut” poema. Guztietan betetzen da lehen liburuan hain erabilia izena den paralelotasun teknika: esaldi paraleloak kontraste joko batekin bukatzeko.

Baina, hemendik aurrera teknikak aberastu egin dira. “Zu” horren aurrean elkarrizketa dramatiko erabili du, izadiarekin koplaz zaharraren antza duen teknika erabiltzen du idazleak, izadiaren deskripzioa egin, bere egoerarekin kontrajartzeko; nitasuna narratibitatez jantziko du, Erdi Aroko kutsuko leienda usaindez, edo izadira hurbilduko da bere barne kinka azaltzeko. Ziurrenik, egitura aldetik egin dira hemen aldaketa handiagoak. Bost sail kontzeptu biren kinka, baina beti joera berdina: saileko azken poemak beti hartzen du gaitzat bigarren kontzeptua. Horrela ainguratu egiten du idazleak adierazi nahi duen mezua. *Imentzioaren pergamuak* liburuak askoz ere egitura musikalagoa eta zabalagoa zuen. *Galera errepikatuak* poemategiak bestelakoa du, eratuagoa, estuagoa, pentsatuagoa. Beharbada forma litzateke aitorenaren estilo zuzena leuntzeko. Zuzenegia izateak, eta formarik gabe aitoren zuzena egiteak arazoak ditu, batez ere erromantikoegia bihurtzen duelako estiloa. Egitura eratuz, zuzentasuna eraturik geratzen da, autobiografia fikzio bihurturik, idazleak hurbil duena urrundu egiten du distantzia teknikak erabiliz.

Urrunketa teknika litzateke, hein berean, hiztegiaren barrokizazio prozesua. Iparraldeko jitea sakonagoa eta hedatsuagoa da. Ez da hiztegi urrundu izenetan soilik erabiltzen, lan handia egin da aditzak ere hiztegi kutsu horre-

tan sartzeko eta, oraindik garbiagoa dena, sailen izenburuak ere korrante horretakoak dira: laboriak, angores, nihaur, zuhaur. Hizkeraren kontzientzia areagotu egin da, nabarmen jarri delarik idazkeraren joera, eta poemaren testua zailduz. Horregatik esan dezakegu autobiografia joera urrunduta agertzen dela poeman, poeta indar biren artean kokatzen baita; alde batetik, badaki errepikatzen ari dena lehen liburuan eginikoa, eta izenburuan bertan adierazten da izaera hori “errepikatu” hitza aipatua. Baina autobiografiak, berez, arrisku kamutsa du bere gainean: bigunegia, erromantikoegia, intimoegia gertatzearena, alegia. Arrisku horretatik irtetzeko urundu behar du idazleak bere burua idazkeran, irakurlearekiko lotura sortuz eta eginez. Neobarrokismoa da Madariagak aukeratu duen bidea, berez ere barrokismoak heriotzari buruzko hausnarketa eskaintzen baitu, bizitzarekiko ikuspegi eszeptikoarekin batera. Sentimendua hitza bihur bedi! dio poetak, eta hitzarekin agertzen duen kezka da liburuan nagusi.

Neobarrokismoaren azken joera litzateke liburuan azken aldean jarri diren ele-kodifikatuen zerrendapena. Aipu-sorta hori idazleak urruntzeko egiten duen azken ahaleginaren muturra litzateke. Berea dio, baina ez bere hitzez, ez eta ere berak asmatu hizekera poetikoaren bidez, besteek esan duten aho-tsa hartzen du bere-berea duena esateko.

Talens, Sarrionandia, Leopardi-Argullol, Aurtenetxe eta Atxagaren aipuek nahiko garbi adierazten dute norantza begiratzen duen idazleak. Egia da Felipe Juaristik liburuaren epilogoan nahi duen eran, bizitza eta heriotzaren arteko kinka erakusten duela poetak, bizibeharraren eta heriotzak uzten duen ausentziaren arteko larridura. Baina, era berean, badago, nik uste, gaia ahazteko gogoia eta beste bide batetik joatekoa. Poetak poemategia izan den bidea bukatu duenean, zuhaur izatera iritsi denean, “maitasun aldiaz” hitz egiten du:

...amodiozko kobla entzuten baitzen,  
maitaldia iritsia baitzegoen,  
zuhaur baitnintzen... (GE, 80)

Bukaerako bertsoak dira, liburuan diren esperantzati bakarrak, baina beste ortz mugari begira direnak. Zeren gai nagusi horren gainetik edo azpitik, berdin dio, badago beste gai bat Madariagak eskuarki erabili duena, hitz poetikoaren poderioarena.

Prozesu psikoanalitikoan balego bezala, Madariagak bere larridura askatu du amaren ausentziari aurrez aurre ikusiz eta hartaz hitz eginez. Saiatu da frogatzen, eta frogatu ere egin du, hitz poetikoak noraino gertatzen zaion balio-garri heriotzaren misterioa adierazteko.

Hitz poetikoaren balioarena da testuak darabilen gaia. Benedettiren testuan biltzen den bezala, “zu” hori hitz batean sartzen den frogatu nahi luke idazleak, edo Leopardik nahi duen gisa, ikusi Ezerezaren aurrean zer dezake-

en hitzak. Hitz poetikoa berez da gaia. Auzentzia presentzia bihurtzen duen ariketa. Ahozko kulturetan gertatzen denez, hitzak badu (Aladino edo Ali Baba-ren kasuak adibidez) errealtatea aldatzeko modua; hitza ez da *flatus vocis* hutsa, eragilea da, ondorioak ditu, bai igorlearengan eta hartzailearengan. Hitz egiteak lasaitasuna ematen du, errealtatea aldatzen du. Hitz poetikoa ezerezaren aurreko azken murraila du Madariagak eta erabili egiten du. Hitza esan eta ausentzia presentzia bihurtu.

## 5. Arristiria sinatzen

*Elaien ausardia* idazten da bide berri bati hasiera ematen zaionean, heriotzaren gaiak liburuaren osotasuna hartzen ez duenean, poetak izadiari begietara begiratzen dionean eta maitasunari deika ari zaionean, poetak arristiria sinatzen duenean:

Neurribako aidean  
ezinago hobe,  
txori zimbiki hauek  
arristiria zinatzena  
ausartzen dira... (EA, 32)

*Elaien ausardia* liburua jaiotzen da, poetak ni eta zu pertsonak pixka bat bazterturik, hirugarren pertsonaz mintzatzen hasi behar duenean. Eta, halaz ere, mantentzen dira oraindik aurrekoek adierazitakoa:

Joan ele tristea da.  
Eta perpaus honetan tristeagoa,  
ezen eta joan baitzinen  
ene baitan ukan ezpazintut bezala,  
joan baitzinen  
ene tartean ere, izan ezpazina bezala... (EA, 24)

berez, liburu hau beste biek in lotuta dagoen poemategia delako. Aurreko liburutik hiru poema berrargitaratzen dira: “Poetikaren arkitektura”, “Gatazkatik”, “Abantzu direnek”. *Imentzioaren pergamuak* gogoratzen duen poemarik ere badago bere paralelotasun amaigabe eta guzti, bere galdera zerrendaketarekin:

Zerrendako egiten ditu senperrenak Jinkoak  
gau muinean lantxerraren begietan... (EA, 64)

Guzti horrek, noski, lehen liburu haren “Itaun luzeak” poema gogoratzen du.

Gorago aipatu dugu zein den liburu honen historia. Nola ezagutu dituen argitarazio bi, nola joan den aldatzen, zein arazo gertatu den izenburuarekin. Gure azterketarako Deustuko Unibertsitateko (1993) argitarazioa erabili

dugu, aurkitzen errezago eta osoagoa dela pentsatuz. Argitarazio horrek dakarren lehen aldaketa, liburuaren aturreko aipuen arloan gertatzen da. Lehen argitarazioak Octavio Paz-en aipu bi eta Sarrionandiaren bat zekartzan. 1993. urtekoak Talens-en aipu bi. Bada desberdintasunik gatzeleraz idazten duten aipuetan. Octavio Paz-ek ezezagunera abiatzeko poesiak duen indarra azpimarratzen du:

El poeta parte de la soledad, movido por el deseo, hacia la comunión ...  
siempre más allá, hacia lo desconocido.

Poesia eta misterioaren adierazpenaren artean kokatzen du Pazek joera hori. Talens-ek, ordea, poetaren biografia eta poesiaren adierazpen indarra lotzen ditu bere testu aukeratuan:

Yo sólo escribo este poema / no con la ingenua pretensión de expresar  
lo que siento / (nunca sé lo que siento), sino que para que poco a poco sus  
palabras / pueden iluminar el hueco donde estoy (quiero decir, quién soy)  
/ en el lejano abismo de otros ojos / verdes como la noche y su serenidad.

Liburuan aurkituko dugu, geroago, begi berden irudia, baina aldaketak erakusten duena (poemak aldatu ez badira ere) zera da, poetaren helburuetan poesiaren ulermena aldatu egin dela, eta poesiaren ulermen metafisiko bate-tik, ulermen historikoa, norberaren nortasunarekin loturikoa aldatu dela. Berriro, ba, Juan Ramon Madariagaren testuetan hor den ez jakinak mugatzen duen eremu berdean murgiltzeko ahalegina da poesia.

Liburua horrela da, bidegurutzeta, zuzenbide batzuk forogutzen ari den poetaren ibilbidea. Heriotzaren itzalak oraindik argi egiten du, poeta bizirik dagoela adierazteko baino ez bada ere.

Heriotzaren ilun-argia hainbat tokitan entzun dugu liburuan. “Abantzu direnek”, adibidez, aurreko liburutik hartua da, poeta eta heriotzaren artean zilbor hestea eten gabe dagoela azalduko balu bezala. Poetak burua botatzeko tentakeria azaltzen du (“Mal fuction”, EA, 39), edo garbi azalduko du heriotza eta ezerezaren arteko sinonimia (“Izateari utzi dion oro heriotza da”, EA, 58). Baina agertu da ezinegona:

Hainbeste erran dut udagoiena, egoneza  
amodioa, itsasoa,  
heriotza  
non poesia irain bihurtu baita... (EA, 62)

Eta argitzen da, horren ondorioz, izen berria: “Ezilkorra” (EA, 50) nahiz eta poema Erdi Aroko zikloan kokatu.

Poema paralelizatuak ia desagertu egin dira poemategitik, bateren bat gelditzen bada ere. Orain impresionismoaren teknika jarraitzen du poetak, esan nahi dut objektu txikietan pausatzen duela begirada eta haren irakurketa eskain-

tzen digu. Brodsky-ren poesia gogora ekartzen duen teknikaren bidez, izadia barneratu egiten du poetak, kanpo begirada barnekoi bihurtuz, kanpoko gauza, barneko sentimentu bihurtuz (“Elaiak”, “Mendi arrosak”, “Leihoak”). Indartu egin da zaldungoaren leinuak begietan utziriko xarma eta leiendak poema bihurtzen dira (“Etxaburuko dorreko kantorea”), beraz, poema narratiboak izkiriari, eta haboro agertzen dira itsasoaren zantzuak eta marinel zaharren begirada lausotuak. Baina, tonua aldatu dela seinale, umore eta ironiaz baliatzen da idazlea eguneroko bizitzako anekdota xumea kontatzeko (“Galtzerdiekin”).

Amodioa da, behar bada, tonu aldaketaren arrazoia. Neskata, zalantzarik gabe agertu da poeman, heriotzetik datorrela berpizturik (“Neskataren begiak”, EA, 57), argi eginik.

Nahiz eta jakin poetak diferenteak direla eta bien artean zuloa dagoela:

Zu eta nire artean leizea dago,  
zu zuhaur zarelako,  
ni ez naizelako ezer... (EA, 54)

Poetak itxaropena agertzen du:

Eta larrazkenak hostoz,  
neguak elurrez,  
eta bedatseak zuriz bete arte,  
zu eta nire artean leizea egongo da... (EA, 54)

Hori gertatu da, zeren, eta hau ere esanguratsua da, Felipe Juaristiren itzalpean, poetak garbiro azalduko du:

Erranen dizut plazer eta begiak, gainean eta  
azpian, eskua nahasirik, eta sexua...

Pulsio erotikoa heriotza pulsioari gaina hartzen dionean hasten da zabal-tzen Juan Ramon Madariagak lehen liburuan ekarri duen bidea.

Azken liburua, bidegurutzea. Bigarren argitalpen honek gehituriko poemak aztertuz gero, bat-batean konturatuko gara esperimentalismoak hartzen duela estetizismoaren bidea, kutsu surrealista betetzen du larraren tokia, eta Bilboko Gran Vía-ko mediokritateak Zuberoako larrazkena bazterreratu du.

Bide bat zabaltzen ari da? Idazkera berritua? Etorbizunak esango digu eta mintzatuko da bidea.

## **Bibliografia**

- MADARIAGA, J. R. (1989): *Imentzioaren pergamuak*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbao.
- (1992): *Galera errepikatuak*. Susa. Donostia.
- (1992): *Itsasontziak ozeanotan bezala*. BCH. Bilbo.

— (1993): *Elaien ausardia edo Itsasontziak ozeanotan bezala* in *Neguko antzarrak*. Deustuko Unibertsitatea. 19-66.

BEJAR, H. (1993): *La cultura del yo*. Alianza. Madril.

COHEN, J. M. (1977): *Poesía de nuestro tiempo*. FCE. México.

GARAI, K. J. (1993): “Elaien Ausardia-ri”. *Neguko antzarrak*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbao. 15-16.

GARCÍA MONTERO, L. (1993): *Confesiones poéticas*. Diputación Provincial de Granada. Granada.

RUBIO, F. (1998): “De la poesía de hoy al fragmentarismo de mañana”. *Revista de Occidente*. 86-87.

## MARIA JOSE KEREJETA ASPERDURA ETA MELANKOLIA

Maria Jose Kerejeta, liburu bakarreko poeta omen dena, 1961. urtean jaio zen Zegaman. 1987. urtean Irun Saria irabazi zuen *Ezezagun baten kuadernoa* lanarekin (1988). Geroztik ez du poesia gehiagorik argitaratu eta inoiz gaitzetsi egin du poeten biltzarrean parte hartzea edo antologietan bere lana sartzeko baimena ematea. Hala dio Iñaki Aldekoak, adibidez, bere *Antologia ezagunaren* hitzaurrean:

No lejos de lo que en el ámbito de la poesía en castellano se ha denominado “poesía de la experiencia”, hay poetas que conjugan el intimismo y el subjetivismo con la reflexión existencial, donde los temas son el amor o el paso del tiempo, pero no como reflexión metafísica desgajada de la peripecia de lo cotidiano, sino incluida de lleno dentro de ella. Es el caso de M. Jose Kerejeta y su *Ezezagun baten kuadernoa* [El cuaderno de una desconocida] (1988) que por razones ajenas al espíritu de esta antología no ha podido ser incluida.

Hausnarketa horretan badira ohar bitxiak, baina orain azken aipu horrek deitzen dit atentzioa. Bere burua gordeaz dabilen edo bere burua poetatzat ez duen poeta baten aurrean gaudela dirudi: ezezagun baten aurrean.

Biografia aldetik, ohar pareta luzatzen du liburu aurpezkenerako: Euskal Filologia karrera egin zuen Gasteizko Filologia Fakultatean eta gaur egun Koldo Mitxelena zuzendaritzapean hasi zen *Orotariko Euskal Hiztegia* proiektuan lan egiten du.

Esperientzia poesian sartu du Aldekoak erabatean liburu hau eta ezin da ukatu sentipen berriko hainbat ezaugarri aurkitzen dituguna bertan. Halaz ere, normala denez, aipu labur baten iritzi horrek ez du liburuaren osotasun kontzeptuala hartzen eta agian bada saio honek ere lortuko ez duen helburua.

Liburua hiru zatitan banandua dago: “Sarrera labur gisa (aurretik)”, “Ezezagun baten kuadernoa” eta “Bigarren sarrera (atzetik)”. Hiru zati, umore joko bat (sarrera aurretik eta atzetik jartzea) eta ahots bi, bata egune-

rokoa eta etsipendua, bi sarreretan agertzen dena, eta bestea, kulturazaleagoa, erdi aldeko koadernoan idazten duena.

Maria Jose Kerejetaren lanean badago sentimendu nagusia lehenbiziko eta azken poemetan agertzen dena: maitasunaren hauskorra, eta horra non deitzen den lehen poema “Dibortzio tramitazio” eta azkena “Bye, bye, love”. Baieztapen batek zabaltzen du poemategia, maitasuna ez da zoriona. Eta ideia horri jarraituz ikusiko dugu poeta liburu osoan dibortzio tramitazioa aurrera eramaten, maitasunari agur esanez. Agian, eta prudentzia guztiarekin esan beharrekoa da hau, poetak bukatu egin du bere poesiaz, ez du poesiarekin aurrera jarraitu nahi izan, poesia liburu hau aitorpena delako, eta autobiografiak pisu handiegia hartu diolako. Poesiaren balio askatzailea eta buru lasaitzailea bukatu denean, poetak ez du gehiago errepikatu nahi bere solasa. Agian diot, eta berriz diot, Kerejeta berak esan arte ez baita garbia izango poesiari eginiko ukapenaren arrazoa. Ukazio bera aipatzen da liburuko azken poeman, non ez den soilik agurra adierazten, non azken hitzaren gaia eskuratzen den:

Azkenean ez da ahotsik izango  
esaten jakin ez nizunarentzat,  
ez da denborarik izango...  
Urrun gaude dagoeneko  
eta guztiak aurrera jarraitzen du ezinbestean.  
Ni ez naiz gehiago izango  
zutaz oroituko den hura... (EBK, 61)

esaldi erabakiorra, apika. Baina itzul gaitezen liburuaren eraketara. Hiru lau hari fin ari dira hor poesiaren ehuna brodatzen. Zalantzarik ez legoke adierazteko oroimena eta ahazmenaren tartean mogitzen dela harietarik bat, denboraren jarioak sortzen duen larridurak ez badu tarterik unea ezin geldituz bizi den pertsonarentzat, maitasun eta etsipenak beste esanahi semantikoa osatzen dute, eta, bukatzeko nostalgiak eta melankoliak, azkena.

Poematika irakurtzen dugunean, bat batean agertzen dira tonu bi irakurlearen begien aurrean. Bata sarreran dago, bestea koadernoan. Lehenengoak badu esperientziaren poesiatik hurbiltasunik, bigarrenak exotismoa maite du. Batak maitasunaz eta sexoaz hitz egiten du, besteak ahazminaz eta literaturaz. Hura gaurko hiriko eszenatokian kokatzen da, koadernoan bidaia batean. Hark Gil de Biedma-ren lurrina maite du. Bigarrenak Gimferrer ekarriko digu gogora. Sarrerak zinema mundutik hurbil daude. Koadernoak antzerkia maite du. Sarrerek nitasunez hitz egiten dute. Koadernoak nitasun bati buruz mintzo da moxorroak eta maskarak erabiliz.

Koadernoak (izenburuari kasu eginik, azken batean *Ezezagun baten koaderno*a deitzen da liburu) Sarrionandia dakar gogora. Honek ere kaiera idatzi zuen, erromantikoa izanik eta XIX. mendeko marinelak gogoratuz, bidaia



kontatzeko asmoz. Kerejetak ere fikziozko koadernoan idatzi du asmo berarekin. Tren estazio batean hasi duen bidaia da eta Venezia, Grezia, Istambul, Sarajevo, Lesbos, Paris eta, azken geltoki gisa, norberaren kontzientzian bukatzeko.

Sarrerek beste ikuspegi bat azaltzen dute:

Agian ederregia den  
hiri batean... (EBK, 58)

kokaturik daude, egunerokotasunaren distantzian, ohiko eszenatokietan pertsonaiaren etxea, estazioa, tabernak, oheak...

Sarrera bietako emakumea ez da tonu beraz mintzo. Lehenengoa maitasunera ilusioz beterik hurbildu ondoren, adio penaz esaten duena da. Bigarrena mikatzagoa da, maitasunaz zuzen hitz egiten du, desioaz mintzo da urrunetik eta ironia puntu batez, gorago kopiatu dugun poemarekin garratz bukatzeko.

Poetak erabiltzen duen teknikarik nabarmenena lehenengo pertsonaren erabilera da, tonu autobiografikoa sortzeko asmoz, irakurleengana zintotasunez hurbiltzeko, bizitza bateko historia bat kontatzeko gogoarekin. Beraz, fikzio autobiografikoa darabil bere lanak aurrera egiten duen orduan.

Fikzio autobiografikoaz luze xamar egin dugu hitz lan honetan, baina barka bekit gai horretaz beste aipuren bat ekartzea orrialdeotara, zeren fikzio autobiografikoa oroimena bideratzeko teknika baino ez baita. Fikzioa dela erraz ikus dezakegu ni berak ematen diela ahotsa hasierako emakumeari eta azkenengo bertsoetakoari konturatuz, eta ni hori bera eta berdina den artean, oso bestelakoak direla hor agertzen diren pertsonaiak ikusiz. Juan José Lanz-ek idazten duen bezala:

El arte de la memoria era retomado ahora [68ko belaunaldiko poesian]  
como un modo de introspección en el mundo personal, en una manifestación muy próxima al intimismo neorromántico.

Maitasun baten (edo biren) historia kontatzen du poetak bere itzala den ni horren bidez. Beraz, ez da bere poesia maitasun poesia, maitasunaren esperientziari buruzkoa baino, nahiz eta jakin, Gil de Biedma-k behin idatzi zuen moduan, maitasun esperientziek gaizki bukatzen dutela:

Egunsenti zorabiozkoa amestu zenuen  
zure ahoaren gorritasuna galduz  
ikaraz nengoen orduen su-aldian.  
Baina buruz ezagutzen genituen  
beste egun guztiak bezalakoa  
izan zen biharamona... (EBK, 45)

Zuretzat idazten dut hau  
ilunantzean eta erdi loak-hartua  
geldiro mozkortzen naiz  
kez —ezagutzen nauzu—  
eta isiltasunez. Ez dago oroitzapenik  
nere ekintzekin gauaren ordena iraultzen dut  
besterik ez.  
Uler ezazu. Adio.  
Hau da nire ordaina... (EBK, 17)

Ni biak desberdinak dira. Etsipenetik idazten du lehen sarrerakoak, eta beste pertsonaia bati idazten dio, historia bukatua dela adierazteko, maitasuna eta zoriona bat ez direla esateko, urrunegi sentitzen dela jakin erazteko. Lehengo pertsonaia honek ezaguna du desioa:

Zure besagainean zeinu zen orbaina  
zeinetan bai zeuden dagoeneko idatziak gure musu guztiak  
Gona blai egin zidan uhaina,  
nere desioa zure aldakararen aurka bilduz...  
Mermeladaren zaporea zure gorputzean.  
Zure biluztasuna, hotza izan zena eta ez haatik  
marmorezkoa.... (EBK, 18)

Pertsona honek irudi poetikoa zaindu egiten du erotismoaz hitz egiten duenean, mermelada aipatuz, adibidez, maitemina literatura aipuez (Celan, Miller, Lowry) inguratzen du, eta maitasun orduan musikak jotzen du, agian barrokoren bat entzuten da giradiskoan, agian Vivaldi, agian Albinoni, edo Telemann. Maitemina opariz eta saudadez osatzen da, harturiko erregaliez, edo idatzitako edo idazten diren gutunez. Erotismoa inguruan, inguruko gauzetan eta keinuetan nabarmentzen da.

Bigarrenak, ordea, erromantizismo patua galdu du. Sexoa garbiago azaltzen du:

Patua.  
Egun eta heriotz guztien orenean,  
hil naiteke edozein gizontxo treberen ohean  
oraindik buru-goi eta nere arrazoi onekin  
—okertua eta iadanik zimurrez betea—  
ekitaldiaren aurretik edo ondoren... (EBK, 44)

Haragiaren betea aipatzen da, zuzen eta gordin, ironikoa izateko gogoarekin. Ukazioa garbiagoa da, eta maitasunaren falta gardenagoa:

Ez zen beste zorioneko liluratzerik izan... (EBK, 47)

Tonu zuzen hori igertzen zaio “Laburmetraia” deituriko poeman ere. Egia da, beste aldetik, denboraren igaroak sortzen duela malenkonia,

“ennui” amini bat testu honetan, eta hortatik, Iñaki Aldekoak arrazoi luke, denboraren igaroak pertsonaiaren bizitzan kokatzen den amaigabeko joanak itzaltzen dituela liburuko orrialdeak. Baina denboraren igaroa lehen pertsonaiak hobeto aldeztu eta metaforizatzen du. Arratsalde, udagoien, gaua dira denboraren iragana agertzeko metaforak, eta ezagunak direla aitortu behar dut. Tratamenduan dago, baino, Kerejetak ematen dien ñabardura. Azken bertsoetan agertzen dira, eta itzaltzen ari den gogo baten depresioa, etsipena, azpimarratzen dute bere sotiltasunean. Begira eta irakur ezazu poema hau:

Gau nahasia badoa aurrera,  
argi mingarri eta narru beltzeko  
izter luzedun mutilez betea.  
Guzti horrek, nolabait  
galdutako gerraren usaina du.  
Hildakoen aro madarikatua.  
Ezinbestean, berriro udazkena... (EKB, 9)

Poeman honen izenburutzat jarririko César Vallejo-ren aipuak (“tal vez un jueves, como es hoy, de otoño”) zeresan handia ematen du liburuan, zeren hemen udazkena erabili izan bada, aurrerantzean ere ugari aipatuko baitu idazleak.

Gaur sukarra bezalako den udazken egun honetan...

Minutuak zapalduz, badator gaua  
liburu eta muebleen artetik... (EBK, 15-16)

Denbora gorpuzteko duen ahalmena aitortu behar zaio Kerejetari. Lehendabiziko sarrerako nitasunak poema luzeagoak idazten ditu eta badaki maitasunean alde bi direla:

...eder, eta hein berean alferrikako, denaz  
egiten den bi ahoetako atseginez... (EBK, 7)

Maitasun ekintza samur bezain etsipenez  
beteen... (EBK, 22)

Maitasunari ezezkortasuna eta denboraren jarioa batera doaz pertsonaia honengan:

Madarikatzen dut nere denbora  
hilotzez eginiko baso honen erdian... (EBK, 22)

Bigarrenak ez du denboraren jarioagatik larridurarik somatzen. Badaki maitasuna sexoan betetzen dena, eta uneka agertzen dena:

Arrazoi nuen pentsatzean  
guztia hasi eta bukatzen dela

norbaitek neronena den giltzaz  
atea zabaltzen duenean... (EBK, 43)

Zerbait hutsala balitz bezala, hiru hitz nahiko balira bezala pertsonak ahaztuteko eta bizitzatik ateratzeko, lerro bi jarreraz aldatzeko, eta bertsole-  
rro bakarra kafetegi galdu bat izan zela noizbait baiesteko.

Pertsonaia hau ironikoa da. Eta maitasun ekitaldi hutsala bada, eskatzen duen bakarra *partenaire*aren egokitasuna da, eta ez honen jarrera arduraga-  
bea. Behin baino gehiagotan, gainetik begiraturaz, eragozten dio honi harrema-  
netarako bere trebetasun falta:

Ez duzu ezer ulertzerik izan  
ez eta aldatzerik ere... (EBK, 49)

eta zure solas loredunak  
duela asko gertatzen direla ezagunegiak... (EBK, 50)

Eta zuk, liluraturik begiratzen duzun horrek  
jakinaren gainean egon beharko zenukela honezkero... (EBK, 54)

Erotismoaren bidetik joan diren olerkarien antzera, Kerejetak ere, emaku-  
mearen nagusitasuna agertzen du, nahiz eta pertsonaia, batzutan, ahul gerta-  
tu:

...maitemindu badu ere  
ez duela seduzitu... (EKB, 53)

Badago beste ezaugarri bat bien artean diferentea denekoa: alkohola. Ez da lehenengoarengan falta. baina lehen sarrerako pertsonaia kafetegi deka-  
denteetan, edo taberna bakartietan, agian norbaiten zain dagoela, edo jai zara-  
tatsuen artean bakarrik imaginatzen dugun bizkitartean, edo bestela isiltasu-  
nez eta kez orditzen, noizbait koinaka edanez, bigarrenak adierazten du zein  
den sendabidea:

Gainaldetako aire faltarentzat  
txorien birikaz eginiko filtroak;  
bide luzearen nekearentzat  
dragoi-hautsa eta suge-hezurra;  
zorabioa eta egarriarentzat  
banbu-kimuak eta loto-hostoak;  
urrun-minarentzat,  
itzulbiderik ez dagoenean,  
ginebra hutsa, hotz-hotza... (EBK, 57)

Pertsonaia biak, maiteminez etsituak eta etsipenez maiteminduak antola-  
tzen dute “Ezezagunaren koaderno”. Sarrerako nitasun fikzio autobiografi-  
koa bazen, orain fikzioaren barnean antolaturiko fikzio batekin aurkitzen  
gara. Eta nitasunak esperientzia poesiaren usaina balekargu, bigarren tonu

honek *novísimo*oen zantzua du. Aipatu beharko genuke, gainera, lehenengo niak zinemaz hitz egiten duela, eta orain teatroaren irudia argiagoa dela. Fikziozko autobiografiaz honela mintzo da Juan José Lanz kritikoa:

El papel de la memoria en la escritura poética ofrecía así, por una parte, la posibilidad de huir de la realidad circundante, de la expresión de la realidad del poema, y, por otra parte, la posibilidad de crear un *alter ego*, un *artificio*, un personaje que viviera una *ficción autobiográfica* en sus poemas, o bien que se identificara con otros personajes históricos, en una recreación de la *memoria cultural*. Así la ficción autobiográfica se convierte en los poetas de la generación del 68 en una ficción doble, en “ficción de la ficción”, por la que el protagonista poético se identifica con un personaje histórico-cultural que a su vez se identifica con el yo lírico.

Horrela definitzen da bigarren mailako autobiografia hau, koaderno hau, non poetaren ahotsa lehen pertsonan hitz egiten duen, pertsonaiaren ezpaintedan jartzen den, Guillermo Carnero-ren poema ezagun hartan bezala: “El altísimo Juan Sforza compone unos loores a su dama mientras César Borgia marcha sobre Pésaro”. Zalantzarik ez da, Kerejeta ez dela heltzen hain kulturismo urrun eta handira, baina begira nola aldatzen den pertsonaia bigarren aldiko lehen poeman, nola hartzen duen beste izaera bat, nola beste pertsonaia bat den:

Bere burua berriro aurkitu nahiko luke  
baina agian ez du betiko infernua  
besterik aurkitzen.  
Neroni izan nintzen gizon hori... (EBK, 25)

Poeta urruneko ezezagun batekin identifikatzen da. Bera izan zen batekin, eta kalean ikusten duen pertsonaia batekin. Badakit jakin “ezezagun bat” ez dena pertonaia historiko kulturala, baina era berean nabarmentzen da ez dena ahots hau sarreretako emakumearena, ez honen nitasunarena; izan zen beste norbaiten ahotsa eta izaera da koadernokoa. Eta hori bada teknikaren mamia errespetatzea, idazlea zein idazlearen pertsonaiaz at dagoen beste norbaiten agerpena.

Teknikaren kakoa horixe da, fikzioaren fikzioz osatzen den hitzjariora. Eta Sarajevo-ko muezin zaharra, poema horren esataria ez ote da idazlearen nitasunaren adierazpide? Eta idazleak esaten duenean Sapho-ren ahotsez idazten duela ez ote dabil teknikaren barruan?

Víctor García de la Concha irakasleak oso ondo adierazten du zein den horrenbeste ahots oihartzunen zentzua:

Es la memoria no ya sólo como filtro selectivo, sino como guía y auténtica actora de la escritura. Por su acción podrá el poeta liberarse de las ataduras de las coordenadas de tiempo y espacio: al hilo de la evocación acti-

va, se superpondrán épocas distantes y verá, como espectador, entreverarse experiencias propias y sucesos ajenos; porque ya no es él quien, en rigor, guía la escritura, sino un *alter ego*, su memoria.

Eta aipu horretan aurki dezakegu *Ezezagun baten koaderno*a osatzen duen gairik garrantzitsuena: ahazmen eta oroimenaren arteko, eta pertsonaia hilkor eta koadernoan agertzen den fikzioazko pertsonaiaren arteko oreka.

Ahazmena eta oroimena sarreretako pertsonaien gaia ere bada, maitasunezkoa ere horixe baita azkenean, orain izan, gero galdu. Ahazmena laster agertzen da poemategian. Zuzen esanda, bigarren orrialdean:

...ahazmena  
—andregai desiratuen antzera... (EBK, 8)

Eta hortik aurrera hainbat orrialdetan:

Burmuinean nostalgia bat,  
nere memoriako hilotzen aurpegiz egina (EBK, 11).

Guztia behar bezala gertatu zen  
nik maite eta ahantz zintzadan,  
gau hartan... (EKB, 18)

Oroimena maitasunekin lotzen da, baina nola maitasun guztiak hauskorrak diren, azkenean, maitalea ahaztu egiten da. Hau da oroimena / ahazmena ulertzeko lehendabiziko maila: existentzian gertatzen dena, eguneroko bizi beharrean.

Baina “Ezezagun baten koaderno” saila zabaltzen dugun uean, bestelakoa da kakoa. Orduan oroimena, mito bihurtzen da. Ez dago esistentzian, esentzietan baino, zeren oroimena nortasunaren definizioarekin lotzen da. Norbera da izatez nor den jakin eta oroitzen duenean.

Horregatik oroimena mitotzat hartzen da, eta berez dena oroitua delako da, hala nola literaturak jasoa:

...eta jakin erazteko gainerakoa ahaztu egiten dela ezin dela  
dagoeneko bizi noizbait literatura izan ez zena... (EBK, 30)

Ikuspegi honetatik, beraz, fikzioak nabaritzen du, errealitateak baino hobe, egia zer den, oroimena nola gauzatzen den. Noski, hain poemategi ezezko-rean ahazmenak irabaziko du, eta poema batean oroimen deitzen bazaio ere literaturari, hurrengoan, ahazmen deituko zaio:

Eta azkenean bere burua bakarti somatzen  
jakingo du  
guztia ahazmena  
edota kondaira dela,  
ahazmenaren beste itxura hori... (EBK, 33)

Oroimen izan edo ahazmen, literatura, historia, fikzioa da nagusi, estalpe, babesa, errealtatearen enbateen aurrean. Horregatik egiten da norberaren historiak fikzio, horregatik bihurtzen da literatura mito. Ezilkortasunaren mito. Bidaia amaigabearen mito.

Beste nonbaitetan izateko gogoaren mitoa da liburuak aurrera daramana. Errealtateak, sarrera bietan agertzen den errealtateak ase ez gaituenean, orduan ihesaren mitoa geratzen zaigu, tren bat hartu eta doanarena, bidaiarena, Europako estazioetan galtzearen mitoa, Islam-aren eremuetan.

Maria Jose Kerejetaren lehenengo mozorroa ezezagunaren mozorroa da, eta gero horrek —pertsonea historia ez den horrek, baina bidaiaren alegoria den ahotsak— beste itxura batzuk hartuko ditu, hala nola neskatxa baten ahots tonua: “Portzelanazko ontzi bati” deituriko poeman, edo muezinaren irudia ematen duena... Ohargarria da ikustea nola eratzten den, nola zabaltzen den eta ixten sail hau, koaderno hau. Lehenengo poema nitasuna, kontzientzia bat adierazten duen poema da:

Neroni izan nintzen gizon hori

dion poetak, pertsona bat, ahots bat definitzen du, gero, bukaeran, berriro kontzientziara itzuliz bukatzeko bidaia.

Ahots horrek bidaia baten urratsak ematen ditu, hiru lau paisaien deskripzioa eginez. Venezia, Grezia, Turkia agertzen dira bidean. Eta aipamenak oso argiak dira eta bidean jartzen dituzte kulturazaleen aztarnak.

Egia esan, kulturazaleak eta veneziazaleak *novísimo*en artean talde nahiko mugatua da, ez dira guztiak sail horretakoak. Gimferrer, Carnero, Alvarez poetak dira kulturazaleenak.

Astiroago ikusi beharko litzateke gai hau Maria Jose Kerejetaren kasuan, bere poesian badira, veneziazaleen artean kokatu dezagun, ezaugarri batzuk, beste batzuk falta dira, ordea. Kulturalismotik falta duen ezaugarri nabarmenena surrealismoaren agerpena da. Ez da poesia hau surrealista, ez da aintzin abangoardiakoa, eguneroko hizkuntza erabiltzen du, ziurrenik idazkera erretorikoaren aurkakoa. Baina Kerejetak bai betetzen duela Luis García Montero-k azaltzen duena: olerkariaren hizkera gizartearen hizkera goratua baino ez da. Goratua, bai, baina etendurarik gabekoa.

Halaz ere, begira dezagun zer gertatzen den “koaderno”n eta jarraitu kulturalismoaren aztarnak. Kulturazaletasuna badela hiru puntutan ikus dezakegu. Venezia, hitz mitikoaren agerpena litzateke lehenengo ezaugarria; Venezia gai poetiko gisa, Venezia eszenatokia. Bigarren datua estetizismoaren agerpena litzateke. Ez dago, ez, surrealismorik, baina badago koaderno horretan estetizismorako joera nahiko nabaria. Sarreretan egunerokotasuna agertzen bada nagusi, eta hiri hizkerak (neoa, narruak, prakak, kafetegiak) bere itzala zabaltzen badu, koadernoan exotismoa eta estetizismoa dira nagusi:

Ke tintatuz osatuak bezala  
egiten eta desegiten dira airean  
ehun-dindil eta zintaz,  
gorpuzkera adoleszente eta adats adoleszenteak... (EBK, 26)

Egia da estetizismo hori ez dela azken muturreraino eramaten, Gimferrer-en *Arde el mar* poemategian gertatzen den moduan, baina sarrera eta koadernoaren arteko paisaia eta hizkeraren arteko kontrajarpenean da hemen kontutan hartu beharko genukeena.

Aipagarri egiten zaigun hirugarren datua “Nere bisitaria (Saphoren ahotik)” poeman aurkituko genuke, zeren honetan bai gertatzen dela fikzioaren fikzioz osaturiko teknika bere betetasunean, hitza pertsonaia historikoari ematen zaion neurrian.

Orain arteko datuak azalean, forman, agertzen badira, ez genuke ahaztu behar zertarako den kulturalismoa, zein den bere funtzioa: kulturazaletasuna eguneroko errealitatearen hutsalatik ihes egiteko modu bat da, denboraren jariora mozorroen bidez osatzeko ahalegina, hiriko existentzia hutsa memoriaz eta antzerkiez josteko ahalegina. Hutsa eta hutsala betetzeko modua. Honela definitzen du Juan José Lanz-ek:

El culturalismo se manifiesta en una voluntad de poblar el vacío de la existencia, la fugacidad del tiempo, etc., con máscaras que otorguen, mediante la redundancia, mediante la *amplificatio*, una apariencia de existencia, de realidad, a todo cuanto en su fugacidad, es vanal y vacío.

Eta horrenbeste gertatzen da Kerejetaren lanean. Koadernoaren denboraren jariora aipatuz hasten da, heriotzaren lakirioaz idatziz:

Hau da heriotzaren lakioa...  
Hau da lakioa, pentsatzen dut... (EBK, 28)

Maitasuna ez da jada irtenbide arazo horri aurre egiteko:

Agian arrazoi duzula, agian amodioak  
faltsua izan behar duela beti  
edota traketsa, madarikatua izan nahi ez badu... (EBK, 34)

Geratzen den irtenbide bakarra literatura da, edo nahi bada, memoria eta ahazmenaren arteko borroka, zeren literaturak ere balio bikoitza baitu; oroitzeiko balio du, baina denok dakigun bezala, gogoratzen dena aldakorra da, mitoa da, aingura, baina sakonean higitzen den aingura mugikorra. Horregatik adierazten da mitoa:

...eta jakin erazteko gainerakoa ahaztu egiten dela,  
ezin dela dagoeneko bizi noizbait literatura izan ez zena... (EBK, 30)



Kuriosoa bada ere literaturari eskeintzen zaion eremu hori, ez da arraroa, literatura Kerejetarentzat autobiografia ere badelako, aitopena, buru askatzailea. Literatura izango litzateke egia edo errealitatea baino sinesgarriagoa, egiazkoagoa, pertsonaren barne mundua eta bere kezka metafisikoak ondoen azalduko lituzkeena. Neurri honetan liburuaren moldaketak, bere paralelotasunean, ideia hori bermatzera etorriko litzateke.

Egiatzat azaltzen dena, pertsonaren autobiografiaren idazkera “sarrera” baino ez da, ez da egia, egia fikzioan aurkitzen da, koadernoan, baina koadernoan, beste alde, izan zen baina orain ez den pertsona ezezagun batena da, oraingo ikuspegitik idazleari ezezagun egiten zaion pertsona batena.

Agian horregatik bidaiatik itzuli ondoren geratzen den sentimentu bakarra etsipena da, kontzientzia eszeptiko baten agerpena, eta hori maila bitan, fikzioaren fikzioan kokatzen den pertsonaiaren pentsakizunean, eta fikzioan dagoen bigarren sarrerako emakumearen irudikapenean.

Ezertarako ere ez nere oroimenetik  
uxatzera jostatzen naizen desterru honek;  
urruna zu, itzal gabea, erabat hutsala  
perfekzioak bakarrik izaten dakien bezala... (EBK, 39)

Badago fikzioaren fikzioa indartzen duen teknika bat liburuan zehar: antzerti aipamena. Pertsonaiek hiri baten diren txontxongiloak bezala hartzen dituzte erabakiak eta ez dira falta liburuan antzerti italiarrari egindako aipamenak.

Hortik ote dator “eszena amaigabeak” deitzen zentzua? Horrela deitzen ditu Kerejetak hemengo istorioak. Pertsonaiak nahi du istorioak gehiago irauten dezan, nahiz eta aktoreek irauten ez, baina idazleak badaki bereak bukaera izan duela, eta ez nolana hikoia.

Antzertiaren hiztegia, edo istorioa antzertiaren bidez moldatzea, bigarren sarreran ere gertatzen da: “Bakarriketa bilatu” (EBK, 50) poemari bezala. Baina badira desberdintasunak.

Koadernoan antzertia maitasun historiaren metafora den artean, hemen eszenatoki baino ez da, dekorazioa, azken finean, pertsonaia kokatzeko tokia.

Sarrerako emakumeari dagokion artea zinema da. Eta egunerokotasunera hurbiltzeko duen teknika *mass media*en aipamena litzateke. Zinema usu agertzen da. “Zuri beltzezko filma”n honela mintzo da poeta:

Bizitzaz, dokumental batez  
edo barku bateko motinaz bezala hitzegiten dut... (EBK, 11)

Hor metaforaren giharra ematen zaigu. Bizitzaren identifikazioa ez da antzertia, itzalen eszenatokia; zinema baino. Eta zinemaren ikuspegitik kontatzen du idazleak bere historia sentimentala. Egin dezagun planto, zeren eremuaren aipamenean arrastrea berriro bukatzen da *novísimo*engan. Gimferrer,

bere *Muerte en Beverly Hills* liburuarekin eta Molina Foix izan ziren aurrenak poesia horren barnean zinema kontutan hartzen eta planteamentu poetiko bezala erabiltzen. Sarrionandiak ere, azken finean zine kritikoa ere izan baitzen, erabili zituen zinemaren aipamenak literaturan.

Maria Jose Kerejetak ez dio bide horri ukaziorik egin, zineman aurkitu du eta bere gai poetikoa zabaltzeko metafora. “Laburmetraia”n historia laburra kontatu du (EBK, 56). Baina erabilpenik garrantzitsuena aro berrien mitologiaren erabilpenean datza. *Casablanca* filmearen aipamena “Play it agin” (EBK, 12) poeman, liburu osoaren metafora da. Amodio galduaren historia bada Bogart eta Bergman-ena, horixe da Maria Jose Kerejetak agertu nahi izan duena, filmearen oroimena dakarren eszena aipatuz:

Eta abian doan trenetik  
agurtzen duenaren indiferentziaz  
gau bustiaren barrena galtzea... (EBK, 38)

amodio galduaren historia barrenetik harrapatuz:

Zazpirak eta hogeitabi,  
begira nago nola aldegiten duen  
nik hartuko ez dudan tren batek,  
eta inoiz nerea izango ez den bizitzak.  
Beste bizi batzuk, beste garai batzuk ditut gogoan,  
eta badakit egunen batean bidegabeko irudituko zaidala guzti hau  
—urruna, norabidea ezagutzen ez dudan beste bizitza  
  hori  
eraikitzen ari naizen nobela hau baino askozaz hobea—  
ukatu izan zitzaidan orori begira,  
zazpirak eta hogeitamairutan... (EBK, 40)

Hau da ondorioa, hau bukaera. Bukatu da historia. Bukatu nobela, asperra eta melankolia biltzen dituenaren barrenean.

## **Bibliografia**


- KEREXETA, M. J. (1988): *Ezezagun baten koaderno*. Kutxa. Donostia.
- ALDEKOA, I. (1993): “Introducción”. *Antología de la poesía vasca*. Visor. Madril.
- ARANO, J. (1989): “M. Jose Kerexeta”. *Argia*. 1231. 1989-II-5. 49.
- ITURBIDE, A. (1994): “M. J. Kerejeta”. *Egan*, 1, 255-6.
- JUARISTI, F. (1989): “Ezezagun baten koaderno”. *Zabalik*. 1989-II-1.
- MARKULETA, G. (1995): “Ezezagun baten koaderno ahaztua”. *Hegats*. 12. 51-57.

GARCIA DE LA CONCHA, V. (1986): “La renovación estética de los años sesenta”. *El estado de las poesías. Cuadernos del Norte* aldizkariaren monografikoa. Oviedo.

LANZ, J. J. (1994) : *La llama en el laberinto. Poesía y poética en la generación del 68*. Editora Regional de Extremadura. Mérida.



## HIRUGARREN ATALA



## IPARRALDEKO POESIA



## IKUSPEGI OROKORRA

### 1. Aroak eta arazoak

1979. urtean Piarres Ehulatei idazleak gerora oso hedatua bilakatu den eskema argitaratu zuen *Jakin* aldizkarian. Lan zehatza da, beraz, izenez eta obraz josia, eta merezi duen beste ez eskertua. Egia da, normala denez kazetarien izenak aipatzen direla batez ere, eta idazlearen asmo nagusi erreibindikatzaileak ez diola onik egiten artikuluari, abiapuntua behar bezain zuzena ez delako. Juan Mari Torrealdayk eskeiniriko katalogoa osatu nahi du Ehulateik, eta izena izenaren gainean ematen du, denak balio berekoak balira bezala.

Alta bada, J. M. Torrealdayren liburu ezaguna, *Euskal Idazleak Gaur*, irakurri nahi duenak ikus dezake XX. mendean, 1936rarte, bagaudela hamahiru idazle gure eskualdean eta 1936tik 1976ra badirela lau.

Baina baditazke irakurri eta ikasi baino, nahiago baitute hitzegin eta edasi. (1979, 16)

Ehulateik hogeita hamar idazle kontatzen ditu lehen garairako, eta hogei-ta hamabost guttienez bigarren eperako. Katalogazioaren zehaztasuna ezin da ukatu inondik inora ere. Zehatza da aipamenetan. Ez, ordea, balioa ematera-koan.

Agian ez zen hori idazlearen gogoia. Helburu bi zituen gogoan: zerrenda ahalik eta osoena ematea, eta, guretzat interesgarriagoa dena, XX. mendeko Iparraldeko literaturaren eskema orokorra eskaintzea.

Hiru belaunaldi nagusi agertzen ditu Ehulateik. Lehen belaunaldia 1900 urtetik 1920arte doakiguna da. Piarres Lafitte, Piarres Larzabal, Mattin Treku lapurditarrek, Etien Salaberry Baxenabarra eta Etxahun Iruriko zuberotarra aipatzen ditu, ohi denez. Zerrendapenerako jaiotza urtea erabiltzen du Ehulateik, ezaugarriarik aipatu gabe.

Bigarren belaunaldia 1920-1936 bitartean zabaltzen da. Iratzeder eta Xarriton dira izenik aipagarrienak. Baxenabarren Xalbador bertsolaria, Jean

Haritschelhar, euskaltzaina, Marijan Miraberri eta Manex Casenave, Jean Luis Davant, Jon Mirande eta Txomin Peillen aipatzen ditu.

Hirugarren belaunaldia uzten du 1936. urtetik aurrera jaiorikoentzat. Gure kulturgintzan ezagunak diren idazleak ageri dira hor: Luzien Etchezaharreta, Xarle Videgain, Beñat Oihartzabal. Eta zerrenda ixteko:

Manex Larrathanar Ahetzarra, Hegoaldeko egunkari ezagun batetan lan egitera zihoana, gure eskualde hau gehixago kontutan hartu balute, guk dakizkigun “progresista” batzuk; gazteena, aldiz, bainan ez herabeena, Bernardeta *Itxaro Borda*, Oragarrenekoa. (1979, 23)

Eskema xinpleegia irudituko zaio norbaiti. Baina Ehulateik informazio sobera ematen du. Eta, dirudenez, eskema ez da ondu geroztik. Txomin Peillenek 1992. urtean Gazteizko Filologi eta Geografi Fakultatean eskainiriko hitzaldi batean eskema bera errepikatu zuen; oker ez banago *Maiatzek* sorturiko berrikuntza, 1982. ondoren sortua, eta Ehulateik ezagutu ezin zukeena gehitu zion.

Ehulateik baina, ez ditu soilik izenak ematen, badira datuak haren lanean, bada zenbait iritzi interesgarri.

Datuen artean Ipar eta Hegoaldean 1936. urtearen ondoren argitaraturiko liburu kopuruarekin konparaketa taula egiten du. Ikustekoa da argitalpenen gainbehera. 1937-46 bitartean, eta arrazoi argiengatik % 70a zen Iparraldean argitaratutakoa, eta 1967-1976a bitartean % 9 baino ez da.

Iritzien aldetik, Iparraldeko gizarteak bizi duen egoeraren erradiografia aurkitzen dugu. Ehulateiren esanetan honelakoa da giroa:

Aldaketa sozial handiak jasan ditu Iparralde honek, azken 15-20 urte hauetan, euskararen alde joan ez direnak; gure umeak gero eta goizago, 2-3 urtetarako eskolara joaten dira, gero, etxean bertan, hori dute, egun osoz, telebista erdalduna, eta udan berriz, udatierren uholde arrotza. Eskolak direla, edo lana aurkitu behar dela, gure gazte gehienak badoaz “Frantzia behereko” hiri horietara, gure herri eta herrixkak beti gehiago beren, gaztetarik husten ari direla. (1979, 22)

Lerro horietan dugu gaitzen zerrenda: erdalduntzea, eskola, telebista, turismoaren bidez, herri hustuketa emigrazioaren bidez. Ehulatei aroak marraztetik arazoak marraztera igaro da.

*Maiatz* aldizkariaren 21. zenbakian artikulu bi argitaratu dira Iparraldeko literatura aztertzen dutenak. Oraindik orain ere batak aro bi ditu aztergai, besteak arazoak, lehena Xarritonek idazten du, bigarrena Lopez Adanek.

Galdera batekin hasten du solasa Xarritonek; haria eten ote da? Ezezkotan dago, eta honen alde agertzen dira *Maiatzeko* idazleak ere.

Klasiko eta modernoan arteko zubia ez da suntsitua izan.  
Ondoko lerroetan, Piarres Xarritonek erakutsiko dauku uste baino idaz-



le gehiago badugula alderdi huntan eta literaturaren haria ez dela sekulan hautsi joan den mendetik huna.

Xarritonen artikulua berri emango dugu, besterik gabe, hemen. Kritikariak lana zenbakietara mugatu du laster. Hartu du Juan San Martinen *Escritores euskéricos* katalogoa eta hor berrogei iparraldeko aurkitzen ditu. Hogeitabost urteren bueltan, beste berrogei idazle berri ikusten ditu lanean, saiogintzan, pastorealean, nobelan eta poesian.

Baina datuak ematen ari denean goitikako eta azaleko inpresioak besterik ez dira ageri. Olerkaritzari gagozkiola, hona hemen Xarritonek esana:

Henriette Aire baten pertsuek ez diote nihorenei zorrik. Agustin Zamora batenek badute beren grazia berezia. Ahamendaburu gaztea da ere eta berria. (Xarriton, 1993, 11)

Hori da guztia!!

Urgentziazko berri honen ondoren, lasaigarria da Lopez Adanen artikulua burutsua. Arazoak agertzen ditu hor. Egia esan behar banu, artikulua bi aipatu behar genituzke batik bat Lopez Adanek eginak, zein baino zein argiagoa, bata *Maiatz*en eta bestea *Jakin*en.

“Sortzapen literarioaz” deituriko artikulua, *Maiatz*ek agerturikoa arras interesgarria da. Hasi guztiz errealista den egoeratik hasten da Lopez Adan:

Bertako hitzun herrikoien egoera triste da, eta duela gutxi arte bizia zen sozietate tradizionala desagertzen ari da, tradizionelak utzi lekua sozietate euskaldun modernoak okupatu gabe. (1994, 14)

Eta pixka bat beranduago

Betikoak joaten ari; berria, ontu gabe... (1994, 18)

Hemendik hasirik Iparraldean idazle euskaldunak bizi duen egoera aztertzen du parametro biri begiztatuz: irakurlegoa eta estilo arazoa; zalan-tzarik ez da, irakurlea murrizta da, irakurleko potentziala eskasa eta ez dago irakurtzeko gogo ez zaletasun handirik, hala erdaraz, nola, are gutxiago, euskaraz.

Honen aurrean Iparraldeko idazleak arazo bat du, Lopez Adanek Nafarroako idazleekin paralelotasuna eginez aipatzen duena: exotiko samarra gertatzea, Hegoaldeko industria editorialaren indarraren aurrean.

Zuzenean agertzen zaio, bada, idazleari estilo arazoa. Lopez Adanek proposatzen duena eklektikoa da: batua bai, baina “hemengo sustraiak galdu gabe”. Baina batuarena ez da, denok dakigun bezala, estilo kontua, estandar kontua baino. Eta batuaz eta euskalkiaz duen iritzia aipagarria bada ere, interesgarriagoa da guretzat, “behar dugun” euskaraz esaten duena. Onartu du bertsolaritzan odol berria datorrela, antzerkian testua indartu dela, eta pastoraletan gero eta gehiago, ikuskizuna, eta ondoren tradizioaren gaia aipatu du.

Daniel Landart jartzen du tradizioaren eredu gisa. Eta hizkera hori plataforma besterik ez dela adierazi nahi du Lopez Adanek:

Danielen euskera behar dugu erreferentzia gisa, baina hori ez da behar dugun euskara. (1994, 17)

Erakusten du Lopez Adanek, behar baino idealismo handiagoz, behar bada, literaturak egiten duela euskara estandarra eta ez normatibak. Baina ez du asmatzen irtenbide teorikoa ematen, praktikoa da eskaintzen duen eredu.

Literaturak kontzientzia abertzalea hedatzeko duen ahalmena aipatu ondoren, idazle bi ditu nagusi: Etxamendi eta Borda, honen kasuan nobelagintzara soilik mugatzen bada ere:

Eta orain, fanfarrean bukatzeko aipatu dezadan Itxaro Borda, neure ustez Ipar Euskal Herriko garaikideen artean idazle garrantzitsuena. Ustedut hizkuntza kausitu duela eta hizkuntza lotzen duela herri honen egoeraz. (1994, 21)

Halaz ere laudorioak ez dio begia lausotzen eta kritikarik ere badu Bordarentzat:

Literatura askoren irakurlea eta Hegoaldeko idazleen ezagutzaile ona da Borda, ezagutzen duen hizkuntza hemen sustraitua, Euskal Herri osoan hedatua eta kanpoko literaturaz erretua... Galduko balu epatatzeko beharra, berezia izateko gutzia, esperimento antzuetan sartzeko gogoia, nago askoz emankorragoa izanzen zela. (1994, 21)

*Jakin* aldizkariko artikuluan, arazoa soziologia aldetik ukitzen du, eta arazoak eta itxaropenak aipatzen. Arazoen artean: euskararen transmisioaren galera, euskalduntasuna ignoratzen dutenen kopuruaren hedapena. Itxaropenerako datuak: nazionalismoaren sustapena eta ezagutza publikoa erdieste-ko legitimitatea.

Inguru minguru sozial horretan higituko dira irakurri eta aztertuko ditugun idazleak, olerkariak, bizitzak ematen dituen gazigozuen artean.

## **2. *Maiatz* aldizkaria**

1982. urtean Iparraldeko literatura pizteko plataformarik indartsuenetarikoa sortzen da. *Maiatz* aldizkariak literatura soilik landu nahi zuen, horrela bereizten zelarik Iparraldean ziren beste aldizkari gartsuetatik.

Lehen ale hartako mezuan bere helburuak agertzen zituen:

Literatura zertarako? Gure sendimenduak ez dituen bakarrik pasa, banan bizi ditzagun. Maitasuna, lana, tristezia eta mendiak, esperantza eta gau

baten zoriona, euskaraz. Geureak euskaraz direlakoan. Literatura gureta-ko... Literatura bizitako.

Manifestu gisa argitaraturiko artikulua horretan badira zenbait gauza estonagarri, 1982. urterako ere. Ikuspegi osoro erromantikoak deitzen du irakurlearen arreta. Sentimentuak aipatzen ditu lehen poesia gai: maitasuna, itxaropena. Izadia, mendien aipamenarekin. Eta erromantiko guztiek aipatzen duten bizitzaren eta literaturaren arteko zubia.

Ikuspegi zaharkituegia zen, Hegoaldean poesia sozialaren ekaitzaren ondoren, hizkera poetikoak beste bide batzuk jarraitzeari ekin baitzion. Ez dakit nik ikuspuntu honek ez ote duen mugatu eta ez ote dion neurria jarri *Maiatzek* argitaraturiko poesiari. Azken batean, eta Itxaro Bordaren poesia salbu, beste guztiek jarraitzen baitute irudi hori.

Beste alde batetik, arreta pizten du “gure” horrek. Azken zenbakietan beste eremu batzuetara zabaltzeko ahalegina egin badu ere, *Maiatz* “gure literatura” argitaratzeko sortua da. Barnerantzako ikuspegi horrek, etnozentrismo horrek gidatu ditu bere pausuk eta bidea mantsotu. *Maiatz*en 20. alea argitaratu zenean, barne ikuspegia azpimarratzen zuen Gillaume Irigoienek:

Iparraldeko literatura eta euskararen irudi baten edo batzuen emaitako.

Ez da zalantzarik *Maiatzek* eta beraren eragile nagusiak, Luzien Etxezaharretak, lan handia egin dutela Ipar Euskal Herriko literatura moldatzen eta bermatzen, nortasun literarioa finkatzen. Hamar urte bete dituztenean, helburuak desberdinak omen dira. Joxi Goikoetxea kazetariak asmo berri hauek kontatzen dizkigu:

Euskal kulturaren erreferentzia gehiago sakondu, sormena landu, Euskal herri osoko aldizkari bilakatu eta izaten diren literatur ekoizpen guztiez informazioa eman. (Goikoetxea, 1992, 49)

Zabalkunde arloa landu badute ere, oraindik arazoekin jarraitzen du aldizkariak. Bigarrenetan eten egin du, guttienez, eta eskerrak, soilik Iparraldera begira dagoen aldizkariaren irudia.

Bide berriaren marrazketa horretan, honela mintzo zaio Luzien Etxezaharreta Ritxi Lizartzari, honek egin zion elkarrizketa batean:

Herri erakundeen jarrera da kulturaren indar nagusia eta herri-kultura onetsia izan da. Ez dira indar antolatuak, baina beraingana datza kulturaren bilakaera. Euskararen kezka oinarri ez izan eta kultur sorkuntzarako gogoia, horrela beste herrietako kulturekin harremanetan jartzea da gure etorkizuna.

Erronka nagusia sorkuntza zaintzea da, bultzatzea.

Bideseinaleak irakaskuntza eta sorkuntza dira hari nagusiak. Gogoeta bideak ematea, bestalde, garrantzitsua da aurrera egiteko. (Lizartza, 1994, 45)

Bidegurutzean aurkitzen den aldizkariak plataforma sortu du eta etorriko al zaizkio egun hobek!

### 3. Idazleak mintzo

1991. urtean, Sarako euskal liburuaren azoka zela-eta *Herria* aldizkariak elkarrizketa bana ehin zien Iparraldeko bost idazleri eta antzerki talde bati. Hantxe biltzen ziren Iparreko literaturan ospe eta izena lortu dituzten Luzien Etchezaharreta, Itxaro Borda, Henriette Aire, Auxtin Zamora eta Jakes Ahamendaburu. Erantzunetan politika bat ageri da, artikulua bide zidorretatik barrena. Etchezaharretak, kultur eragile bati dagokionez, inguru sozialari buruzko oharrek eskaintzen ditu bere hitz jarioan. Ez du ohar bi besterik eskaintzen, baina esanguratsuak dira Iparraldeko literaturak sistema bat erakitzea nola lortu duen adierazteko:

Literatura nihundik ere ez da gazte soilen gauza, mugimendu zabal baten emaitza da.

Eta emaitza zabala, eta erantzun zabala gertatu da, hain zuzen ere, jende andana bildu dela euskararen inguruan.

Argi da nonbait euskal literatura azken urte hauetan gure eskualdean bi ideia nagusiren inguruan ibili dela: Jende andana batek ofizialki ukatua zitzaien mintzairarekin jo du egun batez... berpizte itxura bat etortzen da... ez da sekulan orain bezainbat gazte gai izan euskaraz idazteko ipar Euskal Herrian. Beste gauza izan da euskara arlo moderno baten sartu dela: gaurko biziaren aipatzea gaitzat hartu du, idazlea lekuko ber bilakatu da, hots egiazko idazlea.

Errealitatearen lekuko, beraz, Luzien Etchezaharretaren hitzei jaramon eginenez gero. Baina idazleen mintzoari kasu egiten badiogu, desberdintasun anitza aurkituko dugu, bai idazleen artean, bai iritzi horiekiko. Lau olerkariak talde bitan bana ditzakegu, belaunaldi bi baitira haien artean. Alde batean koka ditzakegu Aire eta Zamora. Eta bestetik, Borda eta Ahamendaburu gazteak.

Lehendabiziko biek askoz ere poetika erromantikoagoa agertzen dute; beraz, errealitatearen lekuko izan gabe, norberaren sentimendu eta barne-kinkaren adierazpide bihurtzen da poesia. Airek askoz ere zuzen zuzeneko poetika eskeintzen die irakurleei:

Ezin jasanezko sabeleko min batzuetatik askatzeko eta lasaitzeko...  
Bakartasunean. Ixiltasunean.

idazten duela dio. Horrela poesia zerbait intimoa da, pertsonaren barne sentimenduen adierazpide. Adierazpide zuzena, gainera, zeren idazleak aitortzen

baitu ez duela askorik irakurri eta ez duela bere lanaren ikuspegi ondurik. Zuzenekoa da bere poesia.

Zamorak, ordea, zerbait onduagoa eskaintzen du; erromantizismoan ildotik, hala ere. Baieztapen biren inguruan osatzen du idazle honek bere pentsakizun poetikoa. Lehenik, oroimenaren bidez, haurtzaroko mundua berreskuratu nahi du; pentsakizun horren ildotik, poesia galdutako zerbait eskuratze-ko bide litzateke, zerbait magikoa eta bidezko.

Oroimenaren erreka hartzen dutalarik, neure biziaren iturburuarekin egiten dut topo: zirarra edo bihotzeko halako batek, aintziratsu “no mans land” baten bazterretan gelditzen nau.

Poeta erromantikoaren kontzeptua darabil, bigarrenik, nahiz eta bere lanean hitz poetikoaren ahalbideari buruz zalantza politak agertzen dituen:

Nahi du idazleak Jainkoek edo Jainkoak idatzia duten liburu orokorretik zerbait ebatsi, erraiteko bera ere Jainko dela

Hitz poetiko ahaltsua, baina /“min”tz “aira” da, “min”ez neregandik “aira”tzen den’/. Ahaltsua da, eta era berean mugatua.

“Nola sartu itsaso osoa “itsaso” hitzaren barnean” galdetzen du. Iparraldeko idazleengan hitzaren muga, errealtatea adierazteko hitzaren ezintasuna, topiko bihurtua dago.

Gazteek beste ikuspegi militanteagoa agertzen dute. Garbiago dute zer idatzi nahi duten, eta nola erantzungo dioten inguruari:

Idaztea zer den niretzat?... Sublimazio hutsez, narkisizmo ala frustrazioz, nere burua noizbait eta nanbait batean behar dutalakotan kokatu, orai-ko gizarte konformeari alternatiba bat izan nahiko nukeena izaiteko.

erantzuten du Jakes Ahamendaburuk, bere lanaren oihartzun faltaz kezatzen delarik. Itxaro Bordaren ikuspegiak ere mantentzen du tonu errebindikatzaileria:

Literaturak utopia kaleratu dituenek, normala da gure hitzak ere utopia anarkikoz betetzea... Literatura biziaren aintzindari, bizia literaturaren hazkurri, delirio kolektiboa ez uzteko bakarrik.

Asmo nagusi horien inguruan moldaturiko poesiak bide berriagoak eskaintzen ditu. Idazle gazteok, besteek ez bezala, kanpo idazleen izenak irakurritu dituzela adierazten dute. Bordak, Axularrez gain, Dante, Rimbaud eta Zola aipatzen ditu. Ahamendaburuk saiolari bat, H. P. Jeudy, baina aitortzen du “Literatur erreferentzi askorekin” dabilela.

Lau idazleok Iparraldean gertatzen den literatur mugimenduaren seinale eta ikur bihurtu dira.

## Bibliografia

- ARANBARRI, I. (1993): "Amodioaren ehiztari. Aldizkarietatik aniztasunera". ELKARLANEAN. *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 73-92.
- EHULATEI, P. (1979): "Iparraldeko euskal idazleak gaur". *Jakin*. 10. 16-26.
- ELKOROBEREZIBAR, M. A. (1988): "Literaturgintzarako plataformak". *Jakin*. 49. 21-42.
- ETXEZAHARRETA, Luzien: (1979) "Kultur espazioak eskuratuz". *Jakin*. 10. 10-15.
- GOIKOETXEA, J. (1992): "Hamar urte literatura sustatzen". *Argia*. 1.392. 48-49.
- HERRIA: (1991) "Euskal idazle batzu mintzo". *Herria*. 1991-3-28.
- IRIGOIEN, G. (1992): "Gure literatura". *Argia*. 1369. 62.
- LIZARTZA, R. (1994): "Luzien Etkezaharreta, Ipar Euskal Herriko kultur egoeraz hausnartzen". *Argia*. 1.488. 42-45.
- LOPEZ ADAN, R. (1994): "Esperantzak eta arazoak Ipar Euskal Herrian". *Jakin*. 84. 25-30.
- LOPEZ ADAN, R. (1994): "Sortzapen literarioaz". *Maiatz*. 21. 14-21.
- XARRITON, P. (1994): "Literatura idatziaren haria hautsi dea?". *Maiatz*. 21. 9-13.

## MAIATZ UHARGI SAILA

Aldizkari izatetik argitaletxe izatera doan bidean *Maiatzeko* taldekoek Uhargi saila eman zuten argitarara. Saila oso anitza da. Iparraldeko idazleak zein Hego aldekoak, eleberri egileak edo poetak, jende heldua zein idazle berriak aurki ditzakegu katalogoan. Deskribapena lortzeko 80ko hamarkadan hor agerturiko poema liburuak izan ditugu kontutan. Batez ere, beti ere, Iparraldekoak izan ditugu kontutan. Zehatzago izateko, Txomin Hegi, Auxtin Zamora, Imanol Txabarri eta Jakes Ahamendabururen poema liburuen bidez osatu da ikuspegi hau. Ez dira aztertu beste hamarkadaren baten beren lana ezagutzera eman zuten idazleak.

Maiatz taldeak argitaratzen duen poesiaz zertzelada bi eman beharrean aurkitzen gara lana hasi aurretik. Badira ezaugarriak behin eta berriro agertzen direnak. Biak agertzen dira, gainera, poema liburuetatik at deskribituak. Honela mintzo da Itxaro Borda:

Gotzoneren sentimenduak primitiboak dira, espontaneoak, bihotz zaurituaren odol zirripa bortitzak.

Zerbait pertsonal, bakun uniko biltzen dugu: poetisaren nortasuna larrugorritan... (1986, 5-6)

Egiazkortasuna da aipatzen den lehendabiziko ezaugarria poetika honetan, talde poetika bat badagoela sinesten badugu behintzat, poeta bakoitzaren hitza desberdina bada ere. Baina aipatu beharko genuke badagoela, esatera noan “guztien” azpian, tradizio amankomun bat, nahiko erraz antzeman deza-keguna irakurketa arima eginaz.

Tradizio poetiko horren azpian irudi batek garrantzi handia du, Manex Erdozaintzi Etxartek, hain zuzen ere. Ahamendaburuk eta Hegik aipatzen dute liburu hasierako aipuetan, adibidez. Idazle honi buruz Joxe Azurmendik idatzitako erretratu sentikorrean hauxe dio:

Manex antikapitalista izan da, esaterako, edukinik gabeko moda-hitze-tan ez geratzeko. Garbi eduki du kapitalismoa gainditu beharra. Nola? Hori

beste puntu bat da. Nolanahi ere kapitalismoa ez da humanoa. (1995, 16)

Poesia honen tradizio joeran sartzeko ezaugarria dugu hau ere. Uhargi sailakoek nitasunaren poesiaren barnean kokatzen dira, eta “sistema ustel”aren aurkako joera dute, erromantizismoak bultzatu duen biktimaren joera mantentzen dutelarik, nagusiki. Ezaugarri horiek luzatu egingo ditugu hemendik aurrera, zehaztu eta zorroztu.

Aipatu dugu nitasuna. Poetika honen adibide garbia da ni baten inguruan ibiltzea: “Ene Lurra” deitzen da Hegiren liburuko lehen poema, “Nekusan” hitza azaltzen du Txabarrik bere “Hitzak naroa” liburuko lehen bertsoko lehen esaldian. “Neure destinoaren alboan” kokatzen da Ahamendaburu liburua zabaltzerakoan, eta “zure eta neure inguramenako” eginak direla aitortzen du Zamorak.

Nitasunaren ikuspegi erromantikoak bultzatzen du poeta idaztera. Nitasuna munduko gunepertxenta gisa aurkezten da.

Nitasunak, zalantzarik ez oihartzun desberdinak hartzen ditu: maitekorra da, sensibilitatearen mugetan etzana, adoleszentea. Baina denaren gaintik erabatekotzat ematen da. Hau da nitasunaren ikuspegia objetibotzat hartzen da, agertzen da, ikuspegia errealitate dela adierazten dutelarik. “Nik ikusten dudana bada”, esaten dutela poetok iruditukon luke. Eta poetak aholku eta agindu ematen dio irakurleari, edo herriari,

Ikas  
erakas  
sortaraz  
beraz  
Euskaraz... (Zamora, EE, 9)  
  
Nola mintza, nola mintza?  
faltsukeriatik urruntzeko  
egiatik hurbiltzeko... (Hegi, TM, 9)

Beraz, egia eta norbera txanpon beraren aurpegi desberdinak dira. Batasun hori soil-soilik ulertzen da edo norbaitek ezjakintasun poetikoaren era dei lukeenaren bidez, inozentzia dei badezakete ere, edo tradizio erromantiko kamutsaren bidetik.

Norberaren buruaz, edo sinismenez ziur egon behar da. Eta hala da. Txabarrik garbi azaltzen duenean.

...haro iraunkor bat eraiki guraz... (Txabarri, HN, 5)

idazten duela.

Ez dira guztiak berdinak, hala ere. Eta, agian, bostetako poetarik interesgarrienak, Jakes Ahamendaburuk:



...deusaren igarle, dudaren babespe... (Ahamendaburu, IM, 22)

ikuspuntutik esan egiten duela dio, nahiz eta pixka bat lehenago beste hau adierazi:

...murgil errealitatezko kamusadak.

Nitasunaren erabatekotasunak lotura egiten du erromantizismo zaharkitu batekin. Eta ondorio zuzena dakar: poesia deklaratihoa egitearen zaletasuna.

Askotan aipatu den banaketan, poesia moderno eta ez modernoaren artean, badago tartean ezaugarri bat garrantzizkoa dena: modernoak irakurleari sugerentzia bidaltzen dion artean zaharrak azalpenak zuzentzen dizkio. Hala da Uhargi sailako poesia gehiena: azalpenez bete, deskriptihoa, deklamati-boa, irakurleari esaten zaiona onartzen behartzen duena. Beharko luke iritzi honek zehaztapenik, baina eskainiko ditugu oharrak eta salbuespenak geroago. Joera hau edonon aurkitzen baita:

Maiatza goiz batez,  
arkazia zuhaitz baten gainean,  
kokatu nuelarik  
neure egoitza,  
zabaldu zuten  
neure azpian  
oihal bat... (Zamora, EE, 27)

Zuhamu ostoetan  
ekiaren jolasa  
Anttone tontorrean  
basetxe zahar hutsa... (Ahamendaburu, IM, 27)

Parte biotan diren batasunak ez dira soilik narratibitateagatik, beste arlo askotan agertzen da parekotasuna: ironiarik eza, aipamen ezagunagiak idazlearentzat, eta irakurlearentzat arrotzak... Testuaren egokiera sortzeko orduan erabili den zuzentasunetik, azalpenetik, ikusten dena sinbolo ezin bihurtzeko joeratik dator poetika honen antzutasuna. Deskripzioak jokatzen du maitasun poematan ere. Batzuk, zehatzegiak dira eta detaileen agerpenak indartzen du poesia.

Gai eta ikuspuntu poetikoaren aldetik zer nahi duen Txomin Hegik adierazten du bertso labur batzuez:

...neure buruko pentsamoldeak ikuzirik,  
neure bihotzeko sendimenduak ikuzirik,  
neure gorputz osoaren sensasioak ikuzirik... (Hegi, AM, 38)

Pentsamoldeak, sendimenduak, sensazioak, bai. Baina batez ere, neure, neure, neure. Tradizio erromantiko honen barruan, hiru aukera ditu poetak: nitasun epikoarena, naturaren aurrean goratzen den nitasunarena, eta maitasunaren aurrean gozatzen duenarena.

Nortasun epikoaren zantzuak espresabide goratua dakar: aginduak eta aholkuak ematen dituen espresamoldea, kontzientzia lasaiak salatzeke asmotan, inguruaren okerbidea zuzendu nahi duena. galdera erretorikoa, aginduzko aditzera, harridura eta errepikazioa dira bere espresabiderik maitatuenak:

Euskal Herri, nitaz maitatua  
Noiz bukatuko da negua?  
Noiz beteko zure xelarua?  
Ez dezadan hau azken kantua... (Zamora, EE, 43)

Iratzar gaitezen  
eta erran egia  
aski ibiliak bagira  
gure burua ukatzen... (Hegi, AM, 15)

Zin negien  
herria maitatzea  
euskara sakontzea  
Zin negien  
txakurrak uhatzea  
iraultza sustatzea... (Ahamendaburu, IM, 60)

Nitasun epiko honek euskara, herria, iraultza minez bizi ditu. Noizbait euskararen heriotzak sortzen duen negarrari loturik bizi da. Eta sentimendu puntu hori gordetzen badu ere, gai aldetik eta doinu aldetik Hegoaldean transizio garaian egin zen poetika batetik hurbil daude. Izan ere, zenbait poema Hegi eta Zamoraren hainbat garai horietakoak dira, nahiz eta beranduago argitaratuak izan.

Poesia militante honen doinu zuzena, manikeoa da gehien harritzen naue-na. Lanik gabe, edo, hobe, molde zaharreatan egina den heinean emana, poesia zuzenak esaldi eta hitz pilaketaren bidez konpotzen du poemagintza. Errepikazioa baita propagandaren modurik egokiena:

Nola mintza, nola mintza?  
faltsukeriatik urruntzeko,  
egiatik hurbiltzeko,  
askatasun osoaren bidean.  
Nola mintza, nola mintza  
leku faltsu, ustel honetan?... (Hegi, TM, 9)

Aipatu, eta astiro irakurri, beharko genuke liburu honen izenburua: *Tarteka marteka*. Aldian aldian idatziriko poemen bilduma da hemen agertzen zaiguna, noizbehinkako poemak, eta liburuak ez du mantentzen batasun hari jakinik horrela. Gainera urte askotako lan desberdina eskeintzen da, gora beharren inpresioa areagotzen delarik irakurlearen begietan. Egia da salbuespenak badirela, Ahamendabururen *Gauean ontuts* liburuak batasuna gor-

detzen duen artean, beste batzuk zatika eta ahal delaka osatu direla.

Natura da erromantizismoak eskaintzen duen beste gai bat. Auxtin Zamora da denen artean naturaren ikuspegi lasai eta tradizionala eskaintzen duena; hain zuzen ere, naturaren ikuspegia haurtzaroaren iraganarekin lotzeko ahaleginetan dabilelako.

Mertxika arbolak loratzean,  
amodioz edo bihotzminez,  
begiak bustitzen zauzkitalarik,  
zonbat  
“ni, haur” naizen  
“zu, haurrez” irudia... (Zamora, EE, 87)

Imanol Txabarrik ere natura du gaitzat bere poemarik gogoangarrienean:

Gia Dinheko ortzea, sartzaldeko argiez oskorritzen da,  
ilanbean erratuz doaz arimak.  
Bien Hoako lurra zurituz doa hilargi zurbilaren azpian  
gauaz dardar dabiltza su bihurriak... (HN, 39)

Zamoraren landa paisaiaren kontrajarpena da Txabarriren paisaia kolonia-  
la. Hegik ere natura maite du. “Otxagabia” aipagarria da bere lanean, paisaia  
eta emakumearen gorputza parekatzen direlako poema sutsu batean.

Nitasun honek deskripzioak maite ditu, naturaren zertzeladak alegoria  
bihurtzea. Ez da erromantikoen paisaia gorestu eta goraldua, ekaitzen eta toki  
arraroz sortua. ez, bukoliko, orekatua, eta baketsua da, haurtzaro minaren babes  
tokia. Zenbaitetan, Zamoraren olerki hartan bezala, paisaia irudi bihurtzen da:

(Orai)  
Oasis puska bat  
miruaren hegaletan?  
Miru hegal bat  
desertuko  
oasisaren ur gainean?  
Zeru urdinaren zolan  
galtzen  
den  
behakoa?  
Orai!... (Zamora, EE, 41)

Naturak, hala ere, utzi du espresabide goratua zenbait poemetan, nitasun  
epiko eta suhartsuarekin bat egiten duena, sentimendu gartsu eta hanpatuak  
bultzatuko balu poeta hitz egitera.

Entzun urrunena  
minez marrumetan:  
lurraren ikarak, edoien galernak,

itsaso uhainen arrapo xuriak!... (Zamora, EE, 22)

Natura, hainbaten, herriaren metafora ere badelako:

Mendien altzoan,  
zure edertasun osoan,  
zure handitasunean,  
zure berotasunean,  
mixterioz eta historioz egindako  
herri sakratua... (Hegi, AM, 28)

Nitasun maiteminduak arlo bi ditu aztergai. Hasteko, badago inguruko pertsonaienganako maitasuna poeten ahotan. Agian, literatura ohiturazale batek utziriko arrastroak nabari dira bertso hauetan. Hala, ingenuitatez, Ahamendaburu harritu egiten da Elantxobeko arrantzaleen aurpegien aurrean:

Marinel agureen  
arpegi zimurtsu  
siku arraitsuetan  
murrikak kabitu... (IM, 30)

Literatur tradizio honek sortu duen iruditeria munduarekin fidel agertzen da Auxtin Zamora eta bere poemetan sendiko guztien segizioa ikusiko dugu igarotzen: aita, ama, maitea.

Maitearenganako maitasuna da aipatuena. Testuetan ez da, Zamorarengan salbu, existentzialismoaren ezaugarriarik agertzen, orohar, maitasuna nagusitu delako, agina.

Emakumearenganako maitasuna herriarekiko maitasunarekin nahastatzen da.

Nola mintza, nola mintza  
leku faltsu ustel honetan?  
Nola erran, nola erran,  
zuretako nere amodioa?... (Hegi, TM, 9)

Maitasuna, ordea, aztertzen ari garen liburu biren ardatz nagusia da: Imanol Txabarriren *Hitzak naroa* eta Ahamendabururen *Gauean ontuts* liburuek maitasunaren inguruan moldaturik daude. Txabarrirena gartsuagoa da, hitz jario oparoagoa, iruditeri surrealistikak zipriztindua, “oroimenaren zora-bioan” murgilduagoa, nahiz eta espresio modernista aukeratu bere hitzetan:

Geroago eta tristeago nago  
arratsaldean bakartatea senditzen dudanean  
zure zain nago  
maitasun eman diezakedazun emakumeori... (HN, 34)

Ahamendabururen *Gauean ontutsek* beste sentiberatasuna agertu du:

Maitasunaren goraipamena, bizitzaren poza, Eros garailearen oihua. esperimentzi hurbil agertzen du eta maitaleen ordu goxoen deskripzioak, zuzenak noizbait, zeharrekoak beste hainbatetan, finduak gehienetan, iruditeri garbia-go eta berrituaren inpresioa utzi du, esan baitdugu gorago sailaren poesia tradizioetik urrunduz doala eta orduan gertatzen dela sinesgarria. Nitasunetik nitasunera Ahamendaburuk egin duen bidaian badago zer azpimarratu.

Irudiak haikuaren antza hartuz, dindilizka geratzen dira irudimenean:

Oro hil zen  
Negua izotz ereile  
gaua maitasun irule  
Oroitzapen... (GO, 66)

Liburuak egitura oso eta borobila agertzen du. Lau zatitan partitua, maitasunaren lau momentu desberdin adierazten ditu, izarra: maitamintzea eta maitarearen gozamena; izar gabez: gozamenaz galdera, bakardadearen arrosa beltzak, eta mila gogamen.

Noiz edo noiz deskriptiboegia bada ere, Ahamendaburuk jakin izan du maitasun joeraren iruditeri eta hizkera ederra asmatzen eta sortzen. Egia da kopla zaharraren teknikak eta fintasunak laguntzen dutela bere helburua betetzen. Baina kontutan hartzeko liburua osatu du, eta ez da hori meritu txikia.

Antikapitalismoa ikusten zuen Joxe Azurmendik Manex Erdozainzi Etxarten poesian. Irakurtzen ari garen poetaz ezin horrenbeste esan, ordea. Bada beren poesietan sistemaren aurka agertzeko joera. bertso bakar baten definitzen du bere akidura Txomin Hegik:

...eskutan duten sistema ustel... (AM, 23)

Kantatu ere “leku faltsu ustel” batetik egiten du ere. Baina, Manex Erdozainzi Etxartek, Azurmendiren ustetan, lur zehatz batetik egiten bazuen ohiu, ez da hori gertatzen gure poetengan. Poetak bere burua berezitat du, jendearengandik banatua eta haiek baino hobe ezagutzen du errealitatea, goitik begiratzen du masa, pentsakizun erromantikoak agintzen zuen modu berberan:

Barda  
Hazparneko karriketan  
oinez ibilki nintzen,  
jende andana bat  
kurutzatzen nuela.  
Jende on horiek  
sendi nituen  
nitaz ari zirela  
ahapetik...

Ez zuten konprenitzen  
zer nuen oraino  
kasko gibelean... (AM, 64)

Ahamendaburuk ere banatzen du burua gizarte arruntetik, poeta margina-  
tua izan nahiez:

Badakite ongi hitz egiten  
ozenki mintzo, uzkurto barik  
denetaz eta deusetaz...  
Dizkigute anaiak herbesteratzen  
lagunak argi gabe espetxeratzen...  
Eta haiengan zerbaitek nau uxatzen  
beldur nago... nazka didate ematen... (IM, 61)

Iraultzaileak omen dira poeta hauek:

Iraultza oso bati buruz  
bizi berri bati buruz... (Hegi, AM, 16)

hitz egitera bultzatuak, baina proklama eta asmotik at ez da hori gauzatzen.  
Propagandazko poesian ohi duenez, manikeismoak, zuri-beltzak, argi-ilunak,  
egun-gauak, gu-besteak bikoteek agintzen dute. Ahamendabururen hainbat  
poemek garbi azaltzen dute joera bikoitza:

Zootegi satsua  
geure gizartea  
agintzaritzak digu  
hedatu sarea... (Ahamendaburu, IM, 54)

Poeta guztiengan dago euskararen etendura larriak sortzen duen kinka.  
Lopez Adanek azaldu duenez, lehen aldiz eten da Ipar Euskal Herrian euska-  
raren transmisioa familia barnean. Eta etendurak sortu du hizkuntzaren herio-  
tzaren kontzientzia.

Euskalduntasun jagole  
baserri nerean  
gaizkoatu sakian  
haien arantzea  
Euskaldunak Baionan  
bulkada marea  
lagun onak Parisen  
espetxe betea... (Ahamendaburu, IM, 54)

Testu honek hiru ezaugarri uzten ditu agerian, poesiaren eskasia, hizkun-  
tzarekiko ardura, eta egoera linguistiko eta politikoaren batzea. Holakoetatik  
irtetzeko dei Hegik egiten du:

Segi! Segi borroka!

Ez dezagun utz!  
Ez gaitezen urrun  
asunez eta laparrez betea dagon  
bidexka horretatik... (Hegi, AM, 26)

Edo Ahamendabururen konpromezu pertsonala:

Zin negien  
herria maitatzea  
euskerak sakontzea.

Zin negien  
txakurrak uhatzea  
iraultza sustatzea... (IM, 60)

Agian, nahikundez eta historiaren kontzeptu mitikoz osaturiko poemak eta joerak dira hemen agertzen direnak, borondateak dena ahal balu bezala.

Bada, hala eta guztiz, konpromezuaren alde hurbil eta existentzialagoa. Poetak bere bizikera kontatuko balu bezala ari da horrelakoetan, historiaren testigantza eskainiz.

Algeriako gerraren testigantza galdu delarik, GALek Iparraldeko karriketant egindako sarraskiez mintzo dira poetak.

Hegi da zuzenena, nahiz tea hildakoen egoera eta bere egunerokotasunaren arteko kontraste sinpleegia egiten duen:

Gaur bederatziatan  
Baionako hirian  
lau gizon hor lurrean  
ostatu xoko batean.

Ni nago deskantsuan  
nere apartamenduan  
futbola telebistan  
baita asteazkenetan... (AM, 79)

Aipamen huts, kronika bihurtzen du poetak tragedia. Urrun da gai beraz Aurelia Arkotxak egingo duen elaborazio literarioa. Azken batean, hemen agertzen zaigun poesia politikoa zuzen eta landu gabeena da, aipamendarekin geratzen dena, literatur lana sakontzen ez duena, nahiz izan barne hustutze edo joera pertsonal. Gauza bi baitira nahi esan eta eder esan.

Uhargi sailaren tonuarekin eten egiten dute Eñaut Etxemendik eta Manex Lanatuak. Lehenak *Aurora* argitaratu zuen 1985. urtean. Ipuin eta olerkien bilduma honetan Etxemendik erakutsi zuen hizkerak bere estetikan duen indarra. Lanez lurrarekin zerikusia duen ofizio gizona, bere poesian natur-hiztegiak toki aparta hartzen du, hala nola sentsibilitate fin eta sentikor batek. Prosa lirikitik hurbil, Jean Etxepare gogoratzen du bere lanak. Hitz laxoa baina ez da gure aztergaia, eta alde batera utziko ditugu ipuina, onartu arren

ere batasun hariaren menpe geratzen direla ipuina eta poemak. *Aurora* berez, ipuin luzea da. Eta haren aurrean “Hi ene sortzaiñari” testua argitaratu du idazleak, atari gisa. *Aurora* ipuinaren erdi aldean idazleak testu poetiko bi jarri ditu eta bukaeran kanta bat. Erdiko biren lehenak “Goiztiria gorri-urdin” du izena eta izadiaren ikuskizuna deskribatu badu ere, irudia da nagusi testuaren tratamenduan. Izadiaren deskripzioaren bidez idazleak *collage* gisa, gizatalde baten berri sugerikorra eskeintzen du, izadia ez baita zuzen bere intereseko, eta gurago du izadiaren bidez pertsonaien berri ematea:

Hego-Xuri aldean Xuberako potza susperrak.  
papoan mingarriak hain dira uzterrak... (A, 22)

“Ene gazte maitea”, liburuak bukatzen duen poesia, ordea, kanta moldekoa da, eta sentiberatasun erromantikoan emana da bere joera deskriptiboan.

*Kilim* Lanatuaren liburuak exotismoz, kurdoen aipamenez janzten du bere izena. Poema sail ederra da Lanatuaren hau. Txikitutasunaren estetikan oinarritua Lanatuak uneko inpresioa jasotzen du:

Denbora ez da denbora  
begiratzen zaitudanean.  
Denbora doa,  
laster ... laster ...  
eta zu eternitate luzea.  
Denborarik ez da zure hurbiltasunean.. (K, 29)

Agian, bere iruditeria ohikoa da, naturatik hurbil dagoena, baina minimalismo joera honek deskripziotik urrundu egin du, eta inpresio poetikoa zuzen eman zaio irakurleari. Sugerentzia eta irudia bere estetikaren iturri eta oinarri badira ere, Lanatuak landu du onomatopeiaren indarra, agian, larregi, testua, hor bai, tradizionalergia gertatzen delarik:

Eguzkiaren lehen printzak  
orai dira poliki, ixilki, sortzen,  
goizalderat ...  
Klixka-Klixketan,  
itxu-gordeka eta dirdiraka... (K, 28)

Noiz edo noiz poesiaren ikuspegi bigunegiak ere poesiaren kaltetan doala esango nuke.

Etxolako atea  
hezur zaharrak  
hezur kraskatuak, higidura.  
Atzoko zakur eta gaurkoak,  
Xumi, Pastor, Pinto... (K, 70)

Ez du laguntzen, agian, gaien aukerak: haurtzaro mundua, maitasuna,



natura eta denbora, herria eta Herria.

Guztietan, baina, Lanatua sentsibilitate handian dabil, deskripzio eta oparo esanari toki eman gabe. Haikutik hurbil batzuetan:

Ihintz samurrez loreak dira mozkor,  
ez du atertu gau osoan... (K, 45)

Pirka pirka zirimolaka  
soro gainean elur eta euri... (K, 49)

Lanatuak badu poetaren senerik gai topikoetan tratamendu liraina emateko izadiaren ospakizunean, bizikunearen begietan, nor da gaia tratamenduan jaso eta garaitzeko. Marraren estetika jarraiki bere poesiak bizi poza erakusten du, sentsibilitate berezia aipamenean gaia tratatzeko eta transzendentziaz jasotzeko, finezia jori batez beti:

Gauak duen muga  
beti da eguna.  
Luzea da gaua mila sofritzetan doana,  
laburra atsegina argi xirrixtak haizatu duena... (K, 85)

Lanatuak 1984. urtean, eta ohar hau erudizio alorrean gera bedi, *Hegatz Urratuan* deituriko liburu zaindua argitaratu zuen. Egilea zen argitaratzaile, baina, gainera edizio eder bezain zoragarria egin zuen. Hartako poema batzuk jaso ditu berriz *Kilim* honetan. Lau horien arabera poemak luzeagoak, deskriptibo eta arruntagoak dira. Baina edizio pribatua izan zenez, fotokopietan baino ez dugu ezagutu eta bilkaera gertatu dela bere poesian nabaria da. *Kilim* askoz ere testu sakonagoa da.

### Azterketarako erabiliko liburuen zerrenda

- AHAMENDABURU, J. (1988): *Isilka misilka*. Maiatz.  
— (1990): *Gauean ontuts*. Maiatz.  
ETXEMENDI, E. (1985): *Aurora*. Maiatz.  
HEGI, T. (1989): *Tarteka marteka*. Maiatz.  
LANATUA, M. (1985): *Kilim*. Maiatz.  
— (1984): *Hegatz Urratuan*. Egilearen edizioa.  
TXABARRI, I. (1985): *Hitzak naroa*. Maiatz.  
SESTORAIN, G. (1986): *Basamortuan Oasiaren bila*. Maiatz.  
ZAMORA, A. (1986): *Ezin errana*. Maiatz.  
— (1988): *Hatsaren bustia*. Maiatz.

### Bibliografia

- AZURMENDI, J. (1995): "Manex nire oroipean". *Jakin*. 86. 11-18.
- BORDA, I. (1995): "Manex Erdozainzi Etxart, idazle". *Jakin*. 86. 19-26.
- (1986): "Zuparrobiren transzendentzia". SESTORAIN, G.: *Basamortuan Oasiaren bila*. Maiatz. Baiona, 5-8.

## JEAN LOUIS DAVANT

Jean Louis Davantek bost poema liburu argitaratu ditu, 1980. urtetik gaur arte. Argitaratu zuen lehen liburua *Makila gorria* izan zen, Elkarren, ondoren etorri dira *Denboraren aroak*, Azkue Saria 1982ean, eta hurrengo urtean argitaratua, *Nahi gabe*, 1985ean. Urte bete lehenagoko Xalbador Saria, *Itxasoak iraultzan* Maiatzek 1986an argitaratua, eta *Ihesi* 1990. urtean plazara irtena. Liburu kopuru ederra da. Davant hamarkada bien artean kokatu dute bere lanek, eta ez eskola baten ezta talderen baten barruan, bere kasa eraman du aurrera bere literatur-lana. Egia esateko, nahiko produkzio bitxia da berea. Agian estetika berritutik urrun, baina nortasuna agerian uzten duena.

“Berrogei-ta-bi urtetan hasi naiz koblak hontzen” idazten duena berandu xamar iritsi zitzaigun poesiaren alorretara, artean lan handia egina zuela kazeritarizan eta politikan, Euskaltzain oso zen garaian. Poemak idazten hasteko joera honela azaldu du Davantek:

Arren, gaiza beroak aipatu behar guntiala beroki, xotilki, doi bat gatz eta piperrekin, irakurririk eta entelegatirik izateko gisan.

Hanitz einhe gabe asmatu dit kobla zela hortako makila hoberena... Gaiza jakina da lehenagoko borroketan, arma hortaz ederki baliatzen zirela Eüskaldunak. (MG, 6-7)

Agian horregatik, oso desberdina da bere lehen liburua, moldez eta jitez, beste guztietatik. Lehena, *Makila gorria* koblaz egina dago, bertso lerroz osatua, eta bertsolarien edo koblakarien moldean egina. Oso bertso zuzenak dira, asmo eta egoera desberdinetan osatuak. Izenburuak horixe adierazten du. Makilaren sinboloak (ez ote dago Monzonen irudia hitz horren ostean?) kobla adierazi du, eta “gorria” idazlearen ideologiaz mintzo da:

Baina gaiza batez segur niz: Eüskal Herria batürik, bere gain, eüskaldun eta sozialista behar dügüla. (MG, 5)

Egoera eta ideologia poemak dira, politikoak (II, 5) gai anitzen inguruan osatuak, gehien batez Euskal Herria eta ideologia abertzalean oinarrituak:

Herria bizi dadin guk nahi baitugu  
Herriaren alorra landu behar dugu.  
Herrian bizi nahi ta behar baitugu  
Herriaren aldeko saila hasi dugu... (MG, 92)

ETAren aldeko poemak ez dira falta testuan, eta hango militanteen ekin-tzari buruzkoak. Ez da testu batua Davantek eskaintzen duena, baizik eta aldian-aldian idatzitako poemen bilduma. Idazlea bera ere konturatu da zer genero lantzen ari den, eta berea ez zela zuzenean poesia:

Hola niz kobla hontzen hasi, hogeitaz hitz laxüz hainbeste izkiriba-tü ondoan, kantore eta bertset andana batez kanpo deus ere jakin gabe. Baina aritzez ikasten da. Hasian hasi, badüt emendatzez aitzina joiteko xedea.

Badakit borrokaz beste baliarik ere badiala koblakaritzak, eta halako ordian poesian barna sar daitela. Agian egün batez heltürenko niz hein hortara. (MG, 7)

Liburuak duen deklamazio tonutik at geratzen dira koplak zaharren estetikaz moldaturiko urriak eta, ondorengo liburuetan areagotu den soneto tententziakoak, “Umealdi” (MG, 108),

Sozialista (Marx-en eragina leporatzen zion Jon Juaristik bere *Denboraren aroak* poema liburuan) izateari uko egin gabe, bestelako joerak agertu zituen hurrengo liburuetan. Nabaria zen aldaketa, Jon Juaristik hitz hauekin zertifikatzen zuena:

*Denboraren aroak* delakoan, makilkadak urritu eta berriz, formaren aldeko ardurak, hala nola esanahi mitikoak aberastu dira... Formaren alde-tik, poemagintza klasiko baten aurrean gaude. (1982, 6)

Hurrengo liburuetan ere mantenduko duen egitura bateratua erakusten du liburuan Jean Louis Davantek. Gutxi gora behera ezaugarri hauen artean koka dezakegu bere poesiagintza:

Liburuek asmo bakarra jarraitzen dute. Ez dira poema biltegiak, asmo, ideia, irudi eta mezu bakar baten inguruan idatzitako poemategiak dira. Normalean ideia hori esistentzialista da, existentzialismo marxistaren ildokoa Jon Juaristiren arabera, bai *Denboraren aroak* eta bai *Nahi gabe* poema liburuetan. *Ihesik*, ordea, Ulisesen mitoa jarraiki, bidaiariaren mitoa hartzen du aintzakotzat.

Batasuna poemen *leit motiv* batek azpimarratu du. Esan nahi dut, poema batek liburuaren egituraketa sortu duela, gaia banandu den zati bakoitzaren izena azpimarratuz. Hona Jon Juaristiren deskribapena lehen liburuari buruz:

Hiru parteetan (*sic*) zatiturik egonarren, parte bakoitzak poemak bakar baten neurtitz pare bat hartzen baitu “leit motiv” gisa:

Aroak hazten gaitu	I
Otoitza zor diogu	
Baina hor ari gara	II
Xinaurriak bezala	
Eternitate gosez	III
Ortzeen ihizlari...	

(DA, 7)

Bertsook atari gisa jarritako poematik atereak daude. Halaz ere, bakoitzaren barne-egitura ere pentsatua eta planifikatua da. Adibidez, lehen ataleko “Hilabeteen litainak” testuak banan banan igarotzen ditu urteko hilabeteak. Beste aldetik, arazo formaletatik hasi eta gai sakon edo mitikoagoetan bukatzen du liburua Davantek.

*Makila gorriaren* moldea jarraitzen du *Itsasoak iraultzan* liburuak. Bikoiztua da, hala ere, hori. Lehen zatian denetarik biltzen du Davantek, naiz eta izadia, eta maitasuna gai nagusi izan. Bigarren zatiak, emakumearen gaia agertzen duenak, batasuna osatu du gaiaren inguruan.

*Nahi gabek* ere, ildo existentzialistan mantendu den liburuak ere antzeko eraketa du. Hiru zati: “Nahi gabe ukana” jaiotzari buruz; “Nahi gabez betea”, bizitzari buruz; eta “Nahi gabe utziko” heriotzari buruz. “Zertako gara bizi” deituriko poema batean, ordea, Davantek hiru “incipit” horiek biltzen ditu:

Zertako gara bizi, pizti bitxi beti  
 Arima desegokiz beti gaizki bezti  
 Nahi gabe ukana  
 Nahi gabez josia  
 Nahi gabe utziko  
 Zaitugu, oi bizia... (NG, 97)

Egituraketa formalagoa, baina ez horregatik zentzua bistaz galtzen duena, du *Ihesi* liburuak. Hamar poemaz osaturiko hamar ataleko poemategia da hori. Zenbakien jokoak garrantzi handia badu liburuan, ez da bakararra, hamar atalok aroaren arabera partitzen baitira: ihes egitearen arrazoiketa (atal bi), lehen eguna (lau atal) eta bigarren eta hirugarren egunak (binaka atal).

Egituraketa irmo eta landuak badu atzean garapen semantiko argia. Lehenago azaldu dugunez, deskripzioetatik mitoetara igarotzen da Davant, bere poesiaren erro klasikoak agerian, maitasunez, utzirik.

Jon Juaristik ikusi zuenez, Davanten liburuan hiru maila desberdin aurkitzen ziren: lehena kontzeptuala: orain arte azaldu dugun moldaketa agertuko

litzateke. Ondoren, maila deskriptiboa dator: ideia nagusi horren inguruan poemek zerrenda bat eratzen dute; hilabeteena aipatu dugu lehenago, baina beste adibide batzuk jarri ditzakegu, adibidez “Haurren baratzea”, hor sendikoen arlo semantikoak osatzen du irudia ete horrela aurki ditzakegu, aitari-amari, alabei, arbasoei, poetaren aitari eta “berari”, horrek zirkulua itxi egiten du, semantikaren logikak agintzen du poemategiaren eraketa. Jon Juaristik ohi duen zorroztasunez honela deskribatzen du eraketa hori:

Hilabete guztiek beren adierazpen folklorikoa gordetzen dute Davant-en poesian: bere ezaugarri metereologiko eta erritualak. Jean Louis-ek aintzinako literatur jenero herrikoi bat hartu du eredutzat: Almanakea. (DA, 7)

Almanaketik hartuak ditu poemak osatzeko materialak, baina bere lan poetikoa ez da hor amaitzen. Hirugarren maila mitikoa da. Liburuz liburu Davantek erakutsi du joera klasikoazalea mitologiaren erabileran agertzen dena batez ere. Mitoak, helburu nagusiaren inguruan kateatzen dira, zentzuzko koroa biribildu arte.

Egitura hirukoi hau (denboraren katea, —naturaren heriotz eta berpizte amaigabekoa—, gisa esklabotasuna eta esperantza historikoa) ez da soilik egitura kontzeptual bat. Haren gainean antolatu du Davantek bere liburua. Parte bakoitza mito baten menpean agertzen zaigu. Kronos-en inperioak lehenengoa menperatzen du: denboratasunaren kartzela. Bigarrena, Sisiforen ahalegin alferrak aurkezten dizkigu. Azkenik, txinaurri ilunen neke eta izerdi sarigabekoak gaindi ditzakeen, ekintza historikoa, Prometeoren seinupean, gizonarengan finkatutako esperantza iraultzailea. (Juaristi, 1980, 9)

Deskripziotik mitora, beraz, eta hortik utopiara: zoriontasunaren zeinu den hamairugarren hilabetearen sinboloan. Antzeko eraketa ikus dezakegu beste liburuetan ere. *Nahi gabek* eraketa semantiko garbia du: hor mitoak biblikoak dira, baina era berean nabarmena da eraketatik mitora heltzeko idazleak egiten dituen ahaleginak. Utopia zoriontasunari egindako deian agertuko litzateke, azken batean testuak egitura bikoiztua ere zabaltzen baitu. Lehen atariko oihartzuna liburuaren bukaeran agertzen da. Hiru zatien atarian idazleak garbi utzi du gizona hitza dela:

Mintza hadi gizona!  
Baina zertaz mintza?  
Dena errana dago,  
Zer asmo berririk?  
Basamortu honetan  
norentzat predika?... (NG, 9)

Lehen dei ozpin honen erantzuna liburuaren bukaeran aurkituko dugu:

Entzun ene kantua  
edo deiadarra

Entzun ene oihua  
ta mezu bakarra.  
Ni naiz  
Hi haiz  
Gu gara  
Bagara (NG, 147)

*Ihesik* ere moldaketa bera mantendu du, beste adibide bat ematearren. Sisifo eta Prometeo (I, 23; 22) agertzen zaizkigu hemen ere. Baina mito klasikoak ez du orain horrenbeste indarrik. Ihesean doan bidaiariaren taiukera egin du Davantek liburu honetan, geografia desberdinak korritzen dituen pertsonaiaren mitoa osatu arte. Hiru egunetan eta hamar kapitulutan eta ehun poematan egiten den bidaian Davantek iheslariaren irudia eman du. Irudi horrek, bukaeran, badu utopiara heltzeko joera. Mundu guztia zeharkatu duen bidaiaria bere etxera itzultzen da, bere maitearengana. Baina badu barnean berriro irteteko asmorik:

Behin bukatzen dira bidaia guziak. Ene hau, ordea, ez dut horrela utziko.  
Beste ametsik badut egiteko, beste itsasorik asmatzeko, beste mendirik igaiteko.

Etxean, edo ez, goazen beti aintzina, maitea, munduz mundu. (I, 106)

Ametsezko bideetan aurrera jarraitu du bidaiariak, geografia errealetatik, geografia asmatuetara igaroz: “Itsaso berria”, “Uharte dohatsuak”, “Galizia”, “Iparra”, “Hegoa”, “Portu berria”: izenburu esanguratsuak ametsezko bidetik doala poeta ikusteko, beti ere “Maitea zurekin”, afektibitatearen tokian bukatzeko:

Ihes leku onena  
zu zaitut maitea...  
Herioa dug’ukatzen  
oraina baztertzen  
Eternitateari  
gako bat ebasten  
Eta zorion laburra  
elez emendatzen... (I, 116)

Maitea pausalekua da utopiara heltzeko, azken helburura heltzeko:

Ahal bezain laster  
ahal bezain luzaz  
Askatasunerantz  
ihes egin bedi.  
Bizitza salbatu  
nahi duen orok  
Ametsez bederen  
ihes egin beza... (I, 118)

Maitearen irudi osatua da *Itsasoak iraultzan* liburuan. Deskripzio fisiko zein sentimentala batera, helburu nagusia lortzeko, emakume mitikoaren marrazkia sortu arte: armarrri gordea du (II, 86) eta Erregina da, baita irudi eta mito ere:

Ametsetan dabila gizonen mengoa  
Parabisu galduen eskuratzekoa... (II, 91)

Zerbait deigarria badago liburuotan: metrikaren erabilera zuzena da. Davantek lan handia egiten du metrika aldetik:

Formaren aldetik, poemagintza klasiko baten aurrean gaude. (1980, 6)

idatzi zuen Jon Juaristik. Eta hala da, harrigarria da sonetoaren erabilera maisu, txukun eta egokia. Davantek badu ahots sendo, irmoa, poemagintza neurtuaren ildoan. Hala ere sonetoak ez du bere poesia mugatzen eta asko eta asko dira soneto bidean jarri eta zentzuaren mesedetan, metrika puskatzen dutenak.

Metrika arautua hausten duenean ere, beste arau bat, erritmikoa, asmatzen du bere hitz poetikoak:

Oraikoa behintzat, errimaren bazter uztea erabaki dut, eta bertsu klasikoari ere uko eginen diot lan honetan, gutiz gehienetan segurik.  
Hargatik erritmoari fidel egoiten natzaio. (I, 6)

Metrikarena poetika honen gailur punta baino ez da. Zuzen eta gozo, maisuki adierazten du ideia poetikoa Davantek bere existentzialismo historikoa-  
ren barnetik.

## **Bibliografia**

- DAVANT, J. L. (1980): *Makila gorria*. Elkar. Donostia.  
— (1982): *Denboraren aroak*. Bilboko Aurrezki Kutxa. Bilbao.  
— (1985): *Nahi gabe*. Caja de Ahorros Municipal de Pamplona. Iruñea.  
— (1986): *Itsasoak iraultzan*. Maiatz. Baiona.  
— (1990): *Ihesi*. Maiatz. Baiona.
- JUARISTI, J. (1982): “Hitzaurrea”. *Denboraren aroak*. 5-9.



## ITXARO BORDA MINBERA ETA OROIMENA

Iparraldeko idazleen artean ospe handia hartu du Itxaro Bordak. *Maiatz* aldizkariko eragile, bere lanak Maiatz eta Susan argitaratu dira. Nobelagile eta poeta, agian Iparraldeak eman duen ahotsik berriena dugu, literatura modernoa ongi ezagutzen duen kontzientzia argia, idazle trebea, mugaz handiko literaturan izenik ezagunena da, zalantzarik gabe, eta bere literatur lana ere arnas luzekoa da eta urteetan zehar zabaltzen da. Gainera idazleen eragile ere bada eta berak zerikusi handia izan du Aurelia Arkotxa zein Tere Irastorzaren literatur garapenean. Literatur egile eta eragile, ez dakit bere nobelagintza ausartak ez ote dion ekarri poesiak baino ospe handiagoa. Dena dela, horixe da gure eremua, eta idazlearen fitxa txikia eginez hasiko dugu gure lan hau.

“Itxaro Borda. Baiona 1959” jartzen du *Gaur egungo euskal idazleen katalogoak*. Halaz ere Luzien Etxezarretak Oragarren jaioa dela dio. Noizbait, herrialdea aipatzen delarik, Amikuztarra dela ere irakurri dut. Lau poema liburu argitaratu ditu *Nola bizitza badoan* (1984), *Kokodril bat daukat bihotzaren orde* (1986), *Just Love* (1988) eta *Bestaldean* (1991). Ipuinak eta nobelak ere argitaratu ditu eta gaztetatik jardun da prentsa idatzian.

### 1. Poetika

Euskal Idazleen Elkarateak 1990. urtean XX. mendeko literaturaz eraturiko hitzaldi sortan Itxaro Bordak bere poetika marraztu zuen “Autojustifikazio erreza” deitu zuen mintzaldi batean. Testu hori da bere poesia ikuspegia adierazteko testu nagusia.

Lehendabiziko baieztapenak, bizi duena idazten duen poetaren aurrean jartzen gaitu. Itxaro Bordak egiaz eta zintzotasunez sinesten duela dirudien neurrian kokatzen da abiapuntu autobiografikoan eta nitasuna kokatzen du bere poesiaren oinarri:

Bizi arau idazten dut... idatz arau bizitzen naiz. (1991, 229)

da mintzaldia hasi orduko agertzen den baieztapena. Baina, kasu esaldiari, ez baitago hor eta beste zenbait euskal poetek egin duten zuzentasun poetikoaren aldeko aposturik. Esaldiak “bizi dudana neurrian idazten dut” dio.

Aitortzen digu poetak:

Askotan leporatzen didate, nere idazkiak, ipuinak, poemak edo nobelak, autobiografikoegiak direla, mexprexu piskatekin noski eta ez dut argumentu segurti honen aurkamenezko argumenturik. (1991, 231)

Autobiografia abiapuntua da, baina poemaren lanketa prozesua ere bada-go. Eta autobiografia badela aitortu arren, Itxaro Bordak argi du fikzioa versus errealitatea dela poesia. Hasieran gertatuko da bizitzaren samina, baina arauera horrek ikuspegia mantsotu egingo du, araueratu. “Bizi arauak”, badu beste irakurketarik, Itxaro Bordaren lanean zuzenean agertzen den ezaugarriaren bidez. Idazketa hau, zenbaitetan, uhalik gabe doa, eta ez da idazlea produkzio gutxikoa. Idazleak aitortzen duenez:

Hiru helmuga arraro dauzkat buruan dantzan, obzezione gisara, ondar urte hauetan:

—Idaztea, idaztea, idaztea, azken hatsaren dudak, zorionak desirak esprimitu arte ...

—Guduka etsituetan gutien galtzen saiatuz, desira begiratzea, zaintzea, gerizatzea.. (1991, 230)

Idaztea barne indarrari erantzunez egiten baitu, erregistro eta tonu desberdinen pilaketa gertatuko da ere testuetan.

Baina esaldiak bigarren alde bat ere badu: “Idatz arau bizitzen naiz”. Orain arte irakurri duguna irakurrita badirudi Itxaro Bordak nitasun, autobiografia, desira eta sentimenduen munduan kokatzen duela poesiaren gunea. Horrela ere bada, esaldiaren bigarren zatiak, ordea, garbi uzten du beste nonbaitera zuzentzen dituela bere poesiaren zubiak. Hitzaldian, nik uste, garbi azaltzen ez bada ere, idazten den heineko bizitzak etika baten sinestea dakar berarekin, eta, hau juxtu, etika hori ez da azaltzen. “Etika kuestionea” (1991, 230) aipatu, aipatzen da, bai, baina sakontasunik gabe, edo, oker ez badut irakurtzen behintzat, beste arazo batez ari da idazlea, nahiz eta tratatzen dugunarekin lotua egon, hain zuzen ere, hitz biok idazlearen funtzioa gizartean zein den azaldu nahi duenean agertzen baitira. Baina idazketakoaren arauera bizi esateak norberaren barnean ez geratzea esan nahi du. Eta Itxaro Bordak garbi du literatura militantearen papera.

Autojustifikazio honetan, aitorten batean baino gehiagotan aipatu du zer nolako papera betetzen duten besteek bere lanean. Literaturgilea beste ofizio

eta pertsonaiekin lotzen duen unetik, hasten da Itxaro Borda bere poesiaren toki *engagéa* adierazten.

Idaztea mirail bezala kontzebitzen dut, bekatu ahalgegarrienak, nahiz zorionik eskasena isladatzeko, estereotipo ugarienetariko urrunduz, erreallitatearen zati bat harrapatzeko... min uhargituan bizitzeko aitzakiak bermatzeko. (1991, 230)

Testuan erreallitatearekiko egiten den lotura da aipamenik garbiena. Baina ez bakarria. Konpromezua, bere joera eta guzti, batez ere hizkuntzartekikoa baitu Itxaro Bordak.

Hori dena esprimitzeko, egiten ari garen, ikasten dugun asma dezakegun hizkuntza bat badugu, ontasun kolektiboa, urguilurik edo debekurik onhartu behar ez lukeen hizkuntza bat, eman / irakatsi digutena... gertakariak aztertzeko, aurka zein alde borrokatzeko, geroa planteatzeko... katea ez baita dagoeneko hautsia. (1991, 230)

Errealitatearekiko egiten duen iritzi jorratze horretan Itxaro Bordak badu sistemaren aurkako joera.

Gaur bizitzeak signifikatzen duelarik, mundu kapitalisteko aurkikuntza ederretan kokatzea. (1991, 230)

Honegatik baino ez bada ere, autobiografia pribazitatearen tokia da, sistemaren aurka joateko era:

Idazkiak, autobiografia puntuz jostean hezi nauen gizartearekiko libertate gehiegi hartzen delako. (1991, 231)

Agian sinplea da hemen erdiesten duen bidea: norbera gizarte ezbidetakoaren aurka, edo bestela, erromantizismoan zabalduriko poetaren irudia: bera denen gainetik, denak nola behar duen esanez, eta hau gorago esandakoaren aurka, poetak gizartean izan beharko lukeen berdintasun iritziaren aurka joango litzateke. Orrialde batean literaturak gizartean berebiziko funtziorik ez duela esaten den artean, urrengoan aurkakoa baieztatzen da. Badakit oraingotan autobiografiak ari zaigula idazlea, baina ez ote zen autobiografia idazlanaren abiapuntu, zutabe eta oinarri?

Lehen alde honetan bere literaturgintzaren zutabeen agerpena egin du Bordak, eta hauxe liteke poetikaren alderik interesgarriena, zehazgabeena eta ilunena den arren, edo behintzat badirudi ongi menperatu dituen ideiak, esaldi ongi errotuak adierazten dituela, nahiz eta, agian estereotipoetatik ongi ihes egin gabe, askorik argitu ez.

Ondoren ongi eraturiko hiru zatitan bere lanaren zehaztapenarekin jarraitzen du Bordak, ideia nagusietatik deskripzioetara joz. Lehen aldean, "Bizitzaren hurrupa" deiturikoan berriro hartzen du fikzioaren eta erreallitatearen

arteko lotura. Ez dira, berriro, pasarte argiak. Tartean, baieztapen estonagarriak badago:

Baina, autobiografikokeriaren arazoa errealitatea eta fikzioaren arteko debatea bezain faltsua da, antzua. (1991, 231)

Testuingurua ongi ulertzen badut, behintzat, literaturaz eta idazketaz ari denean Itxaro Bordak zera adierazten du, eta gorago esandakoa errepikatuko dugu, behar eta, autobiografia dela bere literaturaren oinarri, baina ez da elementu soil. Idazten den unean literatur oinarria beti landua, literatura bihurtua gertatzen da. Hori guzti hori lotzen du urteen joanarekin. Ondorio bikoitza du denborak. Alde batetik ahazmenarena du berarekin, baina, bastetik, idazleak bere erritmoa aurkitzen duenean betea agertzen da:

Libertatea eta nere aldiaren isiltasunaren premia zer zen ikasten aritu nintzen. Ikasi dut ondorioz, pasatzen den denborak bere balio bakuna duela ... bitzta osorik bitztea komeni zaigula inpazientzia ikaragarria izan arren, eta idaztea ardura, bizitzeko zurkaitz izan ditekela. (1991, 232)

Bigarren atalean hizkuntzaren balioaz hausnartzen du Itxaro Bordak. Ezaugarri bi ematen dizkio hizkuntzari. Adierazteko tresna da, eta baieztapenak abangoardiaren ondoan kokatzen du idazlea, eta askatasun eremua ere bada.

Adierazteko tresna inguratu eta definitu nahi duenean, Itxaro Bordak oharpen bi egiten ditu, euskal literaturan gertatu diren ildo biren deskribapena. Ruralismoaren eta jatoriasunaren aldeko hizkera literarioen nondik norakoak ematen ditu, ondoren euskara hirietara nola sartu zen literatura sozialaren hegalean menpe azaltzeko. Bere bidea eskaini nahi du Itxaro Bordak, eta hizkuntzaren erabilgarritasunaren alde agertzen da.

Hizkuntza tresna bat bezala kontsideratzen baldin bada, hizkuntza airatzen da, desiraren hegalez, erran ditekela bizi guzti airosten du, euriak busti eleekin... Hizkuntza, tranzendatzen du eguneroko ihardokitze oldarren esprimitatzeak, ez hiztegi karioetan "garbi"ki atzikia izateak. (234)

Hizkeraren esperimintazioa berriaren tokian jartzen duelarik ere, pentsatzeko biderik badago Itxaro Bordak hizkeraren erroak ondo sustraiturik dituela, eta esperimintazioa funts sendoetatik egiten duela.

Hizkuntzak eta literaturak askatasuna eskatzen dutela adierazten du ondoren. Askatasun hori, hala ere, ez du erabatekoa nahi, zaindua eta orekatua baino:

Errenbika dezagun, beraz autonomia eta askatasunarekin batera, tenporalitatea, lakukotasuna eta erresponsabilitatea. (1991, 235)

Oreka nola mantendu da kontua. Honetan, beste zenbait arazoetan bezala, Itxaro Bordak baieztapen zuzena egiten du, mugatzea zorrotz ematen du, baina gehiago dirudi sintoma baten zehaztapena edo literatur konbentzioen agerpena, eta berea egiten duen sinesmena ere bai, noski, hausnarketa zabal baten deskribapena baino. Zuzen jokatzeko du berea azaltzen duen neurrian, baina literatur teoriak ez dio aurrera egiten, agian berea ez den lana ere bade-lako hori, beharbada.

Sintoma baten mugapena dugu. Eta hala da. Itxaro Bordak indar bi ditu bultzaka. Modernitateak agintzen dituen berritasuna eta ezustea bilatzen ditu literatur lanean bere bigarren poema liburuaren izenburu polit eta harrigarriak adierazten duen moduan: *Kokodril bat dut bihotzaren ordeztu*. Baina, beste aldetik, ulertua izan behar du. Bordaren lana poesia modernoak duen gatazka baten erdian agertzen da: poesia hermetikoa ala ulerterraza, zein da bidea?

Gainera, hausnarketa horrek baditu bere muga jakinak ere. Askatasunaren alde eginez, autonomiaren alde alde eginez baino lehenago, Bordak badaki abangoardiaren irudimen askatasunean pentsatzen ari dela. Baina zilegi da poesian hizkera agramatikala, edozein mugetaraino izan liteke askatua eta gramatikala apurtzailea *non sensean* jausi gabe? Gai horiek ez dira aipatzen poetika honetan. Aipatzen da, hala ere, beste zerbait oso interesgarria gertatzen dena: desbideratzearen aurkako planifikazioa:

Hizkuntzaren inguruko mintzamen barnerakoi horrek desbideratzearen aurkako medioak planifikatzen ditu:

- erderakadak zerrendatzen dituzten obrak,
- astekarietan “garbiki” solastatzena gomendatzen diguten artikulatuak,
- kritika ordeztu, argitaratu obren kritika osoki filosofikoa. (1991,

234)

Beste era batez esanda, askatasuna, nahi bada ere, ez da osoa eta neurri-gabea. Eta, gainera, askatasun nahia gertatzen ari da hizkera komunitate bereko beste zenbait literaturgile, edo iritzi emaile ari direnean literaturtasuna hizkuntzaren fintasunarekin zen, literaturtasunaren lehen baldintza gisa hizkuntzaren zuzentasuna eskatzen. Nahi bada, hitz gordinagoak erabiliz, iritzi arauemaileagoak agertzen direnean, joera kontserbadoreagoa azaleratzen dabilkigunean.

Bordak hori nabaritzen duela dirudi, eta hizkeraren askatasunaren alde egiten badu ere, jartzen ditu, lehenago aipatu dugun eran, oreka neurriak:

Kultura bakoitzak ... bere moralak badu. Morala aipatzen denean, noski baieztatzen da, moralaren erakaspenen traspasatzeko dretxoak zain dezakegula. Hor dago, jostan ari, gure idazle libertatea, eta gure idazle utopiko erresponsabilitate indibiduala. (1991, 234)

Hirugarren sailean gai zehatzagorik aipatzen ditu Itxaro Bordak bere poetikan, lan poetikoari atxikituagoak. Hiru zatitan banatzen da “Idazlearen obsesioea” deitzen duen azken atal hau. Grafozaletasuna aitortzen du lehenik idazleak, terapia gisa izendatuz lana:

Idaztezin horren gainditzea, gertatu da frangotan, bizirik irauteko gogoren aldeko primitiboaren lagun. Krisietarik atera, izkribatu eta gero salbatua izan. (1991, 235)

Ondoren hiru aitorten: obsesioei buruz, gaien inguruan eta formen azalpena. Hirurekin egiten du Itxaro Bordak irakurketa bera. Bere obsesioa, bere gaia, berea eta berari dagokiona dela azaldu ondoren, kolektibitatean ikusi nolakoa den gai edo obsesio horren agerpena. Gizakiaren irudipen bakarretik gizarteratzea da bilatzen dena ondoren, bere poesiak beti izango du baranoa kolektibitate zabalik. Obsesioez hitz egiten duela, hala ere, zerbait ez du ongi moldatzen Bordak, obsesioak azaltzerakoan “idazle oro”tik “nire gai”ra bigarren obsesioa gertatzen baita. Bordaren idazketa arinaren beste zehazgabetasun falta litzateke, agian. Guk, dena dela, bereak direlakotan hartuko ditugu iritziok eta obsesiook.

Heriotzarena da lehena. Aipatu besterik ez du egiten, eta poesia existenzialistari ez dio toki handirik eskaintzen. Arreta handiagoa jarri du kolektiboki heriotzak izan lezakeen garrantzian, baina hausnarketa azalekoa da. Azken unean, baina, badago aitorten jakingarririk:

Nere aldian, eta horregaitik pesimistatzat jotzen naute, ez dut testu bihi bat izkiriartzen behin bainotan, heriotza aipatuz, ene beldurraren, ene gogoko esperantzaren zutabe. (1991, 236)

Bestela ezinezko zenez, heriotzarekin batera agertzen da “denbora iheslaria”ren hisia. Ez da bideratzen tema baina, existentziaren bidetik, maiteago ditu Bordak 80ko hamarkadan nagusi izan diren oroimen eta nostalgiaren bideak.

Testu guti idatzi dut orainean, hau da presentean, iragana nahiago banu bezala, azken urte hauetan, adibidez, memoriaz eta nostalgiatz hazten naitzenean. (1991, 236)

Memoria deshumanizatu egiten duen gizartean norberaren erroak aurkitzeko ziurrenik, memoria nor izan garen iraganean nagusitzen ari zaigulako, memoria gure barne bizitzak egiten gaituelako nonbait. Memoria gai poetiko nagusia, gizakiaren historiaren oinarri, azken batean norberaren historia kontrajartzen baitzaio historia ofizialari.

Itxaro Bordak, ordea, kontrajarpen bat egin du testu horretan. Oraina iraganarekin aurrez aurre jarri du: “testu guti idatzi dut orainean”. Baina hurrengo seta aipatzean, gauaren obsesioa, alegia, eta lehengaia, hurbilduko zaio Borda gaur eguneko egoerari, konpromezu poesia sartu nahirik.

Txaplada gisa azalduta badago ere, gaua askatasunarekin lotzen da, galtzaileekin, bizitza arruntaren bestealdean dagoen errealitatearekin.

Edertasuna, ezintasuna, amodio nahia, lainotasuna, nortasun kurutzatuen eremuan ... gauen gauzak eta jendeak hurbilago eta libreago direlako ... gauean, ez da botererako hainbeste gudurik, gehien bat gauak jadanik galtzaileak biltzen dituelako. (1991, 236)

Gauaren ikuspegi erromantiko honek badu beste loturarik ere. Gaua margenarekin lotzen da, ertzarekin. Honela,

...mugetarainoko esperientziak jasaiten direlako... (1991, 236)

Eta ertzean dago emakumearen irudia. Eta harekin bat egiten du idazleak:

...obsesiboki pertsonai femeninoek zeharkatzen dituzten nere testoak oro ... “gizartean” zapalduenen egoerari heltzeko molde bat baita. (1991, 236)

Gai bi ditu nagusi Itxaro Bordak bere testuetan: “egunerokotasuna” eta “aroak, paisajeak, musikak”. Alde desberdin bi, begi bi, sosaren alde biak. Alde batean, bere garaiko ardura hartzen duen poeta dago, bestean, idazteko era baten definizioa. Egunerokotasunak larrialdia dakar:

Langabezia, turistifikazioa, manifik, bakardadea, maitasun eskasak, manatzen / jujatzen gaituen gizarteko kratatak inharrostea, botereak dudan jartzea, gure biziak dudarazten dakiten eran, manipulazioak.

Hegi batean, gaiak daude eta munduaren ikuspegi lazarria. Arazoak, gaiak. Bestean idazterakoan begirada, norberaren tonu poetikoa, sentiberatasuna.

...aroak, paisajeak, musikak. Idaz orduan, hiru elementu horiek oso garrantzitsuak zaizkit. Ardura, idazten dudanean, zerbait entzuten, ikusten edo eta senditzen baldin badut, kasik automatikoki hitzen bizihazten da betiko. (1991, 237)

Irakurlea, hala baina, bien artean dagoen trokazuloak harritzen du. Gai sozialak hor dira begi aurrean, eta hartzen den estetikak (“aurki dezake, nere sinbologia gehiegizko naturarekin josia dela”) badu loturarik elementu birekin. Batetik, estetika tradizionalarekin, nahiz eta irakurleak badakien estetika eta batez ere hiztegi poetikoaren aldetik asko landu duela berea Itxaro Bordak. Bestetik irredentismo puntu batekin. Hor daude arazoak eta poetak bere txokotxo aukeratzen du errealitatearen alde biak, kanpo bizitza, barne bizitza banaturik. Banaketa ez da soilik hor agertzen. Hirian gertatzen dira arazoak, eta izadian aurkitzen da pakea, hiria “nahiko monotonoa da, lanerako edo erakusgailuen presan ez da sasoinen joanik susmatzen” idazten du Bordak; idazten denean, ordea, sentiberatasunak inguratzen du poeta.

Azken hausnarketa eskaintzen dio idazleak formari. Arin eginiko lana dela dirudi. Hala ere, badira hiru baieztapen nahiko interesgarriak txatal honetan. Lehen formari jarri dion arreta izango litzeteki.

Testuari eskaini nahi diodan giroak agintzen dit forma... Egiaz, denbora asko iragaiten dut, edozein testori forma egoki baten aurkitzeko. (1991, 237)

Baieztapenean formaren ordeztunua da jarri beharko genukeena agian. Ez da ironia punturik falta bere lana zehazterakoan:

Gaia zehaztu ondoan, forma aukeraturik, errez zait ondorioz, materialki idaztea. Honek, kantitatea esplikatu bait dezake. (1991, 237)

Hizkuntzarekiko funtzionaltasuna aukeratu du, aberastasun eta garbitasuna bigarren mailan utzirik, irakurlearengana hurbiltzeko ahalegina egiten duela dio, eta ez duela “epatatu” nahi.

...hizkuntzaren formaz, bost axola. Zuzen idazten saiatzen naiz, moralistez gain, gramatikariak ez bizkarrean ukaiteko beti. Ahal den hizkuntzarik sinpleena erabiltzen dut ... gaiak hitz arruntak, minberak eskatzen ditu ... Gaiak du premia ematen. (1991, 237)

Gaiaren menpeko jartzen da hizkera, eta egunerokotasunaren eta izadiaren arteko bilketatik sortuko da Itxaro Bordaren poesiaren xarma. Hirugarren oharra gaiak zehazten ditu. Galdera da nagusi lanean:

Edozein moldetako galderak: sozial mailakoak, politika mailakoak, sentimentu mailakoak, jendarteko harreman mailakoak, mundua zarta araz lezakeen harrisku mailakoak.

Zabala da begirada. Hedatuak gaiak, eta zabal eta hedatuak dira Itxaro Bordaren poesiaren gora-beherak, gaiak eta tratamenduak.

## 2. Biografiatik esperientziara

Itxaro Bordak berebiziko tokia betetzen du gaur eguneko Iparraldeko poesiagintzan. Ikur berezia izan da eta da.

Destaca sobramanera la poetisa, novelista, Itxaro Borda, voz rebelde e iconoclasta, que está haciendo mucho bien a una literatura —me refiero a la “vasco / francesa”— hasta hoy dominada por cuatro notables. (Izagirre, 23)

Luzien Etxezaharretarentzat, eta nabaria da baieztapenaren gehiegikeria:

*Bizitza nola badoan* XX. mendeko euskal literaturaren liburu inportanteenetarik da. (1994, 20)

Gehiegikeria diot, igarotako urteen ikuspuntuetatik agertzen da Bordaren



beste liburu batzuk hori baino helduagoak direla. Susa argitaletxeko ardura-dun batek ere Bordaren irudia —eta ez zuzenean poesia— deskribitu behar duenean honela mintzo da *Kokodril bat daukat bihotzaren orde*z liburuaren paratestuan:

Idazle oparo gisa ari zaigu plazaratzen “Maiatz” taldeko partaide eta sustatzaile den Itxaro Borda... Polemika da Borda alde guztitatik mugatzen duen hitza, hain zuzen ere. Baina hori alde batera utzirik ez da asko egongo idazteko trebezia berezi bat duela ukatuko duenik.

Oparo, polemikoa, idazteko trebea, hiru izenondo Bordaren lana definitzeko. Garbi dago bere irudiak bete duela lozorroan zegoen Iparraldeko literatura sustatzeko paper berezia. Sustatzaile, sistemaren aurkako, ez da gainera idazle akademiko bat, beste lanbideren batean aritu ondoren idazten duena da, gainera. Hegoaldeko idazleen irudia apurtzen du, eta ez du gaizki idazten, edo ingurukoekin gonbaratuz oso nabarmen idazten du. Ez dira arrazoi txikiak literatura berrian gune papera betetzeko.

Itxaro Bordaren poesian, orohar eta liburu guztien gaineratik pausatzen ikusten dudana lehen ezaugarria kontrajarria dela da. Poetikan ikusi ditugu mundu bi aurrez aurre, hiria eta paisaia, zapalkuntza eta narotasuna, gatazka eta bakea. Beste honenbeste gertatzen dela, gorpuzten dela poesian esango nuke. Inork baino hobeto adierazi du hori Josu Landak:

Bere ez-perfektotasunak eta kontraesanak ezkutatu nahi gabe idazten du Itxarok, bere buruarekiko kupida bat ere gabe. Gordintasun honetatik jasotako indarraz. (1990, 63)

Gordintasuna, ezperfektotasuna, nobelaz ari bada ere. Baina beste maila askotan aurkitu dezakegu joera hori. Izenburuetan: *Krokodila bihotzaren orde*z. Sinboloetan, *Bestaldean* liburuak, idazleak berak aitortzen duenez, sinbolo maila bi erabiltzen ditu: etxekoa eta trenarena:

Bi munduren berri ematen digu lan honek, eta biak euskal kultur tradizioan oinarritutako sinboloek janzen dituzte lehena etxekoa ... Bigarrena Pariseraingo joan etorrien lekuko, usoa eta lagun zein arerio den trenaren irudi bikoitzean oinarritzen da. (Lizartza, 1991, 57)

*Kokodil bat daukat* liburuak exotismoa eta biografia biltzen omen ditu. Bestaldeak hemengo aldea eskatzen duen moduan. *Just Loven* beste maila batean agertzen da banaketa. Hiztegi eta esakeran egunerokotasuna eta aroak paisaiak, eguneroko hizkera eta poesia-tradizioko hiztegia. Ez ote da guzti hau surrealisten adierazten zuten guardasolak hebakuntza mahaian josteko makinarekin egindako aurkikuntza?

Ez ote hotza eta beroa, xamurra eta garratza, ontzi berean isuritako teknika-karen agerpena? Egia da bilketa hori gogoko badu ere, ez zaiola atsegin

Felipe Juaristiri, honela mintzatu baitzen poema liburu horren iruzkina argitaratu zuenean:

Poema diferenteak bildu ditu liburuan, eta hori ez zait gustatzen liburuetan... *Esate baterako*: gai politikoa ez duten poemekin nahastea. *Are gehiago*: haur kantekin nahastea... Badirudi liburu batetaz baino gehiago liburu batzuetaz idatzi beharko nukeela... liburu hau nahiko inkoherentea dugu.

Elkartu ezina den nahaste hori da hain zuzen ere poetika eta poesia honen oinarririk sendoena. Beste kontu bat da irakurleengan sortzen duen eragina, poetika ikusi dugunean garbi geratu baita nahastea egiteko orduan oinarri teoriko sendorik ez duela aurkitzen Bordak, baina estetika hori landu egiten da behintzat.

Baina ez zen horrela izan hasieran; *Bizitza nola badoan* askoz ere liburu arkaikoagoa da, lehen.

Gorago aipatu dugunez, bada liburu hau deskribitzen duen artikulua bat, Luzien Etxezaharretak *Hegats* aldizkarian idatzia. Bertan, arazo bi aipatzen dira batez ere. Lehenik liburuak Iparraldeko literaturan izan duen eragin psikologikoa aztertzen da:

Gizarte krisia isladatzen zuen (Bordak) bere nortasun indartsuaz ... ilusio handien sortzeko ahaltasuna. (1994, 13)

Bigarren alde batean, lanaren azterketa eskaintzen du. Orokortasunetik hasiz, Etxezaharretak liburuaren berritasuna aipatzen du lehenik, inpresionismotik hurbil dagoen kritika osatuz. Berritasuna baieztatu egiten da frogarik eman gabe:

Berritasun, imaginazio, askatasun eta talentuz orratua zen... Itxaro Borda azken hamen urte hauetan aldiro eta edonon berritasunaren ikur eta sinonimo bilakatu da. (1994, 17)

Ondoren lanaren malgutasuna aipatzen du, eta agian hemen dago berritasuna: “bertso libre, soneto edo egitura aldakorreko” lanak idatzi baititu Bordak.

Berritasuna, liburua 1984, urtean argitaratua izan baitzen, eta urte mordoaren bilduma lana izaki, Iparraldeko testuinguruan ulertu beharko litza-teke, nik uste. Hogeita bost urte betetzen dituenean, egindako bilketa da, denbora ihesaren gaiarekin hasiz, lanaren abiapuntua:

Denborak, gaztaroko zintzotasuna ebatsi badaut ere, orainokoan ni baitan zerbait hats bizidun gelditzen dela pentsatuz. (BNB, 7)

Gaztaroko zintzotasun hori, Luzien Etxezaharretak ere ikusi duena, da liburu baliarik berriena. Nitasuna biluzik agertzen da, nor den aipatu

nahiz. Nihilismo puntu bat adierazten du nitasun horrek, maitasun eta desiraren garrak, joera desberdinak, haurtzaroaren gozoa, herri eta euskararekiko atxekimendua. Nitasun konplexua. Eta hizkera poetikoaren aldetik, hasieran hizkera poetiko tradizionalari atxikitzen bazaio ere, eta nabaria da hori metroaren erabileran, poemategia bukatu orduan, egunerokotasuna berebiziko indarra hartzen joango da. Autobiografia? Agian mozorro desberdinen agerpena:

Bainan argiak ez du neretzat argitzen,  
ez ditake iluna hain goizik garbitzen,  
ez da neregatikan untzirik partitzen.

Hutsari narraikola gauen orainean,  
hiltzera utziz desir kiretsak zainean,  
bakarrikan banoa itsaso gainean... (BNB, 47)

Etkezaharretak “probokazio nahia” ikusten du ni horren barnean. Nik bizitza aurreko kezka ugaria ikusten dut, iritzi desberdinei emandako erantzun desberdina: haurtzarora itzuli nahia, desira, ametsa, heriotzaren aurreko beldurra, utopia nahia, heriotza pulsioa, hutsarekin tentatua izatea: hutsari narraikola. Agian, modernitatearen aurpegi desberdinak erakusten ditu Bordak liburuan, hautsi den mirailak erakusten duen aniztasuna.

Anitzak dira pertsonaren agerpenak eta anitzak forma poetikoak, metrika trradizionala, sonetoa, errima zainduriko ahapaldi desberdinak.

Bigarren helburutzat Etkezaharretak liburuko gaien zerrendapena eta garapena ematen du. Arkibideari begiratu edonor konturatuko litzatekeenez, testuak sei zati nagusi ditu, zenbakien izenez deituak. Hona hemen Etkezaharreta kritikoaren banaketa:

Liburuko bi lehen testuek haurtzaroko garaia agertu zuten... “Baga” ametsaren oroimena bazen, “Biga” sailean, amets hondatuen agerpena egin zuen... “Higa” kapituluan barnatu zuen bere gaia, Euskal erroko aipamenekin ... “Laga” eta “Boga” zatietan sendimenduzko oharpen ugari dauzka maitasun, memoria edo ametsaz ... “Sega”, azken partean, bukaerako gorde etsipen mailako testuak azaltzen ditu... “finis mundi” apokaliptikoa (1994, 18-19).

Bistan da laburpenean ongi deskribitu dituela lehen hiru eta azken sailak, eta “Laga” eta “Boga” sailak geratzen direla zehazgabe. Bada beste hutsune bat azterketa honetan eta, nik uste, garrantzitsua, gerora Bordak izango duen garapena kontuan hartzen badugu. Ez zaio tokirik eskeini exotismoari eta hurrengo liburuetan toki berezia hartuko du lanak.

Konforme egon beharko dugu Etkezaharretarekin, “Baga” sailak haurtzaroko munduaren agerpena baitakar. Lau poemetan, eta oroimen ariketa eginaz, etxe eta familia giroa, eskolako bizitza, gauetan sentidutakoaren zirarra

eta jaietako argia biltzen ditu. Sonetoak eta metrika tradizionala, bietatik erabiltzen du Itxaro Bordak oroimenaren berreskurapenean.

Begiratzen dut gogoan  
memoriaren gozoan  
arin doan haize ona  
ogien uhain horia  
zeru urdinen sakona  
eta larrosen loria... (BNB, 11)

Agian testurik xaharrenak dira sail honetakoak, eta tonu bat eraikitzen baino gehiago metrika zehatz betetzen dabilen idazlearen lehen pausoak dira eskainitakoak.

“Baga” autodefinizioarekin hasten da. “Antigaia”, antimateriaren bidez, indar negatiboen bidez sortzen den irudia, denboraren joanaren onarpenarekin bukatzeko:

...eta “gero”ka etsipenez  
nekatuko,  
errendatuko haizelakoan  
eta denbora joanen zaunalakoan  
soil soilik onhar ezan:  
    bizia bere egunerakoan,  
    egintza bere ahalezkoan,  
    maitasuna bere biluztasun osoan  
    herioa bere halabehar askatzale zoroan... (BNB, 25)

“Higa”k herriaren gaia hartzen du kontutan. Zenbait poematan abesti eta joera sinpleak agertzen baditu ere, badira sailean konplexotasunez idatzitako testuak, eta tonu lirikoa mantenduz, euriaren aldeko testua. Lehen aldiz agertzen da euriaren gaia poesian eta indar handiz egiten du sarrera. Poema hone-tan, lehen aldiz ikusten da egunerokotasuna sartzen testuan, eta tonu malguga-  
goa erabiltzen du idazleak.

“Laga”k gai desberdin bi jorratzen ditu. Batetik heriotza eta bizitzan beharrezkoak ez garela sinesten duen sentimendua, beste aldetik urruneko munduen lilura. Ez du ironiarik falta poemak egiterakoan, Txinako itsasoetan ontziak paperezkoak baitira.

Paperezko ontziak badoatzi kantuz... (BNB, 42)

“Joanen ginatekeela”k ere beste mundu baterako nahia agertzen du, dela beste geografia batean, dela beste garai batean:

Nik dakit nora...  
Beharbada, ondartzak ortzaiza degien lekura  
palmatzeen itzala fresko den mortura  
atol urdinetan dauden uretara

Penjab eta Kaxmireko zelaietan...  
Beharbada  
iragana ahantz dezakegunera,  
biharra bakarrik ditatzen gunera,  
denbora galduko ez den egunera.

Bizitzaren aldeko aldarrikapenarekin bukatzen du sailak. 1981-1984. urte-  
en artekoa biltzen da “Boga” eta “Sega” sailetan. Poemarik berrienak beraz,  
hobeki onduak, erritmo eta iruditeri aldetik borobilenak. “Boga” huts senti-  
mentalaren inguruan osaturiko testuez egina dago, bakartasun, sentimendu  
eta maitasun galeraren inguruan. Etsipen puntua agertzen da noizbait:

Hutsari narraikola gauen orainean,  
hiltzera utziz desir kiretsak zainean,  
bakarrikan banoa itsaso gainean... (BNB, 47)

Halaz ere, maitasunaren galeraren aurrean ez du poetak agertzen joera  
lasai eta orekatua baino.

Bai maitea, bihotzean min dut  
atzo zin egin dut  
bakartasunak nau zugandik urrundu... (BNB, 54)

“Sega”k hausnarketa adar bi ditu. Idazkerari buruzko testu bat da izan hor  
aurki dezakeguna, idazkeraren ezinaz, solasaldi inutilaren indarraz; testamen-  
du hitzek ere testu du bere barnean eta idazketarekin lotua da. Baina, zertara-  
ko idatzi? Hain zuzen ere, poetika bat idazten duenean Bordak argi uzten du  
zein den bere idazketaren joan-etorria. “Koplak” poeman:

Jadanik hautsia zinez  
nere hatsa nuen hitza

ikusten du. Hitz poetikoa bizitzaren arnasarekin parekatzerakoan gunearen  
erdian jartzen du Bordak. Etsipen uneetan hitz poetikoa ez da nahikoa. Baina,  
“Oraino nula solas mutil” beharrezkoa da, bizitzaren latzetik irteteko, isiltzea  
hiltzea baita.

...debaldearen arintasuna behar dut  
hurbilegitik hunkitzen nauen  
bizitzaren latza ahazteko.  
Mila eta bi solas mutil oraino.  
Ixiltzen banaiz  
hutsaren leizeak  
iretsiko nauke... (BNB, 59)

Idatzi nahiak eta ezinak sortzen du “Idatzi nahi eta...” poemak. Desoreka  
eta zalantzaren poema da. Agian poesia denbora aldatzeko nahikoa ez dela  
esateko modua baino ez da poema.

Banituen denentzat hitz joko milaka  
irri karkara zedin kantu bat bilaka... (BNB, 61)

Heriotz orduko irri karkarak irabazi egiten du, eta poema honetatik hasten da saileko bigarren gaia: heriotzarena. “Testamendua” bidegurutzaketa da oraindik, idazketaren eta heriotzaren gaien artean. Baina argia da zein den bukaera: Heriotzaren deskripzio fisiologista, gorpu baten ustelketaren agerpena. Ez du idazleak mitorik nahi heriotzaren inguruan, itsusiaren agerpenarekin nahikoa du:

Heriotz ondoan gorputzean ur bitxiak pizten dira,  
zelula hilak ezeztatzen hasteko.

Hemen bukatzen da, agian gehiegikeriarekin, haurtzaroko oroimen artean pizturiko bertsoari oihartzun eginez:

Begiratzen dut gogoan,  
bizitza nola badoan... (BNB, 11)

Azken poema honetan hariak biltzen dira eta poetak bere buruaz egindako irudiak,

Ez dut nik  
zeruko jainkoaren bildurrik... (BNB, 21)

Miranderen oihartzun eta guzti, azken poema honetan agertzen du bere ondorioa:

Denbora guztiz gorputza ezer ez da:  
eskeletako hezur gisukiz hustuak  
lur barnean edo gainean... (BNB, 68)

*Bizitza nola badoan* liburuak Etkezaharretak ikusi duen moduan, Itxaro Bordaren gerorako bidea markatu du, gai aldetik behintzat. Beste arlo batzutan ere ikus dezakegu liburu honen pausoa beranduago etorriko diren liburuetan. Bordak gaiekiko duen tratamenduan adibidez. Gai kaleidoskopikoa da bere langintza, gaietan badago gune eta joko jakin bat, hemen denboraren ihesa eta bere inguruan kokatzen dira beste guztiak: denboraren ihesa eta oroimena, urteen joana eta etsipena, aldiaren pausoa eta maitasunaren galera, garaiaren aldaketa eta gizartea, sasoi aldaketa eta heriotza. Guztien puzzleak osatzen du gaiaren osotasuna, baina liburua tonu desberdinez josteko tententzia du.

Hasierako liburu bat dela eta agerian dituela bere akatsak? Bai, noski. Zenbaitetan hotza da bere metrika klasikotasunean. Sinbologia oraindik firmoki osotasunean ikusi gabe dago; epatatzeko gogoak agintzen du? Beharbada, gehiegikeria zenbaitetan? Segurki. Okerrena bilketa lana izatea da, hamar urte luze eta desberdinen lana biltzea, gorabehera nabaria baita.

Baina horren guztiaren inguruan beste zenbait alde on ere agertzen dira testuan. Adibidez, paisaiaren ulermena, eta gerora sakondua dagoena, heldurik dugu haurtzaroko ikuskizunetan; metro klasiko aipatuan joera desberdinak lantzen ditu idazleak, eta anaforak askotxo laguntzen badio poemaren egituraketan, erritmoa lantzeko joera nabarmena egin du, eta beste zenbait olerkariaren oihartzunak han eta hemen zuzen entzun, Bordak erritmoa bereganatzeko lan handia egin duela esango nuke. Liburuaren bukaera aldera, hirien kultura, sinbologia berria (patxaran, Maikel Jacksonen aipua) bere aurpegia agertu du, etortzeko dagoenaren seinale.

Agian, deskriptiboegia da tonua, eta irudimenak ez du lan luzidurik izan liburuan, izadia eta barne mundua tartekatzeko ahalegina egin bada ere.

Baina surrealismoak bere agerpena egingo du bigarren liburuaren izenburuan *Krokodil bat dut bihotzaren orde*, baieztapenaren ziurtasunarekin. Nortasun baten aldaketaren seinale bai, Bordak afrikar bihurtua agertzen baitu bere nortasuna, esperientzia poeten antzera bere itzala agertuz eta itzalari hitza emanez. Beste zerbait ere bada izenburu hori: irudi modernoaren aldeko manifestu estetiko txikia, erregistro aldaketa.

*Herria* aldizkarian eginiko elkarrizketan Rimbaud zitatu zuen eginiko irakurketen artean, baina ez ote dute zeresanik aldaketa estetiko honetan liburuan aipatzen diren

Ginsberg, ferlinghetti, corso  
burroughs, kerouac, andersen  
on the road bierra merkeak edaten... (KBD, 15)

Beat amerikarraren itzal horrek poesiaren aldaketa ekarriko du eta Du Bellay klasikozailearen nolabaiteko ahazmena. Jarri da bidean, badatorkiguz *Borda on the road*, edo *on the train*.

### 3. Garrasia Iratiko basoan

Ginsberg, ferlinghetti, corso  
bourroughs, kerouac, andersen  
on the road bierra merkeak edaten... (KDB, 15)

Hasi da idazle modernoan pausoa agertzen poemetan. Pop belaunaldia zuzenago. Baina ez dira bakarrak; liburu berebete beste hauek aurkitzen ditugu:

Benaresko eskaler sakratuetan, Gange ibai lasaiari begira  
Michaux eta Duras, eta Ginsberg ikusi zituzten inglesen  
Indietako inperioko detektibe abilek... (KDB, 83)

Eta *Bestaldean* liburuan beste idazle batzuk aipatuko dira orrialdeen pasadean, Rimbaud eta Eugenio de Andrade, Du Bellay ahaztuezina plazan paseiatzen jarraitzen duen artean.

Zalantzarik ez dago *Nola bizitza badoan* liburutik *Kokodril bat daukat...* liburura hizkeraren aldaketa gertatu dena. Baina, Lauaxetak esango lukeen moduan, ez da hiztegia soilik, edo hizkera, hemen aldatzen dena, poesiaren ikuspegia ere bada.

Liburuetan zehar poesiaren definizio bakarra aurkitu diot Itxaro Bordari, hementxe kopiatzen duguna:

...poesia zer den galdegingo didatenean  
ezpainak doidoia mugituz  
ihardetsiko dinat.

—karrasia iratiko basoan  
besterik ez.

Elementu bi ditugu definizio horretan: karrasia eta Iratiko basoa, bi horiez bakarrik eraiki dezakegu poesia honetako zutaberik urguilosena. Bata, argienatik hasteko, Iratiko basoa da, izadiaren erdian kokatzen den esperientzia da Itxaro Bordaren poesian agertzen duena, begi zoliz begiratzen du izadia, esku trebez papereratzen era estilizatuan.

Garrasia da, bestalde. Badakit honelako hitz bat errebolta, iraultza edo konpromezuarekin lot dezakeguna edo daitekeena. Halaz ere, garrasiak badu barne askatasunarekin loturarik, pertsonaren nitasunarekin loturarik. Eta esanahi bietatik bigarrena atseginago zait Itxaro Bordaren poesia irakurtzeko orduan.

Esaldia den moduan irakurtzen badugu eta bere alde biak lotu, bat-batean konturatuko gara “Karrasia Iratiko basoan” izadiaren nagusitasunean persona batek egiten duen espresaera dela, erresuma zabalean bakartasunean egindakoa, nitasunaren ispilu, eta, era berean, hedadura zabal horretan galtzera doana. Errebolta da, baina badu espresio bakarraren adierazbidea.

Zentzu honetan, uste dut, eta lehen hurbilketa gisa, modu bietara uler dezakegula poesia hau. Alde batetik tentsioa aurkitzen da ni eta bestearen, alde hau eta bestaldearen artean, joera pertsonalaren eta kolektiboaren artean, Trenaren irudiak izaeraren aldea marrazten du, seaska kantik, bestea.

Goian esan bezala, bi munduren berri ematen digu lan honek —eta biak euskal kultur tradizioan oinarritutako sinboloek jauzten dituzte—: lehena, etxekoa, eten gabe erreferente moduan aipatzen duen alabaren oroitzapenak menderatzen du adierazle, ttikia eta zaindu beharrekoa. Bigarrena, Pariseraingo joan-etorrien lekuko, usoa eta lagun zein arerio den trenaren irudi bikoitzean oinarritzen da... xori migratzaileak bezala, gu ere beti gaude gure aldean ez dauden mundu eta egoeren bila. (Lizartza, 1991, 57)

Horregatik esaten genuen gorago, exotismoak, beste lurralde batzuen aipamenak ildo berria zabaltzen diola poesia honi. Txina, edo Penjab, edo Indiako lurraldeek ikuskizun berriak sortzeko modua eskaini diote Bordari.



Bigarren zutabeak puzzlearen antza du. Bordaren liburu bakoitzak kaleidoskopiaren antza du, idazlea beti dabil, ferriako zaldituen barraka bezala, bost sei gai nagusiri itzulika behin eta berriz hari berekin tapiz misteriotsua ehunduz.

Bere poetikan azaldu digun bezala, Bordak maite du etengabe gai berdintsuak tratatzea: gaua, egunerokotasuna, aroak, paisaiak, errealitate baten zabalkuntza, eta seaska kantik, norberaren izaeraren babestoki gisa.

Ez da horren arraroa, gaien zerrenda ikusi ondoren, norbaiti, Felipe Juaristiri hain zuzen, liburuetan batasun falta nabaritzea:

Badirudi liburu batetaz baino gehiago liburu batzuetaz idatzi beharko nukeela... liburu hau nahiko inkoherentea da.

Baina atsegin izan ala ez, horixe da Bordak bere estetikarako aukeratu duen bidea. Horretan Adrienne Rich poeta iparramerikarra ekartzen dit gogorra. Rich-ek ere Mundu zailaren atlasa idatzi du bere poemetan, eta bere itzultzaileak idazten duenez:

Norbere eta taldearen esperientziaren konplexotasuna, gai bakarra du Richen poetikotasunaren ibilbideak. (Pérez Novales, 1994, 119)

Ingurura begiratze borobilak horixe dakar konplexotasunaren onartzeak. Begiradak ematen dio, beharbada, liburu bakoitzari batasuna, bera da ardatza eta haren inguruan, ferriako zalditxoak, gaiak muogitzen dira.

Richen liburuetan gertatzen den bezala

...poeta, irudi hausnarkorra, iragana eskuratzen eta kritikatzuz, liburua-  
ren protagonista da, pertsonaia gisa eta lehen pertsonan mintzo den "ni"  
gisa.

Poetak bere "atlasa" marrazten du inguratzen duen errealitatea begira-  
tuz, munduko historia eta bere historia propiala ikertuz. Ikerketa honek ez  
du, ordea, helburu nagusi gisa analisi intelektuala. (Pérez Novales, 1994,  
118)

Nitasunak, inguruari egindako begiradak eta poetak gai-giltza batzuekiko duen fideltasunak eratzen dute poetika honen joera nagusia

Agian horiek dira zutabe nagusiak, baina ez nuke nik ahaztuko hizkera. Egia da poetikan ez diola Itxaro Bordak garrantzi handia eman hizkerari, ziu-  
rrenik hizkera poetikoaz baino gehiago zuzentasun gramatikalaz ari zelako. Pena da, gehienetan gertatu ohi bezala, kontzeptuen arteko nahasketak haus-  
narketa handirik ez ekartzea gehien behar den tokira, hain zuzen ere hizkera  
poetikoari buruz zerbait esan behar den tokira. Erregistro aldaketa da poesia  
honen lehendabiziko ezaugarria. Sinbolo tradizionala, hizkera xotila eta iza-  
dia Euskal Herriko hizkera erakusteko, *bluesa*, taberna, eguneroko hizkera  
gau hiritarra edo hiri gautarra adierazteko. Ederzalea, modernismoaren hiz-

keratik hurbil izadia aipatzeko; hizkera garden, zehatza, Pariseko biltokia esateko.

Banaketa hau, baina, ez da egin dezakegun bakarra. Hizkera poetikoak, ederzaletasunaz edo politasunez gain, baditu, mailakatuak beste zenbait agerbide. Lirismotik, elkarrizketara, izaditik arruntasunera eta hizkera minimalistara, edertasunaren konbentzioak hautsi nahi ditu poesia horrek, eta edertasuna sortu irudien leherketarekin eta erregistroen aurkikuntzarekin.

Gorago aipatu dugu Etxezaharretak ahaztu zuela exotismoaren papera *Bizitza nola badoan* liburuan. Guri ere zerbait joan zaigula aitortu beharrean gaude. Liburuaren azken aldean, bazegoen hizkera zientifikoa erabiltzeko joera, eta hizkera mota honetatik ere sortu da ibai berezia ondorengo liburuetan.

Hiztegi zientifikoa horrek bideak zabaldu dizkio Itxaro Bordari hizkuntzaren jokoan hasteko, eta hizkuntzaren jokoak da, agian, lehen liburutik bestetara agertzen den aldaketarik nabarientakoa.

#### 4. Alde biak

Askotan hitz egin dezakegu honetaz. Itxaro Bordaren poesiak berearekin akort ez dagoenaren norbaiten kexua agertzen du bere poesian. Agian *Bestaldean* liburuak agertzen du ezerk baino hobeto alde bien agerpena, Euskal Herria-Paris, paisaia-trena.

Baina ez da bakarra. Bai elkarrizketetan eta baita ere liburuetan nagusia da joera bikoitzeko agerbide hori. Adibidez, Aurelia Arkotxak sinatzen duen elkarrizketa batean honela mintzo da Itxaro Borda:

Creo que soy de las que mirando ven, aun cuando lo que veo no siempre me agrada. Así es como surge en mí un mundo imaginario... Y es cierto que sólo vale la palabra, para expresar la pobreza de la realidad pasada por el tamiz de la imaginación. (Arkotxa, 1992, 32)

Poetika honen definizioan agertzen dira bikoizketa bi, zehatzak, garrantzizkoak poesia honen ulermenerako: begiradak barne mundu irudikatua, errealitatea-irudimena. Hemen kokatzen den poesiaren gunea, errealitatea ez da, Itxaro Bordaren poesiarik sendoenean, zuzen adieraziko, irudimenaren jokoan agertu ondoren baino.

Baina elkarrizketa interesgarri honetan, (benetan elkarrizketa Arkotxak ez baitio galdetzen Itxaro Bordari, baizik eta gaiak aurkeztu, idazleak hitz egin dezan, eta benetan interesgarria, poetikarik zuzenena eskaintzen baitu Bordak bere lanaz) idazleak beste bikoizketarik agertzen du zuzenean. Batak hitz egi ten du nola bikoizten den paisaia, nola zabaltzen den, nola bihurtzen hitz eta poesia:

Sin embargo los paisajes imaginarios son fuentes de bucolismo... Son fuentes de visiones.

Bigarren bikoitzasun batek poetaren nitasuna harrapatzen du bere izaera azaltzen:

Nunca eres ese otro TÚ en un lugar o en momento dados, eres otro, un yo exiliado en el tiempo huidizo. (Arkortxa, 1992, 32)

Nitasunak bestearen aurpegia hartu du, eta besteaz ohartu da, nitasuna adierazteko. Agian teknikak badu zerikusirik esperientzia poesian, mozorrotzea deitzen dugun teknikarekin, Teknika honetan, poetak fikziozko izaki baten ahotsa hartzen du eta irudizko hitzaren bidez kontatzen du zer gertatzen zaion.

Baina bada desberdintasunik esperientzia poesiako teknika eta Itxaro Bordaren poesiaren artean. Esperientzia poesia fikzioan higitzen da, nitasun poetikoa ez da poetaren nitasun historikoarekin parekatzen, ez du aitopen kutsurik, fabulazio bihurtu da poesia eta autobiografiaren fikzioa eskaintzen du, Juan José Lanz-en hitzetan, esperientzia poesiako nitasunak; beste alde, teknika hori erabiltzerakoan narratibitatea izaten da aukeratzen den genero nagusia.

Ez da hori Itxaro Bordaren kasua. Eta ez da hitz nagusia duelako: ikuskizuna, Rimbaud-en itzalpean agertzen delako bere poesia; hau da joera narratibotik urrun, surrealismoaren aldeetan, dena eta ezer batzen direnean une txiki batean:

A menudo, el tiempo y el entorno se unen y empiezas en un AHORA-AHÍ-YO, a utilizar verbos como si lo lejano estuviese cerca o como si lo de ayer pudiera derretirse en un mañana, mezclando lo de allá y lo de aquí. El momento en el que se forma ese nudo de unidad, es el idóneo para escribir. (Arkotxa, 1992, 32)

Batasun puntu horretan poetak indarrez, eta zintzotasunez esan dezakegu, agian, azaltzen du ikuskizuna. Eta bera beste nor da, ez beste fikzioaren ohiartzuna, ez beste norbait bihurtu da. Horregatik du horrenbeste indar *Krokodril bat daukat...* liburuaren hasierak:

Afrika nere larruaren beltza errebendikatzen dut  
Nil ibaiaren iturrietako uretan amets iheskorren  
kristalezko materia edan  
nuen eta Kalahari mortuan zehar noa hatsaren eske  
krokodil bat daukat bihotzaren orde... (KBD, 4)

Belztasunaren erreibindikapen horrek beltz bihurtzen du Itxaro Borda. Beste norbaiten sentiberatasunean sartu nahi luke, haren antzera pentsatu eta lan egin. Beltza da orain bera, edo, bestela adierazteko, krokodilo bihurtu zaio

bihotza, eta Afrikako airea arnas egiten du eta Nilo ibaiko uretan asetzen du egarria. Beste egin da.

Beltza. Mendebaldeko kulturatik urrun. Ordenatik urrun. Edo, gauaren al-tzoan, gauaren mitifikazioan. Gaua, erromantikoentzat izan zen bezala, Itxaro Bordarentzat egunaren kontrajarpena da, ordenaren eta bizitza arruntaren beste alde:

...beltza da gaua  
beltza bakardadearen espazioa  
urratsa beltza dutenen atzetik  
nabil  
beltzean urtzen ditut ametsak... (KBD, 8)

Gauaz, eta gauaren esanahiaz bere poesian hitz argiak idatzi ditu Itxaro Bordak bere poetikan; galtzaileen eremu bihurtu arte.

Bere *Just Love* liburuan ere hor-hemen, ni-zuek bikoiztasuna indar handiz agertzen du Itxaro Bordak izen bera duen poemaren bidez:

...beti bezala  
zuek biok herriko  
nire kontaktu afektibo bakarrak,  
joan naiz  
maite zaituztedala ahozkatu ezinean  
paper pirtzilikatuaren ezkinean  
idazten dut  
ez ahanzteko  
asko maite zaituztedala (J L, 35)

*Just Loven* badago beste itxuraldaketa, poeta blues kantari bihurtzen da, bidenabar Ameriketako beltzen musika kantaria, galtzaileen kantaria. Beat belaunaldiaren ondorioz, agian, poetak musikaren erreferentzi nagusia har-tzen du bere lana aurrera eramateko. Eta *Krokodil bat daukat* liburuan ager-tzen zen, eta Koldo Izagirrek goraiatu zuen:

...ezaren blues mutuak

blues errezitala bihurtzen da liburuan, “Just Love”, “Nightmare”, “Dirty old town”, “More dob”, eta batez ere “Merguez blues” eta “Blues again”, kantu-tegi urratua behin behingoz.

Beat belaunaldiaren agindua jarraiki, Itxaro Borda, Kerouac-en mitologia jarraiki bidaian hasi da, edo bidaia irudikatu du.

*Krokodil bat daukat...* liburuan bidaia presente zegoen, baina Euskal Herritik zehar eginiko bidaia zen: “Beste ibilaldia” izenarekin honelako poe-mak irakur diezaizkiegu:

...bakioko festetan edan txakoliaz  
eta

kubalibrez zoraturik mundakan  
o ilargiaren gorritasuna!  
gaztelugatzen nago eremu mugikorrean  
zuhurki kondatzen... (KBD, 38)

Euskal Herrian zeharko bidaia honek hizkera aldetik ere bere tonua du: egunerokotasunak (txakolina, kubalibrea) hitz egiten du izadi estilizatu batekin (ilargia, ur tantak) hizkera fin eta metrika laburrean.

*Just Loveko* kantuetan, ordea, tragedia eta errebolta kutsu batek osatzen du oro:

...erresistentzian sartuak ginelako iduripena  
justizi nahia  
nork herrirako?  
hezurrak hautsirik genituenok hitz bakarra  
ahoa: borroka  
eta ni denetan —o maitea, etsitua zure bila  
euripean... (JL, 73)

...iraultza gorria aipatzen genukeen kantinetan  
ihardoki gogoa  
alta igandez baionako kaiertzetik partitzean  
espero genuen itzultzea  
gauerdiko treinetan... (JL, 76)

Iraultza nahiaren eta etsipenaren artean mogitzen da idazlea, eguneroko keinu eta itxaropen faltaren bidean, dena dago hari finetik dindilizka.

Aipagarria da zenbat poema bukatzen diren liburu honetan izadiari aipamen eginez:

...bihar ere argituko duela diozu... (JL, 59)

...gure karriketako maiatz ederrak... (JL, 73)

...eremu orlegiari so... (JL, 86)

Bukaeran iraultzaren agerpena on balitz bezala, idazleari geratzen zaion bakarria izadiaren begirada epela balitz bezala, etsipena eta itxaropenaren arteko irteera bakartasunean barnetik desiratzen den eremu propiala balitz bezala, behin eta berriro sinestuz:

...argi zirrinda helduko delakoan... (JL, 67)

Salbamen pertsonal eta intimoaren ondoan daude, hala ere, beste erantzunak, borrokarekin lotuz:

...eta harmak hartzeko zorian  
bahabil... (JL, 77)

edo ironiarekin:

...diren o larrazteneko  
tu me manques...  
bougez avec la p... (JL, 84)

Beste batzuetan, ordea, gaisotasunarekin irudiak nazka sortzen du bizitzaren aurrean sentitzen den kraskada:

...eta euriek  
nere barneak emeki grangenatzen zizkidaten... (JL, 79)

Zigarreta dut pizten  
zainak zabaltzeko... (JL, 81)

Berriro bikoiztasuna, mitifikatua agertzen den paradisu galdu eta eguneroko bizitzaren artean. Agian, berori da *Bestaldean* liburuaren oinarrian agertzen den bikoizketa nagusia.

Gorago ikusi dugu Itxaro Borda liburuaren gunea euskaraz azaltzen, Aurelia Arkotxari bestela mintzo zaio eta elkarriketan trenen sinboloaren esanahia garbiki azaltzen du. Hona hemen luze bada ere, testuaren transkripzioa:

El libro se presenta como una larga poesía entrecortada. Entrecortada, porque la vida fue así, desgarrada, pisoteada también a veces... entre una realidad olvidada y el mundo creado por la mente, los trenes formando el hilo que une a ambos. Durante largo tiempo los trenes, fueron para mí, tierra de salvación, los lugares inmóviles de la huida, nidos asientos que te permiten recomponer una moral del descanso. (Arkotxa, 1992, 33)

Susako argitalpen zainduan, orrialdeak banatzeko paper gisa Frantziako SNCFen txartel baten kopia eskaintzen dute, txartel hau Bordak proposatzen duen biderako ate balitz bezala.

Liburu honetan bada izenlagun bat *Just Loven* ere arras erraz aurkitzen zena: *komun* izenlaguna. Hona hemen, liburua zabaldu bezain laster:

...miseria ontasun komuna delarik edo... (B, 15)

*Bestaldean*, bere zerrendaketa alfabetikoak beste zerbait adierazten uzten badu ere, batez ere miseria arruntasi egindako begirada da. Gogoia eta borondatea negusia da bere lehen poeman, baina egunerokotasuenan bukatzeko:

Aberria nahi dugu haize hegoaren hegaletan...  
egunkaria tabakoarekin batera erosten eta  
haurrak ikastolara laguntzen  
leihorak edertzen dituzten brumetan... (B, 15)

Bien arteko kinkak mantentzen du liburua, horrek eta giroari buruko begiradak:

Hasera batean —alpha— nostalgia zunan...  
bukaera batean —omega— maitasuna zunan  
eske abiatzera gintuen  
indar erraldoia... (B, 17)

Idazleak ahalegin berezia egin du liburuko sensibilitatea eta mezua emakumeekin lotzen, bai Arkotxari esandakoan:

El poemario quisiera hablar a la mujer... (Arkotxa, 1992, 33)

bai *Argiari* eskeinitakoan ere:

Ezin da inola ere ukatu emakumeak ez duela lekurik euskal gizartean, are gutxiago kultur munduan. Hori dela eta, batetik, noka tratatu horrek emakumeen artean... elkartasuna, ahizpatasunaren berri eman nahi dut. (Lizartza, 1991, 57)

## 5. Kaleidoskopiaren inguraketa

*Bestaldean* liburuan umatuagoa agertzen da aurreko beste liburu bietan nabaritzen zen tendentzia: gai eta molde desberdinak erabiltzeko joerarena. Gai eta molde desberdinak, eta hala ere, mugatuak; liburua honela kaleidoskopioa bihurtzen da, errealitate bion inguruan mogitzen den kaleidoskopioa, errealitate inguruan ikuspegi desberdinak eskainiko balitu bezala.

Beat belaunaldiaren ezaugarri nagusia izan omen zen mugarik gabe idaztea, eta surrealismoaren idazketa automatikoaren berrirakurketa berria egitea. Haietaz esan omen da presa urgentziarekin nahastu zutela, eta hau berezotasunarekin, eta hau naturaltasun eta benekotasunarekin eta idazteari gogoz ekin ziotela. Beste horrenbeste esan dezakegu Itxaro Bordaren poesiaz ere: asko idazten du eta molde desberdinetan. Gora beherako poesia dela? Ziurki, gehiegizko puntua agertzen da poesia molde horretan.

Kerouac-ek eskatzen zuen “bizkorduraz, iraduz, dardarak izan arte” berezko eta bat-batezko idazkera sortu arte. Borda ere hala ari dela dirudi. Bada bere idazkeran joera automatikorik, bada Rimbaud-en ikuskizunen aztarnarik. Baina hori guzti hori egia bada ere Bordaren poesian bada neurketarako joerarik, bada sonetoak idazten zituen poeta haren oroimenik.

Formari begiratzuz beste barik, zera ikusiko dugu *Krokodil bat daukat* liburuan: izenburu nagusi bat dago lehenik: “Banintz Afrikan sortu”, “Beste ibilaldia” e. a.; izenburua poema sail baten izenburua da, barnean poemak zenbakiz sailkatuak agertzen dira: I, II,...

Batzuk molde luzekoak dira, besteak molde laburrekoak, eta bat edo beste, liburuaren bukaeran, oso poema luzea:

... nere inguruko jendean begietan odolez hautu ibaiak  
ikusit ditut uranio urtuz loditu malko desesperatuak... (KBD, 100)

Irakurleak asma dezakeenez arazoa ez da formala, baina formak badu zeresanik. Poema laburrak edo esperientzian:

Ondarroan  
nere kotxearen matrikula frantsesari  
begiratzuz  
jende batzuek  
haserrez kargatu gestu bitxiak  
egin zituzten... (KDB, 37)

edo ironian oinarriturik daude:

...gaurko gizonak nahi lukete  
itsas gazietan jainkoak izan  
ilargi laino,  
ezta seguru jainkoak nahiko  
lukela egun gizon bat izan  
emazte baino. (KDB, 55)

Molde luzekoak surrealismoaren ikuskizunean oinarriturik daude:

...baina gaez hari elektrikoaren gainean amesten ditudan bizitza  
multipleetan, angustia amesten naiz elefante gris,  
edo anakonda borobil, edo izar madarikatu, ez dakit... (KDB, 13)

Exotismoa, bidaiak bada, ikuskizunerako modu eta moda ederra, inspirazio kokatoki.

Molde oso luzeko poemek, ordea, anaforaren teknika jarraitzen dute. Esaldi bat aukeratzen du poetak eta behin eta berriro errepikatzen du ritornelloaren antzera.

...ilargi beteko gauetan... (KDB, 45)

adibidez, eta ondorengoak prosa poetikoaren antza hartzen du. Teknika hau behin eta berriro erabiltzen du Itxaro Bordak.

Baina deskribapena ez da honekin bukatzen. Itxaro bordak maite du neurria, eta idazkera automatikoarekin batera agertzen da sonetoa:

Ilargi urdinduak gaez itzalean... (KDB, 89)

Beraz lurrinetan da errota: eguneroko poema poema ironikoa, poema exotikoa, ikuskizunaren poderioz landutakoa, poema anaforikoa, neurtua, eta idazketa automatikoz sortua.

Zazpi eredu, gutxienez, deskribatu ditzakegu. Horien artean dira liburuko testuak. Eta, agian, hiru liburuen artean dagoen batasun eta osotasun nagusia hau da: ereduaren artean jiraka sortzen direla: *Krokodil bat daukat...*, *Just Love* eta *Bestaldean*. Oinarritzko zazpi ereduok oratzen dituzte Itxaro Bordaren mundu estetikoan zutabeak.



Baina zazpirak badira estetika honen nolabaiteko lehen pausu, eta batasun eta osotasunerako joera, ez dira berdin azaltzen liburu guztietan. *Krokodil bat daukat...*ek ertzak maite ditu, mugak diren joerak: edo poema erraldoia, prosa poetikora hurbiltzen dena, eta beraz, anaforak ugari erabiltzen ditu, eta, beste aldetik, egunerokotasunaren inguruko poemak agertzen dira.

Kerouac bezala, bidean jarri da Itxaro Borda eta Euskal Herriko kostalde-tik egindako “Beste ibilaldia” edo unibertsitateko eguneko istorioak eman ditu argitara “University rock” sailean.

Exotismoak ere toki berezia du liburu honetan: “Orient Express” edo “Banintz Afrikan sortu” poemategietan.

*Just Lovek* beste tonuren bat agertzen du, gutxitan baino ez baitu erabiltzen poema zenbatuen sistema: hain zuzen ere, egunerokotasunarekin loturiko: “La porta oberta en el cel això” eta “Pacem in Lapurdum”, testuetan. Egunerokotasuna, oraindik mantentzen bada ere adiskideen elkarriketa, tabernetako hiztegi eta argi urdinskak, alkohol eta tabakoaren usai eta zapore nahastua, aldatu egin da politikoago bihurtu:

#### *Kontrola*

nortasun agiria  
eskuak gora  
nondik nora hoa  
ze lanbide  
non bizi  
frantsesa ahal haiz  
zergaitik hemen hago... (JL, 52)

Garratzagoa da, orohar, *Just Loven* erabiltzen den tonua. Bada xamurtasunik, ezin baita falta Itxaro Bordaren liburuetan, baina lanak badu *bluesaren* garrantza ahots poetikoaren mihi puntan.

Era desberdinetako hizkera bi zabaldu ditu liburuan Bordak. Soziologia, Ekonomia zein Politikatik harturiko hiztegiak jolasten du, erregistro bakarra erabiltzeko saioa egin balu bezala:

...inbertitzaile klubaren biltzar nagusietan  
parte hartzen zuten bihotz gogorrek  
pribatizatu akziona merkeak erosteko  
erabakiaren finkatzeko... (JL, 43)

Eta, era berean beste xamurtasunaren erregistroa agertzen du testuak. “Seaska kanta”k (I eta III) lehen aldiz agertzen dira, eta paisaiarekin erabiltzen duen tonu emea eta ederra zabaldu egiten da. Itxaropenik balu Itxarok paisaian agertuko litzateke:

...eta oraindikan euri gozoa espero dut. (JL, 15)

nahiz eta beste testuren baten liburuaren slogan den

...no satisfaction... (JL, 24)

idatzi.

*Just Loven* mantentzen dira sonetoak baina agertzen dira hizkiz edo silabaz, karratua osatuz, neurtuak agertzen diren poemak, “compact” bezalakoak, alegia

...tigre emeak aztaparrak jalgi zituen  
harrien aurka zorroztu eta apaletan... (JL, 27)

Garratza delako liburua, nabari zaio, kontrajarpenez, lirikotasuna *Bestaldean* lanari:

El lector quizá encuentre más lirismo que en libros anteriores.  
(Arkotxa, 1992, 33).

*Bestaldean* poemategiak sentimendu bat agertzen du hasieran:

...jendeak maitasuna du eskas... (B, 30)

Maitasun falta horri erantzuteko asmoz sortuko litzateke liburuan sentimenduen deskripzio zehatza.

Nitasuna filosofikoagoa agertzen da, hausnarketari lotuago: babesaren falta eta nahia, biak, nabariak dira:

Bakarrik nabil kale hutsetan pentsatzen  
nekez direla urak isurtzen  
adiskidantza zaharraren itsasoraino  
ibaiak lehorrik daude  
argirik ez da ageri  
denbora urratzen doa haragi minberak  
astinduz... (B, 29)

Krisialdia afektiboa da, pertsonala. Ez da arazo politikoa desagertu, baina detaileetatik kanpo, elementu abstraktoetarantz eramán da, beti ere norberaren minbera azpimarratuz:

Askatasuna nahi zuen herrikoak ginen  
mendearen barbaria arruntaren mutilek  
sufrantzari laztartu gintuzten artean.

Falta dago, horregaitik babes nahia ere bai. Agian sehaska kantak (“seaska kanta eta beste poema askoren protagonista den alabari”) liriateke babes honen, errefuxio behar honen adibiderik garbiena.

Baina, gehienetan, Itxaro Bordak ingurura luzaturiko begirada besterik ez du eskaintzen:

Gaueko bidaiariak arpegiak gorderik dabilta

klandestinitatearen trenetan  
euriak burdinbideak bustitzen dituen artean... (B, 56)

Eta noiz edo noiz itxaropenaren agerpena bertso solteren batean:

Denbora asko behar da ulertzeko  
hedoi urdinetik datorkigun euri  
ttantta amodioa dela... (B, 43)

Zazpi forma eredu gisa jiraka, Itxaro Bordak berak aipaturiko gaiak tratatzeko: heriotza, gaua, emakumearen irudia, euria, aroak, paisaiak, alaba, hauek ere zazpi gai, eta zazpiak ere jiraka bere irudimen poetikoa sortzeko, bere obsesioneak hitzez gorpuzteko, poesian agertzeko.

## 6. Hizkera poetikoaz

Adrienne Rich-en poesia aipatu dugu haren poesiaren lanean ziren hausnarketak eta joerak aipatuz. Hizkera poetikoan hitz egiteko ere haren poesiaren joera azpimarratu nahi genuke. Hona hemen nola deskribatzen diguten bere idazkera:

Idazlearen bertso librean erregistro anitz aurkitzen dira, lirismoa, elkarriketa doinua edo telegrama baten joera minimalista. (González Novales, 1994, 119)

Beste horrenbeste esan dezakegu Itxaro Bordaren lanaz, erregistro anitzekoa dela. *Nola bizitza badoan* liburuan erabilitako tonu klasiko eta deskriptiboaren ondoren, edo, bestela, liburuaren azken aldean agertzen ziren erregistro jokoaren ondoren, hitza askatu egin da, ikuskizun eta irudimenaren bidetik. *Krokodil bat daukat* poemategiak oso ongi adierazten du arazoa. Hitz jokoak hasi du liburu honetan Itxaro Bordak:

...haizea gelditu eta euria hasi zen  
lainoen samurtasuna  
esperantzaren bustia  
ur hatsak  
urratsak... (KBD, 7)

Hitz joko simple eta arrunt horrek adierazten du idazlea hasi dela hizkera seriotasunaz ez tratatzen, alde irriagarria agertzen, hitzen bestaldean dagoen mundua ikusten. Joko ingenuo honek jarraitu egiten du liburu honen hasieran:

Leitzarrok!  
Leitza rock!... (KBD, 27)

Hizkera poetiko eta arruntaren artean (poetari asko atsegin zaion hitza aipatzearen arrunt!) mugitzen da Itxaro Bordaren idazkera.

Erregistroaz gain, hizkuntza desberdinen nahasketa gertatzen da. Nahasmenak lortzen du idazleak adierazi nahi digun joera arrotza, *collage* tankerak sortzen duen harridura, hitzen arteko loturen ezustea. Normalki, Itxaro Bordak ingleserarekin egiten du lan, beat poeten lilura jarraiki:

...dean, moriarty lotan zegoen  
okey  
bloody son of bitch!...  
on de road bierra merkeak edaten  
indiatik ekarri ganja erretzen  
eta estasis orduan  
jaz clubeko mahain zikinduetan... (KBD, 15)

Inglesarekin batera frantseserak ere bere tokia du, arruntasunaren hizkera sortzen duen heinean. Halaz ere, Itxaro Bordak bere hezkuntza erakusten du, noizbait, latina aipatuz.

Mundu eta molde desberdinetako erregistroak erabiltzen ditu Itxaro Bordak, eta “OPA” edo “Gangrena” bezalako poemetan hitz andana bakarraren inguruan sortzen ditu poemak Itxaro Bordak zientzietako hiztegi hotza erabiliz. Usu aurkitzen da medikuntzako hiztegia poemetan, baina ez sarri ekonomia edo teknikakoa (Minitel).

Ez da falta hiztegi minimalista Itxaro Bordarengan; telegrama usaia hartzen duen poema honetan:

...ama 3  
ainarak lokar arazteko erabiltzekoa  
den zenbakia dela  
dioat,  
edo bai...  
zenbaki okerra  
quai n° 1 voie 4  
en direction de paris-austerlitz merde  
latza  
dioat... (B, 117)

Baina badira ezaugarri bi, Itxaro Bordak bere liburu guztietan erabiltzen dituenak. Bata aipatu dugu “arrunt” izenlagunaren erabilpena da, agian, hitz berezia delako, zubia norberaren eta kolektibitatearen artean:

Bestea hirukoitasuna da, hau da, elementu baten hiru aldeko errepikapena. Normaleak hitzen aldetik gertatzen dira:

Xarmangarriak dira telefonoak zeharka  
dituzten ahots apalak  
xarmangarriak eta hunkigarriak... (B, 122)

Baina badira esaldi osoen errepikazioak:

Denbora asko behar da ulertzeko...  
denbora asko ere garai batean...  
sinesteko  
denbora asko naski  
jakiteko... (B, 43)

Funtzio desberdinak betetzen ditu hirukoitasunak. Badira poema eratzeko:

...eta ahantziko nauzu... (B, 63)

hiru aldiz errepikatua poeman, tankera lortzeko, eta badira poema edertzeko:

...beleak! espantuak! Eklesiastaren solas zuhurrak!  
zizari malatsak! kaskezur diplomatikoak! eginbide historikoak!... (KBD, 105)

Anaforaren nagusitasunak, ordea, poesia honen bidea mugatzen du. Bera da espresabide erretoriko nagusia Itxaro Bordaren idazketan.

## **Bibliografia**

- BORDA, I. (1984): *Nola bizitza badoan*. Maiatz. Baiona.  
— (1986): *Krokodil bat dut bihotzaren orde*. Susa. Donostia.  
— (1988): *Just Love*. Maiatz. Baiona.  
— (1991): *Bestaldean*. Susa. Donostia.
- BORDA, I. (1991): “Autojustifikazio erreza”. *Hegats*. 4. 229-238.
- ARKOTXA: 1992: “Con Itxaro Borda en los caminos huidizos de la escritura”.  
*Zurgai*
- ETXEZAHARRETA, L. (1994): “Hogei urte, Bizitza nola badoan”. *Hegats*. 10. 11-20.
- IRASTORZA, T. (1991): “Aintzin solas”. BORDA, I.: *Besataldean*. Susa. Donostia. 5-9.
- IZAGIRRE, K. (1991): “Mudos blues de la nada”. *Susa*. 25. gehigarria. 30. or.
- JUARISTI, F. (1991): “Bestaldetik”.
- LANDA, J. (1990): “Ondokoek jakin dezaten ez ginela osoki zoriontsu”. *Argia*. 1. 284. 1990-3-18. 63.
- LIZARTZA, R. (1991): “Bestaldeko esperientzien kronika”. *Argia*. 1.358. 1991-10-27. 56-7.  
— (1994): “Euskal lurraldetasunaz bost eleberrietako lehen urratsa da”. *Argia*. 1985. 1994-5-29. 56-7.
- PEREZ NOVALES, M. (1994): “Posfaci”. RICH, A.: *Atlas d'un món difícil*. Edicions de la guerra. Valencia. 117-120.



## JON CASENAVE SINBOLOAREN BIDEAN

Jon Casenavek 1984. urtean Bilboko Aurrezki Kutxak eratzen zuen Azkue Saria irabazi zuen oraingoz bere azken poema liburu den *Ordu alferren segida* liburuarekin. Ondoren isildu egin da bere ahots poetikoa, edo behintzat ez du gehiago argitaratu. Doktorego Tesia prestatzen ari da eta kantata baterako hitzak moldatu ditu. Poema liburuari dagokionez, behintzat, ez du besterik argitaratu.

Ustela Sailean hiru liburu argitaratu zituen Casenavek: *Zutaz amoroski* (1978), *Azkenean dilindan* (1978) nobela, Mattin Larzabalekin batera sinatua, eta *Itsu-mandoka* (1981), kontu xume, joko krudel, ipuin liburuua. Ustela Saila osoaren azterketa egin dugunean argitaratu da *Zutaz amoroski* liburuaren azterketatxoa, sailaren barnean ulermen eta kokapen hobea baitu sailkideen ondoan, eta ez kontestu hartatik kanpo. Halaz ere, aipa ditzakegu zertzelada batzuk bigarren testua hobeto ulertzeko.

*Zutaz amoroski* liburuttoak alde bi ditu: desioa, kardentasuna, biak ere hamabost poemaz osatuak (ondo egiten badut, behintzat, poemen arteko banaketa). Maitasunaren inguruan osaturiko poemategia da, sentiberatasunak eman dio tonu nagusia liburuari.

Koldo Izagirrek gogoratu duenez, euskal lirikan izan da maitasunaren gaiaren inguruan zabaldu den ildo. Arantxa Urretabizkaiak eman zion hasiera *San Pedro bezperako ondorengoak* poemarekin. Ildo berebean sartu behar liriateke Urretabizkaiaren *Maitasunaren magalean* eta Koldo Izagirrereren *Itsaso ahantzia*. Ondoren, tonu liriko eta sentiberatasunari buruzko alor bereziak hartu zituen lirikak. Jarraitzaile izan ziren Tere Irastortza eta Juan Luis Otamendiren lehen liburuak. Bide honetan kokatu beharko genuke *Zutaz amoroski* ere, zeinetan Koldo Izagirrereren liburuari aipu egin zaion:

Baina  
ZURETZAT ITSASO AHANTZIA (ZA).

Liburuak hiru-lau ezaugarri txiki erakusten ditu lehen irakurketa batean.  
“Aurre-hitza”n maitasuna bidaia gisa definitzen du idazleak:

Prefazio gisan  
Ipartar batek erran dit, emaztekoa arras  
Bidaia dela.

Liburua, bada, emaztekiaren erro, sustrai, zentzuaren bila doanaren bidaia da. Bidaia ez da narrazioan gorpuztu, maitearen ariman sortzen diren sentimenduen bidez aipatu baino: desiotik gardentasunera doan zubia ez da kon-tatu, zentzu metaforikoz, zertzalada txikiz, abstrakzioz korritu baino. Esan lezake norbaitek historiak soilik kontatzen dituela uneak, eta uneen arteko lotura narratiboak alde batera utzi direla. Bilakaera da, bidaia, liburuak eskaintzen duen ardatza:

Zure besoetan lau gauza bilatzen dut..  
Azkenean bilatzen zaitut zu baino urrunago;  
Bilatzen ditut zure arrazoin, zuri ere gordeak,  
Zure behar mamiak nola hobeki ardiets jakiteko.

Zu deituriko emakumearen bila idazleak maitasuna alkimia gisa aipatu du, eta alkimia, magiarekin zerikusia badu ere, lotu du kordel berberean kon-plexotasuna, aldaketa:

Baina salatu behar dizuet amodioa alkimia dela.

Metaforaren erabilpena izango litzateke testu honen beste oinarrizko ezaugarria. Definizio bila abiatuikoan, aintzina jotzerakoan, poetak zu horren izate eta izana mugatu nahi duenean, ezinbesteko zaio metafora, zu horren beste aldea izendatzeko: erraza litzateke metafora horren adibideak ematea azken batean, liburua metafozez osatua baitago. Bego hemen, bada, baten adierazpena:

Zu zara  
Euriko gau-hegaztina.

Metaforen teknikaz ari garela, aipa genezake liburuan zehar ez dela soilik metafora arrunta erabiltzen, izen bat beste baten bidez agertzen duen proze-sua; Casenavek aditzen metaforizazioan ere sinesten du, irudiaren berritasu-nean. Irakur dezagun pasartetxo hau:

Zure begiek  
Ingurumena  
Zatitzen dute  
  
Zure irriek  
Orduak zilatzen  
Mirailak hausten.



Kasu biotan prozesu metaforiko baten menpe gaude, baina metafora ize-naren gainean jarri ordez, aditzaren gainean jarri du idazleak.

Metaforarekin batera, Jon Casenavek ahots desberdinen gurutzaketa maite du bere testuetan. Horrela tonu metaforikoarekin batera eguneroko hizkera entzun dezakegu telefono haritik barrena, tonu bakarra poesiarako nahiko ez balitz bezala:

NIK: Xoxoa, untzi bat naiz, betetzen dautazu!

ZUK: Bai, kontuz ez ixuri!...

Ahots desberdinen gurutzaketak ez du soilik ni eta zu pertsonaien arteko banaketa marrazten, sakonagoa du funtzioa: ahotsaren bidez presente egiten da testuan pertsonaren irudia, osorik eman ez dugun poema horretan.

Metaforizazio prozesuak, testuan orrialdeetan zehar, pitinka-pitinka, mundu sinbolikoa eraikitzen du. Bilakabidea da liburua, izpiritualtasunaren bila abiatzen den subjektu baten ibilbidea, materiatik airera altzatzen du izakiaren jokabidea.

Casenavek izadiko elementuen (lurra, ura, haizea) esanahia hartu du bere bizikera adierazteko. Liburuaren azken aldera, bilakaerak bukatu behar duenean, amodioa xoriarekin, airearekin eta urarekin batzen da, kontzeptuen batasuna sortuz:

Erreken, ur-txorien, leizarren arrazakoa zara, zu!...

Eta poemategia bukatzen duen testua honela mintzo da:

Hegalak noski  
Xori bat dudarik gabe  
Xo, ez erez,  
Bakarrik ene sentimendua  
Ixilik aireatzen ari...

Bukaeran bat egiten dute kontzeptuen eta sinboloen arteko garapenak.

Bidaiaren batasun-haria testurako, metafora tonurako, ahots desberdinen bilketa tonu aldaketarako eta sinbolo joera testua esanahiez osatzeko: hona hemen lau zertzelada oinarrizko *Zutaz amoroski* libururako, lau ezaugarri nagusi, *Ordu alferren segidanen* ere agertuko direnak, lau adierazpen Jon Casenaveren poetikarako.

Bigarren poema liburu hori ere ardatz bakarraren inguruan moldatua da, koblakari gisa gortera joateko, bere herria uzten duen gizonaren istorioa kontatzen du idazleak, bidera irten eta bidaiatu eta gero, zaharturik, mendi baten gainean bizi da. Hiru une garrantzi beraz Nietzsche-ren arabera (edo Budaren bizitzaz) eraturiko pertsonaia honengan. Hiru une bere bizitzan, aintzin-solasean bertan aipatuak:

Otsoaren urtera hatera zoala, etxea, etxeoak eta herria utzi nituen hiri nagusirako bidea harturik, gortean koblakariak ogia errez irabazten zutela entzuna nuelakoan... Ordutik hara, ainitz itzuli eman diot biziaren erro-tari; hiri nagusian nardaturik... erresumako bide eta ibaietarik ibili nintzen.

Lurralde asko kurrutu ondoan, zahartzaroan sarturik, mendi honetara igan nintzen aterbe bila...

Eta zahar guziak bezala, iraganari so egonez, egindako bideari bakan-aldi bat eman nahi izan diot. (OAS, 9)

Fikziozko pertsonaia eratu eta asmatu du Casenavek aurrera eramateko bere poemategia, hori bere eremua eskeintzeko. Pertsonaiak gogora ekartzen du Zaratustra, bere mendira igoa, edo bestela, Arestiren *Maldan Beherako* Joan pertsonaia. Casenaveren pertsonaiak alderantzizko bidea egiten du gortetik bakartasunera. Hiritik basora, gortetik larrerako bidean, pertsonaiak bidaia osatzen du bakartasunaren bila, eta sortaldeko zen ideia hartzen duen baretasuna da bere helburu nagusia.

Hiru une eta hiru zati, nola bestela?, liburuaren barnean: “Lepo handi, tripa zuri”, “Oin-hutsik” eta “Ordu alferrn segida”. Aro bakoitzari poema zati bana, Baina eraketan, argumentuaren gainetik, beste erizpide batek agintzen du. Poemategiaren eraketan paralelismo garbia agertzen da, hari narratibo eta pertsonaiaren adinen artean: gaztaroa, helduaroa, zahartzaroa. Eta gainera tonu aldaketa. Lehen aroa ahots desberdinen txaplada osaturikoa da, eta ez du horrenbeste indarrik joera narratiboak, bigarrenean narratibitateak toki handiagoa hartzen du; hirugarrenak tonu lirikoa indartu du, narratibitateak toki xumea besterik ez duen bitartean.

Gaztaroko poemetan, pertsonaia “Lepo andi, tripa zuri” zen garaietan liburuaren tonua ematen zaigu, eta gainera oroitzapenen gaia aipatzen zaigu, lehen poematik bertatik testuaren gai nagusia aipatuz. Pertsonaiak ez ditu poemak gorde, baina:

Oroitzapenak aldiz, multzoka heltzen gogora.

Tonu autobiografikoa hartzen du testuak eta adar biren artean balantzaka mugitzen da: batetik, hitz laxo poetikoz eratzen ditu, zertzelada eta pintzelada xume gisa, pertsonaia eta tokien agerpena. Erregerengandik hasita lehen alde honek, urrun dagoenetik hurbil dagoenera egiten du bidaia, margolari eta baratzainarengan bukatu arte. Errege eta gazteluaren irudiak, pertsonaiak tokiei parekatuak, oposaketa sortzen dute atalaren azken aldean agertzen den margolari baratzarekin. Tartean poetak agertzen dira, koblakariak eta hauen arteko eztabaida filosofikoak. Errege, astronomo, margolari, baratzain, irudi sinbolikoak dira giza izaeraz galde egiteko. Erregeak, adibidez, boterea erakusten du, hala ere, poetaren begian:

Ele diridir edo saminen azpian, izugarriko  
etsipena susmatu nuen gizon zahar horren baitan.

Gizalde txukuna badu ere, badu joera krudela beragan eta poetak kupida-  
rik gabeko hilarria eskeiniko dio atala bukatu orduko.

Hitz lausoz giroa marraztu ondoren, poetak, Provenzakoko gorteetan balego  
bezala, eztabaida gaia aurkezten du, zuzenean:

Zonbaitzuen ustez, gizona oso osoa zen, kontzientzia baten inguruan  
sendoki eraikia, etorki batetik jalkia, gero-aldi baten ildoan sartua.  
Besteetan aldiz, gizona zen menturazko ahal batzuen bilketa, haizea bezain  
aldakor. (OAS, 23)

Koblakariak ez du azalduko zein iritzitan kokatzen duen bere burua, baina  
bere adiskideen ikuspegiaren bidez emango dio testuari erantzuna. Margol-  
lariak, adibidez, aldaketa maite du:

Miresgarria zitzaion lur ur elkarte hori, ura lurretan sartua, lurra uretan,  
muga garbirik ezagutu ezinean. (OAS, 24)

Margolariak era metaforiko batez azaltzen duena garbi utziko du astrono-  
moak:

Gizona ikusten zuen aldakor, funts eta iraupen gutikoa, mundu osoa  
bezala. Hori erakatsi zidan indar haundiarekin. (OAS, 27)

Baratzezainak iritzi zuzenagoa du arazo honetaz:

Haren ustez, hazi, harri eta izate, denak agertzen eta desagertzen dira,  
inguruxo arin batean. Behin aitortu zidan liliak arte handiarekin erabiltzen  
zituela, lore hazian nahi zuelakoan berriz munduratu.

Iritzien ganetik, baina, heriotza katea da lehen atala. Heriotzaren agerral-  
diak banan banan datozkigu. Eta hil da margolaria, hil maite zuen neskatxa,  
eta hil ere errege. Hilarriak dira ataleko zenbait poema. Koblakari gazteak las-  
ter ezagutuko du, bada, heriotzaren ahalmena.

Hitz laxoen ondoan, noizbehinka tartekatuz poemak agertzen dira, ez  
askorik, lehenago adierazi dudanez, oroimenak gogoratzen baititu eta ez poe-  
mak, “dotoreak... eta ospetsuak” deituak.

Egia esan behar banu, testuok oihatzun kutsu handiegia dute. Kontrastea  
sortzen dute, baina adibide gisa jarritako testuok indarge eta kolorge agertzen  
dira, ariketaren soinua dutelarik. Tradizio kutsuko bertsoak dira, hala ere, txi-  
kiak, finak, koplak zahararen moldean egitaratuak batzuk, besteek ditxoaren  
arnasa mantentzen dute. Irudi poetikoak izadia hartzen du ispirazio gisa, eta  
konparaketa da testuko espresabiderik ugariena. Ideia xume batek bultzatuak  
direla dirudi, nahiz eta gai sendoen artean mugitu: amodioak eta heriotzak.  
Zenbait poema labur, hilarrientzako eginak direlakotan aurkeztu du koblakariak:

*Gazterik hil zen lagun bati:*  
Zoin den airakor arnasa  
errautsa bezain arina  
hura bezala uhaina  
hauskor harroken kontra... (OAS, 17)

Kopla zaharrak ematen dio bidea poetari, maite dituen tradizio biren artean, euskal tradizioetik ekialdeko poesia motara igarotzeko. Orientalismo kutsua nabari zaiolarik zenbait pasartetan.

Bestela joera paraleloak maite ditu:

Aztapar ukaldi gaiztoa, zure bular larru goxoa  
desio baten zilatzeke  
planeten behako hotza.  
Zure hortzen ausikiak, izar gorria iduri  
ene papoko zeruan,  
ortzeari itzultzeko plazerraren oihartzuna... (OAS, 19)

“Oin-hutsik” bigarren aldeak mantentzen du oraindik narrazio tonua. Gortea utzi eta bidez bide dabil koblakaria; zati honen zazpi poemen barna: “Leku arrotz”, “Hotz handiak”, “Sofrikario”, “Jendeak”, “Sohako”, “Sua”, “Hara hona”, poemen bidez.

Deslai bizi da pertsonaia, narratibitatearen aldetik oso ongi ulertzen ez den Erregerengandik urrun eta ihes:

Ordutik hara hila bezala nintzen, erregearen aserretik ihes egin beharrez. Erromesen trapu zaharrak jantzi nituen, bizarra utzi, sor leku bat, haurtzaro eta oro asmatu nituen egiazkoak isilduz. (OAS, 33)

Hila bezala bizi, gizartetik kanpo, gizartearen sarean tokirik gabe, sorlekua asmatuz, gezurrezko haurtzaro baten jabe. Lurrik gabe bizi. Agian, guzti horregatik aldatzen da tonua. Espaziorik ez duenak bizitzeko, historiarik ez duenak barnerantza egiten du so eta bere bidea erakusten du, nor den, zein den. Erromesak tonu barnekoia erakusten du. Toki arrotzean bizi da (“Leku arrotz”) eta itzuli behar du subjektibitatearen eremura: “Hotz handiak”, “Sofrikario”, “Sohako”. Begiradak ematen dio tokiaren berri, bere barne-munduaren sofrikarioen jarraibidea.

Hitz laso eta hitz neurtuaren arteko oreka handiagotzen da sail honetan. Bada oraindik koblakariaren historiaren berririk, bada kanpo errealtatearen aipamenik eta argumentuaren adibide den poemarik. Baina nagusi dira inoiz baino gehiago oroimenak:

Zuek  
oroimen efimeroak  
iduzki gorrian  
ene ihizi bakarrak... (OAS, 50)

Bertso sorta txiki honetan nahikoa adibide dugu Casenaveren idaz moldeaz. Barne mundua (oroimena) metaforizatu egiten da (ehiza) izadiaren erdian (iduzki gorrian).

Heriotzaren gaia nagusia da testuan, lehen sailean gertatzen zenaren antzera. Honela, ibaia, denboraren metafora:

Ba doa zalu goizean  
izozkia bihotzean. (OAS, 37)

Negu honetan  
herioak  
bazterrak aise bakantzen... (OAS, 36)

Erromesaren pausoak menditik itsas hegira doaz, eta artean jendea aurkitzen badu ere, urruntzen da herrietatik. Bere patua joanaren joanean, denbora gisa, bizitzea da. Eguraldiak ez du laguntzen bere bidaia, jendeak ere ez.

Itsas hegian ez da sasoirik... (OAS, 49)

Negu txarra iragan nuen, itsas aldeko  
herrialdean... (OAS, 52)

Baina ororen buru,  
bazuten begietan barna sortua arrotzaren  
mesfidantza, hots ezezagunaren beldurra... (OAS, 42)

Bere burua besterik ez da, eta begirada barnerantza zuzendu du eta izadi eta oroimenaren artean kokatzen du erromesak bere gogoan.

“Sofrikario” eta “Sohako” poemek haiku txikiak osatzen dituzte. Metrika beretsuko poemak, joera berdineko saiakerak, zatien bilduma, izadira begirada barnea hustutzeko. Giro berekoa da “Sua” ere, baina sail honetan begiradaz gain, grina dago, amodioaren agerpena.

Haikuak dira. Begiradak:

Andereinoa  
mirailaren aurrean  
uraren hotsa... (OAS, 40)

Orroitzapena  
minaren ohantzean  
nabal zorrotza. (OAS, 40)

Infernurantzako jaitsiera da atal honetakoa, jende artean galdua agertzen delarik pertsonaia. Azken unean ororen jabe aurkitzen denean, pertsonaiak, koblakariak, aszetika bidea kurrutu duela ikusten du

Ez dakidanean zer jan ala nun etzan, diot ene buruari: oro iragiatzen da.

Koblakariak, ala profetak, ala Budak, jarraitu du bere bidea Ekialderantz (OAS, 54). Hala ere han aurkitzen duena ez da Ekialdea. “Ordu alferren segida”, hirugarren sailaren izena, Negumendi deitzen den tokian gertatzen da, han aurkitu du pertsonaiak bere bake lekua, bere pentsakizunaren tokia.

Koblakariak berak dio “Uzkinazoekin” batera heldu dela berak hautaturiko egoitzara. Negua da sasoiak. Bakartasuna nagusi. Pertsonaiak bakartasuna bilatu izan du. Izadiak liburu guztian zehar izan ez duen nagusitasuna hartzen du.

Lur bustiaren usainak eta bazterren berde berriak xoratzen gintuzten, goiti gindoazen guziak.

Idazkera aldetik aldaketak nabari dira hirugarren atal honetan. Esaldiak laburragoak dira, estiloaren xumetasuna bilatu izan balitz bezala, edo behintzat, esaldi luzeen erritmoa etetzeko erabili izan dira:

Euria ari du etxolan. Kea doa zerura.  
Haizea zitzuz kanpokaldean. Ezin naiz lokartu. (OAS, 68)

Hitzen arteko soinu jokoak, aliterazioak agerpen haundiagoa du testuan. Hitz lasoaren erritmoak indarra hartzen testuaren barruan, eta sintagma motzen pilaketak berebiziko jolasa egin du Casenaveren maisu-eskuan:

...iguzki aldeak bakea eta argia dakartza,  
hegoak beroa, mendebalak euria, iparrak aldiz,  
haize hotzen bitartez, indar eta jasaipen... (OAS, 60)

Hirukoiztasuna, esaldi edo esaldi txatalen errepikazioa da, agian, sailaren espresabiderik nagusia:

Eni aldiz, goiz goizetik agertzen zait heriotzea, argi hasteari buruz amaitzen den xori kantan, haizeak eramaiten duen hostoan, berpiztuz doan iguzki gorrian. (OAS, 64)

Haritza edo pagoa dut egatza, etxola ttipian etzan lekua, Negumendi osoa erresumatzat. (OAS, 65)

Honelako espresabidez beterik dago hirugarren saila. Izan ere, saila hirua-  
ren inguruan osatua baita. Atalaren hasieran koblakaria bakarrik bizi da  
Negumendin, goseak eraginda herrira jeitsi behar du, eta han, jendearen mes-  
fidantza jaso:

Jateko eskasteagatik, herri ondoetara jausten naiz...  
irri ederrena egiten diet, jakin dezaten garbiki,  
goraipatzen eta miresten duten bizitzeak, zer nolako  
esker tzarra eskaintzen duen... (OAS, 71)

Herrira egiten duen bisitaren sekuentziak ere hiru une ditu, hiru poema.  
Gazteekin jakinduriaz hitz eta eztabaida izan ondoren bakartasunera itzultzen  
da pertsonaia. Han izadiaren irakasgaia ulertuko du. Liburua ixten duen poe-

man sujetoaren eta izadiaren arteko loturaz hitz egingo du koblakariak. Aurrez aurre begiratuko dio heriotzari:

Hemen lur borobilaren begi gorrian, ez da  
hiltze luzerik ez eta ere hilobirik...  
Gorputz hilen ondakin idorrek, haizeak  
eramaiten ditu itsasoen itzulian.  
Gero eguna argitzerakoan lurreratzen dira,  
urrezko hauts, airean hunkigai... (OAS, 75)

Heriotzaren ondoren aurrera egiten duen izpirituak badu ekialdeko filoso-fiarekin loturarik, koblakariak eraman duen bideak helburu hau izan du: bakartasunean izpirituarekin bat egin, izadiarekin bat egiteko punturaino, “Deus ez da herioa” esan arte barne kezkek bakean gelditurik.

Zen izpirituaren oreka da pestsonaiak bilatzen duena, eta izadiarekin armonia lortzea.

Casenaveren poesiak eskeintzen dituen ezaugarriak hiru-lau sailetan bana ditzakegu. Lehenik poemategiaren barnean batasuna dago, argumentu baten inguruan moldatzen du poemategia Casenavek. Liburu honetan koblakari baten bizitzak eman dio eusgarria. Hiru arotan jarraitu du munduko gortetik izadiko bakartasunera daraman bizitzan. Eta poema hasten den unetik, bukaera non izango den garbi duen idazlea dugu Casenave. Argumentu zuzena du, agian, poemategi idatzi aurretik, ongi pentsatua, prestatua.

Osotasunaren ikuspegiaren menpean, hitz poetikoa lanaren kontzeptzioari atxikitzen zaio. Horregatik, beharbada, zenbait poema gordin gertatzen dira, argumentura egokituak balira moduan, argumentua osatzeko apropos sortuak balira moduan. Honela, zenbait pasarte gogor xamar egiten zaizkio belarriari.

Ahots eta tonu desberdinez osaturiko poemarioa dugu hau, aldaketak atsegin gertatzen baitzaizkio poetari. Lehen aldaketa nagusia hitz lasoa eta poesiaren txandakatzean dago. Baina pertsonaiaren eraketan ere bada moldaketarik: ez dira ahotsak berdinak poemategiaren hasieran, pertsonaia bere unerik gozoenean dagoenean, eta bukaeran nostalgia lanbro batek estaltzen duenean bere konfidantza.

Hari bakarraren inguruko moldaketan, hitz laso eta poemak biltzeko joeran, eta sinboloaren erabilpenean Casenavek Yves Bonnefoy ekartzen dit gogora. Horren poesiaren trinkotasuna, gai bakar baten inguruko hitz balleta, hizkera sinbolikoaren xarma.

Erritmikoa da Casenaveren prosa, agian egiten duen poesia tradizionala baino hunkigarriagoa eta beteagoa.

Prosa lirikoaa zein hitz neuratuan erakutsi zuen dohainik. Baina *Ordu alferren segida* argitaratu ondoren, ixildu egin da. Entzungo al dugu berriro poetaren kantua!

## **Bibliografia**

CASENAVE, J. (1987): *Zutaz amoroski*. Ustela saila. Donostia.

— (1985): *Ordu alferren segidan*. Elkar. Donostia.

ANZA, M. (1986): “Ordu alferren segida”. *Susa*, 18, 6.

BORDA, I. (1985): “Jon Casenave”. *Argia*. 1078. 1985-XI-3. 35.

LANDA-URIA (1982): “Iparraldean ez da kasik literaturarik egiten”. *Argia*. 935. 1982-V-30. 30-1.



## AURELIA ARKOTXA ATARI AHANTZIAK

Aurelia Arkotxak 1993. urtean ematen du argitara bere lehen poema liburua: *Atari ahantziak*. Badugu zer esanik honetaz, zeren geure ikerketarako jarrita genuen muga hausten baitugu horrela. Aitzakia gisa, baimendu bekit azalpen txiki bat ematea. Hiru arrazoi modu daude horrelako salbuespen ia bakarra egiteko. Lehena, adina. Liburuaren aurkezpen atalak isiltzen badu ere jaiotza data, adinez Arkotxak badu zerikusirik marrazten ari garen hamarkadako talde poetikoarekin. Bigarrena, lana. 80ko hamarkadan libururik ez bazuen argitaratu ere, lan luze zabala eraman du aurrera *Maiatz* aldizkarian batez ere, nahiz eta talde horri bakarrik atxikia egon ez, eta talde hori zentzu osoz sartzen zaigu hamarkadaren estetikan. Urritasuna, hirugarrena. Ez dira anitz Iparraldeko olerkariak hain kalitate handia, estetika berritzailea, eta manera onak erakutsi dituztenak ikerketatxo honetatik at uzteko.

Zuriketaren ondoren, liburuaren balio nagusiak aipatzen hasiko gara, deskribapen lan xume baten Liburuaren izenburua *Atari ahantziak* da, eta hiru ataletan banandua da: “Saturnaroa”, “Circumambulatio” eta “Ibisaren urratsa”. Horien aurretik “Dandu” deituriko poemak ataria egiten dio poemategiari, eta atzetik “Lau katu” deiturikoak itxi testua.

Errazagoa da hiru atalon ibilbidea deskribatzea, izenburuaren zentzua asmatzea baino. Atariak lotuta daude muga eta hegiarekin, etxe dira, baina kanpokora adi daude. Kanpo dira, baina babesa ematen dute. Airera ematen dute aurpegia, baina itoginaren barnean dute itzala. Mugak dira, espazio mugak, denbora mugak. Ate inguruko arkitekturak, garai berriei begira daudenai ere bai.

Mugan dugu, izan ere, poemategia. Itsas egia, edo itsas hegia (bietan idatzita agertzen baita) sinbolo nagusi dugu testuan. Ekintzak, sentipenak, istorioak, mugan gertatzen dira: kostaldean, ez lur, ez itsaso den tokietan, lehenik.

Gero, denbora lazgarri baten erdian, krisialdiaren agerpen balira bezala poemategiko hitzak. Aldaketaren seinaleak non-nahi dira, eta idazleak han eta hemen ematen ditu aldaketa garai horren aipamen txintzarrosak.

*Atari ahantziak* loturik daude (eta honetako asko, larregi bultzatzen du liburuan erabilitako ikonografiak) asmaturiko arkitektura baten argibidearekin. Asmameneko geografiak eta topografiak dira liburuan eraikitakoak. Ez du (inoiz laberintoa aipatzen bada ere) Aurelia Arkotxak *toposaren* aipamen handirik egiten poemetan. Baina eraikitzen du barne geografia bat, poemaren barne hariez ehundua, asmatzen du biografia baten espazialitatea: sentipenen mapa. Gaiarekin jarraitzearen, poemak ez daude datatuak, bai, ordea, non idatzi diren tokien aipamenaz lagunduak, tokiari atxikiak baleude bezala, eta ez historia bati. Tokien aipamenok, zalantzarik gabe, loturik daude idazlearen biografia eta autobiografiarekin. Klabe sekretuak balira bezala, emanak dira, bere bizitzako munarri gisa. Baina, Arkotxarekin askotan gertatzen den bezala, badirudi poemategiko giltzen esanahia ez dela poemategian bertan ematen, baizik eta poemategitik kanpo dagoen idazlearen bizikunereren batean, horregatik baina, poemategiak ez du indar fisik galtzen, sugerentzia, aipamena, mundu ikuskizun baten seinale delako *Atari ahantziak*. Barne geografiaren marrek aurpegia marrazten badute ere “atari” hitza ez da liburuan usu agertzen. Ahanzturak eta atzendurak bai ordea. Poesia ahanzturaren aurkako ekintza bat bada, hona hemen mito eta sinbolotik barne oroimenera doan ibilbidea.

Sarrera batek ematen dio hasiera poemategiari. Aipu bat: J. Follain-ena, eta “Dundu” poema. Dei poema dugu, sorkuntza egun berrian geundekela esan liteke, unibertsoaren jaiotza unean. Baina natura nahaspildua da:

Itsas sabeletik, zelakanteak  
Jalgi, arrain zistadunak, izadi  
Beldurgarriak, ikaragarriak.

Izulaborriaren giroan sorturiko tonu poetikoaz ematen dio Genesis honi hasiera idazleak. Gaiaren aldetik testuak lotura du Saturnaroarekin. Baina inbokazioak bere indarra gordetzen du poemaren bukaerarako, oroimenaren alde dei egiteko.

Orhoimen gordeetako ilargiak  
Berriz piztu. Zeru-osinak zabaldu.  
Gure oin-hutsen erresto luzea  
Urak legar hezean idetsi du... (AA, 13)

Oroimenak gorderiko ilargiaren eta norberaren oinatsen arteko mugetan eraikitako poemategia da hau. Metafora sinboliko, eta noizbait, ezkutukotik, biografia gozo eta ozpinera luzatzen den haria. Mitotik intivismora, nahi izanez gero, dei dezakegun bidean.

Atari ahantziak, agian, lehen poema honetan aipatzen ziren:

Denbora ahantzietako legarrak...

bezalakoak dira, ahaztutakoa berriro gogoratzera egiten den ahalegina. Ahazmenaren ziegan etxearen eraiketa, edo, atariaren altxatzeko ahalegina.

Izenburuaren sinboloa zabalera joaten bada, herstuagoa da atalen sinbologiaren irakurketa. Iniziazio ibilbidean egiten den bezala, giro nahaspildutik itxaropen puntu batera doa liburuak. "Saturnaro" deitzen dio Aurelia Arkotxak lehen atalari. Saturnoren esanahiaren tradizio desberdinetatik astrologiarena aukeratu du idazleak.

Saturno est la planète malédique des astrologues dont la triste et chétive lumière fut, depuis des premières âges, évocatrice des chagrins et des épreuves de la vie, et que l'allégorie représente sous les traits funèbres d'un squelette animant une faux... L'autre face de ce Janus présente le tableau inverse d'un détachement excessif sous les divers aspects de l'effacement de soi, du désistement de l'*ego*... renoncement débouchant à l'extrême sur le pessimisme, la mélancolie et le refus de vivre. (Chevalier-Gheerbrant, 1982, 848)

"Saturnaroa"k, bada, gutxi du ikustezkoa A. Eguzkitzak (1994) sostengatzen duen iritziarekin: gozotasunez beteriko testu bat dela hau. Saturnok bere joera kaltegarria agertzen du lehen atal honetan. Nahasketa eta infernuko iruditeria askotan erabili izan da testuan, girotzearen eraginaren barne delarik Juan Mari Lekuonaren aipua:

...loak, urrezko aitzurrez, irekitzen du  
garrasi itoen kriptarako bidea.

Garrasi itoak erabili ditu Aurelia Arkotxak, oroimenaren kripta begi bistan uzteko. Itxaro Bordak (1994) liburuari buruz eginiko aipamen batean onartzen du oroimena dela liburuaren gune eta ardatzen nagusia, bihotza, baina azaltzen du, era berean, tonu bikoiztasunak erdibitzen duela bere lana:

Oroitzea neke da. Alta, Aurelia Arkotxak... poema zenbaiten erantsi ditu giltzapean gorderik zeuzkanak, oroitzaren zutabearen bermatzeko... Ondorioa ez-titasunez bezain mikaztasunez bez-titurik datorkigu... memoria zihikatzen baitute.

Atala "Lorategi belztuan" (AA, 17) kokatzen da, zorigaiztoko lilien artean, eta bere ibilbidean gizadiaren ankerrak sortu dituen hainbat tragedia hartzen ditu gaitzat: heriotza, izurritea, bortxakeria, gorrotoa, GAL-ek emaniko samina, Gernika, Hiroshima. Saturnaroan gaude gizadiaren alderik ilunenetan.

Poemategiaren alde honetan, eta segurki beste horrenbeste esan dezakegu liburuko beste bietaz ere, garapena kausitzen da mitotik intimismora.

“Laugarren zaldizkoa” poemak (AA, 18-9) Apokalipsiaren aurrean jartzen gaitu. Eta Heriotzaren sinboloa dager garbian:

Laugarren zaldunaren begi zohargietan itsasoaren uhain arrosastak dir-diratu ziren. Itsasegian zabilan erreposki, gorputza utzia, zaldiaren urratsaren neurkadak zeramala.

Itsaso gorrilunari azken begizatze bat eman zion, lana ongi kunplitu duenaren kontentu osoz.

Zaldiaren lepo izerditsutik pasatu zen haren esku hezurtsua.

Mirandek *Malenkolia* deituriko obra bazuen, laugarren zaldiko honek Dureroren Apokalipsiaren irudiak dakarzkigu gogora.

Pintore baten grabatu bi. Nonbaiteko giro gordina erakutsi nahi du Aurelia Arkotxak poeman. Eta hor agertzen da bere lumak duen zorroztasuna egoera kontrajarriak sortzeko. Ez da soilik begi bistakoa hitz laua eta bertsoa txandakatzeko duen zaletasuna (“Hitz laxoz eta kopla antzekoetan” (Borda) “narrazio ttikiak eta egoera lazgarriena inguru eder eta politen artean kokatzeko” erakusten duen esku dotorezia. Girorik gogorren eta kinurik arrunten arteko jostaketa da, agian testuaren bertuterik lehena. Eragin handiz erabili du ataleko poemarik deigarrienean: “Hiroshima lorez eztaletzen”. Aipuak Marguerite Duras-en liburuaz, *Hiroshima, mon amour* ari da, eta neurri handitan liburuaz eginiko filmeaz.

Poema honetan idazlearen biografia maila mitiko batera eraman da GAL, Gernika, Hiroshima katean egin den lotura baten bidez. Testuak kontrajarpen bakar batez osatzen da: testiguaren hizkera arrotz eta kokapen miresgarriaren artean. Nolabaiteko ahots bi ari dira hizketan, bata letra arruntean idatzia, bestea kurtsibaz. Hilketa bati buruz ari da testigua, eta berak lotzen ditu gizadiaren hiru hotsa.

Itzalean zauden. Gaua eroria zen ni pasatu nintzalarik. Dena akitua zen. Akabo. Profesionalak.

Lan garbia. Garbitasunean egiteko. Garbitasuna garbiki.

Garbiki garbituak... (AA, 32)

Hitz egiten digu testigantzaaren emaileak. Beste ahotsak Marina deituriko pertsonaiaren ibilbideak jarraitzen ditu. Tonu nostalgikoa jarraituz, Portugaletik egindako bidaia, urrunean galtzeko:

Marinak hiriak maite ditu. Egunaren bertaldean. Urratsak ozenarazi karrika hustuetan. Hiri ixilduen auzo galduak gurutzatu oihan basatuak balira bezala. Ibilbideetako zuhaitzetan, orduan, hostoen korrikara ere entzun daiteke. (AA, 32)

Poema honetaz honela dio Itxaro Bordak:

Aurelia Arkotxaren olerkiak jendearen bakuntasunetik, kolektibitateak

jasaiten dituen minen salatza iragaiten dira, sozietatearen eta jendearen artean, aipatzen den muga hertsirik ez bailegon.

Lehen ahots aseptikoari bigarren ahots literarioak erantzuten dio. Ahots honen zorroan sinbolismoaren eta modernismoaren hizkerak parte hartu du. Aurelia Arkotxaren hizkera poetikoan xamurtasunak (Eguzkitza) eta:

Koloreen garrantziak... soinuen bete beharra, ingurumenak. (Borda)

aipatzen dira lehenik.

Espresamolderik deigarriena da izan ere poesia honetan. Kulturalismo pixka batekin nahastua. Arkotxak maite ditu kultura munduko aipamenak, batez ere pintura arlotik datozenak. Baina ez dira bakarrik: Dante, Nurenbergo izurritea (honetaz baliatuz Durerok marrazki bat pintatu zuen odol-auria gisa ezagutu zen fenomenoak utziriko aztarnak erabiliz), Apokalipsia, Durero, Botticelli, Giotto, Kandinski, Klein.

Ez da, hala ere, kulturazaletasuna hizkera sinbolikoaren lerraketa bat baino gehiago eta giro lazgarriekin egiten duen kontrajarpen itxia.

Tonu aldaketaren gaiarekin jarraituz, aipa genezake tratamendu aldaketa olerkaritza honen oinarri gisa. Aurelia Arkotxaren poemategian genero desberdinak etorri dira elkartzera. “Saturnaroa” honetan batzuk aipatu ditugu: “laugarren zaldizkoa” mitoarekin lotzen da, “Hiroxima lorez ez tali zen” kontraste jokoarekin. Badira, baina, testu intimistak, eta estonagarriagoa dena, leienden zantzua. Giza bortizkeria salatzeke sortu den “Itsaegiko gizona”, bere deskribapen samurrak at, ipuintxo lana baino ez da. Petri zaharraren istorioak, alegoria izan nahi duenak istorio ahulen bidea besterik ez du jarraitzen, nahiz eta atalak duen tonuarekin bat etorri.

Orain arte egin dugun deskripzioan mitotik (“Laugarren zaldizkoa”) erre-alismora (“Hiroxima lorez estali zen”) iraganez ikusi dugu idazlea, Badu, gainera, intimismora hurbiltzen den poemarik. Eta, atalaren giro nagusia beltza, latza eta iluna den arren, bukaerako poematxoak, “Nadja”k (Brétonen liburua gogarazten duena), itxaropenari tokia zabaltzen dio:

Biziaren gutizia...  
ezin itzalizkoa... (AA, 37)

Ezin baita ahaztu liburuak garapena duela, eta “Saturnaro”tik, begizkoak jotako giro krudeletik harago igaroten dela liburuko mezua, poemategiko arkitektura asmatua.

“Circumambulatio” sailak inguru-minguruan ematen den pausua agertzen du, liburuaren erdigunea da. “Saturnaro”k jaiskera adierazten du, eta “Ibisaren urratsa”k igoera; lautadan, hegidura horizontalean dagoen espazioa da inguruan mogitzen dena. Laberintoaren irudiarekin lotua da, eta denbora borobilarekin, hemen urtero joan etorrian ari dena:

Pasatu ziren belatzak...  
konprendi gabe utziak... (AA, 41)

Tokia ezin da bazterrean utzi. Glendalough Irlandako toki ezaguna da, San Kevin-ek horrenbeste maite zituen belatzak horkoak dira. Gune da sail hori. Laberintoaren irudia da nagusia. Ariadnaren mitoa aipatzen delarik:

Ariana  
Zartatu zitzaidan haria.

Ariana  
Nola atxeman bidea?

Ariana  
Laberintotik orain nola atera?

Ariana... (AA, 48)

Itzulika ari denaren irudia agertzen da “Kaleidoskopo” edo “Ingurubil” gisako poemetan. Borobiltasunaren ideiak hartzen du testua. Espresabideen aldetik, behin eta berriroko zikloak osatzeko, errepikapenak hartzen du hitza, Ariadnari buruzko poeman gertatzen den legez, edo pilaketa errepikatuak:

Ikus genitzakeen  
leku bitxi guziak  
Atlantida galdu  
hiri itsasperatu  
gaztelu estrainu  
Lamien altxaleku... (AA, 44)

Borobiltasuna, zikloa, loturik dago haurtzaroarekin, edo harutzaroko babesarekin. “Ingurubil” poemak, agian, poemategiko xamurrenak adierazten ditu ongien liburuaren borondate eta helburuak. Idazleak haurtzaroko aroa ekarri nahi du gogora:

Ima, Mertxe, Asun, Ana. Gure haur denborako kristalezko irriak Herriberako gari landetan. Heldu zauzkit itxura iheskor bezein miresgarria. Iberoren bazterretan gure lasterren oihartzunik oraindik entzuten ote? (AA, 45)

Haurtzaroan benetan gertatu ziona ekartzen du gogora poetak, baina gogoratua ez da azaltzen, ezta ere kontatzen, anekdota, sugerentziaren bidez, uni-bertsalizatu egiten da. Ez zaigu inporta nortzuk diren aipaturiko Ima, Mertxe, Asun eta Ana, idazlearen adiskideak direla jakin arren. Inporta zaiguna da horren bidez nolako dei indarra lortu duen poemak.

Ebokazio indarrak olerkiaren bukaeran egiten du huts eta denbora berreskuratu ezina agertzen da zohargian:

Errauts, brika porroska. Errauts. Dena errautsetan suntsitu zen. Fon-

tellaseko zeruan, geroztik, ez omen da gehiago ikusten piko luzeetan abar-  
rak dilindan daraman zikoin bikote ederrik. (AA, 47)

Ibiliaren ibiliaz ari denaren eremua da “Ingurubil” hau. Borobilaren eta zirkuluaren irudia ez da oso-osorik. Ingurubilak beti du irtenbidea, zirkulua bere hartan da, espiralean berriz, gunea da geldirik dagoena, baina marra, iru-  
dimenaren indarrak geroago eta zabalagoa da. Indartu egin da adiskideen aipamena. Izenak gehiagotan agertzen dira poemotan, idazlearen biografiaren itzal balira bezala, beti ere biografiarik sinbolora eramateko gogoaz. Haurtzaroaren oihartzuna indartuta dago testuetan.

Baina ez da indar bakarra inguruka ari den sail honetan. Arkitekturak ere leku handixka hartzen du sailan. Ibiliak geografia osatzen du. Eta eraikinak, zein pausuz emandako geografiak toki berezia hartzen dute. “Bideingurua” oinez egiten da, pausuz “Ingurubilko uda sepiak”, oinez doa “Magritten orhoimena” eta “Argi xortak patioan”ek patio bat deskribatzen du, patioa baita inguruari bira emateko geografia zuzena.

Bidexigorra gertatzen den monastegitik hasita, arkitekturak indarra har-  
tzen du liburuaren alde honetan.

Arratsalde apalean, patio hutsaren perspektiba  
garratza leihoan haixturrez moztua... (AA, 42)

Ikuspegia heriotzaren irudiarekin bukatuko du idazleak:

Barda, Susana eta Adela, eskaleraren azken mailetan, zimurrezko  
irriari, hezurrezko mateletan, azken hatsaren daldaran, biziaz ahozpez neri  
mintzo. Barda, gaueko hameketan. Atzenduraren atarian. (AA, 43)

Antzeko jokoa egin du “Argi sortak patioan” poeman. Patioa euliz bete-  
tzen da (Miranderen zakur hilaren oihartzun ote?) heriotzaren irudiarekin  
bukatzeko: euliek hildakoen hezurak zuritzen dituzte:

Don Juanen hezur oinkatuak  
Seroren otoiitzek maldatzen  
Eta burhezurra denborak

Boliaren gisan leguntzen... (AA, 52)

Aurelia Arkotxaren poemategian askotan gertatzen den legetxe, benetako  
bista batek, maite duen eskultura batek ematen du poema idazteko lehen zar-  
tada, lehen bultzada. Baina agertzen dena, eta azaltzen dena ez da —nahiz eta  
aipatua izan— bulkadaren bultzatzailea, baizik eta horrek sortu duena. Cézanne gogoratuz esango genuke ez dela errealitate bat transkibitzen, baizik  
eta errealitateak sortu duen inpresioaren transkribapena dela azaltzen zaiguna.

Arkitekturak geografia osatzen duela baieztatzen da “Magritten orhoime-  
nez” deituriko poeman. Ez da hor geografia ezkorra egunsentiaren aipamenak

bukatzen baitu poema. Baina laberinto bihurtu den hirian pertsonaiak aurrera jarraitzen du:

Segitzen du zuzen. Lehendabiziko gurutzeraino...  
Karrika bakarretan, zikinuntzi berdilunak ateraiak...  
Parkearen bila dabila. Gauaz. (AA, 49)

Laberintoaren irudia da Arkotxak marrazten duena: galbidean dagoenaren pausoa, haurtzarora gaurkotu ezin duenaren asperena, heriotzan bukatu den denbora. Tragedia intimoaren marrazkia. Keinu batzuk, beharbada, “Konpreni gabe utziak”. Baina urrundu gara (“Argi xortan patioan” salbu) “Saturnaro”ko ikuspegi tragikotik. Nahasmenetik irteteko lehen pausuak emanak daude.

“Ibisaren urratsa” sailak, azken parteak, beste joera bat erakusten du. Formalki badu alderik. iru zatitan banandua da.

Alde mitiko bat, Grezia zaharreko aipamenarekin; lau amodiozko poema, gizona baten (berriro biografia agerian?, berriro biografiaren oihartzuna ezkutu-tuan?) eta haurraren inguruko hirugarren aldea, eta “Lau gatuak” poema bakarra poemategia izteko, hasierako “Dundu” harekin sintesia eginaz.

Sinbolikoki ere desberdina da atala. Ibisak esanahi garbia du arketipo gisa: Thot jainkoaren ordezkoa da Egiptoko mitologian hitz kreatzailearen ikurra, jakinduriaren zeinu.

Ildo honetatik zuhurtziaren adierazpide da poemategiko azken atala. Giza-krudelkeriaren aurrean izaturik, denboraren poderioaren aitzin galdurik ikusi dugun pertsonaia poetikoa zuhurtzia erabiltzen hasi da ibisaren gerizpean.

Mundu afektibo baten agerpena egiten da azken sail honetan. Lehenik geografia maitekorrarena. Bost poema horiek itsasoa dute gaitzat, ur sinboloren inguruan moldaturik dira. Greziako itsasoaren agerbidearena. Nausicaaren irudia dugu lehena. Ulisses onartu zuen bere etxean andreak, eta harrera sinbolotzat irakur dezakegu, zain dagoenaren iruditatzat.

Marmol xurizko zutabeen artean  
nindagon aspaldi zure esperoan... (AA, 55)

Aurelia Arkotxak, hala ere, denbora joanaren ertzak ematen dizkio.

Zihoazen hedoiak  
flamenko arrosak  
pelikano argiak  
ibis sakratuak... (AA, 55)

Bidaiaren inguruko azpisaila da “Ibisaren urratsa”ko lehen hau. Nausicaa ez da ulertzen Ulisses gabe. Patmosera, hemen idatzi zuen San Juanek Apokalipsia, joateko gonbitea luzatzen du idazleak. Untziak gaiaren inguru-



koak dira hurrengo poema biak, bere kutsu biografiko eta historikoa dutelarik atzean. Bordeleko portuaren kutsu lazgarria hartu du sinbolotzat idazleak: Port de la Lune, izen zoragarri eta poetikoa, han berriz, esklabu merkatua zegoen, eta esklabu merkatua egiteko erabili zen portu hori. Eta azken poematxoak azken marraren puntuan uzten gaitu:

...eta zerumugaren  
uztaidura lerrakorrean  
untzia gerotagehiago  
titta nimino bilakatzen  
azken marrak idetsi artio. (AA, 61)

Halaz ere, zer adierazten du bidaiak? Bidaia beti da mitoa. Ihesarena, eta neurri berean, ausaz, norberaren barnera heltzearena. Aurelia Arkotxaren poema hauetan bidaiak zentzu bi ditu. Batetik denbora larrialdirik gabe ikus-teko modua da:

...entzun  
begiak hertsirik  
itsasoaren marruma  
auhena  
eta  
urteen oihartzuna  
mendeen urratsa... (AA, 56)

Denboraren jarria sofrikariorik gabe pasatzen da Grezia zaharreko mitologia itxaropentsuan. Badaki idazleak hegan doazen ametsak erori egiten direla lurrera.

Baina, denbora urtze bat ere bada, isurkia bihurtzea norbera eta nonbaiten galtzea. Bada desagertzea. Aurelia Arkotxaren poesian badago heriotzari buruzko ikuspegi lasaia, urrunean galtzea bezala adierazita dagoena. Disoluzioa da, ura bihurtzea, eta esanahi hori liburu guztian zehar azpimarratzen da.

“Hiroxima lorez estali zen” poeman pertsonaia, Marina, itsasoan galtzen da:

Marina ezponda luzearen puntan. Gelditu da. Ezta mugitzen. Hiroxima gogoan...  
Marinaren begiak... Badoa nehork aurki eztezakeen eskualde altxatu batetara. Urrun. Urrun. (AA, 36)

Edonork galde lezake izena berak, Marinak, ez ote lukeen lotura sinbolikorik izango. Baina testu gehiago dira zeinetan lotzen baita heriotza eta itsasoan urrunera joatea. “Laugarren zaldizkoa” eta “Itsasegiko gizona” poemek itsasoa eta heriotza lotzen dute. Itsasoratzea urtzea da, berez eta beraz: disoluzioa, honako poema honetan ikusten dugun moduan.

“Itsaski I” poemak ere zentzu lotura berdina ematen du. Itsas ondoko haurra haizeak darama:

Baina egun batez, udan nik uste, itsuak eta sohorrak hondartza basa hartaz jabetu zirelarik, haizeak haurra besapean hartu zuen eta handik ihes egin.

Urrun

Nehork ez jakinki nora... (AA, 77)

“Itsaski II” olerkiak, ordea, ametsaren errainuan kokatzen du haurra:

Haurra bere baitan galdua...

Haurrak haur direlarik. Desiraren hegaletan... (AA, 77)

Urtzea nolabaiteko itsasoarekin bat eginda desagertzea bada, ez da zentzu bakarreko sinboloa horregatik. Urtzea xamurtasunean eta maitasunean gal-tzen denaren sinboloa era bada. “Ibisaren urratsa”ren bigarren aldeak lau poema ditu, laurak amodiozkoak. Nik uste, sail honetan maitasuna, artea eta agian, isurkia, ura, loturik daude. Maitasunaren aldetiko gaia garbia da. Poema deskriptiboak ere badira hemen:

Oihal ximurtuetan amets bila...

Baztango jauregietan has dadila

lehengo amodioaren lorea sortzen... (AA, 67)

“Der Blaue Reiter” poemak sarrera eman die besteei. Kandisky-rekin lotua dago titulua. Bluia da hor garrantzizkoa, bluia ez baita zuzen urdina, bluia urdina ere bada, baina gainera baditu oihartzun ezezkorrak. Baina lehen poema honetan erreferentziak maitasunezkoak dira:

Kandinsky Giotto Klein Fra Angelico

punpula borobiletan ezkonduak

baratzean maitasunaren gordatzeko.

loreen itzalak dira aterbeak... (AA, 65)

Maitasuna artearen xirrikitueta hasten da, eta ura eta maitasunaren artea modu bitara salbatzen da: urdin kolorearen bidez, uraren kolorea baita, eta infinitoaren (testuan zehar berebiziko arreta eskeintzen zaionez, mereziko luke hartaz soilik idaztea) eta mugaren aipamenaren bidez.

“Carpaccioren San Giorgiorekin” poemak artea du lehen aipamen, baina, ondoren, maitasun poema bihurtzen da. Poemak badu joera deskriptiboa hasieran, ondoren, Carpaccio-ren margoa metafora balitz bezala, maitasun bizikunera igarotzen da poeta. “Notre Dame...” poemak lau distiko ditu. Hiru oso zehatzak dira, agian bizikuneren aipu eta haiku, laugarrenak joera mitikoa erakusten du. Bizi esperientzia, bizi zatitik irudimen mundura doan bidean da poeta.

Baina, eta joera biografikoa ezin ukatukoa den arren, laugarren poemak argi uzten du maitasunak baduela loturarik mitoarekin:

...ene kanta ene ezti ene obsesioea  
esistentziaren mugetarik jina  
mirailaren atzean zinaudena... (AA, 68)

Maitasuna haurrari luzatzen zaio. Pausu sinboliko hau emateko, Aurelia Arkotxak tarte bat asmatu du. “Begiak” poemak istorio txiki bat kontatzen du. Bada gizon bat serioa, guztiz zentzuduna, baina horrek estalian gorderik badu fantasia puntu bat, koloredun kanikak, horiek gizonaren haurtzaroa sinbolizatzen dute, eta sakeletik ihes egiten dutenean fantasiak irabazi duela adieraziko luke idazleak.

Gizon bat zen  
Biziki gizon serioa...  
    eta handik  
    handik beretik  
eskapatu jauzika  
ongi altxatuak zauzkan  
Kristal koloxinezko kanika polliten guziak... (AA, 71)

Haurtzaroari buruzko zikloa hasten du poema honen bidez Aurelia Arkotxak. Lo kanta batek eta ama-semearen arteko elkarriketak ematen diote jarraipena. Haur irudimenari buruzko poemak dira “Haurrak egin du borobil haundi bat” poema (honela deituko dugu, ez baikara gai originalean datorren zeinu japoniarra kopianatzeko) eta “Itsaskiak II”. Zinu japoniarren irakurketa “Mu” da, “Mu” ezereza da, baina era berean dena, beraz Mikel Lasak esango lukeen moduan, “dana eta nada” da eraberan. Zeinua sortzeko aspaldiko kaligrafia zaharrean borobil bat jartzen zen eta azpian marra bat: Itsasoa eta gainean eguzkia? Haikuzaleak bagara, bai. Baina horrez gainera, ezerrezaren edertasuna, ezerezen zerbaita, ez hutsa, ezereza, bete dezakeguna. Liburuan zinu japoniera modernoaren kaligrafian ematen da eta ez *Maiatz* aldizkarian (19. zb. ) agertu zen bezala, hizki latinoz.

Beste alde batetik, “Itsaki II” poema Wim Wenders-en filma batean oinarriturik dago: “Desiraren hegalek” filmean, haurtzaroko gaia erabiltzen baita bertan. Haurtzaroa konbentzionaltasunaren aurkakotzat jotzen da bertan.

Haurrak mundu berriak sortzen ditu, poetak bezala, eta gogora dezagun poemategitik kanpo dagoen datu txikia: poemategia “Enekorri” (semeari) eskainita dago.

Testu guztiok itxaropena dakarte:

Ganbara batean ilargi ixila  
biluztasuna pindarrez zizeltzen  
Oihal zimurtuetan amets bila  
argizagia dabila kurritzen... (AA, 67)

Ametsen bila abiatu da sujetu poetikoa, maitasunaren hegaloihan, haurra-  
ren irudimenean. Bada posible beste mundu bat.

Baina esan ahala damutu da poeta, eta bat-batean jartzen dio ozpin puntua  
hain iritzi pollitari:

Haurrak haur direlarik. Desiraren hegaletan.

*Haur direno...*

Poemategiko azken poema, “Lau gatuak” poetikaren laburpen bat da.  
Espazio jakina: Venezia, esperientzia berezia: lau katu bata bestearen atzean.  
Sugerentzia puntu bat, deserrotzea, irudia kontestutik ateratzea eta poema  
sortzea: ikuskizunak eta sugerentziak agintzen dute, anekdota, poema sortu  
zuen irudia estalian geratzen da.

Goizeko zortzirak

ez dakit xuxen nun

Behar bada hemen

Ez dakit xuxen gaur.. (AA, 81)

Egunerokotasunak duen xarma, egunerokotasunak duen denbora espe-  
rientzia sakona da poemak azpimarratzen duena. Unearen magia.

Guzti honek berriro eramaten gaitu testuaren ikuspegi osoa hartzera. Orain  
garbiago geratzen da testuak duen garapena. “Saturnaro” giza krudelkeriaren  
dardara da, ankerkeriaren itzala, apokalipsiaren oihartzuna. “Circunam-  
bulatio” laberintoaren irudia, galdutako haurtzaroaren seinalea. “Ibisaren  
urratsa” xamurtasunaren erreinua: artea, maitalea, haurra. Ezezkotasunetik  
bizikortasunera egindako bidaia? Beharbada. Baina liburuan zehar heriotza  
zein bizi-zentzuari buruz jarririko galderek irtenbide ezagunegia izan dute.  
Beste hainbat euskal poetei gertatzen zaien moduan, Aurelia Arkotxaren tes-  
tuetan munduaren desorekaren aurrean jartzen den soluziobidea barnerantza  
begiratzea da, maitasuna, eta gizakiaren afektoaren babesa.

Beste hausnarketaren bat eskaini genezake estiloari buruz. Aurelia  
Arkotxaren liburuak aurrera egiten du testuetan jarri diren estilo zertzeladei  
esker. Ikusi dugu *Maiatz* aldizkariko lerro zuzenak zahar kutsua ereintzen  
duela. Natura, eta poesia nazionalista indartzen direla, lexikoaren berezitasu-  
netik aparte, idaztankera erromantikoa maite da gehienetan. Nik uste, lerro  
nagusi honetatik banatzen direnak dira garrantzitsuenak.

Aurelia Arkotxak ere bilatu du bere bidea. Idaztankera sinbolista eremu-  
koa da “Atari Ahantziak” liburuan eskaintzen dena:

Olerki izugarriak, eta beti ere horrelako hizkera xume eta bakun adiera-  
ziak... iparraldeko tradizioz ederretenetik kemenez eta bakantasan adieraz-  
korrez betea.

deitzen du idaztankera hau Eguzkitzak.

Sinbolismoaren agerbideak erraz antzematen dira liburuan eta hiru dira nagusiak: exotismoaren joera, kolorearen erabilera eta sinbolo ezkutuen agerbidea.

Exotismoa testuan agerturiko animalia eta geografian nabaritzen da lehenik:

Zihoazen hedoiak  
flamenko arrosak  
pelikano argiak  
ibis sakratuak. (AA, 55)

Haurrak dio horrela paperretik hegaldak daitekeela eta joan menturaz Pekinera edo Borneora... Groenlandeko himantolofa, bi mila metro behe-tietako osinetan soilik aurki daitezkeen zintzaur-handiak. (AA, 77)

Kolorea eta artea nonahi aurkitzen da. Urdinak, bluak, zentzu sinboliko handia hartzen du testuan, itsaso mugagabearen sinbolo den aldetik. Zerbait baiezkor aipatu behar duenean kolore giltza urdina da.

Bainan zurekin bluiak kuadrotik ihes egin nahi zuen, mugak puskatu.  
Haur sortu berri sartu nintzan zure itsasoan. (AA, 27)

Bestela, “Kolorezko sinfonia” Eguzkitzak deitzen duen moduan sortzen da sentzazio eta sentipenen bila:

*Ima, Mertxe, Asun, Ana ...* Hain nituen nik maite, uda laranjak, uda horailak, uda sienak... Herriberako uda sepiak. (AA, 47)

Hizkera sinbolikoa nonahi aurki dezakegu liburuan. Atariak badira sinboloak, eta lan honen lerroetan saiatu gara liburuan ziren beste guztiak aztertzen.

Estilizazio poetikoa da hizkera honen ezaugarriarik nabarmenena. Idazleak hiru-lau zertzelada txiki ematen ditu eta deskripzioek ez dute zehaztasun handirik ematen. Lerroak, eta ez azalpenak, agintzen du pintura honetan. Estetizismoaren bidea aukeratu du idaztankeran Aurelia Arkotxak. Kulturzaletasunak alde garrantzitsua betetzen du poetika honetan. Aipamen estilizatu anitz egin dizkie idazleak maite pintoreei. Aipamen huts giroa sortzeko. Aurrerago aipatu ditugu beste adibide batzuk ildo kulturaletik doazenak.

Agian, poesia honen alderik garbiena hitz laxo poetikoaren erabilera da. Ez dakit zuzen nabilen, baina niri Ives Bonnefoy dakarkit gogora.

Ives Bonnefoy irakurtzen ari naizela, elurraren gaia aurkitzen dut, Arko-txarenean agertzen den bezala. Eta lotuago dena, hona hemen Bonnefoy-ren bertso batean hiri mirengarrien asmatzaileen aipamena:

Pas de nom, pas de sens. O mes amis,  
Alberti, Brunelleschi, San Gallo,  
Palladio.

Eta nola ez ekarri gogora beste bertso hura?

Kandinsky Giotto Klein Fra Angelico... (AA, 65)

Puntu honetan Espainian esperientzia poesia deitu izan den mogimenduari hurbiltzen zaio. Ez hitz laua erabiltzen duelako, kontaketa erako poesia egiten duelako baizik.

Pixka bat gorago, exotismoaz hitz egin dugu, baina poetaren bizitzara eginiko hurbilketan, eguneroko hizkuntzak eta bizibide arruntaren isladak agertzen ditu liburuak. *Mass mediaren* agerpena baten baino gehiagotan azaltzen da eta hemen bi baino ez nituzke aipatu nahi. Bata diska eta musika mundutik hartua:

Tracy Chapmanen mintzoa  
abenduko goizargian... (AA, 66)

Zinema mundukoa, bestea.

Orhoitzen Win Wendersen filma hartaz?... Desiraren  
hegalak Berlingo paretaren gainetik... (AA, 76)

Bizitzara makurturiko poesia baten zantzuak, zalantzarik gabe.

## **Bibliografia**

- ARKOTXA, A. (1993): *Atari ahantziak*. Pamiela. Iruña.
- ARAMENDI, M. (1988): "A. Arkotxa". *Argia*. 1.195. 1988-IV-24.
- ASURMENDI. (1994): "Atari ahantziak nonnahi agertzen dira bizitzan". *Zabalik*. 1994-IX-28.
- BORDA, J. (1994): "Carpaccio Iruñean". *Argia*. 1.473. 1994-3-6. 54.
- CHEVALIER GHEEBRANT. (1982): *Dictionnaire des symboles*. Laffont. Paris.
- EGUZKITZA, A. (1994): "Aurelia Arkotxaren atari ahantziak". *Maiatz*. 23. 35.
- ETXEZAHARRETA, L. (1993): "Poesia atari ahantzien atzetik". *Egunkaria*. 1993-XII-7. XI.
- ITURBIDE, A. (1995): "Bluitasuna". *Egunkaria*. 1995-V-21.
- JUARISTI, F. (1994): "Urdina". *Egan*. 1. 258-9.
- JUARISTI, F. (1994): "Urdinarekiko lilura". *Zabalik*. 1994-III-12.
- PEILLEN, T.: "Malenkonia", *Maiatz*, 4.

## HENRIETTE AIRE

### EGIAREN POESIA AUTOBIOGRAFIKOA

1989. urtean Henriette Airek *Egiaren egarriz* argitaratu du Maiatzeko Uhargin sortan. Poema liburua, tamaina ttikikoa, 21 poemaz osatua.

Aireren poemagintzak aitorten kutsua du, eta inoiz barne arrenkuraren askatasun nahiez idatzita dago, askotan beste anbiziorik gabe.

1991. urtean Pablo Sastrek sinaturiko elkarrizketa batean, Airek bere helburuen apaltasuna aitortu zuen. Ez du poetikarik, ez du askorik irakurri. Afizioz idazten duenaren tankeran ari da. Entzun dezagun bere hitza:

Ni ez nintzen idazle sentitzen, eta ez “emakume idazle” sentitzen ere.

Poesia? Ez da poesia, nik ez dut lantzen, gogoetak heldu diren bezala idazten ditut. Ez dut teknikarik, ez dakit ezer.

Ez dut irakurri nik inoiz, orain gutxi arte sekula.

Makulurik gabe poesiaren uretan sartzen dena, ez da, esku hutsik sartu: eredu jakin baten errepikatzaile bihurtzen da, horren gogorik ez badu ere. Eta horrela gertatu da poesia honetan, norberaren barne mundua azaltzen dela uste izan arren, poemetara igarotzen dena gizarte eta literatura konbentzioa besterik ez da. Eredu zaharren errepikazioa bihurtu da *Egiaren egarriz* poema liburua. Izenbururtik bertatik nabaritu zaio erromantizismoa poetika honi. Ironiaren eta mesfidantzaren garaietan egiaren alde agertzen da Aire, barne gogo bati erantzuna emateko.

Bere apaltasunean garbi du zer nahi duen egin:

Barnean ditudan gauza horiek nahiago dut idatzi. (Sastre, 1991, 46)

Baieztapen horrek bere poesia sentimendu-poesia arloan jartzen du, barne zirarraren adierazpen eremuan. Harrigarriak badira Airek egiten dituen adierazpenak, harrigarriagoa esaldi horren ondoren elkarrizketan idatzita datorrena:

Barnean ditudan gauza horiek nahiago dut idatzi -hori zergatik den analizatu behar dut.

Zuzena balitz bezala eman den poesia da, eta “analizatu” gabea. Ez da bat-batekoa, baizik injenuoa. Ez da zuzena eta surrealismoa batzen duena, eredu barneratuak kanporatzen dituena baizik.

1990. urtean Mallorcan antolaturiko Galeuzcan Airek hitzaldi txiki bat eman zuen. Bertan, talde bitan banatzen zituen Iparraldeko idazleak:

Egungo idazleak bi sailetan bana daitezke, molde tradizionalakoak eta molde berrietakoak, azken hauek beren lehen urratsak, “tradizioa” deitzen ahal dugun eremu hortan finkatu dituztelarik guziz gehienek. (Aire, 1991, 25)

Tradizio honetan kokatu du bere burua Airek, eta ez badu deskribatu edo argitu, garbi da zein den tradizio hori, erromantizismoaren bideetatik etorritako sormen moldeak: haren gaiekin eta teknikekin.

Jarraitzen ari garen elkarrizketan Airek biografia penatu baten aztarnak eman ditu. Hezkuntza integrista eta mingarri baten aurkako lehen zantzuak, ezkontza zorigaitzokoa, aitarekin (Fernando Aire, “Xalbador”, handiarekin) izandako hika-mikak, emakume banandu baten eguneroko bizitza arrenkura, gogobete ez duen lan baten asperra...

Baina egoera biografiko honek guztiak sor lezakeen zorigaitza ez da poesian agertu, poesia izan arren barne gogoaren tentsio askatasunaren iturri. Badago kutsu biografikorik, nola ez, liburu honetan. Bizi garratzak irtenbide bi ditu, guztiz inozoak. Agian ez da horrela Aireren bizitzan, baina poemek irtenbide bi eskaintzen dituzte: edo, munduak honela egin nau, dionarena, edo zoriongabea amets liluragarrietan galtzen duenarena. Irtenbide ximpleak eta mitologia erromantiko batek sortuak; heroi tragikoarena eta ametsezko munduko kontsolamendua.

Inork baino gogorrago agertu du bere burua Airek, bere poesia epaitzerakoan. Eta poetika baten falta agertu badu ere, ez du falta sentiberatasunik.

Bere barne mundua adieraztea jarri du helburutzat. Zer da, bada, barne mundu hori? Gai gune biren artean kokatuko genuke Henriette Aireren pentsakizun gogoak. Alde batetik, herriaren askatasun nahia agertzen da, bestetik maitasun sentipena.

Herriaren askatasun nahian molde bi nabari ditzakegu. Herriaren askatasun zehazgabea adierazi duena:

Herria herri maitea  
Nahi zintuzket askatu  
Haizeak oihua darama  
Behar zaitut askatu... (EE, 43)

Aipuan agertu ditu Airek poesiaren ezaugarriak garbienak: espresio zuzena, erritmoarekin arazoak, izadiaren aipamena. Eta, nahi bada, pentsakizunaren lotura falta, zeren poema horrela hasi badu ere, bere izenburuak, “Itoa



gizartean”, agindu duenez, nitasunean bukatu du poema, gai batetik bestera haizeak eramana bezala doalarik:

Itxuraz aberats diren  
Atsegin arin batzuek  
Alaitzen naute  
Axalean  
Bainan nere gorputza  
Bere sakontasunean  
Korropilaturik dago  
Itoa gizartean... (EE, 43)

“Gogoan zaitugu” deituriko poeman, ordea, bestelakoa da konpromezua. Herriarengatik bizitza eman duenaren glorifikazioa egin du hor, jazarpenaren goraipamena eginez, kristautasunaren aszesiak agindu duenez:

Eta eskain  
Zure gorputz hila  
Orduan  
Ohartuko dira  
Bizi zinela... (EE, 13)

Slogana poesia bihurtzeko ahaleginean nabari zaio arriskua idazleari. Topikoa aukeratuz, topikoetan jausteko modua baino ez dago.

Maitasun poemetan ere alde bi ikus ditzakegu. Heziketa tradizionala hartu duenaren maitasunaren idealizazioa dago hegal batean. Maitasun erromantikoetan gertatu ohi bezala, maitalea guztia da maitearentzat:

Olerki hauk zuri esker  
Ezpain hegira zaizkit etorri  
Zuk erain haziak baitu  
Ni baitan fruitu ekarri  
Zuretzat dutan maitasuna  
Neretzat da biziaren iturri... (EE, 31)

Xamurtasunez begira dezakegu olerki hau, baina entzuna dugula ezin izango dugu burutik kendu, milaka poesia adoleszente egin dira horienlakoak.

Biografiara itzuli beharrean gaude: “Senarrarengandik banandu eta [Euskal Herrira] etorri nintzen” (Sastre, 1991, 44). Maitasunak, beraz, ez du bizitza konpontzen. Eta banaketaz emakume batek duen ikuspegia eskaintzen du Airek, eta ikuspegia berria liteke, euskal poesia munduan behintzat.

“Uste zenuen” deituriko poema, poemategiko azkena eta luzeena, semearen aurrean egiten den aitortzea da, barne hustuketa. Eta, era berean, bizitza baten zoriongabearen adierazpena, maitasunari buruzko hausnarketa:

Badakit badakizula  
Mundu hontan ez dela,  
Maitasunik,  
Amentsetan baizik  
Edo maitasun itxuraz  
Baliatu behar dela... (EE, 69)

Barne gatazka hori, hala ere, ez da barne-sentipen bihurtzen. Adierazpen modua ideologizatu egiten du Airek:

Gizartearen morroi,  
Gizartearen menenko,  
Lanari emanez  
Beren indarra,  
Kanoieri emanez  
Beren haragia... (EE, 69)

Henriette Aireren idazkera erromantikoa da. Enuntziatzio mailan geratzen dena, deskriptiboa, esana irudimen bihurtzen ez duena. Iruditeria izaditik hartzen du, iruditeri tradizionalaren bilakaera agertzen duelarik, noiz edo noiz.

Banintu bi hegal  
Joan nindaike berehala  
Zure lehio hegira  
Kantuz agurtzera... (EE, 27)

Aho poetika tradizionalera hurbiltzen denean lortzen du bere adierazbiderik xumeena. Poetika honen espresabideen artean, joskeraren erabilera aparta azpimarra dezakegu. Bat-batekotasunera hurbiltzen den poetikan, deigarriak dira paralelismo pilaketak. Eta poema askotan erabiltzen den ia errekurtsio bakartzat jo dezakegu. Ohar dezagun hurrengo aipamenean nola eratzen duen paralelotasunak diskurtso semantikoa:

Edo zure ondoan  
Dabiltzanek  
Ez badu entzuten  
Zure abotsa  
Zure begietako argia  
Ikusten  
Zure bihotzeko taupadak  
Senditzen  
Zure larru leguna  
Ferekatzen... (EE, 11)

Joera erromantikoan eta ondorengo poetiketan oso arrunta da kontrajarpena poemen egituratzeko; espresamolde honek, gainera, pentsakizunaren

manikeismoaren alde egiten du. Airek inoiz erabiltzen du “baina” juntagailua, banaketa argi uzteko:

Hedoi beltz batek  
Gorde daut iguzkia  
Gerotzik hemen nabil  
Ilunoean ta hoztia  
Bainan ez dut ahantziko  
Sekula zure aurpegia... (EE, 29)

Airek duen hizkeraren erabilpen naturalak, baina, sortzen du, kasu batzuetan, hitz joko ederrak. Bi aipatu nahi nituzke. Batek liburua zabaltzen du:

Jainkorik baldin bada  
Zu jainko puxka bat zitzaizke  
Jainkorik ez balitz ere  
Zu jainko puxka bat zintuzkegu  
Jainko gai... (EE, 5)

Aditzen jokia ez da balio gutxiagokoa beste pasarte honetan:

Nahi duena ezin ukana duenak,  
Eta ukan dezakena ez nahi,  
Daukana ezin dezake maita... (EE, 23)

Mallorcan emandako hitzaldia hitz hauekin bukatzen zuen Henriette Airek:

Ororen buru, idazlea, kreaizaile bat da, bakartasunean, eta kanpotik baldin badatuz indar homogeneizazioak, bere barnetik badituela beste indar batzuek, bere izaitearen eta oroimenaren zolatik indar berezizkoak ematen dizkionak, kreaizailea azken finean izaite bakarti uzten dutenak, edozein denbora eta kulturaren gainetik. (1991, 27)

Ohar txiki honek ongi adierazten du Airek kreaizoiari buruz duen iritzi mitifikatu, idealizatu eta ahistorikoa. Praktikak, ordea, ongi erakusten du bakartasunean bizi den kreaizaileak, lehenagotik hedaturiko formak errepikatu besterik ez dituela egiten.

## **Bibliografia**


AIRE, H. (1989): *Egiaren Egarriz*. Maiatz. Baiona.

AIRE, H. (1991): “Kultur homogeneizazioaren aurrean Euskal herri Iparraldeko literatur kreaizoa”. *Galeuzca*. 1. 25-7.

SASTRE, P. (1991): “Henriette Aire. Hemen ontsa naiz, bakartasunean”. *Argia*. 1.341. 43-47.



LAUGARREN ATALA



SUSA TALDEA



## USTELA SAILA

1977. urtean eta Koldo Izagirrearen gidaritzapean Ustela Saila deituriko liburu sortari eman zitzaion hasiera.

Sailak, oker ez banago, 1981. urteraino iraun zuen, tartean 19 liburu argitaratu zuelarik. Idazleen zerrendari begirada emanez gero, bat-batean ikusiko dugu batera argitaratzen dela prosa eta poesia, bat-batean nabarituko, lehen aroan idazle ezagunak, Lurretik zein Kriseilutik etorritakoak agertzen direla, eta bigarren une batean idazle gazteei ematen zaiela sarrera. Hasiera batean, Koldo Izagirrearen testuak agertzen dira, bera baita, saileko “alma pater” nagusia. Sailean agertzen dira horrela: *Oinaze zaharrera* eta *Guardasola ahantzia*. Sailean argitaratzen dira Ibon Sarasola eta Ramon Saizarbitoriaren lanak, honen kasuan berrargitaraketak. Joxe Austin Arrietaren lehen ipuinak ere hor agertu zituzten. Baina *senioren* argitaraketarekin batera idazle gazteen izenak ere usu agertzen dira: Jon Casenave, Pello Lizarralde, Maripi Solbes, Gabriel Korta, Daniel Garbizu, Rafael Egiguren, Alex Azkue eta Jose Luis Otamendi.

Ustela Sailako liburuek *plaqueetteen* antza hartzen dute. Tamaina ttikikoak dira (Saizarbitoriaren lana salbu) baina oso zainduak, tipografia zein marrazki aldetik. Bestalde, ezin da Ustela Saila liburu atal hau beste asmo nagusiago batetik banandu. *Ustela* aldizkariaren jarraipen dira izan. Baina estetika paratestual eta artistiko beraren jarraipen izaki, garbiak dira proiektu biren arteko loturak.

Gerora, asmoa *Zeruko Argiako* “Oh Euzkadi” sailean osatu zen irmoki, eta, beranduago, *Oh Euzkadi* aldizkarian. Proiektuaren aldaketak azken mugimendua osatu zuen *Oh Euzkadikoe*k eta *Susakoe*k bat egin zutenean, Susa argitaletxea sortuz. Bidenabar, oraintsu bigarren Susa (ala Susa Berri?) sortu da. Hogei urteko proiektu eta ahalegina nabaritu da ibilbide zabal honetan, bere aldaketekin proiektuak aurrera jarrai dezan.

Ez dakit aipa dezakegun orain esaldi maltzur hura: dena aldatu dugu, ezer alda ez dadin. Ziur ezetz. Literatur proiektu honek aldaketa handiak izan ditu

norabidean, eta badirudi lanek ondo marrazten dutela talde-irudi garbia testuetan zehar.

Gure lana, ohi dugunez, poesia alorrera mugatuko da, eta poema liburuak aztertuko ditugu, batez ere.

Ba al dago esaterik testuotan hiru-lau marra nagusi direnik talde joera agertzen dutenak?

Baiezkoan nengoke. Batzuk sozioliterarioak dira. Francoren heriotza ez da urrunean gertatu. Askatasunaren giroan bizi dela uste du gizarteak eta nonahi agertzen da sentimenduen borror irekia. Baiezkoartasunaren garaia? Agian. Beti ere transizio garaiko une larri eta eztabaidagarriekin batera. Manifestazio eta protesta garaiak dira, eta era berean hildakoenak. Bizitzeko giro batek bultzatzen du gizartea, eta irudimenaren mundua bizirik da. Inmediatoaren garaia da.

Ustela sailak gogo autonomia bilatzen du, irakurlearen bila abiatzen da liburudendetan. Orduko zabalkunderik arruntena, harpidetza, mantentzen badu ere. Herrikoia izan nahi du, liburuaren alde komertzial eta ekonomikoetik ihes egin nahi du, prezio ahalik eta merkeenetan saldu, jende askorengana hel daitezen liburuak. Argitalpena zuri eta beltzez egiten da, arrazoi ekonomikoengatik, uste dut, eta hala ere txukunak dira. Marrakiz beteak, paperaren kalitatea zaindua da.

Baina proiektuaren ahuleziak (muga ekonomikoek jarria alegia) detaile txiki bitan agertzen dira: marrazkien urriketan, eta zabalkundea Hordago argitaletxearen eskuetan uzten den neurrian. Koldo Izagirrek berak ere kontatu du ez zirela egile eskubideak ordaintzen, eta egile bik, poetak gainera (izenak eman gabe utzi baditu ere), eskubide horiek eskatu zituztenean kilinkan jarri zela argitaletxea, hersteke zorian geratu zelarik.

Joera paratestualek pistak ematen badizkigute ere, garbi dago ez dela hor nabaritzen eskolak izan lezakeen irudiaren marka nagusia.

Barne ezaugarri sendoak ditu mugimendu honek, nahiz eta eskola denik ezin baietsi, oso desberdinak baitira sail honetan parte hartzen dutenak, desberdinak diren bezala genero aukeraketan.

Gure aipamentxo honetan ez ditugu sakon aztertuko beranduago lan poetiko gailurra eskaini dutenak: Koldo Izagirre, edo Jon Casenave. Hauen artean kokatzen da Jose Luis Otamendi. Baina Ustela Sailak osatu du gure olerriaren historian berebiziko tokia. Eta hiru-lau ezaugarri aipa ditzakegu bere joeran:

1. Autonomia nahia. Ekonomia aldetik joera autonomia nagusitu bazen ere, estetika aldean hartzen du hitz honek bere zentzu osoa. Koldo Izagirreren *Oinaze zaharrera* liburua salbu, beste guztiek literaturaren autonomia bilatzen dute, nitasunaren gunean kokaturik daude.

Daniel Garbizuk esaten duenez “irudimenaren kriseiluan” erretzen da poe-



ton espresamoldea. Irudimena nagusi da sailean, desberdina, oso desberdina izan arren poeta bakoitzaren ahotsa.

Irudimenaren espresamoldea irudiaren agerpenean agertuko litzateke. Poeta bakoitzak bere mundu propioa du adierazteko, eta bere sinbologia paperean jartzen du irudian oinarrituriko espresamoldearen bidez.

Daniel Garbizuren *Espaloietako ginolak* erakusten du horretan bere joerarik argiena:

Bi kandela beltz gorde zenituen  
mingostasunaren loturen artean  
zerebro bat ipintzekotan egon zinen  
musikaren ezpainen artean... (*Espaloietako Ginola*)

Elementu oso desberdin, oso urrunduak bilduz, surrealismoak nahi zuen moduan, sortzen da poesia honen bihotza. Inarrosi egiten du irudi poetikoak irakurlearen irudimena.

Testu asko irakurriz, baina, probokatzeko joera horrek nekatu egin deza-keela aitortu beharko genuke. Nitasunean, zenbaitetan ironiaz, besteetan maitasunean, oinarritzen dira idazleak. Egia da inguruak hitz egiten duela, eta ez goxo, baina beti inguruak gizakiarengan duen eraginak agintzen duela tes-tuan. Aberriak edo gizarte klaseak bigarren maila batean geratzen dira, trage-dia pertsonalaren giro, edo dekoratua baino ez da. *Oinaze zaharrera* alde batera uzten badugu, liburuaren izenburuak irakurtzea besterik ez dugu intimis-moa (*Zutaz amoroski*) edo izadiarekiko lotura (*Hilargiaren hotzikarak*) agertzen direla konturatzeko.

2. *Plaque* hauen joera minimalista da: bertso gutxiko poema gutxiren bilduma da sailak eskaintzen duena. Hoge, eta hoge eta hamar poemen arteko bildumak. Tamaina txikia, agian, garaiaren agerbide baino ez da, eta argi-talpenak Lur etxearen marka erabiltzen du liburuak argitaratzeko.

Askotan bertso bakarra berba soil bat da, edo hitz biz osatzen dira ber-tsoak:

Bihotz txikitik  
erori  
zaizkit  
hamar bat  
izen  
eta  
bueltan  
beste hamar  
erantsi zaizkit... (*Isiletik*, 17)

Honetan, Gabriel Korta da aipagarriena, aurrerago ikusiko dugunez *Isiletik* bere lanak baduelako zerikusirik isiltasunera abiatzen den poesiare-

kin. Zalantzarik ez, Daniel Garbizuk hitz jarioa maite du; eta Koldo Izagirrearen egunerokotasuren kantu epiko hori, *Guardasol ahantzia* urritasun eta hitz jarioaren artean kokatu beharko genuke.

3. Irudimen eta urritasunarekin batera, testuok badute ezaugarri nagusi bat testurik testu behin eta berriro errepikatzen dena: inpresioaren nagusitasuna. Joera bateko edo besteko izan, poeta guztiek inpresio poesia egiten dute.

Inpresio hitzaren azpian fenomeno desberdinak agertzen dira. Lehen-lehenik hitzak adierazten duena poesia sortzeko indarraren joera da. Inpresio batek, begi kolpe batek, ingenio jokoak, hitzen arteko kontraesanak sortzen du poeta. Ikusten denez, motibazio desberdinek sortzen dute poesiaren abiapuntua.

Sentsazio batek ematen du hasiera:

Zu zara  
Euriko gau-hegaztina.  
Zutarik buztitu nahian nago;  
Arraparia!"  
Amoroski  
Idortuko zaitut... (*Zutaz amoroski*)

Edo hitz jokoak:

ZORI-ONA  
ZORI-TXARRA  
  
ZORO-ONA  
ZORO-TXARRA  
  
ZORIONEZ  
ZORITXARREZ  
ZOROA  
ZARA... (*Hilargiaren hotzikarak*)

Edo irudien arteko elkarkidetzaz zorionsuak:

...inoiz  
mahain gain bat  
ispilu balitz,  
eta gau ilun hau  
jautsiko... (*Txipiroiren bat edo beste*)

Edo egoeraren kontrajarren xumeak:

...eta zure espainetako bidezur gozoetatik gora ur freskoaren usainaren atzetik, elurte zurienean zure oinhatz beltzak, eder (*Hilargiaren hotzikarak*)

Baina kontua ez da zein den poemaren idazkera pizten duen tximista puntua, azken batean, ugaria izan ez ezik, definigaitza ere badelako. Baina, horrez

gainera ondorio bereziak dakartza joera horrek. Poema piztuak dira eta pizten diren moduan itzali egiten direnak. Poema bildumak dira, hasteko, joera osaturik ez dutenak. Liburuek ere poema bilduma antza dute, eraketatik urruntzen direnak.

Baina, agian, poemaren eraketan nabari da gehien poesiaren joera impresionista hori. Teknikoki ximpleak dira, gehienak behintzat, pinturatik baino marratik hurbilago. Landu gabeak? Ez horrenbeste, beharbada, baina hari bakar baten inguruan sortuak, eta irakurtzerakoan, unearen sentipena uzten dute poemok. Beharbada, mundu pertsonalak dira nagusi, eta hizkera kriptomak erabiltzen da usu, eta, agian, tximista eta unearen inguruan sorturiko poemak izaki, ez dute osotasun nahirik.

Apostu zehatza jartzen dute paperaren gainean, eta irakurleari hartu edo utzi geratzen zaio soilik.

Poesia honen ezaugarriak behinena da bere joera hori: bat-batekotasunaren mugan izatearena, tximista batez, hasperen batez irakurtzeko testuak izaki; hala ere, alde batera geratuko dira arnas handiko testuak. Baina guztiguztietan nabaritzen da nolabaiteko azelerazio puntu bat.

Hizkera poetikoaren hausnarketa nagusia Gabriel Kortak egiten du bere *Isiletik* lanean. Bertan aipu hau aurkitzen dugu, eta esanguratsua delakoan nago:

Bertsolaria ez izanik  
hitza elurturik  
eskaintzen dizuet... (*Isiletik*, 18)

Aipua garrantzitsua da poetaren hausnarketaren jarraipena jartzen duelako lehen mailan, eta, dirudienez, bat-batekotasunetik at aurkitzen den elurraz hitz egiten duelako, poesia zerbait hotza, egina, sendoa balitz bezala. Baina hori bada ere bere mezu nagusia, elurraren metaforak oso ondo adierazten du testuaren funtsa. Elurra poesia honen metafora da, desegiten den dirdaiarena.

Ingenuitatearen jantziz eginak daude testu hauetako asko. Ingenuitatea hitzak zentzu bikoitza luke, izaki eta historiaren arteko loturari adituz gero, edo poesiaren teknikari begiratuz gero.

Izaki hauek, poeten nitasunak pixka bat galduak bezala agertzen dira. Daniel Garbizuren ginolak ongi adierazten du izakion galera ongi ulertzen ez duten mundu baten aurrean.

Bakarrik gelditu gara  
dena ari da hiltzen  
lurraren atsedendian  
banoa  
atsedendian  
urrun urrun... (*Espaloietako ginola*)

idatziko du, nekadura kosmiko batek harrapatuko balu bezala. Errebeldia puntua agertzen badute ere (batez ere Izagirrek eta Garbizuk), nitasunaren indarrak mugatuak agertzen dira izadiaren indarren aurrean, historiaren moi-laren aurrean. Kondairaren zorabioak hartzen ditu poetak.

Babesa, agian, maitasunean aurkituko luke bere burua galduta duen izaki honek. Baina, maitasunak ere ez du luzaroko estalperik eskaintzen:

Zure eskasak  
Ene kontzientziaren eremua betetzen du.  
Halere, hutsa nire eskuen lasterra! (*Zutaz amoroski*)

...hementxe natorkizu eskuak zabal, ia ia garden ... har ezazu neure gor-putzeko zaparrada (*Hilargiaren otzikarak*).

Ez luke merezi bide horretatik jarraitzeak, maitasunak aurpegi biak baititu unero-unero.

Teknika arloa gorago ere aipatu dugu. Orain testu hauetan agertzen diren beste espresabide batzuk aipatu nahi nituzke. Ingenuitate teknikoa paralelismoaren aldetik ikusiko genuke. Irakur dezagun Egigurenen poema honen egi-tura:

Hor zaude  
nola nahi.  
Mihin puntuan mutu  
alferrikako ahaleginetan. (*Txipiroiren bat edo beste*, 27)

“Hor zaude” horrek ematen die hasiera poemako ahapaldi guztiei. Errepikapena, beraz, egituraren ardatz nagusi litzateke. Honelako joera tekni-ka ximpleek osatzen dituzte hainbat poema liburuz liburu. Egia da ez dela ingenuitatearen ondoan ingeniorik falta, eta bere laburtasunean, hainbat poema kontraste bortitz batean osatzen dira. Begira adibidez, Garbizuren poema honetan nola kontrajartzen diren giro surrealista eta giro errealista, sugestio mundua eta egunerokotasunekoak:

Haragirik gabeko gure zangoak  
espaloietako ginola  
ren pertsonaiak dira  
munduko metxeroek  
gure esku artean uzten dituzte korritzen garrak ur zoroak badoaz,  
azken zubiak batzera  
kamareroak  
kafea hozten ari zaizula  
gogoratzen dizun bitartean. (*Espaloietako Ginola*)

Poemaren bukaeran ezustekoren bat jartzeko tendentzia nabaria da testue-tan, ironiak zein ingenioak ixten baititu testuak:

...zure begietan pausatu  
ta pasatzen utzi nauzu  
  
errekonozimendu lasai bat  
harrapatu dizut  
zure begien atzetik  
  
ea zortea duzun  
eta nitaz  
enamoratzen zaren. (*Txipiroiren bat edo beste*)

4. Poesia honek sentsibilitate samurra erakusten du, sentimenduen agerpena hizkera askatu baten bidez. Izaki babesgabea ikusi dugu poemotan nagusitzen. Baina izaki bakarti eta etsipendu horrek hitzarekin jolasten du mezu ezkutuen bila. *Oinaze zaharrera* izenburuaren pean “Oinaze sarrera” esanahia ere ezkututzen da. Sentsibilitate xumea lantzen dute Pello Lizarraldek, eta Jon Casenavek. Parodia eta ironia Izagirrek eta Egigurenek.

Baina denengan agertzen da irudia lantzeko gogoia, irudimenaren kriseilu surrealistik argi egiten du orrialdeotan.

Egia da, bestalde, hiri hizkera berezi batek laguntzen diela egileei bere lanaren bidaian. Jon Casenave salbu, poetika klasikoago baten egile baita hau, beste guztiak ingurutik hasten dira idazten, nahiz eta gehienetan ingurua zehazgabea izan:

Kalean utzi ditut  
poemarik mingarrienak... (*Isiletik*, 28)

idatziko digu Gabriel Kortak. Egigurenek, ordea, Gipuzkoa eta Donostia parodiatuak jartzen dizkigu begi aurrean:

Donostia izeneko  
zerrepelkeria txurian... (*Txipiroi*, 45)

Igeldoko kartoizko gaztelua,  
Hotel Londreseko tontorrean  
ereindako tipula ortodoxoa,  
ta Kurasaaleko zubian zelatan dauden  
getari borobil prefabrikablek... (*Txipiroi*, 47)

Kaleko paisaia honetan izakiak bere errebeldia erakusten du:

...errebeldiazko sentimendu urduri batek  
enbargatzen nau... (*Txipiroi*, 25)

Izakiak tentsioz ikusten du bere burua, sentipena eta ingurua sozial edo kosmikoa direlarik kinkabide. Tentsio honen ondorioak dira mozkor, gau eta maitasunaren inguruan Lizarraldek eraikitzen duen mundua, Kortaren hitz eta isiltasunaren arteko jokoa, Garbizuren pertsonaia, ginola bihurtu den pert-

sonaia, edo desio eta lorpenaren artean kulunkatzen den Casenaveren hizkera.

Hizkera arruntak ere interes berezia sortu du idazleen artean. Agian, feismoaren kontzeptua ere erabili izan da nozbait idazkera hau izendatzeko: gutxi zaindua, erdal hitza lotsarik gabe jartzea...

Egiguren da hizkera erregistro desberdinak erabiltzeko joerarik borobilena erakusten duena.

Adibidez, hizkuntzen joko parodikoa erabiltzen du:

...ta eskumeko sorbalda gainetik  
hegasti berritsuak munduari:

este Sagrado Corazón de Jesús  
está riquísimo... (*Txipiroi*, 19).

Bestalde, surrealismoak eskatzen zuenez, hizkera arruntetik kanpo daudenengatik ardura eta zaletasuna erakusten du Egigurenek. Deigarria, eta hori baino gehiago, estonagarria gertatzen da, subnormalaren hizkera poetikoak eskaintzen dion aukera olertia sortzeko unean:

Esak nola  
zen ispiluk  
atzerriratu hauen  
argazkirik gabeko  
linbo ero hortara ...

Heure buruan  
buelbaka  
behar hukean  
tren elektrikoa  
sortze beretik  
estropeaturik zebilean... (*Txipiroi*, 13-4)

Poeta desberdinak dira eta aukera desberdinekin. Banan-banan irakurriz gero, taldeak erakusten duen aurpegiak berebiziko markak hartzen ditu.

Gabriel Kortaren lanak, *Isiletik* liburuak, alderik metapoetikoena erakusten du. Poesia bera, eta poesiaren hizkuntza hartzen ditu poemagai nagusi liburuaren hasieran:

Hizkuntza  
poesi  
egingo dugunean  
orduan  
ez gara  
ixilduko... (*Isiletik*, 10)

Berea da, hain zuzen ere, bizi poesiatik hurbilen agertzen dena. Poesia minimoa idazten du, eguneroko misterioaren aurrean gartsuki lilura adieraziz. Irudi eta kontzeptu jokoa maite du, ironia eta ingenioaren argi kliska:

Bizitza bi hitzez  
zuri beltz... (*Isiletik*, 24)

Beragan agertzen da poesiaren eta isiltasunaren arteko kinka larria, Saizarbitoriak ekarritako Beckett-en usaina agertuko balu bezala. Baina ez zaizkio arrotz poesia errebedeinkatzailearen tonuak eta bere hitz propioa bestearena nahi luke:

Ene penek  
besteak trizatzen  
ditu  
ene penak  
besteenak  
dira... (*Isiletik*, 27)

Daniel Garbizuk bere *Espaloietako Ginola* liburuan hiri giroa nagusitzen du. Bahitu du bere gogo giro horren adierazpenean. Eta bere liburuko tonua etsipenez bete da gehien agertzen zaiguna:

...ezin esana  
nabegazio karta guztiak erretzen zituena.

Irudimen surrealistearen pean Garbizuk irudi jokoa maite du, Sklovskiren aipamena garbia da bere lanean. Garbizuren poesiaren tonu gogorraren adibide garbia da tonu antikristaua duen poema honetan:

...auspez  
bataioz zigorkatua  
zuen aldareen aurrean...  
zin egiten dut  
arrazoin izanen dudala zuen aurrean protestatzeaz  
eman didazuen tratuagatik...

Irudimenaren kriseiluak argi egiten du bere poesian eta elementu urrenen bilketan, bere lanak abanguardiarren usaina hartzen du.

Pello Lizarralderen poema liburuak beste tonu joera hartzen du. Bere intimismoaren silaban zerrendatzen da. Bakarrizketa da nagusi testuan eta maitari zuzentzen zaio askotan.

Modernismoaren hizkuntzan oinarritzen bada ere, liburuan joera erromantiko baten oihartzuna ere nabari zaio. Mozkorra eta gaua, arruntasunetik at dagoen mundua adierazteko metaforak nagusi dira alde honetatik.

Haurtzarotik irtenda, idazleak bere gogo bizitzaren tentsioan ikusten du. Baina bizikera horren espresaera unezkoa da, bat-batekoa, poesia idazten duenean. Zeren testuak, sailari dagokion espermentazio gogoagatik poema eta prosa lirikoa tartekatzen ditu.

Bizitzaren tentsiotik irteteko poetaren irudimenak toki handia hartzen du:

...hautsi zure pareko ezerezean dauden hariak  
eta asma itzazu gure aurrean lau buzkar horik  
lurra jo baino lehen.

Jon Casenaveren *Zutaz amoroski* maitasun poema liburua saileko tradizio-  
nalena da akaso. “Desioa” eta “kardetasuna” zati bitan banandua, testuak  
maitasun istorioa kondatzen du.

Metaforaren lanketa da nagusia testuan. Idazleak aurrean duen “zu” horren  
definizioa bilatzen du:

Zure bularra: Bi mertxika, desioaren mailuak  
Lur konkatu honek xukatu nau batzutan  
sabela larru gozoz estalia,  
sabela zure parte ahulena, hezurrik gabe delako.

Metaforizazio prozesua argia bada ere, adierazpen esperimentazioa nagu-  
sitzen da testuan zehar. Bai kontrajarren gogorak bilatzen direlarik:

Eme / Ar  
Emazte / Gizon  
Baso / Ezpain  
Sabel / Behako ...

edo elkarrizketaren bidez bilatzen du Casenavek, garai honetan Ustela Sailan  
bai prosaz eta bai bertsoz asko argitaratu zuen idazleak, zu eta niaren arteko  
zubia:

NIK: Allo; hola maitea? Nola zire?  
ZUK: Ondo!  
NIK: Hitz egiten dautazu?  
ZUK: Benetan?  
NIK: Bai, hutsa eta betean, biak batian.

Kontrajarrenaren sintesi horretan, elkarrizketan tonu gozoan, Casenavek  
maitasunaren metafora nagusi bi eskaintzen ditu liburuaren azken helburu  
gisa; maitasuna bidaia da, eta alkimia da. Metafora biok adierazi nahian osa-  
tzen du testua.

*Txipiroiren bat edo beste* guztiz bestelakoa da. Rafael Egigurenek, gerora  
nobela ekialdezale eta intimistagoa idatzi duenak, esperimentazioa maite du.  
Hala era, saileko poema libururik gardenetarikoa idatzi du, Izagirreraren saioak  
alde batera uzten baditugu behintzat.

Rafael Egigurenek irudimena maite du, baina ez du ahaztu ironia. Eta iro-  
nia hori liburu guztian zehar nagusitzen da. Egoera intimoak eta egoera publi-  
koak, batera, agertzen dira, eta joera intimoetan olgetari agertzen bada, egoe-  
ra publikoaren aurkako joera ironikoa, parodikoa agertzen du.

Agian erlijioaren aurkako joera da nabariena:



Jainkorik balego  
infernutan behar luke...

izenburuean idatzitako poemek zuzen agertzen dute bere portaera pertsonala alde horretan. Olgetari eta irri sortaren eragile agertzen bazaigu ere, sakonean bere sinesmena agertzen du.

Izpiritu santuaren  
hegaletan jarrita  
pantera arrosa  
baletor...

ukabila lekarke  
goratik jasota... (*Txipiroiren*, 21)

Liburuxkaren izenburua azaltzen duen pasarteak agertzen du poetaren izpiritua. 68ko izpirituaren distira galdu da, baina oraindik tokia dago beltzez iluntzeko egoera ofiziala.

...klandestinitatearen  
txipiroi  
guztien  
okaso  
nostalgikoa... (*Txipiroiren*, 39)

egoera gertatzen denean, giza-sare monolitikotik ihes egiteko idazten du poesia Rafael Egigurenek.

Talde osotik zenbait idazlek jarraipena izan zuten, Otamendik jarraipen luzea egin du bai Ustela sailan, bai horren desagerpenaren ondoren. Egoera berean dago Jon Iñaki Lasa; nahiz eta honen ibilbidea laburragoa izan. Sailaren azterketarekin bukatzeko Lasaren *Alizia eta biok* (1982) eta bere sasoian oihartzun handia lortu zuen Alex Azkueren *Poemak* (1981) liburua hartuko ditut aztergai.

*Alizia eta biok* zati bitan bananduriko poemategia da: "Iganaldia" deitzen da lehen alde, eta "Alizia eta biok" bigarrena. Lehenak idazkera automatikoaren joera du:

Lehengo zatian gizarteari noski neure buruari ere, erreproztatzen diet gizartearen egoera, nola gabiltzan multzoan ... eta zatiak lotuta egongo lirajteke baina kasualki. (Etxaniz, 1983, 30)

Liburuko alde bion arteko batasun hariak finegiak dira. Agian, heriotzaren gaia da bien arteko loturarik finkoena. Baina idazleak aitortzen duenez alde biak nahiko desberdinak dira. Xabier Etxanizek ezaugarri hauek aipatu ditu lehen alde honetan:

Hasierako egoera, sentimendu eta paisai deskribapenetatik heriotzara, urkamendira pasatzen gara: sentimendu ezkor batetara ... konstante batzu

agertzen direla denbora guztian ... Nik hiru egoera nagusi aurkitzen dizkiot lehen zati honi: deskribapen fisikoa, barneko egoera, kezka, zereginik eza, izatea; besteen etorkizun beltzaren aurrean egilearen harrotasuna. (Etxaniz, 1982, 28)

Surrealismoak maite dituen obsesioen azterketa eta adierazpen gisa moldatua, testuak, hitz jokoez gain, esaldien errepikazioekin jolasten du.

Bigarren aldea, poema soltez osatua, desberdina da. Literaturako pertsonaia gai gisa harturik. Jon Iñaki Lasak heriotzaz hitz egiten badu ere:

Irrika baga  
balbearen nahian  
etor banendi  
begiratzen... (AB, 38)

Gaur heriotza  
dut helburu... (AB, 42)

Literatur erreferentziaz osaturiko aldea da. Aliziak, Aliziaren aitak, Sadek, Lauaxetak eta Gandiagak osatzen dute maitasunetik eta heriotzatik egiten den bidaia. Idazlea nahikunde eta ezintasunaren artean bizi da:

Ene asekaiztasuna nahi dut;  
bizitzarekiko dudana,  
maluraren etsai den  
ameseta... (AB, 64)

Amesetaren ibilbidean irudi surrealisten, izadiaren eta barne munduaren arteko kontrajarpenek osatzen dute liburuaren idazkera nagusia. Inoiz idazleak aitortu duenez, zentzurik ez duten hitz jokoetan (“txorradetan” bere hitza aipatzearen) bukatzeko.

Ondoren aterako duen liburuak beste bide batzuk jarraituko ditu, beti ere idazlearen literatur zaletasunak agintzen dutelarik bere ibilbidean.

Alex Azkueren *Poemak* liburuak hiru gai nagusi agertzen ditu. Poema liburuak poema txiki ironikoz hasten da. Testuok finak dira, bost-sei bertso-lerrokoak, zertzeladaz egoera bat agertzen dute eta egoera horren alde iluna; idazkerak, noizbait, herri literatura gogorarazten du, soinu jokoetan batez ere:

...“horkonpon” zioen amak;  
eta haurrak, bere hazigabeko kiken tartetik;  
“Zergatik?”  
amaren nazka masaileko zuloetan ageri,  
azeriaren maltzurkeriaz, begiak jota hari  
haurraren malkoak amaren pott usteletan igari... (P, 21)

Poemategiak “Gotzoni” eskeinitako zatiaz jarraitzen du. Gotzon Aleman

poetaren heriotzaren aurrean eginiko hausnarketak; hutsunearen aurreko dolumina, min sarkorrean sorturiko itxaropenik gabeko kantua:

Leiho horretatik joan da  
bizitza,  
joan da negua,  
joan da... gu joan gara.  
Orain behatzez apuntatzean  
leiho hori hutsa zaigu  
zu hutsa zatzaizkigu... (P, 40)

Sentsibilitate handikoa izaki poeta interesgarri deitu du Koldo Izagirrek, eta bere poemetan bada garaiako ezaugarri nabaria dute aditzetan, mezua argia da eta irudiek, bere hermetikotasunean, ez dute testua iluntzen.

Adiskidearen heriotzari eskainitako poemetan, era bitan aritu da Azkue: poema luzeak hausnarketarako erabiltzen ditu; haiku moldera hurbiltzen da izadiko irudiaren bidez sentipena marrazteko.

Benantzio Alvarezek honela adierazi du poetaren idazkera:

Nik destakatuko nuke zenbait estilo hermetikoei bihurtu gabe, baina sinplekerietan erori gabe irakurlearekin lortzen duen komunikazioa. Hau da, poemen mamia erraz uler daiteke, formaren aldetik sinbologia ausart bat erabiliaz. (1981, 31)

Eta Juan San Martinek beste hau azpimarratu du:

Ongi ikasi du erdi etsipendurik dagoenaren humanismo suharra kontrasesanen bidez agertzen. (1980-1, 176)

Hirugarren alde batean, poemategiak tonu existentzialista eta puntu bat politikoa ere hartzen du, heriotzaz eta denboraz galde egiten duelarik.

Baina, hain liburu interesgarria idatzi zuen Alex Azkue ixildu egin zitzaizgun, eta, orain arte, ez du, izen horrekin behintzat, besterik plazaratu.

### **Aipaturiko liburuen zerrenda**

- AZKUE, A. (1981): *Poemak*. Ustela Saila. 14. Donostia.  
CASENAVE, J. (1978): *Zutaz amoroski*. Ustela Saila. 5. Donostia.  
EGIGUREN, R. (1981): *Txipiroiren bat edo beste*. Ustela Saila. 17. Donostia.  
GARBIZU, D. (1980): *Espaloietako Ginola*. Ustela Saila. 13. Donostia.  
IZAGIRRE, K. (1978): *Guardasol ahantzia*. Ustela Saila. 6. Donostia.  
— (1977): *Oinaze zaharrera*. Ustela Saila. 1. Donostia.  
KORTA, G. (1980): *Isiletik*. Ustela Saila. 12. Donostia.  
LASA, J. I. (1982): *Alizia eta biok*. Ustela Saila. Donostia.  
LIZARRALDE, P. (1978): *Hilargiaren hotzikarak*. Ustela Saila. 7. Donostia.

- ALVAREZ, B. (1981): "Alex Azkueren liburu-esperantza". *Argia*. 920. 1981-IX-27. 31.
- E. X. (1983): "Iñaki Lasarekin Aliziari buruz". *Argia*. 959. 1983-I-9. 30-1.
- ETXANIZ, X. (1982): "Alizia eta biok". *Argia*. 956. 1982-XII-19. 28.
- SAN MARTIN, J. (1980-1): "Alex Azkue. Poemak". *Egan*. 173-177.

## SUSA SAILA

1980ko hamarkada “aldizkariaren hamarkada” deitu dute. Baina fenomeno horrekin batera bada beste fenomeno bat nahiko garaia: Susa argitaletxeak poesiaren alde egindako apostu eta argitarazio ahalegina. 1983. urtetik aurrera lan aipagarria egin dute poesiaren alde. Kandela taldekoek 1983. urteari begira idazten bazuten beherakada gertatua zela olertiaren argitarazioan (esku zabal izanda, 8 liburu argitaratu baitziren 1983ko urte horretan) hurrengo urtetik aurrera, Susa, Maiatz eta beste argitarazioen ahaleginez, gorantza joan zen pixkanaka-pixkanaka kopuru hori; oker ez banago 12 poema liburu argitaratu ziren 1984. urtean eta 18 hurrengoan. Tendentzia mantendu da 1990. urtearte. Gazteen literatura argitaratu zutenen aldean jarri beharko da mugimenduak izan duen aldea.

Susak argitaraturiko liburuen kontra-azalak irakurriz gero, behin eta berriro errepikatzen da beste inon babesa aurkitu ez zutenen lana argitaratzen zutela:

Zenbait hilabete poema-liburu bat besapean zuela etorri zitzaigun negua pasa berria zeneko egun ilun batetan. (Iñarra)

Edo bestela eurek argitaratu duten idazle baten hitzak aipatzearren:

Eta Susa estimatzen dut batez ere Susak salbatu ninduen ni ... Mundu guztiak ahaztuta eta inguru oro marjinaletan ibili nintzen. (Ubeda, 1991, 43)

Idazle gazte zein poetika berrien argitarazio zein promozio lanetan aritzea izan bada helburua, lortua dutela esan dezakegu. Helburua horixe zela aitortzen du, behintzat, Koldo Izagirrek.

Susan poema libururen bat baino gehiago argitaratu dutenen artean bada-ngo, elkarrizketetan adierazi duten bezala, susmo berezia: beren lanak ez direla guztiak salbagarriak, edo, leunago esate arren, ez dutela testu guzतिक beren helburua bete. Jon Aranoren kasuan garbien agertzen da arazo hori:

Nik ez diot uko egiten liburu hari [*Bileterik gabe*] azaldu digu Jon Aranok ... Onartzen du lehen liburu horretako zenbait poemak ez duela balio handirik, baina beste batzuk salbatzeko modukoak direla uste du. (Zabala, 1991, 24)

Idazleren batek bigarren liburua argitaratzen dueneko kezka da. Idazlearena, edo, beharbada, argitaletxeko zuzendariena:

Bere buruari neurria hobekiago hartu izan balio lez, bertso neurri txikian inoiz baino erosoago mugitzen zaigu Gabriel, koplari baina mugak hautsiz. (Korta, 1987)

Beste era bateko zalantza da Jon Iñaki Lasak agertu duena:

Zenbait jendek pentsatuko du hura hau baino askoz landuago dagoela, eta nik berriz kontrakoa pentsatzen dut. Hor eboluzio logiko bat dago. (Etxaniz, 1984)

Eboluzio, garapen, sakontze, estiloan maisutze... hitz guztiek adierazi dute aurrekoarekiko zalantza, aurrekoak, normala denez asebeteko ez balu bezala idazlea.

Beste kontu bat da zenbatu diren liburu bakarreko poeta. Kontuak oker ez badaude behintzat, aipaturikoen artean bost dira liburu bi argitaratu dituztenak, eta zazpi bakarra plazaratu dutenak.

Susa ha dado a conocer hasta hoy a más de quince nuevos escritores, cumpliendo una función promocional humilde y voluntariosa muchas veces, pero inestimable en todo caso, sin contar la revista del mismo nombre en la que colaboran bastantes poetas alguno de ellos —y no lo oculto: demasiados para mí— enmascarados en seudónimos. (1991, 18)

Berriaren alde egin duen argitaletxeak helburu hori lortu duela esateak ez du alde batera uzten kalitatearen arazo labankorra. Ezin da esan, Izagirrek berak aitortzen duenez, denak maila berekoak direnik. Gehiago aipatze arren, bere errepaso urgentean Susakoen artean Otamendi, Aranbarri, Omar Nabarro eta Xabier Montoia aipatzen ditu goren gisa. Beste guztien lanak dira lan apal honen agerbidea: Fernandez Larrinoa, Lasa, Barandiaran, Olasagasti, Lasarte, Setien, Iñarra, Arano, Alcalde, Kartxi, Balentzia, eta Ustela Sailatik datozen Korta eta Egiguren.

Gauzak ez doazela nahi beste ondo beste datu batek ere azpimarratzen du: Susa sailaren berreraketak. Hasieran, 1983-1987ren bitartean Susa sailak batera argitaratzen zituen poesia eta narratiba. Baina esanguratsua ez zen, eta ez da, generoen arteko banaketarik eza, baizik eta argitarazio erritmoa. Susa saila den bitartean, Susakoek 19 poema liburu argitaratzen dituzte 6 urtetan. Ondoren, Susa poesia saila eratzen dutenean, 1987-1995 urteen bitartean, 18 poema liburu argitaratzen dituzte. Aldaketaren arrazoia argitaletxeak berak

azal dezake, nahi balu: agian, merkatu kontuak dira, agian barne eraketa kontuak, agian, kalitate eskakizun eta kontu handiagok argitaratzea. Baina ez da gure arazoa kalitatea zuzen-zuzenean aipatzea. Helburu deskriptiboagoa dut. Eta hasi sail honetan agertzen diren mogimenduaz hasiko ginatke.

## 1. Susa: estetika desberdinak

Ez dira poeta guztiak eguzki berdinpean, idatzi du Koldo Izagirrek, eta hala dela baieztatu behar irakurgai hartu ditugun poetan kasuan. Urrunetik begiratuta, oso urrunetik, noski, mugimendu hauek agintzen dutela aipatu behar:

1. Minimalismoa. Horrela deitu izan da bai Korta bai Egigurenen poesia; nahiz eta, monografietan ikusiko dugunez, hitz bera erabili Otamendiren lehen alorreko poesia defintizeko asmotan.

Otamendi minimalista ageri da Korta bezala, eta darabiltzaten elementuak guztiz urbanoak dira, eta hori bai eszenario mailan, bai irudi mailan, bai hiztegi mailan. (1993, 67).

Mogimendu, edo nahi bada idazle horien ezaugarri gisa erritmoa aipatzen du Izagirrek:

Es de obligada referencia Mikel Arregi, que como Egiguren, posee una especial capacidad para el ritmo y la rima. (1991, 25)

...y otros se han afianzado con los años y han ganado en profundidad y madurez, publicando con irregular perioricidad, pero con seguro pulso. Es el caso ... de Rafa Egiguren ... uno de los raros poetas especialmente dotado, para el ritmo y la medida. (1991, 17)

Minimal hitzak egiten den poesiaren tankeraz hitz egiten du. Gai bakararren inguruko poesia da, ttipia, bere mugetan geratzen dena:

Saihets hezurak bilutzik,  
brankaren punta lohian  
uretarako beti!  
zure azken destinoan... (Korta, 1987, 83)

Txangurru bati bezala  
zuri ere,  
azken funtsetaraino  
urruptuko dizkizute  
adimenaren tarte  
goxuenak... (Egiguren, 1986, 14)

Nolabait esateko Ustela estiloa da. Begirada xarma duen irudi batean geratu da eta irudi sugerikorra hitz leunen bidez adierazi zaio irakurleari.

Ttikitasunaren poesia honi hobeto datorkio fragmentarismoaren izena. Unean unekoa adierazten du. Juan José Lanzen hitzetan adierazteko:

La fracción, el fragmento, tiene su correlato temporal en el *instante* y si el fragmento refleja una parte de la realidad que como tal queda elidida, el instante es una fracción de tiempo que en su brevedad carece de extensión ... La escritura fragmentaria exige, por lo tanto, una depuración absoluta del lenguaje poético, una búsqueda de la esencialidad última ... No es extraño, en este sentido, que la imagen se convierta en un elemento fundamental de elaboración poética para estos autores, puesto que a través de ella se percibe una iluminación unitaria y totalizadora de la realidad, a la vez que su dimensión temporal se reduce al instante. Si la metáfora otorga un carácter desvelador el lenguaje, la imagen se vincula a la captación perceptiva e implica un juicio completo captado en su unidad. (Lanz, 1995, 199)

Zatia, irudia, ikusia, argitua, inspirazio uea, uea bera da poetak adierazi nahi duena, baina deskripziorik gabe, jauzkerarik gabe, bere betetasunean. Zatiaren gorespena da irudiaren funtzioa eta irudiak ez du esanahirik liburu osoko beste irudi guztiekiko loturan ez bada.

Ustela saileko taldekideen artean nabaritu izan da joera hau. Baina ez soilik eurengan, ezta ere biengan era berean. Joeraren aipamenak agertzen dira Aitxus Iñarraren *Hirustea* (1985) liburuan, eta Gema Lasarteren *Hitz antzuen azokan* (1985) ere. Honela idazten du Iñarrak:

Zimentuzko bizia  
izerdiaren hiria  
barneratu zaizkit  
baina  
gizonaren zaratak  
emakumearen isiltasun zuriak  
urratu nau... (Iñarra, 1985, 58)

Ohikoa da joera minimalista edo zatitu hau nolabaiteko ingenuitate batekin lotzea: ideiak argiak dira, sinpleak; irudiaren agerpenarekin, edo erritmo arinaren erabilerarekin. Aitxus Iñarrak, baina, bere poetika surrealismora hurbiltzen duen neurrian, hurbilduko du Lasartek errealmora.

Egigurenen kasua desberdina da, ironia noizbait nagusitzen delako bere poesian; eta minimalismotik urrundu egin da bere liburuaren hainbat pasartetan. Hona ironiaren adibide garbia:

Bere buruaz  
beste  
(paperezko  
lili bat)  
egin du  
kaxa



motzeko  
poxpolu  
bontzoak... (Egiguren, 1986, 9)

2. Esperimentalismo grafikoa. Susa sailan parte hartu dutenek izan dute joera grafikoarekiko atxekimendu garbia. Kaligramak egiteko zaletasuna taldean toki aparta izan duen Josu Landaren lehen liburuan (*Haizearen itzalak* 1980) agertzen da. Grafismorako joera erraz aurkitzen bada ere bildumako liburuetan, diseinua azken punturaino eramane da Iñigo Barandiaranen *Klick ssssh klack* (1984) liburuan. Izenburuak argazki-makinaren onomatopeia azaltzen du, eta poemak argazkiak balira bezala agertu ziren argazkiak batzeko zorro bihurtu zen liburuan.

Barandianek argi utzi zuen zein zen bere helburua:

Arrazoa da poema bakoitzari autonomia eman nahi izan diodala, denak solte. Ez zaizkit poema liburuak gustatzen, hemen hasi hurrengo orrian segitu. (L. M., 1985, 35)

Liburuaren batasun kontzeptuaren aurka egin zuen Barandiaranek autonomiaz batera, zatia maite zuen. Horixe baita azken batean argazkia: errealitatetik aukeraturiko zatia, adierazteko errealitatetik ateratzen den puska. Grafismoak 8 eta 9. orrialdetako poemetan agintzen du. Konplikatuegiak dira hona ekartzeko, baina 8. orrialdekoak, “Euri ostean”, simetria erakusten du goitik eta behetik hasten delarik era berean. 9. orrialdekoak, berriz guztiz era batean eta batera agertu den esaldia adierazi nahi du, eten nahi luke hizkeraren hariarekin eta dena batera agertu.

Grafismoa alde batera uzten badugu, Barandiaranen poesiaren helburua giroak sortzea omen da:

Bere ardura handiena “atmosfera” sortzea da:

—Pintore batzuk lortzen duten hori, hau da, ikusten ez dena pintatzea. Literaturan berdin. Hitzak erabili gabe, ‘triste’ hitza jarri gabe, giro tristea lortzea. (L. M., 1985, 35)

Agian, Barandiaranen estiloak badu *mass media*etako hizkuntzekin loturarik. Maitasunaren gaien erregistro arruntak sartzen ditu, eta eguneroko hizkera urbanoa ahaleginik gabe tartekatzen da hizkera poetikoarekin:

...badakizu  
after-shave azala  
duzula  
badakizu  
musu filter  
extra large  
baino ez  
dudala segregatzen... (1984, 6)

3. Surrealismoa Idazkera automatikotik hurbil agertzen da Joseba Alkalderen lana, *Babiecaren otzikarak* (1986) eta Joakin Balentziaren *Espaloian dago munduaren xilkoa* (1988). Giro honetan surrealismoaz hitz egitea oso erlatiboa da. Garbi dagoenez, surrealismoak idazkera hau goitik behera bustitzen duelako. Baina aipaturiko izen bietan, bakoitza bere zertzeladarekin, irudien arteko jostaketak garrantzi handia hartzen du. Idazle desberdin bi dira, ez da zalantzarik. Joseba Alkalderen lana, irudimen mundura oso lotua agertzen da. Argitaletxeak liburu honetaz hitz egiten duenean, postaxaganismoz ari da. Ez dakit horrenbesterainokoa denik, baina Alkaldek irudimenaren jostaketa etengabea agertzen du bere lanean. Irudien arteko elkarriketa misteriotsua agertzen zaio irakurleari maitasunari buruz hitz egiten duen liburu horretan. Dibagazioaren azpian, liburuak etengabe azaldu du, irudimenaren dantza eroan, ezintasunaren xarma:

...desaren aroan eroturik eriak ez dakite zer altxa  
itsasoaren haundia, lehorraren itzela  
bien bitarteko musuzko oraldia,  
ez dakite zer altxa  
eroturik eriak desaren aroan zamez deskojonata... (1986, 34)

Aliterazioak, eguneroko hizkuntzaren tartekatzeak ez dute ezkututzen irudien arteko lotura motibu gabekoak eraikitzen duela testuaren amaigabeko solasa.

Balentziaren kasua desberdina da, erreflexiboagoa, deskriptiboagoa, erreferenteak ageriagoan. Hala ere poetika gisa zuzen agertu du berea epika eta surrealismoaren arteko poetika bat dela.

Egia esan, gehiago du epikatik surrealismotik baino, eta nabaria da bere poesian epikak ekar lezaken narratibotasuna eta erreferentzien argitasuna. Hala ere, surrealismoaren aldeko aitortpena garbia egin zuen (Camino, 1989). Balentziaren idazkera poetikoaren ezaugarri nagusia, hala ere, bere hausnarketa joera da, zuzenean, surrealismoaren intuizioaren aurrean jartzen den hausnarketa puntua. Berak ere azaldu du ezaugarri hau bere adierazkizuntan:

Nire poemak dira ipuin txikiak, esperientzia pertsonaletatik ateratakoak. Filosofia eta saiakera pixka bat sartzen diet eta ikasbidea ateratzen dut hortik. (Lakasta, 1994)

Beraz, autobiografia izango litzateke estetika honen lehen puntua, ondoren narrazioaren agerpena poemaren moldaketan, hurrengo filosofia eta hausnarketa eta surrealismoa estilo janzkeran agertuko litzateke.

Anekdotak pertsonaletatik hausnarketara igarotzerakoan gertatzen da idazle honengan Josu Landak ikusi duen unibertsalizazio prozesua:

Poemok idaztearren, Balentziak munduko espaloietan gertatzen direnak behatzeari ekiten dio, ohar horiek sinbolizatuz gero orokortasunera heltzeko. Eta ez alderantziz. Izan ere, poesiaren balio haundienetarikoa horixe bait da: norbere errealitatea unibertsalizatze ahalegina. (Landa, 1988)

Hausnarketa joera horrek ematen dio Balentziari bertsoek isurian duten existentzialismo kutsua:

Haztamuka gabilta itsuok ilunbetan,  
ezin ditugu gainditu  
aurremarkatutako mugak,  
katu itsuok.  
Ez dugu jaberik, ez dugu behar  
geure eremuan ibiltzeko,  
egun eta gauetako ehiztari trebeok.  
Berotan eguzkia nabarmentzen dugu  
eta eguna oihuen bitartez.  
Urragarriagoak dira oihuak gaez,  
eta gurgurak goibelagoak ere... (Balentzia, 1988, 81)

Poema liburuak, dena dela, lehen irakurtaldi batean argi uzten du errealismorako joera eta sail horren barnean berriro aipatu beharko genuke.

4. Errealismo politikoa Susa sailak eta, agian, talde osoak talde marka gisa erakutsi dute lotura bat errealitatearekin. Errealismoarekiko mesfidantza zabaltzen ari bazen inguruetan, Arestiren balorazioa nabaria izan da taldean Koldo Izagirrek Alex Azkueri egin zion hitzaurretik hona. Susak argitaratu zituen Arestiren *Jan Guztiak* hamar tomotan, Bilboko idazlearen errekupeziariorik nabarmenena eta ediziorik osoen eta ederrena ginez.

Arestiren jarraitzaile gisa aipatu beharko genuke Kepa Fernandez de Larrinoa. *Gauerakoan* (1984) poemaren egituraketan eta zenbait moldaketetan agertzen da Bilbokoaren eragina. *Urteak joan zaizkit* (1991) liburuan, ordea, Bilboko paisaiaren eraketan. Hala ere, zabalagoa da poemategiko itzala:

Zetazko mihixe batean  
Cocteauren odak  
Braudelen baserritarrak  
Grisen hegiak  
eta Larrearen bertsoak... (Fernandez de Larrinoa, 1991, 93)

Baina errealismoaren joera hau, Susaren parteideren batzuk bultzaturikoa, alegia, loturik dago beste hiru joera nabariekin: sistemaren aurkako joerarekin, marginalismoaren goraipamenarekin, dela bazterra soziala, dela politikoa, eta aukera politika jakin baten agerpenarekin.

Joera nagusi horrek baditu bere tonu poetikoak, garraztasun, lazarritik hasi eta gorrotoan bukatu arte. Jon Iñaki Lasak, adibidez, eta matizatu deza-

gun ez dela zuzen-zuzenean taldean sartzen, zuzen eta garbi azaldu zuen nekatuta zegoela gauzak goxo esaten:

Mementu honetan aspertuta nago gauzak goxoegi esaten, zeren behar-bada gaur egun bizitzeko moduan gauzak ez dira hain goxuak. (X. X., 1984)

Bizitzaren arauerako poesia egin nahi da. Horregatik, Eneko Olasagastiren liburuaz idazten denean azpimarratzen den puntu bakarra da garapena gertatu dela norberaren sentipen pertsonaletatik bizikune sozialera, gizaki gisako sentsazioetatik bizitza sozialera, eta esaldi hau da liburu honetaz ezagutzen dudana eritzi kritiko bakarra:

Eneko Olasagastik modu labur eta zehatza batez agertu zuen bere “Gauzurte baten izenak asmatzen” liburuaren nondik norakoa, batez ere bere poemagintzan berak nabaritu dituen eboluzioak eta jarrera desberdintasunak zehazten saiatu zelarik. Benetan interesgarria sentipenaren ondorio gisako poesiatik bibentziaren ondorengora dagoen tarteari agertu zuenei. (D. Z., 1985)

Liburu baten aurkezpenaz ari delarik ez da zehatz agertzen garrantzizkoa: tarte horren definizioa, hala ere, adierazten zaigu sentipena gauza bat dela eta bibentzia beste bat.

Interesgarria da garapenaren aldetik Olasagastiren liburu hori. Hain zuzen ere, zati bi ditu liburuak: Lolita (maitasun eta etsipenaren arteko sentipenari erantzuten diona) eta Beyrouth-i eskainitakoa (bibentziaren inguruan ziurrenik).

Olasagastik garapena aurkezten du gainera garrantzizkoetik gorrotora doan bidean. Kanpo herrialdeetatik mintzo da Euskal Herriaz mintzo dela adierazteko:

Urrun da Beyrouth  
Urrun al da Beyrouth?... (Olasagasti, 1984, 41)

baieztapenak eta galderak garbi utzi dute analogia kontua, poemetan indartzeko dena:

...azken erromantikoen itxaropenak gordetzeko  
maleta hutsak... (Olasagasti, 1984, 63)

Azken erromantikoek, hitza gordetzearren, sistemari ustel dagoela esan nahi diote, erromantiko eta besteen artean marra marraztuz, muga idatziz, murraila eraikiz:

Pake eta hitz politak aipatzen dituzten  
doktore eta politiko guztientzat aitzur bat  
daukat neure baratzan, jorra ditzaten esaten  
dituzten lelokeria guztiak eta bekiten

sekulan ez dela pentsatuko bonbaixo izerdiz  
apaindutako baten barnetik edo eta kamisa txuri  
baten lepotik... (Lasarte, 1985, 15)

Zikoizkeria, zekenkeria, egokeria, nikeria  
gizonkeria, dirukeria ...  
Hankaz gora doa mundua eta nork gerarazi?... (Lasarte, 1985, 33)

Ez dakit ondoa eta gaizkia  
sailkatzen dituen muga non  
aurkitzen den... (Lasarte, 1985, 113)

Bibentziaren haritik, bai Kartxiren lana (*Ihesi*, 1987) eta baita ere Jon Aranoren liburu biak (*Bileterik gabe*, 1985, eta *Malezia sorta*, 1990) joan doaz. Kartxiren lanak badu marginazio sozialaren aldeko joera, Aranok ikuspegi pertsonala erakutsi zuen lehen liburuan, eta *Malezian* askoz ere koherentzia handiagoz eman du bere iritzia. Aurretik (Xabier Montoia) eta ondoren (Andoni Tolosa) etorriko direnekin batera, ironia, analogiaren alderantzizko joera, nagusitzen da liburuetan. Salaketa egiten da, dagoena gezurra baita, eta maleziaren goraiapamena:

Ez bait diot ezer zor munduari. Astindu ederra eman behar zaio gizar-teari erreakziona dezan ... Herri honetan jende konkretua baztertzeko, marginatzeko duten joera ere lasai asko jar lezake agerian ... Beti saiatu naiz esan beharrekoak esaten, salatu beharrekoak salatzen eta ahotsa ez dutenei ahotsa ematen ... Nere liburuxka honek, izatez gero, pretentsio hori bera luke, erradikala izatea, ondorioak ondorio. (Ubeda, 1991, 42-3)

Garbiñe Ubedari esandako hitzetan garatzen du Jon Aranok bere poetika. 1987. urtean argitaraturiko artikuluxka batean (eta ondoren *Malezia sortaren* kontrazal gisa erabili zen testuan). Tere Irastortzak zuzentasuna aitortu zion idazle honi:

Idaztea sumintasunetik artera doan bide errebueltatsua, izar gorenik alkantzatzeko gauza izan ez eta bizitzari eusten dionarentzat, hura moz-kortu behar iraunkorra denean. (Irastortza, 1987, 27)

Hori berori azpimarratu zuen E. Jimenezek ere:

Objetuarekiko distantzia gorde gabe, boxeolari suizidaren grinaz egin dio. Bestetik, ironiak ere ez dio balio, banaketan ezik. Distantzia laburrean boxeatzten du Aranok. Arriskua K. O. geratzea da. (E. Jimenez, 1991, 62)

Amorrúa (Zabala, 1991), laztasuna, iluntasuna, gorrotoa, etorkizunik eza, erradikalismoak hona liburuak mahaigainean jarri nahi dituen balioak.

Emaiek hire gorroto guzia  
Gizarteari zor diona zeinuan... (Arano, 1990, 80)

Gorrotoa, baina, ere berean agertzen da Kartxiren liburuan:

Eta orain bakar bakarrik  
neure gorroto eta higuina  
adieraz zitzakenat... (Kartxi, 1987, 28)

Nihilismoaren trataeran ere gogorragoa da hau:

Eroak pareta  
etsipenaren etsipenez  
urratzen duen bezala  
eta errromantikoak azken malkoa  
suizidatu aurretik ...  
esperantza ttikienaren bila  
—baliozkoenatariko balizkoena—  
abiatu gara  
ezerezean  
barna... (Kartxi, 1987, 35)

Kartxiren hizkuntza poetikoak gogora ekartzen du Jon Miranderen feismo poema: gizarteak marginaturiko pertsonen osatua baitago bere poema liburua. Jon Aranok, ordea, bere gunean hartzen du kontzeptua. Hipokresia zein gezur-raren salaketa gertatu da abiaburua:

Diote naizela moralbako gaiztoa:  
Tronpaturik dabilta hori dioten horiak  
Ez gara hain inuzenteak ...  
Fuera hemendik saltzaile farisauak  
Alde amasa ere  
Opa ez diguten perillanak  
Ospa kasta menperatzaile guztien  
Pelaje guztietako heredero  
eta gerorako sotengatzaileak... (Arano, 1990, 49-50)

Gezur-raren aurka altxatu arren ere, joera honetako idazleen artean badago hizkera, eta hizkera poetikoarekiko mesfidantza nahiko garbia. Poeta errromantikoekin gertatzen zen bezala, haiek uste baitzuten hizkuntzak ez zuela sentimendua aldierazten, hauek ere uste dute hitza ez dela nahikoa errealitate agertzeko, eta guttiago aldatzeko. Horregatik adierazten da antipoetika bat, edo, hobeto, edertasunaren aurka doan poetika:

Ez dut nahi poesia ederra idaztea  
ez dut nahi hitz politikak bilatzea  
ez dut nahi errimen eta gainontzeko apaindurien  
ispilua. Mamiaren kemena hutsik, soilik... (Lasarte, 1985, 121)

Ondorioz hitz zuzena eskaintzen da:

Gorrotok eta engainoz janzten diren hitz batzu  
bakarrik, guztiz, esanahiarekin bat etortzen bait dira...  
(Lasarte, 1985, 11)

## 2. Gorka Setienen *Ez sinkronia*, adibide bat?

Literatur mogimenduen berri ematen ari nintzanean, Susa sailaren barnean ziren gaiei buruz zerbait esan beharra sortu zitzaidan. Egia da, Barandiaran kasureko, poema bildumak idazten dituztenen adibidean badi-rela Susa sailean, poema solteen sailarekin liburuak osatzen dituztenen ereduak. Baina beste batzuek poemategi egituratuak eskaintzen dituzte. Poemategi horien artean Aitxus Iñarraren *Hirustak* atentzioa deitu zidan, une batez pentsatu nuelako bere egiturazioan agertzen zela neurri bateko mundu bat. Iñarrak azaleko argazkian, kontra-azalak hori azaltzen du behintzat, harria, zura eta burdina bildu ditu. Hitzetara igaroz, hiru zati nagusi ditu bere liburuak: Amodioa, Bizia, Heriotza. Amodioa bazuen gainera, alde bi: pozarena eta etsipenarena. Bazuen gainera, liburuak nolabaiteko joera kontestarioa:

Hitzez, hotsez  
egunerokotasuna  
disfrazatu behar dugu.  
Hitzez, hotsez  
mediokritatea ahazteko... (Iñarra, 1985, 48)

Baina bere poetika pertsonalegia zen, niaren inguruan lotuegia, gizakiaren agerpen sotilegia zuen, ondoren etorriko zen ahots komunitario eta kontestarioaren agerbidea zuzen azaltzeko.

Urte berean Gorka Setienek *Ez sinkronia* liburua argitaratu zuen. Eta liburu jakingarri eta irakurgarria da Susa sailak zer ekarri duen ikusteko. Adibide bat? Susako mundua txikitan?

Baiezkoan nago. Norbaitek Susa eskolako irudia marraztu nahi balu, nahiko luke Setienen liburu hau irakurriaz.

Dakidanez ez du oihartzun handirik bere inguruan bildu eta Xabier Mendigurenen artikulu bat gogoratzen dut liburua era laburrez aipatuz. Baina liburuak, beste batzuek baino lehenago, azaldu ditu poetika baten nondik norakoak, nik uste.

Liburu mardula izateak on egin dio testuari, ikuspegi zabala hartu duelako bere 108 orrialdeetan. Bere sarrera eta bost zatiek, gainera, perspektiba anitza sortzeko parada eman dute.

Sarrera ilun batean Setienek asunto “garratzei” buruz mintzatuko dela

agintzen du. Garrantzizko galdera horien berri ematen zaigu sarrerako poemetan: maitasuna, denbora, karrasia, arrazoiketaren eztrandak...

...orainaldiaren hotzikarak jaurtitzen ditut  
maitearen lepo miresgarrian  
berunezko ezusteekin zapaltzen ditut  
bakardade bilakatu ditezken goseak... (Setien, 1985, 11)

Hizkera poetikoak ez dio deus sor Ustelaren inguruan sortutakoari: hotzikara, maite, bakardade... irudia aditzetan jartzeko joera, kanpo munduaren (lepo, buruz) eta barne munduaren (hotzikarak, ezuste, bakardade) arteko jostaketa garbia.

Baina bai hizkuntza, eta batez ere objektu poetikoa aldatuz joango dira. Lehen atalak baina, “Betea dardartia hutsa” deitutakoak maitasunaren inguruko poema minimalista eginez hasiko da:

...laranjaren borobiltasun erotikoa  
izan nuen esku artean,  
eta euriak  
euri fin bizigarriak  
nire burua bustitzen jarraitzen zuen... (Setien, 1985, 25)

Izadiaren agerpen fina, bertsoen xumetasuna, sentipenen liraina... idazkera ezagun baten agerpenak. Surrealismo biguinak hitz joko garbiak, espreseraren gardentasunak batera jo dute maitasun espresio garbia azaltzera. Tartekatut diren irudiek ere Ustelako estetika azpimarratu dute. Guztia, baina, amodioaren balio azpimarratzeko:

...hil ez nadin, hil, nahi dut bizi  
eta maitasun ase maita dezaket ... (Setien, 1985, 35)

“Asfaltoko lurrin” deituriko atalak beste bide batzuk jarraitu ditu. Giro garratz eta urbanoak izadiaren tokia hartu du, egunerokotasunak agintzen du. Setienek ez du hiriaren deskripzio zuzenik egin, baina nihilismoa hartu du banderatzat:

...gizona ez da ezer ez du ezer  
loa baizik  
lo urrunaren amets lotia... (Setien, 65)

eta amets eta desioen arteko marran eraiki du optimismoaren aurkako fronterra; “rutinaren literatura zapaltzaileaz” nekaturik:

...optimismoa, potroetaraino iristen den poltsiko batean  
zintzilik daukat,  
hortxe gelditzen zait  
gauero urduri... (Setien, 1985, 73)



Kosmogorria,  
agonia,  
kalegorria... (Setien, 1985, 77)

da bere poesiaren eszenario berria.

Hirugarren sailak zuzenean hartzen du, "Letxe guztiak irakiten jartzen direnean" izenburupean, amorruaren bidea. Zati honek, galderen bidez agertu den ironia bati jarraituz, herriaren geroaz sentitutako paperatu du:

...poesia ala jaki politikoa  
zer da bietatik ?... (Setien, 1985, 87)

Herriak bizi duen orainaz ari den poetikak bere hizkera aldatu egin du:

...guztiz ajolagabekeriaren garaia  
izan daiteke gaurkoa  
baina sekula ez  
ez enerjiarik bagenu behintzat  
hainbeste kostata gero  
eten ditugun kateak  
berriro lotzen hasteko denbora.  
ez mesedez... (Setien, 1985, 81)

Hizkera gogorra bihurtu da, sinbolo ezagunak darabiltza, alegoriarako joera da eta era berean aliterazio eta hitz jokoek mantentzen dute zuzentasunaren literaturtasuna.

Azken zatiek: "Oinen aztarna lokatzen" eta "Oihartzunak mailuarekin jotzen du" atalak areagotu egin dute mezu politikoa:

...ez dut politikoez negoziatutako  
hizkuntzarik desira,  
grafiko farmakorik,  
ihintzaren ametsetan murgiltzen bainaiz sarri... (Setien, 1985, 105)

Beste alde batetik hizkerak surrealismorantzako bidetik jo du, irudien arteko lotura askea gehiago erabiliz, galdu ez badira ere Setienengan hain garbiak diren hitz jokoak eta hausnarketak:

...gaur ez dago  
moztuak izan daitezke lepo odoltsuetaz mintzaterik,  
eske ez baitu inportik gainera  
zertarako trajediak... (Setien, 1985, 101)

Ibilbidea bete da. Liburu honetan, nik uste, eta idazlearen idazkera bere ezaugarriak galdu gabe, jarrai ditzakegu Susa sailak agertu dituen zenbait joraren ibilbideak. Hala ere Setienek, inork baino hobeto nire iritziz, jarri du galdera mahai gainean, poesia guzti honen sorreran dagoen galdera:

...ez du inork iraultzaz hitzegin nahi  
atzo egitea oinarrizkoa (omen zen).

## Bibliografia

- ALKALDE, J. (1986): *Babiecaren hotzikarak*. Susa. Donostia.
- ARANO, J. (1985): *Bileterik gabe*. Susa. Donostia.
- (1990): *Malezia sorta*. Susa. Donostia.
- BALENTZIA, J. (1988): *Espaloian dago munduaren xilkoa*. Susa. Donostia.
- (1995): *Amaigabeko zikloa*. GK. Donostia.
- BARANDIARAN, J. (1984): *Klick ssssh klack*. Susa. Donostia.
- EGIGUREN, R. (1986): *Mugarrien garraioan*. Susa. Donostia.
- FDEZ. DE LARRINOA, K. (1984): *Gauerakoan*. Susa. Donostia.
- (1990): *Urteak joan zaizkit*. Bizkaiko Foru Aldundia. Bilbao.
- INARRA, A. (1985): *Hirustea*. Susa. Donostia.
- KARTXI (1987): *Ihesi*. Susa. Donostia.
- KORTA, G. (1987): *Okaranak*. Susa. Donostia.
- LANDA, J. I. (1980): *Haizearen itzalak*. Hordago. Donostia.
- LASA, J. I. (1984): *Andaluziari ene bilduma*. Susa. Donostia.
- LASARTE, G. (1985): *Hitz antzuen antzokan*. Susa. Donostia.
- OLASAGASTI, E. (1985): *Gauzurte baten izenak asmatzen*. Susa. Donostia.
- SETIEN, G. (1985): *Ez sinkronia*. Susa. Donostia.
- CAMINO, J. (1989): “Joakin Balentziak epika eta surrealismoa baliatu ditu herri honen ahots xume den poesian”. *Argia*. 1.247. 1989-VI-20
- D. Z. (1985): “Susak bost liburu berri aurkeztu zituen Bilbon”. *Argia*. 1.051. 1985-III-13.
- IRASTORTZA, T. (1987): “Y de perfil”. *Zurgai*. 17. 27
- IZAGIRRE, K. (1991): “Mudos blues de la nada”. *Susa*. 25. Gehigarria.
- (1993): “Txipitasunaren iraultza”. *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 55-92.
- JIMENEZ, E. (1991): “Malizia sorta zuzena”. *Argia*. 1329. 1991-III-10.
- L. M. (1985): “Iñigo Barandiaran”. *Argia*. 1.043. 1985-I-13.
- LAKASTA, J. K. (1994): “Balentzia: nire poemak dira ipuin txikiak, esperientzia pertsonalak”. *Egunkaria*. 1994-XI-15.
- LANDA, J. (1989): “Espaloian dago munduaren xilkoa”. *Argia*. 1989-VI-4.
- LANZ, J. J. (1995): “La joven poesía española al final del milenio”. *Letras de Deusto*. 66. 173-206.
- LINAZASORO, K. (1991): “Mundua aldatzeko malezia piska bat”. *Egunkaria*. 1991-III-9.
- UBEDA, G. (1991): “Nik idatzia ameskaizto bat balitz bezala gera dakiola jendeari”. *Argia*. 1.327. 1991-II-24.

- X. X. (1980): "Josu Landaren itzalak". *Zeruko Argia*. 883. 1980-VII-13.
- X. X. (1984): "Jon Iñaki Lasa". *Argia*. 1.029. 1984-IX-30.
- ZABALA, J. L. (1991): "Jon Arano: maleziaz idazten duen poeta". *Egunkaria*.  
1991-III-2.



## KOLDO IZAGIRRE ALKANDORA HORIA

Autoaipamen bat onartzen badidazu ezin ninteke sasi guztien gainetik bizi. Nire inguruak zitzada handiak ematen dizkit, mundu guztiari bezala. Oso triste biziko nintzateke ziztadarik gabe, “bolizko” dorre batean. Ez naiz militante suhar horietakoa. Eszeptikoa naiz, ezkorra ez esatearren. Baina aukera dudanean nire ahaleginak egiten ditut munduko injustizien kontra

*(Koldo Izagirre, 1995)*

### 1. Poesiaz ikuspegia

Koldo Izagirrerekin garbi geratu dira lan honen mugak. Poesia liburuak aztertzea izan da hasiera-hasieratik gure asmoa. Baina idazle honen lanean poesiak bere osotasunaren esparru bat besterik ez du hartzen; literatura berak hartuko lukeena, zabalagoa bai, baina, hala ere, ez luke osorik estaliko pertsona honen nortasuna.

Poeta, gidoi-egilea, zinema-zuzendaria, *Ustela* aldizkariko bultzatzailea, *Oh Euzkadi* aldizkariko eratzzailea, ipuin liburuen egilea, nobela idazlea, artikulua egilea, Koldo Izagirreren lana ez da liburuetara mugatzen. 1990. abenduan Jon Aranok egin zion elkarrizketa arin batean, erantzun labur eta firiak eskatu ohi dituen horietakoan, Koldo Izagirrek bere izaeraren definizio ximple bezain esanguratsua eman zuen:

Generoak, joerak, “ismoak”,  
—Lehenengo surrealismoak... (Arano, 1990)

Erantzun labur horretan aurki dezakegu, bada, pertsonaiarengana, eta pertsonaren eraginera heltzeko lehen bidea. Koldo Izagirrek, surrealistek eratu zuten idazlearen irudira sortu du bere itxura: errebeldia eta probokazioa, idaz-

leak ez du soilik liburuetan eta idazkietan bere nortasuna agertu behar, gizartean baino, “*épater le bourgeois*” (Izagirrek askotan erabili duen formula, Maiakovski-ren itzulpenen notetan, adibidez), bere helburu nagusia da, eta dadaistek garbi azaldu zuten moduan artea ez da soilik artean agertzen, bizitza bera ere artea da, beraz edozein zeinu probokatzailerik arte bihur daiteke: “Familia ukatzen duen edozein higuin-era Dada da; ukabilkadaz egiten den protesta, horretan izakiaren indar guztiak jartzen ditugularik, Dada da” Tristan Tzara-ren hitzetan esateko. Beraz, lehendabiziko abanguardistentzat artea, literatura gurean, liburuetan zein kaleetan gerta ohi da. Ez dut nik esango lehen abanguardisten joerak agertzen direla, osoki eta zabalki, idazle honengan, baina bai jokaera horrek bere literaturaren mugak zabaldu dituela, eta Koldo Izagirreraren nortasuna mila tokitan agertu dela: poesia liburuetan, prentsa artikuluko ideologikoetan zein idazle gazteei plaza emateko egindako ahaleginetan. Ekintza eta idazkera, biak, surrealistentek nahi zuten eran, bilduak agertu dira literaturaz at dagoen mundu batean. Dadaistentzat *keinua* artelana baino garrantzizkoagoa zen. Izagirrerentzat lanak askoz ere toki handiagoa hartzen du bere ulermen munduan (gogoratu, proposamena: Atxagari, lana plagiatu behar zaio, 1993), baina liburutik at dagoenak tokia badu, halakoa ere.

Ikuspegi honetatik, esan dezakegu Izagirreraren nortasuna eginean ere agertzen dela: poema errezitaldiak, agitprog etengabeen balezko bezala. Guzti honek arazo bat jartzen dio egiten ari garen lanari. Orain arteko gure lanak poesia liburuei sarrerak izan dira, eta helburu hori erabiliko dugu oraingoan ere, baina, Izagirrek, edo Izagirreraren lanak eta pentsakizunak gehiago eskatzen dute. Saiatu gara (bibliografia ikusi besterik ez dago, beste inorena baino zabalagoa da) pentsakizunaz zerbait agertzen, ekintzetaz zerbait esaten eta poesiaren irakurketa lantzen. Lan honetan erabili izan diren mugak kontuan harturik inoiz baino argiago dago sarrera besterik ez dela izango ikuspegi hau, agian beste norbaitek egingo duen lan bati sarrera xumea. Nire lanean ez dira Izagirrek sinaturiko artikuluko guztiak bildu, barreiatutakoak ez da bilketa lan zehatzik egin eta eskaintzera gatozena lehen hurbilketa besterik ez da.

Nik dakidala ez du Koldo Izagirrek poetika dei dezakegun testu borobilburirik idatzi. Bere pentsakizun poetikoa barreiatu dago bai lanetan bai ideologia zabaltzeko egindako artikuluetan. Bestalde, eta aurreko baieztapena fintzeko, manifestuak idatzi ditu *Ustela* aldizkarian adibidez, edo Alex Azkueren lanari egindako hitzaurrean, elkarrizketan iritziak zabaldu ditu, eta artikuluko luze xamarak (“El puente de Roma”, “Liliput debekatuak”) ere argitaratu ditu non ideologia eta poetikaren berri ematen baituen. Hurrengoko jarrera ere kontuan hartu beharko genuke, 1976. urtean argitaratu zuela bere lehen liburua *Itsaso ahantzia* eta gerora garapen handia eman duela.

Behintzat aro bi ikusi behar ditugu bere lanean eta pentsakizunean, eta pixka bat lan eginez gero, ez dira soilik bi izango, eta, gainera, aroen artean kontuan izan beharreko batasun haria ere badago. Hori guztiarengatik, garapen handiko idazlea delako, poetika eta politika batera agertzen dituelako, estetikak modu desberdinean agertu dituelako, diskurtso koherentea bai, baina era berean, konplexua egin duelako, ez da erraza diskurtso lineala sortzea lan honen inguruan.

Hasi, beraz, ideia biren ingurutik hasiko gara. Batetik surrealismoaren eragina aipatuz, pentsakizun honen batasun-hari gisa hartuz, eta bestetik, garapena azpimarratuz.

Abangoardiaren agerpena, Izagirrek surrealismo hitzaz deskribatzen duena, 1975. urte inguruko arazoa da. *Ustela* aldizkariari hasiera eman zitzaionekoa. Orduan, manifestoa idatzi zuten Atxagak eta biek:

Literatura bait da herriaren boza: gizarte-aldaketan lagungarri denez, beste Euskal Herri baten lorketa lagundu behar du euskaldunon literaturak. Laguntza hau eskasa eta ahula izanen da noski, literaturak, zerbait aldatzekotz, sentsibiltatea aldatzen baitu, eta ez besterik ... Sariketa literarioen aurka, liburuak, aldizkariak, poema, bertso ta teatro saioak proposatzen ditugu. Zenbait erakunderen fama ez da euskal literatoen hauzia, beraiena baino. Geurea, euskal literaturari astinaldi bortitzak ematea da. (Pampina ustela, 1993 a, 65)

Koldo Izagirreraren lehen manifestuek literaturaren autonomiaren alde egin dute:

Garbi ikusi zuten [Arestirekin ibilitakoak] sentsibiltate berri bat, gazteago bat bazetorrela. Literaturaren esparru autonomo bat aldarrikatu genuen. Errealitatearekin eten gabe, noski. (Ubeda, 1995, 32)

Gerora iritziok leundu baditu ere, lehen aro horretan, surrealismoaren hizkuntzak autonomiarako bidea eman zion, eta neurri batean Arestiren poesia sozialarekin (edo nahi bada Arestiren ondorengo epigonoekin) eten egiteko beta lor dezan, askatasun bidea. Surrealismoak zerbait ekarri badu, araberazko hizkuntzekin hausdura izan da. Gizarte positibista bat, edo, nahi bada, burgesa, hiru diskurtsoren inguruan eratu da: grinaren espresaeraren aurkako tabua, eromena eta arrazoiaren diskurtsoen arteko banaketa, eta egiaren borondatea, edo figuratibismoaren dikurtsoen artean.

Beste era batean deskribatuz, ezin da dena esan, ezin da edozertaz edozein tokitan hitz egin, ezin du edonork edozer esan. Hiru banaketan aurka altxatu zen surrealismoa.

Erotismoaren diskurtsoa eratuz, ero eta marginetako diskurtsoak onartuz, boterearen elearen aurka altxatuz eta errealitateriko antzaldaketa egin ohi zuen mintzoaz etenez.

Koldo Izagirrek *Zergaitik bai* lana idazten zuenean, marginaren hizkera bat, haurren hizkera, onartu zuen, diskurtso nagusiarekin eteteko. Surrealismoak eskainitako prozedura linguistikoa hartu zuen lana aurrera eramateko. Nolabait esateko, surrealismoaren kritikek hizkeraren erabilpena azpimarratu zuten denek:

Koldoren idazkera delikatua, ia poetikoa, hitz lauz ere eta estridentziarik gabekoa, lagun bihurtzen da bidaia laburrean. (Atxaga, 1977, 40)

*Zergaitik bai*'k, duen alderdirik ikusgarrietako, ikusgarriena esanen nuke hizkuntza da ... Pertsonaia bakoitzak bere hizkuntza darabil, hizkuntza aproposa ... Idazlea ondo sartu da pertsonaia bakoitzaren psikologia bakoitzak behar duen hizkuntza erabiltzen bapo asmatu du ... Euskara mota gehienak erakusten dizkigu. (Abardoi, 1977, 26)

Gakoa ez da, baina, pertsonaiei egokituriko hizkera erabili zuela, haurren hizkuntzaren bidez, hizkuntza logiko, eratu, arrunt edo batuari eraso egiten ziola baino, eta Koldo Mitxelenak izan zuen harrera ikustea besterik ez dago (Pott aldizkariak jaso) jakiteko agramaltikatasunak bere eragina zuela. Beste horrenbeste esan dezakegu poesia liburuan, *Itsaso ahantzian* erabilitako irudimenaren hizkuntzaz. Xabier Lete, garai haietan ongi konturatu zen arrazoiaren aurkako hizkera zela hura:

Hitz urratuen joskera da Izagirrarena, itxuraz. Zatika, zatika gauzak esango balitu bezala, bere barne-munduaren "puzlea" ordenan jartzea egitura razional batetan baino gehiago, arrazoi-peko datoetan funtsa nahi balu bezala. (Lete, 1976)

Nolabait esateko, surrealismoaren eta abangardiaren hizkeren gakoa zen hor dantzan, nahi bada, eta denok ulertzeko moduan, azaleko kontua. Baina azalak ez du sakona ezkutatu besterik egiten. Eta sakonean surrealismoa bizitza (eta ez soilik hizkuntza) aldatzeko ahalegina da. Abanguardien definizioak erreparatzen baditugu, behin eta berriro agertuko zaigu oposaketa kontzeptua: espresionismoak positibismoari aurre egin dio, dadaismoa ordenaren aurka altxatu da, surrealismoak bizitza aldatu nahi du. Ezaguna da Breton-en esaldia, ia programa bat dena:

Mundua transformatu, esan zuen Marx-ek, bizitza aldatu, Rimbaud-ek, guretzako kontsigna biok bat bakarra dira.

Bizitza aldatze, eta mundua kanbiatze, horretan ulertu beharko litzateke Izagirreren jarrera poetikoa (eta politikoa).

Gertatzen da, alabaina, zehaztapen bi egin behar ditugula: batetik, eta urtekin garbiago geratuko da, Izagirreren literatura ez da soilik surrealista, baizik eta abangardiaren beste ismoetatik ere hartu du. Salvat-Papasseit (1995) eta Maiakovski-ren itzulpenek (1993) ondo erakutsi dute zenbat zor dion



Futurismoari; bestetik, Arestirekiko jarrerak konplexuak dira, agian esan daiteke (eta esanez batera konturatu naiz zein zehazgabea den esaldia, baina, tira, orrialdeak geratzen zaizkit oratzeko) formarekin eten egin duela, baina ez pertsonarekin, ezta ere ideiarekin.

Garaien arazoa ere badago tartean, 1975-19777 urteetan gaude, eta 1995. ean honela mintzo da urte haietaz Izagirre:

“Panpina Ustela” Jainkoa akabatze konplot txikia izan zen. Jainkoa, kasu hartan, Aresti zen. Hobeto esan, Aresti hila zegoen, ez zegoen akabatu beharrik. Postarestismoarekin edo poesia sozialarekin hautsi nahi izan zen, giro literarioki motz harekin. Ez zen erreakzio inkonszientea izan. Gauzak oso ondo pentsatu eta gero kaleratu zen manifestu hura. Garbi genuen ez genuela horrelakorik nahi, beste zerbait behar zela. (Ubeda, 1995, 32)

Errealismo sozialistaren hizkuntza epigonoaren aurrean egiten den erantzuna da. Atxagak berak aipatu du epigonia bat zegoela une haietan. Baina, Koldo Izagirreren iritzi nagusia da literaturaren autonomia eskatzeak ez dakarrela errealitatearekin haustea. Beraz, gorago aipaturiko esaldia berriz errepikatzeraz behartuta gaude:

Literaturaren esparru autonomo bat aldarrikatu genuen eta hori inportantea zen. Errealitatearekin eten gabe, noski, gu ere inguruarekiko pertsona konprometituak baikin. (Ubeda, 1995, 32)

Halaz ere, jarraitu egin du Arestiren ingurukoaz hitz eginez:

Denbora pasatuta gauzak bere onera etortzen dira berriz. Arestiren garrantzia ikaragarria izan zen, eta denborak gehiago nabarmendu du.

Dena dela, gaur egun eta Euskal Herrian zaila da belaunaldi batek aurrekoa guztiz ukatzea. Gure hizkuntza normalizatuta ez dagoenez, nahi ez bada ere, bada beti aitorten sentimental bat aurrero belaunaldiarekiko.

Izagirrek deskribatu du zein zen garaiko poesiaren sena, pixka bat berak bultzatu zuena Ustela sailaren bidez:

Aresti ondoko belaunaldiaren ezaugarrietako bat gai zehatzeko poemak ez egitea da. Ez du gai bat hartu eta haren inguruko bariazioak edo metaforak landuko. Idazkera automatikora heldu gabe baina, etorria laxo utziko du, anti-intelektuala du jarrera poemagintzan, eta helburua edertasuna du, ez didaktismoa ... Nahaigo du irudiaren indarra mezuaren zehaztasuna baino. (1993 a, 63)

Baina jarreraren badira arazo batzuk nahiko garbiak. Ez da onartu errealismo sozialaren hizkera, nahiz eta konpromezuarekin jarraitu den. Surrealismoaren barnean aurki dezakegun portaera da. Poetaren aurrean era

bereko konpromezu bi agertu dira: espresaera, askatasuna eta partiduari dioten fideltasunaren artean erdibiturik dute surrealistek bihotza, Marx eta Rimbaud-en artean zatiturik. Gainea, Maiakovski-k bere buruaz beste egin zuenean, garbi azaldu zuen, idatzi den moduan, ezinezkoa zela bietara fidel jarraitzea, eta aukeratu egin behar zela.

El suicidio de Mayakosky en 1930 acabó con el intento del poeta de reconciliar el futurismo internacional con el servicio al Partido Comunista. (Hamburger, 1991, 170)

Lehen momentuan, surrealismoak balio dio Izagirreri errealismo sozialistaren hizkuntzarekin eten eta iraultzaren alde egiten jarraitzeko. Beste aldetik, Joxe Azurmendiren *Errealismo sozialistaz* liburuan (1978) erakusten zen gauza bat zela idazlearen askatasuna eta beste bat aparatuen helburua.

Surrealistek ere zuzen-zuzenean ezagutu zuten gizaki-artearen eta giza-artearen arteko kontrajarpena, irudimenean oinarrituko arteak klaserik gabeko gizarte batean ari zen pentsatzen, eta surrealisten konpromezu joeran Marx-ek baino gehiago agintzen zuten anarkistek, eta Fourierrek. (Chenieux-Gendron, 1984, 264-282).

Izagirreren poesian aro bi markatu ahal baditugu, lehena 1976-1978, *Itsaso ahanzia*, *Oinaze zaharrera* argitaratzen duen aroa, *Guardasola ahanzia* delarik estetika honen parodia, eta bigarrena 1989koa *Balizko erroten erresuman* lanarekin (eta argitaratzeaz omen duen *Maitasunak ez du amorerik ematenekin*, agian), ez da berdin gertatzen literatura eta pentsakizunaren arloekin, poesian isilik iraun duen hamar urte famatuok, literaturaz eta proiektuz beterik egon direlako. Bere hitzak erabiltzearen transizioko garaiak izan dira 1980 urteko ondorengoak, eta poetak ikonoklasta izatetik kontestatario izatera pasa ziren. Eta garapena ez da hor amaitu. Gutxienez, eta erabatekoa da banaketa hau, aro hauek izan beharko genituzke Izagirreren eboluzioan: *Ustelaren* aroa, eta hor kokatuko liriateke lehen poema liburuak, *Oh Euzkadiren* aroa, *Mendekuak* argitaratu zueneko eta *Balizko erroten erresumakoa*. *Ustela* eta *Oh Euzkadiren* tarteko banaketa honela azaldu du:

[Ustelaz ari dela] Eten bat bai, bazegoen eten bat, tira, errebeldia jubelnil izpi bat. Uste dut benetako aldizkari literario bat zela, lehendabiziko aldiz, manifestu eta guzti. Gero “Oh! Euzkadi” atera genuen ... Literaturaren presentzia inportantea izateaz gainera, eritzi artikulua —eta, artikulua politikoak— sartzen hasi ginen ... Uste dut oso eboluzio positiboa izan zela literatura hutsetik literaturaz mintzatzera ere pasatzea, eta, apaizkeria barka, gizarte-auziaz. (Mendiguren-Landa, 1987, 47)

*Oh Euzkadikoa* beraz, gizarte-auziaz mintzo den aroa ere bada. Ikonoklasta izatetik kontestatario izatera igarotzeko unea, baina garapena ez da

eten eta 1981. urtean *Euskal lokuzioak*, herri aho tradizioan eginiko murgiltzearen ondoren, 1984. an *Euzkadi merezi zuten* nobela argitaratu du. Nobela horren estiloak tradizioetik jasotako uztari erantzun dio, aho lokuzioari lotua da, eta neurri baten konpakto eta hermetikoa, zaila, esan ohi den bezala. Ondoren, 1987tik aurrera, eta artean GALekoa gertatu da, *Mendekuak* agertu du. Izenondokoak ugaritu egiten dira. Ez da literatura kontestatarioa orain, politikoa da (Mendiguren-Landa, 1987), erresistentziaren aldekoa, poesia beligerantea (1989), erresistentzia mota insobornablea (1989), bindikantea (1989)... Guztiak dira garapen honen mugarriak.

Tartean badago behin eta berriro errepikatzen den ideia bat, edo hobe bi. Batak pertsonaz hitz egin du:

Nire formazio politikoa ezkerrokoa da, ez da oraingoa, ni horretan hazitakoa naiz. Nire literaturan influentzia literarioek haina eragina dute nire herriaren egoerak. (Urzelai, 1989)

besteak poetaz:

Poeten eta literatoen bihotza, nire ustez, beti egon delako mediokritatearen eta faltsukeriaren kontra. Bihotz zabala dutenez mundu garbiago eta aberatsagoak amesten dituzte. (Izagirre, 1993, a)

*Argiaren urtekarian* idatzitako “Liliput debekatuak” mediokritate eta faltsukeriaren katalogoa ere bada, gizatasunaren aldekoa ere omen delarik (Ubeda, 1995, 33).

Errealitatea inposaketa dela uste duenak, badu zertaz kexa, euskaldungoaren barnean eraketa administratiboa egin denean, eta gainera GALeko erasoaldiak gertatu direnean.

Baina, ikonoklasta izatetik beligerante izaterainoko tartea ez da bat-batekoa izan, nahiz eta hamar urteko isilaldia gertatu tartean (isilaldi izan ez dena). Bada testu bat, nahiko ahaztuxea, eboluzioaren adibide dena, Alex Azkueren *Poemak* (1981) liburuari jarritako “Sarrerakoa”:

Euzkadi esan zen eguna eta Euskadi ta Askatasuna esan zena, egun mirakulosak izan ziren euskal populuaren historiarentzat. Baita literatura-erentzat ere: Lizardi, Aresti. Hil zen Lizardi, faszioak suntsitu gintuen. Hil Aresti, erreforma batek konortegabetu. Politikaren eskutik bailebiltzan, estropozoka dabilta kulturaren arlo guztiak. (Izagirre, 1981, 7)

Arestiren errebindikapenerako garrantzizkoa den testu horrek azaldu digu Koldo Izagirreraren pentsakizunaren bidea. Horrela tradizio baten berreskurapen-lanak egingo ditu Aresti eta Monzonen lan guztiak bultzatuz edo bilduz, Castelao eta Novoneyra itzuliz, Salvat Papasseit-en irudia bindikatuz. Erradikalagoak dira ondoren bideak, eta *Euzkadi merezi zuten* kolokan geraturiko lana izan bazen (“zailtasuna izan daiteke”, 1984, “nobela erratutzat jo-

tzen diat”, 1987, eta bai eta ere erreferentziak indartuz eta argituz. Alex Azkueri egindako sarrera hartan tesi bat bota zuen irmoki:

Independentzia eta Sozialismoa esan zen eguna ere mirakulosoan izan arren, ez da azaldu egun berri horri legokiokeen literatura berriz, oraino. (1981, 7)

Agian, aurrerako lanek hutsunea betetzera datozenak dira.

*Mendekuak* lanak era garbiago batez lotzen du literatura eta konpromezua Izagirreraren lanean.

Nere nobela *Euskadi merezi zuten (sic)* nobela erratutzat jotzen diat ... jendeak gauza zailtzat hartu dik eta ez nian bigarrenez bekatu hori aurpegi- ziezadaten nahi eta askoz ere estilo samurrago batetan egin zetiari ipui- nok. Gainera liburu honetan tratatu ditudan gaiek ere horretara behartu nautek. (Agirre, 1987)

Koldo Izagirrek garbi azaldu du zein den ipuin-bildumaren mezua:

Maiz jestu batzuk baizik ez dituk, boterearen aurrean mendekoek egi- ten dituzten mendekuak. (Agirre, 1987)

Hitz hauek esan (edo argitaratu, barka!) orduko, Mikel Antzak esaten zuen: “biolentzia izan dut ipuion isurgai” (*Hemen*, 1987-XI-27). Erresein- atzaile anonimo batek honela idatzi zuen, honela mugatu zuen liburuko gaia:

Zapalduak zapaltzailearen aurrean erabiltzen dituen mendekuak dituz- te gai bezala. Mendeku horiek jestu txikiak dira, erresistentzia jestuak eta detaile txikietan manifestatzen dira. (XX, 1987)

Esaldi hori aurreko titular batetik dator: “jestoak amorrazioaren ispilu” (Agirre, 1987). *Mendekuak* literatura politikoa deitu zioten Josu Landak eta Xabier Mendigurenek. Eta galdera hari erantzunez honela mintzatu zen Koldo Izagirre:

Zer gai daude hemen tabu gaur egungo errealitate politikoa? Santi Brouarden hilketa, gaur ditu hiru urte hain zuzen, hori gai tabua da. GAL-en trama polizialak, eta monarkia. (Mendiguren-Landa, 1987)

Giro historikoa aldatu da, eta sozialismoaren garaiari badira Euskal Herri honetan “Euskadi ta Askatasuna esan zen eguna mirakulosoan izan zela esaten dutenak”, “ETA da gure historiari duen daturik inportanteena” beste batzuk errepikatu duten moduan. Beste batzuek, aldiz, demokraziaren etorrera dela garrantzizkoena manifestako dute. Tartean *Mendekuak*en kontatzen diren mendekuek etsaien aurrean lortzen diren garaipenak transkribitzen dizkigute, erresistentziaren edertasuna behin eta berriro aipatuz. 1987ko elkarrizketa hartan tonua aldatu egin da.

Garapen honen bukaera, konpromezu literaturaren ildotik, *Balizko...* liburuan gertatuko da. Ez soilik hor, ez, baina liburuan garbi isladatu du bere barne sentikera:

Poetak, pertsonalki, beste gauza batzu, barrukoagoak, kontradizioak —kolektiboak eta pertsonalak— indibidualitatea eta bere herriarekiko elkartasuna modu lazgarri batetan bizi du edo bizi dut nik behintzat. (Urzelai, 1989)

Bere poesiak ere jasan duen lazgarritasuna aipatu du 1987-1989 urteen artean Koldo Izagirrek. Modu bitara aipatu ere. Alde batetik isiltasunaren gaia aipatuz, esan nahi du ez duela poesiari argitaratu aspaldian errepikatuz:

Literaturarik egin gabe ere egon naiz puska bat, baina bai, eman dezagun, hala dela, desintoxikazioa. (Mendiguren-Landa, 1987)

Poesian nahigo dut idatzi gabe aguantatu, idazteari ekin baino, ze poesia idazterakoan ezin dut planteatu tripetatik ez bada. (Urzelai, 1989)

Hamar urte pasa ditut poesia irakurtzen, alegia, poesiarekikoa irakurriz bakarrik egiten ... Batek baina gehiagok eskertuko zuen noski. Agortea, etsipena ... eta zergatik ez errespetoa. (Arrese-Landa, 1989)

Bestetik, autokritika dago, edo hobeto esan, lehenago deskribitu zuen poesia surrealista xume hari kritika eginaz. Iritziak alde bi ditu, lehenean aipatzen da gazteen poesia ona dela, baina gero esateko ez duela kalitaterik, arimarik gabekoa dela:

Nik gaurko poeta gazte batzuen lanekin, halako amorrua hartzen dut ikusten dudanean orduko zenbait estrukturarekin dabiltzala bueltaka. Nahiz eta hobeagoak izan, eta brilanteagoak eta kalitate hobeagokoak izan, motibo literario berdintsuen inguruan dabiltzala ikusteak halako amorrua alde batetik eta pena bestetik ematen dit. Halako surrealismo minuskulo eta domestikatu hori. (Mendiguren-Landa, 1987, 46)

Uste dut tinta zuriz idazten dela askotan geurean, kontrasterik gabe, konstatazio hutsean eta irakurtzen dugunaren zati handi bat idatzia ez balego bezala zaigula ... Zuria, euskaraz, alferkeriaren eta faltsukeriaren kolorea da. (Arrese-Landa, 1989)

Koldo Izagirreren iritzi honek fortuna izan du, zeren poeta sinbolisten hizkeraren aurka hitz egin du Iñigo Aranbarrik, fotokopiagailuak dituztela bihotzaren orde esanaz. Agian, iritziaren joera epigonala besterik ez da Mendiguren Elizegik poesiaz erakutsi duen despiste lotsagarria. Baina hartara itzuliz, Izagirrek banaketa egin du kalitate literarioaren eta espresio ahalmenaren artean. Ohartu du poesian publikatzen denak baduela espresio ahalmena, baina errepikatu egiten dela dio, Espainian famatua egin den izenondoa erabil-tze arren, “klonikoa” dela (fotokopiaren metafora berriro bueltaka). Baina literatura beste zerbait da: sufritzen jakitea, edo sufrimenduari bat egitea:

...herri baten nahia ederki espresatu. (Ubeda, 1995, 32)

Aranbarrik “zintasan” deituko duena eta Salvat-Papasseit: “la sinceritá i la capacitat de fustigaci6”.

Badakit sufrimentua ez dela aski sorkuntza egiteko ... baina sakonean arrazoi gutxi dago epe laburrean alaitsu ibiltzeko. Baina, tira, sufritzen jakitea, jakinduria da ... Erresistentzia mota insobornablea. Literatura optimista egitea, hemen eta orain, inmorala da. (Arrese-Landa, 1989, 50)

Hamar urteko isilaldi hori ez da, lehen ere esan dugu, isilik igaro, pentsakizun bat mamitu da, eta, gainera, hausnarketarako bide gisa izan dela aitortu du.

Gero eta gogorragoa den joerak bukatu du “El puente de Roma” deituriko hitzaldian, non ironiaren bidez, demokrazia liberalak dituen akatsak azaltzen baitiren. Bata, gehiengoaren izenean euskal izaera bazterten omen da. Koldo Izagirrek, katalan eta galiziarren aurrean irakurtzekoa zen testu honetan euskalduntasunaren defentsa sutua egin du, herria zerbait monolitikoa balitz bezala, kualitate berdinez hornituriko gorpuzkia.

Joera politikoak, estetikoak baino gehiago agian, agertu ditu Izagirrek Ubeda-ri 1995. urtean eskeinitako elkarrizketan. Kubari eta Fidel Castro-ri buruz ari dira. Eta ironiaz orain ere, idealizazioaz eta mitifikazioaz haratago dagoen lurralde baten margoz eskaini digu. Aspaldikoa da euskal nazionalismoan Euskal Herria beste zenbait lurralderekin erkatzeko eta parekatzeko joera. Azken urteotako ereduak Palestina eta Kuba dira.

Kuba leku mitikoa izan da niretzat ... Espainiaren menpe egondako herria dugu. Euskaldunontzat, beraz, erreferentzia puntua izan da beti Kuba. Hala, erromantizismo batetik ikusi izan dut. (Ubeda, 1995, 2)

Hala ere, Izagirrek badaki bere iritzia ironiaz estaltzen:

Interesgarria da, beti ere, mitoak bertatik bertara ezagutzea. Hain zuzen, idealizatutako hori desmitifikatzeko. Bertatik ezagutzeko aukera izan dudanez geroztik, esan nezake Kubak niretzat mito izaten jarraitzen duela. Alegia, ez daukat idealizatua baina lehen baino ederragoa iruditzen zait. (Ubeda, 1995, 29)

Dudarik ez da ezkertiar jokera horretatik, Izagirrek gai bi jarriko ditu estetika bidean. Bata da gartzelatuen gaia; 1987an hitz egin zuen herri honen “heroe positiboez”. Ondoren, eta ez dakit Maiakovski-ren “Zaflada gustu onari” manifestuak zerikusiren bat izan ote duenez kontu honetan, gartzelatuen gaia sarriago agertzen da hitz laxoan. Balizkotasunaren bila abiatutakoen barnean sartzen ditu Izagirrek.

1987an hitz egin zuen gaztaroaren krisialdiaz, eta beharrezko ikusi zuela hausnarketan sartzea, poesia “arrunt” eta ongi moldatuaren aurka:

Uste dut momentu batean kortea eman beharra dagoela, erreflesionatu eta gauza sendoagoak egin eta pentsatzen dut zuk aipatzen duzun aro hori gaztetasuneko krisi hau izango zela. (Mendiguren-Landa, 1987, 47)

Ondoren, moldatuko abanguardiarako poesia, garrasi den poesia, Iñigo Aranbarrik teorizatuko duen moduan, futuristei jarraituz. Poesia aldatzailearen marrak agertuko ditu.

Poesia berez da belijerantea, lokartzera, bizirik hiltzera, daramaten estatus guztien aurka. Inguratuak giaudek. (Arrese-Landa, 1989)

Poesia berri, agian epiko, horren ezaugarriak lirateke, balizkotasunaren alde egin, utopian sinestu eta gizarteak “eratu” duenaren aurka altxatu.

Hitz poetiko horren bila, gartzelatuek badute zerikusirik. Zentzu sozialean, eta zentzu poetikoan. Zentzu sozialean heroeak direlako, eliteak. Zentzu poetikoan, ordea, isilik geratzeko arriskua bizi omen dutelako; ahazmenaren aldean geratuz:

Gartzelaren isiltasuna da momentu honetan pairatzen dutena presoek. (Urzelai, 1989)

Baina isiltasun hori, Urzelairen artikuluan beste esanahia eman bazaio ere, eten egin da gartzelako poesiaren bidez: *Intxaur azal baten barruan*, 1983, Sarrionandiaren *Marinel zaharrak* (1987) eta *Gartzelako poemak* (1992), (*Marginalia*, ahaztu gabe, noski). Horiek goraiapatuko ditu “Mudos blues de la nada” artikuluan.

Y tenemos también los poetas que luchan, también poéticamente, por una Irlanda reunificada, socialista y gaélica, y están los poetas encarcelados. Son más de quinientos. Algunos de ellos escriben. (1991, 29)

Aipagarria da testuan egiten den lotura: poeta izateko ez da beharrezko idaztea, poesia, azken batean, bizitzan, horien bizitzan ikusten du Izagirrek. Gartzelako poesiaz *Susak* ere oratu zuen zenbaki berezia eta gaiak balioko dio Iñigo Aranbarriri “Hire ahotsaren balusari” (Maiakovski-ren bertso batetik hartua dena) hitzaldian erraietatik irteneko poesia idazteko.

Bide honetatik Koldo Izagirrek probokazioa maite duen poesia aldarrikatu du:

Literaturtasunaren bindikapena izatea nahi nuke, Balizkotasunak bakarrik eragin dezakeen probokazioa. (Arrese-Landa, 1995)

Egokitua, ondua dagoen guztiaren aurka joanaz, indarrez oraturiko poesiaren bidez, Koldo Izagirrek: “Sugearen zuhurtzia” erabiltzea proposatu du.

Eta hor aurkituko genuke bere poetikaren bigarren aldea: ironia. Elkarrizketetan ez da askorik erabiltzen gaia, baina aipatzen den bakoitzean garrantziz agertu da:

Ironia gero eta gehiago praktikatu beharreko arma da.

deitu zioten bere elkarrizketari Mendigurenek eta Landak (1987). Testuan luzeago mintzatzen da honetaz:

Nik uste dut ironiak geroz eta gehiago balio digula, ze distantzia sortzen duen arma baita ironia eta praktikatu behar genuke bai gure buruarekiko zein besteenarekiko. Errealismo antzu batean ez erortzeko balio dezake. (Mendiguren-Landa, 1987, 45)

Ironiak distantzia dakar, gauzak urrutitik ikusteko, umorea tresna da abanguardian jarraitzeko, eta probokazio ahalmena indartzeko, hitz jokoa asmatzeko... Jakina da surrealisten umore beltzarekin lotura estua izan zutela. Frustazioan eta kinkan larrian bizi den Izagirrek ironia behar du “beste aldea” eraikitzeko.

Planteamendu politiko nazional bat aurrera ezin eramanagatik eta frustazioaren ondorio, tenplea galdu eta biktimismo eta gorrotoa sortuko ez ote diren beldur naiz. Sugearen zuhurtzia behar dugula uste dut. (Ubeda, 1995, 33)

Ironia, halaber, ezezkortasunean ez jausteko. Hamar urteko isiltasunaren ondorioz, krisialdi, gorpuzketa ideologiko baten ostean, Izagirrek esperimentalismo poetikotik abanguardiarako pausua eman du. Abanguardiarene ezau-garriak Eco-rengandik (1988, 103) hartzen ditut:

- activismo: entusiasmo, fascinación por la aventura, gratuidad de los fines;
- antagonismo: se actúa contra algo o contra alguien;
- nihilismo: ningún escrúpulo al derribar los obstáculos tradicionales, desprecio de los valores corrientes;
- culto a la juventud;
- ludismo: arte como juego;
- agonismo: en el sentido del carácter agónico del holocausto, capacidad de suicidio en el momento debido, gusto por la propia catástrofe;
- revolucionarismo y terrorismo (en sentido cultural);
- autopropaganda: imposición violenta y “autopublicitaria” de su modelo como único;
- predominio de la poética sobre la obra.

Guzti horrek, zehaztasun batekin edo bestearekin ikus ditzakegu Izagirrek, bere buruarekiko fidelotasun eta errigorrearekin aurrera eraman du bere poetikan. Ez da larregizkoa, beraz, etorkizunari buruz iritzi apokaliptikoa izatea:



Aro bortitz batek heldu beharko luke. Tabula rasa egingo lukeen zera bat. (Ubeda, 1995)

Baina zera hori baletor ere poema liburuek iraun egingo dutelakotan gaude, eta Izagirrerena irakurtzen hasteko unea heldu zaigu.

## 2. Esperimentalismoa

Koldo Izagirrek argitaratu zituen lehen liburu biak mugimendu estetiko beraren pean sorturikoak dira. Bietan agertzen da estilo bera, surrealismo hitzarekin, edo surrealismo xume deituz definitu izan dena. Bere buruaz edo besteen liburuak aipatuz, Koldo Izagirrek adierazi du zeintzuk izan ziren Aresti zen idazle erraldoiaren ondoren, ttikitasunean mugitu zirenen ezaugarriak:

Aresti ondoko belaunaldiaren ezaugarrietako bat gai zehatzeko poemak ez egitea da. Ez du gai bat hartu eta haren inguruko bariazioak edo metaforak landuko. Idazkera automatikora heldu gabe baina, etorria laxo utziko du, anti-intelektuala du jarrera poemagintzan, eta helburua edertasuna du, ez didaktismoa. Ez du poema ideien garapenez sortzen, bere poesia ez da diskurtsiboa. Nahiago du irudiaren indarra mezuaren zehaztasuna baino ... Antikontzeptuala ere badela esan genezake. Errepikazioa eta leloa utzirik, bestelako erritmoak bilatuko ditu, esaldiari berari lotuagoak, poemari baino. (1993, b, 63)

Itzuliko gara behin baino gehiagotan deskripzio horretara, baina orain garrantziko duguna poesia horren moldeaz jabetzea da: poema txikiak idazten dute garaikoez bertso lerro laburrez, irudian oinarritutakoak dira gehiengotan, arlo semantiko desberdinen arteko loturari eutsiz, surrealismoa baino gehiago surrealismoak asmatu zuen hitzen eta irudien arteko jokoan oinarritu da, poemaren erritmoaren euskarria esaldiaren etorrian oinarritu ohi dute, poema liburuak ongi moldatu eta pentsatuak eskaintzen badira ere, zenbaite-tan.

Egia da, bestalde, subjektibitatearen aldarrikatzea gertatu ohi dela, eta honek ondorio bi dituela: lehena, gai politikoetatik urruntzea dakar, literatura militantea alboratzea; erotismoari eta desioari tokia eman zaiela, bestetik, poeta bakoitzak bere sinboloak lantzen ditu, eta testu guztian zehar argitzen da sinbolo bakoitzaren esanahia. Adibidez, Koldo Izagirrerena lehen poema hauetan itsasoak eta euriak osatu dute sinbolismo ardatzik nagusia.

Subjektibitatearen bidea izan zen Xabier Letek *Itsaso ahantzia*n ikusi zuen daturik aipagarriena:

Intimismoa zerbait da; barnekoitasun hori “egiazkoago” eta era berean “apalago” liteken zerbaiten adierazpen balitz bezala. Badirudi gure poetok,

gazteok batez ere (paradoja ote?) egia orokor, mundu sozialaren ulermen eta gainerako helburu “konbatiboz” xpertuxe bezela agertzen zaizkigula, beste mailla pertsonal, barnekoi, barnekoi eta apalagoan beren poesiaren funtsa aurki nahi balute bezela ... istillu guztietatik bazter egoteko preten-  
sio gisako bat. (Lete, 1976)

*Itsaso ahantzian* jorratu duen gaiak zerikusi handia du guzti horrekin: barnekoitasunean egindako esplorazioa da, bakardadetik maitasunera. Hari baten inguruan moldatua, kontraesanetan bete du Izagirrek liburuaren puzzlea. Zati ttikiez oraturiko nortasuna da agerian agertzen dena, eta garapena ere bai, triste, ilun den hasierako egoera batetik, lagundua den egoera batera. Testuaren lehen poemetan itsasoa eta euria bakardadearekin lotzen ditu idazleak.

...zuek ez dakizue zer den  
euria

zuek ez dakizue zer den  
bakarrik egotea  
bakarrik  
bakardaderik ere gabe... (I aldeko, 5. poema)

Giro honetan poetaren ahotsak ezin du itsasora hitzez bete:

...itsaso ahantziaren  
kresala  
hitzok beteko balute... (I aldeko, 1. poema)

Poemategiko azken testuan maitaleen arteko loturak lortzen du itsasoa isilaraztea.

...zeure bularrek entzun diezaieten  
bion arteko itsasoa  
erosionatzen... (IV aldea, 12. poema)

Lortu duten moduan euria atertzea:

...zergatik ez du egun euririk egiten...

bakardadea nagusitzen zen artean, itsasoa ateraino heltzen zela konstatatzen den moduan:

...eta gure ateondorainoko itsasoak  
isilik dirau...

Kontrajarpenak bilduriko esanahi honek bere ispilua du testuaren egitura-ketan. Poema gehienak eskubiko orrialdean agertu dira ezkerrekoa hutsik eta zuri utzi delarik, hiru poema izan ezik; hiru horiek ezker aldean agertu dira eta nolabait testua lau ataletan banandu dute. Bi, lehena eta azkena, gorago

aipatu ditugunak dira. Tartekoa luzeagoa da. Hiru poemok ez dute soilik funtzio egiturala betetzen. Funtzio semantikoa ere badute, ikusi dugunez, itsasoa isiltasunarekin lotzen baita, eta aterri izatea maitasun eta espresio poetikoarekin. Tartekoak, ordea,

...poetaren pena epela...

aipatzen du, pena, isilaren eta ahotsaren bitartekari balitz legez.

*Itsaso ahantziak*, beraz, irakurketa honen arabera, istorio pertsonal eta barnekoia kontatuko luke. Horrela ulertu zuen Xabier Letek ere:

Hitz urratuen joskera da Izagirrerena, itxuraz. Zatika zatika gauzak esango balitu bezela, bere barne-munduaren “puzzle”a ordenan jartzea egitura razional batetan baino gehiago arrazoi-peko datoetan funtsa nahi balu bezela.

Badu Izagirreraren poesiak, surrealisten kutsadura onuragarriak, osotasun itxuraz inkoerente baiña sakoenean osoagotik ibilliz asmatzen baititu bere erlazio eta inter-erlazioak. (Lete, 1976)

Alderantziz, Bernardo Atxagak askoz ere interpretazio mitikoagoa eman zuen liburuaren atzeko azalean:

Poema hauen mundua ixila da, eta mundu horretan itsaso latz eta erraldoiak errege mutu bat dirudi. Lurra, babesa, minimoa da, Liliput espiritual bati dagokiona.

Maitasunean, kanpo-alde etsai baten aurka, babesa lortzen duenaren historia bada ere hau, berriro egongo ginateke planteamendu subjektiboan. Berritasuna, baina, hizkeraren tratamendutik datorkio testuari. Irudimenaren froga da hemen agertu zaiguna. Batzuetan metaforaren pilaketaz sorturikoa, edo errepikazio baten ardatzan:

...zure adatsak  
haizearen zainak  
zure kopeta  
euriaren frontoia...

horregatik, surrealismoaren eragina, eragin xumea, ukaezina bada ere, irudimenaren jokoek garbi uzten dute logika-sokaren irmotasuna. Ultraismo eta kreazionismoaren artean mugitzen da zenbait pasartetan testua:

No es fácil definir el ultraismo, ni separarlo del creacionismo y del futurismo ... Frente al ultraismo (de base futurista), el creacionismo opera sobre supuestos cubistas. Comparten, eso sí, el rechazo de la mimesis realista, su obsesión por la imagen fragmentada, el culto al dinamismo (cine, deportes), las técnicas de disposición tipográfica más o menos caligráficas, etc. Pero el ultraismo es más retórico, externo y limitado ... Por el contrario el creacionismo se basa en una materia prima más mol-

deable y rica, la de las imágenes. (A. Sánchez Vidal, in Albadalejo, 1992, 18)

Halaz ere, gogoratu nahi nuke atalen kontua hemen. Liburuak lau atal ditu, eta azkena liburuko baikorrena bada, erdialdean espresio poetikoak barne-errealitate mingotsak aipatzen dituenen joera espresionistak eta latzak garbiago agertuko ditu. Amildegia baten deskribapena egin du poetak erdialde horretan, hurrengo libururako bidea zabalduko duen pasabidea hain zuzen:

...ene ezpain apurtuen  
amildegira  
asomatuko bazina ikusiko zenuke ikusi  
ametsak bakarrik lotzen gaituztela  
beren betazal itzalien pean  
harrien oroimena betikoa duzu.

“Oinazearen hats jelatuan” agertuko du Izagirrek sentipen latzaren agerpena. Oinaze hitza eta “Oinaze zaharrera” liburuko sentipen nagusia aurreneko horretan aurreikusi du Izagirrek. *Itsaso ahantzia*n agertu baita esaldi hau:

...hildakoen oroimenenak bakarrik biziko zara  
eguzkirik gabeko itzaletan.

gerora bigarren liburuan antzera agertuko dena bien arteko zubia eraikiz:

...hildakoen oroimenez  
eta gorrotontzietan ahantzirik ito ziren itsasoengatik...

*Oinaze zaharrera* liburuan tipografiak agindu du. Ezker eta eskuinaldeko poemek joera desberdina dute: ezkerrekoak ezkerrean tabulatu dira eta eskuinekoak eskuinean; letra tipoa ere desberdina da. Eta forma beste zerbaiten ispilu den bezala, modua eta gaia ere desberdinak dituzte.

Ezkerraldeko poemak giro hiritarrean kokatuak daude, inpresio soilak dira, eguneroko bizitzarekin lotuak, arruntak:

...trolebuseko gidariarekin hizketan diharduten zoroak...

eta, bigarren pertsona bati zuzendutakoak, edo zati txikiak:

...tik  
ihes egin behar izan dut  
2.000 kilometrotatik eginiko telefonotsa baino maitatzenago zaitut  
baina...

Eskuin aldekoek, berriz, herri baten garrasia erakusten dute, inguruaren arduraz sentitukoaren adierazpen espresionista.

...hildakoen oroimenez,  
zergatik dauden preso gizonak  
kaiak kolpeka hautsi nahi dituzten izen detentiuak...

Errealitateko elementuekin ametseko giroa sortu du poetak eta irudi aske-  
en bidez, oroimenaren eta ametsaren artean bizi den herri baten agerpena egin  
nahi luke:

...bakardade osoko gerotasun biluzia  
itsastasuna errebindikatzera kondenatutako itsaso ahantzia  
zu  
nire herrigaia...

Herrigai horren bizitza eta penak adierazi ditu poetak flashen eta hizkun-  
tza ilun baten bidez. Poetak, oinaze zaharrera egiten duen bidaian, hizkuntza  
bat behar baitu: “haragi ikaratuaren hizkuntza”, hilobiratuen berri emateko.

Oinaze zaharrera liburuko joera politikoa azaldu bada ere, experimentalis-  
mo fasean aurkitu du bere burua Koldo Izagirrek: abanguardiako hizkuntza  
darabil, harekin esperimentatu egin du. Ecorengandik hartuko dut esperimenta-  
lismo eta abanguardiaren arteko kontzeptu-banaketa.

El experimentalismo tiende a una provocación interna a la historia de  
una determinada institución literaria ..., mientras que la vanguardia tiende  
a una provocación externa, es decir, que quiere que la sociedad en su con-  
junto reconozca su propuesta. (Eco, 1988, 104)

Izagirreren bidea experimentalismotik abanguardiara doa, tartean baino,  
experimentalismoaren parodia egin du *Guardasola ahantzian*, eta praxian eta  
teorian sakonketa ederra Ustela saila kalera ateraz eta *Oh Euzkadi* hausnar-  
keta bide eraikiz.

### 3. Parodia

*Guardasol ahantzia* liburuaren joera parodikoa izenburuan bertan agertu  
da, Itsaso haren *remakea* balitz bezala. Antipoema deitu zuen Ramon  
Etxezarretak eta Koldo Izagirrek hauxe idatzi du:

Durante los primeros años ochenta ... muchos poetas jóvenes cayeron  
en la enfermedad senil de la antipoesía, al estilo de Nicanor Parra, con unas  
gotas de deliberado feísmo. Uno no es ajeno a la propagación de esta moda,  
por lo que mea culpa. (1991, 17)

Harold Bloom donostiar apala balitz bezala, poetak Donostiako kaleak  
korritzen ditu guardasol ahaztuaren bila, geografia onirikoa sortuz, eta bere  
barnean munduaren ikuspegia lotuz. Poema berean gogoratzen denez, guar-  
dasola surrealisten ikur nagusia da, eta Joyceren bakarriketaren teknika

jarraituz, idazkera automatikotik hurbil, Izagirrek ibilbide laberintikoa oratu du, poesian denak balio duela adieraziz:

Obra honen eta antipoemaren beraren naturaren printzipioa zera da, poesian dena balekoa dela adieraztea, guztiak balio duela, dena esan daitekeela ... toki jakin batetan kokatzen den gizon baten esperientzia errealari eta eguneroko hizkuntza bati lotuz, (1978, 134)

Guardasolaren inguruko paseoa historiko eta linguistiko honek arrunke-riaren poesia egin nahi luke: historia eta kulturako adibideak hartuz, poetaren gomutak aipatuz, izenen joko etengabea, ironiaren tokietan. Bada Josu Landak poemari buruz eginiko azterketa (Landa, 1979) eta bertan iluntasuna (lotura askatuko joko) eta arruntkeria aipatzen ditu ezaugarri nagusi gisa. Poemaren hausdura-gogoia jartzen du lehen mailan futurismo pean ikusten duen poema honetan.

#### 4. Balizkotasuna

Michael Hamburger-ek bere poesia modernoaren historian (1991), poesia sinbolista eta poesia politikoaren arteko banaketa poesia modernoak XX. mendean bizi duen tentsiorik handienetakoa dela idatzi du. Tentsio horren barnean murgildurik ikusi du bere burua Koldo Izagirrek. *Guardasola ahanztzia* argitaratu ondoren, poesiarik argitaratu gabe hamar urte egin ditu poetak. *Balizko erroten erresuma* 1989. urtean argitaratu duenean bestelakoa da estetika, artean Maiakovski-ren *Poemak* argitaratu du 1993. urtean eta itzulpen honek, nik uste, futurismo errusiarraren eraginak ikaragarri markatuko du testua.

Hamar urteko isilaldiaren arrazoiak behin baino gehiagotan azaldu ditu Izagirrek. Alde batetik, krisi pertsonal baten zioak aurki ditzakegu portaera horretan, gaztetasunaren aroa igaro izan balu bezala.

Uste dut momentu batean kortea eman beharra dagoela, erreflesionatu eta gauza sendoagoak egin eta pentsatzen dut zuk aipatzen duzun aro hori gaztetasuneko krisi hau izango zela. (Mendiguren-Landa, 1987, 47)

Agortea, etsipena ... eta zergatik ez errespetoa? Idazteari berari eta irakurleari. (Arrese-Landa, 1989, 49)

Baina, badira alde estetikoak ere, giroan eta aldiaren egiten ez denarekin akort ez egotea, inguruan antzeko gauzak berdin antzera ikusi izana:

Nik gaurko poeta gazte batzuen lanekin, halako amorrua hartzen dut ikusten dudanean orduko zenbait estrukturarekin dabiltzala bueltaka ... Halako surrealismo minuskulo eta domestikatu hori ... surrealismoaren zentzurik baxuenean, hau da literarioenean. (Mendiguren-Landa, 1987, 46)

Surrealismoa eta abanguardia guztiak ez dira literatura geldiak. Abanguardia bizitzan aurkitu du bere tokia, arte eratuaren aurka joateko. Abiapuntu hau hartu du Koldo Izagirrek ere arte eratuaren aurka joz, poetikan ikusi dugun bezala, literatura eta espresio literario kontzeptuak bananduz. Hau da, ele ederrak ez du literatura ziurtatzen, literatura egiteko sakoneko beste zerbait eskatzen du Koldo Izagirrek: barne biluztasuna, probokazio eragina, ezinegonaren ahalmena, kontraesanen agerpena, historia latzaren joera.

Kalitate literarioa eta espresio ahalmena bi gauza dira ... Poesian, esate baterako, eta prosan ere bai, botere espresiboa galdu egin da asko, kalitate literarioa ikaragarri hobetu bada ere. (Ubeda, 1995, 32)

*Balizko erroten erresuma* liburua abanguardiaiko joera batetik sortu da. Baina bide hori aukeratu da, mugimendu horrek idazlearen ezinegona adierazten duelako. Poemategiaren erroan ezinegon pertsonala aurkitzen da. Beste zerbait izateko nahia:

Ez nazazuela utz euskararekin buruz buru  
Erdaldun nazazue  
Ahapetik bederen  
Inoizka bederen  
Erdaldun nazazue piska bat bederen. (BEE, 10)

Eta nahiz eta esaldian ironia egon, eta nahiz eta iritzi eratuaren aurka joateko modua izan, beste norbait izateko gogoia, historiari sortu ohi duen sufrikariotik irtetzeko joera behin eta berriro agertuko du:

Poetak, pertsonalki, beste gauza batzu barrukoagoak, kontradizioak, —kolektiboak eta pertsonalak—, indibidualitatea eta bere herriarekiko elkartasuna modu lazgarri batetan bizi du, edo bizi dut nik behintzat. (Urzelai, 1989)

Ez dakit, baina urradura batetan bizi garela uste dut: helburuak / ahalmenak, lorpenak / galerak, sorkuntza / presa... ez dago samurra gorrotorik gabe maitatzea, eta atzekoz aurrera. (Arrese-Landa, 1989, 50)

Urradura horrek eman dio hasiera poemategiari, eta baita ere testuan erabili den ironia mingotsari eta iritzi eratuaren aurka joate moduari, ohiko pentsatzen den horretan zirrikitua aurkitzeko erari, Mendigurenek (1993), “irakurleak espero ez duena ematea” deitzen duen hori, azken batean, herri kontzeptu monolitikoaren aurrean bide bihurriak aurkitzeko erari. Zaflada gustu onari, bai.

Urradura ez da soilik pertsonala, hori ere baden arren. Hausdura kolektiboa da batez ere eta iraun nahi eta joanaren arteko kezka sortua. Urradurak sufrikario dakar, eta sufrikarioa jakituri gisa (Arrese-Landa, 1989) deskribitu du Koldo Izagirrek, sufrikarioa adierazten duen poesia ere definitu duelarik:

...erresistentzia mota insobornablea...

Poesia berez da belijerantea lokartzera, bizirik hiltzera, daramaten status guztien aurka...

Literaturtasunaren bindikapena izatea nahi nuke, Balizkotasunak bakarrik eragin dezakeen probokazioa...

Poema liburuak ere aitortuko du:

Sufritzen dakigunak bakarrik bizi gara... (BEE, 49)

Balizkoaren, utopia baten aldeko apostua da liburua.

Manifestu bat dela idatzi duk hik, Josu [Landa]. Ez habil oker. Kanpaia joz, estricto sensu uler bedi, beleak uxatu eta usoak esnatzeko balio badu, pozik. (Arrese-Landa, 1989, 50)

Testuan zehar esaten bada ere

Erresuma honen izena ez da Utopia... (BEE, 47)

badirudi erresuma hitzak gaurko egoera adierazten duela eta balizkotasunak oraindik eraiki gabeko egoera bat agertu duela. Balizkotasunaren hainbat metafora agertu dira tarteka:

Balizko erroak Hartzko komunioak... (BEE, 47)

Balizko erroak Finisterrako faroak... (BEE, 48)

Balizko erroak Benazko derrotak... (BEE, 49)

“Atlas galgarria” saileko poemen bukaera bertsoak ditugu hauek. Ez dute balizkoa definitzen, bere han —urruneko— izaera adierazi dute hala ere. Poema guztiek jo dute egitura beretik. Hasieran egoeraren lazgarria agertu dute, eta bukaeran balizkotasunaren erreferentzia dator:

Ez duzu hauxe aberririk eztena  
Nekez loratzen dira esanak eletan eta beletan izan ezik

Ez dago erresuma honetara lekarkeen oinatzik

Sufritzen dakigunak bakarrik bizi gara  
hemen ez dago lekurik

Oinazeaz zientzia bat egin dutenentzat.

Hasierako egoerak dira, noski, bukaerakoen aurkako. Baina bada, utopiarren seinale, “Bihar” deituriko saila liburuan, eta hango poema batek ongi marrazten du balizkotasuna:

Urria izanen ez den oktobre bateko eguna izanen da bihar (BEE, 101).



Erraza izango ez den prozesu historikoan sartu da Koldo Izagirre. Eta poemategiaren bihotza den poema batean, honela deskribatuko du bere joera:

Nire ibaia ez dator itsasora  
Nire ibaia ez da ibai  
Bere buruaren txalupa  
Itsaso izan nahi luke  
Nire ibaia ez da ibai baina  
Nire ibaia ez dator iturrira... (BEE, 67)

Ez dago atzera egiterik, prozesu historikoaren barnean jarraituko du poetak balizkotasunaren bila.

Poemategia hitzaurre batez hasten da eta 40 poema ditu, Mendigurenen kontuetan.

Poemaren giltzak hitzaurrean (“Ateak itxian egindako hitzaurrea”) aurkitu eta deskribatu ditu Mendigurenek:

Hitzaurre-poema horretan bertan ageri dira, halaber, Izagirreraren azken aldiko idazlan guztietan eta bereziki bilduma honetan topatuko ditugun ezaugarri nagusietako batzuk: bere aurreko lanekiko aipamen eta erreferentzia ... beti paradoxekin jolastea, irakurleak espero ez duena ematea, harritzea, gauzen itxuratik harago joateko eskea, . . inongo lotsarik eta disimulorik gabe gure herri-izateaz, bizi nahi eta hiltzori luzean iraun beharraz jardutea ... Korrontearen kontra ibiltzea, ausart, jorratutako ildotik bezain urrun domina eta merituetatik ... eta, azkenik, ume zakar antza imitaezina, inoiz erdoiltzen ez zaion ironiaren ezpata zorrotza. (Mendiguren, 1993, 30)

Askotan errepikatuenez, poemategia izan zen poeta haren autokritikaz hasten da. Ahaztu dira surrealismo xumeak eta zerbait barrukoagoa bilatu da:

Ikasia behar hengoen hitzak ez lukeela hitzetan loratu behar. (BEE, 17)

Hitzen loratzea konstante nagusia izango da liburuan, hitzetan loratzea poesia estetizistaren sinboloa delarik eta haren ordeaz aldare bihurtuko diren loreak (BEE, 99) propasatuko dituelarik.

Liburu honetan hasiera horrek badu zerikusirik bukaerarekin (“Izan nintzen poeta hari azken mehatxua”), ziklotasuna propasatu izan balitzaigu bezala *Oinaze zaharrera* liburuan bezala.

“Errotarri zaharren oroitarria” Lauaxeta, Lizardi eta Arestiri egindako omenaldi kritikoak dira:

Ba nola edo hala, garai eta modu desberdinetan Balizkotasuna aldarrikatzen saiatu ziren errotarri zaharrak...

Haiek salbatu dute euskal literatura, eta Euskal Herri mololitikoa uste izana desmontatzen hasteko lanabesak, aitzakia hutsak nahi baduk, eman zizkiguten. (Arrese-Landa, 1989, 50)

tradizioarekin lotura egiteko aukeratu den bidea dira, azken batean. Pello Urzelaik egindako elkarrizketan garbiago geratu da sinbologia:

Arestik ezkertasuna, akonfesionalismoa, poesia libre eta euskal / erdal munduekiko hurbiltasun bat ... Lauaxeta (*sic*) molde berriak eta modernismoa. Lizardi (*sic*) euskararen beraren dinamika eta trinkotasuna. (1989)

Ez du kritika ahaztu baina, eta zehaztasunez aipatu ditu: Lauaxetari poesia sozial folklorikoa leporatu dio, Arestiri “egiaren defendatzaile eta automartir bilakatzea” eta Lizardiri “samurkeria, lirismo erreza, balore linguistikoak, formalak”. Zorrak kitatu ondoren, “Atlas galgarria”n aurrera joateko begirada eskaintzen du. “Oroitarrria” atzera egin den begirada bada, “Atlas galgarria”k etorkizunerako bidea erakusten du, edo etorkizuna, beste barik. Kontrajarpenez joango da liburu eratzeko sailez sail, eta “Urak dakarrena”ri “Urak ez dakarrena” kontrajarriko zaio: urak ekarritako oinazeari ez dakarren hitza eta aberria. “Tanta bat uretan” eta “Hiri lumatuak” testuko gune dira, poetaren borondatearen agerpen, egoeraren definizioa. Eta poesia eta konpromezuaren artean mogituz, Aresti gogora ekarriz, Izagirrek:

Bake hau beraien gerra bezain zikina da ...  
Hemen eskubidea ez baita bidezko... (BEE, 73)

azaldu du. “Hemen” eta “Han” sailek kontrajarpenera eratzeko dute, “Kanposantuko nuarbe” (heriotza, lehena) eta “Bihar” (utopia, geroa) egiten duten bezala.

Surrealismo literarioa uxatu egin da, esan digu idazleak. Zer dago baina, haren orde? Bi ezaugarri, esango nuke: sinbologia baten eraikuntza, futurismoaren aztarna, ezezkortasunaren eta borondatearen arteko kinka.

Garbiñe Ubedak egindako elkarrizketan badago esaldi bat liburu honen norabidea ederki azaldu duena:

Iparragirrek espresio ahalmen ikaragarria zuen. Literarioki ondo edo gaizki, herri baten nahia ederki espresatu zuen eta hori ukazina da. Arestik ere bazuen arte hori. (Ubeda, 1995, 32)

Zerbait aldatuz esan genezake espresio ahalmenez herri baten (herriaren zati baten?) nahia espresatu nahi izan dela liburu horretan. Eta hori egin dela sinbologia jakin bat eraikiz: balizko erroteraren erresumarena alegia. Arazoa da Euskal Herriaren izaera sinbolo alegoriko baten bidez adieraztea. Erdi sinbolo, erdi errealtatearekiko lotura. Sinboloaren asmakizuna dela eta Mendigurenek Salvatore Mitxelena (Euskal Herria iraun nahia da), Aresti (Euskal Herri harria da) eta Atxagaren (lur eremua) ildoan jartzen du (1993, 33).

Sinboloak, balizko errotrak, Kixotearen erreferentzia zuzen eta guzti, bada alde imaginarioa, bada errealtatearen agerpena, eta badu alde poetikoa.

Egoeraren sinbolizazioa, ikusi dugunez, balizkotasunaren bidez gertatu da. Errotak poetika bat adierazi du: espresio ahalmena bilatzen duena, teknikaz eta motibazioz, eta, askotan etorriari mugak jarriz, erraietatik sortu dena:

Balizko errotak poesia eman behar du, bestela ez litzateke balizkoa izango. Balizkoa izan behar du, baina errota ere bai. Zeozer espresatu behar du. (Ubeda, 1995, 32)

Alegoria horrek bere koherentzia mundua zabaldu behar du, inguruko sinbolo gehiagoz hornitu, arlo semantiko antzeko hitzen bidez esanahia aberastu. Errotaren sinboloarekin batera urarena dago. Ura denboraren jarioa, eta urtanta iraupenaren sinbolo:

Badoan denborarena, eta gu eramaten gaituen denbora horrena, korronte geldiezin hori eta, besteetik, korronte horrek berak ustez oztopo gaindiezinak zulatu egin ditzakeena ... Gure ibaiaren, gure uraren indarra —herri bezala— oso ahula dela uste dut, orohar, baina egoskortasunak eta uraren tantaka horrek batzutan zulatu egiten du. (Urzelai, 1989)

Ura borondatearen sinboloa ere bada, neurri baten. Bizitza irauin nahia da, jarraitzea ahaleginean.

Koldo Izagirrek, erraietara joan nahian, ildo tradizionala aukeratu du, baina ildo ezaguna bada, bizi nahiaren eta heriotz sentipenaren kinkaren tra- taera, hizkera berriaren beharra dago. Iñigo Aranbarrik idatzi duenez:

Badakigu lehertzeraz egindako poesiak hiperbolea duela arnas. (1993, 5)

Bada, idazkera honek ere hiperbolea aukeratu du, testuan behin eta berri- ro erabilitako sinbolo batean: bele zuria. Bele zuriak dira sisteman integratu direnak, egoeraz irudi optimista dutenak, sistema poetikoan ere eroso aurkitu direnak:

Izan gaitzen moderatuki pesimistak, politiko zintzoek nahi luketen ez bezala. (Arrese-Landa, 1989, 50)

Zuriak (gorrien aurka borrokatu ziren zaristak ere zuriak ziren) faltsukeria eta alferkeriaren agerbide dira. Egoeraren salakuntza da eta poetika batena ere bai, neurri handi batean.

Luma zuriko belearen eraketan, gogor eta fier, banandu du bitan errealita- tea. Alde batean balizkotasunaren alde agertzen direnak, bestetik, eratuarekin eroso direnak. Alegoriak halako bideak eskatzen ditu!

Hizkera honen eraketan Futurismoak asko agindu duela uste dut. Testuaren eraketan, garrantzizkoa da poetaren irudiaren eraketa. Poetak, abanguardiarren bideetatik, aztiaren irudia hartuko berantzat. Egia da Koldo Izagirrek Arestiren egia bilatzea kritikatu duela eta kontraesanen betea ager- tzen dela bere espresaera paradoxala:

Malutu ziren beleak eta egia defendatzen dute  
Baina harriari hegalkik eman gabe  
Eta orain lumaztatu egin behar ditugu ...  
Egia edertu ere egin behar baita  
Gezurra bezain eder... (BEE, 49)

Eta tentsio tragikoak eman dio indarra hizkerari. Manifestuetan bezala, hemen ere irakurleari dei egiten zaio, parte hartzeko dei. Bertsikulua bilatu da: bertso lerroko esaldi bat jarri, egiak borobilak balira, joskera sinpletu, paradoxak izenetan bilatu. Esaldiak, banan-banan, bertso-lerroz bertso-lerro, urtanta gisa jausten dira, meniarik utzi gabe, Aranberriren hitzetan.

Futurismoak, hala ere, mugimendua maite du. Eta higidura sentsazioa da hizkera honen lehen lorpena. Irakur dezakegun pasarte hau eta ikusi nola lortzen duen higidura hitz baten aldaketa eta errepikazioarekin:

Galdu genituen adiskideei idazten dugu  
Hilik dauden lagunei ulertzen ez gaituen lagunei  
Plaza hutsetan dugu ateoste guztietan dugu  
Idazten plaza beteka dugu isiltasun beteka idazten... (BEE, 82)

Bertso-lerro barnean bitan agerturiko esaldian zerbait errepikatu egiten da, zerbait aldatu, errealitatearen aldakortasuna arrapaezina balitz bezala, ikuspegi kubistara hurbilduko bagintu bezala.

Maiakovski-ren itzulpenean badago ohar txiki bat zeinek adierazi baituen zein hurbil dagoen estetika hau harengandik:

Poesia berri honen estrategiaren adibide egokia dugu hemen, poesia tradizionalaren lotsa eta intimitatea hautsi eta gainditzea erreferentzia biografikoak ekarriz: inguruko errealitatea hartu behar da kantagai.

Horrelako zerbait egin du Izagirrek liburu honetan, eta erkaketa larregizkoa ez bada, Maiakovski-z Aranbarrik idatzitako zerbait ekarri nahi nuke orrialdeetara. Hara zer dion:

Indibidualismo iraultzailea bat etorriko da iraultza proletariora, baina ez da berarekin nahastu ... Maiakovski Iraultzarekin dago, ez alderdiarekin. (1993, 10)

Izagirreren joera ere indibidualtasunaren aldekoa dela dirudi. Irmoak ditu usteak, ziurrak. Ezezkor agertzen du burua:

Ni berez pesimista naiz, estado animiko bezala moderadamente pesimista naiz. (Urzelai, 1989)

Baina izan gaitezen moderatuki pesimistak. (Arrese-Landa, 1989)

Eszeptikoa naiz, ezkorra ez esatearren. (Ubeda, 1995)

Ezekortasun honetatik sortzen zaio ironia, gauzei buruzko ikuspegi

urrundua. Urradura eta frustazioa dira ikuspegiaren abiapuntuak. Baina, hala ere, jarraitu beharra dago:

Badakit sufrimentua ez dela aski sorkuntza egiteko, eta sufrimentuan oinarritutako negarkeria asko egin dela, baina sakonean arrazoi gutxi dago alaitsu ibilteko. (Arrese-Landa, 1989, 50)

Frustazioek ez gaitzela eraman ezkortasunera. Orain ez gaude lehen baino "ago". Aspaldian gaude "agotuak". (Ubeda, 1995, 32)

Beraz, irtenbidea dago, aurrera irten:

Erne eta gogor ez badugu jokatzen, azkenean guztiok isilduko gaituzte. (Urzelai, 1989)

Indibidualismo eta ezezkortasunetik irtetzeko ernetasunez eta gogortasunez eginga dago Maiakovski-ren alkandora horia.

## Bibliografia

- IZAGIRRE, K. (1976): *Itsaso ahantzia*. Kriselu. Donostia.  
— (1977): *Oinaze zaharrera*. Ustela. Donostia.  
— (1987): *Guardasola ahantzia*. Ustela. Donostia.  
— (1989): *Balizko erroten erresuman*. Susa. Donostia.
- ABARDOI, I. (1977): "Zergatik bai". *Zeruko Argia*. 741. 1977-VI-5.
- AGIRRE, J. (1987): "Mendekuak, gestoak amorrazioaren ispilu". *Hemen*. 1987-XII-18.
- ARANBARRI, I. (1993): "Hitzaurrea". MAIAKOVSKI: *Poemak*. Susa. Donostia. 5-19.
- ARANO, J. M. (1990): "Idaztearen gazi gozoak maite ditu Koldo Izagirrek". *Egunkaria*. 1990-XII-22.
- ARRESE-LANDA (1989): "Koldo Izagirre: Balizko erroten erresuma literaturtasunaren bindikapena izatea nahi nuke". *Argia*. 1.267. 1989-XI-12.
- ATXAGA, B. (1977): "Literatura". *Anaitasuna*. 1977-VII-1.
- BAYO-ARRESE (1991): "Amodio mingotsen errodaia egunak". *Argia*. 1.349. 1991-VII-28.
- ETXEZARRETA, R. (1978): "K. I.: Guardasola ahantzia". *Jakin*. 8. 133-135.
- FAKI (1980): "Koldo Izagirrerekin hizketan". *Susa*. 2. 8-12.
- IZAGIRRE, K. (1976): "Hizkuntza eta literatura". *Zeruko Argia*. 1976-VI-27.  
— (1981): "Hitzaurrea". AZKUE, A.: *Poemak*. Ustela. Donostia.  
— (1991): "Los puentes de Roma". *Galeuzca*. 2.  
— (1991): "Mudos blues de la nada". *Susa*. 25. Gehigarria.  
— (1993a): "Liliput debekatuak". *Argia. Hamar urte euskal kulturaren 1983-1993*. 6-13.

- (1993b): “Ttipitasunaren iraultza”. *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao.
- (1995): “Genius loci”. *Argia*. 1.520. 1995-III-5.
- LANDA, J. (1979): “Guardasola ahantzia”. *Jakin*. 11. 84-94.
- LETE, X. (1976): “Bi poeta gazte”. *Zeruko Argia*. 1976-IV-4, (I) eta 1976-V-2, (II).
- M. A. J. L. (1984): “‘Euzkadi merezi zuten’ Komedia triste bat da”. *Argia*. 1.035. 1984-XI-11.
- MARTINEZ, L. (1995): “Idazlea mozorrotu egiten da”. *Correo*. 1995-IX-3.
- MENDIGUREN, X. (1994): “Dinamita bustiaren arriskuak”. *Hegats*. 10. 29-33.
- MENDIGUREN-LANDA (1987): “Koldo Izagirre: Ironia gero eta gehiago praktikatatu beharreko arma da”. *Argia*. 1.175. 1987-XI-29.
- PETRIKORENA (1995): “Errealitatea fizioaren gainetik”. *Argia*. 1.516. 1995-II-5.
- UBEDA, G. (1995): “Sugearen zuhurtzia behar dugu”. *Argia*. 1.534. 1995-VI-11.
- URZELAI, P. (1989): “Koldo Izagirre: Ur tanta horrek zulatu dezake harria”. *Hemen*. 1989-XII-29.
- X. X. (1987): “Azoka honetako protagonistak”. *Hemen*. 1987-XII-4.
- ALBADALEJO, BLASCO, DE LA FUENTE [ed.] (1992): *Las vanguardias. Renovación de los lenguajes poéticos*. Júcar. Madril.
- BOZAL, V. (ed.) (1996): *Historia de las ideas estéticas y de las teorías artísticas contemporáneas*. Visor. Madrid. II liburukia.
- CHENIEUX-GENDRON, J. (1989): *El surrealismo*. FCE. México.
- CHIPP, H. (1995): *Teorías del arte contemporáneo*. Akal. Madril.
- DE MICHELI, M. (1993): *Las vanguardias artísticas del siglo XX*. Alianza. Madril.
- ECO, U. (1988): *De los espejos y otros ensayos*. Lumen. Bartzelona.
- HAMBURGER, M. (1991): *La verdad de la poesía*. FCE. México.
- MOLAS, J. (1983): *La literatura catalana d'avantguarda. 1916-1938*. Bosch. Bartzelona.

## IÑIGO ARANBARRI APOARMATUA

Iñigo Aranbarri (Azkoitia), poeta, liburu biren egile: *Jonas Poisson* (1986) eta *Dordoka eta elurrak* (1989). Ondoren, nobela bat argitaratu du. *Susa* aldizkarian zuzendari lanak egin ditu, eta *Jakin* zein *Argian* bere artikulua, aldiro-aldiro, aurki ditzakegu. Lan urriko poeta bada ere, oihartzun handikoa da, lanaren kalitateari begiratu gero.

Abangardiaren defentsa sutsua egin badu ere, eta nahiz eta bere poesiaz mintzatu denean, hermetikoa dela behin eta berriro aipatu den, Iñigo Aranbarriren poesiak lortu du oihartzunik gure artean.

### 1. Poetikaren bideak

Poesiaren izaeraz artikulua garrantzitsu bi ezagutzen dizkiogu Aranbarri, biak *Galeuzcaren* inguruan emanak eta argitaratuak. Berri horrek bere garrantzia du, ezaguna denez *Galeuzca* batzarretan irakurri ohi diren lanek aurrez jarritako gai bati lotuak izan behar dutelako. Berez ez dira ba bat-batean eta barrenetik sorturiko lanak, aurrez jarritako gai bati lotuak baizik. Zehatzagoak izatekotan, “Hire ahotsaren balusari” lana, “Gizarte teknologikoan poesiak bizi duen krisialdia” gaia aztertzeke asmotan egina da, eta “Fotokopiagailua daukagu bihotzaren ordezt”, “Poesia tradizioa eta haustura artean” saioaren barnean kokatzen da. Horrela, poetak nahi eta nahi ez, gai orokor horien barnean kokatu behar du bere mintzoa, eta begi batez, behintzat haiei begiratu.

Gutxienekoa da hori, hala ere. Zeren gai orokorrak aginduz ere, poetak bere iritziak agertuko baititu testuaren barnean.

Abangardiaren errebindikazioa izango litzateke poetika honen lehen zutabea. Izagirrek edo Edorta Jimenezek egin duten modura abanguardia maite du Aranbarri. Aipaturiko idazleekiko lotura begi bistakoa bada ere, desberdintasunak ere aise agertzen dira. Aranbarri abangardiaren ikuspegi

zabala erakutsiko du; surrealismoa, dadaismoa, eta batez ere, espresionismoa aipatuko ditu bere poesiaren iturburu gisa:

Poesia hermetikoak direla esaten didate sarritan. Eta hala izango dira, poesia nahiko hermetikoak, zirrikituz betetakoak ordea, klabe askotan zail samarrak agian, erreferentzia ezberdin ugari dagoelako edo. Hala ere surrealismo kalkulatu bat dago, bere logika propioa segitzen duena. (Arrese, 1990, 49)

Baieztape hau bere kontestuan ulertu beharko litzateke, Arreseren elkarriketa osoan behin eta berriro errepikatu da, Aranbarriren liburuetan batasun-hari gotor bat aurkitzen dela, sinboloen bidez (dordoka eta elurra, amapola eta memoria) eraikitako hari sendo batez lotua. Hemendik ondorio nagusia atera dezakegu: kontrolpean dagoen surrealismoa da Aranbarrik aurrera daramana. Behin baino gehiagotan aipatu beharreko definizioa ematen du abanguardiaiko mogimendu horretaz Jacqueline Chénieux-Gendron irakasleak:

Tres grandes sistemas de exclusión y de separación permiten a la palabra humana aspirar a la pureza: para empezar, el juego de las prohibiciones, entre las cuales el tabú del deseo es la más poderosamente instituida, pero también la división entre la razón y la locura y, por último, la voluntad de verdad ...

El surrealismo, desde sus años de fundación, en 1919, responde con la revuelta a esos juegos de separación ... El surrealismo, en su proyecto más general, pretende mezclar el deseo al discurso del hombre, y el eros a su vida —y no sólo decir (describir) el deseo o el eros—; pretende abolir la noción de incongruencia o de obscenidad, dejar hablar al subconsciente y simular diferentes patologías del lenguaje; pretende socavar la busca de verosimilitud en el arte en una formidable apuesta por lo imaginario, presentado como el poder central del espíritu humano, de donde procede toda una vida en poesía. (1989, 9-11)

Literaturan zein Artean ikaragarritzko berritasuna ekarri zuen surrealismoak, irudimenaren defentsa sutsuarekin. Berrikuntza ohiko, konbentzional den ororen aurka altxatu zen. Aranbarrik onartu du surrealismotik irudimenaren nagusitasuna. Eta gainera, erreboltaren nahia. Inkonzientearen erabileran, ordea, eta ondoren usu gertatu den bezala, poetak leundu egin du teknika hori kontzientzia eta poesian kontrola erakutsiz. Baina onartu beharra dago, errebolta gogoia nagusia dela poetarengan. Gerra munduko metaforak erabiliz (dinamita, bala, koldarkeria), Aranbarrik poesiaren indarra azpimarratu du:

Zati batean esaten diat poesia lehegailua dela, poesiak dinamita bezala funtzionatzen duelako, eta oso jende gutxi ausartzen duk dinamita eskutan hartzera. (Jimenez, 1986, 41)



Modernitatearen barnean bizi den estetizismo eta konpromezuaren arteko kinkan garbi du non kokatu bere burua:

Eta biztuko genituzke berriro ere dagoeneko lur eman diegun konpromezu eta sormen askatasunari buruzko eztabaidarik sutsuenak ... Horretara goaz. Partidu hartzera, ni hauekin, oldarrik garbiena bere zalantzan, gale-razia dugu intelektualitatearen izenean. Kausa garbirik ez da, ikasi genuen. Ez da ezer errukiaz harantzago ahokada berorik, ekintza zalantzakorik merezi duenik, non eta ez den demokrazia eta bake unibertsalaren gainean solas eta iritzi pribilegiaturik. (1993, 66)

Iraken aurkako gerrak eta Sarajevo-ko sitiaketak sortu dute, gerratik ihes egin beharrez Zuricheko Café Voltaire hartan bildu zirenean sortu zen antzera, konbentzioen aurkako joeren indarra. Mundua bitan banatzen du gerrak, poesia bitan banandu du Aranbarrik. Poesia koldarra, gauzak adierazten ez dituen, eta poesia zintzoa:

Horregatik uste dut hausturaz ari garenean beste zerbaiten gainean ari garela. Begi garbiez. Zintasunaz esan nahi da. Kamuflaje uniformedun poeta bat nekez mintzatuko da bere ahotsez. Poetok: kiratsa dario poesiari. (1991, 82)

Poesia zina alde batean kokatu da, bestean poesia kiratsa. Errazago identifikatzen da hau: estetizismo kutsuak ditu, hizkera sinbolista baten menpean sortua da, eta edertasuna sinbolistek ezagutu zuten moduan ulertu dutenena da hizkera hori, eta fotokopiagailuarekin egiten dela adieraziko du, beste batzuk poesia klonikoaz mintzatzen diren bezalaxe:

Kutsatuta gaude. Ezaguna zaigu poesiaren artea, zer den onartua eta zer infernukoa ... Fotokopiagailua dugu bihotzaren orde. Perfektoa. Japonesa. *Ars poetica*-ren legerik borobilenak ditugu betetzen, behar beharrezko aliteraziodun poetak, metafora ikusgarridunak. Lexiko orbaingabedun poetak. Poeta poetak. Poeta delicatessenak.

Deskripzio perfektodun poetak ... Gorroto diogu Dariori, baina bere hilotzarekin egunero ohera. (1991, 81)

Hizkera poetiko sinbolistaren parodia maiz egiten da bere poetikan eta hau erakusteko erabili duen izenburuan ere, "Hire ahotsaren balusari", parodia berbera ageri da.

Surrealismoak ekarri diona ez da, sakonean, teknika baten eskuraketa, teknika horiek oso zabalduta baitziren, baizik eta errebolta gogo. Poesiaren zintzotasuna, poesiaren begi garbia beste nonbaiten aurkitu du, edo kokatu, Aranbarrik: partidu hartu duen poesian, konbentzioen aurka altxatzen den poesian. Maiakovski aipatuz honela ekarri du zintasun berriaren poesia:

Poeta lana meniarik gabeko burrukari dago loturik. Beharrezko da abiadore bihotza izatea, metaleko langile, soldadu gorri. Oihu bakarra da nagu-

si. Egurra iragankortasunari, egurra kapitalari. Gizon berria dator... .  
Iraultza politikoa poetikoaren bidetik dabil. Zintasan berri hau artetik-arte-  
ra-ren topiko sakratuari nagusitzen zaio. (1990, 105)

Badakit testuak, batez ere eta lehen helburu gisa, Maiakovski-ren poetika-  
ren deskribapena egin nahi duela. Baina azpitik ez ote da entzuten Aran-  
barriren irudi poetikoaren zantzua? Baiezkotan nago, “meniarik gabeko poe-  
sia” nahi duelako berak, horretan erradikala delako, garbia den moduan  
iraultza iraultza artistikoaren aurretik jartzen.

Surrealismoak gorrotoaren poesia, eta honetan bat etorriko da Xabier  
Montoiarekin, bindikatzeko indarra eman dio Aranbarriri. Zintasanaren poe-  
sia definitzen duenean, eta oraingoan urrun dago Maiakovski, Aranbarrik argi  
hitz egin du:

Hor dago gure lekua. Eusten. Hor jaso behar ditugu gure poemak.  
Atzerakako hurrengo pausua oropel hutsak idaztera kondematuko gintuzke,  
eta poeta lagun baten terminologia ahotan, poeta-perejil izatera. Eta poeta-  
igogailua ...

Hölderlinen hitzak direla uste dut, sentimendua da poetaren gartsutasu-  
nik onena. Bindika dezagun maitasuna geldione batean. Gorrotoa esan dut,  
bai. Beharrezkoa baita gorrotatzea poema on bat tajutzeko ... Horregatik  
sinesten dut poesian oraindik. Imaginazioa den poesian. Aitormena den  
poesian. Gauerdiko tiro bat den poesian. Eta zergatik ez, jokia eta jolasa  
den poesian. (1990, 108-109)

Hemen garden, bitartekorik gabe agertu du ustea Aranbarrik: imaginazioa  
nagusi lehenik. Ondoren jokia eta jolasa, lotura automatikoa.

Gorrotoa dela-eta izen ezagun bat aipatu du Aranbarrik: Salvat Papasseit,  
eta gogora ekarri beharko genuke haren manifestu poetikoaren puntu bat:

Odieu el tirà àdhuc si us ha caigut intel ligent, odieu l'ignorant malgrat  
que sigui esclau. (Molas, 1983, 136)

Kontua da Papasseit idazlearengan aurkitzen direla Aranbarrik erabili  
dituen zenbait ideia. Hauek biak, besterik ez, ekarriko ditut honara:

Només Són Poetes aquells qui canten en la lluita.  
Per a ésser Poeta caldrà primerament el desig de lluitar.

Aranbarrik euskal poesia estetiko gaitzetsi badu, ez du gutxiago egin  
Salvat-Papasseit-ek poeta txarren, poeta hitza izki txikiz idazten dutenen aurka  
idatzi duenean: “Contra el poetas amb minúscula”. Aranbarrik ere maite ditu  
Salvat-Papasseit-ek martxan jarritako balioak: gaztaroa, arriskua, kuraia, inda-  
rra.

Begi bistakoa dena, eta aipatzeak ez gaitu desbideratuko, zera da: lotu-  
ra poetiko sendoak direla Koldo Izagirre eta Iñigo Aranbarriren artean eta

hark eskaratu dituela Maiakovski-ren *Poemak* eta Salvat Papasseit-en lanak.

Ez zen euskal literaturan Marinetti-ren aipamen handirik. Iñigo Aranbarrik surrealismoaren gain Futurismoa ere aipatzen du bere poetikan. Ez dakit hala ere, futurismoaren aipamena pixka bat behartuta ez ote datorren gaiaren indarrez. Gizarte teknologiko eta poesiaren arteko loturaz ari denean, Marinetti dakar solasera Aranbarrik.

Literatura estatikoa eta erreflexiorako izan denean, estasiari eta amasari emana, horren aurrean, mugimendu bortitza, sukarrerainoko insomnia nahi dugu, belarrondokoa eta muturrekoa. Edertasun berri batek apaintzen du munduaren ederra: abiaduraren edertasuna, bizkortasunarena. Karreretako automobil bat Samotraciako Garaipena baino ederragoa da.

Tomasso Marinettiren hitz ezagunak dira, 1909ko otsailaren 20ko *Figarok* argitaratuak. (1990, 104)

Ez da Marinettiri buruz beste aipamenik. Behar ere ez, Aranbarriren poesiak ez baitu futurismo italiarraren eragin nabarmenik agertu. Gainera, Izagirre eta Aranbarriren lanetan agertu dena, Catalunyatik datorkigun futurismoa da, Salvat-Papasseit-en lanaren bidez, edo Errusiakoa, Maiakovski-  
ren bidez. Ez da hor forma nagusitzen, forma azpiko ideologia baino. Salvat-Papasseit-en abiadura, bizkortasuna da hemen goraipatu dena. Nietzsche-  
ren bitalismoa eta anarkiaren joko nahia, beti ere ordenatuaren aurka, beti ere idazlearen askatasunaren alde. “Borrokan bakarrik dago edertasuna” idatzi zuen Marinettiren ohiartzunak jo du Salvat-Papasseit-en lana eta honetaz Molas-ek hauxe idazten du:

El veritable Poeta ha de cumplir dues condiciones: la sinceritat i la capacitat de fustigació. (Molas, 1983, 45)

Salvat-en zintzotasunaren eta Aranbarriren zintzasunaren artean ez da alde handirik aurkitzen.

Futurismoa, baina, espresionismotik hurbil aurkitu da, baten ere pinturan. Ez da zaila izango, Aranbarrik espresionismoa gorestea:

Kuadro aipamenetan badira benetakoak direnak eta beste zenbait apokrifikoak, sekula egon ez direnak —nik hala uste dut behintzat—. Oso garai konkretuko dataz azaltzen dira, Europak bizi izan duen garairik interesgarrienetakoak, Ertaeuropan garatu zen mugimendu espresionistako garaikoak. Mugimendu hartatik asko ikasteko eta sujeritzeko dagoela pentsatzen dut. (Arrese, 1990, 49)

Futurismoaren definizioa De la Torre-ren liburu ezagunean aurkitu dugu. Printzipioz mugimenduak Nietzsche eta D’Annunzio biltzen ditu bere Manifestuan. Arriskua, iraultza, adorea bultzatu zituen poesia honek, abiadu-

ra, makina, eta modernitatea goraiatu zituela. Borrokan ikusi zuen Marinettik edertasuna, eta iragana ukatuz, denbora absolutuan bizi zirela baieztatu zuen. Espresionismoa, ordea, honela deskribatzen du; Soergel-en eta Prampolin-en iritziak alderatuz:

Con el expresionismo lo que fue expresión desde fuera se cambia en expresión desde dentro: aquello que fue reproducción de un trozo del natural es ahora liberación de una tensión espiritual ... Mientras el impresionismo significa la pasiva reproducción de sensaciones, el expresionismo actúa empleando elementos del mundo interior el yo del artista, que se impone a la naturaleza y a las cosas concretas, ejerce sobre ellas una violencia, las reelabora y vuelve a plasmar y acaba por construir una realidad. (De la Torre, 1974, 191-192)

Aranbarrik berak inoiz aipatu duen definizioa da Jenaro Talens-ek eman duena:

Un arte que rompía tanto con el naturalismo y neorromanticismo decimonónico como con el impresionismo y el neoclasicismo. (1981, 11)

Eta ezaugarrien artean hauek aipatu ditu; hemen moldatuak agertu ditudalarik.

- a) pretender la expresión de la realidad espiritual,
- b) el poderoso dinamismo que inerva su vida interna,
- c) el impresionismo como movimiento renovador, el expresionismo como innovador,
- d) hacer subjetiva su enunciación artística,
- e) esforzarse por un serio compromiso. (1981, 12-3)

Inguruko poetika batzuetan abanguardia alde batera utzi denean, Euskal Herriko zenbait poetengan indarra du espresioa aldatzeko joera horrek, hain zuzen ere, oraindik iraultzaren bidez egoera aldatzea posible dela uste dutelako. Abanguardiako aurkikuntzak aspaldikoak direla uste den garaian abanguardiaren alde agertuz, arrazoi politikoak estekikoen gainetik jartzen dira, eta horrela gertatzen delako defenditu dute abanguardia.

Mogimendu honen barnean, Iñigo Aranbarrik espresionismotik hurbil agertu du bere burua. Imaginazioa lehen, baina erraieran daraman, Munch-ek bezala, garrasia azalerazteko.

Ikuspegitik baino bisioetatik hurbilago, gauzak barnetik hausnartuz espresionismoak ikaragarritzko mugimenduz pintatzen du bortitza eta mugikorra den errealtatea.

Iñigo Aranbarriren poetikan abanguardiak toki handia hartu badu, badira beste ezaugarri batzuk ere poetikaren definizioan. Teknikaz ari dela, konturatu da garai modernoetan poesiak toki mugatua duela gizartean. Badaki poesiak forma berriak hartu dituela. Dylan Thomas-en lanaren ondoren, poesiak

eszenatokiak hartu ditu, liburuaren orrialdeetatik at agertu behar du, musika-rekin eta masa erakuspenarekin lotua da.

Poesia berriaren eremua pop-rock taldeen eskuetan eta publizitatean ere badago:

Baina poesia ez da pop-rock mundura bakarrik zabaldu ... Poeta anonimo bat, marketing entzepesa baten nominan nonbait, argi ibili zen kanpainarako eslogana asmatu behar zen goizean. (1990, 109)

Mundu biek zabalkundea ekarri diote poesiari, baina ez ezeren truke. Publizitateak merkatuaren menpe, saldu beharraren menpe jarri du poesia, eta musikaren bidezkoak ere bere mugak ditu, bitartekari bat jarri delako idazle-irakurlearen arteko komunikazio zuzenean, honen irakurketa mugatuz, edo zuzenduz. Horregatik dirau poesiaren aldeko ahaleginak, horregatik “ez da dudarik”, horregatik “idazten segitu beharra dago”.

Beste arazo bat da, eta hau ere Galeuzcak eskaturiko gai baten inguruan jorratua, tradizioaren eta hausturaren arteko kinka. Arazo honetaz, ez da luze mintzo Iñigo Aranbarri. Egoera bat eta bakarra da, poeta tradizioaren bizi dela eta horren barnean bizi behar duela, gainera:

Gure arazoa ez da tradizioari lokiko tiroa ematea, berarekin bizi beharra baizik. (1991, 81)

Ondorioz, norberen buruaren aurrerapenean kokatu du koska:

Tradizioaz eta hausturaz ari garelarik, neurri batean behintzat, beharrezkoagoa da jarraipen pertsonala literatura nazionalena baino. Abanguardia norberarekiko. Poetak, inor harrapatzekotan, bere burua harrapatu behar du ezustean. (1991, 81)

Jarraipen pertsonalaren helburuak bi dira, poetak hala nahi izanda: ahots propioa lortzea, eta hori irakurketa mundu propio baten bidez. Literatur lane-tan zein poetiketan irakurketa zabalaren jabe agertu du Aranbarrik bere burua.

Bazekiat oso liburu zaila dela, erreferentzia asko duelako, eta erreferentzia horiek, beharbada, ez direlako pertsona guztientzat berdinak, eta zailak direlako harrapatzen zenbait kasutan. (Jimenez, 1986, 41)

Alde bitik doaz irakurketak. Bada literatura tradizionalak, Bibliatik hasi eta XIX. menderainokoak, sorturiko olde bat, eta bada abangardiaren oldea. Dena dela, oso irakurketa pertsonalak dira. Bada bazterraren gogoa, bada *Susa* aldizkariaren zuzendaritzan ikasitakoa, bada Galiza (Manoel Antonio), Catalunya (Salvat Papasseit) eta Euskal Herriko (Lauaxeta) poeta anitzaren berri, badira, zerrenda ez luzatzeko, Moloise edo Celan-en aipamenik, eta gogora ekarri nahi nuke *Jakin* aldizkariaren lehen aroan Alemaniako poesiaz, eta Celan-ez bereziki, lan interesgarria argitaratu zuela Joxe Azurmendik.

Zertzelada guztiok osatu dute Iñigo Aranbarrik poesiaz duen iritzia. Baina modernitatearen barnean poesia estetikoaren eta konpromezu poesiaren arteko kinka etengabea izan bada ere, hona hemen poetikan konpromezuaren alde agertzen den poeta, eta lanean poesia estetikoazale eta hermetikoa idazten duenaren lana.

## 2. Poema liburu bi

Poema liburu bietan jarraitu du Iñigo Aranbarrik poesia zer ote den mugatzen. Edorta Jimenezi aitortu zioena, poesia lehegailua dela aitortu du *Jonas Poisson* liburuan. Egia esateko, aipua oso zehatza da eta bat-batean doa, ia ezkutuka:

...lo datzan lehegailua da  
poesia william worsworth  
hainbat eztarri tximistaz  
hainbat murrail asunez erreak... (JP, 40)

Hiru-lau harik inguratu dut aipua: batetik, baieztapena bera, poesiaren indarraren aldeko apustua, ondoren William Wordsworth poeta erromantikoaren agerpena, eta azkenez, irudimenez eta suz beteriko azken bertso espressionistak. Hiru datuotan aurki dezakegu poesia honen azpian aurkitu den irudimen erromantikoaren aldeko jokoak. Irudimenaren indarrak eraiki du poesia hau eta eman, dituen balio nagusiak, irakurlea harrapatzeko duen ahalbidea.

*Dordokak eta elurrak* liburuan ere Aranbarrik idatzi du poesiaren izaeraz:

Poesiak heriotzari  
Aurre hartzen diola dirudi  
Edo hegoalderantz  
Higitzen dela behintzat  
Karrusel zaharren antzera  
Mila pekatutan biraka  
Poesia  
Animalia bakanez  
Landare gelautsez  
Elikatzen dela diote  
Igande arratsetan  
Hondamendi hitza limoindoaren  
alboan... (DE, 56)

Idazkera baten agerpen nahikoa dugu testu honetan, Aranbarrik erakutsi ditu zein karta jokoan ari den. Batetik, poesia herioaren garaile gisa, existentzialistek nahi zuten gisa; ez dakit, baina, helburu handi hori ez ote dagoen hemen helburu ironikoaz aipatua, zeren “pekatuen” agerbide ere baita, Salvat-

Papasseit-ek nahi zuen moduan, poesia blasfemiarako ere baitzen. Aranbarrik ez dio inoiz huts egingo hizkera modernista eta ederzale bati (hegoa, landareak), baina horrekin batera, limoiondoaren ondoan, hondamendia, hizkera estetikoarekin bat, urkatua, elementu kontrajarrien agerpen gisa; beste poema hartan egiten duen moduan, kontraste bera agertuz:

Horiak zitroindoak  
Urkatu doratuak kulunkatzen... (DE, 45)

Baina poeman badago estilo honen agerbidea: poesia landarez eta animaliez oratu du poetak. Hemendik datoz bere metafora nagusiak, bere sinbolo maitatuak. Azken batean, poesiaren eginbeharra arima aldetzea da, eta arimaren aurpegiak irudikatzeko animaliak eta landareak daude:

Zerbait marraztu beharra, arrai lodiz, presaka,  
mundua, —gure mundua— azken erdokan  
finituko balitzaigu bezala. Zerbait marraztu  
beharra, arimak, esate baterako. Zoomorfoak. (DE, 10)

Arima zoomorfoak marraztu beharrez aurkitu du poetak bere burua zologia fantastikoa sortu arte, bestiario esanguratsua. *Dordokak eta elurrak* liburuan behin eta berriro aipatzen da animalien agerpena. Iñigo Aranbarrirentzat munduak ez du zentzurik, ez dago garbi zein den bere mezua, horregatik idazten du:

Zein ulergaitz den izpilu hau... (DE, 22)

Ulergaitza dena ezin da garbi adierazi:

Ez naiz argi mintzatzen... (DE, 9)

Baina zentzurik ez duen mundua adierazteko poetak animaliak ditu, eta haien bidez azaltzen du nahi duena:

Eta marra bero bakarrak  
Birikietan kristaltzen  
Zaizkizunak direla dakit  
Animalia ezezagunen itxuran... (DE, 21)

Imajina itzazu  
Tristezitan sortzen  
Kateatzen ari diren animaliak... (DE, 42)

Zoomorfia hau bizirik dago, eta hau da poemategiaren abiapuntua: ulertu ezin dezakegun mundu baten zeinua bestiario batez adieraztea. Animaliak bizirik daude, eta futurismoak makinaren higiduraren bidez adierazten bazuen mundu modernoaren ezinegona, Aranbarrik bestiarioa aukeratu du ezinegon bera paperean jartzeko.

Poesia honek, espresionismoaren bideak jarraiki, barne errealitateak sortu nahi ditu, irudimenak soilik sor ditzakeen errealitateak. Irudi munduan sartu gara eta elementu desberdinez sorturiko poema izango dugu begi aurrean.

Munch pintorearen bidea jarraiki:

...baina goiz jaiki behar du Munch-ek... (DE, 67)

higidura biziz dagoen mundu bat da Aranbarrik agertzen duena. Munch-ek idazten zuen moduan 1907-8. urteetan:

Arte lan bat soilik sor litzake gizabarrenean. Artea giza kirioek, bihotzak, burmuinek eta begiek sorturiko irudiaren forma da. Izadia ez da soilik begiak ikus lezakeena —izpituaren barne irudiak ere agertzen ditu—, ikusmiraren atzekaldean diren irudiak. (Chipp, 1995, 131)

Munch-en artea bezala, poesia hau kirioz, bihotzez, higiduraz sorturikoa da, beti ere, amets txarretik hurbil:

Insomnioak ere  
Hain zabalak ez balira hemen... (DE, 23)

Beste barne mundua sortua da Aranbarriren lanetan, Rimbaudek erakutsitako bidetik:

...untzi mozkorraren alboan arthur  
absenta botila hutsa biluzik datza... (JP, 77)

Barne mundu hori higituz bizi da, animaliez beterik dagoelako. Baina ez soilik animaliez. Poemon higidura, edo nahi bada, barne mundu hori sortzeko, hiru-lau elementu desberdin biltzen ditu Aranbarrik: bestiario esanguratsua, sinbolismotik harturiko hizkera xamurra (landareak, musika, nahiz eta askotan entzun Celanen arrabita), idazlearenak diren eta maiz geratzen diren aipamen literarioak, eta irudimen mundua. Hona hemen askoren artean mundu sorkuntza horren adibide bat:

Zein ulergaitza den izpilu hau  
Agure hordia da falta ostatu zokoan  
Kanta zaharrez, belauntzez beteriko godaleta  
Berriak ez dautza lo marbrezko mahaietan  
Berririk ez bait dago, gutun horailak baizik  
Ontsa naiz  
Eta izpiluz josten ilunabarra  
Jeanek negar du egiten Aldudetan  
Noraezean hegaztiak leihoaren mugetan  
Ez du ihizeak atariko bekana estaltzen  
Ez larrazkenak arrabitaren jolasa... (DE, 22)

Poema irudi askatu eta asmatuen jolasez sortua dago, eta aipaturiko hiru



elementuak (hegaztiak, aipamenak, irudimena) agertzen dira bertan. Hizkera honen balioetaz gerorago mintzatuko gara, baina orain beste ate bat zabaldu nahi diogu estilo honi. Orain arteko deskribapenak sinbolismoaren hizkeratik hurbil jarri gaitu. Aranbarrik, ordea, sinbolismo eta estetizismoaren hizkera parodiatu eta arbuiatu egin du bere poetiketan, hain zuzen ere ez baita berea hizkera poetiko sinbolista soila, nahiz eta hartaz baliatu. Espresionismora hurbiltzen duena zera da, giza amildegietan den etsipen puntua gehitzen diola idazkera horrek estetizismoari. Insomnioa, amets txarra, amildegia, ziega, etsipena, presente dira, azken helburu gisa, poemategian eta honen bidea ez da kanpo mundu orekatua ekartzea, baizik eta iluna eta gogorra den barne mundu baten agerpena, eromenetik hurbil:

Badira otsoek eta zoroek baino  
ahoskatzen ez dituzten silabak  
bizitzaren hondarretan baino  
oroitzen ez diren hitzak, liburuak,  
geografia miragarriak  
badira baita ere ostendu diren  
koloreak, notak, oinak lainotan  
Badira otsoek eta zoroek baino  
oroitzen ez dituzten hitzak:  
Gerla zure ateetara da etorri... (DE, 47)

Pintore espresionista zenbait (Van Gogh, Munch) zoroetxetan sartu zituzten. Zoroetxea ere konstante bat da poesia honetan:

Zorotzat hartu gintuzten... (DE, 41)

Zoroetxe bat dago ibai hegalean, elurpean. Edo  
diamante formako gartzela bat, hain da zaila zehatz  
adieraztea... (DE, 37)

Zoroetxea kartzela bihurtu duen honetan, gogoratu behar genuke batetik, zoroetxearena Leopoldo Panero-ri egin zaion omenaldia dela, Arrasateko Santa Agedan bizi den poetak erraietatik sorturiko poesia egiten du logikarekin apurtu nahiean. Baina beste aldetik, kartzelak poesia honen zentzu politikoarekin jartzen gaitu harremanetan. Baina, hala ere, badago poemategian poesia etsipenetik, tragediatik, nahi bada ikusteko gogo bat.

...hizkuntzez alderatua ikus dezakegu.

Gutuna amaitzea lortu zuen, kontu handiz,  
Gabonetako ipui baten balego bezala. Vis  
A vis-ean atera zuten: Irrifarre egin di  
date gaur arrainek brioletez orraztuz... (DE, 38)

Edo, bestela, askoz ere hizkuntza espresionista eta ez hain figuratiboan:

Erresuma bertikal hau  
Azunez baldosa zuriz betea  
Zoroetxe handi huts bat bezala  
Oroitzapenik arrotzenez... (DE, 60)

Gartzelan idatzitako poesia (Puerto de Santa Maria-koek idatzitako liburu hura, Susak gartzela poesiari eskainitako alea, Sarrionandiarena) goraipatu du Aranbarrik, "Mudos blues de la nada"n Koldo Izagirrek egin zuen bezala. Poema hau zitatu du (1990, 108):

...sirenak haustea da gure ametsa  
ez naiz itsasneskez ari  
oinazearen deiaz baizik  
eta ihes egin nahi nuke ihes...

Eta gehitzen du: "Ziega batean idatzita dago". Ziegatik idaztea, Celan-ek egin ohi zuen moduan, izan da Aranbarriren gogo bat, eta bai ziega hitza eta bai poemaren ohiartzunak ahalegin handirik gabe aurki ditzakegu liburuan:

Ziegaren sexu posibleak  
Zirriborratzen... (DE, 21)

Harpa ahaztu batek  
Aingura altxatzen du  
Eta ezinezkoa da ihesa... (DE, 52)

Espressionismoaren bidez, Aranbarrik irudiak sortzen ditu. Irudiaren askatasunean sinetsi du, sorkuntzan lortu du bere plazerra. Ez du deskribatu, erre- alitatea, barne erre- alitatea sortu du. Ez du ebokatu, sugerikorra da bere lana, eta irudien aurkikuntza ilogikoan sortu da bere edertasuna.

Poemaren eraketan irudiaren askatasunak eratu badu norabidea, eta samina- naren adierazpenean gogor agertu bazaigu norabidearen joan-etorri erratua, liburu biek badute lotura hari gotor eta batua. Bildumak baino lehen, poema liburuak dira Aranbarrirenak eta haietaz Juan Mari Lekuonak bereetaz esan duena errepika dezakegu; egiturak esanahia duela, alegia. *Jonas Poisson*ek, agian egitura mekanikoagoa du, sinbolikoagoa *Dordokak eta elurrak* liburuak. Jose Luis Otamendik liburu horretaz idatzi duen lan eder batean bien arteko lotura ere ikusi du: ez da eboluzioaren katea berehalakoan erratzen:

...arraina lehen, narratzia gero. Ematen du grina berdinar dantzatu duela orain artekoan Aranbarriren ihardun poetikoa. Estrainekoan nola bigarren liburuan balore humano berdinen defentsa ageri da, motibo asko berri- tute egiten da *Dordoka eta Elurra* (gutunak, animaliak) ardatz narra- tibo bati lotuak irakur litezke, elkarren segida moduan ere bai neurri bate- an. Nago alde nagusia planteamentuaren erradikatasunean dagoela, espre- sabideen doitasun eta arraildubako zehatzean... (Otamendi, 1994, 34)

Batasun haria garbi utzi badu ere, egitura aldetik *Jonas Poissonek* egunen eta gauen igaroaldia darabil bere bidean.

Jonasek hiru egun eta hiru gau eman zizkian balearen sabelean. Hortik banaketa bat iruditu zitzaidekan, hiru egun eta hiru gau, gehi beste egun bat erreflesio gisa edo. (Jimenez, 1986, 41)

Eraketa mekanikoak agintzen du, neurri batean, poemen kopuruaren mugaketan, gehienak sei poemaz osatuta baitaude.

Baina eraketa mekanikoak bere barnean sinbologia nagusia ezkututzen du. Balea gizartearen irudia da eta haren sabelean bizi da pertsona, gizakiaren irudia. Historia bat kontatu du idazleak, zazpigarren atalean historia kanpotik begiratzuz, ondorio bakar bat ikusteko:

Baina azken finean, erreflesioa ere aurreko egunak bezain beltza dela konturatzen gaituk, kanpoan ala barruan egotea berdina dela. (Jimenez, 1986)

Hariari begiratzuz baina, garapena ere badago liburuan. Hasierako geografiak mitikoak eta urrunekoak dira hein handi batean, Suzzane-ren poemak eten bat egin dute poesiaren zeinuaz hitz egiteko:

Mintza gaitezen birtuteaz.  
Izan nahi eta izan ginenaz... (JP, 51)

Zer ginen. Zer izanen garen.  
Galderak, hordiunetan barreiatuik ...  
Eta halare, arratsero,  
Ekiaren dekadentziaz mendiratzen gara... (JP, 52)

Gogaiturik nago.  
Gogaiturik egoteko garaia baita.  
Ez dakit noiztik. Ez dakit noizarte... (JP, 53)

Ondoren geografiak eta azpian diren literatur aipuak, modernoagoak dira eta europearragoak, Miller-engandik Joyce-renganako bidean.

Bigarren liburuaren eraketan sinboloak indar argiagoa hartzen du, eta banaketa formala ez da hain zuzena eta etena, nahiz eta prosazko poemen bidez nolabaiteko hiru-lau zatien arteko jokoak ikusi.

Gorka Arresek berri eman duenez, denboraren jarioak eman du liburuaren garapena:

Poemarioa, udazkenetik negura bitartean egituratua aurkezten digu Aranbarrik. Udazkenean haizeak jotzen du eta eguraldia aldatzen ari dela nabari da, nola bizitzaren kondizioak gero eta gogorragoak diren. (Arrese, 1990, 48)

Hari xume horren inguruan eratu dira oposaketa semantiko gogor bi eta horien artean higitu da liburuaren zentzua. Bat dordokak eta elurraren arteko

banaketa da. Jakina denez, dordoka iraun nahia izango litzateke eta elurra (neguaren metonimiaz) aro gogorra liteke; eta neurri berean, arin doana.

Munduan dagoen animaliarik antidilubiano bakarrenetakoa da dordoka, ur-jauzi eta elurte guztien gaintik iraun duena. (Arrese, 1990, 41)

Bigarrena, lehenarekin lotua da. Paul Celan-en *Amapola eta Oroimena* liburua gogoratuz (Paul Celan-ek liburuko iruditeria ez ezik, tonu poetikoa eta hizkera moldatu ditu Aranbarrirenean), oroimena liburuaren konstantea da, amapola ahazmenaren sinboloa delarik. Eta aurrekoekin parekatuz, dordokak oroimenarekin egingo luke bat, eta amapolak elurrarekin:

“Memoria agertzen da dordokaren baitan, zer garen eta zer izan garen kontuan hartu eta zer izango garen kontutan izan dezagun”.

Elurra sinboloa bere ere dordoka eta memoria ezabatzeraz eta zuritzera datorren elementu bezala somatu dugu. Bai, elurtea beti agertzen da, ... Elurra dordoka hil nahi duen zerbait bezala adierazi dut elementu eraso-tzaile bezala. (Arrese, 1990)

Amapolaz ari denean elurraren eta opioaren pareko dela azaldu digu Aranbarrik. Celan-en liburuari eginiko oharretan honela mintzo da Jesús Munárriz itzultzailea:

La amapola, papaverácea de la misma familia que la dormidera, posee como ella propiedades y simbología referentes al sueño, la muerte y el olvido.

Iturria zein den garbia da. Atxagak poema ezagun batean Rimbaud Lizardi bisitan irudikatu badu, Aranbarrik Celan-en eta Lizardiren zein Lauaxetaren artekoa idatzi du:

Muxuka nazak Paul Celan... (DE, 29)

Ez dugu astirik, ezta gogorik, idazle bien arteko parekatzea orrialde haue-tan egiteko, baina ohartarazi nahi nuke, *Dordokak eta elurrak* liburuaren lehen aldean agertzen den giro xume ta, neurri batean, eztiaren parekoa dela Celan-en liburuak lehen aldean agertzen duena.

Hemendik datorkio liburuari gehien errepikatu den ezaugarria, hermetis-moarena. Idazle honetaz aritu diren guztiek aipatu dute behin eta berriro, ezaugarri hori. Koldo Izagirrek deitu zuen Aranbarri taldeko idazlerik herme-tikoena. Lehenago ere ikusi dugu nola erabili duen deitura Arreserekin izan-dako elkarrizketan.

Poesia hermetikoak direla esaten didate sarritan eta hala izango dira, poe-sia nahiko hermetikoak, zirrikitzu betetakoak, ordea, klabe askotan zail sama-rak agian, erreferentzia ezberdin ugari dagoelako edo. Hala ere surrealismo kalkalatu bat dago, bere logika propioa segitzen duena. (Arrese, 1990, 49)

Ezaugarri beraz mintzo da Otamendi:

Hermetismoaren baitan gordetzen dena aratza da. Hautapen formalean dago kakoa, zailtasuna dakarrena hizkera poetiko propial batez jabetzeko egina da. (1994, 38)

Joera pertsonal horren hautapenean lehenago ere aipatu ditugu idazkera honen zenbait ezaugarri. Ordua da haietara itzuli eta lasaiago tratatzeko poesia honen zenbait adierazpide.

Modernismoaren eta sinbolismoaren eragina da lehena. Irakur dezagun estetika horren menpean eraturik dagoen hurrengo poema:

Arrabita lorez bete zen geroago  
Brioletez, gladioloz, amiñililiz  
Inoiz ez du zure adats zeatuak  
Hain zeru usainik izan sekulan... (DE, 15)

Lehen irakurketa batean modernismoak usain, kolore eta musikagatik izan duen lilura bera agertu du hor. Amaia Iturbidek oharrarazi gaitu puntu horretaz:

Aztarna ñimiñoen kadentzia, finezia, poetari maiteenak zaizkion gauzen bilduma (koadroak, grabatuak, apoarmatuak, irakurketak...) exotismo-arenganako lilura ... Batzutan, urgentziaz idatziriko apunteen antza hartzen diet esaldiei, bestetan, aire barearena. Bi tentsio hauen artean gauzatzen da bizitza, poema. (1990, 30)

Modernismoaren fintasuna da, hizkeraren erritmo zainduarekin batera testura eraman gaituen lehendabiziko lilura. Modernismoan aurkituko ginatke, poemen barnean, barne sentipen aipamena (urkatuak, heriotzak) ez balego.

Arrabita hori, adibidez, modernismoaren sinboloa izan liteke baina, era berean, Paul Celan-en “Todesfuge” poeman, hau da nazismoaren peko labe zuloetara hiltzera bidali zituzten juduen musika tristearen sinboloa ere bada, heriotz “fuga” musikaren soinularia.

...grita: tocad más sombríamente los violines luego subireis como  
humo en el aire  
luego tendrás una fosa en las nubes allí no hay estrechez...

Hain zuzen ere joera ezezkorrak urruntzen du Aranbarri modernismotik. Joera horrek eta abanguardira egindako hurbilketak, noski. Bere elementu ezezkorren katalogo garbia agertzen da Arreseren artikuluan:

Eta armiarmak, basurde urdin zaurituak, errinozeroak, kalosaurioak, tukanak, apoarmatuak eta dordokak kausituko dituzu poesia liburu honetako bestiarioan; zure memoriaren itsaso eta oihanetako zoomorfoak; ume basatiak, zoroak, presoak eta urkatuak. (Arrese, 1990)

Kanpo sentipenen barnean Piranesi-ren arkitektura asmatuaren mundua eraiki du Aranbarrik, eta puntu horretan banandu da sinbolismotik.

Erreferentzia literarioak anitzak dira. Esanak esan, *Jonas Poisson*-ek lotura estua agertu du *Etiopiako* Atxagarekin, abanguardiarene agerpena dela medio. Hainbat tokitan entzun du irakurleak haren oihartzuna:

Sekula itzuliko ez diren

Egun zoriontsu haiek kontatuz... (JP, 19)

desertuaren bihotzean zure urtebetetzea... (JP, 27)

Uda arorik amotsena... (JP, 39)

...edozein dendetan eros daitekeen

bozeolari tipia besterik ez haiz... (JP, 63)

Deslai, nostalgia, arrabita, aginte erak erabilteko joera... Perspektiban ikusiz gero, estraineko liburu horrek nolabaiteko oihartzun asko dakartza gogora, eta freskoagoa da, ez du bigarrenak lortuko duen sendotasuna, erreferentziaz arinagoa da. Otamendik ere bere lanean kideak aurkitu dizkio Aranbarri:

Anitzagoa da ordea erreferentzi mundua: garai bateko Atxaga, Sarrionandiak edo Izagirrek haina pisu izan lezake Dylan Thomas eta Marcel Schowb-ek; zenbaitetan giro aldetik eta hizkuntzaren kezkarri erantzuteko garaian Itxaro Bordarekin ahaidetasunak ikusten dizkiot, Luis Berrizbeitiarekin ere bai. (1994, 43)

Kontua ez da hori baina, kontua da bere lehen liburuan (bigarrena Celan-en bidera estuago markurtua agertu baita) metaliteraturaren barnean duela estetika Aranbarrik:

Bazegok, bestaldetik, literaturaren metaliteratura antzekoa. Literaturaz baliatzen nauk literatura egiteko. Liburu honetan asko baliatu izan nauk pertsonaia klasikoez, tradizioz etorritako pertsonaia eta mitoez: Orestes, Lorelei, Cuzco... eta gero amaiera aldera agertzen dituenak hurbilagoak, Berenice, Katuak edo Leopold Bloom. (Jimenez, 1986)

Literaturaren literaturaz, zinemaren eraginaz, *mass media*en agerpenaz hitz asko egin da azken aldeko garaietan. Guzti horiek ez dira soilik omenaldi pertsonalak, literatura eta kultismoa, estetizismoaren agerbideak ditugu.

Ingalaterra poetekin gertatu izan den moduan, Aranbarrik ere giltz ezkutuz oratu du bere poesia, irakurleei eta irakasleei lan iluna argitzeko beta ematearren, ziurrenik. Estetika kulturalista honen pean, gerora bizikunearen poesian zabaldu den beste joera bat aipatu du poetak: hain zuzen ere, maskararen eta mozorroaren kontzeptua:

Alde batetik uste diat, gauregunean idazten den poesia gaztea alde honetatik doala. Bazegokela lehen pertsona hori, hau da, poeta, zer den agertu nahi ez izatea ... ez diagu nahi geurea zuzenean adieraztea, baizik eta pertsonaia askotaz baliatzen gaituk edo honelako sinboloetaz, geu atzean geratzeko. (Jimenez, 1986)

Harrigarriak egiten badira ere baieztafenok, ondoren, agian Maiakovski-k ere marginatuetaz ardura hartzeko joerari erantzunda, bidea aldatu egindo da, nahiz eta onartu beharra dagoen, Otamendik erakutsi duen moduan, liburu bien arteko lotura zeinuak. Bigarren liburuan beste era batekoa da estetizismoa, helduagoa, lotuagoa, dentsoagoa: Celan-en mundutik hartua eta hara begira geratu dena. Kulturalismoak ez dio estetizismoari begiratzen, baizik eta memoriari eta memoriak gordetzen dituen, zoro eta preso, “entzerratupei”.

Erreferentzia literarioen erabilpena, beraz, zentzu bikoitzez erabili izan da bere lanean.

Estilo honen hurrengo ezaugarria irudien erabilpenean kokatuko dugu. Poesia hau ez da isilean irakurtzeko egin, entzuteko, edo, hobe, ikusteko idatzi da. Begien bidez irudikatzen.

Ez ditugu hemen irudien lotura askatuari buruz esan den guztia: nola abanguardiak urreneko esanahaiko hitz bi elkartu dituen bertso berean, nola sortu nahi den harridura irakurlearengan, nola surrealismoa, azken batean, ebakuntza mahaian guardasol batek eta josteko makinak egiten duten elkar topaketa den.

Neurri handi batean, Aranbarrik guzti hori erabili egiten du bere poesian, baina berak dioen moduan, “kontrol handiz”. Iruditerian barnean irakurleari gida bat eskaintzeko formarik badago. Irudiek oratzen duten nahasmenaren barnean bidea idegiteko modua bada: joskera, joskeraren haria ongi moldatzea, aditzak behin eta berriro moldez edo partez, ongi jartzea ageritan. Aranbarrik joskeraz egin duen erabilera erabat aipatzen du Otamendik:

Aranbarriren poesian sintaxia azpikozgora eta lehertua ere kausituko dugu. (1994, 39)

Irudimenarekin lotua den joskera berritzailea bai, izenondo aurrean jarriz ari dena; irakurlearen gogo koloretik dindilizka jarriz, estetika indartuz, sentipena eraberrituz:

Moratsak hostoak zure alkian  
inoiz zabalskak inoiz geziak... (DE, 24)

aditzen laguntzailea ere partizipioaren aurretik jartzen duena hari indarra emanez:

Zein ulergaitz den izpilu hau  
Agure hordia da falta ostatu zokoan  
Berriak ez dautza lo marbrezko mahaietan... (DE, 22)

Bai joskera berritzailea, baina, era berean, poemaren eraketan nagusi dena. Begira dezagun nola aditzaren paralelotasunak eratu duen poemaren gaia hemen:

Imajina itzazu  
Tristezian sortzen  
Kateatzen diren animaliak  
Ilunabarrak bezain astiro ...  
Imajina itzazu  
Bidangozeko orenak ...  
Imajina kornamusajole zuri bat  
ume basatiaren goizean... (DE, 42)

Adibide honetan, estilo zertzelada bat-batean ikusten da, ahapaldiaren lehen bertsoan kokatu den "imajina" aditzaren errepikazioak eman du poemaren kateaketa. Beste horrenbeste gertatzen da *Jonas Poisson* liburua hasten duen poeman:

...egunero laztantzen da  
joao batistaren gorpua  
egunero jasotzen  
ezpainarteko kamamila lorea  
egunero dibujatzen  
izarrak sabel guri zurian... (JP, 17)

Hirukoitasunaren inguruan eratu den paralelismo honek bukaera aldean eten egiten du berritasuna emanez:

...joao batistak egunero du  
zeinek konda geroa... (JP, 17)

Bukaerei eskainitako indarra litzateke idazle honek behin eta berriro erabilitako teknika. Bukaeran toki aukeratuak ditu Aranbarrik mezua berezia eskaintzeko, poemak eraiki duen munduarekin kontrajarpena lortzeko, harri-dura eragiteko. Bukaerako bertsoek berebiziko indarra dute, *Dordokak eta elurrak* liburuan, behintzat, ilunez eta saminez hitz egiten dutelako:

Ume basatiaren goizean... (DE, 42)  
Urkatu doratuak kulunkatzen... (DE, 45)  
Gerla zure ateetara da etorri... (DE, 47)  
Lagun hilak ditut gogoan zurekin nagoenean... (DE, 26)

Aditzen paralelismoa irakurlearentzat gida bada irudien artean nabigatzeko, iluntasunak badu oraindik nondik agertu. Mozorroaren teoriarekin jarraituz, bere nortasuna ezkutatzen duen poetak bigarren pertsona bati hitz egitea maite du:



Begira nola datorren langarra... (DE, 7)

Baina ez da inoiz garbi adierazten nor den bigarren pertsona hori. Zenbaitetan irakurlea izan daiteke, beste zenbaitetan maitea, edo maitalea, erabilitako metafora sexualeri kasu eginez gero:

Zure adatsaren kolorea du bideak  
Urdina... (DE, 12)

Entzun dut zure Iztarrarteko horbel hotsa... (DE, 13)

edo Celan-en liburuaren lehen aldea gogorazten duelako:

Amada, también tu eres la caña y nosotros la lluvia

beste zenbaitetan, ordea, zu horren atzean entzerratuak aurkituko ditugu. Aurpegia aldatzen du “zu” horrek. Aurpegia aldatzen duen moduan poetak askotan “gu” baten atzean jarriz bere izaera:

Hori da  
Ezar diezaigun izena neguaren fruitu bakoitzari... (DE, 62)

Izena eman nahi duen poetak lan handia egin du, sinboloetan askorik aipatzen ez den idazketaren sinboloaren inguruan. Iñigo Aranbarriren poesian idazkeran: postalek, gutunek toki handia dute. Idazketa bera poesiaren definizio gisa erabiliko balu bezala.

...ez diat gutun hau besterik bidaliko  
badakik, gaizki zegok dena  
jakingo du ondo naizena  
eta goroldioak estaltzen duela  
ene bihotz tipia... (DE, 34)

“Gaizki zegok dena” eta hortik irtetzeko modua idaztea da. Poesia, gutunak, postalak. Noizbait gutunak atea zabaldu dio itxaropenari:

Portobellotik bidali izan zizkion gutunak eta Pablo apoarmatu zaharra hartu eta antzarrei ikasiriko bideari lotu zitzaion, osakarbua eta belar bustiaren usaina lagun. (DE, 66)

Baina aroak gaizki daude eta Leconte de Lisle-k esan zuen antzera, dekadentzia garaietan norberaren inpresioak besterik ez dira geratzen:

2 postale nipoi (Sairuyo arratsaldez,  
geisa itsu bat)  
3 hegazti poema  
5 harri dizdiratsu  
Zer espero zenuten bada?  
Erneguarekin amestea?  
Nortasun arrastroa?  
Bakardadearen berri?...

Agian guzti hori. Baina, Sarrionandiaren mitologiaren atzetik, badu bigarren bide bat zabaltzen: marinelen bidea. Bidaiatzea eta untziz bidaiatzea ziklikoa da bere literaturan:

Azken orenetan nabigatzen diat  
erreskan datozen hitzen baitan... (DE, 34)

Halaz ere, nabigatzeak ez omen du itxaropenik ekarri ni honen baitara:

Ozeano gehiago. Untzi galduak gauean... (DE, 18)

Aingura altxatzen du  
Eta ezinezkoa da ihesa... (DE, 52)

Eta urak inoiz gure uhartea irentsiko duela  
Edo aieru hori duzula bedere, gure etxeak, ostatuak,  
Goletak eramango dituela harkaitz zorrotzerantz  
Ahaztura ezpal bilakatuz, kaolinezko amapola... (DE, 62)

Oroimenaren eta ahazturaren artean erresistentzia beharrezko omen da eta horregatik liburu bien bukaeran, azken poeman, historia gogoratzeko ahalegina egin du Aranbarrik. Aurrenekoan ikuspegi beltza erakutsi du, gizarte baretik zein kanpotik ikuspegi bera emanez. Bigarrenean, ordea, poetak bere burua apoarmatu gisa ikusi du, eta hori elurrak estali ondoren eta itsasoan galdu ondoren:

Harrezkero zer naiz  
Ipuinik gabeko dontzeila bat baino  
Apoarmatu urreztatua, hostots erori bat... (DE, 72)

## Bibliografia

ARANBARRI, I. (1986): *Joanes Poisson*. Susa. Donostia.

— (1989): *Dordokak eta elurrak*. Susa. Donostia.

(1990): “Hire ahotsaren balusari”. *Galeuzca*. 1. 1990. 103-116.

(1991): “Fotokopiagailua daukagu bihotzaren ordeztan”. 2. 1991. 81-84.

(1993): “Sarajevo mon amour”. *Argia*. 1.439. 1993-VI-13.

ARRESE, G. (1990): “I. Aranbarri: Entzerratu asko dago memoria liburu honetan”. *Argia*. 1.275. 1990-I-14.

ITURBIDE, A. (1990): “Hiru poema liburu”. *Hegats*. 3. 29-30.

JIMENEZ, E. (1986): “Jonas Poisson, gizartearen sabelean dagoen arraina”. *Argia*. 1.092. 1986-II-23.

KORTAZAR, J. (1986): “Jonas Poisson”. *Deia*. 1986-V-17.

— (1990): “Poesia gaztea”. *El Correo*. 1990-IX-5.

OTAMENDI, J. L. (1994): “Dordokak elurretan”. *Hegats*. 10. 35-44.

- ALBADALEJO, BLASCO, DE LA FUENTE, (ed.) (1992): *Las Vanguardias. Renovación de los lenguajes poéticos*. Júcar. Madril.
- BOZAL, Valeriano (ed.) (1996): *Historia de las ideas estéticas y de las teorías artísticas contemporáneas*. Visor. Madril. II liburukia.
- CHENIEUX-GENDRON, J. (1989): *El surrealismo*. FCE. Mexico.
- CHIPP, H. (1995): *Teorías del arte contemporáneo*. Akal. Madril.
- DE MICHELI, M. (1993): *Las vanguardias artísticas del siglo XX*. Alianza. Madril.
- DE LA TORRE, G. (1974): *Historia de las literaturas de vanguardia*. Guadarrama. Madril.
- MOLAS, J. (1983): *La literatura catalana d'avantguarda. 1916-1938*. Bosch. Bartzelona.
- TALENS, J. (1981): "Introducción". STADLER, HEYM, TRAKL: *Poesía expresionista alemana*. Hiperión. Madril.



## OMAR NABARRO

### 1. Poetika baterako

Labayru Ikastegiak Gaurko Poesiaz eraturiko hitzaldien barruan Edorta Jimenezek, Omar Nabarrok, hitzaldi luze baten zatitxo bat eskaini zion bere poetikari, aitortuz, hala ere, “Donostiako Poesia Jardunaldietan” esandakoa errepikatzen zuela. Ahoz, bat-batekotasunaren freskoa erakusten du testuak, baina era berean braustadaka, handik hona, doa hitzaldia. Kronologia eta memoriaren ikerketa honek bere zuzentasuna du eta aitortenaren tonu zuzena gordetzen du.

Hiru alde ditu poetika honek:

- a) Alde biografikoa.
- b) Eraginak eta idazle mirestuak.
- c) Prozedurak.

Alde biografikoan poeta izatearen sorrera aztertzen du Edorta Jimenezek. Poetika honetan ia-ia iturriaren sorrera joanez gogoratzen du nola piztu zitzaion poeta izateko joera:

Ta orduan etorri jatan irudi bat, eta irudi hori izan zan Mundakako molla zaharra, eta molla zaharrean dagozen ustebako irudiak, kresalaren ondorioz sortuten diranak. Hau da, hurretik ikusten badira zemento zatiak han irudiak ikusten dira. (1993, 239)

Kuriosoa da irudi hau: Sarrionandiak ere erabili du adibide bera bere poemetan, horman ikusten diren irudien bidez, irudimena sortzen delako, beste errealitate bat, irudikatua, sorrera-bidea sortzen delako. Ez da, ordea, gehien harritzen nauena Sarrionandiarekiko lotura, irudiaren aldeko apostuak pizten du jakinmina. Poesia errealitatea irudikatzeko bidea da. Eta, haur ahalmena, irudikatzeko ahalmena sorkuntza bide bihurtu du poetak.

Egia da, sorkuntza bide hori zaila dela definitzen, eta poeta bihurtzerakoa, gizakiak bere ikuskizun ahalmenean sinesten du, “bisionarioa” da poeta, besteek ikusten ez dutena ikusteko gai den heinean. Ez ditut estaliko definizio horrek duen erro erromantikoak: poesia ikuskizuna da, irudimenarekin lotua dago. Baieztapen honetatik hasita, uler dezakegu Edorta Jimenezen, edo Omar Nabarroren poesia.

Nire eritzian poema posible bakarra erromantikoa da eta nire eritzian surrealismoa bera erromantizismoaren azken muturra da, eta surrealismoa ta gero ez dot uste beste ezer dagoenik. (1993, 222)

Garbiago ezin azal daiteke non kokatzen duen poetak bere burua: surrealismoaren barnean. Eta arrazoia du esaten duenean, surrealismoa dela erromantizismoa; ez gara orain haren definizio bila geldituko, baina azken uhin kritikoak adierazten duenez, modernitateak hiru iraultza poetiko ezagutu ditu. Lehena, erromantizismoa; bigarrena, sinbolismoa era azkena, abanguardia modernoarena. Ondoren? Ez da arrazoizko esatea surrealismoaren ondoren ez dagoela ezer. Zentzu denboralean, ondoren abanguardiari egiten zaion erantzuna dago: estetizismoa, edo nahi bada, joera tradizional, klasiko eta kontserbatzailea. Zentzu espazialean, agian, arrazoia du: muturrerago ez da besterik aurkitzen. Surrealismoak ixten du banguardiaren atea. Baina, banguardiaren ondoren joera arautuagoak etorri dira eta banguardiari buruzko eztabaidak. Horixe da, hain zuzen ere, poesiaren eta literatura osoaren patua, eztabaiden bidez, aldaketan bizitzea.

Garbi dago surrealismoa eta abangoardiaren barnean kokatuz bere burua iritzi politiko baten agerpenaren alde erakusten duela Edorta Jimenezek. Hori estetikak berak eskatzen duena da, beste barik, surrealismoaren azpian mundu-ikuskerak aldatzailea eta iraultzailea agertzen baita, agian “literaturak dakar naziotasuna” azaldu arte.

Joera politikoaren agerbiderik zuzenena erakutsi du Edorta Jimenezek bere *Egutegi experimental*a liburuaren hitzaurrean:

Poema onak eta txarrak daude, baina denak dira politikoak heuren tes-tuinguru historikoan. (EE, 5)

Hiztegi kontua oso labana bada ere, lotura historikoa beti dago literaturan, baina horri ez zaio “politikoa” deitzen. Lotura historikoa esanahi zehatza duen artean “politiko” hitzak esanahi zehatza du: alderdi politikoaren esanetan jartzen dena da, zuzenki, politikoa.

Surrealismoaren eraginpean sorturiko poetika honek, hala ere, ezaugarri bi ditu bere eginbidean. Batetik, Edorta Jimenezek ez ditu alde klasikoak alde batera uzten. Itxaro Bordaren lanera erkatzen duen ezaugarrian, sonetoak maiz idazten ditu:

Nork ote du errimak paratzeko astirik garai honetan? Poesia neurtugabea (azalean neurtugabea) prosa hutsa baino besterik ez dena uste dutenei idatzi nien prezeki, soneto hori [“Hareatzan etzanda poemak”]. (EE, 4)

Maite du forma klasikoa idazleak, bere eskuaren trebezia erakusteko ere balio diola. Baina ez da hori maitatzeko arrazoirik nagusia.

Garai horietako beste zenbait poeten gisa, exotismo pixka bat badu bere poesiak. Ekialdeko poeta bienganako lilurak bultzatu du poeta bere lanean haien oihartzunak ekartzera. Omar Kayam da lehena eta beragandik hartu zuen izena, Omar Nabarro sortu arte. Kayamek hedonismoa erakutsi dio, heterodoxia, “arau hauslea” den neurrian. Bigarrena, Kavafis dugu, honen itzala bertsoetan agertuko zaio Edorta Jimenezi, irudien trataeran eta zenbait gairen ikuspegian.

Hori horrela bada ere surrealismoaren bindikapen argia egiten du Edorta Jimenezek bere poesia deskribitzerakoan:

Surrealismoa izan bait da, eta orain ere bada izan, gehien mirestu izan dodan joera, ismo, eta mobimentua. Eta nik André Breton-en manifestu surrealista irakurrita nituen, (1993, 242)

Hortik dator poesiaren agerpena lan honetan: literatura olgeta bat da:

Eta abanguardiarren eraginik nabarmenena nirengan, oraindino be bada, literatura eta literaturgintza zer ludikotzat ikustea eta izatea da. Literatura olgeta da beste ezer baino lehen, gero gerokoak, hots, olgetaren zertarakoa, eragina, konpromisoa eta abar gerorako ... Solas eta jolas. (1993, 243)

Jolasari buruzko teoriak ugaritu egin dira Oulipo taldearen lanaren ondoren, talde honentzat jokoa eta jokoen arauak zerikusirik handia baitute literaturaren sorkuntzan, baina Jimenezek beste zerbait adierazten du: sorkuntzaren poza, surrealismoaren freskotasuna, inspirazioan sinestea, zuzenago.

Guztionatik da unea hain garrantzitsua bere poesian. Autobiografiatik hurbil badago ere, unean unekoa idazten duen poeta da Jimenez:

Poesiak unekotasuna berraurkitu dau, unean unekoa ... iragankortasunaren iragankortasunaz konszienteak izanik, argi errainu bakoitza bera berez maitatzen ikasi dogulako. (1993, 250)

Honek guztiak txikitasunaren poesia dakar. Baina horien ondoan, Jimenezek poema luzeak maite ditu: idazkera automatikoz sorturikoak, edo tonu epikoak dituztenak. Unearen agerpenak eklektizismoa dakar idazleak aitortzen duenez:

Eta hau zer da: minimal, puntillismoa, eklektizismoa. (1993, 251)

Forma aldetiko eklektizismoari buruzko hausnarketa horrek zuzenean dakar Pessoa-ren aipamena:

Pessoak heteronimoen bidez ... idazten eban eta batean nortasun bategaz, bestean beste nortasun bategaz, bai lexikoan, bai gaien aldetik, bai poemien tankeren aldetik. (1993, 251)

Unearen menpeko eklettizismoan Edorta Jimenezek ere unean unekoaren menpe idatziko du, une bakoitzaren aldeko tonua bilatuz. Ugartitasunaren alde egin den baieztapen horrek ez gaitu, ordea, desbideratu behar. Egia da ugartitasuna, aldaketa, unean unekoaren menpekoa agertzen dela idazle honen liburuetan. Baina, oinarri gisa, badira zutabe bi inoiz aldatzen ez direnak. Lehena, surrealismoa da lehenago aipatu dugun moduan, bestea pertsona zehatzagatik duen ardura.

Bere heziketa poetikoa landu dutenen izena eman duenean, Edorta Jimenezek beti aipatzen du César Vallejo-ren izena.

Vallejo hunkimena da, zirrara eta emozioa, barneko estura bat dardaraz, eta ganez egiten duen barruko itsaso bat. (1993, 245)

Poetak beti aipatu du Vallejo-ren poema ezaguna:

Considerando en frío, imparcialmente...

Poema hori sinbolo bat bihurtu da Jimenezen lanean. Hor agertzen dena, pertsona zehatza da, eta orain nola ez gogoratu Jimenezen poemetan agertzen diren izen ugariak: adiskideak, neba-arrebak, alaba, eskolako lagunak... Zehatzasun historikoak ematen dio haragia poemaren tentsioari. Pertsona zehatzengana begira dagoen poesia bada ere Jimenezek idazten duena, ez du abstrakziorik falta. Vallejo-ren testuari eranskin bat eginez, Jimenezek poesiaren beste (eta azken) definizio bat eman du, agian, bereen artean borobilena, agian bere poesia ikusten uzten duena; nahiz eta, hau ere esan beharra dago, surrealista batengan arraro xamarra gertatzen den, eskatzen dituen kontrol eta orekagatik:

Eta nire eritzian olgeeta eta emozioaren arteko sintesi trinkoa da poesia. Poesia hutsa ariketa da eta emozio hutsak testigantzak dira. (1993, 246)

Hitza eta emozioaren artean sortzen da Edorta Jimenezen poesia, hurrengo orrialdeetan irakurriko duguna.

## 2. Poema liburuak

Omar Nabaroren, Edorta Jimenezen poema liburuak, berak idatziriko laurak (*Itsastxorien bindikapena* (1985), *Egutegi experimentalak* (1986), *Gaua zulatzen duten ahausietan* (1987), *Odoleko eskifaia* (1989)) inpresio desberdin bi sortzen dituzte lehen hurbilketa batean. Aldekoa, lehena, ez hain zorrotza bigarrena. Lau liburuak, eta garbiago azken biek, egitura sendoa agertzen dute, poemategiaren zatiak ongi moldatuta daude, neurri baten argiak dira;



sinbologia ardatzak ere ongi pentsaturik agertzen dira, koherentzia eta batasun hari batek, aurretiaz eraturiko ikuspegi baten menpe jarriko balitz bezala poemategiaren mezua; hiru-lau esanahi adarrek gotortu eta argitu dute liburuaren mezua: eguneroko bizitza, barne eta kanpo paisaiaren arteko lotura, sexua, injustiziaren aurreko protesta, inoiz pertsonalki azaldua, torturaren gaia. Hor aurkitu dezakegu eraikuntzaren hageen arteko hezurdura, baina barruan, irudimenaren dantza nagusitu da, espresio mailan irudimenak eta irudi-jokoek indarrez agertu dute bere ahalmena, geldiezinak balira bezala etorria, eta honen ondoan, hizkeraren bor-borra.

Poesia idaztea zer den horren definizio bat eginez hasi nahi dut: barruko jario isiletik azalera datorren hitza, kondesazioz, sinpatiz, iziotzez zein beste edozein gerrabidez nahiz bakebideren eraginez datorrelarik azalera ... Bildur gara. Adi bezate gure ikara. Erakutsi behar dugu botearekiko menpekotasunak ez dugunaz. Goazen bildurraz haruntzago, etengabeko ikaraldira. Gure hitzak bezain ozen, adi bezat ikaraldira. (1991, 121, 123)

“Poesia eta isiltasuna” izenburupean idatzitako poetika baten hasierako eta amaierako hitzak ditugu: poesiak barnean dagoena azaltzen du, baina barnean dagoen hori, larridura, ikara, bat-batean azaltzen da kanpoan, egonezinez, urduritasunez, tentsioz, bor-borrean. Hauxe dugu lehen inpresioa.

Bigarrenak, poemategi honen kalitate maila desberdinez hitz egingo luke. Beste batzuk ere, Koldo Izagirrek tartean, adierazi dute desoreka dela poemategi honen ezaugarrietako bat. Beharbada bai eta behar luke. Estetikak surrealismoaren alde egin du, beste izenez erromantizismo baten alde, eta estetikak bat-batekotasuna eta idazkera automatikoa defendatu dituenek normalak dira gora-beherekin aurkitzea, kalitate maila desberdinak, pasarte ilunak eta desitxuratsuak.

Lau liburuok batera irakurritz, eta gaurko perspektibarekin, badirudi lehen biek esperimentazio handiagoa agertzen dutela eta batasun joera handiagoa beste biak, bere zatien ordenamenduarekin. Zatien taiukera ez da falta aurreko bietan ere, batez ere *Egutegi esperimentalak* (Davanten *Denboraren aroak* gogoan?) kanpo egitura hartzen du, aitzakia, poemategiaren barnean batasuna lortzeko. Baina ez da egitura edo egituraketa kontua soilik, mundu ikuskararena ere bada, eta neurri handi batean sinboloen ordenamentuarena. Adibidez, *Itsastxorien bindikapenean* zenbait poemek prekariotasunaren irudia ekartzen dute, bukatu gabe balira bezala (“Gernika I”), eta ez du laguntzen inprentako huts batek (36. eta 37. orrialdeen trukaketak, alegia) orekaren inpresioa moldatzen. Ondoren nahikundeei buruz argiago hitz egin du poetak:

Hizketa bortizaren biolaketa egin dut ... eta erabili ditudan elementuak sarritan bortitzak izan dira, edo gilotina, edo kristalak, edo area, edo kutxi-loak, edo bonbak, edo espoletak.

Liburuan bada halako trinkotasun bat... (J. J., 1987)

Hona *Gaua zulatzen...* liburuaz egindako aitorpenak: hiztegiaren aldetiko batasuna eta liburuaren trinkotasuna aipatuak. Baina, guztia esan behar bada, aitortu behar da *Itsastxorien bindikapena* liburuan bazirela ondoren nagusitu-ko zaizkion sinboloak martxan, itsastxoria, usoari, bakearen usoari kontra-jarrria:

Aizu Pablo,  
gorroto dut bakearen usoa  
zeure usoa... (IB, 35)

poetaren tristuraren agerpena, “Tristuraren inbentarioa”, edo etsipenarena:

Arroka primigenioak birrindu ditu denborak... (GZ, 36)

eta alkohola edo odolaren arteko nahasmena; odola, errealitate sumin eta gogor baten adierazle, eta alkohola, poemategiko pertsonaia galduen ihesbide umil gisa:

Erraietako amorruan txerkaturiko  
hitz-kate totelak bailiran  
alkoholetan itotako kristalezko perpausak  
osatzen dituzte  
—etsipenak agindu joskeraren menpeko—  
mostradorean pilaturiko baso hustuek  
gauero... (GZ, 54)

Nahita aipatu ditut sema-adarrak lehen liburutik eta aipamen eta adibide-ak beste batetik, denen artean dagoen batasuna adierazi nahiez.

Sinbolo eta ardura poetiko nagusiok badute sormen toki jakina Edorta Jimenezen lan poetikoan. Surrealismoa da bere poesiaren gunea eta honek, bihotz baten gisa, odola bidali du bere liburu-eta inguru guztietara.

Gunean, bihotzean surrealismoa dugu, begirada apokaliptikoa:

Eta itsasganan piztean suteak  
Goiza urratutako oilariteak  
Sumendi isuria baino beroago  
Heltzen bazaizu jakin dezazula  
Zaurietan sutzarra daridala  
Gaur naizela inoiz baino bakarrago... (GZ, 7)

Har ditzagun horko sinbolo telurikoak: itsasoa, sua, goiza, sumendiak, guztia baina zaurietako sua eta bakardadea adierazteko, teluria apokaliptikoa barneko ikara, beldurra eta izua adierazteko:

...izuen geografia berria... (EE, 17)

Surrealismoak, Jacqueline Chénieux-Grendon-en definizioa gogaraten duen arren, gizartearen arauen aldaketa bilatzen du:

El surrealismo, en su proyecto más general, pretende mezclar el deseo al discurso del hombre, y el eros a su vida —y no sólo decir (describir) el deseo o el eros—; pretende abolir la noción de incongruencia o de obscenidad, dejar hablar al subconsciente y simular diferentes patologías del lenguaje; pretende socavar la busca de verosimilitud en el arte en una formidable apuesta por lo imaginario. (1989, 10-1)

Aipu honetan aurkitu ditugu poetika honen ezaugarriak nabariak: irudiaren aldeko apostua, zentzurik ez duenaren alde egitea eta erasoaren aldeko joera.

Poetaren irudia, testuaren erdian dago. Poetaren autobiografia maiz agertzen da testuotan. Agerian dira paisaiak: Nerbioi, Ezkerraldea, Izaro, Kantauri itsasoa: agerian *Egutegi experimental*a liburuan pertsonaiak: neba-arrebak, adiskideak, alaba, agerian paisaia. Bera da hemen begia, berea ikuspuntua. Baina autobiografia ez da testigantza bihurtzen, autobiografia moldatu egiten da irudietan, ez da errealismoz tratatu nahi, izaki horiek sufrikarioz agertu dituzte beren buruak, eta surrealisten nahi zuten moduan logika ukatuz, ordena arbuiatuz, kontraesanak azpimarratuz, irudimenaren mundua soilik sortu arte.

Edorta Jimenezek bere poesian maisu surrealisten onarpena egin du.

Askatasuna da poetaren irudi erromantiko horretako lehen oinarria ... askatasuna hizkuntzaren barruan ... askatasuna tabuak diren gaiak jorratzeko ... askatasuna inorekin ez bustartzeko ... askatasun hori hartzea pekatu egitea da arauaren kontra jokatu beharra dagoelako. (1993, 223)

Eta arau akademikoez irri:

Akademiak esan ariketak  
betetzeko erdiminez arimak.  
Sufritzen ari dira gure estetak  
gaurko ganora ezaren biktimak.

Gorrotoak bultzatzen du zenbaitetan:

...eta zuenganako  
gorroto infinitoa.  
Urrunegi heldu da zuen gorrotoa  
Unibertso osoaren bira eginda  
Gerripean  
Akuilatzen gaituen  
Iltze muturra bihurtuta  
Zeuen aurka  
Garamatza... (GZ, 61)

Gizartearen iraulia nahi luke ia-ia ikuspegi libertarioa osatu arte, gizaki anarkistaren agerbidean. “Aurrekoarekin apurtzea” (Garitano, 1985) izan da poesia honen joera nagusia.

Ametsetatik errealitatera  
dagoen tristuragune infinitoan... (IB, 80)

Amets mundutik dator kio irudiaren erabilpen gozotsua, batzuetan aurki-kunde harrigarriak lortu arte. Hona hemen adibide zenbait, jakinda ere horrelako asko aurki ditzakegula bere lanetan:

...ispilutasuna galduriko ibaitik ihes  
kalatxori zoratuak eskapateetan... (IB, 23)

Garretan itsasgaina  
ostadarra hegalak... (IB, 45)

Ene erresumina  
eta pinuari darion erretxina... (IB, 71)

Hara eldarnio zaldiak, ero... (OE, 34)

Pikondoaren begi iriki berri  
ferdeak-lur nini bejetalak... (OE, 47)

Irudien munduak irtenbide bi ditu: era batean, izadiaren bidez eta Neruda eta Vallejo gogoratu, teluriaren indarra azpimarratu du idazleak, edo *collage*aren bidez, egunerokotasuna, eguneroko paisaia eta bizitzaren, ezinegona adierazi ditu:

...bizitza bera den egonezina  
Itsastxorien egonezina Pablo... (IB, 38)

Egonezinak, beraz, edo pentsakizunaren higiduraren alde egiten du, idazke-ra automatikoa sortuz, edo era batean errealitate asko agertu nahi du *collage*, kaligrama eta pilaketaren bidez. Aldi berean gertatu ohi dira modu modernoan mila ekintza, eta aldi berean gertatzen dena era berean azaltzeko, bide desberdinak erabili ditu Edorta Jimenezek; alabari idatzitako gutunean tipografiaren ahalbideak landu ditu; bere begietara aldi berean gertatzen den paisaia adierazteko, berriz, pilaketa maite du. Dena baina, egonezina adierazteko asmoz.

San Antonio zubia,  
izu oren frontera,  
Bilbao la Vieja;  
ijituak; P. E. S. A.; tabernak;  
Urazurrutia; Zamakola... (GZ, 13)

Egonezinaren adierazpidea, eta ametsaren eta errealitatearen arteko lotura idazleak barne paisaiaren eta kanpo paisaiaren artean egiten duen zubia:

Gero badago teorizazio bat poesiaren funtzioaz. Nola gure barruan geratzen diren gauza guztiak, joera dugun paisaje baten barruan kokatzeko ... gauzak barruko paisaje horretan kokatu imajinezko mundu bat sortzeko. (Garitano, 1985)

Naturako elementu horiek hartu eta nire barruko paisaia kokatu. Eta barne sentsazioak sinbolizatu eta sintesia egin kanpoko eta barruko erreallitatearen artean ... hor badago surrealismoaren eragina. (J. J. 1987)

Urte biren buruan idazleak teoria berari jarraitu dio bere poesia estiloaren gune bat azaltzeko, hitzak ia berak dira, gainera. Barne paisaia eta kanpo paisaiaren arteko loturaz, esan behar duguna da zein garrantzitsua den poetika honetan, agian, bere errekurtsorik nagusia da, eta, horrela, ez zaigu zaila egingo adibiderik aurkitzea:

...portuko sarrerako muino borobilak eta portua bera,  
berotasun ezez  
abegia egiten ene itsasuntzi errakorrari... (IB, 90)

Ispilu horituak  
tristura egonezinak  
heriotzaren testigu mutuak... (EE, 38)

Neure erpurueta, baso bilakatzeko  
eta bertan bizi diren basapiztiek  
zeure haragia bilatzen dute... (GZ, 24)

Izerdi hotz hau, tantok, ez ote  
barruko itsasoak gainezka eginda... (GZ, 53)

Hitz-huntza eztarran gora  
isiltasunaren ormak  
landare barez estaltzen... (OE, 18)

Barne-paisaiaren eraketa horretan sinbolo bik berebiziko indarra dute: zaldiek eta trenak. Biak dira, melankolia eta agoniaren artean, egonezinean mugitzen den poetaren ikur:

Batzutan zer ote melankonia?  
Hautsez gauzekiko armonia  
Ahots ezkuturen baten afonia  
Edo barruko zerbaiten agonia?... (GZ, 21)

Agoniaren itxuraldaketa zaldiek egonezina adierazten dute, eta gainera eldarnioa:

Eldarnizko zaldiak zamalkatzen  
oroimenean zabaldu zaurian.  
Zainetan gora ezinaren zama... (GZ, 69)  
Hara eldarnio zaldiak, ero... (OE, 34)

Eldarnioa, ametsarekin loturik agertzen da, eta neurri berean, ez amets lasaiarekin, egonezinarekin baino. Beste alde batetik, zaldia lotu egin du idazleak “zaina”rekin eta honen barrutik doan odolarekin. Ur uher eta ur ilunen, ametsen iluntasunaren seinale, ispilu ilunen agerbide, interesa bere bizia du idazleak. Ametsetan bezala gorpu suizidatuak (GZ, 45) eta itoak (IB, 77), ur ilunetan jausi egiten dira, desagertu, nortasun galduak dira ametsetan gertatzen den bezala: amets ilunetan galtzen da gure nortasuna.

Zaldiek eta ernaldioak ba dute loturarik amets erotikoarekin eta sexoarekin:

Eldarnioaren laberintoaren  
mapa libidikorra  
marrartzuz Ariadna... (GZ, 49)

Trenak, ordea, ez dute hain esanahi garbirik. Mezu desberdinen agerbide dira trenak testuetan. Badira autobiografiaren seinale; baina bada oroimenaren agerbide; Atxaga gogora ekartzen duen bertsoan:

...tren geldoetan  
pilatzen  
bidaiariaren oroitzapen eroak  
arratsero... (IB, 29)

Hori bai, trena geldirik dagoena da, eta zenbaitetan tren geldi horrek oroimenarekin batera dekadentziaren irudia ere badakar:

Inorako ez dagoen trena hartu duzu,  
karril herdoilduetan bertan behera datzana  
bera ere herdoildua, itzalen amarauna... (EE, 46)

Denboraren joanaren seinale, aurrera doan trenak, ordea, mitologia klasi-koarekin nahastuz, *Gaua zulatzen* liburua “Egunsentiko trenak” saila osatu du.

Eta tren hori erotismoarekin lotzen da berriro:

Oroimeneko bide itzaltsuetan... (GZ, 35)

Sexoa surrealismoaren gairik maitatuena da, barne mundura heltzeko modua delako, nortasunaren iluntasunaren ispilu eta era berean psikoanalisi eta ametsen munduarekin bat egin duelako. Beste alde batetik, sexoa gizarte arauen aurka joateko arma gisa erabili dute surrealistek.

La pertenencia al grupo ... es una condición central de la vida surrealista en su definición francesa: lugar en que se exacerbaban las sensibilidades, en que se exalta la creatividad ... Al lado de la vida de grupo, ciertos “valores” surrealistas se encuentran en el origen de las jerarquías nuevas y de nuevas diferencias: la búsqueda del eros, la búsqueda de la libertad (política y social), la búsqueda de la poesía. (Chénieux Grendon, 1989, 19-20)

Erotismoa, maitasuna baino hitz zehatzagoa da poetika honetan, orrialdez orrialde agertu ohi da. Lehenik, barne ezinegonaren adierazbide da, barne sor-kuntzaren joera, eta bere hitz sinbolikoa Edorta Jimenezen lanean “esperma” hitza da:

Espermaz bustirik bizkarreratzen ditut eskuak... (IB, 48)

Baina eginkuzuna gordina bada aipuetan, sexoak askatasun nahia adieraz-ten du, gorputzaren zatiketa zentzuaren bila:

...ainendi zeure magalean bustiz  
oroimena gal, desegin neu guztiz,  
betirako ez izatera lotu... (GZ, 9)

Karmara heltzeko bide da sexoa, baina hori baino gehiago ere bai. Jimenezek irudikatu du lur primegenio bat, eta sexoak hara eramaten gaitu, denborak oraindik lausotu eta desegin ez duen eremura:

Esnatuz laberintoan sugeak  
plaktonez zuriska ozeanoa  
ametsetan igerika baleak  
more han urrun urrun ozonoa... (GZ, 11)

Sexo-arloan askatasuna agertzen badu, beste horrenbeste gertatu zaio poli-tika arloan. Futuristek aberria askatasuna baino lehenago, aldarrikatu bazu-ten, Jimenezek:

...lehenago askatasuna delako  
eta  
gero  
bakea... (IB, 38)

adieraziko du, beti ere, usoaren aurkako txori:

...libertarioa  
sekula kaiolatu gabea  
puroa  
nahiz eta hondakin odoltsuak jan  
hegalari asperezina... (IB, 38)

Deituz bere ondora. Saiatzen da poeta panfletotik urruntzen, nahiz eta esaldi borobilegiak asmoa traditu:

Sorterria defendatu behar dela armaz  
Inoiz izango bagara askeak, kaioa... (EE, 41)

Asmo politikoak, ideologiaz aparte, eta ikusi dugu nola agintzen duen ide-ologiak poetika honetan poesia politikoaren alde izkiriaturiko lerroetan, alde bi hartzen ditu. Lehen aldea testigantzakoa da, bigarrena sinbolikoa.

Testigantzak batez ere tortura salatzen du, norberarena eta Joseba Arregirena. Idazlearena hitzaurrean agerturiko aipuetan agertzen da zuzenean:

1984ko urrian atxilotu egin ninduten. Zazpi egunetan zehar jasan eragin zizkidatenak, basakeriak, ez dira hemen kontatzekoak ... Joxe Arregiri eskeinitako poemak neure larruan frogatutako kalanbrekadak dira. (EE, 3)

Isiltze horrek adierazten du gorago aipatzen genuen panfletotik urruntzeko gogoia, halaber tortura gaia erabiltzerakoan aurkezturiko irudi surrealistikak:

Sagatsen begi ireki berri  
iletsuak  
errekastoen ibarretan  
goiza laztantzen. (EE, 15)

“Iraultza ezer baino lehen eta beti” esaldia erabili zuten surrealisten zabaldu diote bidea Edorta Jimenezeri eta “izuen geografia berrian” ez dira bakarrik torturak aipatzen. Arazo sozialak, esplotazioak badu hemen tokirik. Gai hau tratatzerakoan, irudiak ez du bere tokia galdu eta salaketa metaforikoki gertatzen du. Zentzurik ez duenaren aldeko apostuak ez du soilik joskera apurtuko testua erabiltzen. Zentzu faltazkoak paradoxak maite ditu, eta *Egutegi experimental*a liburuko poemarik hunkigarri eta ederrenetarikoek, “Ispilu anonimoak”, iruditik eta paradoxatik hitz egiten dute gizarte arruntatik at diren gizakiez:

Ispilu anonimoak  
sekretu arrunten  
hondorik gabeko amildegia  
emakume arropak frogatzen dituen adoleszentearenak  
negar dagien apaiz etsitu agnostikoarenak  
tabernetako komunetan pikatzen den heroinomanoarenak... (EE, 38)

Egunekotasunera kateatuko tragedia da Edorta Jimenezek kontatzen duena, bere joera politikoa sakonduz. Chénieux-Gendon-ek bere liburuan galde egiten du surrealismo eta politikaren arteko loturaz, eta bere joera liberarioaz mintzo da, surrealismoaren izpiritua dogmatikoa ez dela aipatuz. Ez dakit Edorta Jimenez den txori libertarioa dogmatikoa den ala ez, eta horretarako bere testu poetikoen gain bere testu politikoak ere ikusi beharko baitkenituzke. Baina badakit poetak bere zentzuaz galde egin duela, agian, etsipenerako bide dena zabaltzeko:

Geure eskutan dugu etorkizuna... (EE, 12)

baietsi badu ere, zalantza inguruan du:

...garai batetako hainbeste amets  
ez ote sukarraldiko kimerak?... (EE, 12)



ondoren bere azken joera arestiarra aipatzeko:

Historia aldatzeko ez naiz nor  
gera dakidala mihingaina lehor  
ez badut egia defenditzen gotor... (EE, 29)

Odolak betetzen ditu sufrikarioaren abenidak, tristeziaren inbenterioa egi-  
ten duenaren begian:

...odoletan ere  
desagertu egingen da  
urdina... (EE, 9)

Hortik hasi eta *Odoleko eskifaia* osatu arte bide luzea egin du sinboloak. Odola isuritakoa borrokan da, baina bada zainetan ezinegonik dabilena. Odola, azken batean, ur iluna ere bada, eta, lotura harrigarri batean alkohola-  
rekin nahasten da. Alkohola oinarria da poesia honetan grina zer den jakiteko  
eta ikusteko: barneko ezinegonaren sinbolo, bizitzaren iturri.

Alkoholak eta ardoak beste esanahi garbia dute testu barnean. Droga mun-  
duarekin lotua dago, ihesarekin:

Ardoa, droga zentzu zabalean, dugu azken kontsola-bidea. Godeleta  
behin eta berriro betetzea eta hustea, aurrera egin ahal izan dezagun. (EE, 5)

Kontsolabide izateaz aparte, ardoak, umilen droga umil horrek, amets eta  
inkonstzientziarantz bidea zabaltzeko ate ere bada, barne munduen esplora-  
zioarako giltza. Ardoa eta eldarnioa batu egin dira poemategian:

Gorputzean da alkoholen padura:  
goizak borrero lana du hastear... (OE, 34)

Hasiera-hasieratik du poetak denboraren joana poemagai. *Itsastxorien bin-  
dikapena* liburuak eman zion gaiari hasiera, sail osoa aurkitzen dugularik  
gaiari buruz. Hor dira lehen galderak: Alde sinbolikoak odolean du bere gil-  
tza. Odola da testuan sufrikario den guztiaren sinbolo:

Eta historiak aldatzerik ez duela sinistera heltzen ote den galdetuko nioke  
nire burua honelako bertsoak irakurriz batera:

...esperantza,  
etsipenaren sorbalda traidore hori... (IB, 67)

Zer haiz denbora,  
Bideska ilun  
Banoa, nora?... (IB, 55)

Lehen galdera horretatik hasi eta amaren heriotza kontatzen duen poema  
luzerarte, poemategiak heriotzari buruzko aipamenez txipristindurik daude.

Ez da agian, hausnarketa ezta asmo existentzialista larririk testuan baina  
behin eta berriro itzultzen da poeta gai horretara. *Egutegi esperimental*a libu-

ruran Azaroak, hildakoen egunari buruzko saila osatzen du. “Herioa eta Loa” gai topikotik hasi eta

Herioa eta Loa  
—Loa zaldi;  
Herio zamaldun—... (EE, 80)

Hilerriko poemak osatu arte testuak bidaia luzea egiten du gaiaren inguruan: irriz eta ironiaz, estilo bufoaz zenbaitetan, baina sarriago joera serioz. Strauss-i buruzko poemetan gaia oso presente dago:

Badakit  
—ondo jakin gainera—  
ez dudala sekula be  
eternitate apurñorik izango... (EE, 63)

Areagotu egiten da Beethoven-en menpean jarritako sailean eta azken musika saioan: “Martxa funebrea” deiturikoan.

Baina ez da inon lazgarriago “Epsilon, epsilon” (OE, 30) dei genezakeen poeman baino. “Epsilon” planeta berri baten izena da, han urrunean dago, tartean poetak bere ama zaintzen du; ama, konorterik gabe dago koman eta ez dago komunikaziorik bien artean. Testuak planu desberdinak nahastatzen ditu, errepikazioan mantendu du batasun-haria eta, hunkigarritasuna lortzeko hiztegi oso objektiboa bilatu du.

Hiztegian hogeitamar izenetik gora dituzten  
intsektuak —lepidopetrioak—  
hegaldatzen dira —hori hori—  
kloroformo eztenkada filointsektukoiairen ondorioz... (OE, 30)

Kimikatik zen biologiatik zein Medikuntzatik harturiko hiztegia darabil maiz Edorta Jimenezek eta honek beste ate bat zabaltzen du poetika honen azterketan. Bada literaturaren historian poesia eta zientzia, edo zientziari buruzko poesia, elkartzen dituen lerroa. Jimenez lerro horretan sarturik dagoela esango nuke. Hiztegia aztarna litzateke, ez baita soilik *Odoleko eskifaia* liburuan gertatzen, hor nagusitu arren, landareei buruzko, Biologiako buruzko hiztegia erabiliz. Aurretikoa zen joera: kimika zein elektrizitatea aipatzen ziren “Tristuraren inbentarioa”n (IB, 77), ekonomia ondoren (IB, 78), filosofia materialista (IB, 85), kimika berriro (EE, 60), biologia (GZ, 36), e. a. Hiztegi tekni-koaren erabilerak adierazten du idazleak literatura hori maite duela. Eta zerbait sakon dela, zeren zientziari buruzko literatura bada *Gizaeuropa*.

### 3. *Gizaeuropa*

1986. urtean Omar Nabarrok eta Joseba Urizarrek *Gizaeuropa* liburua argitaratzen dute. Lau eskutan eginiko liburu honek surrealismoak zabaldu-

ko bideetatik doa: taldeko lana, batak esaten duena, besteak osatu, e. a. *Gizaeuropak* egitura berezia agertu du: bost zatitan banandua: Inoiz, Antzina, Geroago, Oraintsu, Beti. Europako historian bilakaera egin nahi du. “Inoiz” sailak maila mitikoa bildu du beren orrialdeetan, Antzinate zaharra, idatziriko mezu bakoak “Antzinate”k, Irlandako herrien aipamena eginez, eta Guratzadako historian bukatuz. “Geroago”k Euskal Herriko historiari egindako begirada da. “Oraintsu”k alde bi ditu, Lenin-i, eta iraultza komunistari egindakoa lehena eta Europako intelektual zenbaiti buruzkoa bigarrena. Foucault (lekuz kanpo beharbada), Nietzsche, Freud, Wittgenstein, Russell, Einstein; “Beti”k ikuspegi orokorra eskaintzen du Europari buruz.

Eraitza baino gehiago, materiale oso desberdinez osaturikoa baita liburu, eta orohar, gora-behera handikoa, ideia litzateke aipagarria. Gure literaturan oso urri erabili den zientziari buruzko literatura egiten saiatu izan baitira idazleok. Liburu honetaz ezagutzen dudana elkarriketa bakarrean berezitasunaren kontzientzia agertu zuten idazleok:

Gaien aldetik badago originaltasuna, poesia mota hori egin gabe zegoen euskaraz. (Goitioltza, 1986, 40)

Grezia zaharrean bazegoen poesia didaktikoa. Haren hondarra da poesia mota hau: gai bat hartzen da zientzia mundutik, kasu honetan historia, eta hartaz idazten da. Liburu eraikia da zentzu batez, idazten hasi aurretik sortua, eta plangintza jarraitzen dute idazleok.

Eraitza, lehen ere esan dugu, halamoduzkoa da. Poemen ondoan jarritako oharrek azalpenak ematen badituzte ere poemei buruz, testuek gora-behera handiak dituzte. Badira herri tankerakoak, bada bat (“Palestinako madarikazioa”) atzekoz-aurrera irakurri beharrekoa, badira intuizio huts direnak. Idazleek, hala ere, historia aukeratu dute poetizatzeke zientzia gisa, hain zuzen ere, narrazioa mantentzen duen zientzia, mitotik hurbil. Horrela, mito bi dira, orohar, testuak agertzen dituenak: galtzaileen aldeko apostua:

Irabazleek idatzi dute beti historia, baina ... galtzaileen historia ere badago. (Goitioltza, 1986, 41)

eta Euskal Herria historiatic kanpo geratu izan delakoaren susmoa:

Beti izan gara atzera aldenduak... (G, 27)

Eta geuk: Zein froga  
gainditu beharko ote  
historiaren lainoak  
behin betirako urratzeko?... (G, 23)

Guzti horren gainera, baina, Europak ez duela paradisua sortu adierazten dute, Edorta Jimenezen liburuetan ohi denez, liburuaren filosofia biltzen duen azken poema batean:

Europa puta larru zaharra ...  
nork eraiki ote urkamendi bat  
muino bakoitzean... (G, 93)

Historiari buruzko poesia bada ere, intelektualen saila (ez ote du honek gogora ekartzen Enzesberger-en *Mausoleum* poemategia?) eta zenbait poema txiki dira testuan hungikarrienak hain zuzen ere mitoa barneratu denean.

Adibidez, “Veneziako ispilu-egilearenak” poema denen artean gehien maite dudana da, bere joera paraleloan, hirukoitasunaren erabileran; paradoxaren azpimarraketan:

Hasieran eskua izan zen  
Eskuak moldatu zuen ispilua:  
Ispiluak sorrarazi zuen izua:  
Izuak erditu zuen mozorroa... (G, 37)

Zientzia eta poesiaren artean badago banaketa garbia: hark hizkera unibokoak darabil, poesiak esanahi anizduna, bien artean tentsioa sortzen da beraz. Idazleek historia aukeratuz, bien arteko kinka mehetu badute ere, poesia zientifikokoan agertzen diren joera bi landu dituzte: zalantzarena bata, aurrean dugun historia ez dugu inoiz urratuko, historiaren lainoa behin eta berriro alztatuko delako; eta poema historikoa aitzakia da historia eta ahalmenaz historia eta bizitzaz hitz egiteko.

Hemendik sortzen da idazle hauek gehien erabili duten teknika: pertsonaia historikoen bizitza anekdotak hartu eta maila metaforikora igan, interpretatu historiaren bidean. Teknikak izen bat du: analogia jokoak. Hizkera zientifikoa erabiltzen duelako, eta analogiaren teknika garbi agertzen delako aipagarria da “Alberti galdezka, III” non Einstein bere ospearen barnean bakarrik adierazten zaigun:

Softwarez blaitutako  
tekniko gazte ilehoriokin  
zenbat goiz,  
zenbat arratsalde,  
zenbat arrats bakarti eta more?  
Nekaezinak, The White Gost  
diotsute, Albert, barrezka,  
begi handi ferde unatuek  
bungalowari so direla tarteka... (G, 81)

#### 4. Joseba Urizarren *Girovago*

Edorta Jimenezekin batera egindako saioaren ondoren, Joseba Urizarrek 1992ko Lizardi Sarian aipamen bat lortzen du *Girovago* liburuaren bidez.

*Girovagon* agerturiko estetika ez da *Gizaeuropan* agerturikoa. Ungaretti poeta italiarraren menpe jarrita, testuak lirikotasuna lantzen du: poema txike-  
rrak, lerro argidunak, poetaren subjektibitatearen erakustoki:

Orai eta Hemen  
inola ez nagoen  
instant minimo  
hoiek... (G, 12)

Instant minimo horiek dira poemagai nagusi, eta hortarako, Cummings-en poesiara hurbilduz minimalismoaren teknikak erabili dira: hitz gutxi, bertso lerro niminoak, ideia edo intuizio bakar bat poemako. Bertsoaren trataeran badu guzti horrek zerikusirik isiltasunaren poesiarekin. Instant baten zirrarak harrapatzen du poeta, eta askotan esaldi bakarreko poeman bizitza gurtzen du. Ungaretti du gidari titulutik hasi eta italianoz Ungaretti-ren moldean idatzita-ko “La luna” poemaraino denak (ia denak) du poeta italiarraren soinua: “Argia”ri egindako poema, hitzen aukera, kanpo munduak barne mundua eragiteko duen indarra.

Keetan badoakit  
astiro ametsetan  
goga ez bezala,  
bizia badoakit,  
keetan, izatearen  
morako ibilketan... (G, 17)

Subjektibitateak eta barne munduak agintzen dute. Joseba Urizarrentzat “Aberria” bere mundu propioa ere bada, nahiz eta zentzu politikoa baduen:

Aberria da zeure ama,  
maite duzun hortu hori,  
bart gabeko ohekide lastana  
gehi mila eta bat oroitze  
nekez erantsi gaurkoari... (G, 8)

Mundu pertsonal horretan sartzten dira bere joera propioak, bere obsesio-ak agerian jarriak. Maitasuna da bat, eta liburua maitasun poema sotilez bete-rik da.

Nola Maiatzeko  
goizetan lainoak  
urratzen diren,  
hola dira nire  
zukanako amodioak  
urratzen ere... (G, 19)

Baina, hizkuntz anitzez idatzitako liburu honetan (euskara arkaikoa, italiarra, gaztelera, eta frantzesera eta ingleserako aipuekin), badago ezjakintasunaren aurkako ideia oso zabaldua, bide batez Urizarren ironia agerian uzten duena. Hori eta susmo bat poesiak gehiago egin ote dion gogoetari:

Bidaia honetan  
poesia dut falta ...  
poesia dut falta  
eta sobera gogoetak... (G, 67)

## Bibliografia

- NABARRO, O. (1985): *Itsastxorien bindikapena*. Susa. Donostia.  
— (1986): *Egutegi esperimental*. Susa. Donostia.  
— (1986): *Gizaeuropa*. Susa. Donostia.  
— (1987): *Gaua zulatzen duten ahausietan*. Susa. Donostia.  
— (1989): *Odoleko eskifaia*. Elkar. Donostia.
- URIZAR, J. (1993): *Girovago*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.
- JIMENEZ, E. (1991): “Poesia eta ixiltasuna”. *Galeuzca*. 1. 121-3.  
— (1993): “Ohar batzuk euskal poeziaz”. *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 219-254.
- E. E. (1989): “Komunikabideetan irakurlea prestatu daiteke”. *Eguna*. 1989-VIII-17.
- GARITANO, M. (1985): “Edorta Jimenez”. *Argia*. 1.082. 1985-XII-15. 34-5.
- GOITOLZA, I. (1986): “Gizaeuropa”. *Argia*. 1.121. 1986-X-19.
- J. J. (1987): “Omar Nabarro bere poesia liburu berriaz”. *Hemen*. 1987-XII-8.
- KORTAZAR, J. (1986): “Omar Nabarroren poemagintza”. *Deia*. 1986-V-24.  
— (1987): “Bizitzatik literaturara”. *Zurgai*. 18. 27.
- M. A. (1989): “Komunikabideetan irakurlea prestatu daiteke”. *Eguna*. 1989-VIII-17.
- Z. D. (1985): “Susak bost liburu berri”. *Argia*. 1.051. 1985-III-10. 33.
- CHENIEUX-GENDRON, J. (1989): *El surrealismo*. FCE. México.
- DE TORRE, G. (1974): *Historia de las literaturas de vanguardia*. Guadarrama. Madril. 4. arg.

## JOSE LUIS OTAMENDI

### 1. Poesiaren zeregina

Ibilbide luzeko poeta dugu Jose Luis Otamendi (1959). Hamazazpi urtekin poesia munduan sartua, 1980. urtean argitaratu zuen Koldo Izagirrereren eskutik, Ustela saila bilduman, *Egunsenti biluzia* liburua. Ondoren, etorri dira *Azken undinaren kaira* (1983), *Zainetan murrailak* (1987), eta *Poza eta gero* (1990), ziklo poetiko oso bat marraztuz, eta bide berri bati atxikitzen zaion *Lur bat zure minari* (1995). Ibilbide luzea izan arren ez diot testu teoriko bat baizik ezagutzen. Bat eta bera meharra: “Zertarako poesia gizarte teknifikatua?” Mallorcan 1990. urtean gai gisa jarritako galderari folio biko erantzuna. Baina horrez gain, han eta hemen, elkarrizketa arinetan barreiaturik agertzen dira Otamendiren iritziak poesiaren izaeraz, halako puzzle modukoaren bidez kontzeptu osoa sortu arte. Artikuluak tonu bi ditu; alde batetik, hizkera metaforikoaren bidez, kontzeptuen sugerentzia lortzen du; bestetik, manifestu tonua ere badu.

Bigarren honetan sartzen denean, Otamendik gaur gaurko poesia eskaintzen du:

Poesiak anitza behar du izan, autonomia, ezin ameti daiteke inolako kontsentsu, ez pakturik poesian, utikan autokonplazentzia eta korporatibismo oro, poesia eternoaren parean poesia modernoa, grinak harrotutakoa, munduaren egile. (1991, 118)

Hitzak hor dira; artikulua laburtasunean, ez dago azalpenik.

Otamendiren kontzeptu mundua argi dezakegula uste dut. 1990. urtean hitz egiten duen idazleak poesia sorkuntza eremutat du, askatasun alortzat.

Sortu baino diseinatu egiten den egunotan, sormenari dagokio gogoaren aterpe izatea, gotorleku sobornaezina. Beraz poesia ezertarako da ... su eta gar defenda dezagun sortzailearen libertatea, gibelak bota artean defenditu. Ezin da askatasunik gabe sortu. (1991, 117)

Poesiaren sorkuntza eta askatasuna balio absolutu gisa aurkezten ditu Otamendik. Dei egiten du “ezertarako” horrek, agian, zerbaitetarako espero zitekeenean. Beraz, poesiak badu helbururik, baina ezezkotan agertzen da, zerbaiten aurka. Erromantizismoaren aterbeetan kokatzen da Otamendi absolutuaz hitz egiten duenean. Baina ezezkor zeren aurka? Ba, uniformatzen gaituen gizartearen aurka. Gizarte honen ezaugarriak aipatu dituenean ere, ez dabil zehatzegi. Hiru ezaugarri aurki ditzakegu artikulu labur horretan: gizarteak uniformatu egin gaitu, positibista da, eta ahazturaren aldekoa. Nortasunaren alde eginaz, Otamendik hauxe dio:

Memoria eta ekimenaren indarrez taxu genezake etorkizunen bat poesiarentzako. (1991, 118)

Memoria eta ekimena, beraz, ahanzturan eta loaldian bizi den gizartearentzat. Sentimenduen poesia nahi du, beraz, gorrototik eta grinatik hurbil. Agian, artikulu guztiak erantzun dio *Lur bat zure minari* taxutzeko egitura eta kontzeptuari.

Berriki egin zitzaion zenbait elkarrizketatan aurreko kontzeptuen orokortasuna zehaztuta ikus dezakegu zenbait zertzeladatan. Sentimendua arrazoia-  
ren aurka joateko modu bat bada, sentimenduen aldeko apostua egiten du ez soilik poesian, bizitzan ere bai.

Baina soluziorik aipatzekotan, samurtasuna, laguntza afektiboa, eta elkartasuna dira geratzen zaizkigun euskarri nagusiak, lur bat eratzekotan hortik jo beharko dugu. (Petrikorena, 1995, 43)

Poesiarako bide idealista, beraz. Beste zertzelada txikia dugu arrazoia-  
ren ukazioaz. Otamendik, ohi den bezala, filosofia eta poesia banatu egin ditu: hari arrazoia dagokio, honi sentipen mundua:

Normalean galdera larriei, filosofiak planteiatzen dituen galderei, erantzuten die poesiak, baina beste plaza batetik ... Filosofia planteiamendu abstraktu horiek edo gai nagusi horiek arrazoia-  
ren bitartez aztertzen edo argitzen ahalegintzen den bitartean poesiak arrazoia badarabil, baina sentimendua sartzen die. (Martinez, 1996)

Poesiaren kontzeptuari buruz zertzeladak besterik ez dira. Baina kontzeptu munduan sartzeko ongi doakio batez ere sentipenaz ari den poetari. Koherentea da horretan Otamendi.

## **2. Amodioaren xerka iheska doa ene zoriona**

Jose Luis Otamendik bere lan poetikoa hasten duenean, *Egunsenti biluzia* lanaren bidez, Ustela sailean nagusiak dira Koldo Izagirrek *Itsaso ahantzia* lanean agerturiko moldeak: sugerentzia nagusi, poema laburrak, sentipenen



finezia, izadiko elementu xumeak (lorea, erreka) erdal hitzez emaniko barne sentipen bortitzekin, (inkontsekuentzia, inkontzientea), joskera nahiko sinplea, “eta” juntagailuz osatzen dena pilaketa joera nabarmenduz, surrealismo irristakor eta xumea irudietan... Pilaketak eta nolabaiteko kontraste jokoak agintzen du; batzuetan “ni” pertsonaia poetikoa izadiko elementu bihurtzen da eta elementu horri dagokion ekintza egiten du. “Ur” bihurtzen bada, erre-kastoaren gisa joan egingo da.

Erregistro poetiko honen barnean, ezintasunez eta finkotasunez egingo du bere bidea Otamendik. Grina, desio eta maitasunaren inguruko lehen poemategi horrek tonu nagusia emango dio bere ibilbide poetikoaren lehen aroari. Hain zuzen ere hasierako lau liburuek betetzen duten zikloari. Horixe da, behintzat, idazleak aitortzen duena, bosgarrena argitaratzerakoan:

Ahalegina egin nuen ziklo bat ixteko, lerro beretik segitzekotan ez zuela merezi ikusten nuen, lortu beharrekoak lortuta neuzkala, eta beste bide batzuetara jo behar nuela. (Petrikorena, 1995, 42)

Lau liburu, dena dela, askotxo dira denak berdin-berdinak izateko eta hamar urtetako ibilbidean aldaerarik ez garapenik ez gertatzeko.

Horrela da. Bada garapenik, esplorazio estetiko sendoagoa agertzen dute *Zainetan murrailak* eta *Poza eta gero* liburuek, batez ere azken honek barne egituraketa bermeagoa duela frogatu du Iñigo Aranbarrik oraindik argitaraturik gabe dagoen lan batean. Lehen liburu hartako sugerentzia eta naturaltasuna goraiatu zituen Josu Landak:

Ez da artifizialkeriarik ageri ... naturaltasun handi bat dariola ... Oso mundu sujerentea jartzen zaigu begi aurrean. Aditzak ahalik eta gutxien, eta hitzen esanahi desberdinak pilatzeak eman dezakeen indarra a tope erabiliz. (1981, 29)

Poetak maitasuna eta desioa ditu kantagai lehen poema liburu bietan:

...dramatikoa da gure maitasuna  
musika gabea  
inguru ederra  
behako sakonak  
soineko lehorra  
grina dardatiak  
eta tarte tarte ardo botila bat... (EB)

Poema aipagarria litzateke hori lehen aro hau deskribatzeko. Metaforen pilaketa, esaldien paralelotasuna, irudien zehazgabetasuna, intentsitatea bilatu gabe, eta bukaeran, kontraste gisa, beste erregistro bateko erreferentzia, tipografiak azpimarratua.

Joskeraren sinpletasunak, molde paraleloek eta pilaketek osatzen dute

lerroz lerro garbia den poetika hau. Aditz batek menperako hartzen du paralelotasuna:

...jaso nahi nituzke  
eskailera goibelen muxuak  
orrialde zikinen antsiak  
landare ximelduen doinua  
panpina hautsiaren izpia... (AUK, 28)

Otamendik maitasun, erotismo eta grinaren artean kokatu du poetika honen gaia. Maitasunezko hitz jario sotila da testuetan barrena, tantaz-tanta sartzen dena. Hala ere, aipagarria da zein eratako maitasuna erakusten duen testuotan. *Zainetan murrailak* testuaz ari dela Otamendik maitasuna bere poetikan abstraktua dela aipatzen du.

Oso abstraktuak dituk, maitasuna ideala duk, joera diat idealizatzeko. (Arano-Landa, 1987)

Maitasuna, beraz, gai jarria da, esperimentazio gisa, azalpen gisa jarria, beste zerbaitetaz, komunikazioaz eta idealaz hitz egiteko, bai, baina horrez gainera nahi eta ezinaren mugetan mugitzeko.

Maitasuna, esaterako, helburu bat bilakatzen duk enetzat, bizi dudana eta bizi nahi dudana adierazten duen balorea, alegia; maitasuna klabea duk, zerbaiten sinetsi beharraren premia, euskarri bat. (A. Gostin, 1987)

Baina maitasunaz ari den poetak hasiera hasieratik landu ditu bere adierazpideak. Erritmo zaindua izango litzateke lehen liburuetatik aurrera dator-kion ezaugarririk behienena.

Egia da pilaketek, joskera zainduak eta paralelotasunak lagundu dutela poemaren adierazpide hau sortzen, baina izadiko elementuak egunerokotasunaren alderik tristeenekin biltzen dituen poetaren ahotsak hitz laburrak maite ditu, silaba kopuru urrikoak, belarrirako eder den erritmoa sortzeko asmoz:

...goizak erditu ditu  
herri ilun bat  
ta bidaiak  
mendiei higitzeke isiltasuna darie  
herriari ogi usaina  
ta bidaiei ximeletak... (AUK, 15)

Bi, hiru eta lau silabadun hitzen arteko moldaketak sortzen du erritmoa eta bukaerako etendura eta “ximeletak” hitzaren azken arnasa. Paralelotasuna eta erritmoa bilduz sorturiko poemak edonon aurki ditzakegu:

...beti egon ohi da  
munduan maiteminduren bat  
zeruko zelaian hodeia

zure magalean babesa  
eta bihotzean kresala putzua... (AUK, 22)

Hala ere, ttikitasunaren mugetan idatzitako poesia horrek zerbait bigunaren inpresioa uzten du. Tristura eta bakardadearen poeta deitua izan den Otamendik aurrerapausuk emango ditu *Zainetan murrailak* eta *Poza eta gero* liburuetan. Estetika berdin antzekoa da, poema kopurua honela garatu da: 30 poema *Azken undinaren kairan*, 40 eta 50 hurrengo bietan; baina zerbait sendotu egin da, semantika batu, poemategiaren osotasuna bildu, eta hitzen arteko kontrasteak —azken batean, poetika honen eusgarriak direnak— areagotu. Gaiak ez dakar aldaketarik:

Mundu hontan lauzpabost gai baino ez zegok eta, neuk, jakina, hauek erabil dizkiat, hots, maitasuna, libertatia, heriotza. (A. Gostin, 1987)

Lehen liburuetan maitasunak parte handiagoa hartzen bazuen, zikloa osatzen duten beste bietan, heriotzak eta bizitzari buruzko ikuspegi ezekorrak toki handiagoa hartuko du:

Hil dira  
arrosaz eginiko hesiak  
esku epelik gabe ...  
hil dira ametsak  
orain denbora kristalezkoa da... (ZM, 27)

Sinetsi dezaket  
heriotza astiro  
nahigabe bezala etorriko dela  
eskutik hartuta bereganatzera... (ZM, 63)

Lehen aipuak poetika baten ukapena ere egiten du: arrazoizko hesiak eten dira, eten egin den moduan modernismoaren hizkuntza. Imaginak bere tokian dago oraindik, Kandelakoek (1985, 98) esan zuten moduan, imaginetan oinarritzen da idazlearen idaztankera:

Gehien gustatu zaizkigun imajinak hala ere eguneroko hizkuntzatik hartu dituenak dira, errealak, flash baten indarra eta dizdira dutelako.

Baina hasi dira murrailak agertzen, gauaren inguruko iruditeria, etsipena, eta hasi da zabaltzen iruditeriaren tokia. Kandelakoek, adibidez, konturatu ziren Otamendiren mundu pertsonala, aukeraz, oso minimala zela:

Kanpora irteteko beldurrak eraginiko leku patxadazko baten desioa ... marrazki geometriko horiek askotan hautsiak, poema etsitu batetan ulertaraztea bultzatzen gaitu, liburutik kanpo topa genezakeen aztarna oro debaldeko dela esan nahiz. Bestetik hizkuntza bera, aditz elipsiak direla, hiztegia dela, imajinak direla, perfektiora heltzeko zirrikiturik irekirik utzi nahi ez duenak bezala. (1985, 99)

Mundu itxi horrekin, minimalismoan eta irudiaren indarrean sinestuz eten egiten du Otamendik, batez ere *Poza eta gero* liburuaren lehen zatian non kometa, zelai, mendi, marrubi hitzen bidez izadiaren agerpenari tokia eman baitio. Koldo Izagirrek gogoratu duenez,

Aresti ondoko belaunaldiaren ezaugarrietako bat gai zehatzeko poemak ez egitea da. Ez du gai bat hartu eta haren inguruko balorazioak edo metaforak landuko. Idazkera automatikoa heldu gabe, baina etorria laxo utzi du, anti-intelektuala du jarrera poemagintzan, eta helburua edertasuna du, ez didaktismoa. Ez du poema ideien garapenez sortzen, bere poesia ez da diskurtsiboa. Nahiago du irudien indarra mezuaren zehaztasuna baino. (Izagirre, 1993, 63)

Hau da, gutxi gora-behera, Otamendiren kasua, horregatik hauxe idatziko dute Kandelakoek:

Argi dago bere poemagintza zer ez den. Ez da, noski, poesia “sozial” deitu ohi denetarikoa, baina ez dugu, maitasun fribolo postbektier erraza ere Maitasunaren destrukzioa, maitasunera iritsi arte bilatzen duena baizik. (1985, 99)

Maitasunaren birrinketa-indarrak gehiago eginen du liburu honetan. Jarraitzen du minimalismoak, aurrera egin dute eredu estetikoek, baina zerbait hautsi da estetikan: heldutasun puntu bat, agian, aukeraturiko mundu estuaren muga, apika.

Errepikazioak, paralelismoak eta kontrasteak agerian dira liburuotan;

Zure begietan kausitu ez badut  
egunsentia  
hil nadila  
  
zure ahoan etzango ez badira  
kalatxoriak  
hil nadila... (ZM, 49)

Baina tragedia kutsu batek estaltzen du poesia honen zentzua:

...desio pilatuak orbelen gisara  
behako gardenen aintzina  
bi minituren mugak elkar kolpatzea  
zerua ausikika... (ZM, 37)

Ez da faltako geografia etsitu baten aipamenik, agian exotismoa gogoratuz, baina gehienetan pertsonala da Otamendik erakusten duen geografia.

Hala ere, “hil dira ametsak” eta hemendik hasten da idazlearen abiapuntu berria, nahia eta ezinaren arteko kinka gogorrago agertuko balitz bezala. Eta *Zainetan murrailak* poemategiaren azken aldean areagotu egingo ditu

Otamendik irudi espressionistak, bertso lerro luzeagoak erabiliko ditu, minimalismotik ihes egin nahi balu bezala:

Hi ez haiz maitasun naufragio batetako hondakina... (ZM, 51)

Eta agertzen hasiko dira ondorenean ondu diren gida lexikotik harturiko hitzaki: murraila, obus, amorru.

*Poza eta gero* liburuak zirrikitu bat zabaltzen du egilearen bidean. Orain arteko poemategiak poema bildumak baziren, honek hiru ataletan ongi egituratua aurkeztu du mamia. Honela azaltzen du poetak zatien mezua:

Liburuaren lehen atalean pozarekin egiten da topo, ikutu xalo horrekin, gauza politak ... Bigarreanean mundu hau zeinen latza den ageri da eta hirugarren atalean piska bat sintesi eginez edo puntu ziniko batekin esatea, poza etorri zitzaidan eta gero egundoko egurra hartu nuen eta orain aurrera segitzekotan, besterik ez bada poza nik neuk asmatu behar dut. (1990, 50)

Hitz jokoak, aliterazioak, errepikapenak egon badaude ere berria da iruditeria. Agian, Otamendiren libururik argiena da zentzu batetan, mezuak esan egiten diren neurrian, eta ez sugeritu:

...ez dago inon  
gure neurriko zerurik  
elkar asmatzera gaude kondenaturik... (PG, 29)

Adierazpideen aldetik, Amaia Iturbidek “mindua eta samurra” era berean dela liburua idatzi du (1994, 277), eta honela deskribatu du estilo mundua:

Hitz erabiliegiei muzin eginez. Hitz konkretua lan-tresnatzat hartuta, adieraziko dizkigu bere mindurak eta bere herriarenak, bestera bait doaz. Horrela, sabotatu, konplot, setiatu, beldurra edo preso bezalako hitzak ... Hala ere egileak zuhaitzak inausten dihardu, itxaropena, ahal duen neurrian, bere neurrian ereiten. (1994, 277-8)

Badira liburuan poema deigarri bat zeinek adierazi baitu aldaera testu baten aurrean gaudela:

...ia dena esana zegok  
eta dena egiteko oraindik... (PG, 61)

“Esana” bere bidean eginiko poesia da, ekintza etorkizunerako geratzen zaiona. Iñigo Aranbarrrik *Poza eta gero* Otamendiren poesiaren munduan kokatu du eta ondorio hau atera:

Otamendik ahitu den bide batetik irten nahi du. Badaki irudiak eder eta aski direla irakurlea harrapatzeko. Baina baita ere badaki suestioa eta diskurtsoaren artean daukala irtenbidea. Poetika osoa berritzeko erreferentzia faltan ... maitasun hondoratuaren hurrengo urratsa emanik ... irakurle sub-

jetiboaren kolektibizazioan aurkituko du irtenbidea ... Zalantzarik ez, *Poza eta gero* krisi garaiko poema liburua da. (arg. 28-29)

Surrealismotik espresionismora, “zu” batetik, “zuek” gana, maitasunetik itxaropenera, pozatik poza ondorenera, Otamendik poesiaren lirikotasuna utzi egingo du, bere hitzetan esateko maitasuna soliraditatearen tokia ere baita.

### 3. Zure isilak beste indar du zure hitzak

*Lur bat zure minari* Otamendiren bosgarren liburuak aldaketa agertu du bere poesigintzan. Askotan hitz egin du idazleak aurrerapausoari buruz.

Ahalegina egin nuen ziklo bat ixteko, lerro beretik segitzekotan ez zuela merezi ikusten nuen, lortu beharrekoak lortuta neuzkala, eta beste bide batzuetara jo behar nuela. (Petrikorena, 1995)

Aldaketa bilatu eta aurrerapausoa egiteko ahalegina egon da behintzat nire jardunean. (Zabala, 1995)

Adierazi du, neurri berean zertan datzan aurreko liburuekin egindako aldaketa. Lehenik, gaiaren borondatea dago, liburu honetako gaiak aurretik pentsatuta daude, aurrenekoetan poemak pilatu eta ondoren aukeraketa egiten zuen idazleak. Puntu honetaz aipatu beharko litzateke beti egon dela Otamendirengan gaia kanpotik hartu eta harekin hausnarketa-lana egiteko; esaten zuenean, adibidez, berak aurkezturiko maitasuna abstraktua zela, baze- goen —adinen jarrera— bere eginkizunean, bazegoen gaiak eskaintzen dituen alde guztietara heltzeko gogoia, gaiaren esplorazioan aritzekoa. Joera horren kontzientzia agertu du oraingoan eta modulazio handiagoz. Bigarren aldaketa, erritmoarena, argitasun handiz azaldu du:

Erritmo eta musikaltasunaren aldetik ere bada aldaketarik. Aurreko liburuetan erritmo labur eta biziagoak landu nituen. Honetan, aldiz, askoz ere kadentzia luzeagoak daude, joera narratiboak ikusten dira, egitura errepikapenak, irudi metaketak. (Zabala, 1995)

Nire ihardun poetikoan erritmo aldetik oso gauza desberdinak egin ditudala uste dut, batez ere azken lan honekin. Aurretik, gehiago ibili naiz erritmo biziagoak lantzen, musikaltasun arinagoa, esango nuke. Oroan ... erritmo mantsuago eta ilunagoetara ekarri dut nire iharduna. (Martinez, 1996)

Prozedura kontua da hirugarren aldaketa. Alde batean, surrealismoa, orain espresionismoa. Han hizkera laxoa, orain dialektikoagoa:

Barne eta kanpoko indarren arteko dialektika ere ageri da: barne lurak kanpoan izan ditzakeen proiektzioak eta alderantzizkoak ... Naturarekin estu lotutako hitzak daude batetik, alderdirik intimoenarekin lotuta, eta, bestetik, gora-behera politikoekin zerikusia duten hitzak. (Zabala, 1995)

Eraginak ere aldatu dira. Hasierako liburuetan Koldo Izagirrerren *Itsaso ahantziak*, eta Urretabizkaia eta Mikel Arregiren *Hego haizearen konpasean* lanen oihartzuna bazegoen, Aranbarrik aipatu duenez, oraingoan, Koldo Izagirrerren *Balizko erroten erresuma* izango da eredia eta

Iñigo Aranbarriren *Dordokak eta elurrak* liburuak ere antzeko arazoa planteatzen du, askoz era estetizistagoan bada ere. Bada erreferentzia gehiago: Joxe Azurmendi, Arestiren eta Arestiren ondorengo poesia ... Maiakovskiren poemetako iruditeria, Amie Cesaire, Ben Jalloum, Derek Walcott, Dinescu... (Zabala, 1995)

*Lur bat zure minari* liburuak alderdi bi berritu ditu, nire ustez. Aipatzen den sentimena ez da maitasuna, ez da poza, mina baizik. Sentipen aldaketak garrantzia du ezaguna baita nola lantzen duen Otamendik bere poemaren ingurua, zein garrantzia eman dion poemategian bihotz den sentipenari. Minaren inguruan kokatzeak, poemategiko tonua eman du, min, samin eta etsipenaren inguruan. Euskal Herrian normala izan denez, beste herrialde batzuetako egoera lazgarria aukeratu du Otamendik (Sarajevo, Berlin) baina aipatu gabe, eta estaltze horrek, maila mitikora eramanez du mezua. Beste alde batetik lurra ematea minari, zehatza den zerbait ematea da sentipen bati, gorpuzkera osatzea. Joera metonimiko honek azalduko luke zein estilo jarraitu den. Titulupean, beraz, liburuak nahi duen mezua eta nahi duen estiloa estali ditu idazleak.

Mezuari gagozkiolarik, etena, hautsia dena, arrakalada da gaia. Zati bi ditu testuak: polderrak eta amildegiak. Lehenak, itsasoari irabazitako lurren aipamenez, idazteak nolabaiteko estalpena azaltzen du: maitasuna bada oraindik toki zoriongabearen aurrean. *Poza eta gero* liburuaren bukaeran poetak hondartzan etzanda ikusten bazuen bere burua, mugan jarrita ikusten du liburu berria hasten duenean:

Almitza hazten den lekuetan bizi gintezke... (LM, 9)

Horregatik da lehen alde hau, oraindik, maitearekin egin den elkarrizketa.

Bigarren zatiak, "Almitzak", beste tonuera bat du, askoz ere latzagoa. Idazleak adierazi du gaia:

Lehenengoan gehiago ukitzen dut alderdi intimoa, eta bigarreanean minduago ari naiz, herdoilduago, akaberan neurri bateko esperantza edo bilatzera eta eskeintzera iristen naizen arte. (Petrikorena, 1995)

Mezu alde ukitzen badugu, aipatu beharko litzateke zein neurri handitan osatu duen idazleak lurraren inguruko hiztegi zabala: lur arola, lur-min, ondare, talaia, harresi, almitza, polderra, talaia, indusi, ibaia, eta nola osatu duen horren bidez lurraren esanahi koherentea. Eta koherentzia hori liburu osoan mantendu da, alde bien arteko tonu desberdintasunen gainetik.

Idazkera aldetik espresionismoa landu du: hain zuzen ere, kanpoko paisaiaren bidez barne paisaia osatu du Otamendik barne geografia bat eman digu, berak osaturiko kanpo geografiaren bidez.

Saminaren mugetan:

Maite zaitudala badiot min eman nahi dizut... (LM, 58)

Batzuetan denok izaten dugu hiltzeko gogoa... (LM, 36)

Kontrajarpena eta etsipena nagusitzen diren orduetan, Otamendik jeiskeraren sinbologia osatu du: jausi, galdu, galera onartuak, galtzeko lurra, zigorzelda, saminen barnetegia osatu arte eta tristeziaren zerrenda egin arte. Horregatik nahiz eta idazleak nahi:

Ez dut aldegin nahi zure gorputzaren harresietatik  
Zure eskuen negutik zure negarraren karetik  
Aitortuko dizut beti espero izan dudala  
Epaia jabalduko zidan froga aringarri bat... (LM, 37)

poetak erakusten duen mundua gau eta infernuarekin lotua da, ezezkorra eta minkorra:

Diren direnak gure ezinaren ezpain direnak  
Hotzak bizi gara eta etsiak hartzen gaitu... (LM, 51)

Aitortu dizut bizitzea aldezten duela bakardadeak  
Orduak agortu dira eta urteak bihurritu heste-mintzetan  
Iritsi gara... (LM, 62)

## Bibliografia

- OTAMENDI, J. L. (1980): *Egunsenti biluzia*. Ustela saila. Donostia.  
— (1983): *Azken undinaren kaira*. Ustela saila. Donostia.  
— (1987): *Zainetan murrailak*. Susa. Donostia.  
— (1990): *Poza eta gero*. Susa. Donostia.  
— (1995): *Lur bat zure minari*. Susa. Donostia.  
— (1991): “Zertarako poesia gizarte teknifikatuan?”. *Galeuzca*. 1. 117-119.
- ARANBARRI, J. (arg): “J. L. Otamendiren olerkigintza”.
- ARANO, J. (1990): “Poza eta gero”. *Argia*. 1.306. 1990-IX-23.
- ARANO-LANDA (1987): “Jose Luis Otamendi”. *Argia*. 1.182. 1987-I-17. 52.
- GOSTIN, A. (1987): “Otamendi, tristura eta bakardadearen poeta”. *Hemen*. 1987-VIII-7. 25.
- ITURBIDE, A. (1994): “Jose Luis Otamendi. Poza eta gero”. *Egan*. 2. 277-8.
- IZAGIRRE, K. (1993): “Txipitasunaren iraultza”. *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. 73-92.



- JIMENEZ, E. (1995): "Indartsua eta borobila". *Egunkaria*. 1995-IX-24.
- KANDELA (1985): *Euskal letren dantza*. Hordago. Donostia.
- LANDA, J. (1981): "Jose Luis Otamendi egunsentia biluzten". *Argia*. 905. 1981-III-15. 29.
- MARTINEZ, L. (1996): "Poesiak bizitzaren indarrak aztertzen ditu". *Correo*. 1996-III-3. 54.
- PETRIKORENA, J. (1995): "Sufrimendu, gabezia eta esperantzarentzat lurra". *Argia*. 1.537. 1995-VII-2.
- ZABALA, J. L. (1995): "J. L. Otamendi: aldaketa bilatu eta aurrerapausoa egi-ten saiatu naiz". *Egunkaria*. 1995-VI-22. 26.



## XABIER MONTOIA

Susa sailari hasiera emanez 1983. urteko azken aldean *Anfetamiña* liburua kaleratu zuten. Xabier Montoiaren liburu honen lehen poema, *Etiopiako hura* bezaletsu, askotan aipatu izan da, giro berri baten hasiera gisa:

Batzuentzat  
Jesukristo gurutzera  
(lapurren artean)  
igo zenean,  
historia hasten da.  
Beste batzuentzat, aldiz,  
Lenin-ek —txapela kenduz—  
Botere osoa sovieterako  
deihadar egin zuenean,  
Finlandiako geltokian.  
Neretzat  
David Bowiek ilea moztu zuen  
egunean... (A, 13)

Liburua 1981. urterako bukatua zegoen eta Mikel Antzak hitzaurrearen aurretik jarritako hitzaurrean, kontatzen ditu liburua argitaratzeko ahaleginak eta miseriak. Haranburu Altuna izan omen zen argitaratzekotan liburua (oker ez banago argitaletxe horretan agertu zen Tere Irastortzaren lehen liburua), baina atzera egin eta Susa sailari hasiera ematea erabaki omen zuten. Montoiaren lehen poema horretan atentzioa deitzen du ideologia nagusi biren ukapenak, kristautasun zein komunismoarenak, eta indibidualtasun erradikal baten aldeko apostuak. Mitologia pertsonala osatu nahi du Montoiak, antiintelektualismoaren besoetan jarritz bere burua.

Baina, baieztapen erradikal hori bere puntura ekarri behar da. “Hitzaurrea edo” deituriko sarreran, bere buruaren aurkezpena egin duenean, garbi azaltzen du zein den ideologiaren tokia bere bizitzan:

Itzuli nintzen sorterrira, eta proletargoaren abanguardiar alderdian sartu nintzen ... Lasaitu nintzen pixkat eta alderdiak ireki zizkidan bere beso amatiarrak berriro. (A, 10-1)

Bizitza eta literaturaren arteko kinkan Montoiak literatura ofizio gisa, egin egiten den lan gisa ulertzen du:

Literatura osoa artifizio bat da berez. (Zuazalde, 1988a)

Eta artifizioa sortzeko unean ideia baten inguruko poemak sortuz egin ohi ditu liburuak Montoiak:

Niretzat liburu bat kontzeptzio eta denboraldi konkretu bat da, eta poema solteekin ezin dut liburu bat osatu. (Zuazalde, 1988a)

Artifizioari buruz hausnarketarik eskaini zion Montoiak Zuazalderi, honek egin zion elkarrizketan:

Orduan, barrengo amorru hori kanporatzeko era ezberdinak daude, eta sentimenduok adierazteko efektua hainbat bide eta lekutatik lor daiteke. (Zuazalde, 1988a)

Lanari buruzko hausnarketa eta zertzelada nahikoa daude elkarrizketa horretan, bat-batean onartzeko, “Ez duela bere burua poetatzat jotzen” (Iturregi, 1988). Adibidez badaki berak ez duela maite poesia soziala:

Ez dizuet ezer kontatuko ... lantegi batetan pasatako bi urteez. Hau bakarrik: horrez gero ez dut poesia soziala atsegin. (A, 11)

Alde beretik irakur dezakegu “9-2-81 (first part)” deituriko poema: “Ez zait poesia soziala atsegin” (A, 66).

Horren ordez, musikak (“Poeta baino ezagunagoa da musiko bezala” Iturregi, 1988) garrantzi handia du bere poetikan. Agian, probetxugarria gerta liteke bere abesti-letrak eta poemak gonbaratzea. Poetikan gai nagusi gisa maitasuna darabil. Baina ez bakarrik:

Nik erabiltzen ditudan gaiak poesian beti eta leku guztietan erabili izan diren gai nagusiak dira, beste era baten adieraziak, agian. Gaiak gauza bat dira eta beste bat irudiak. Gai nagusiak dira, zer esango dut ... denbora. Hori da gai nagusia. Eta gero, maitasuna, noski, eta baita amorrua edo gorrotoa ere. (Zuazalde, 1988 a)

Denbora, maitasuna, gorrotoa. Baina berriro agertu zaigu idazlea ez gaien alde, baizik trataeraren alde, artifizioaren alde, irudiak hitzaren bidez azaltzen dituen langintzaren alde. Horregatik, agian, adieraziko du ez dela bere poesia autobiografikoa. Gaien trataeran, ezezkortasuna nagusia bada ere, aipatu du idazleak pozik egoteko arrazoi bat:

Nik ez dut ikusten nire inguruan arrazoi haundirik pozik egoteko.

Isilaldi baten buruan eta abots tonu baxuago batekin jarraitzen du: Bat bakarrik dago, maitasuna. (Iturregi, 1988)

Idazleak iritzi bi gehiago agertu ditu bere lanari buruz. Lehena ez zaiola poetari liburuaren mezua azaltzea tokatzen:

Bere ustez, *Narraztien mintzoaz* esan behar zuen guztia esanda dago liburuan, jendeak ulertzeak edo ez, ez dio berdin, baina ez du berak ezer egingo bidea errazteko ... Ez noa nire poemak esplikatzerara. Ez dizut liburuan dagoenetik ezer esango, bestela alferrik izango baitzen idaztea. (Iturregi, 1988)

Bigarrena bere lanarekiko duen iritziaz mintzo zaigu. Liburu batetik bestera jauzi kualitatiboa bilatu du idazleak:

Zerbait burututzat jotzen dudanean ... nik jada ezin dut bide horretatik berriro pasatu eta errepikatu. Bide hori ezagutzen dut nolabait. Eta liburu bat idazten badut, horrek aldaketa kualitatibo bat ekarri behar du. (Zuazalde, 1988a)

Halaz ere, bere liburuaren artean diren loturez badu iritzirik:

*Anfetamiña* eta *Likantroporen* artean bazegoen amankomunean zenbait gauza, baina baita ere desberdintasunak. Hau horien sintesis bat da. (Zuazalde, 1988 a)

*Anfetamiña*, lehen liburua, pedagogikoa izan zela esan daiteke ... Uste dut ni piska bat inkozientea nintzela, ez nuen asko pentsatu. *Likantropo* eta hirugarren hau askoz ere kontzienteagoak izan dira. (Iturregi, 1988)

Ez da gauza handirik, baina bada zerbait. Agian jauzi kualitatiboen arrazoiez defendatzen du Koldo Izagirrek, *Narraztien mintzoa* dela Montoiaren poema libururik garatuena:

En su tercer libro de poemas, muy evolucionado en la forma respecto a los anteriores, contruye largos poemas de corte narrativo en los que muestra un feroz odio a esta sociedad. (1991, 21)

## 1. *Anfetamiña*

Lanaren argitarazio prozesuan hurbil egon zen Mikel Antzak honela deskribatzen zuen *Anfetamiña*.

Liburua hiru ataletan banatua dago, bakoitza musika talde, edo musiko bakar baten abestiko zita batekin anuntziatuta. (Antza, 1983)

Orohar deskripzioa zuzena da. Hasieran, nik uste, poetika gisa, poema bi agertzen dira, gorago koptatu duguna, gizakiaren alde eta abentura eta gorputz maitatuaren alde bigarrena:

Istorio bat kontatzeko  
ez da hiztegia erabili behar ...  
Halaere, derrigorrezko tresna bakarrak  
gazteen gorputz lirain eta narritagarriak  
izaten dira  
haiek, soil-soilik, istorio guztiak  
ezagutzen bait dituzte... (A, 15)

Hor dago poetika. Ondoren, lehen sailean, Talking Heads-en itzalpean, 18 poema, David Bowie-ren pean, zazpi, eta Lou Reed-aren azpian, 9. Kandelakoek ez zioten banaketari garrantzi handiegirik eman, eta Mikel Antzaren deskripzioa erabiliz eta kritikatu banaketa semantikoa proposatu zuten:

Ez dirudi maila semantikoan egituraketa horrek garrantzia handiegia duenik, edo gu behintzat, poema batzu besteen ondoan gaiaren arauera ipiniak daudelakoan gaude eta ez egitura itxi baten arauera. Antzak *liburua-ren filosofia!* edo *sinismena* argitzen diguten poematzat hartzen dituen horien ondoan maitasun poema goxoak aurki ditzakegu liburuan. (Kandela, 1985, 31)

Kandelakoen ustetan maitasuna litzateke gai nagusia, sarrerako bigarren poema horri kasu eginik. Maitasun hori hasieran gorpu gartsuen istorioa litzateke, “eguneroko hizkuntza arruntetik hartutako elemenduz imajina sujerikorrez moldatuak”; 43. orrialdetik aurrera, “maitasuna / gorrotoa baino iheskorragoa” delako, maitasun hori agurraren ondoko maitasun ozpin bihurtuko litzateke, eta poeta bakardadearen kantari,

...eta ondoren gai ezberdinetako zenbait poema, batzu gai sozialagoak dituztenak (bi edo hiru), beste batzu lehen maitale izandakoen artean denborak sor ditzakeen ezberdintasunez ... baina guztiak lehen sailekoak baino garratzagoak, tristeagoak ... eta liburua amaitzen denean, justu orduan desegiten ditu amaiera guztiak. (Kandela, 1985, 32)

Orohar ontzat har dezakegu garapena. Lehen zatian maitasuna da nagusi. Baina zati bi ditu lehen alde honek. Lehen zatia, gorrotoa aipatu arte, maitasuna, bizi egin da, edo gorputz grinatsuek, bizi egin dute. Zentzu honetan uler dezakegu poetak nola gonbidatzen duen neska, “Collige virgo rosas”, topikoa erabiliz, bizitzera:

Dantza hadi  
arrabitako soka guztiek dzart egin arte  
gero, begiak hertsu  
deus itxadon gabe... (A, 21)

Maitasun hori ametsaren errainuan bizi da, eta alde horretatik arrazoieren aurka agertzen da:

Eta ametsa harro dator  
arrazonaketa eta haren artefaktuak arbuiatuz,  
urrutitik, ekaitzen gainean zamalkatuz dator... (A, 27)

Apiril krudela igaro ondoko ekaineko maitasuna da. Eta literaturak baino gehiago balio duena:

Nere kitarra baino gehiago behar haunat  
Conraden liburu batetan baino hire begietan  
abentura gehiago irakurtzen dudalako... (A, 31)

Baina, 41. or. tik aurrera agurraren poesia idatzi du poetak:

Ohearen gainean natza  
maindireak uhinak bezala  
ez ote naiz naufrago bakartia  
ala noraezeko itsasontzia izango ? ...  
Maitale galdua  
bat bateko ekaitza  
malko bat  
oh!... (A, 41)

Liburuak, maitaleen arteko agurra adierazi ondoren, “Nocturno” (“Chopinar” Kandelakoeak nahi duten moduan) saila aurkeztu du, nostalgiaz beteriko poemak eginez:

Nostalgiazko mozkorraldia  
ametsezko hordialdi irribartsua  
lurrinezko itsutasun alaia... (A, 49)

Bigarren aldeak (“Herioiak izan ginateteke egun batez”) kritika soziala agertarazten du. “Garbiñe (Basque Ska)” poema ezkontza burges bategatik poeta utzi duen neskatxaren parodia da, Mirande gogora dakarkidana. Gizarte ordenatuaren aurkako satira da. Presoen alde:

Donostian  
egun latz honetan, hire oroimenez,  
antxetak ere  
Urumearen gainean  
blues triste bat  
dantzaten ditek... (A, 60)

Gizartearen paisaia apaiz-poliziek, alkate burusoilak osatzen dute. *Eginek* torturaren arrazoia zerbitzen duen artean. Eta:

Badirudi negua etorri dela... (A, 62)

dion idazleak Rock & Rollaren nagusitasuna aldarrikatzen du. Mikel Antzak liburuari ikusi zion berrietasun nagusia horixe izan zen, alegia.

*Anfetamiñak* rockaren ikurra darama, eta orainarte poema solte batzutan antzematea zen kutsua bete-betean dakar euskal literaturara. Hori dateke agian liburu honen aportaziorik argiena. (Antza, 1983)

Horrez gainera Rock & Roll, droga mundua eta sexua testuan aipaturiko gai nagusiak zirela bermatu zuen.

Hirugarren zatian, Montoiak mediokritateaz hitz egin du, gizarteak sortu duen giroa gaitzetsiz. Poetak indar berezia eman die alde bakoitzaren bukarari. Eta bigarrenaren amaierak garbi utzi du apokalipsiaren beharra, guztiz mediokrea den mundu baten aurrean:

Kontsolamendu bat bakarrik  
geratzen zait:  
ondo lehertzen denean  
denok elkarrekin eztanda egingo dugu... (A, 68)

Giro mediokrearen aurrean:

Gasteizen  
jende ugari  
aspertasunaren bala itogarrien pean  
erortzen da  
egunero... (A, 71)

Eroskin detergente paketekin batera  
bakardade kilo bat oparitzen da... (A, 73)

Kontsumoko gizartearen aurrean, poetak berak gizarte horretan duen funtzioaz galdetzen du; eta erantzuna eman ere Rimbaud gogoratuz:

Ez Etioptian ez Charlevillen.  
Poetak ez dira salbatuko... (A, 75)

Horregatik, Atxagak *Etiopian* luzatutako erronka “egin ezazue nigar, hori da opa dizuedan bakarra”ren aurrean poetak irtenbiderik gabe negar egin du:

Negarrez nago Dylan Thomas bezala  
Adamov bezala  
Rimbaud bezala  
Xabier Montoia bezala  
neroni bezala, azken finean... (A, 78)

Azken finean, poeta honen esanetan:

Badut problema bat irtenbide bakoitzerako... (A, 80)

Gizarteak beti egonen dira utopiatik urrun, historia paradisuatik urrun, eta poetak beti egingo du zorion faltaz galde.

*Anfetamiñan* erabilitako hizkerari buruz ere idatzi da zerbait. Modu askotara definitu da. Koldo Izagirrek eguneroko hiri giroan oinarritutako hizkera-



ren imagina azpimarratu du. Kandelakoek egunerokotasunaren sugerikortasuna aipatu dute. Iñaki Caminok prosaismoa aipatu zuen. Kandelakoen hitzetan aipagarria zen:

...poesia freskoa egiten du, kantuen freskotasuna bereganatu eta indartu izateko behar den garrez. (1985, 32)

Antzak zuzenera jo zuen liburuan, pinturetan bezala, azpiok lan bat zegoe-la ikusi zuenean. Hain zuzen ere, azaldu zuen drogak eta rockak ez zituztela poemak inspiratzen

...gehiago d[ir]a paisajearen beste elementu bat. (1983)

hau da, batasun semantikoaren funtzioa bete dute, poesia den eraketa, artifizioaren parte dira. Montoiak elementu poetikoak eratu egin ditu eta hiri, droga, musika hariak dira liburuaren alde semantikoaren mesedetan.

*Anfetamiña* irakurri nuenetik hona iruditu zait errealismo zakarraren adibide bat. Zakarrek ez dute maite postmodernitatea ez munduaren egituraketa totala. Historia minimoen zaleak dira, pertsonaia galduen aldeko, toki batetik bestera dabilen jendearen kantari. Idatzi izan da zakarrak ideologiarik gabe mogitu izan direla. Montoiaren kasuan ezin dezakegu horrenbeste esan, bere ideologia erabiltzea izan da XIX. mendetik datorren gizartea mugiarazteko. Antitektualismoa badago bai, baina berarekin batera parodia, Arestiren poemak birmoldaketa, zinismo puntu bat, feismoa erabiltzeko joera, eta haiekin batera, gorputz, musika, alkohol eta droga munduaren agerpena.

## **2. Likantropo**

Liburu hau, idazleak iragarri bezala, desberdina da. Sinbolo nagusiak, Likantropoak, alegia, jarraitzen du marginaren bidetik. Likantropoa, otso bihurtu den gizona, kulturatik at aurkitzen den gizakia litzateke, kultura gizarte ordenatu baten eremua den heinean. *Anfetamiñako* nitasun poetikoak hirietako bazterrak aukeratzen zituen moduan, Likantropoak kulturako bazterrak aukeratu ditu.

Baina hiriaren bazterretan eta kulturarenetan bizitzea ez da gauza bera. Hiriaren bazterrak, nahi bada *lumpenak*, hizkera poetiko bat behar dute, eta kulturatik naturara ihes egiten duenak beste bat. Agian, David Zuazaldek egin zion elkarrizketaren gunea hementxe dago: badu bigarren liburu honek zerbait *Anfetamiñatik*: bazterrak bilatzeko karia, sinboloak ordenako balioen ordeztu aldirantzizkoak bilatzea eta aurkitzea. Baina badu diferentziarik hizkera aldetik. Tonu poetikoa begiratzuz, Silvia Plath eta Dylan Thomas gogoratuz (nahiz eta burura datorkidan Carlos Alvarez-en sinbologia liburu baten izena,

*El aullido del licántropo*), izadiko elementuetara jo du poetak hizkera bila, sinbologia baten sorreran:

Oinak zauritzen dizkio ilargi eroak  
eta bere garaietatik bijilatzen du satorrak  
musikatzat jotzen duena  
ez da galaperraren doinu gozoa  
kilkirraren gezi pozoinduak baino  
bere bekokia jo muga... (L, 71)

eta hiriko hiztegia ez bada guztiz desagertu ez du hemen lehen liburuan zuen tokia, sinboloak eta hizkera poetikoa eraikitzeke orduan.

Trataera poetikoa ere desberdina da. Diskurtsiboagoa zen idazkera *Anfetamiñan*, irudiari eta irudimenari lotuagoa *Likantropo*n. Poemategi honetan kanpo munduko sentsazioek eta barneko munduek batera konspiratzen dute idazkera espresionista bat sortzeko orduan. Poema honetan, adibidez, kanpoko paisaia pixkanaka-pixkanaka barne paisaia bihurtzen da:

Ilargiak gereziak zilarreztatzen ditu  
eta gauaren erritmoak dardarazten ditu adarrak  
bitxia! momentu honetan  
ez dut gorputz gazterik gogoan ...  
isiltasunaren irrikan nago soilik  
neure malko gozoak  
oro argituz... (L, 77)

Irudimen munduaren sorreran tradizio surrealista eta hor osaturiko hiztegiak (ilargia, gaua, desorekaren animalien mundua, odola) eragin handia du:

Presoaren atzetik egunsentiaren ehizatxakurrak  
datoz krudelki zaunkaka  
bere oinen azpian diamanteak zartakatzen dira  
aidea labanez betez... (L, 61)

poemategi hermetikoa eraiki arte. Halaz ere, badakigu jakin, Joseba Alkalderen liburuko iritzia idatzi zuenak gogoratu zigunez, hermetiko esateak ez duela askorik adierazten eta jakinda gainera Xabier Montoiaren liburu guztietan zentzu bat aurkitzen dela, ez baititu poemak pilakatuz liburuak idazten, bada hemen ere ardatz semantikoa aurkitu beharrean gaude.

Garbien dagoena zera da: liburua nola bukatzen den, nola amaitzen duen gizakiaren garapena. Pertsonaia, ni poetikoa, likantropo egiten da liburuaren azken orrialdeetan:

Bihar ilunabarrean  
abiatuko naiz mendialdera  
otsoekin nire anaiekin elkartuz... (L, 93)

Hona heltzeko, baina, bide luzea dago, eta neurri batean, behintzat, *Anfetamiñaren* lehen atalean egindakoa.

...denborak eragiten duen iluntasuna  
oroimenak sortzen duen husgenea... (L, 7)

eremuan kokaturik, ni poetikoak gorputzaren hainbat atal deskribatuko, argi-  
ra ekarriko ditu: irria, hagina, begia, belarria, ahoa, aurpegia. Zu baten, nes-  
katxaren izana da poemotan agertzen zaiguna, guztia, baina, helburu batera  
bialduz:

...eragotzi nahi nuke denbora  
zure aurpegi hobezina  
—ihintza bezain aratza—  
oraintxe bezala betirako gorde... (L, 17)

Hizkerari buruzko zenbait poemaren ondoren, maitasunari buruzko poe-  
mak datoz. Sexuaren eta gorputzaren goraipea dator:

...zure sexoak (kirikiño setati) erretzen dit ahoa... (L, 43)  
Hanka tartean maitasuna  
—hari fina—... (L, 47)

Desamorio eta heriotzaren gaia kiribildu du ondoren poetak:

Ez duk ahaztu jakina  
nere hilotza aurkitu ziaten eguna... (L, 58)

Itzuli  
eta ohe gainean etzaten zara  
baina bere gorputzaren beroa joana da ...  
ez da semenaren azken tanta  
zure lehen malkoa baizik... (L, 63)

Maitasuna hitz bat besterik ez da, jakina... (L, 67)

Baina ibilbide guztia pasatu ondoren, desamodioaren pausuak korritu  
ondoren, poetak gauaren errainua aukeratzen du nitasun poetiko honen estal-  
pe gisa. Likantropo bihurtzen da eta izadian barneratzen da:

Argiak itzaltzen direnean  
zoko ezkutuenetatik ere  
gaueko pizti goseti guztiak  
irtetzen dira  
ezezagunaren erresuma hedatuz... (L, 81)

Ezezagunaren bidetik bidaia izan da Xabier Montoiak liburu honetan  
eskaini duena, sinbolo ilunen (gau, odol, laban) esplorazioa aurrera eraman  
duen neurrian.

### 3. Narraztien mintzoa

Sintesi liburua deitu dio honi Xabier Montoiak:

Hau horien [*Anfetamiñaren* eta *Likantroporen*] sintesis bat da, harunztago joateko betiere. (Zuazalde, 1988 a)

Askorik esatea ez bada ere, liburua irakurriz beste barik asma dezakegu, *Likantropon* esperimentaturiko hizkera surrealistak, han agerturiko zenbait sinbolok (negua, narraztia bera) mantentzen dute testuaren tonua. Baina, Koldo Izagirrek gogoratu bezala, gizartean bizi diren besteen (demokratak, txakurrak, mandrilak) salaketa egiten da, *Anfetamiñan* gertatu zen bezala. Beraz, koktela osatzeko, lehen liburuko errealismo kutsua, eta bigarrenaren hizkera poetikoa.

Baina, idazleak beti azpimarratu du bere liburuetan aurrera joateko ahalegin zehatza egin duela, eta berritasun aldetik zer? Ba poemaren kontzeptzioa. Askoz ere poema luzeagoak dira, arnas handiagokoak, “narratiboak” direla esatea guztiz egokia ez den arren. Beste aldetik, Montoiak leundu egin du hermetismoa eta surrealismo “egokitua”n gertatu ohi zen bezala, ulergarritasunaren aldeko teknikak erabili ditu, adibidez, poemaren gunea *ritornello* gisa errepikatu eta horrela mezua finkatu eta argitu, eta ondoren, irudien jokia zabaldu. Gaiaren aldetik begiratuz gero, liburu honek denboraren gaia besteek baino astiroago tratatzen du.

Laburbilduz bada, surrealismoaren indarra leundu egin da, hermetismoa baretu, eta bai poema surrealistetan eta bai errealistetan mezua garbiago agertu du.

Liburuan ezaugarri bi nagusituko dira: batetik, alderantzizko balioen sinbologia deitu duguna indartu egin da; bestetik, hizkera aldetik, forma diskurtsiboak, lirikoak eta aforistikoak erabili ditu.

Sinboloen aldetik, gizartean goian dagoena estimatzen bada, Montoiak behean dagoenaren gorazarre egin du, berriro gizartearen bazterrak bilatuz, sinboloaren aukeran berritasunik egon liteke, agian, baina ez sinboloaren funtzioan. Montoiak jarraitu du sinboloen aukeraketa, bertan sistemaren kritika eginez.

Liburu honetan narraztiak osatu dute esanahiaren giltza, izenburuan azpimarratu den esanahia, behintzat. *Likantropon* aurkitu ditugu narraztien lehen aipamenak:

...hire narrazti-gorputzaren beroa... (L, 57)

Maitasunaren sugeek hozka egin zidaten lepoan... (L, 69)

Baina aipuetan ikus dezakegunez, maitasunarekin loturiko sinboloa da. Orain, esanahi orokorragoa izango du; aforismo erabateko batek azaldu duenez:

Ezurte guzti hauen ondoren  
narraztiak bakarrik  
ibil daiteke duintasunez... (L, 58)

Ezurteak historiaren azken urteotako ibileraz hitz egiten du. Idazlearentzat ibilbide horrek merezi izan du juzgu ezezkor hori. Eta historiaren ibilbide horren aurrean idazleak balioen aldaketa egin du eta behekoak, narraztiak, jartzen ditu duintasunez hitz egiten, hau da, bera.

Poemategian lehendik zetozen sinboloak aurkituko ditugu: negua, adibidez, garai ospelak,...

Ez izan hemen udaberriaren zai.  
Hemen beti dugu negua,  
eta hiri erdiko kanposantua  
gure baratzerik oparoena... (NM, 13)

Zentzu politikoz zein pertsonalez uler dezakegun garai ospelen artean, poetak bere betiko babesa eskaintzen du: maitasuna. Poemategian gertatu da, halabaina, denboraren jarioak eta heriotzak toki handiegia hartu duela:

Denbora  
zangoen artean karabilkatzen da  
eta belarrondoan eragiten dit  
bere mingain luzea.  
Lo zerraldo erori arte  
bere begiek kulunkatzen dituzte neureak  
Astunegia orduen usaina (NM, 6).

Heriotza behar den bezala:  
osoa, disdiratsua, banaezina ...  
Heriotza. Heriotza.  
Hiltzeko heriotz hilbera... (NM, 15)

Bere itzala zabaltzen duen heriotzaren aurrean, maitasunak eta sexuak bere babesa eskaintzen dute.

Forma aldetik, espresioaren desberdintasuna bilatu du Montoiak. Formula dikurtsiboak, orohar. Poemek bere luzaeran, nahiko toki eskaintzen diote inspirazioaren zabalkunderako, joera paraleloak bilatzeko, denboraren eta espazioaren berri emateko.

Aforismorik ere ez da falta: poema labur eta intentsoetan poetak bere pentsakizunaren berri agertu du, formula estu eta zehatzen bidez, paradoxa ahaztu gabe. Forma bion artean, Montoiak irudien sormenarako duen ahalmenak dir-dir egiten du zenbait pasartetan:

Taupadek ahanztura hausten dute  
hamaika zulotan... (NM, 34)

Liburuak, alabaina, sarkasmoaren erabileran agertzen du bere joerarik nabariena. Lehenago ere, Montoiak erabili izan ditu txisteen guneak poemagai (hala nola bere eskuak galdu dituenarena eta ondoren zigarroak pizten dizkiotena adibidez, *Likantropo*), baina hemen alderantzizkoaren logika azken punturaino eraman da hainbat poemetan: bere gonorrea sendatu nahi ez duenarena (“Oroigarria”, NM, 42), edo bere maitalea jaten duenarena: (“Kanibaleran dantza”):

Gizajale, kanibal izatea  
larrialdietan ez dago hain gaizki... (NM, 19)

uste duelako, edo (“Aitorpena”, NM 50-2) pistola utzi behar duen asesinoaz,

...pozoin isilaren aba[n]tailaz  
berandu oso ohartu naizela... (NM, 52)

ikusi duelako. Umore beltzaren agerpena surrealismoaren aurrera pausua da, liburu honek egin duena, azken batean.

## Bibliografia

MONTOIA, X. (1983): *Anfetamiña*. Susa. Donostia.

— (1985): *Likantropo*. Susa. Donostia.

— (1988): *Narraztien mintzoa*. Susa. Donostia.

ANTZA, M. (1983): “Anfetamiñaren poemagintza”. *Argia*. 992. 1983-XI-13.

ITURREGI, N. (1988): “Xabier Montoia, poeta ez den poesia egilea”. *Hemen*. 1988-VII-22.

IZAGIRRE, K. (1991): “Mudos blues de la nada”. *Susa*. 25. gehigarria.

KANDELA (1985): “Montoia, X.: Anfetamiña”. *Euskal letren dantza*. Hordago. Donostia. 30-33.

ZUAZALDE, D. (1988 a): “Xabier Montoia”. *Argia*. 1.204. 1988-VI-26.

— (1988 b): “Narraztien mintzoa”. *Argia*. 1.209. 1988-VII-31.

BOSGARREN ATALA



HAMAIRU POETA





## PATXI EZKIAGA TOPOGRAFIA ESTETIKO ETA MORALA

Patxi Ezkiagak lan zabala eta emankorra aurkeztu du gure artean azken urteotan. Kontuak ongi egin baditut hamar libururen egile, 1992. urte arteko bere poema liburu guztiak baturik eman ditu *Haize hurbila* (EHU, 1992) obran, zenbait liburu ingelesera itzuliak direlarik, gainera. Sari ugarien irabazle dugu, Irun Saria behin baino gehiagotan irabazi du (1985, 1986), Eusko Jaurlaritzako Lizardi Saria ere eskuratu du. Arnas handiko poeta bada ere, estetika berezia erabili du bere lan poetikoan eta ezaugarri horrek estali ditu, neurri batean behintzat, eta aro jakin batean, bere eginkizun poetikoa eta bere ezagutza. Egoera horrek adierazpide bi merezi ditu, halaz ere. Berezitasuna, dirudienez, heziketa eta aukera zioa izan da. Egitan, Ezkiagak bere inguruan erabiltzen ez diren estetikak ezagutu eta erabili ditu. Nolabait eta izenondo bakarrarekin izendatzeko eragin anglosaxoiaren menpean idatzitako poesia da. Estetika honek baditu bere ezaugarri jakinak: ez dio muzin egiten poesia deskriptiboari, ezta ere erromantikoari, izadiarekiko ardura handia erakusten du, ez ditu ezkututzen modernitateak erakutsitako berritasunak, baina Frantziako abanguardiatik urrun da, idazkeran hedapenerako —deskripzioariko— joera du eta intentsitate lirikoa ez da sortzen hizkera poetikoaren tentsioaren bidez, baizik eta poema barnean jokoan jartzen diren tentsioen bidez, eta hausnarketarako duen jitearen bidez. Orohar, eta orokortasunak ematen duen xinpletasuna onartuz, iruditeria deigarrian eta irrazionalismoan, hizkera poetikoaren indarrean eta esaldiaren dirdiran sinestu duen poetikarako urruneko eta ezohiko gertatu da, poema luzearen aldeko joera hau. Ezkiagari buruz askotan esan da tradizioaren zaletasunez ari dela sinbolismo arrunt batekin nahastuz literatura ingelesaren balioak ahaztuz. Horretan agian bakarrik eta bakarregi agertu da euskal poesiaren panoraman.

Beste kontu bat da harrerarena. Ze harrera izan du Ezkiagak? Irabazitako sariketa eta omenei begiratzuz gero, badirudi ona izan dela. Baina batek baino gehiagok idatzi du ez zaiola behar besteko arretarik jarri, eta ixilpean igaro

direla bere hainbat liburu. Agian poetaren harreran eta harengan jarritako arretan faktore bik (gorago aztertua alde batera utzirik) izan dute garrantzia: batetik, literatur sariketen faktorea legoke; sari batek ez du, gure ingurumarian, ezagutza ziurtatzen, eta okerragoa dena, ez du lanaren argitarazio ondorengo zabalkuntza bermatzen.

Beste alde batetik, eta Ezkiagak berak gogoratu duenez (1991, 40), badira talde eginak euskal poeten artean eta badirudi sari “ofizialen” bidez zabaltzen direnak ez dutela, nolabaiteko joera “antisistema”gatik onarpen errazak lortzen.

Hirugarren arazo bat ere aipa genezake: poesiaren alde erlijiosoa, oso nabaria dena, eta Gandiagaz ari dela, Ezkiagak gogoratu duenez:

*Elorri* neretzak askosaz poema liburu hobea da. Neretzat gerra ostean egin den poema libururik hoberena, neretzat, pertsonalki. Baina, klaro, *Elorrik* baditu oinarri erlijios tipoko batzuk. (1991, 41)

Nik, guzti horren gainetik baina, azpimarratuko nuke estetika berritzaile honek zekarren berezitasuna ez zela, lehen uneetan behintzat, ongi ulertua. Ohitura falta zegoen liburuen aurrean, estetikaren aurrean. Arrazoi honek ez du ezkututzen Ezkiaga ulertzeko egindako lan eskasia.

Harrera, hala ere, aldatzen joan da. Eta literatur zirkuitoan, sariei esker, beti egon den poeta izan bada ere, harrera indartu egin da 1987. urtearen ondoren eta gailendu, Felix Marañak eta Felipe Juaristik osaturiko lan guztien bildumari esker, *Haize hurbila* liburuak errekonozimendua ziurtatzen du. Ondoren 1992. urtean, Arrese Beitia Saria eskuratu zuen *Komediaren Jainkoa* liburuaren bidez. Gure aipuak bi horietatik egingo ditugu, ez baitaia irakurleari erraza izango Ezkiagaren liburu guztien lehen edizioa eskura izatea.

Poesiaren azterketarekin hasi aurretik baina, ohi dudanez, Ezkiagaren poetikarekin hasiko gara.

## 1. Poetika

Patxi Ezkiagak poetika bi argitaratu ditu, eta bere poesiaren beste hausnarketa bat aurkeztu du 1995. urtean Deustuko Unibertsitatean eratzten dituzten ihardunaldietan. Agian argitaratuko da hori ere, baina tartean lehen bietan oinarrituko gara poetika horri buruzko ikuspegia emateko asmoz.

1989. eta 1990. urteetan Deustuko Unibertsitatean *Gaur giro* taldeak euskal poesiari buruzko mintegiak eratu zituen. Patxi Ezkiaga, beste poeten artean, deitu zuten. Hor ageri ziren Artze, Igerabide, Irastortza, Irugaray, Juaristi, Perurena, eta emaitzak monografiko gisa argitaratu zituzten *Enseiucarrean* aldizkariaren 6. zenbakian. Hitzaldien aurretik galdetegi bat zabaldu zitzaizen partehartzailei beren poesiari buruz: olerkigintzaren hari nagusiak, mundu

ikuskeraren eraginak, gaurko euskal olerkigintzari buruzko egoeraz, e. a. Galdetegia aurrean zuelako edo, Ezkiagaren poetikak hartzen du eske-maren usairik.

Osoagoa eta beteagoa da Labayru Ikastegiak 1992. urtean eraturiko *Gaurko Poesia* mintegirako Ezkiagak idatzi zuen saioa. Ideiak, estuerarik gabe, zabal eta sakon ematen dira, poesiaz duen mundu ikuskeraren berri osatua eman arte.

Aipaturiko arrazoiengatik bigarren hau aukeratu dugu, gida gisa, poetikaren deskripzioan eta horko datuak 1991. urtean agerturiko ideia eta datuekin osatuko ditugu.

Poetika bien izenburuak literatur manifestuak dira bere laburtasunean: *Enseiucarreanen* argitaratuak, “Poeta bizitzaren esploradorea da” deitzen da, eta 1993koa: “Dialektikaren muturrean”. Esaldi soil horietan ditugu Ezkiagaren poetikaren oinarriak. Pertsonaren bizitzaren esploratzaile gisa ari da Ezkiaga, eta jakin badaki hori ez dela aurpegi bakarrekoa, anitza baizik. Bitalismo eta dialektikaren artean jarrita, Nietzsche eta Hegel-en artean, Ezkiagak, Juan Mari Lekuonak egiten duen moduan, pertsonaren esplorazioan jartzen du bere arreta, pertsonaren bizitzak, argi-ilunez, kontraesanez beteak eman dio poesiaren gaia. Poetika biotan argi agertzen da poesiaren gune hori, Ezkiagak, argi aitortzen du, ez du nahi errealtatea adierazi, baizik esperientzia, edo, bestela esateko, errealtateak sortzen duen interpretazioa, errealtateari buruzko iritzia ikuskizuna eta interpretazio bide hori azpimarratzen du errealtatearen eta esperientziaren arteko kontrajarpenean:

Poesiaren arloa, bere izateko arrazoia eta zioa ez dela errealtatea, EXISTENTZIA baizik, behin eta berriro isladatzen saiatu naizen eran ulertuta, dialektikaren muturrean ... ESPERIENTZIARI eman nahi diodala lehentasuna. Bestalde uste dut esperientzia horrek mistikoa izan behar duela ... hau da ezinezkoa dela bizitza eta errealtatearekiko merkatari jarreraz jokatzeko. Ez gara Bizitzaren eta Errealtatearen merkatari, bizitzaren eta Existentziaren misterioak eta sakonenak liluratutako izakera arrunta nahiz ezarruntak baizik. (1993, 106-7)

Poetaren esploradorearen irudia testu bietan (1991, 25; 1993, 207) agertzen den bezala, agertzen da errealtatearen eta esperientziaren arteko banaketa eta existentziari emandako lehentasuna bietan:

Esan dut bizikizun eta ez errealtate. (1991, 27)

Hiru elementuetan, beraz, oinarritzen da Ezkiagaren poesia. Esplorazio dialektikoan, bizikizunaren eta errealtatearen arteko banaketan eta esperientziaren lehentasunean. Zergatik? Dialektikak erakutsiko lukeenez, errealtate ireki baten aurrean, esploradore gisa, kokatzen duelako bere burua:

Benetan sinesten dut poesiaren arrazoia, poesiaren hesparrua, poesiaren

arloa ez dela errealitatea, alderantziz, nik uste dut poesiaren hesparrua existentzia dela. Eta existentzia ... ahalbide irekia legez ... Existentzia, berriz, irekia da, eta bizi gara bizi gaitzkeen heinean... Neretzat poeta zerbait bada esploradorea da, bizitzaren esploradorea, miatzailea. (1991, 28)

Ezkiagak, goragoko aipua osatuz, poesiaren definizioa ematen du:

Orduan poesia izango litzateke, neretzat behitzat, erroko posibilitate huts hori. (1991, 28)

Ia hitzez-hitz errepikatzen den definizioa beranduago:

Poeta beraz, ezin izan ez historiagile ez igarle soilik... Poesia nahi bada, erroz erroko posibilitate hutsa litzateke. (1993, 207)

Joera horrek Tere Irastortzak idazten zuena gogora ekartzen du. Irastortzarentzat poeta ez da historiagilea, ez da igarlea, errealitatearen aurrean galdera egiten duena baino.

Oinarria garbi geratu delarik, metodoaz hitz bat edo beste egin beharko genuke. Ezkiagak dialektikan jartzen du bere izaeraren gunea, bat da, baina bestea ere ulertzen duena, bat izan eta kontrakoa hurbiltzen dena da Ezkiaga, eta dialektikak beti adar bi soilik hartzen baditu kontutan ere, "Dialektikaren muturrean" deituriko lanak poesia honen irudi ederra ematen du geroago eta sakonagoak diren errealitateak kontuan hartzen baititu.

"Hasieran hitza zen" gogoratuz hasten duen hausnarketak biografiaren eta literaturaren artean dagoen lotura estua gogoratu du. Ezkiagaren literatur heziketan nagusi izan dira hiru instantzia: gurasoen eredu eta kultura lotura, Parisen Eusko Jaurlaritzaren egoitzako artxibategian egindako ikerketa eta oroimen kolektiboaren berreskurapena, eta Ingalaterrako Unibertsitateetan aurrera emaniko ikasketak.

Hiru eragin hauen bultzapenez, poetak bere poesia dialektikan ikusten du: alde batean Euskal literaturaren eragina, bestean literatur anglosaxoiaren eragina (Ingalaterrakoa zein Ipar Ameriketakoa). Bigarren poetikan, labur adierazi beharrez dabilelako, beharbada, *Garoaren* eragina aipatzen du eta Lizardiren *Bihotz begietan* liburukoa. Hauek eragin bi utziko dizkio: izadiarekiko atxikimenduan bata, eta adjetibizazioaren erabilera, bestea. Moldaketa garrantzitsu bi, ondoren poeta izango denaren heziketa prozesuan.

1991. urtean zabalago deskribatzen du euskal literaturak bere lanean izan duen eragina.

Gehien markatu nautenak azpimarkatu beharko banitu, nik lehenengoz izen bat aipatuko nuke, nire ustez agian, euskal poetika inork baino gehiago markatu duena, eta baztertuta daukagun gizon bat: Bitoriano Gandiaga. Bere *Elorri* liburua neretzat benetan obra klabea da gaurko euskal olerkigintza ulertzeko. Gabriel, bilbotarra, Aresti, eta momentu honetan guztiz

isildurik daukagun beste gizon bat: Xabier Lete. Juan Mari Lekuona eta, zer esanik ez, Lauaxeta. (1991, 30)

Zerrenda aztertzen badugu ez dugu zalantza handirik izango Ezkiaga euskal tradizio humanistan sartzeko: Gandiaga, Lete, Lekuonak osatzen duten tradizioan, hain zuzen ere. Baita ere, sinbolismoaren eraginpean metaforan eta mitoan sinesten duen ildoan. Eta Aresti? Arestirekin ez ote du lotu arnas handiko poesia egiteko zaletasunak?

Dialektikaren bigarren muturrean Ingalaterran azterturiko idazleak aipatu ditu Ezkiagak. Zerrenda luzea da aipaturikoa. 1991. urtean baina oinarri erromantikoak azpimarratzen ditu: Tennyson, Milton eta Blake-ren irakurketan gauzatzen direnak. Baina ez dira falta modernitatearen idazleak. Eta bi aipatu nahi ditut: T. S. Eliot (antzerkigile gisa aipatua) eta Seamus Heaney. Beste zerrenda bat osatu beharko litzateke izadierakiko lotura agertzen dutenekin, hemen jarri beharko genituzke Walt Whitman eta Soyinka:

Afrikako poesia guztiz bitxia da, lurrarekiko izugarrizko lotura daukana. (1991, 30)

Liverpool-eko poetak ekartzen ditu diskurtsora Ezkiagak eragin zehatza sortu diotelako:

Horiek nolabait eman zidaten kolorearen magiarekiko erreberentzia, gurtza .... kolorearekiko erreberentzia hori eta batetik egunerokotasunari eman behar zaion begirunea. (1991, 30)

Baina guztien ganetik J. A. Valente eta bere *Mandorla* eta *Fulgor* liburuak. Zerrenda luzeak ziurrenik. 1993. urtean zerrendaketa bere hutsean agertzen da. Baina zerrendaren azpian hiru-lau ildo, hiru-lau tentsio bide, lilurapen agertzen dira zuzenean: diskurtso zabaletara jotzeko tendentzia (Milton, Blake), errealtatea mitoaren bidez agertzeko tenorea, izadiaren deskripzioak duen indarra, izadia beste errealtatean aldatzeko joera, errealtatearen azpian ezkutatu litekeen ikuskeraren bila joateko era eta, guztiaren gainetik, Valente, poeta honek dituen bertuteekin: hitz poetikoaren intentsitatea, bizitza indarbetez bere osotasunean gorazarrez ikusteko ahalmena.

Ezkiagak izadi eta errealtatearen —egunerokotaunaren— aurrean sentitutakoak antzaldatzeko duen bultzadaz lan egin nahi du. Horregatik dira hain garrantzitsuak poetika honetan “mito” bezalako hitzak:

Nik uste dut ahots bikoitzaz ari garela olerkigintzan: gizon arrunt, izuti eta ezjakinarena bata, gu baino haundiagoak diren indarren ezagupenean bizi arren, eta ikuskari preternaturalean bestea. (1993, 186)

Biografiak eta kulturak, bizitzak eta irakurketek bere poesian utzi duten aztarna aztertu ondoren, izadian ikusten duen dialektika deskribatu nahiz aritu zaigu Ezkiaga. Naturari dion atzikimendua *Garoari* buruz hitz egin due-

nean argitu digu idazleak. Natura, hala ere, pertsonarekin lotua ikusten du Ezkiagak:

Natura eta gizonaren arteko oposizioa sinplea baino konplikatuagoa da, naturaren mundua gizaki arruntak uler dezakenaren terminoetan bakarrik bait du eznaturala eta etsaia.

Baina naturak indarrik badu poetarengan beste arrazoi batengatik da. Lizardik, eta aurretik erromantiko guztiek, adierazi zutenez izadiak beste errealitate baten aurrean jartzen gaitu:

Iratzarrik dagoenaren dimentsuz behe erreliebe xume batean utzi eta beste errealitate batera bultzatzen gaituen leherketa sismikoaren begirale beldurti eta liluratuak gara. (1993, 191)

Natura da leherketa sismiko honen eragile eta ikuspegi berri baten agerbi-de: ez objetiboa ez subjektiboa dena, beste ikuspegi bat sortzen duena. Ezkiagak sinbolo dialektiko biren bidez ematen du aditzera izadia: leizea da, eta babesa ere bai. Leize den aldetik, sinbolisten amildegien modura, kezka izengabeen eta ilunbeen agertoki da natura, idazlearen barne-sentipen ezkutu-koen bilgune:

Deika dugun xarmari gorbizi horrek badirudi erantzun esijitzen digula. Erantzun behar hori drama mentala sortu da nigan eta behin baino gehiagotan errepresio mentalaren edo zentsuraren bitartez alboratzen saiatu banaiz ere, azkenean ezin izan diot ihes egin. (1993, 190)

Baina norberaren alde ezkutu eta isilkor horien agerbide bada ere, babes-lekutzat ere agertzen da izadia:

Ezin bait dut ukatu ... oraindik bizi bizirik sentitzen dudala behin baino gehiagotan erromantikoek sentitu eta kantatu zuten Naturaren rol babeslariaren aurrekiko faszinazioa. Askotan sinestu egiten bait dut naturak babes-tu egiten gaituela, berau dela gure kezka, arregura eta frustazioen aterpe. (1993, 192)

Izadiak bidaltzen badu beste errealitate batera, Ezkiagaren mundu ikuskeran mundutik at dagoen errealitate horrek izena du, Jainko deitzen da. Zuzen aitortzen du Ezkiagak, Hitza Haragi egin zelako, bere poesiak joera erlijiosoak duela:

Topografia estetiko horretan bizikizun erlijiosoaren eragina aipatuko nuke. (1993, 193)

Aipamen erlijioso horrek ematen dio zentzuna poesiari. Eta azken puntuan, Ezkiagak berea poesia mistikoa dela argitu du:

Nik bizikizun hori nolabait trazeditu eta iradokizun bihurtzen duzun momentuan, sujerentzia bihurtzen duzun momentuan. Orduan errealitate

hori ireki egiten zaizu, haunditu, zabaldu, garatu egiten zaizu, eta hori da neretzat mistika: errealtate soiletik atera eta errealtatea iradokizun bihurtu, eta nik honela ulertzen dut poesia. (1991, 43)

Jainkoaren presentzia, hala ere, dialektikoa da, ez da erabatekoa eta ortodoxoa, kontraesanez betea baino. Lehen-lehenik, eta Jose Luis Sampedro nobelagilea erakartzen du gogora, Jainkoak nolabaiteko zentzua eman dio idazleari. Honek bere burua bikoiztua ikusten du, bere alde fisikoa eta adimena. Hura leizea da, hau babesa. Hura desoreka eta mugatu beharrekoa, hau gidaritzatza. Existentzia anitza da eta hortan agertzen zaio bikoiztasuna idazleari:

Nire barru barruko mundu natural, basati eta libre batekiko irriaren eragozpen gisa, erlijiotasuna dago: badakit kontrolatu egiten duela nire ibarre guztia ... fisikotasunaren beharra sentitu izan dut intelektueltasuna akabatzeke. (1993, 193)

Bikoiztua dagoen gizakiarengan erlijioak Ezkiaga giza-balore batzuen alde jarri duela dirudi.

Erljiotasunak balio du Jainkoaren izaera somatzeko, baina, sakonagoa dena, emakumearen izaeran sakontzen lagundu du poeta. Graves-en *Jainkosa zuria* lanaren irakurketaren ondoren, Andrearen irudiaz kezkatzen hasi da poeta:

Itxuragabe kezkatu nau prozesu honetan Andreak emetasunaren definizio gisa duen tokiak. Ze motako jainkoa da... Andrerik gabe bizi ahal zitekeena? ... Aitortu beharrean nago argitasun baino zalantza gehiago dudala eskuarki eta justizia egin nahiz jaiotzaren, bizitzaren eta heriotzaren jainkosaren kantari bihurtzen saiatu naizela. Ez du itxura fikorik eta forma anitz har ditzake, izen anitz —Aiodi, Keiko eta Airam. (1993, 195)

Hizkera poetikoak eratu du hurrengoko dialektika. Zirkulu honetan, alde bi ditu hausnarketak. Batean poesiaren hizkeraz idazleak uste duena kokatzen da. Ez du Ezkiagak zertzelada handirik ematen maila honetan. Txomin Agirrek adjetibozale bihurtu zuela aitortu ondoren, gutxi argitu du arazoa Ezkiagak. Agian, musikaltasunak eta erritomoak duten garrantziaz jakitun dela, besterik ez. Edo hizkera poetikoan ere beste dialektika bat eratzen dela era bisual eta hizkeraren artean.

Artean, poesian duen indarrez agertzen da mitoa Ezkiagaren hausnarketan. Mitoa misterioarekin (Lauaxetak zidorrarekin esango luke) lotu du poetak eta, Milton eta Blake atzekaldean, poesiaren helburua mitora heltzea da.

Mitoa, orduan, sendakuntza sikikoaren historia objetibatua da, beti gainean bait dugu, Tebasek bezala, madarikapen gisa, esfingearen misterioa ... Eta mitoa ez da soilik mundu zaharraren berriztapena. Subjetiboki mitogintza bera terapeutikoa da, beti zerbait falta denez gure bilakuntza proze-

suan inportanteena ez bait da hara iristea, harunzko bidea baizik... Poesia anti-razionalista, mito-poetikoan ikusten dut ene burua. (1993, 197-8)

Prosodiarekin jarraitu du poetak baina ezusteko portu batera heltzeko: bere lanaren sailkapen batera. Bere obrak sail bitan bananduak ikusten ditu poetak: alde batean, ideia baten pean eraturiko poema osoak leudeke: *Armageddon*, *Gernika*, *Terrala*; eta, beste aldean, antologia deitzen dituenak, poema soltez eginiko liburuak: *Beldur naiz*, *Aiodi herriko kantak*, *Fadura* eta *Baladak*.

Puntu honetan poetak dialektika guztiak batzen ditu, eta berriro saiatu da poesiaren gunea definitzen. Poetaren izaerak batuko lituzke hausnarketaren hari guztiak:

Izakera normal hau Jainkoagandik eta Naturatik at datzana, halere saia-  
ren eta Jainkoaren egiaztasuna susmatzeko gauza den izakera ezarrunta  
baten zati da. Hain zuzen ere, izakera normala gertaera eta gauzen objeti-  
bitatearekin loturik dago. Baina narratzaile isilak, hau da, poetak, nolabait  
izakera normal eta ezarrunta horren partaide izanik, badaki gauzak eta ger-  
taerak ez direla soilik gauzak eta gertaerak; badaki fikzio elaboratu baten  
zati direla, gure gainetik egonik askotan pasibitateara garamatzana. (1993,  
203)

Fikzio hori poetak paradisu kristauan kokatuko luke, eta horregatik uto-  
piaren bila abiatzen da. Eta zuzen aukeratu ditu sinbolismoaren gaiak:

Erroko baldintzaren arkikuntza bestalde, gaitza, mugazia eta heriotza-  
ren tematika. Honek dira beraz, nire pertsonaiak. (1993, 205)

Eta horren bila jartzen ditu mitoa, sinboloa, komunikazioa eta poemaren  
barne dialektika bere kezkek (bere buruarentzat idazten duela askotan aitortu  
du Ezkiagak) irakurlearengan berriro sortu arte, irakurlearengan mundu per-  
sonal horien sortzaile izatera iritsi arte.

Beste kontu ba da postmodernitatearekin duen lotura. Ezkiagak zalantza-  
rik gabe jartzen du bere burua postmodernitatean bizitzen, nahiz eta erabat  
onartu ez postmodernitatea.

Mogimendu baten barruan sartzerakoan, nik postmodernista bezala  
ikusiko nuke nere burua. (1991, 42)

Izenondoa anbigua da. “Postmodernista” Ingalaterran modernismoaren  
ondorengo mugimendu bat adierazteko erabiltzen da, eta zuzenago, T. S.  
Elioten lanari dagokio. Halaz ere, badirudi Ezkiaga —transkripzioa oker ez  
badago behintzat—, postmodernitateaz ari dela, esan nahi da korronte zaba-  
lago batean, kultura, eta ez soilik literatura kontuan hartzen duen ildo baten  
barruan.

Nik barruago ikusiko nuke Jon Kortazarrek bere tesian esaten duen



poesia postmodernoarean barruan, nahiz eta nik postmodernismo hori guztiz ez onartu. (1991, 42)

Berriro terminoen arteko nahasketa agertzen bada ere, aipamenak garbi uzten du postmodernitateaz ari dela, nik ez dudalako postmodernismoaz hitz egin, eta tesian bada, postsinbolismoaz ari dela dirudi. Hiztegiaren nahasketa agertzen bada ere, kontzeptuan garbi azaltzen da Ezkiagak bilatzen duena.

Hitza azaldu ondoren, kontzeptuak agertzen dituenen garbia da azalpenaren norabidea:

Uste dut poesia orok isladatzen duela aro postmoderno honetan arrazoi kartesianoak guztiz herdoitu egin duela pertsona, eta azken baten jan egin dituela Erdi Arotik gugana etorri diren balio guztiak. (1991, 31)

Postmodernitatearen ezaugarri nagusia hor emana egon arren, beste ezaugarri batzuk ez ditu ahanzten Ezkiagak, hala nola unibertsaltasun disziplinitzaileen heriotza, historiaren errelatoaren amaiera... Ezkiagak nabaritu du, hala ere berak ez dituela horko erro nagusiak onartzen, baina hor bizi behar duela baietsi du:

Norbera, poeta bakoitza, bere bizikizunaren postuladotatik abiatuta, errealitate hau isladatzen, komunikatzen edo borrokatzen arituko da, baina inork ezin izango du ekiditu, hor dagoelako eta benetako situazio baten isladapen delako. (1991, 32)

Hori horrela dela onartu arren, Ezkiagak itxaropen eta utopiaren alde ere egiten du, eta puntu horretan banatuko da postmodernitatetik:

Nik uste dut bizitza poetikoki bizitzeak suposatzen duela nolabait haurraren begiak galdu gabe bizitzea, hau da, mirespen kapazitatea zabal zabalik dugularik bizitzea. Eta utopia litzateke behar bada, ni utopia horren atzetik noa... mirespen begiak zabal zabalik edukitzen ... helburu bat baldin badut ene olerkigintza da, prezeski, gure bizitza hau horzkatu eta xahutzen duen postmodernitatearen murrizketa prozesu honen aurka ekitea. (1991, 27)

Itxaropenezko poesia egiterakoan, Ezkiagak bere lana dialektikan bizi dela erakusten du. Baina paradoxa eta dialektika aztertzea bere lanaren ezaugarri nagusia da eta honela, gogoz eta adimenez, irakurri beharko dugu, bikoiztasunean bizi den lan poetiko hau.

## **2. Patxi Ekiagaren poesia: Milton eta Heaney-ren artean**

Patxi Ekiagaren poesiak badu erromantikoengandik datorren zerbait. Batetik, badu errealitatea, ikusten dugun munduaren beste aurpegia, sakoneko bisaia ikusteko, hausnartzeko joera nagusia. Bere poesiaren erroak ezagu-

nak dira. Baina horregatik, hain zuzen, badu arriskurik. Bata da irakurria ez izatearena. Bestea, topiko jakin batzuekin geratzea.

Zuazaldek (1988) modetatik kanpora dagoela uste du, “kontenplatiboa” dela diote Aranok eta Arresek (1987), Xabier Monasteriok (1991), zabalago jo arren, musikaz, hitz aukeraketaz, hitz egiten du. Baina denak galdetzen dute obra honen zentzuaz, zentzua, “produkzioaren klabea” Aranoren eta Arreseren hitzetan, eskapaka balitz bezala agertzen zaigu. Irakurle gisa diot, urteetan izan dudana bizikunea bikoitza izan da poesia honekin, atsegin bai, atsegin zitzaidan zenbait pasarteetan, baina ez ninduan asebetetzen. Eta, hala eta guztiz, aitortu behar da Ezkiagaren lanak harrera eta oihartzuna izan dituela. Zentzuaren bila abiatzea litzateke lantxo honen helburua, lanez laneko azterketa Felipe Juaristik ohi duen esku onez egin baitu, *Haize Hurbila* poema liburu osoan, bilduman, beraz, deskripzioa egina dagoenez, beste lan bat egiteko modua geratzen zaigu. Lanei buruzko informazioa nahi lukeenak, badu nora jo, sarrera luze horretan aurkituko du nahi beste.

Zentzua! Zentzua!

Argia dirudien baieztapen batekin hasiko naiz: Milton-en “Paradise Lost”ek ikaragarritzko garrantzia du lan honen sorreran. Mundu oso baten sorrera, literatur lan total baten asmoa da agertzen duena: oro bildu nahi lukeena. Asmo erromantikoaz hasi den lan baten aurrean gaude.

Kokapena, berez, gaur egun euskal poesian sarri egiten ez dena da, beraz, poema bildumen ordez, poemategiak egin nahi dira, eta, agian, poema liburu guztiek dute (batzuk ageriago, besteek ezkutuago) ideia bakarra adierazteko gogo. Patxi Ezkiagaren poesiaren zentzuak orokortasunean, oro izan nahian hartzen du bere ardatza. Gogoratu nahi nuke “Orogenesia” (44, 581) deitzen dela *Fadura* liburuko bere lan bat.

Ta jainkoak borrokatu ziren  
izadiari ematearren  
mila koloretako jantzia ...  
goiz hura izan bait zen  
lehenengo udaberria

Pentsabide da lan poetiko osoa “Orogenesia” dela: hitz poetikoaren bidez mundu osoa sortzea, orotasunaren markoa duen hitz poetikoa eraikitzea.

Idea hau astiroago lantzeko adimena “orogenesia” hitz horretan jarri beharko genuke. “Oro” dago alde batetik eta “genesis” bestetik.

Bigarren horri lotuko gaitzaizkio. Genesis, sorrera. Sorrera epifenomenoak arduraz jarri du poeta. Gauzak nola sortzen diren da bere ardurarik nagusia. Mundua nola sortu zen, bai! Baina sentimendua nola sortzen den ere bai, edo lilura, eta inspirazio poetikoa: sormena, hitz batez esateko. P. Ezkiagak askotan errepikatu du bere asmoa erroaren errora heltzea dela:

Nire olerkigintzaren oinarria hitzen eta kontzeptuen ukapenean bada-tza, erroen erroetara joateko eta jotzeko da (Arano-Arrese, 1987).

Genesiaren lilurak estetikan jarrera ekarri du: erroetara eta sustraietara joatea, eta poeta erromantiko gisa, garaiaren goizalbara itzultzea, mito bihurturiko poesia sortu arte. Mitoak sortu egiten ditu Ezkiagak, irudikatu nola litekeen mundua sortu aurretik, nola sortu zen. Paradisu-irudia berreskuratu nahi du. Horregatik dira esanguratsuak berak horrenbestetan aipaturiko joera preternatural eta trazedenteak.

Genesisia baina ez da soilik bizitzaren sorreran agertzen. Begiak zabalik dituen poetak behin eta berriro galdetzen du jaiotzaz: goiza, udaberria, goizalba, hasiera, guztiak osatzen dute Ezkiagaren sinbologiaren arlo bat. Eta arlo hori eguneroko bizitzan gertatzen da:

Berriro ere bitxiloreak  
—egunsentiaren remolkariak—  
irikiko dizkio ezpainak egunalbari.  
Eta berriro altxatu da  
eguzki ibiltari eta buhamea...  
kolorez mozkortu da espazio barnekoia.  
Jainkoaren besoetan  
esnatu da berriro ere  
Birjina (KM, 54)

Egunalba da.  
Argia, esku zartatua,  
lainoxka, kea,  
ibaiaren hata,  
Historiaren hasiera  
ta urruti zauden  
horren izena (HH, 403)

Baina oro da mundu osoko eta osorako nahi den hitz poetiko hau. Orotasunak eskatzen dio poetari, edo honek egiten du haren izenean, denetarik hitz egitea. Patxi Ezkiagaren poesia entziklopedia bat da, puzzle bat eta poema bakoitzak bere tokia du osotasunaen kartografian.

Horrek esan nahi du denetarik erabiltzen dela poema hauetan: narrazioa *Baladak* poema liburuan; antzerki dramatikoak, *Gernika* poemategian, “Balada antzestua”, eta “Borroka antzestua” *Terralan*; eta lirika, erromantizismoak onartu zuen antzera, poesia genero nagusia da eta bere magalean biltzen dira beste guztiak.

Gai aldetik orotasunak orotasunetik hitz egitea eskatzen du. Anitza da poetaren bizikunea, eta anitza den neurrian edozerk zauritzen du irudimena eta bultzatzen poesia idaztera. Halaz ere gai nagusi bi, edo nahi bada, eremu nagusi bi aipatzen ditu Ezkiagak: natura, nagusia dena, eta hiria.

Gertatzen da sinbologi hori, hirian gaur egun bizi dugun bizimodutik nahiko urrun geratzen dela. Ezen eta hiriak mementuz ez bait dit ematen behar dudana sinbologia. Ihes egin dut hiritik eta Izadiarengana jo dut ... Azken poesia urbanoa egiten saiatu naiz, esperimentu bat. Ez nau batere aseturik utzi. (Arano-Arrese, 1987)

Nahiz eta hiriak, eta hiriaz egindako poesiak asebate ez, eta onartu hiriko bizitzatik “isladak” besterik ez dituela ateratzen, Ezkiaga hirian bizi da eta hiriak presentzia handia du bere liburuan. Ez da soilik *Ispiluaren islaketak* liburuan agerturiko esperimendazioa, eguneroko tresneriaz sorturiko sinbologia, bada *Terralan* ere eta bada *Terrala* liburuko *Loiala auzoko blues* atal handia. Kurioa bakarrik ez, batasun-haria ere bada hiri-giroko poema guztiak blues-aren menpe agertzea, errekorreenteak diren bezala Lili Marlene-ren musikaz abestu beharreko poemak. Hiri presentean dago orotasunak eskatzen duelako, hein handi batean.

Bereziagoak dira hizkera erregistroen aldaketak. Dena ongarri den literatura sistema batean edozerk du sarbide: metaforarik garbienak eta hitzik arruntenak, konparaketak eta onomatopeiak, eta bien arteko nahasketak:

NESKA izatea ala m... bidali duzun  
horretan. Zutaz  
“Si, chica” kaka zuretzat... (HH, 65)

...ikusit zaitut  
eseririk,  
Manuel Becerra metro ahoko  
biztanle, poeta,  
Ya, Diario 16,  
As, Dicen edo El Pais  
zaharrak ipurdipean... (HH, 725)

Egia da, niri behintzat, joera honek *collage* teknikaren irudikapena dakar-kidala burura. Baina okerragoa da sortzen didan sentipen bihurria. Ezustean harrapatzen nau, pentsatzera ekartzen nau; ez nau liruratu, hala era. Etorria miresten dut, baina nahasmenaren irudiak ere urduritu egiten nau. Ez da, hain zuzen, espero nuena, edo ohituta nagoen poesiatik urrun dago, nahasmena erromantizismoaren bidetik egin delako eta ez surrealismoaren bidetik. Baina estetika horren araua da.

Itzuliko gara gai honetara beranduago.

Orotasunak, azkenik, eskatzen du irakurlearen aldetik irudi aldaketa bat. Poesia horren unitate minimoa ez da poema, baizik eta poemategia, edo hobe lan poetiko osoa. Poema bakoitzak, dudarik ez, batasuna du, baina bere “zentzua” ez da beratan bakarrik aurkitzen, badirudi bere esanahiaren alde bat beretik kanpo dagoela, joan egin zaiola beste poema batera, eta bigarrena ulertu arte ezin dugula lehena ulertu: nolabaiteko poesia guztia hartu behar da

kontuan poema bakoitzaren tokia zein den ulertzeko. Horrelako joerak ondorio bi dakartza: batetik, obra osoaren unitate-batasuna, baina, bestetik, edozein poemak duela tokia, eta erabateko desberdintasuna sortzen dela bien artean.

“Orogenesia”k azaltzen badu poesia honen lehen alde, bigarrena “Paradisu” hitzak azaltzen du. Orogenesia denboraren alban zegoen orekaren nostalgia da. Baina, zoritxarrez, Ezkiagarena Paradisu Galdua da, era berean Milton-ena eta Eliot-ena. Paradisu Galduak desoreka dakar: Argullol-ek idatzi zuen moduan, pertsona modernoa banatua dena da, eta Bat izateko amestetan dabil.

Pertsona erdibituaren irudia agertzen du Ezkiagak ere bere poeta erromantikoaren irudian. Kontzeptu bi erabiltzen ari gara hemen: poeta, alde batetik, eta erdibitua, bestetik. Obra honetan agertzen den poeta, goitik behera poeta erromantikoa da. Nitasunak ikaragarritzko presentzia du. Adibide gisa, *Komediaren Jainkoa* liburuko lehen poema “Ni eta Eliseo Igorlea” deitzen da, nitasunean indarra jarriz, eta ez “Eliseo Igorlea eta biok”, adibidez. Nitasunaen bizikunea da lanak azaltzen duena, ni baten inpresio, lilurapen, desio, arengurak. Ni horren barne biografia aurkitzen dugu orrialdeetan. Ni hori, Ni nagusi bat da. Inoiz “Mendigoizale” gisa mozarrotzen dena, besteen ahotsekin (“Gernika”) hitz egiten duena, ni anitza, kaleidoskopioa. Baina Jainkoaren mailara igotzen dena, harekin hitz egiteko:

Jainkoa:           Alferrik ari zara  
                      amets ezinean  
                      jainkotasun uharrez  
                      ubarka asetzeaz ...

Mendizalea:       Nor zara?  
                      Nor zaitut?  
                      Nondik ari zatzaizkit?...

MARKATU  
                      nahi nauzu... (HH, 509)

Baina Jainkoaren mailara iritsi bada ere, Ezkiagak ohartarazi du poeta ez dela igarle, eta horregatik ni hori bikoiztua da, erdibanatua: Paradisuaren nostalgia du, baina Paradisu Galduan bizi da.

Hasierara itzuli nahi dut,  
Jainkoak gizonak  
ilargi eta eguzkiko seaskan  
kulunkatzen zituen  
aurreneko egunetara... (HH, 63)

Erdibitua da, bat izan gurean. Horren adierazpiderik argiena nitasun horien bakardadean aurkituko genuke. Bakardadearen bizikunea da nitasun

honen lehen egoera. Bakardadeak bultzatzen du idaztera. Bakardadeak saka-  
tu poesiara eta beste mundu batzuen irudikapenera. Bakardadeak gizon iza-  
nik, emakumearen sentsibilitatez bizitzera:

GU deritzan kalean,  
MAITE ZAITUT izeneko  
lanbroaren alaba den  
bihotzeko herrian... (HH, 69)

Jainkoa ar eta eme ikusteko gai den moduan:

Bizikizun jainkotiarren alaba  
zaitut eta jainkosa agian... (HH, 169)

Erotismoak badu androginia puntu bat, barneko emetasuna onartzen due-  
naren zirarra:

EROTIKOA izan nahi dut  
edertasunak harrapa nazan,  
egiak, gizakortasunak,  
ekstasiak,  
gorantzako ildoak... (HH, 499)

Erotismoak gainera, sentimendua jartzen du logikaren gainetik:

EROTIKOA izan nahi dut  
logikaren orratzak jos  
ez diezazkidan  
album ihatzailearen orritan  
urrezko tximeletaren hegoak... (HH, 499)

Nitasun erdibitu horrek, ezinegona nabaritzen du:

Deiadarra zait premia... (HH, 477)

eta beldurra da bere izaera garrantzitsua:

Mugagabeko bidetik noa  
ertzagabeko itsasora,  
aparrik gabeko hondartzara  
bustidura gabeko uhainetara  
hondar gabeko eremura.  
Eta beldur naiz.

Bakardadearen hatzapar zorrotzek  
haragiak urratu dizkidate... (HH, 41)

Ez dakit zer nahi dudan ...  
baina beldur naiz... (HH, 503)

Nitasun hori galdezka ari da:

Zer naiz?...  
ene enetasunari  
oxigenoak ezagutzen ote nau?  
etxekoa ote natzaio hidrogenoari?  
itaunduz... (HH, 573)

Heriotza du bere mugarririk gogorrena. Ez da zalantzarik heriotza dela poesia honen gairik garrantzitsuenetarikoa. Goizalbak eta udaberriak itxaropena zabaltzen badute, ez da ahaztu behar udagoienak eta gauak (*Keiko eta beste udazkenak*) ugari direla poemategi honetan.

Heriotzak molde asko hartzen ditu poemategian. Badira, ez da zalantzarik, molde deskriptiboak, hurbileko norbaiten heriotzaz idatzitako poemak: hezitzaile lanean ezaguturiko hiru gazteren heriotzak nabarmenak dira testuan: Aketegi mendian hildako gazteari (HH, 665), bere burua urkatu zuen neskatxari (HH, 703), droga munduan eroritakoari (HH, 195), adiskidearen heriotza:

Oi zein tristea den  
hilkortasunaren eztena  
somatzea eta hilkorra  
izatea, izatea ... (HH, 83)

Badago, heriotzaren molde metafisikoa, heriotzari buruzko hausnaketa eta fedearen bidezko erantzuna:

Heriotzetik nator  
heriotzean nago  
heriotzara noa ...  
  
Emaidazue, beraz, nirekin eta nire baitan  
sorturiko iturburu eskatologikoa  
margoen kolorez tintatua... (HH, 699)

Edo Monasteriori aitortu zion esaldi borobilean esateko:

Mugazia duk gure sustraietakiko eguneroko heriotza. (Monasterio, 1991, 45)

Halaz ere, nitasunaren heriotzaren gain, Ezkiagarengan badago herriaren heriotzaz ardurarik. Erzibengoak idatzi duenez:

Euskalerriko poeta dugu Patxi. Euskal Lurraldean kokaturik aurkitzen den poeta euskalduna. Haren poesiaren ardatza Euskalerrian dauden eta gertatzen diren gauzetan oinarritzen da. Eguneroko gertakizunetan aurkitzen du Patxik idazteko iturria. (HH, 865)

Nabaria da nola larritzen duen herri honen hariaren hausteak:

Bizitzan hariaren etenaldien beldur naiz, zentzuaren aingura historiko

eta eskatologikoari lotzen nauen kate gozoaren urradurari bildur diot.  
(Monasterio, 1991, 44)

Kate horren, edo altzo malgu horren partaidea da Genesiaren garaiko Euskal Herri mito bihurtua, hizkuntza (“Euskararik gabe gelditzeko arriskuan dagoen neskatxa aberriari”, HH, 607), baina hori baino gehiago ere bai: historia, eta oroimen kolektiboa. Herri baten erraietan bizirik dago Patxi Ezkiaga, eta bizikun horrek alde kosmikoak hartzen ditu:

Arbasoak mintzatu zitzaizkigun  
ur, aire, ilargi eta zutaz,  
janzkera ooren ehorzketaz eta  
biluskera ooren jainkoetaz... (HH, 169)

Oroimen kolektiboak katea finkatzen du, eta herri honen suntsidura simbolikoak, Gernikako bonbaketak, toki handia hartzen du testuan, nitasunaren ziurtoki delako herri gisako jarraipena. Horrela Herriak osotasunaren toki mitifikatua hartuko du testuan:

Bera Herriko Epifania baita,  
Aluzinazio, Liluraketa,  
Estasia edo Teogonia.

Edo ez hain gora baina poetaren iritzia agerturik, hona hemen beste poematxo hau ere:

Mendeen begiak begira ditudanean...  
nire herriaren arrokeri xumea sentitzen dut.  
Lurraren lurtasunari atxikitzen natzaionean...  
nire erroen erroa dastatzen dut.  
Eta sakonki maite zaitut, herri... (HH, 109)

Herriaren desagerpenaz kezkatua badago ere, Ezkiagaren begirada luzea eta zorrotza da. *Gernikak* gizadiak herri baten birrinketarako lortu duen indarraren aurrean sentiturikoaren berri ematen badu, *Armagedonek* holokausto nuklearraren aurreko bildurra adierazten du. Orogenesiari Apokalipsiak darraio. *Armagedon* eta *Gernika* hari leun batez lotuak daude: indarkeriaren bitarteko suntsiketa kosmikoa. Askotan aipatu du Patxi Ezkiagak bera gizarte postmodernoan bizi dela, baina ez dituela onartzen gizartearen zenbait balio, horren adierazpide dira *Terrala* liburuko bertso hauek:

Aspaldian da komunioa galdua  
arrazionalitate analitikoaren  
gauzen gaisetiko gizonak  
gauzekiko haurra  
isilerazi  
zutenetik galdua ...



sinpatia eta xamurtasuna  
alboratuz giza kojitariorak  
sistemen sistema  
desbizitza hontako Hadeseko  
erreinuan atzoaren erregetzat koroatu  
zuenetik galdua ... (HH, 485)

Komunioa, batasuna, paradisuak, galduak dira. Hala ere fedez eta sinesme-  
nez poeta utopiaren bila abiatzen da. Utopia maite du, eta Izadia.

Utopia derrigorrezkoa zaio erdibiturik dagoen nitasunari eta “Esperantza  
izeneko neskatxari” (HH, 91) kanta egin badio ere, Utopiak bere leku propioa  
du lanean. Bizitza esperoa da, batez ere, utopia:

Bihar espero dut izatea eta  
herio latzari misterioa  
ekiten naizen eran lapurtzea,  
ez baitut biharra ez bada gaurkoa: (HH, 595)

Ezkiagak honela definitu du Utopia: “Utopia helmugarako azken espe-  
rantza da, eta bulkada” (Monasterio, 1991, 44).

Horrela bertso utopikoak idazten ditu Ezkiagak:

Geroaren erroa baitago  
orainaren ezpainetan  
egin dezagun bide luzea  
zure eskuak eneetan... (HH, 603)

Edo aitortzen du utopiarantz abiatzen dela:

Zitala izanik euleren ibaia  
arrainik gabea ontzia kuasik  
azken ertzeraz zaramatzen mastan  
utopiarantz noa zurekin... (HH, 611)

Garbi baitu idazleak Utopian bikoiztua dena, bat egingo dela; bera direla  
heriotza eta bizitza:

Heriotzak bizitzaren kolore bera du. Errealitate bat eta bera dira, hain  
antagonikoak eman arren... Zer esango nizuke! Heriotzari eskaini dizkio-  
dan poemak bizitzari buruzko erreflexioak direla batipat. (Monasterio,  
1991, 45)

Heriotzak bat egiten badu bizitzarekin, izadian aurkituko du gizaki bikoiz-  
tuak bere atsedena. Ez hil delako, izadiaren magalean babesa aurkitzen due-  
lako baino, izadituz gizadia baketzen delako baino. Izadiaren irudi oso betea  
aurkezten du Ezkiagak:

...izadia eskubeteko emanaz oparotasunezko hondakinak. (HH, 131)

Izadiaren tratamendua berebizikoa da idazle honengan. Monasteriok gogoratu duenez, “mendizale amorratua eta izadiaren miresle isila” da Ezkiaga. Isilarena da, bistan denez, deskripzioan onartu ezin dugun izenondo bakarra. Izadiaren eragina azaldu duenean Ezkiagak oso hitz zuzenez mintzatu izan da. Lehen-lehenik Walt Whitman-en eragina aitortu du. Ondoren izadiak bere mundu ikuskeran duen balioa neurtu du.

Izadiarekiko bizikizun pertsonal, sakona, komunioa, hau ere norberaren esperientzia pertsonalari lotuta: ni izadizale amorratua naiz, naturazale amorratua eta Natura beti esperientzia gisa ulertu dut, ez leiho batetik kanpo ikus daitekeen esperientzia bezala, baizik beratara joan eta norberaren haragi egindako esperientzia gisa Izadiarekiko komunio bizi-bizi bat. (1991, 26)

Azpitarratu nahi nuke eta irakurleari ohartarazi bitan aipatu dela “komunio” hitza parrafo labur horretan, horrek gogorazi beharko luke gizartearen ikuspegia ematerakoan nola mintzatzen den Ezkiaga “komunio galduaz”. Esan nahi da, horrela, gizartea paradisu galduaren irudi eta ispilu dela, eta izadia paradisura itzultzeko bide, estetika erromantiko baten adierazpidean. Deustuko Unibertsiterako idatzitako poetikan, komunio hitzak mistika zentzua hartzen du, eta orgasmo hitza ere aipatzen da. Ezkiagaren ustez, poetak hitzarekiko eta izadiarekiko duen lotura maila horretakoa izan behar luke, eta honek guztiak adieraziko luke zein intentsitatez bizi duen arazoa.

Izadia estetika honetan ez da soilik, gai, sinbologiaren iturri, aipamen aukeraketa mundu, zerbait handiago da: poetak bizi dituen banaketa, bikoizketa guztiak batzeko alorra eta eremua. Izadiarekin bat eginaz baretzen dira poetaren barneko kontraesan guztiak: ar-eme, gizon-jainkotiar, gizarte-historia; grina-barea, sentsibilitate-arrazoa, historia-paradisua. Izadiak betetzen du paradisuaren irudia:

Paradisua zorionerako harreman pertsonaletan eihoturiko bizimodua da. (Monasterio, 1991, 44)

Ezkiagak, une batean, planteiatzen du panteismoaren gaia. Izadiarekin duen lotura panteista da? Eta bestela ezin zitekeenez, ezetza da erantzuna. Ezkiagak ez du izadia jainko mailara eramaten ez, prosezua zerbait budistarena badu: pertsonaia batzen da izadiarekin eta Kharmara heltzen da izadiarekin duen komunioan. Ez da Jainkoa ikusten dela izadian prozesu kontenplatiboan, ez; prozesua aktiboa da, eta izadira hurbilduz, izadiarekin batuz, lortzen du poetak baretasuna.

Ezkiagak pertsonak eta izadiak kosmos bakar baten batuan ikusten ditu:

Ez gintzaizkion inportantziarik  
ez, inolakorik ez, bizitzari,  
gure-aurretik, milioika, joanak diren

itsaso zabaletako anemonak,  
menditar ibaietako burbuilak  
ta teilatueta katu udatiarren  
esmeralda begiradak ez beste... (HH, 295)

Eta kosmos honetan agertzen da giza bizitza ere: “lurraren lurtasunari atxikia” (HH, 109). Atzikimendu hori da gunea poesiaren ulermenean. Izadia hor dago, ni eta bestea, barne eta kanpo baretzeko eta batzeko.

Hain toki zentrala duenez izadiak, espero zitekeena da poemaren maila osoan agertzea. Poema izadiz inguratua da. Poetak bere burua izadiaren barnean ikusten du, metaforak handik hartu, sinbologia handik eratu, pilaketak ere izadiko elementuekin osatu:

Borda inguruko antzinako zumar zaharrari  
oraildu egin zaizkio hosto guztiak bat ezik,  
berde dirau dema bota dio heriotzari  
nor ote bortitzago, nork jarraituko ote zutik... (HH, 369)

“Zu zara” poeman “zu” hori irudikatu behar denean, izadiko elementuak darabiltza Ezkiagak:

Zu zara  
lainopeko erromes etsituaren  
haizebolada... (HH, 375)

Eta gainera txori kantua, eguzki epela, hostoaren lur magala, hondartza... Izatea izadia da, azken batean. Edo bestela heriotza geratzen da. Izadia da Orogenesiaren beste izena. Edo bestela Genesi hartatik geratzen den paradisuaren erreinua, Milton-en paradisuatik bidalia izan den poeta erdibituarentzat. Milton-en galeraz kezkatzen zen poetak Whitman-engan aurkitu du babesa.

Heaney geratzen zaigu, ordea. Beste hitzekin, Ezkiagaren estilo poetikoaz hausnarketa.

Egia esateko, Heaney aitzaki bat besterik ez da, Milton izan den bezala, gure berbaldian aurrera jarraitzeko. Hala ere, bada Heaney eta Ezkiagaren arteko loturarik, Whitman eta Ezkiagaren artean dagoen bezala. Felipe Juaristik ikusi duen bezala, Heaney-ren Granballe-ko gizonak:

The head lifts,  
the chin is a visor  
raised above the vent  
of his slashed throat  
that has tanned and toughened...

badu zerikusirik “Granballe gizonaren balada” (HH, 161) deitu poemarekin:

Danamarkeko zoikaztegiatan

aurkitu dute gizona,  
ibai beltzeko negar zotina  
eztarriko ur sakona... (HH, 161)

Heaney, orain Nobel Saria denarekin Ezkiagak dituen loturak ez dira soilik hausnarketa mailakoak. Miltonen “Paradisu Galdua” gaiei buruzko lana aurrera eramateko erabili dugun moduan Heaney idazkerari buruzko deskribapena luzatzeko erabiliko dugu.

Patxi Ezkiagak, agian Walt Whitman-en antzera, idazkera erromantikoa darabil. Ez du intentsitatean laboratzen, estilo diskurtsiboa da berea, hedatua, zabala. Gure artean erabili izan den poesiaren indar labur baino kolpatuaren aurrean, Ezkiagak nahiago du estilo arrazional, azaldua, bere denbora eskatu eta daramana. Ez da idazkera lirikoa, deskriptibotik hurbilago dago. Lerro hauek idatzi aurretik Whitman, Keats, eta Wordsworth-en poemak irakurri ditut, eta batasun puntua ageri izan zait. Patxi Ezkiagaren poemak, eta hau da lehen zertzelada, ez dira laburrak, hitz-masa handia maite dute poemek, irudimenaren erritmoan luzatuko balira bezala. Beraz, astia, irakurtzeko astia eskatzen dute. Hona Erzibengoaren hitzak:

Hierarkia bat edo beste seinalatuko balitz poetaren lanetan, gaiaren tratuera jarriko nuke aurrea, eta ondoren, gaia bera. (HH, 869)

Trataeran agertzen da zabal Ezkiaga. Hitz jario etengabea da bere eremua, eremu erromantikoa esan dezakegu. Paralelismo, errepikazio, pilaketa, eta perifrasiaren aldekoa. Espresabide asko pilatu ditut nik ere. Baina goazen astiro. Beti, dena dela, nik usteka.

Ezkiagaren estiloa deskribapenean oinarritzen da. Errealitatea, nahiz izan errealitate subjektiboa, mugatu egiten da, agertu, orrialdean jarri:

Itzala neregatu nahi dut  
bideko lurrean... (HH, 57)

Ez dago esaldian ezer berririk. Garbia da paranomasia, garbia itzala, neure egiteko ahalegina. Baina, ondoren bere estiloak astia behar du, luzaera, espazioa ideia gauzatzeko

Garbiago adierazita, sujeta eta aditza garbi daude, eta poetizazio lana osagarrietan hasten da. Perifrasiak, beraz, indar handia du literatura honetan:

“Ni”, berriz, nik nioen  
“naiz nire erantzuna”.  
Ez ohe partaidetuak  
ez eraztunak  
ez ideiarenekin  
ez haragiaren eztenak  
ez inork, ez ezerk  
ez bait du asetzen,

haragikor den bitartean  
izaki bakartiaren  
sustraizko bakardadearen  
sakontasuna. (HH, 85-7)

Testu honetan honela azaltzen da ideia: “Inork ez du asetezen bakardadearen sakontasuna”. Elementu bat baina, kasu honetan sujetoa, luzatu egin da pilaketan. “Inork”en ordeaz, ezkontzako sinboloak jarri zaizkigu (ohepartaide, eraztun, haragi ezten).

Surrealismoaren kaos-aren aurreko estiloa dugu Ezkiagarena. Paralelismoan oinarritua:

Hasierara itzuli nahi dut ...  
Bizitzara itzuli nahi dut ...  
Poesiara itzuli nahi dut ...  
Sinpleziara itzuli nahi dut ...  
Haragira itzuli nahi dut ...  
Buztinera itzuli nahi dut ...

Horra hor “Paradisu galduarena” deituriko poemaren ahapaldieetako lehen bertso guztiak. Hori da Ezkiagaren joera: hari bat argi eta garbi, hezurdura, eta, ondoren, ingurua aberastua Kontuz! Ez dut esan ilundua!

Eta ez dut esan ilundua Ezkiagaren poesia erraz ulertzen delako.

Erraz, bai hiztegia, erraza ez izan arren, normala delako, erraz, joskeraz ez duelako oztoporik jartzen, erraz poetika ezagun, estetika erabili baten aurren gaudelako.

Neurri batean narratiboa da idazkera hau: mundu objetiboa den bezala onartzen du, ez du moldatzen bere ikuspegiaren arabera (ikuspegia aldatu arren), ez du itxuraldatzen.

Erretorika ere ez da surrealista. Ohiko, ohituta gauden neurrian, espresabideak agertuko dira: metafora, pertsonifikazioa, errepikapena, perifrasi... Irudiak noizbehinka. Baina ez ditu askorik behar, joskera arautua den neurrian, joskera garbi agertzen den neurrian.

Ulerkortasunaren alde egiten duen neurrian, Ezkiagak beste espresabide batzuk erabili ditu. Arin aipatu nahi nituzke: aberastasuna, zehaztasuna, orokortasuna.

Idazkera irudimen eta hizkera aberastasunean oinarritzen da. Esanahiaren ardatza (sujetoa + aditza) garbia bada, aberastasuna inguruan agertzen da eta Ezkiagak ikaragarritzko ahalmena erakusten du, bai ikusteko sentsibilitatean, bai metaforak sortzeko joeran, bai hiztegi mailan.

Har dezagun “Zu zara” poema (HH, 375). Haria garbia da: zuzena eta ondoren metafora bat. Hor dago aberastasuna: metaforetan irudimena erabiltzen du eta bata bestea baino berriagoa da. Berria ez dena, agian, prozedura da.

Zehaztasuna aipatu dudanean, Heaney izan dut buruan. Ezkiagarenean eta idazle honengan badago joera garbi bat: detaileak nagusi dira. Zehatza da poema, deskribapenean aditua. Edozein gai hartzen delarik, zehatza izango da detaileetan deskripzioa:

...nire begiek ikus  
nire eskuek uki, nire  
ezpainek fereka ezin dezaket  
urrintzearen desioan. (HH, 745)

Begiak, eskuak, ezpainak, *Ya, Diario 16, As, Dicen, El País* (HH, 725) dena papeleratzeko gogoia.

Orokortasunaren aldekoa zela poesia hau esaten genuen. Idazkera aldera joanik, entziklopedia kutsua dute poemek: dena aipatzeko gogoia dago eta pilaketak berebiziko lana du olerkigintza honetan. Irakur dezagun poema honetan nola agertzen den mundu guzia: meatzariak, marinelak, nekazariak, ibiltariak...

Jadanik zaharrak ginen jaiok...  
meatzetako begirada okerrak,  
mariñelen keinuxka lausotuak,  
nakazarien uzta asegaizkorra,  
asfaltoko ibiltari bakartiaren  
frustrazio industrializatua  
gurekin betirako erdikuntzako  
gezikera, dolore eta hatsetatik  
honunza historiaren espazioan... (HH, 295)

Erretorika-estetika ezaguna bada ere, jarraitzen du, batzuetan, iluna izaten Ezkiagaren poesiak. Hiru zio bururatzen zaizkigu hori azaltzeko: Ezkiagaren mundua oso zabala da, hiztegia bezain aberatsa; Ezkiagak edozein hitz bihurtzen du sinbolo; eta bere erreferentzia mundua (batez ere literarioa) herri honetan usu erabiltzen dena baino joriagoa da.

Ezkiagaren mundua oso zabala da: ikuskera da nagusia lan honetan, baina begiak zabalik dituen poetak edonondik hartzen du inspirazioa. Entzun dezagun bere adiskide Erzibengoa:

Ingalaterrako telebistak Gerla Nuklearrari buruzko erreportaiak ematen duenean, edo Madrilera Ameriketako rock-talde ospetsua datorrenean, Patxiren belarriak hantxe izango dira, egoera berezi horiek sortarazten dizkieten une kilikagarriak bertotan finkatzeko. (HH, 865)

Irakurle arrunta bati zail samarra zaio erreferentzia mundu zabal hori jasotzea olerkiak ulertzeko unean.

Ezkiagak edozer bihurtzen du sinbolo. Lehenago esan dut Ezkiagaren mundua deskriptiboa dela, baina ez da deskripzioan geratzen. Urrunago doa

beti. Deskripzioak beti bilatzen du bigarren esanahia harago. Joera deskriptibotik sinbolikora igarotzean gertatzen zaio Ezkiagari esanahiaren iluntasuna. Halaz ere, poemaren bukaeran gertatzen denez sarri jauzia ez da arazorik izaten testua ulertzeko.

Ezkiagaren literatur erreferentziak ezohikoak dira. Eta horrela da bai. Beste erritmoa da berea. Bat-batekoa ez, modernoa ez, pausatua, erromantikoa. Erzibengoa berriro:

Xehetasun bat eskatzen du, guztiz arrazoizkoa bestalde, bere poemak ezin dira irakurri testu ingurutik kanpo, testuak garamatzen paisaietara joan behar dugu eta han, isiltasunean beratasunean, lasai eta astiro, han bai, irakurtzera gonbidatzen gaitu. (HH, 867)

Nonbaiten irakurri dut Whitman-ek epika berezia sortu zuela. Heroi baten istorioa kontatu beharrean heroï kolektibo baten istorioa kontatzen omen zuen; aspaldiko garaiak kontutan hartu beharrean garaikideak omen zituen begien aurrean: kronologiaren menpe aritu beharrean, garaikideak omen zituen kantagai. Duda egin dut Ezkiagaren poesia lirika denik. Puntu honetara helduaz gehiago ikusten dut poema epiko gisa: poema zabalik, dinamiko, bizirik dago, baina epika, azken batean. Horregatik esaten nuen hasieran poema bakoitza ez dela bere beratan ulertzen, baizik eta beste guztiekin harremanetan.

## Bibliografia

- EZKIAGA, P. (1984): *Beldur naiz*. BAK. Bilbo  
— (1986): *Aiodi herriko kantak*. Kutxa. Donostia.  
— (1986): *Armagedon*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.  
— (1986): *Gernika*. Erein. Donostia.  
— (1987): *Fadura*. Kutxa. Donostia.  
— (1988): *Ispiluaren isladaketak. Keiko eta beste udazkenak*. Elkar. Donostia.  
— (1990): *Terrala*. Sendoa. Donostia.  
— (1990): *Baladak*. Sendoa. Donostia.  
— (1992): *Haize Hurbila*. EHU. Leioa.  
— (1993): *Komediaren Jainkoa*. BBK. Bilbo.

Aipuak azken bi hauetatik egin dira, *Haize Hurbila* liburuak bere aurreko poemategiak biltzen baititu.

- (1991): “Poeta bizitzaren esploradorea da”. *Enseuicarrean*. 6. 25-43.  
— (1993): “Dialektikaren muturrean”. *Gaurko Poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 183-208.  
— (1996): “Nere poesiaren bulkadak I” *Uniberriak*. 49. 13-4.

ARANO-ARRESE (1987): “Patxi Ezkiaga”. *Argia*. 1.186. 1987-II-14.

- BORDA, I. (1993): "Iraganean errefuxiatu naiz". *Argia*. 1.454. 1993-X-21.
- ERZIBENGOA, J. (1987): "Patxi gaurko poeta". *Arbola*. 7.
- JUARISTI, F. (1994): "Gela beteko bakardadea". *Haize hurbila*. 13-37.
- MONASTERIO, X. (1991): "Patxi Ezkiaga bere ispiluaren aurrean". *Zurgai*. 44-5.
- ZUAZALDE, D. (1988): "Ispiluaren isladaketak". *Argia*. 1.214. 1988-X-2.
- Berri bibliografiko zabalagoa:
- MARAÑA, F. (1994): "Bibliografia". *Haize hurbila*. 871-875.



## PELLO ZABALETA OROIMENAREN ILDOAN

Irun Saria 1979. urtean irabazi ondoren argitaratzen du Pello Zabaletak bere lehen liburua: *Zurubi luzea* (1980). Ondoren sari gehiago etorri dira eta liburu gehiago. Hurrengo urtean, 1980. ean hain zuzen ere, Euskaltzaindiak eratzten duen Arrese Beitia saria, beste batzuekin batera irabazi zuen *Lastozko zubia* lanarekin, baina, ez dakigu zein arrazoirengatik ez zen argitaratu 1990. urtera arte. Bigarren geratu zen Lauaxeta Sarian *Alferrikako bertso erreusak* obrarekin, behin baino gehiagotan idazleak galdutzat ematen dituenak, baina EHUK Felix Maraña eta Felipe Juaristiren esku argitaratu dituzten arte bere lan guztien bilduman. *Oroitzen antosina* poemak Eusko Jaurlearitzako Lizardi Sarian bigarren izan zen. Irabazle ordea “Imagina ezazu Euskadi” Literatur lehiaketan *Geroaren memoria* poema luzearen bidez. Horiek biak eta *Ezherri* deituriko poemategia *Bi poema t’erdi* deitu den liburuan argitaratu ditu Elkar etxeak 1990. urtean. Eta 1995. urtean *Bigarren bizia* bilduman agertu dira bere lan guztiak, sailak ohi duenez, erdarara itzuliak.

*Zurubi luzea* (1980) Frankismoaren garaietan idazten zen korronte baten barnean kokatu beharko genuke, agian, garaiko ildoetan arras ongi moldatua, argia, irakur erraza, estetikari hutsik egiten ez dion liburua. Formula zuzen eta betean osatzen den poema liburua. Burutsua lehenik, hiru zatitan ongi moldatua: “Odola”, “Izertia”, “Eta”. Lehena transizio garaian herri honetan gertatutakoaren inguruko poemategi latza da, bigarrenak lan mundua eta aitaren irakaskuntza hartzen ditu osagai, hirugarrenak (izenburuak ez bazuen horrelako igertzeko biderik ematen ere) maitasuna du gai nagusizat.

Poemategian egitura ximpleak, agian erraztasuna eta sotiltasuna bilatzen dituelako poemategiak, nagusi dira. Egiturak, loturazko hitzek osatuak ia bisualak dira. “Eta” edo “baina” bezalako lotura hitzen bidez hainbat poema osatzen dira, paralelotasunak osatzen dituen haina beharbada.

Eta bota dute bazterrean ....  
Eta odola dario bazterrean...

Eta odol edalea dago gainean ...  
Eta xurgatzen ari da gainean ... (ZL, 18)

Errepikapenak eta aldaera txikiek eman diote didaktismoari poemategian present izateko joera. Egitura aldetik ximplea eta paraleloa bada, gai aldetik ere elementu ulerkorrekin egin du lan Zabaletak lehen atal horretan:

Nik zurubi hori gure herriaren eta nere —herriko naizenez— zurubi bezala ikusten nuen... Bigarrena “lana”, eta hor nere aita zanari eginiko sail luze bat. Eta hirugarren atala “eta... “ denetatik zegoen, dantza, maitasuna, epigrama gisa egindako humorezko zati bat. (Auzmendi, 1980, 13)

Poesia zuzena da eskainitakoa, analogia politikoa bilatzen duena ulertez ere izan nahi duena eta sinbolismo leun batean oinarritutakoa.

Hiru poema giltza aurkitzen ditugu liburuan. 78. orrialdekoak teknikaren berri emango digu. Hitz eta kontzeptu jokoetan olgetari agertzen zaigu Pello Zabaleta, eta elementu minimoen bariazio eta aldaketekin nahikoa du poemaren musikalitatea sortzeko:

Zotinez daukat bularra beterik  
zotinez  
bularra ez tulik egiteko indar barik  
saminez  
daukat pisu bezala hainbeste  
oroipenez  
zotinez daukat bularra beterik. (ZL, 78)

Ikus dezakegunez, aldaketa semantikoak eta lotura morfologikoak (zotinez, saminez, oroipenez) osatzen dute poemaren ardatza. Poemak, gainera, informazio nahikoa ematen du tonu poetikoari buruz: samina eta sentsibilitatearen artean mogitzen den tonua da. Beste poema honek, ordea, semantikaren berri ematen du:

Lotu naute gizonen uztarran  
gizon ireindua bainintzen  
tarraka lepoa katetan  
herriaren penetan.  
Nora abiatu zara anaia  
munduko pausotan  
galdetzeke minez nola dabilen  
anaia zapaldua?... (ZL, 56)

Galdera erretorikoaren intentsifikazioa alde batera utzirik, ikus dezakegu batetik sinbologiaren marka zein den: katea, anaia, zapaldu. Ohiko elementuekin lan egiten du Zabaletak, eta anaitasun zehazgabearen izenean, ideologia zabal identifikatzailea zabaldu du.

Baina, poema biok liburuaren giro nagusia eman badezakete ere,

Auzmendiren artikuluan garbi uzten du Zabaletak berarentzat liburuaren giltza azken poeman aurkitu dezakegula:

Etan dena isteko asko kostatzen zitzaidan poesia bat, aitorpen gisako zerbait ... nolabait eskailera burua dela esango nuke. (Auzmendi, 1980, 13-4)

Nolabait esateko autentizitatearen bila dabilen poema da, aitorpena, poeta eta bere gaien arteko identifikazioa bilatzen duena:

Hilobiraino  
maite dut horregatik  
lurra  
hilobiz zabalik  
dagoen  
gure lurra... (ZL, 97)

Teknika guztien ginetik, konpromezuaren erabatekotasunak hunkitzen du poeman. Hitz jokoetan eta paralelismoetan oinarritzen da poeta honengan garrantzitsua den joera bat: musikaltasuna. Euskararen erritmoarekin (Gandiagaren salmoen usaina nabari ote da bertsoetan?) lan egiten duen poeta musikala da Zabaleta lehen liburu honetan. Hitzaren eta erritmoaren intentsitatean sinesten duena, azken batean poemen mozketak eta laburpena da erabiltzen duen teknika nagusia poemak zuzentzerakoan.

Garaiko poeten jiteak nabariak direla esango nuke.

Gandiaga eta salmoaren erritmoaren usaina. Artze eta poesia bisualerako joera uztartua, Leteren egunerokotasunarekiko eta ironiarekiko hurbilketa, Joxe Azurmendiren proletargoaren bizitzarekiko arreta. Baina, eta guztien ginetik, Bibliak utziriko aztarna nabaritzen da:

Barkatu, Jauna, gaur  
galtzen badut itxaropen hondarra  
eta fedearen indarra.  
Euskal Herriak badu bihotza,  
Jauna,  
sentitzen du fusilatuaren heriotza. (ZL, 27)

Eraginen kontu honetan Amaia Iturbidek (1996) azpimarratu du:

Gandiaga gogora lezakeen gizona ageri da, gizona nahia eta ezinaren artean itoa. Arestiren itzala ere soma daiteke ... Jose Azurmendiren Prometeoren gaia dela-eta.

Luis Mari Muxikak (1980) bere aldetik liburuan aurki daitezkeen espresabideetat ari da, "Esperimentalismoaren marginalismoa" agertzen ez dela liburuan azpimarratu ondoren, forma aldetiko balioak zerrendatzen ditu: inpresioa, sinestesia, bisemia, kadentzia, errepikak, antitesiak, ondorio honetara heltzeko...

Armonia bat dago, erritmo bat dago, sinbolismoaren urratsetatik dabil, eta forma muinaren ardatzarekin bilduta dago.

Liburu horren ondoren ba omen zuen Zabaletak poema liburu ironikoa idazteko asmoa:

Beste poesia liburu bat prestatzen ari naiz, hor epigramak sartu nahi ditut, batez ere azkenengo auteskundeei buruzkoak. Adibidez ... “Garai-koetxea sermolari, Arzallus monagillo. (Auzmendi, 1980, 15)

Hain jarraibide gorabeheratsua izan duen idazlea izaki ez dago jakiterik zer gertatu den liburuarekin, baina adibideak eman duen maila ikusiz, hobe dagoena dagoenean uztea. Joera epigramatikoa, hala ere, konstante bat izango da Zabaletaren lanean eta jite bera agertuko da *Ezherri* poemategian hamar urte beranduago.

Hurrengo emaitza *Lastozko zubia* izan da. Hiru zatitan banandua, aurrenekoaren antzeko gaiak darabiltza, baina oraingoan, ikuspegia bihurtu du poetak abstraktoago. Herri lirika tradizionalaren (Lekuonaren itzala diz-dizka) erritmoa gorde badu ere, poetak maila filosofikotik begiratu dio bizitzari. Hitzaren, hitz poetikoaren balioaz etengabe galdetuz, poetak bere hiru gaiak jorratzen ditu: haratza, denboraren pausoa eta samina. Hitza dago lehenik, lastozko zubia bezala errealitatearen eta poetaren bizikizunaren artean. Hitz horri galde egin zaio poema hasterakoan:

Hitzek hesitzen naute  
barneraino zaizkit sartzen  
hitzek tristetzen naute,  
gaisotzeraino naute zauritzen... (LZ, 12)

eta poemategiari bukaera eman behar zaionean:

Ta gero  
berriro  
betiko hitzak dira esango  
eta ez gehiago  
  
Hitz beroak  
hitz hotsak  
ohizko hitzak dira esango  
eta ez gehiago... (LZ, 47)

Lehen zatia, oraingo honetan izenbururik gabe doana, maitearekin poetak duen elkarrizketan gauzatzen da:

Dakit, maite,  
zure amodioaren galgala  
dabilela labean,

duzula jada betea  
gainezka bihotza... (LZ, 17)

Giroaren goxoak eta barne pozak bultzatzen dute poeta kanpoko haratza gurtzera:

Bare bare  
uhinetan zabal antxeta  
urdin eta urre artean balantza  
eguzkia ebaidaraino etzanda... (LZ, 22)

Hiztegi sinbolista eta herri lirikaren eragina indartu egin ditu Zabaletak. Eta hizkera poetikoaren indarrez tradizioaren eragina hedatu egin zaio. Maitasun horrek etsipenari ateak ixten badizkio ere (LZ, 28), bigarren zatia lehen lehenengo poematik hasita denboraren igaroaz eta heriotzaren arduraz beterik agertzen da:

Besoak dira nekeago  
bihotza da hasperenago  
begietan itzaliago  
itxaropenaren azken errainu birjina... (LZ, 33)

Tonu elegiakoan zati honetako poemek etsipendu lainotuaren tonua darabilte. Izadiaren alegorizazioak eta egunerokotasunaren metaforek barne aldian sentitzen den mina eta nazkaren agerpena areagotu egin dute. Egitura paraleloetara izuli da berriro poeta. Aipa dezakegu hurrengo poema testuan nagusi den ideiaren agerbidea:

Heriotzak narama, agur,  
itxaropenik  
gabeko betiko geratzean  
ozpinean, agur,  
gozotasunik ez dut aurkitzen  
barnean... (LZ, 41)

Bizitzari buruzko galdeketak jarraitu egin du hirugarren zatian. Zehazgabetasunean mogituko balitz bezala poeta, garraztasuna agertu du, baina bigarren ataletik hirugarrenera alde handirik markatu gabe, samina delarik barne egoeraren adierazpidea:

Tristuraren presondegian ez dago ametsik,  
eguzki baten amorrua beharbada urruti,  
mortuko hondar berdinen zirika.  
Agian desesperazio apur baten ozpinak  
ta denbora luze luze luzeegia... (LZ, 48)

Joserra Garziak liburuaren aurkezpenean formaren aldetiko ezaugarri hauek jartzen ditu aipagarri:

Baliabide guzti horietaz gainera (eta gainetik) erritmoa dago. Eta nago, ez ote den hori Pelloren poesiaren muina, esentzia.

Erritmoa, bere adierazirik zabalenean...

Beste askoren helmuga urrutikoa den hizkuntz mailatik abiatzen da Pello hitzezko zubia eraikitzerakoan. (1990, 6-7)

Gai aldetik, ordea, “etika, politika, bizitza, heriotza, eta maitasuna, batez ere maitasuna” agertu dituela idatzi du Garziak.

1990. urte berean eman zuen argitara Pello Zabaletak *Bi poema t’erdi* liburu-  
rua, hiru poema luze ta sakonen apailatze lana. Bi poema horiek *Oroitzen antosina* (1986-7 artean idatzia eta Lizardi Sarian akzesita lortu duena) eta *Geroaren memoria* (1988ko “Imagina ezazu Euskadi” lehiaketan sariduna) dira. Erdian *Ezherri* poema satirikoa. Liburuari jarritako hitzaurre luzean azaldu ditu idazleak poemategiko nondik norakoak.

*Oroitzen antosina* guztiz konkretua da, gauza guztiz puntualak isladatzen ditu. Nere inguruko gauza konkretu guztietan harreta (*sic*) hartuz, denboraren eta memoriaren reflexio bat egiten da. (Oiz, 1990, 49)

Poemategi errflexiboa beraz, ikuspegia gai abstraktoetan jarri duena, baina metonimia erabiliz. Bizikunaren poesiatik hurbil gauza txiki eta konkretuek (hondarrak, ardao baso hustua, e. a.) hasten da hitz eginez poeta abstrakziora heldu arte.

Poemategiaren tonua aldatu egin da hala ere. Hitzarekiko duen arreta ez bada ahuldu inondik inora ere, egitura dantzariak desagertu egin dira hausnarketa tonu sentikor eta serio baten alde, aforismoen mesedetan, filosofiatik hurbil.

Paradoxala da denbora eta memoriaren arteko jokoa. Denbora joan doa eta galdu egiten da, mantentzeko dugun tresna bakarra oroimena delarik, baina hau ere galdu egiten da. Eta biak txanpon baten bi aurpegiak direla adierazteko poema kontrajarriak idatzi ditu hasiera eta bukaerarako Pello Zabaletak.

Honela dio lehenak:

Zer da oroitza  
ez bada  
denboraren osinetik  
ataratzen den kanjiloia?... (BPE, 16)

Eta bere alderantzizkoak

Zer da denbora  
ez bada  
oroimenaren osinetik  
ateratzen den kanjiloia?... (BPE, 66)

Bien artean 32 poema luze xamarak. Lehenak zehatzagoak, bukaerakoak

maitasun galduari eta denborari buruzkoak. Tartean garapen zuzenean oroimenetik denborara doan bidea. Ez dugu gehiagotan aipatuko Zabaletaren poesian nagusitzen diren erritmoaren nagusitasuna eta hizkeraren maisutasuna. Hausnarketa filosofiko honetan hiru espresabide nagusitzen baitira: aforismoa, ideia forma laburrean emateko gogo; definizioaren bila abiaturik egiten den metaforen pilaketa, eta alegorizazio joera.

Aforismoa nabaritzen erraz da liburuan eta normalean oso poema txikietan agertuko da, edo poema luzeetan aipu gisa. Definizioaren bila dabilen poesia honek metafora behar-beharrezkoa du. Eta Juan Mari Lekuona gogoratzen duen moduan, Zabaleta ere ihesean dabilkion kontzeptuari hurbiltzen zaio metaforaren pilaketaren bidez.

Dena da hondar  
bizi izanaren zarama  
ur sitzezko jario betiko  
egun bakoitzaren kutsadura hilbera,  
ametsen labeko zepa hauskor,  
oroitzen antosin pitzatu,  
antsien errauts beltz,  
dena da hondar... (BPE, 19)

Gainera prozedura horrek beste eragin bi ditu poesia honetan: aukeraturiko elementu txikia goratu egiten da metaforaren bidez, eta bestetik poemategiko mezu sakonarekin bat egiten du: denboraren iheskortasuna eta honek sortzen duen etsipena dira idazleak gaitzat erabiltzen dituen ideia nagusiak:

Oro da oroitzapen iheskor...

lemapean idazleak bere ikuskizunaren berri ematen du eta berria ozpina eta garratza da.

Hirugarren prozedurak, alegorizazioak, alegia, honen alde egiten du. Irakurleak badu eskubiderik galdetzeko ea hemen aurkeztu zaiona ez ote den alegi modernoan bilduma bat, mezu nagusiaren alde. Haurraren begiak, edo bidean hil den txolarrea ez ote dira alegi berriztuak.

...hauts arruntari berdinduz... (BPE, 39)

bizi garela adierazteko? Gauza txikiek (txolarrea, ziba, eulia, tanta, arrosa) ez ote dira gure txikitasunaren ispilu? Hala dut uste. Eta txikitasun horrek, bere patu moldaezinean, gure patuaren berri eman nahi du.

Ideien inguruko dantza eta jira bira tonala nagusi badira ere liburuan *Oroitzen antosinak* erakusten du bizitzaren zapore garratza.

Giro eszeptiko beretsuan idatzi du Zabaletak *Geroaren memoria*; liburuko bigarren poemategia. Oroitza galtzen bada hor dugu oroimenaren lagungarri

argazkia. Elementu formal honen bidez lotzen ditu Zabaletak —ez asmoz eta mezuz soilik— poemategi biak.

“Improntus bat izan zen, kolpetik eta bi kolpetan egindako poema da”. Grekoen tractasunen gisa aritu nahi izan zaigu Pello Zabaleta poema honetan, “teorikotasun hori jaso nahi nuen eta”... “Etorkizuna kredoa da” poemarekin egiten dugu topo, bildumari darion pesimismoaren aurrerapen gisa. Euskadiko egoerari buruzko ezkortasuna da nagusi, ... “zer dela eta etorkizuna hobea izango dela esatea?”. (Oiz, 1990, 49)

Hona hemen poemategiaren sorrera (improntus), generoa (tractatus) eta mezua (aurrerapenarekiko ezerkotasuna) poetaren ahotan azalduta. *Geroaren memoria* lau atal nagusiren inguruan eraturiko poema da. Lehenak Historiaren definizioa ematen digu. Barneko biak paraleloak dira: “Zuribeltzeko argazki zoriontsuak” eta “Fondo gorridun argazkiak”. Azkenak “Etorkizuna kredoa da” lehenarekin sortzen du paralelotasuna. Beraz poema kontzeptual bi, hasiera eta bukaera, eta argazkien inguruko hausnarketa diren beste bi:

Argazkiak ez du kontatzen, argazkiari kontatzen zaio, gogoratu nahi duzuna soilik kontatuz. (Oiz, 1990)

Poemaren barnean Erromantizismotik hasi eta Europan zabaldu den aurrerapen teoriaren kritika nagusitu da, historia asma ezina, kaleidoskopia dela aipatuz. Zabaleta ez da konturatu, ordea, teoria horrek bai kulturen teoriatik bai ondasunen murrizketaren teoriatik kritika ildo luzea jaso duela. Ez dira horiek poeman jasotzen. Bere argitasunean poemak idazle sentikor baten irudia zabaltzen du.

Historiaren irudi gisa kaleidoskopioarena erabili du:

Historia,  
kaleidoskopioa da,  
kolore mila barruan  
hodi luzearen amaieran  
ikuslearen begietara argi,  
ukitu bat aski ordea  
irudia da bestelakoa. (PBE, 69)

Historia, beraz, norberaren irakurketa izango litzateke, norberaren oroimena iraganari buruz, asmakizuna hitz batez:

...haurtzaro epel garden  
eguzki galdatan asmatua.

Asmakizuna, batez ere, “Zuribeltzeko argazkietan” agertzen da. Gorago jaso dugun iritzia, argazkiak ez du hitz egiten, nik hitz egiten dut argazkiaren bidez alegia, ardatz gertatu da konposizioan. Definizio metafo-



rizatuen pilaketa osatuz sortzen du, joera deskriptiboaz, pentsakizunaren higidura:

Argazkia da igaroa begi aurrean...  
Argazkiak jasotzen du  
historiako kaleidoskopioko zati bat ...  
Iragan errekuperatua,  
historia lurperatua... (PBE, 72-3)

Hona hemen ahapaldien lehendabiziko bertsoak, hona pilaketa, hona definizioaren bilakaera. Definizioak, agian, adimenari begira daude, eta gutxi dute irudiko.

Ondoren, oroimenean bidaia egiten du poetak: eskolako, etxeko, albuma, argazki solteak... Anekdoten sail osoa. Baina Zabaletaren asmoa ez da anekdotan geratzea, gai zehatzaren hondoan dagoen sinboloa esploratzea baino. Horregatik eramaten du gai deskriptiboa orokortasunaren eta sinboloaren mundura.

Bataio, eskola, jaunartze,  
eskurtsio, ezkontza,  
adiskide ofizial, harrera ...  
Ez dator argazkian egiazko bizitza,  
baizik gustoen bizitza batzutan,  
edo agindua edo behartua (PBE, 76)

“Fondo gorridun argazkiak” sailak, ordea, bizitza pribatutik publikora egiten du saltoa. Gorriak odola dakar gogora, kaleetan isuritakoa, kolore bati buruzko janzkera abstraktoa da, kolorearen esanahiei buruzko deskribapen hedatua.

Etorkizunaren aldakortasunaz hitz egiten du Zabaletak, azkenik. Gorago esan dugunez aurrerapen historikoaz duen iritzia ematen du idazleak. Teknika aldetik, sustantiboa da nagusi, izen abstraktoa gehienetan, definizioan kalidoscopia osatu arte. Bibliako otoitz eta salmoen tankeran eratua, iragan etsipenduaren inguruko poema:

Herri hilen hondakinetatik  
jaso daitezke teoriak, teoria hautsiak,  
edo ausartak,  
besterik ez... (BPE, 86)

*Ezherri*, poema erdia idazlearen izenez, kontsumismo eta egoera jakin baten aurreko parodia bat da.

Prestutasunaz mozorroturiko gezurrezko gizonen aurka, aprobetxategi eta txaketeroen kontra epigramak.

Deskribitu du Amaia Iturbidek (1996). “Garrasi” (1990) deitu du idazleak.

Agian giroak baldintzaturiko poema arin eta irrigarria besterik ez da. Giro perstonaletatik hurbil, anekdotak jaso nahi ditu kategoria mailara, baina denak du ikusi eta irakurritakoaren antza.

*Bigarren bizia* bildumak *Olerki galduak (1964-1979)* poemak biltzen ditu, *Alferrikako bertso errausak* galdutatzat emanak, eta azken poemario berria: *Natura hila* (1992). Aurreko biak aspaldikoak dira.

A. Iturbidek Zabaletaz egindako argazkia ekarri nahi nuke hona guztiaren laburpen gisa:

Pello Zabaleta bere hitzarekin idazle klasikoa dugu, neurri zalea, tradizioarekiko begirunean eta egonarrian bizitua. Hitzaren inguru-minguruan dabilena, hemen usma eta han susma urduri antzean, baina hitza ehizatu ondoren, beste bat dena, bizipozez asetua, hitzaren jaun eta jabe.

## Bibliografia

- ZABALETA, P. (1980): *Zurubi luzea*. GAK. Donostia.  
— (1990): *Lastozko zubia*. Hots. Legazpia.  
— (1990): *Bi poema t'erdia*. Elkar. Donostia.  
— (1995): *Bigarren bizia*. EHU-UPV. Leioa.
- AUZMENDI, L. (1980): “Pello Zabaleta. Karraspioren aitarekin”. *Argia*. 872. 1980-IV-20. 13-18.
- GARTZIA, J. R. (1990). “Pare bat hitz Lastozko Zubiaren gainean”. *Lastozko Zubia*. 5-7. MUXIKA, L. M. (1980): “Zurubi Luzea”. *Argia*. 894. 1980-XI-30. 28.
- ITURBIDE, A. (1995): “Hitzaren egonarrria”. *Egunkaria*. 1996-I-20. 33.
- OIZ, J. (1990): “Pello Zabaleta. Irakurleari agian zapore garratza soilik gertatuko zaio”. *Argia*. 1.298. 1990-VI-1. 49.

## TERE IRASTORTZA GABEZIAREN KANTOREA

Tere Irastortzak (Zaldibia, 1961) ibilbide luzea egin du olerkigintzaren bidean. Sei libururen egile, eta argitarazio eragile, berebiziko itzala izan du gure artean. 1980. urtean argitaratu zuen bere lehen poema liburua: *Gabeziak* Haranburu Altunaren etxean. Eta Kritika Saria eman zioten eta eztabaida txikia sortu zen ekintzaren inguruan, Luis Mari Mujikak gogoratzen duenez (1991, 1241). Federiko Krutwig garratz altxatu zen erabakiaren aurka, eta *Egineko* orrialdeetan eztabaida mingotsa sortu zen. Talde berri bat agertzen ari zen poesian eta Irastortzak (ongi lortua zuen saria) mantendu egin du urteetan, aldakuntzekin, bere bidea. 1981. urtean *Gaia eta gau aldaketak* poema liburuak R. M. Azkue sariaren aipamena lortu zuen eta 1982. urtean Saria eman zioten *Hostoak* liburuari. Biak, baina orden kronologikoa aldatuz, agertu ziren liburu bakarrean 1983. urtean Bilbo Aurrezki Kutxak argitaratuta. Isilunea gertatzen da, eta agian estetikaren aldaketa, moldaketa eta sakonketa. Irastortza Pamiela argitaletxera hurbiltzen da eta han *Derrotaren fabulak* (1986) eta *Osinberdeko kantoriak* (1987) eman ditu argitara. Beste isilune luzearen ondoren *Manual devotio gabea* ezagutzen dugu 1994. urtean. Eta urte bat beranduago, azken liburu hau izan ezik beste bostak biltzen dituen *Gabeziaren Khantoriak* deituriko liburu bilduma eman du argitara idazleak etxe berean.

Testuak irakurtzerakoan zalantza txiki bat izan dugu. Nondik egin aipuak? Lehen edizioetatik ala azken liburu horretatik? Lehenari eman abadagunea ala idazlearen borondateari? Baiezkor batzuek aurkakoa uste badute ere, ez dira oso zailak aurkitzen liburu-dendetan aurreko poema liburuak, arazoak gertatu arren lehen-lehenengoak aurkitzeko.

Pamielako liburu bilduma eta traiektoriaren erakustokia errazago aurkituko duelakoan irakurleak azken horretatik zitatzea erabaki dugu. Azken argitalpen horrek, gainera, Irastortzak poemategien eskainiriko oharrak dakartza, eta ondoko testuak lagungarri gertatzen dira poemak aztertzeko orduan.

Beste alde batetik, gaurko poesiaz kritikak agertzen duen eremuan, Irastortzak aukera handiagoak izan ditu eta Itxaro Bordak, Amaia Iturbidek, azken urteotako poema irakurlerik sutsu eta adikorrenak, eta Luis Mari Mujikak hitz egin dute bere poesiaz, eta ez da hori laguntza txikia. Gainera Tere Irastortza bertako partaide zelarrik, Kandela taldeak ere arretaz aztertu zuen bere lana.

Poetika bi ezagutzen dizkiot idazleari. Lehena *Maiatz* aldizkarian (sinadurarik gabe agertu zen, nahiz eta ziurrenik Itxaro Bordak egina izan), egin zitzaion elkarrizketa batek hainbat pista ematen ditu bere poesiaz. Bigarrena, zuzen eta estuago da poetika bat eta *Ensaiucarrean* aldizkarian argitaratu zuen Irastortzak.

*Maiatz* aldizkariako elkarrizketan lehen hiru liburuez mintzo da. Oraindik ez dira Pamielako biak argitaratu eta haietaz ere zerbait aurreratzen du Tere Irastortzak.

Bigarren poetikak hurrengo liburu biak besarkatzen ditu.

Elkarrizketak, batez ere, puntu bi marrazten ditu bere poesiagintzan. Batetik, garrantzitsua da, intimismoaren kontzeptuaz bere ikuskera ematen duelako Irastortzak. Bestetik, bere poesiaren jarraibidean datuak ematen dituelako.

Bere poesiaren guneaz hauxe dio Tere Irastortzak:

Ez dakit kasualitate bat izango zen, ordea, nere lehen liburuaren izenburua hautatu nuen, agian orduan jabetu gabe nengoen, orain badakit poesia guztia dela “Gabezia” bat hau da: eztuzun zerbaitetara hurbiltzeko modua, beste ulertzeko modu bat, ez gu, ez ni, bestea.

Gabeziaren inguruko poesia honek bilakaera izan du. Lehendabiziko liburuko gabezia, eta nik uste hor zegoen bere indarra, zehazgabea zen, egunero-kotasunean txertatua, gabezia metafisikoa ia. Poetaren gogoak nahi zuen, baina ez zuen asebeterik inon aurkitzen.

Ezina. Ezin babes daitekeen eguna, ezin hauts daitekeen lauki pilaketa.  
(GK, 15)

Horrela hasten da liburua, “Ezinaren aurka” doala azpimarratuz. Ezina egunerokotasunetik altxatzen zen lanbroa bezala, gorpuztua agertzen zen.

Poetikak agertzen du oso ulerkera berezia intimismoaren inguruan. Askotan aipatu da Tere Irastortzaren poesia intimismoaren mugetan agertzen dela. Horretaz galde egiten dionean elkarrizketa egileak honela erantzun du:

—Ez zaizu “intimista” kualifikatiboa gustatzen, ala honekin bizi behar duzu oraindik?

—Ez, ez zait gustatzen, ez dut uste beharrezkoa denik; erabiltzen duen jendeak, batipat, modu mespresagarri batean erabiltzen duelako.

Hau da: emakumeen gauzak, adolezenteak (*sic*)... Azken finean, literatur oro da intimoa, gizakiak zintzoki eta konzienteki egiten duena dena intimoa baita... Orduan intimotasuna da, literaturan, gaiak hautatzea, formak, hitzak, eta ez bakarrik amodioa. Amodioa bakarrik ez da intimoa, dena oso intimoa da. Deseo batean dena da intimoa... bai berekiko, bai gizartearekiko... Intimoa da sentitzen duguna, oro, amodioak eta gorrotiak.

Ikuspegi horretatik, intimismoa ez da soilik sentiberatasunean eusgarria hartzen duen literatura, baizik eta ikuspegi pertsonalarekin nahastu dena. Esanahi zabalagoa eman dio hitzari Irastortzak, eta desio, pasio eta zintzotasunarekin lotzen du. Horrela, konpromezu-gaiak ere intimoak dira. Baina, hitza erabiltzen denean, ez da soilik amodiozko poemetak ari: ikuskera subjektiboa, adierazpen sentiberatsua, larriduraren gai pertsonala, ezerezaren mehatxua, nitasuna ere agertzen dira izenaren azpian.

Irastortzak kontzeptua erabiltzen duenean, zertzelada berria damaio, eta interasgarria da bera eta inguruaren arteko loturari intimismo deitzea, subjektibitatea ez baita soilik azalezko sentiberatasuna, ezerezaren gaia azaltzen duen lotura da intimismoa.

Elkarrizketak bere poesiaren bilakabidea adierazten du, eta puntu honetan ere oso interesgarria da aipaturikoa.

—Gutxiago maitemintzen zara ala?

—Ez ... (irri) ... baina, ez dakit, behintzat ez dira lehen bezalakoak, o sea. Gero, beste arrazoi batzuei buruz, beste arazo batzuek kezkatzen naute, eta, bueno, heriotzak, denboraren joateak eta bizitzak.

Hemen ditugu *Derrotaren fabulak* eta *Osin berdeko kantoriak* liburuetako gaiak. Sentimenduen eta espresabideen intentsifikaziora hurbiltzen da liburuetan Irastortza, ia minimalismora. Esaldiak, dudarik ez, poesia alde filosofikora hurbiltzen ari dela adierazten du, eta nolabaiteko muga ezartzen lehen-dabiziko hiru liburu eta beste bien artean. Hala ere, muga hori leundu du idazleak, eta desberdintasunak adierazi hiruren artean:

*Gabeziak* idatzi nuenean, eredu batzuk baneuzkan, idaztereduak, eta finitu zitzaizkidan, jadanik ez nuen nere burua bide hortarik joaten ikusten. Orduan idatzi nuen *Gaia eta gau aldaketak*. Hori jarraipen bat zen, bueno beste modu batetara, bazituen gauza berriak, agian, sinbologiaz konzientekiago mintzatzeko modua. Ondotik, *Hostoak* izkribatu nuen; beste era baten pizkat, egin zidatzen kritika bati eman ihardespren bat, eta nolabait nere buruari, nituen mugak gailetzen ari nintzela frogatzeko haiek.

Ikusten da nolabaiteko zalantza: “jarraipen” hitza erabiltzen da, eta beste alde batetik, “berritasuna”. Ondoren etorriko ziren liburuei buruz ere badu zeresanik Irastortzak:

Badut beste liburu bat, “Pamielak”... aterako duena, hiru-lau urte dauzka, oraindik ez dakit zer izenburu jarriko diodan, nolabait kontzeptu bartzuen inguruko poesia da: amodioa, bizitza, , gaua, beldurra, heriotza, denbora ... Gero beste bat moldatu dut: *Osin berdeko khantoriak* ... Liburu askoz laburragoa da, oso lerro gutxitako poemak dira ... Leitu nuen *Iseko kantoriak*, hamaikagarren mendean idatzi japoniako (*sic*) obra bat. Nere asmoa modu berean zerbait sortzea zen.

Beste aro bat zabaltzen da hemen eta *Enseiucarreanen* Irastortzak poesiarren izaeraz hitz egiten du. Lan trinkoa da, gaia barrenetik hartzen duena, eta poesiarren alde kontzeptual bezain oinarritzkoak begiratzen dituena. Golkoko Guda aurrera doan garaian idatzia. Hiru-lau ideia nagusitzen dira testuan. Euskaraz idaztearen zergatia eta emakume izateak ekarri diona aipatu ondoren, memoriaren aldeko apostu zuzena egiten du idazleak:

Gauza asko ahaztu ditugu “birtuosismo” tekniko baten gerizpean, eta horien artean, galera haundienetarikoa, norberak barrenean eta inguruan etenik suma dezakeenik pentsatu ere ez egitea; haundiena, memoriak ematen duen kontzientziarena. (1991, 63)

Munduak eragina du idazlearengan, eta aroak errazkeriara bultzatu du, irakurlearen bila. Mass mediak indartsuak dira eta hizkera moldatzen dute. Desideologizazioa zabaldu egin da eta horrek moralaren galera dakar.

Egoera honen aurrean arteak eta literaturak betetzen dute oraindik funtziorik. Muinera jo behar dute, eta egoera arrunta eta jarritakoaren aurka altxatu:

Errealitateari begiratzeko modu bat aukeratu behar du errealitatea erakustekotan, hizketa-modu nagusiaren aurka izanda ere. Horrek bereizten du literatura beste idatzizko bideetatik: irakurlea identifikatzen jakin behar du. (1991, 64)

Errealitatearen aukera eta, era berean, kritika egiteko orduan, Irastortzak aitortzen dio berebiziko lana literaturari, krudeltasunari izena ematea:

Eta orduan ezin esan argi berririk ziurtaturik egongo denik, baina mendeetan zehar trebatzen gaituen krudeltasunak izena izango du, eta akaso, hitzak goritzen direnean, baita bukaera ere. (1991, 65)

Jarrera aro hau, zeharbidez, bere azken liburuan agertuko da.

Tere Irastortzaren produkzio poetikoari so eginez gero, oraindik orain hiru aro desberdin atzeman dakigula ematen du.

Lehendabizikoak lehen liburuak hartuko lituzke, 1980-1983. urteen artean. Bigarrenak, hurrengo liburu biak 1986 eta 1987an argitaratuak, nahiz eta idazleak onartu *Derrotaren Fabulak* hiru urte lehenago idatzia izan. *Manual devotio gabeacoac* (1994) marraztuko luke azkena.

Gehien ikertu diren liburuak lehen arokoak dira eta iruzkiok marraztu dute

Irastortzaren irudia. Kandela edo Amaia Iturbideren iritziak laburtuko bage-nitu, bat-batean izango genuke Irastortzari buruzko irudi orokorra.

*Gabeziak* liburuak (1980) une hartan zen material surrealistaren aurrean egiazkortasunaren agerpena egin zuen. Testu zuzena da, pertsona identifikagarri baten aitortpena ia. Etorkizunaren aurrean zalantzak dituen norbaiti esana. Agian errazegi lotu zen testua adoleszentiarekin, idazlearen adina kontutan hartuta, soilik. Egia da, baina, testuak mantentzen duela zalantza metafisiko berezia eta abilezia aipagarria duela egunerokotasuna agertzen, eta detaile minimo eta txikiak pentsakizun bihurtzen, arruntasuna maila abstraktu eta ezagutza jokora igarotzen. Bere 26 poematan (azkenak lau alde ditu) eguneroko objektuek ikaragarritzko presentzia dute (bic boligrafoa, duralex platera, poema grabatzeko zinta), baina, ahozko tradizioz onenean bezala, metonimiaz jantzita agertzen dira: zerbait barnekoia adierazteko daude hor. Sinbolistengan gertatzen zen bezala, eguneroko zehaztasunak marrazten zaila zen zehazgabetasun defirikaitza, testuan “ezer” eta “ez jakin” hitzekin agertzen dena, adierazten zuen.

Testuak gogora ekartzen dizkit 70eko hamarkadan emakume idazle katalanek idatzitako poemak. Edo, hurbilago etorriaz, eta Koldo Izagirrek gogoratu duenez, Arantxa Urretabizkaiaren poesiaren ondoren Euskal Herrian zabaldu zen sentiberatasunaren alde egiten zuen olerkigintza. Ildo horretan kokatu beharko litzateke Izagirre beraren *Itsaso ahantzia* eta, beharbada, Otamendi eta Irastortza bera.

Surrealismoaren indarpean poesia aldatzen zihoan garaian, irudimenak ahalbidea agertzen zuenekoan, poesia honen umiltasunak, freskotasunak, arruntasunak, narratibitate joerak inpaktatu egin zuen. Testua, bere joera personal eta narratiboan, paperean jartzen dituen errekurtsoen simpletasunean engainagarria gerta liteke. Uste baino konplexuagoa da testua. Hasiera-hasieratik, idazleak jartzen gaitu bere baldintza historikoaren aurrean:

19 urteko neska herritar batek EUTG-ko geletatik atereaz gero duen atsedendietan egin ahal duen neurrian, 19 urteko zaldibiar batek bititza sentitzen duen eran egin ahal duen neurrian.

Existenzialismoa aidean zebilen, baina ez dago hemen larrialdirik, bakarrik harridura keinu bat eta pasio handia etorkizunaren aurrean, ezerezaren aurrean. Maitasunak eta maitaleak ez du asebetetzen nahi dena:

Hain fina zen  
goizaldeko lanbropean  
inoiz baino hutsago senti erazi ninduzun.  
Euri tanto haiek  
zekarten deusa,  
eta deus usaina  
besarkatu nuenean...

Zure deiturikoaren gabeziak hondoraino betetzen du:

Orain  
orain ez dut  
zu bizteko hitzik.  
Begirada bustia bakarrik  
zuretzat... (GK, 22)

Bere buruaz ziur ez dagoen nitasun horrek galde egin behar dio inguruari, eta poemari:

Esaidazu  
zer pentsatzen duzun  
nitaz  
“Bic” mezkeaz  
izkribatutako poema... (GK, 16)

Hona liburuko beste ardura: idazketa, poetika. Maitasuna nahiko ez bada, poesiak ere ez du irtenbiderik eskainiko. Poesiaren galeraz, poesiak existentziarako eskaini dezakeen hutsunez beterik dago 26 eta azken poema hori:

...hitzak  
zentzua galtzen ari direla konturatuko baitzara.  
  
Eta ezerezaren jabe ez zarenez eta ezeren  
jabe  
egon nahi ez duzunez, eskubiko sakeletik giltza aterako  
duzu eta  
askatasuna emango diezu (hitzei).  
  
Baina ez zaizu poemarik agertuko h-i-t-z-a-k  
baizik.

Etorkizunean ere:

Eta berriz, ezer ez duzula oraindik  
konprenitzen konprenituko duzu.

izango da poemategiko ondorioa.

Bere paralelotasunetan, errepikazio, zehatzaren eta zehazgabearen arteko jokoan, liburuak xumetasun ximplea erakusten zuen. Eta, Irastortzak aitortzen du berritu nahiez, *Hostoak* idatzi du. Paper honetara ekarri nahi nuke idazlearen aitortza eta aipatu nola lotzen duen idazkera, era berean aberastasun teknikoarekin eta gustora geratu ez denaren barne irrikarekin.

Idatzi nuen *Gaia eta gau aldaketak*. Hori jarraipen bat zen ... bazituen gauza berriak, agian, sinbologiaz kontzientekiago mintzatzeko modua. Ondotik *Hostoak*, egin zidaten kritika bati eman ihardespen bat eta nolabait nere buruari, nituen mugak gailentzen ari nintzela frogatzeko haiek (*sic*).



*Hostoak* egin nuen, baina, *Hostoak*, ez dakit, o sea, horko gauza asko ez ditudut orain sentitzen. (1986, 10)

*Gaia eta gau aldaketak* liburuan nabaritzen diren aldaketak irudimenaren erabilpenetik datoz, espresioaren zuzentasunaren ordeztu, bilatu du idazleak irudimen joko surrealista egitea, edo berebiziko joko fonikoak. Lehen artekoa da adibide hau:

Ekariezazkidazu  
matematikako operazioetan  
tartekaturiko  
ametsak,  
historiako laburpenen atzean  
pintaturiko bihotzak... (GK, 53)

Eguzkiak orratz urratuen erakusketa antolatu zuenean... (GK, 64)

Irrazionaltasun poetikoak toki handiagoa hartu du eta irudimenaren jokoa, orduan erabiltzen zen arlo semantiko desberdinetako hitzen bilketa irrazionalan bilatzen du Irastortzak, are barrokoagoa egiten den hizkera poetiko bat. Aliterazioak, hitzen arteko musikaltasunak lotzen ditu esanahi aldetik loturik ez dauden hitzen arteko zubiak. Joko fonikoak agerpen handiagoa du testuan:

Poesiaren hariak  
kristalezko balira,  
lilaz liraunduak  
lorenz laztanduak,  
larrosak leunduko lituzke  
ludi larriaren gerriak... (GK, 74)

Testua irakurriz besterik gabe etorriko zaigu burura *Gabeziak* liburuko tonua eta gaia. Poesia eta hitz poetikoaren sena gai zen lehen liburuan eta bigarren honetan ere bai. Hauxe dugu lehen lotura bien artean. Hitza errepi-katu egin da gainera, poema honetan, poesia definitzeko orduan:

Poesia  
zure begirada,  
gabezia... (GK, 72)

Soinu becquerriaren ondoren, poemategiak mantentzen ditu esanahiaren alde biak zabalik: poesia maitasun poemen sentsibilitatean esploratzeko, gabezietan aterpe bilatzeko. Ez da gaia, baina, lotura bakarra liburu biren artean. Txikitutasunaren gorazarreak estaltzen du bietako abenida zabala:

Zuek,  
gauza haundien  
errainuen aurrean

jartzen zareten filosofo  
ausartok  
beldur diezue  
gauza txikiei... (GK, 32)

*Gabeziak* liburuko aipua da. Baina bigarren liburuak ere agerian du sentipen horren agerpena. Agerian dituen bezala, iturrien geriza. 1995. urtean idatziriko ohar batean, ildo berean ziren idazleak ematen ditu Irastortzak:

Joera nagusia zen euskal literaturan hizkuntza berarentzako atxikimendua, baina eguneroko bizimoduari heltzeko gutzia falta zitzaion. Mikel Arregi, K. Izagirre, A. Urretabizkaiak ere arreta berezia zuten honekiko.

Literatura ildo horren (egunerokotasuna, subjektibitatea, nortasuna, sentipena) oihartzunak nabariak dira ez soilik liburu biotan baizik eta irakurtzen ari garen aro osoan. Liburu horretako “San Pedro gauerako” poemak ez ote du gogoratzen Urretabizkaiaren liburuaren izenburua? J. I. Lasak ere bide beretik jo zuen: “hain eder zaizkion Neruda edo Urretabizkaiaren maitasun poemak” (1983, 5) idatzi zuenean. Ez du alperrik goratu bi aldiz K. Izagirrek, ildoaren indarra:

De, *En el regazo del amor*, de Arantza Urretabizkaia. No se asusten por el título, porque Urretabizkaia es de los (*sic*) que mejor saben cantar también al desamor (inolvidable, por cierto, *San Pedro Bezperakoa*). (1990, 26)

Nitasun honek ez dakit ez ote duen abiapuntu argiena. Urtebete lehenago argitaraturiko A. Urretabizkaiaren *San Pedro Bezperakoa* intimista eta ederra. (1993, 69)

Mantentzen dira, eraberritu eta hedatu egin den hoskidetzarekin batera, paralelotasunerako joera, poema txikiak idazteko karia, eta egitura lerroaren argitasuna. Poemen bukaeratan bilatzen da azken kolpea, edo etsipen eta garrantasunaren artean higitzen den sentiberatasunaren agerpena.

*Hostoak* liburuan berriki, 1995. urtean, egindako oharrean, garbiro azaldu du Tere Irastortzak nondik nora joan den liburuaren gaia:

Naturari begira bizi ez garelako, apika, hostoak jaiotzen eta erortzen bakarrik antzematen ditugu. Baina, hara nola, bere bizian garrantzizko diren uneetan, alferrik bizi direla esango genukeen. Eguneroko bizimodua ere antzeratsu joaten zaigu, egunerokotasunetik urruntzen gaituenean bakarrik ematen digu bizi garelako aztarna, eta, berriz, arruntasunekin diraugu. (GK, 83)

Hostoak eguneroko bizitzaren errotaren sinbolo bihurtu arte idatzi du Irastortzak. Berriro txikitasuna nagusitzen da, baina zentzu berria hartu du liburuan:

Egunerokotasun hori batzuetan gogaikarri da eta beste batzuetan gogoangarri. Horretan datza txikitasunaren haunditasuna. (GK, 84)

Liburuan heriotzaren presentzia nagusitu egin da, denboraren joanak ikaragarritzko tokia bete duelarik, areagotu egin da hori liburuaren 2. argitalpenean edo *Gabeziaren Khantoreak* liburuan, hain zuzen ere, 1. argitalpenean izenbururik gabeko poemak orain “Epitafio” izenburupean agertzen dira.

Luis Mari Muxikak (1991) ohi duen Bousoño-ren estilistikaren metodologia erabiliz, azaldu ditu zein espresamolde erabiltzen dituen Irastortzak eta zeintzu metafora eta nolako transposizioak, eta zer nolako paralelismo jokoak. Espresioaren aldetik Irastortzak berak aipatu du zein den liburuan erabilitako estiloa:

Inondik inora, bilduma honetako testuen artean hauexek dira irakurlea, poema amaitu aurretik, gehien geldiarazten dutenak. Batzuetan lexiko-hautapenagatik, sarri gauzak letren artera ekartzeko lehian aditzaren elipsiari ekin niolako... Definizioaren ordenamenduak ixten ez duen espazioan irakurleari bere biografia ikasteko aukera eman nahi nion. Horregatik esan nahi izan nituen hitz tristeenak, sarri hitzik gozoenak. (GK, 83)

Kandelakoek, beste izen batez esateko T. Irastorzaren taldekoek, gurean ohikoa den kritika inpresionistaz aztertu zuten liburua (1984, 93-96), eta bertako gai nagusiak aipatu:

INTIMA... Errepara zaitez, desengainoaren belaunaldi erosoara gara eta ... utzi dut diarioa eta gauza ttipien zaintzaile bilakatu naiz... Ez naiz amets handietarako bizi ... Presentzia-ausentzia gezi bikoitza eta presentziarekin berriz, denboraren joatea, gau aldaketa, gizakiaren inpotentzia, gogoeta.

Aipuak eta oharren zenbakiak kenduz, Kandelakoek liburu horretaz esan zuten guztia kopiatu dut hor goian. Ez da arraroa izango hortik aurrera, eta *Maiatzeko* elkarrizketan horrelako zerbait dago, idazlea erretxin agertzea bere poesia intimista deitzen dutenekin.

Zabalago eta sakonago, gure artean hain usu gertatzen ez den moduan, hitz egin du liburuaz Amaia Iturbidek eta zuzen azaldu du poetika hau.

D. Alonso-ren aipu batetik hasiz, Iturbidek liburuaren sena erakusten du. Azaltzen du lehenik bere esanahi nagusia: sentiberatasuna (“zertxobait bigunegia”).

Hitzen arteko kidetasuna sentibera, irudien jarioa sentimenduzkoa. Baina baita ere sentiberak bere poesiarako aukeratu dituen gauzak: gauza txikiak. (1994, 24)

Hauxe litzateke bigarren ezaugarria eta honen izaeraz, ondorio poetikoaz eta zioaz luze mintzatzen da Iturbide. Garrantzi handikoa da, baina, poetaren munduaren sorkeraz egiten duen interpretazioa:

Poetek kanpoan egina dagoen errealitatea ez zaielako atsegina gertatzen, besteak beste, bidegabea eta ulertezina delako erabakitzen dute unitertoak eraikitzea. (1994, 23)

Horregatik egiten du salto bere azterketan txikitasunetik egunerokotasunera, Irastortzak intimismoaz esan duenarekin bat eginaz. Intimismoa idazlearentzat ez da soilik barne mundua, kanpo mundua desioz barneratzeko, eta barneratua grinaz bizitzeko joera da. Intimismoa ez da soilik pertsona bakarrarena, bada errealitatearekin lotzeko bidea ere. Horretaz, barne eta kanpo munduaren arteko loturaz, garbiago hitz egin du bere azken argitarazioan:

Anitz den munduari berriz erreparatu beharrean utzi nituen, hostoak bezala, jaiotzen, bizitzen eta erortzen poemok. (GK, 84)

Poesiaren hizkera aztertzerakoan puntu bitan jartzen du Iturbidek atentzioa. Hoskidetza da lehena: “Fonemen arteko hoskidetasunean sortutako hitz jokoak”, eta surrealismo jariotsu baten agerpena, bigarrena, kontraste sentsazioa, hitz zailak erabiltzen jarritako arreta, e. a.

Hitzak enfatizatzen daki, hitzari berez dagokion kualitatea edo ezkualitatea azpimarratuz. (1994, 25)

Bukatu liburuan agertzen diren gaiekin bukatzen du:

Amodioa, heriotza, denboraren igarotzea,... baina nagusienak bi dira nire iduriko: Ausentzia, hots, presentzia eza, eta desesperantza, hots, esperantza eza, (1994, 25)

Hemendik aurrera:

Poesia,  
zamarik gutxien duen eran,  
indarririk handien duen  
sentimenduaz... (GK, 72)

idazten duenak, poeta pobreak, bere burua:

...poeta tristeak,  
poetak, finean. (GK, 73)

gisa definitzen duenak, zama haundiagoa kenduko dio hitzari, sendimendua galdu gabe, pentsakizunaren poesiara hurbilduko da, minimalismoaren bide-tik. *Hostoak* poemategia bide berrien anuntzioz hasten zuen:

Irri berria hautsiko dut  
orri berria hasiko... (GK, 129)

Orri berria hasterakoan hor aurrean zituen *Derrotaren fabulak*.

Liburuaren irakurketarekin hasi aurretik, eta Irastortzak ere minimalismo

hitza erabiltzen duenez, hobe dugu hitzaren zentzua argitzea. Hona idazleak ematen dion zentzua:

Bada beste afanik ere, eta ez ahulena: esku-arteko munduari lerro batzuk eskaintzearena. Esan izan didate minimalismoa dela, mundu gutxitu baten islada hutsa. (GK, 47-8)

Testu hori irakurrita, badirudi minimalismoa gaiarekin lotzen dela, senti-beratasun, txikitasunarekin. Eta, hain zuzen ere, Irastortzak lehen hiru liburuetan agerturiko munduari atxikitzen dio kontzeptua.

Minimalismoak, ordea, eta hemen jarraituko dugun ildo kritikoan, hizke-  
ra edo tratamenduarekin loturik dago, poesia kontzeptual edo filosofikoare-  
kin. Hizkeraren tratamenduaren agerpidea da, eta ez gai edo elementu poeti-  
koaren tratamenduarena. Laburtasun joerarekin lotua da, baina isiltasunarekin  
badu zerikusirik.

La fracción, el fragmento, tiene su correlato temporal en el instante, y si el fragmento refleja una parte de la realidad que como tal queda eludida, el instante es una fracción de tiempo que en su brevedad carece de extensión. En consecuencia, el fragmento y el instante como su reflejo temporal son *parte*, y, por lo tanto, limitan por un lado con la totalidad, mientras que por el otro extremo señalan el silencio y el vacío... Por una parte, el fragmento/instante aspira a la expresión de la totalidad, por otra limita con el silencio, con la máxima depuración de elementos, es decir, trata de expresar al máximo con el mínimo número de palabras... La escritura fragmentaria exige, por lo tanto, una depuración absoluta del lenguaje poético, una búsqueda de la esencialidad última, y, en su dimensión temporal una fijación al instante, a aquello que casi no es el tiempo y que define la transitoriedad absoluta del descanso poético fragmentario. (Lanz, 21)

Hona hemen zatiaren bidez emana, minimalismoaren definizioa, hemen erabiliko dugun moduan. *Derrotaren fabulak* ia-ia poesia definitzailea da:

Beldur gorria  
gauen... (GK, 149)

bezalako poemek erakusten dutenez.

Kuriosoa da baina, idazleak momentu desberdin bitan kokatu du liburua-  
ren jaiotza. *Maiatzean* agerturiko elkarrizketan honela mintzo da:

Badut beste liburu bat, "Pamiela" k aterako duena, hiru-lau urte dauzka, oraindik ez dakit ze izenburu jarriko diodan; nolabait kontzeptu batzuen inguru-  
rako poesia da: amodioa, bizitza, gaua, beldurra, heriotza, denbora. (1986, 11)

Gaien aipamenagatik badirudi gerora *Derrotaren fabulak* deituko denaz ari dela, eta hiru-lau urte baditu elkarrizketa egiten denean, horrek 1982an jartzen gaitu. 1995. urtean beste hau aipatzen du idazleak:

Denborak eman nituen “Orri berria” hasten, eta urte batzuk joan ziren *Derrotaren Fabulak* eta *Osinberdeko Khantoreak* (sic) argitara eman aurretik. (GK, 133)

Hala ere baliteke hemen argitarazioaz aritzea, eta gerta liteke idazketa prosezua eta argitarazioa banatzea, nahiz eta “denborak eman nituen” esaldiak hurbiltzen dituen prozezu biak.

Kontuak kontu, edo noiz idatzi ziren argitu gabe ere, ardura diguna da idazkera joera aldatu egin dela.

*Derrotaren Fabulak* sei ataletako poema liburua da. Sei kontzeptu, hobeto esanda, sei bizikera eta bizikuna: “Bizitza”, “Beldurra”, “Maitasuna”, “Denbora”, “Gaua”, “Hitza”. Sail bakoitza hasterakoan, hiztegien hizkeraren parodia eginez, idazleak haien definizioa (definizioari hurbilketa) eskaintzen digu era oso labur eta intensoaz:

Bizitza:

1. Denboraren atzaparra. ik. Denbora.
2. Herioa. (GK, 137)

Maitasuna eta Beldurraren kasuan ezik, non poema labur batez ematen baitzaigun kontzeptuaren izaera:

Maitasuna:

Bi bakarte parekatzen dituen  
distantziakidetasuna,  
huskidekeria. (GK, 151)

Liburuak Iratortzak aurreko liburuetan bilduriko obsesio guztiak, eta sinbolo nagusiak biltzen ditu. Baina hizkerak eskaintzen duen indarrak, espresioa findu eta intentso bihurtzen du. Ez dago hemen joera surrealista handiegirik, Blanca Andreu zititzen bada ere: elementu minimoak, keinuak sinbolo bihurtzen dira.

Idazleak berak azpimarratu ditu aurreko liburuekiko egin duen haustura:

Laburtasunak eskaintzen duen haustura aukeraz. Horretarako burutsu jokatu zuten, batetik, ene aurreko liburuetakoko baliapideetan euskarririk gutxi topatu izanak eta, baita, bestetik, bidelagun ditugun liburuen irakurketak ere. Horien artean ahozko literaturak, diotenari pusketan hautsiz, idatzitako egitura diskurtsiboetatik ihes egiten zuen heinean gordetzen zuen bizi-iraupenak. (GK, 134)

Sugerentzia, hutsunea, irakurlea pentsabidean jartzeko joerak nagusitzen dira liburu honetan.

Ohea ortotzik  
eta ezpainak  
eztai zain

atea irekirik  
gau zimur bailitzan  
baina nor da  
pozaren gidari  
apar gauetan... (GK, 155)

Bertso hauetan dugu irudi hutsak eta hoskidetzak utzi duten irudimenerako gonbitea, koplazaharraren estetika egunerokotasunean sartu izan balitz bezala.

Liburu honi buruz idatzitako zertzeladetan bada beste bat aipatu beharrekoa liburua bere onean ulertzeko:

Aurreko liburu eta ondorengoan artean, urte batzuetako isiluneaz gain, bada beste denbora alderik. *Gabeziak, Gaia eta Gau-aldaketak, Hostoak* orainaz eta geroaz ari dira, etorkizuna baldintzatu uste duenaren indarrez eta ahuleziaz. *Derrotaren fabulak, Osin berdeko Khantoreak (sic)* liburuan bezalaxe, orainaz eta lehenaz ihardun nuen... Memoria, isiltasunarean on-tzen den fruitua, bere parean asentatu zen. Memoriak, batzuk eskarmentu deitzen dutenak, gogorarazi zidan, ustezko portua ez zela nik uste nuena eta, izatekotan, urrutiago zela. (GK, 133)

Izan nahi eta izatearen artean mogitzen den kinkan gogoangarria da oroimenari gai hartuz idatzitako poema:

Hitzik ezean  
oroitzapenak atzamarkatuko ditut  
memoria atzean bizi diren amets-ertzak  
kamustu eta  
egia bailiran  
denbora orratzaz injektatu  
orrietan... (GK, 182)

Oroimena bizitza kamutsarekin lotzen da, bizitza galtzekotan, eta itxaropenak betetzen ez direnean memoria geratzen zaio gizakiari. Kurioso da, hala ere, nola lotzen den memoriaren eta isiltasunaren gaia poemategi honetan. Isiltasunak, ikusi dugu Juan Jose Lanz-en zitan, muga egiten du minimalismoarekin. Irastortzaren poetikan bizitza eta heriotza banandu gabeak diren moduan, lotuta daude hitza eta isiltasuna. Liburuaren azken poema biek gaiaren inguruko hausnarketak dira. Badirudi bizitzaren derrotaren eta etsipenaren aurrean poesiak ez duela indarririk pertsonaren gunea altxatzeko:

Ez dakit  
hitz osorik  
eta sosega nazakeenik  
ez da... (GK, 190)

Gogorragoa da, neurri handi batean, azken poema, non isiltasuna izakia-  
ren nortasunarekin parekatzen den:

ezen isila  
—ene izaki—  
mintza zekidakeen  
barren-barrenetik  
ezen mintzaira  
—eneturik—  
isil bihurtuko da  
eta... (GK, 191)

Carlos Edmundo De Ory-ren aipu baten jarritako poemak badirudi irten-biderik ez duen puntu batera eraman duela poeta. Horrela aitortzen du Irastortzak garatu egin zuela egoeratik:

Definizio bidez hiztegiek dakarten errealitatearen ordenamenduaren aurkako joerak garatu zuen Osinberdera abiatzeko irrikizioa. (GK, 135)

Aipu horrek bat-batean dakarkit burura idazlearengan errekurrentea den ideia: ordenamendua gaiztoa dela. Ia ideia bera idatzi zuen *Gabeziak* hartan:

Baina legeak ezarrarazi nahi duena  
fikzio gabe gezurra da. (GK, 30)

edo “Ahosabaia bete gezur”, Itxaro Bordak “Perpaua inplakablea” deitu duena.

Osinberdea, idazleak berak azaldu du, sorrera eta sorlekua da.

Ibai ondoan igerri nuen benetako poemaren bila abiatuta kanale estu batek eraman ninduen ura jaiotzen den osinera. Osinberdera. (GK, 196)

*Maiatzeko* elkarrizketan gogoratzen du nola sortu zitzaion ideia:

Gero beste bat moldatu dut: “Osin berdeko Khantoriak”... Liburu askoz laburragoa da, oso lerro gutxitako poemak dira, ikusi baitut ez naizela poema luzeegien egiteko gai, poesia luzeak egiten ditut baina azkenean mozten ditut... Leitu nuen “Iseko kantoriak” hamaikagarren mendean idatzi japoniako obra bat. Nire asmoa modu berean zerbait sortzea zen. Ironiarekin. Azkenean, ironia asko kendu diot. (1986 , 11)

Badago lerro gutxi aurrerago beste aitorten ezezagunago bat hona ekarriko duguna eta Irastortzak filosofiagatik sentitzen duen keraz berri ematen diguna:

Bi liburu horien arten, egin nuen beste bat, hogeitatu bat poemekin, baina ez zitzaizkidan gustatzen, filosofi kazkarregikoak ziren. (1986, 11)

Liburua *Osinberdeko Kantoriak* deitu zen lehen argitalpenean eta *Osinberdeko Khantoreak* bigarrenean, tartean *Osinberdeko Khantoriak* deitu dute Manu Lopezek lehen edizioaren hitzaurregileak eta *Maiatzeko* elkarrizketa egileak. Titulua aldatua bada ere, ziurra da *Iseko Kantoreak*



liburuan dagoela iturburua. Liburua Japonian idatzi zen hamargarren mendean (errakuntza txikia dago horretaz elkarrizketan) eta mende bat lehenago hasi zen osatzen eta konposatzen. Gai nagusia, Narigira Koronelaren bizitzaren kontaketa da, haren amodioena, Iseko santutegira joan arte. Gizaki historiko horren bizitzan oinarrituriko liburua, maitasunari buruzko poema liburu bihurtzen da orrialdeetan zehar, nahiz eta literatur generoen nahasketa agertu: historia nobelatua da, narrazio lirikoa, epika dramatizatua eta heriotza eta amodioari buruzko pentsakizun bilduma. Poemarik gehienak haiku moldeez eraikitakoak dira, pentsakizuna eta sentiberatasuna lotzen dituztenak.

*Osinberdeko Khantoreak* liburuak jarraitzen du Irastortzak aukeraturiko bidea: heriotza da maitasunari buruzko filosofia eskaintzen du poema minioetan, baina, agian, desberdintasun bi ikus ditzakegu bere konposaketan aurreko liburuarekin gonbaratuz gero. Japoniako poesiaren izadi sentiberatasuna argiagoa da. Kontzeptuak irudiz janzten direlarik, eta, poemategiaren bukaeran, egunerokotasunaren agerpena argiagoa da. Irastortzak aipaturiko ironia garbiagoa da azalpenean.

Liburuaren lehen argitaraldian Manu Lopezek, Kandela taldean kide izanikoak, agerian utzi zituen liburuaren nondik norakoak.

Komentatzaile apal honen ikuspuntutik, bada, bihoaz Tereren poetikan kausi daitezkeen ideia nagusiak... poeta moderno guztienetan ematen den gaia, heriotza, eta beronen atzeraezintasuna: heriotza azkena da... Segurantzaz hau (*sic*) —segurantzaz bakarria, agian— larritasuna dakar ondorioz. Eta egoera honetatik nolabait “askatzen duen gauza bakarria maitasuna da... maitasunari gehiegi atxekitzeak desegiten denean min eman diezaioke poetari: desamodioak etsipena sortzen du poetarengan. Batzutan etendura hori trajikoa da, eta hau ispilatzeke, Tereren poetikako gai konstante bat: lagunaren baten heriotza... Eta orduan bigarren elementu bikoitza sartzen da jokuan: oroimena. Alde batetik iragandako une zoriontsuak berbizitzeko baliapidea da, baina bestaldetik oroimena hutsala da bizitzan aurrera egiteko, eta ez hori bakarrik, honen bidez gainera denborarekiko larritasun hori areagotu egiten da. (Lopez, 1986, 8-9)

Aipu honetan nahikoa ondo azaltzen zaigu zein den poemategian gertatzen den sentsibilitatearen bilakaera: heriotzaren babestoki maitasuna, horren galeraren arriskua eta oroimena garbian, unean unekoa argitzen eta bere ezdeusa aitortzen.

Etsipenaren bidetik abiatu da Irastortza poemategiko 32 poematan zehar. Tonua ere definitua dago atal txiki batean:

Poesia beti elegia... (GK, 216)

Eta tonu elegiakoan joango dira poemategiko lau zatiak. Jaiotza eta heriotzaren inguruko poemak dira lehenak. “Eskatu gabe jai” denaren sufrimen-

tua azaldu nahi dutenak, heriotzaren inguruan, guardako aingerurik gabe; testamendua idatzi arte, joera mingots batean:

Hiltzen naizenean  
ez dezatela ispilurik estali  
erreka iragaitean  
bestekaldetik itzul diezadan  
honetan itzali eta izkutatua... (GK, 200)

Denboraren joanaren aurrean oroimenak ez du babes eskasa besterik eskaintzen:

...baina denboraren erraietarik  
ezin memoria antzuak elika  
oraina... (GK, 201)

Heriotzaren gaiaren inguruan kokatzen dira uraren sinboloaren inguruan idatzitako poemak, bigarren argitarazioan “Urarenak” izenburupean bilduak. Urak ezaguna den sinboloaren esanguraz, denboraren joana adieraziko luke:

Gizakiak bidera lezake  
ura  
kanaletan  
itsasoak askatu egingo du... (GK, 204)

Baina bada, ispilu eta baretasunaren sinbolo osinetan agertzen denean.

Maitasunari buruzko zikloa hasten du poetak orain. Maitearen deskripzioa, Iseko kantuen oihartzun, eta maitasunari buruz bizikerea, kontzeptu definizioa baino gehiago. Tere Irastortzaren poesia ez baita poesia kontzeptuala, adagioaren forma hartu arren, abstrakzioarekin baino lotura handiagoa baitu bizi-bultzapenarekin. Maitasuna, Manu Lopezek azpimarratu zuen bezala, herioari aurre egiteko sentimendu bakarra da:

Ah maitasun  
herio dosifikatzaile  
bizitzaren izenean  
herio-bideko oztopo bakan!... (GK, 213)

Baina maitasunak ez du soilik lotzen heriotzaren agerpena, erabatean loturik dago bizitzarekin eta bizitzan ditugun atsedenekin:

Eta maitaldiak bizibideko  
geltoki bakarrak  
eta maitaldiak bideko  
atseden bakarrak... (GK, 215)

Hirugarren poema multzoak aurreko hiru gaiak hartzen ditu: maitasuna,

herioa, oroimena. Irastortzarengan ohikoa denez, poemategiaren bukaera, hitz poetikoari buruzko hausnarketarekin lotzen da.

Hitz poetikoak muga egiten du isiltasunarekin, oroimenak ahanzturarekin egiten duen moduan:

Ahanzten ditut ia-ia hitz guztiak  
bizitzeaz gomuta nahi ez dudanean  
oroimena ezabatu nahi nukeenean...  
eta erre egiten nau —atzera— ahaztu nahiaren  
oroimenak... (GK, 220)

Liburua “Eta beste” poema sailarekin amaitzen da. Erantzitako poema sail honek maitasun galera hartzen du gaitzat. Etsipenarekin hasi dena etsipenarekin buka:

Hoa izer iheskorren gibelean  
izkutatzen: ez nezake, maite,  
iada ez, min basati hau sabelean  
gobernatu; etsipena ene kate... (GK, 229)

Egunerokotasunak hartzen du tokia orain, autobusa edo hitzen bidez, erre-alitateak bere atea zabaltzen duelarik. Agian, hemen dira erregistro aldaera nagusi eta bortitzak. Aforismoaren estiloak horixe du, erregistroetan zerbait huts egiten badu poema osoa jausten dela. Eta horixe gertatu dela iruditzen zait bertso honetan:

...hobe dun beti ere manta ona  
amante txarra baino... (GK, 228)

Filosofian ironiaren erabilerak arrunkeiara eraman du, ene iritziz, bertsoa.

Elegiaren bideak markatzen ditu bere mugarriak: maitasuna, begikunea, idazkera... Orain arteko bere azken poema liburuan, *Manual devotio gabecoa* (1994), bide berdina jarraitzen ditu Tere Irastortzak: hausnarketa, literatura eta bizitzaz ondua. Itxaro Bordak (1994, 48) ere azpimarratu du era elegiako liburu honetan:

Borroka poesia da... barne borroka latz baten mirail edo ispilu...  
Hostoz-hosto jendarteko edo jendeekilako harremank dira aipagai, molde  
etsitu eta samur batean zenbaitetan edo manera salakarian nola gerta.  
Haserrea agertzen da solasen arteketarik, amodioa berdinki. Mundu dal-  
darti eta ikarati bat orohar... Olerkaria minbera da, sinestea are galduago  
zaio... Ixiltasuna hautsiz bermatzen den botza, kontzientzia partekatua  
eta zatikatuaren botza dela susmatzen duelako, dugulako.

Bost zati nagusitan bananduta, izenburuan Roger Wolfe-ren poesia gogorazten badu ere, Tere Irastortzaren eskuliburu hau, kateximen parodia bihurtu nahi duen liburu hau, hausnarketa da bizitzari buruz, denborari buruz, idaz-

ketaren funtzioaz eta galdera zabaldu nahi luke: ia idazketak denbora bere hartan uzten duen ala ez.

Aurreko liburuetan aurkitu diogun moldea da hemengoa: tonu hausnarkorra, poema txikiak nonahi, hiztegien definizio erregistroa eta sentiberatasuna nahas-tatzeko joera... Berriak dira poemen narratibotasun joera, literatur eta filosofia aipiak (Bergson, Tsvetaieva, Hawking), eta, ororen gainetik, samurtasuna eta hizkera zientifikoaren artetik sortzen den tentsioaren esperimentazioa.

Lehendabiziko atala, hiru poemaz oratua, joko metaliterarioa da, Gasteluzarren moldean. Baina metaliteraturak ez du estaltzen irakurlearen bila idazleak jalgi duen oihua. Idatzia alferrik da irakurlerik gabe. Idazketa eta bizitzaren artean idaztea aukeratu duenak badaki zein bakartia den bizikunea, horregatik behar du irakurlea, bestela idatzia hitzmortua geratzen delako:

Inor ez dago liburu bat idaztera behartuta,  
Bergsonek ziona:  
bizitzera bakarrik eta sortzera, agian... (MD, 9)

Bigarren atalak Tere Irastortzaren gai nagusi guztiak biltzen ditu: gaua, denboraren jarioa, oroimena eta ahazmena. Obsesioak jarraitzen du bere hitzen errotan espresiorik finenaren bila. Tere Irastortzaren egitura paraleloek, kontraste xumeek, hitz jokoek, espresio xume, samur eta, era berean, bortitza sortzen dute. Hiztegia zerbait barrokizatu egin da liburuan eta estilo joera guztiok bilatzen dute denboraren joanak sortzen duen larrimina, pixka bat, argitzea:

Hitzetik hortzera ez baino  
hutsetik hautsera hedatu zen isilpidea.  
Eta etxeak zarbaildu ziren... (MD, 16)

Irudiak argiak dira eta jeiskeraren sinbolizazioak dekadentzia irudikatzen du indarrez. Irastortzak, gainera, esku trebez lotzen ditu modernitatearentzat garrantzizko diren arazo bi: denboraren joana eta hizkera poetikoaren deuseza. Hizkera poetikoak ezin du denboraren joana eten eta horregatik hurbiltzen da isiltasunera.

Intimitateak eta ni eta zu arteko zubien luzaerak hartzen dute poemategian hurrengo tokia. Lagunen presentziak eman dio gorputza poemategiari. Desitxaropenaren eremuan ondoko pertsonek ere ez dute estaltzen denborak utzi duen tokia. Ezezkortasunak betetzen du tokia poemategian. Dena da beltz, dena amildegi, dena zoriongabe:

Urteekin irudi eta konparazioak  
muinerantz abiatzen dira,  
iraun alde, inondik inora.  
Hondoa jotzen dute halako batean:  
saihesbideen buruan amildegiak dira... (MD, 49)

Idazketaren bakartasunak, idazketak irudikatzen duen zentzu faltak betetzen du hurrengo ardura idazlearen orrialdeetan. Poetikari buruzko hausnarketan hondora jo du Irastortzak, galdetu dio bere buruari idazketaren zentzuaz. Poesia “oinarrimua” bada ere zenbaitetan, *Osinberdeko Khantoreaken* oroimenarekin gertatzen zen moduan, dudamudazkoa da bere eragina:

Idatzi  
eta norentzako ezean idaztea  
itxaropen gabe aritzea,  
iraganaren putzuan edanagatik ito ezina... (MD, 57)

Azken batean tartea, jaiotzatik heriotzara garamatzan

Tartea sumina da... (MD, 59)

Hala ere, “hitzik ez balego” (MD, 71) zentzurik ezean aurkituko litzateke idazlea.

Idazketa prozesuaren anbiguotasunaz hitz egiten du hurrengo poemak:

Gaeuan koaderno hartu eta  
idazteko saioari heltzea  
azkenean ilunpearen esentzietan  
sinistea bezala da.  
Ilargi eta izar bila hastea,  
hurrengo egunak ere ziurrenera  
ezer balioko ez duelakoan... (MD, 67)

Ikarak, beldurrak, denboraren joate lotezinak eraikitzen dute azken poema saila. Irastortzak maite dituen gaiak aukeratzen ditu idazkera zorrotz, eta gogorarekin denborari buruz hitz egiteko. Esanguratsua litzateke azpimarratzea “Domu Santuko” deitzen dela sail honetako poema bat: heriotzaren itzalak lausotzen du denborari buruz den sail hau.

Bildur, jauzia beti mortala delako  
heriotzezkoa, alegia... (MD, 85)

Denborari buruzko erreferentziak ugaldu egin dira une honetan: Hawking-en denborari buruzko teoriatik eguneroko erloju digitalera, dena dago gune baten inguruan itzulika.

Dena, Irastortzaren poemategirik sentikorrena osatzeko, filosofia aldetik ezezkorrena, espresio aldetik zorrotzena eta samurrena. Dena, poesian espresio juxtuaren bila abiatuiko poeta baten heldutasuna adierazteko.

## **Bibliografia**

IRASTORTZA, T. (1994): *Manual devotio gabecoa edo ibilgailuetara erabiltzeko escu-liburu*. Pamiela. Iruñea.

- (1995): *Gabeziaren khantoreak*. Pamiela. Iruñea.
- (1991) “Enseiucarrean”. *Enseiucarrean*. 6. 61-5.
- BORDA, I. (1986): “Hitzaurrea”. IRASTORZA, T.: *Derrotaren Fabulak*. Pamiela. Iruñea.
- (1994): “Ixiltasun eske”. *Argia*. 1.509. 1994-XII-18. 48.
- ITURBIDE, A. (1994): “Txikitasunak egiten eta moldatzen gaituenean”. *Hegats*. 10. 23-26.
- IZAGIRRE, K. (1991): “Mudos blues de la nada”. *Susa*. 25.
- (1993): “Txipitasunaren iraultza”. *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 53-71.
- KANDELA (1984): “Irastorza, T.” *Euskal letren dantza*. Hordago. Donostia. 93-6.
- LANDA, J. (1980): “Minueto bat hitzaurre gisa”. IRASTORZA, T.: *Gabeziak*. Haranburu. Donostia. 9-14.
- LANZ (argitaragabea): “Fragmento y diálogo en la poesía española actual”.
- LASA, J. I. (1983): “Hitzaurrea”. IRASTORTZA, T.: *Hostoak. Gai eta gau aldatetak*. BAK. Bilbao. 5-6.
- LOPEZ, J. M. (1986): “Hitzaurrea”. IRASTORTZA, T.: *Osinberdeko kantoriak*. Pamiela. Iruñea.
- MARTINEZ, L. (1995): “Euskal poesia asko saltzen da”. *Correo*. 1995-XII-10.
- MUJKA, L. M. (1991): “Euskal poesia berriaren teknika zenbait. Teresita Irastortza”. *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Diputazioa. 1.241-1.255.
- X. X. (1986): “Berbatan. Tere Irastortza”. *Maiatz*. 11.

## JOSERRA GARZIA BEZPERA ETA BIHARAMUNA

### 1. Bezperaren kronika

Joserra Garziaren (1953) poesia ez da oso ezaguna, ezta ere oihartzun handikoa, gure artean, nahiz eta 1992. urtean, Kritika Saria jaso, eta urtebete lehenago Irun Saria. Bere lehen poema liburuari Eusko Jaurlaritzak atontzen duen Lizardi Sariko akzesita eman zioten.

Liburu biren egile, oraingoz, eta argitaratuak kontatuz *Dena delak* Baroja etxean ikusi zuen plaza 1988 urtean eta *Zotal egunak* Kutxako argitarazio zerbitzuak jarri zuen kalean 1991. urtean.

Molde estetiko antzeko batek ematen die arnasa. Baina aurrerapausua nabaria da bigarrenean.

*Dena delak* ematen dizkigu izen burutik beretik poetikaren nondik norakoak.

Eguneroko hizkuntzara jeisteko, olgetari, gogoz agertzen du bere burua Joserra Garziak. Egunerokotasunaren jokoak metxa pizten du eta poema txiki batek ematen dio hasiera poemategiari.

...dena da  
ez dena ez da  
dena ez da dena  
baina bizi gara  
dena dela... (DD, 9)

Bost bertso, hitz joko garbia. Kapitulu burutzat hartzen ditu liburuan zehar idazleak bost kapitulu osatu arte. Tartean sartuko dira beste hiru ataltxo. Baina egituraz geroago egingo dut hitz, zeren liburuak bigarren izenburua baitarama: bezperaren kronika, hauxe dugu liburuaren bigarren mataza haria. Bezpera kontatuz karta bat idazten dio idazleak maiteari. Alde errealistari kasu eginez herriko jaietako bezpera da kalean, herriko koadrilak ari dira kalez kale eta aterik ate eskean.

Baina bezperak lehen unetik hartzen du maila sinbolikoa. Bezpera jaieguna-  
naren zain dagoenaren eguna da. Baina ez da hemen jaiegun berririk:

Bezpera da. Hemen beti da bezpera. Biharamunik gabeko bezpera, itxa-  
ropenik gabeko esperoa, desesperoa. (DD, 11)

Hitz honekin hasten du maiteari eginiko gutuna. Eta beste honekin buka-  
tu:

Eta egunak bezpera berri bat argitu du eskale-herri honetan. (DD, 86)

Ezerezaren aurrean jartzen da nitasuna, baina ezereza ez da soilik intimoa,  
politikoa ere bada. Ez dagokio soilik poetaren nitasunari, herri honen izaera-  
ri ere badagokio. Eta alde bien artean kokatzen du poetak bere burua.

Poemategiak zortzi atal ditu. Bostek hasierako poemaren bertso bana har-  
tzen dute izenburutzat. Hiruk, azkeneko lau zatien artean kokatzen direnak,  
izen hauek hartzen dituzte: “Telegrama”, “Curriculum”, “Igarkizuna”.

Bost atal nagusiek (nagusi hasierako poemaren eratzailak diren aldetik,  
eta poema kopuru handiena dutelako) bost idazle ezagunen zitez hasten dira:  
kantu serbiarra lehenengoarentzat, eta Jon Mirande, Gunter Rummert,  
Russell, Nietzsche eta Atxagaren aipuekin ornitu eta zuzenduak.

Aipuna aipatzeari zuzena deritzot hemen, Joserra Garziaren testu askok  
metatestualitateaz hitz egiten dutelako.

Testuotan nagusitzen dena ingenioaren erabilpena da, norbaiti baino  
gehiagori bertsolaritza gogorazariko diona, askoz gehiago egilearen biogra-  
fia ezagutuz gero eta bertsolaritzarekin izan duen lotura orrialdeotara era-  
karriz.

Ahokotasunez eta esataritza duen abilezia begien aurrean nabarmendu-  
ko zaigu testuak irakurriz. Ditzolarien teknika aurkituko du irakurleak:

...mendebalde  
otsoa artzai dela  
herriak artalde... (DD, 15).

Bertsolaritzari eginiko aipamenak usu agertzen dira testuotan:

...maiz  
garaiz  
(ez) naiz  
Hiru oinetako bertso herren baten  
behin behineko  
zirriborrori... (DD, 18)

potorik gabeko  
bertso gaizto bat  
bizimodu hau... (DD, 21)



Bertsoak ere idazten ditu idazleak, eta puntu biko zortzikoz liburuan dagoen poemarik luzeena argituko.

Ez da zalantzarik bertsolaritzaren eraginaz, eta, gainera, gaurko ikuspegi-tik horixe zen errazena bilatzen eta aurkitzen.

Baina ez da dena ahozkotasunean bukatzen. Hainbat euskal idazleren ohiartzunak nabari dira testuan.

Lehen ataleko atea eta askatasunari buruzko hainbat pasartek Gandiaga gogoratzen dute, eta beraren “Artasoko salmoak”. Kopla zaharraren erabile-rak, eta ez teknika hutsak, erritmoaren oihartzunak berak ere bai, Juan Mari Lekuonaren soinua eragiten dit belarrietan:

Laberintoak lau ate  
bakoitzean bina kate  
zure zortziko arnas konpasek  
aspaldi preso naukate... (DD, 24)

Dena dela baliteke kantu zaharraren oihartzuna agertzea biongan.

Egoera (errealitatea ez esatearren) zentzunaren bidez ankaz gora jartzen duenean, poesian sarkasmoa erabili zuen Artze gogoratzen dut. Eta noizbait irudiaren taiukerak materia eta zehazgabea lotzerakoan Izagirreraren lehenbizi-ko poesiaren usaina nabari diot.

Zentzu honetan adierazi nahi nuen metahizkuntzarena, nahiz eta zentzu honetan soilik ez agertu. Ingenioa darabilenak behar beharrezkoa du esaldiari ezpala ateratzeko berritasunaren bila joatea, ingenioa berritasunean oinarritzen baita.

Ingeniotsuak originala izan behar du ... ingeniotsuak originaltasuna denaren gaineratik bilatzen du. Nabarmen ageri behar du. Estiloa, lehen esan dudanez, ikusle / irakurlea harrapatzen duen iluntasuna da. Arreta jar dezan era. Horrela bada, ingenioak hartu / harrapatu nahi du bere normaren desbideraketatik. (Marina, 1992, 115)

Ingenioaren oinarria egunerokotasunetik irtetzea bada, normatik desbide-ratzea, egoerari ezpala berriak ateratzea, ohikoa da esaldiaren antzaldaketa, erabilera, espresamolderik erabileena izatea poemategian. Esaldi erlijiosoen itxuraldaketa liteke aipatu beharreko lehen adibidea, tradizio handiko ironia jokoa izan delako lehenik, eta usu erabiltzen dena gero.

Honela “sortzez garbia”, Ama Birjinari esaten zaiona:

...sortzez gazia... (DD, 13)

bihurturik agertzen da poemategian, nigarrezko haranean bizi garela oroitze-ko, agian.

Espresabide nimiñoa da izan, eta ez du arreta handirik pizten irakurlearen-gan. Espresabide aberatsagoa eta aipatuagoa, erabilgarriagoa eta eraginkorra-

goa da paradoxarena. Paradoxari, egoera baten aho biri ezpalak atarutzen tre-bea da Joserra Garzia. Kontrajarpena litzateke adibiderik aipagarriena:

Askatasun zale  
zaretelako  
ateak zabalik  
nahi dituzue.  
Baina askatasunak  
ez du aterik maite.  
Zabalenetik ere  
ez da  
kabitzen... (DD, 14)

Hitzaren esanahiaren gainean adierazkizun desberdinak pilatzen ditu idaz-leak, hitza alde askotatik begiratuko balu bezala, eta begirada bakoitzean ikuspegi berriak aurkituko balitu bezala. Irakur dezagun atea nola alde bitara zabaltzen den metafora bikoitz honetan:

Atea  
askatasunaren ikur  
gartzelaren oinarri... (DD, 19)

Hitz jokoek ere berebiziko paper itxurosoa betetzen dute poetika honetan, maiz hitz ordenaren aldaketatik sortzen delarik:

...dio  
poetaren profeziak...  
profetaren poesiak  
dio... (DD, 20)

Hitz jokoak eta paradoxak nagusitu egiten dira itzulitzat ematen diren tes-tuetan. Hau da, poemategian Oskar Hahn-en poema bat itzultzen da, eta Rainer Brambach-en beste bat.

Itzulpena bera joera metatestuala da, beste testu baten gainean eraikitzen den testua alegia.

Agian aipa genezake azken espresabideren bat: *testu collagea*. Ingenioak zatia maite du, izpia, nimiñotasuna, ezpala. Eta zatien bilketarekin sortzen dira testu zatituen agerpenak. Joserra Garziari ez dio espresabideak ihes egi-ten eta testuan barrena hainbat elementu desberdinekin jokatu du.

*Collagea* da “Igarkizuna” testua eta zatien bilketa ortografia zeinuekin eraikiriko ondoan, 82. orrialdean eraikiriko poema:

?  
...  
(  
bezpera eta abar.

Aldaera guzti horren mozorroan betetzen da ingenioa, agertzen ironiaren aurpegia, azaleratzen oilaun azpiko behazuna.

Baina denok dakigu, jada, eta atearen metaforarekin jarraritzeko, ironiak zuzenbide bi dituela, batak hizkeraren jokora begiratzen du, bestea tragedia-  
ren iluntasunean ari da ate joko.

Ironia, paradoxa, hitz jokoa espresabide olgetaria da. Baina jokoa ez da bere hartan bukatzen, idazlearen burura zuzentzen du katalejoaren begia.

Orain arte jokoa kanpoaldea erakutsi dugu, azala, elementurik nimiño-  
ena. Baina guzti hau zertara dator? Edo zer adierazteko erabili izan da? Zein da mezua?

Testuan lehen-lehenik aipatzen den gaia nitasunaren inguruko zalantza da. Nitasunaren desagerpena, nitasunaren zatiketa. Gai hau Baudelaire-rengandik hasita gai nagusia izan da poesia modernoan. Modernitatean nitasuna eusgarri-  
rik gabe geratzen da, eta hortik hasten da Garziaren ibilbidea:

...eztanda handiz  
lehertu da  
NERONI  
ispiluaren bestekaldean  
INOREN  
puska txikitan  
in vitro  
triskaturik... (DD, 17)

Pott bandakoek erabiltzen zituzten gai bi erabili ditu hemen idazleak: nita-  
sunaren desagerpena, letra larria ironiaz erabiliz, leherketa izendatuz, txiki-  
zioa agertzeko zatiketaren gaia aipatuz, eta ispiluaren hurraketa, ispiluaren  
bestekaldean ere ez dago babesik, beste lurraldeetako itzala ere itzali da. Ezinbestean beraz, Bernardo Atxagaren aipu bat aukeratzen denean, *Etiopiako* bertso anitz aipatuak erabiltzea: “Hautsi da anphora”ren gaia.

Nitasunaren inguruan eraikitzen dira beste gai batzuk ere. Agerian bi dira: maitasunaren aterbearen agerraldia, eta niaren eta munduaren arteko lotura.

Ni txikituaren babesa bihurtzen da maitea, eta, erotismoa, behintzat, une zoragarritzat adierazita dago:

...zurezko nahi zaitut  
ez burdin  
ez gurin  
zurezko zure izan nadin  
zurean ni... (DD, 78)

“Zure”ak indartzen du nirearen mundua. Horrelaxe maitasun uneak beti-  
rako nahi dira Lizardiren bertso ezagunari alderantzizko zentzua emanez:

Su gar harroa iraungitzean

ilintiak gori diran  
ase ondoko lotan gautzala  
ailedi betirako gau... (DD, 79)

Beste poeta batzuegan ere ikusi dugu joera hau. Felipe Juaristik adibidez, ibilaldi berdina aipatzen zuen, joera nihilistetatik maitasunera babes bila. Estiloak nabarmentzen du, baina, Joserra Garziaren poesia ibilbidean. Olgetari, mehe, arin agertzea da bere espresioa, bai hitz jokoaren itzalpean, bai kopia zaharraren kolorearen argitan.

“Baina bizi gara” sail osoa maitasunari eskainitako kantu fina da. Heriotza presente badago ere, mehatxuka bezala:

Maitasun handi oren ostean ezereza dago zelatan (DD, 33)

Ihauteria  
garizumaren bezpera.  
Heriotza  
bizitzaz mozorroturik... (DD, 72)

esaten bada ere, eta onartu (metafora erregistroa erabiltzen duen poman) maitasuna uneko dela ere, sailak maitasun festa bihurtzen du poetaren bizitza.

“Infinitoa” edo “betikoa” hitzek osatzen dute testugintzaren alderik baikorrena.

Nitasuna eta munduaren arteko loturaz Euskal Herriko giroari buruz Joserra Garziak erabiltzen duen ikuspegi ironikoaz hitz egin beharko genuke. Ironikoaz eta hein berean tragikoaz, zeren herri hau maite du, baina badaki, horregatik, kritikoa izaten.

Bada zortzikoz idatzitako bertso sorta luzea herri gidariei buruz. Bertan Sansonen alegoria erabiliz, etsaien herrira joan zen Jonen ustez heroiea izaki, istorioa kantatzen zaigu. “Ni”a bertso zuzenetan herri bihurtzen da, eta herriaren agoniaz larrituz eta itxaropenaz amestuz ari zaigu poeta.

Ifarra galdu eta  
galdurik gabiltza  
historiaren arratsberan  
Hegan hasi nahi eta  
hegoa era galdu  
Nafarroako ilun-Navarran  
Eta galdu. (DD, 45)

Poema hauetan mundu biren, edo ideologia biren artean kokatzen da poeta. Herriaz mintzo denean badu askatasunean esperantza.

Indarrez flako bagabiltz ere  
ez erregutu inori  
gure esku dago zutik jartzea  
geuk hondatutako hori... (DD, 29)

Baina niaren eta munduaren arteko lotura etorkizunaz mintzo denean etsipena agertzen da leihotik begira:

...trena hartzeko ilusioa  
galduriko bidaiari ohi nekatuak dira  
trenbide ondoko hiriak  
esperantzatik aspaldi jubilatutako  
atso-agure eskarmentu gehiegiko hauek  
mutu diraute... (DD, 92)

Eta oraindik garbiago beste honetan:

...hil da esperantza  
atean joka ihardun zitzaigun  
geratu arte hilotza... (DD, 93)

Gizarte Historian itxaropena jarri, metafisikan etsipena: hona hemen poetika honek eskeintzen dituen bi aldeak, poetak batera ala bestera egin ez dakiela, edo biekin geratu nahi lukeela ematen duela.

Itxaropen eta etsipenaren artean H. M. Enzensberger maite duen poetak errealitateari begiratu nahi dio, Euskal Herriak pasatzen duen pitxadura izugarriaren artean.

Baina Enzensberger eta poesia alemana aipatzen dugularik, zeina nabarmena baita liburuan agertzen diren itzulpenen bitartez, badago gai berezia liburu honetan hurrengoari atea zabaltzen dizkionak. Enzensberger-kiko lotura da- eta liburutik liburutik pasabide. Poeta alemaniarraren lanean ironiaz, errealitatekiko jokoaz gainera badago hizkuntza poetikoaren baliogarritasunari buruzko hausnarketa. Hamburger ikerlariak honela deskribitzen du haren poesia:

Alemanieraren molde guztiak erabiltzen dira bere aurka eta zaztarra eta hilerria sortu dituen poesia tradizioaren aurka, Thomas Mannek deitu zuenez, “botereak babesturiko tradizioa” izan baitzen. (1991, 259)

Nitasunaren haustura gertatu den modernitatean, hizkuntza poetikoaren agorra eta ezereza bat-batean agertzen da. Poesiaren isiltasunaren gaia, bat-batean zutitzen da poetaren aurrean. Joserra Garziak ere heldu dio gaiari eta galdetu egion dio bere buruari hizkera poetikoaren balioaz:

...irrintzia dut aita  
ama isiltasuna  
bortxaz  
estali zuena...  
Isiltasunaren alaba naiz  
hitza  
deitzen nautena... (DD, 54)

Isiltasuna eta irrintziaren artean altxatzen den bortxaz sortzen da hitza, ez du toki handirik loratzeko.

## 2. *Zotal egunak*

Bezperaren aipamenarekin hasten bada ere, *Zotal egunak* liburuak etorki-zunerantza begiratzen du. Zotala urtean zehar gertatuko den eguraldia asmatzeko baita.

Halaz ere, azalaren barneko eta idazlea aurkezteko erabiltzen den zutabetoan eta, dirudienez, idazleak idatzitako oharño batean “aurrekoaren hildotik beti ere” idazten duela jakinerazten zaigu.

*Dena dela* liburuaren espresamoldea eta pentsakizuna ageritan daude *Zotal egunak* honetan ere.

Batasun hari bat bilatu zaio, kanpotik, liburuari. “Bezperakoa” da ataria, “Biharamuna” azken saila. Tartean 6 zotal egun, guztira zortzi atal osatu arte eta Joxe Azurmendiren poesia gogoratuz, “Eskeintza Atzeratu” batez liburuia ixteko.

Gai mundua ere antzekotsua dakar Joserra Gartziak bigarren liburu honetan. Bada desberdintasunik? Non aurki genezake? Estilo ironikoak ere bere hartan jarraitzen du, baina nik desberdintasun bi aurkitzen dizkiot liburu honi: estuago eman da poesia eta filosofiaren arteko besarkada, eta idaztankera irmotu egin da, erregistro aldetiko gora-beherak leunduz. Poemen itxurari arretra jarriz gero, luzaeran eta sakoneran irabazi egin dutela ohartuko gara. Narratibitateari toki handiagoa eskaini zaio eta mehetu hitzaren jokoak zuen esparrua. Oparoagoa da era berean poemen kopurua, eta poesia ttiki-ttikiak eskastu egin dira.

Estetika berdina lantzen da liburu bietan, baina era da aldatu dena.

Batasun haria argiagoa da liburu honetan eta ez soilik zotal egunaren egituraren mehearen gainean eratu delako, sail bakoitzak barne batasun irmoagoa duelako baino. Zortzi sail nagusiok astiro irakurritz gero honelako egitura nabaritutako diogu.

Lehen sailak, “Bezperakoa” deitzen denak munduaren sorrera hartu du abiapuntu Unibertsoaren Sorburua. Denboraren eta unibertsoaren lehen pausak kontatzen zaizkigu hor, kabalisten letren irakurketaren bidez, zenbaki txinar magikoen bidez eta Grezia zaharreko elementuen bidez.

“Lehen Eguna” sailak munduaren jaiotza du gai buru:

Hasieran Jainkoa zen

esanez hasten da atala. Hurrengo “Big bang” poema unibertsoaren sorreraz mintzo da. Mitoen narrazio biblikoek (Kain, Abel, Sanson) zein Grezia zahar-rakoek (Sisifo, Antigona) damaiote batasuna sailari.

Sisifok esan zidan  
belarri ertzera  
ezetz  
ez dela iragana  
geroa dela  
ez jaso izanak  
jaso beharrak  
egiten duela harri harri  
eta zama astun  
eta oraina oinaze... (ZE, 22)

Mitotik poesiara eta errealtatearen arteko loturatik mitora, “Bigarren Eguna”k hiria eta gaurko giroa hartzen ditu kantu eta kontagai. Tonu poetikoa deskripzioek eta hiriko pertsonengan ipinitako arretak jartzen dute.

Jaiegunetako jantzi multikoloreak erantzi eta martxo hondarreko eguzki epelera eskegi ditu parke zaharrak:

Biluzik parkea  
itxirik laberintoko ateak  
oihurik ez montaña suizoaren aldetik  
autokotxeak talka berrietarako indarberritzen  
lo

Alferrik dute erlejuek  
arratsaldeko hirurak eta laurdenak seinalatzen.  
Erreka misterioitsuko gurpilak  
—erresumako erloju nagusiak—  
ez du uherkan denboraren urrik mogitzen... (ZE, 29)

“Hirugarren Eguna”ren kokagunea idazle honengan falta ezina den hausnarketan aurkitzen du irakurleak. Stephen Hawking zientifikoari eskainiriko poemak garbi azaltzen du bere kezka berri:

Betirako, betirako, mintzo da  
gizakia mintzoarekin aho batez  
txunditurik  
dagoeneko iragana den  
unibertsoari begira... (ZE, 42)

“Laugarren Eguna” saileko gaia ere ezaguna izan dakiok aurreko liburua irakurri duen edonori: emakumea. Orain ere aterbe, denboraren danbadaren aurrean babestoki, iraunkortasunaren gerizpe.

Ni eta ni, nini horien  
ispilu imajinatutetan  
zorion lipar ikaratiak  
eternalak dira... (ZE, 51)

Orain ere emakumeran begiradak egiten du liparra iraunkor. Denbora kezka den eleetan maitasuna beti da iraunkortasunaren kabi.

“Bostgarren Egunak” idazlearen egunekotasuna hartzen du mintzagai; horren autobiografia. Egunkarien berrien isladek ematen diote osotasuna testuari. Ironia tonuak bere agerbidea badu eszenatoki honetan, hizkuntzari buruzko iritziak bere tokia hartzen du atal honetan. Atal bikoitza beraz:

Esnea, mermelada, gerra eta katastrofeak  
kadukatze epea agerian dutela banatzen zaizkigu... (ZE, 63)

bezalako bertsoetatik hizkuntzarekiko agertzen duen kezkaraino moldatzen da saila.

“Akino, Corazón, Bihotza”:

Madrilgo egunkari ezagun batean irakurria dut gazteleraz  
Jose Rizal, Filipinetako heroe nazionalak gazteleraz  
idatzi zuela hilaurretiko bere azken agurra. Gazteleraz,  
tagaloz, alemanez eta ingelesez bazekien arren,  
kolonizatazaila espainiarrek gazteleraz afusilatu  
zuteneke bezperan, maite omen bait zuen gaztelera  
Jose Rizalek, Kolonizatazaileri gorroto izanagatik ere... (ZE, 72)

Hizkuntzaren galerak eta erabilpen bikoitzak kezkatzen du Joserra Garzia, zeren hizkuntzarik gabe ez baitago poesiarik. Baina honen gainetik agertzen du poetak inguruarekiko duen atxikimendua.

“Seigarren Eguna” heriotzaren gaiaren inguruan moldatu du poetak:

eta orduan  
—bere orduan, nere orduan—  
inguratuko zait Balbea  
—bizitzaren auditore zeken hori—  
ea  
zer diodan eskeintzeko  
eta nik  
hau, hori eta hura  
azalduko dizkiot  
—galdutako aukeren inbentarioa... (ZE, 75)

“Biharamunekoa” begirada txikia da, eta poetak gairik gai egiten duen errebasoa dugu. Ez da faltako Xenpelarren moldean eraturiko bertso-sorta, ez hain gustuko duen ironiaren ziztada.

Ama bezala egia:  
bakarra  
dela esan eta  
bakoitzak berea maite... (ZE, 88)



Aho formulen tankerako poemotan ez da falta Garziaren ezezkortasunaren seinalerik:

Utopiaren errautsak  
besaulki azpian dautza... (ZE, 94)

“Eskeintza atzeratu” batek ixten du liburua eta sarrera aurrean jarritako idazlearen erantzungailu automatikoaren mezuarekin egiten du joko simetrikoa.

Errepasu beharreko bezain astun honen ondoren, ordua da testuan diren hiru-lau zertzelada nagusi aztertzeko.

*Zotal egunak*-ek modernitatearen filosofiaren gunean kokatzen du poeta-  
ren burua. Postmodernitatearen alderik azalekoenak kritikatzeko ditu zenbaite-  
tan:

Demokraziaz mozkortzen naiz  
diruarekin txorutzen naiz  
hippie izanaz lotsatzen naiz  
posmodernoen eredu naiz... (ZE, 70)

Ezin esan dezakegu poema eredugarria denik honako hau. Poema antzutik hurbilago dago.

Baina badira poema gehiago nihilismoaz aritzen direnak. Nietzsche-ren aipamenak zabaltzen du “Biharamuna” saila, eta, ildo honetatik begiraturik, esanguratsua da “Seigarren Eguna”ri jarri zaion Hemingway-en aipua:

Ezerez gurea, ezerezean zaudena  
ezerez bedi zure izena... (ZE, 73)

Jainkoaren heriotzaren aurrean jartzen den poesia da Joserra Garziarena, Miranderenari zeharka begira ari zaiona.

Joserra Garziaren berezitasuna zera liteke: poesia eta filosofia elkartzeko ahaleginetan ari dela. Arrenkura honek bultzatzen du aforismoak asmatzera, eta errealitatea ironiaz begiztatzera, errealitatea poesian dela esatera:

Hitzak sortzen du errealitatea ... Jaime de OJEDAK... (ZE, 100)

jakinda ere, María Zambrano-ren irakurle on gisa, badela diferentziarik poe-  
sia eta filosofiaren artean:

Poetak, filosofoak ez bezala,  
ez du osotasunik nahi...

María Zambrano-ren hitzetan Joserra Garziak dioenez. Baina idazle honen filosofiarako joera ez da hurbiltasunean amaitzen. Bere poesia bereizten duena, zientziaren filosofiaren erabilpena da heriotzak sorturiko zalantza argitzeko. Liburuaren barnean hainbat zientziagizon agertzen dira: Galileo, Russell, Wittgenstein, Stephen Hawking, Einstein, Karl Ernst Van Baer, guztiak astro-

nomiatik zein fisikatik munduaren giltzarria asmatu nahiez, guztiek galdera berriak sortzen izaerari buruz, denborari buruz, nihilismoak sorturiko ertzetan.

Poetak esistentzialismoaren harridura alde batera utzi, eta galdera zabal-tzen dio izarren munduari. Honetan beste zientziak gai harturik lurralde ba-tzuetan usu egin izan ohi den poesiara hurbiltzen da. Baina ez da hor sartzen, ardurako duena ez baita zientzia gai gisa, zientziak denborari buruzko galde-raz izan dezakeen gakoa baino.

Zientzia ez da gai. Zientzi gizonak gehiago dira, narratibitatearen bidez, alegoria. Narratibitatea liteke poesia honen beste ezaugarri bat. Filosofiara egiten den hurbilketa bera poesi bihurtzeko ahaleginan dago, kontzeptuen poesia, nahi bada, eta erretorikak “kontzeptu irudia” izenez ezagutzen dituen espresabideak erabiliz: paradoxak, hitz jokoak, paranomasiak.

Zein da naturaren benetazko interpretazioa  
Galdetu zuen Karl Erns van Baer jaunak  
bere hitzaldiaren amaieran... (ZE, 40)

Eta hain zuzen ere, horixe da zientziaren laguntzaz, poesiak egiten duena. Galdera bera da modernitatearen ondorengoa, beste esaldi hau bezala, poema liburuaren atariko hain justu:

...nekatu da historia ...  
izenik gabeko ezerezaren sehaskan... (ZE, 13)

Modernitatearen ondorengo joera honek *Dena delan* agertzen ez ziren moldeak ekarri ditu.

Aipuen aipamena gorde egin bada, narratibitatearen agerpena da liburuan espresamolde lehena. Eta metahizkuntzak argumentuaren aipamen forma hartzen du. Nitasunaren galera azaltzeko ez da hemen hitz jokora jo, Borges-en istorio baten kontaketa baino. Tximeletak direla amets egin duten gizonen istorioa da:

Paperezko ametsen atalaiatik  
tximeleta direla amets egin duten bi gizonen  
erreparatu die Jorge Luis Borgesek  
eta badaki  
gizon bat bera direla gizon biak  
edo  
tximeleta biak tximeleta bat bera:  
Atalaiako kaiera zabaldu eta,  
honako ohar hau idatzi du behatzaile itsuak  
zorabioen orrialdean:  
Gertakari bakar baten errepikapena, aski da  
historia nahastu eta deustatzeko  
historiarik ez dela frogatzeko... (ZE, 36)

Liburuko poemarik ederrenetarikoa da eta, Joserra Garziaren asmo munduen eredu.

Narratibitatea nagusituz joan ahala, gaur eguneko poesiaren beste ezaugarri batzuk agertu dira: zatiarekiko miresmena, mass medien agerpena, bai zinema dela, bai egunkariak. Zinema munduko heroien agerpena: Orson Welles ezin aipatu gabe utzi, liburu bietako pertsonaia baita, baina orain era adierazgarriago batean plagioaren alde agertuz:

Orson Wellesek trumoi eta tximista  
egin zuen zuribeltzeko zeluloidetik:  
arte oro da imitazio. (ZE, 43)

Poesia honen beste joera bat gauzen agerpenean datza. Zenbait poematan gauzak lehen planora ekartzen dira; *collagea* eta planu aldaketak bilatzen dituelarik:

Edertasuna zein den tristea  
poema baten amaierarako,  
idatzi du  
bidai txartel zimurtuan  
1988-III-28  
JOAN-ETORRIKOA  
95 pzt... (ZE, 31)

Erregistro aldaketa bortitzegia nabari dezakegu poeman, beste batzuetan gertatzen dena, bide batez. Baina ezin da ukatu Joserra Garziak sendotasun handiagoz eman diola bidea *Zotal egunak* poemategiari.

## Bibliografia

- GARZIA, J. R. (1988): *Dena dela*. Baroja. Donostia.  
— (1991): *Zotal egunak*. Kutxa. Donostia.
- MARINA, J. A. (1992): *Elogio y refutación del ingenio*”. Anagrama. Bartzelona.
- BALLART, P. (1994): *Eironeia. La figuración irónica en el discurso literario moderno*. Sirmio. Bartzelona.
- HAMBURGER, M. (1991): *La verdad de la poesía. Tensiones en la poesía moderna de Baudelaire a los años sesenta*. FCE. México.



## LUIS BERRIZBEITIA DOLUMEN ETA ESPERANTZAREN SOLASA

Luis Berrizbeitia idazle mirestua bezain gutxi aztertua da. Egia esan, hobe da irakurria izatea, aztertua izatea baino. Gehienetan, ordea, ez irakurriak ezta aztertuak ez dira poetak. Berrizbeitiaren kasuan, irakurle on batzuk lortu ditu, eta jarraitu du bere bidetik. Andolin Eguzkitzarentzat, adibidez, “azkenengo hamar urteotan euskaraz irakurri ditudan poema liburuetan onenatarikotzat” jotzen du Berrizbeitiaren *Eremu karroinduak*. Xabier Mendigurenek ere, “liburu miragarria” deitu zuen haren lehendabiziko lana, *Zoperna jenerala*, 1986. urtean Eusko Jaurlaritzak eratzten zuen Lizardi Saria irabazi zuena.

Luis Berrizbeitia poema liburu egilea, Abadiñon jaio zen 1963. urtean. Durangoko *Txistu eta Tanbolin* aldizkarian parte hartu ondoren, poema liburu bi argitaratu ditu: *Zoperna jenerala* (1987) eta *Eremu karroinduak* (1992).

Luis Berrizbeitiaren poesiaren aurrean iritzi nagusi bi hedatu dira, batik bat. Bata, poema liburuetan aurkitzen den txandakatzea poema herri-kutsuko eta modernoaren artean, eta hizkeraren kultismoak erakusten duen joera.

Banaketaren zioa Berrizbeitiak azaldu zuen argio:

Esan zitekek era bitako poemak daudela: alde batetik, eredu tradizional bati jarraituz edo eginak; pizkat lirika herrikoiairen liluraz sortuak; eta gero, bada, modernoagoak edo deituko genituzkeenak. (Zuazalde, 1987, 47)

Ondoren iruzkin egileek usu erabili dute ideia. Halaxe, Xabier Mendigurenek:

Poemen nolakoaz hizketan hasten bagara, egilea bide bat baino gehiagoren aurrean dagoela esan behar, aukera kontrajariak dituela, agian. Kopla eta balada zoragarriak burutu ditu batetik, elaborazio izugarrikoak, Behe Nafarroako eta Zuberoako apokrifotzat eman litezkeenak. Bestetik, poema libreetan metaliteraturari buruz dihardu batzuetan, eta zenbaitetan aztarna antintelektualistaren bat erakusten badu ere literaturan soka luzeko diren gaiak dira nagusi. (Mendiguren, 1988, 6)

Era berean, Felipe Juaristik.

Egiturari dagokionez, batzuk bertso moduan idatzirik daude, eta, beste batzuek, ordea, gehiago dirudite prosazko lan. (Juaristi)

Banaketaren arrazoia Berrizbeitiak eman du *Zoperna jeneralaren* aurrean, poetika gisa jarritako hitzaurrean:

Batzuk libreak eta besteak lotuak... Bertso libreek azalpenik behar dutenik ez dut uste, baina bai besteek, zeren bat baino gehiagori irudi baitzaizkioke lerramendu liriko soso edo inora ez darontsaten olgeta metriko hutsal batzuk... Sensibilitate bat mamitu da hor, sinbologia eta hizkera gozo eta hunkigarria. (ZJ, 8)

Hizkera kontua, sensibilitate kontua, sentipenarena zio berezia da liburuan. Lotua dago herri poesiaz egiten den baieste hori bere poesia osoaz egiten duenarekin. Berrizbeitiaren olerki liburuek ez omen dute batasunik, aitortu duenez:

Zoperna generala (*sic*) ez duk gai inguru baten bueltan eraikitako liburu. Baizik eta poema sail bat. (Zuazalde, 1987, 47)

Baina poemategian, eta hauxe da batasun-hari interesgarria, poema bakoitzaren azpian badago sensibilitatea:

Irakurlea liburu honetan barnatu ahala konturatuko da poema bilduma baten aurrean dagoela, eta poemek elkarren artean duten lokarria ez dela bilatu behar ontsalaz egitura edo plan aurrez zehaztu batean, denen artean epaixkaz eta gorderik bezala dagoen sensibilitate batean baino. (ZJ, 7)

Herri lirikako poemak sensibilitate honen alde agertuko liriteke, liburu guztian zehar aurkitzen den batasun haria indartuko lukete. Ez da bere funtzio bakarra, aldiz. Liburuetan egituraketa formala dago, erritmo kontu bat baino ez bada ere, eta herri kantuen inguruan osaturiko egituraketa da. Orohar, esan daiteke poemek erritmo bat jarraitzen dutela: hiru poema solte, moderno, metaliterario eta bakar bat lotua, herri kutsukoa, liraina. Txandaketa hau liburu bietan betetzen den arau gisa agertzen da. Baina biotan ere, araua behin eten egiten da, eta poema lotu bati poema aske batek jarraitzen dio, ondoren beste herri-poema tankerakoa agertzeko. Poema lotu biren artean geratzen den poema solte bakarrak, "Izkribatzailearen parabola"k eta "Sinfonia palestinarra"k, bakoitza banatan, zentzu berezia du poemategian, era batez edo bestez, poemategi osoko esanahia azaltzen du, lehenengoaren kasuan, edo, zerbait berezi adierazi, bigarrean. Beti ere, era batez edo bestez, zeren poemategiak ez baitira gai-ardatz bakarraren inguruan osatzen eta zail litzateke poema bakarrean poemategiko zentzu guztiak aurkitzea.

Funtzio eratzaile horren gainera, herri lirikaren esparruan osaturiko poemek estilo-funtzioa betetzen dute, ez baitira molde bakarreko testuak. Jose

Austin Arrietaren olerkigintzan gertatzen den antzera Berrizbeitiak bere esku trebea herri molde desberdinetan erakusten du, ahalbide guztiak erakutsi edo esperimentatu nahian. Ez dira soilik koplak eta baladak. Begirada arin batean koplak zaharra, koplaz osaturiko bertsomolde narratiboa, ditxo tankerako aha-paldia, bertso lirikoa, herri lirikako metroetan onduriko estrofagintza, balada, hamarrekoak, eta beti ere, lirika herrikoia formala eta tankeraz osaturiko poemak. Aberastasun handia dago, bai moldeaz, bai eitez.

Eta gainera, ez nuke inondik inora gutxietsiko poeman alde semantikoa. Gauzak dauden bezala egonda, badirudi, ezusteko edo eznahiko banaketa egiten dela, alde batean aurkitzen dira poema solteak, idazlearen pentsamendua adierazteko, eta, beste aldean, herri tankerakoak, adornurako, irudien ederra emateko edo esku trebezia adierazteko. Eta ez da horrela, ez. Testuok semantikoki lotuak daude besteekin, hauek ere hitz egiten dute herriaz, arteaz, denboraz, hauek ere, *Eremu karroinduak* liburuaren hitzaurrean esan zaigun moduan, “haritzaren ixu dardara aizkoraren bixtan” dira. Bestela, nola uler, “Timor solitudinis turbat me” bezalako poema besteetarik urrun?

Eskaleren gisa hire amoma  
Galdez ari natzaik, oi zoriona  
Zeren partitzen haiz deus eman gabe?  
Timor solitudinis turbat me... (EK, 53)

Bigarren ezaugarri aipatua hizkeraren erabilera da. Entzun ditzagun kritikoak:

“Eremu karroinduak” hontan poetaren mintzajea da agertzekoa: iparraldeko “kutsua” nabarituko deioe frankok; gük, ordea estimatzen dügü batüaren aberasteko manera hori. Herrien Arteko Alkargoaren seinale. (Borda, 1993, 71)

Egilea bizkaitarra delarik, ekialderako jaugina du, aurreko liburuan Zoperna Jenerala baino orekatuagoa hala ere. Eta gurean, giputz zentris-moarekiko erreakzioaz, hain arrunta bihurtu den mirespen itsutik nahikoa bazter egon arren, ez litzateke bat ere txar ... sarritan han hemenka sortzen zaion ... bere Bizkaiko berbakera ederrari aukera gehiago emanen balio. (Eguzkitza, 1995, 17)

Jakina da Bizkaiko olerkari gazteen artean badagoela Iparraldeko euskalkietara jotzeko jite berezia. Sarrionandiak zabaldu zuen bidea, eta haren ondoren etorri dira Juan Ramon Madariaga eta Berrizbeitia bera. Oso talde berezia da, hizkera aldetik ekialdera jotzen duena, eta poesiaren ulermen aldetik, Sarrionandiak irekitako bideetatik dabilena. Noizbait esan izan da industrializazioak eremu bihurturiko lurraldeetan bizi direnen erreakzioa dela beste muturrera jotzea paradisu galduen bila. Eta ez da falta joeraren aurka altxatu den ahotsik:

Eta bestetik, eta hemen Bilbon nagoen ezkerro, nik beste sintoma bat ikusten dot, sintoma larria, larri-larria, gure Bizkai alde honetan.

Lehenengoa da Bizkaiako poetak eta Iparraldea, eta hori da agonia baten lekuko. Gure euskalkia, gure hemengo euskerea, hil aginean dago, eta euskeraz poesia Bilbon eta Bizkaian egin gura dauanak, gehienek jotzen dabe lexiko bila eta mundu bila Iparraldera. Hor dago lehenengoa Sarrionandia... Gero haren epigonoak atzetik etorri direnean, Berrizbeitia... Juan Ramon Madariaga... Andolin Eguzkitza... Amaia Iturbide ez horrenbeste, eta izatez Enkarterrikoa dan Carlos Santesteban (*sic*), danak Zuberoagaz maiteminduta, danak hango lexikoa baliatzen, eta esan gura dau honek guk hemen ez dogula literatur eredurik topetan. (Jiménez, 1993, 225)

Hemendik datorkio, bada, Berrizbeitiari batek baino gehiagok aipatu duena: Sarrionandiarekiko lotura estuegi izatea. Hona Mendigurenen iritzia:

Abadiñotar honen idazkerak beste durangotar batenaren antz handia baitu sarritan, Joseba Sarrionandiarena, alegia. Antzekoa batzutan lexikoa, oso antzekoak gustoko idazleak, eraginak, poemetan agertzen diren gai eta kezak. (Mendiguren, 1987)

Ínoiz entzun, ez idatzita ikusi, dut Berrizbeitiaren tokia Sarrionandiak hartua duela. Horrenbestearino? Nik, antzekotasunak ukaezinak badira ere, desberdintasun nabariak ikusten ditut bien artean. Bat lexikoa, orekatuagoa da Sarrionandiarena, Miranderengandik idazle klasikoengandik (ez da Duhalderena lehen liburuko izena?) ikasi du Berrizbeitiak; honengan jitea ez da soilik lexikoan agertzen, joserka kontua ere bada, batez ere hitzaurretako prosa ikusiz gero; eta, handiagoa dena, urrunago doa jokoera. Bestalde, Berrizbeitia ez da agertzen haikuzale, Madariagak egin duen moduan.

Hizkeraren kontuak dakartza Sarrionandiarengana eta on da bidaia jarraitzea, eta honengandik beste eraginetara jarraitzea. Sarrionandiaren eragina aitortu ondoren Berrizbeitiak beste idazle bi aipatzen ditu eta zuzenean aipatu gainera zer diren haiengandik miresten duena.

Niretzako behintzat, Borges en eskeptizismo elegantea, bere erretorika doia, sobramarik gabea... idatzi zuen ... hizkuntzaren bere maitasun zehatza eta bere adrezia narratibo ta poetikoa. (ZJ, 10-11)

Borges en mitoek utziriko arnasaren ondoren, Kavafis aipatu beharrean aurkitzen dugu gure burua. Ez du honetaz aipamen berezirik egiten Berrizbeitiak, baina garbiak dira “Diotokoylos” gisako pertsonak, hizkera erretorikoa, diskurtso morala eratzeko modua. Kavafis-engan ikasitakoak dira. Ez du alferrik esaten Felipe Juaristik, abadiñotarraren zenbait poemek ipuinen antza dutela, egiaz zenbait poema narratiboak direlako zuzenean.



Honaino Berrizbeitiaren poesiaz orain arte egin den gainbegirada agertzea izan da gure asmoa: moldeen bikoiztasuna, hizkera, Sarrionaindiaren itzala eta eraginak. Bada tenorea, baina, Berrizbeitiaren iritzi eta olerkiak irakurtzeko.

Ez du Berrizbeitiak, hitz horrekin behintzat, poetikarik idatzi eta argitaratu, baina liburuen hitzaurreetan hainbat pista utzi ditu nondik nora dabilen ikusteko. Poetikaren marrazketak badu arazoa, poetaren hizkera, zorionez, analogikoa da irudiz betea, ez da kontzeptual eta deskribatzailea. Eta horrek gozamenerako abantaila badakar ere, “iradokiz betea” deitzen du Eguzkitzak, anbiguotasuna ere berarekin dakar.

Berrizbeitiarentzat poesiaren helburua garbia da: poesiak ikusmena hezten du, munduari buruz gizakiak duen ustea sakondu, heldu, zabaltzen du.

Poesiaren eginkizunetik bat, esan ohi da, gure ikusmena hezte da, miraz gauden aruntzat dauzkagun errealitatearen zati guztien aurrean. (ZJ, 7)

Idazleak aitortu du, ez duela poesiaren teorietan sartu nahi (EK, 8) eta, gainera, elaborazio intelektualak (ZJ, 8) maite ez dituela poesia definitzeko, nondik etor daitekeen Mendigurenen esaldi hura “aztarna antintelektuala”, bere horretan neke aurki dezakeguna liburu hauetan. Onartzen du poesia libre higitzen den:

...pentsamendu eta musikazko korrente bat dela. (EK, 8)

Teknika kontuak (eta hitza zentzu zabalean erabili dut) arretaz begiztatzen ditu, ordea. Konturatu da idazlea:

...poemarik espontaneoena, ez iruditurik ere, erregela zenbaiten arabera modaldua da. (EK, 8)

Moldaketa kontua da, ez da zalantzarik, hitz neurtuak ontzea. Eta neurri berean, tradizioaren arazoa sendo eta irmo agertzea, Bernardo Atxagaren hitzen bidez bada ere. Tradizioak euskarriak ditu poetarentzat, eta esperimentalismoak egiten ez duen aukera izanik ere, bere abantailak ditu.

Partaiatuaren abantaila haundia ere badu, zeren deusek ez baitu hainbeste sustatzen partalertasuna nola zu jaio zaren komunitateko milaka lagunek euren burua adierazteko baliatu duten molde berean zeuronek zeurea ere adieraztea.

Atxagaren hitzak dira. Baina Berrizbeitiak bereak egin dituenak. Zaragi zaharretan bere burua adieraztea, horixe zen erronka.

Poetika honek azaltzen duen beste kontu bat da xinpletasunaren alde agertzen duela bere burua:

Ondoan irakurriko dituzuenei buruz esan dezakedan gauza bakarra da ahalaz sinpleak eta zuzenak egitera entseatu naizela. Gauza konplikatu eta

bihurrez engoitik badugu asea, eta ustea harturik nago gauza inportantee-  
nek ... ez dutela edergailurik behar beren garrantzia argiago erakusteko.  
(EK, 8)

Estonagarria da adierazpena, batez ere kontuan harturik ez dela sinplea  
bere hiztegia. Nola uler dezakegu, orduan, idazleak eman duen iritzi hori?  
Kontraesana eta arin emaniko hitza ez dela garbi adierazten da ikusten badu-  
gu luzatu egiten duela testua:

Sinpletasuna mespretxatzen irakatsi diguten aro honetan, nik nire burua  
bere zerbitzura ezarri nahi dut, apur bat badere, hura gutxiesten duten guz-  
tia despit eta hura ontza harturik ere oraino aski maitatzen ikasi ez dutenen  
alde. Bertzitea delako ene xedea, eta ez —salbuespenak eta ezintasunak  
salbu— girgileria. (EK, 8)

Felipe Juaristik, adibidez, zentzu zuzenean hartu du asmoa eta kontraesa-  
na azpimarratu du. Nola liteke sinplea hizkera neobarrokoko batez mintzatzen  
dena?

Badago gaur egungo poesiaren kritika. Apaltasuna eta xalotasuna alda-  
rrikatzen du, baina kontraesan baten aurrean gaude. Xalotasuna nola adie-  
razi hizkuntza mugatu gabe, hizkuntza ahalik eta xinpleena ez ezik, ahalik  
eta zabalduena erabiltzeke? Berrizbeitiak darabilen hizkuntza ez baita  
arrunta, oso aukeratua baizik, kultoa gehienetan, euskaldunon kodigoetara-  
ko, noski.

Hizkera poetiko eta xalotasunaren aldeko ustezko kontraesan hori ulertze-  
ko, nik uste, hiru edo lau zertzelada izan behar genituzke kontuan. Lehena da  
Berrizbeitiak, Andolin Eguzkitzak ikusi duenez, hizkera eta hiztegia sinpletu  
egin dituela liburu honetan, baina idazlearen joera horrek gutxi esango ligu-  
ke hemen darabilgun gaiaz.

Hasteko, kontuan izan beharko genuke poesia modernoan sortzen den  
tentsiorik nagusienetako bat dela poesia hermetiko eta argiaren artekoa, ilun  
eta ulerterrezaren artekoa. Hark irudi munduaren askatasuna maite du, honek  
batez ere, poesiaren esanahiaren transmisio garbia. Poesia modernoan bana-  
keta hau gertatu da poesia ulertzeko irizpide nagusia. Poesia xaloa egiten  
duela esaten duenean Berrizbeitiak, horretaz ari da: poesia hermetikoaren  
ukazioaz.

Poesia hermetikoa modu bitara lortzen da: edo sugerentziaren bidez, poe-  
sia zehatzaren esanahia hiru-lau zertzeladara mugatuz, edo irudiaren askata-  
sunaren bidez poesiaren mezua ilunduz. Ez surrealismoa ezta ere poesia mini-  
mala ez dira Berrizbeitiaren estetikaren ezaugarri. Bere estetikak beste zerbait  
behar du: narrazioa (ez zituen alperrik gonbaratu bere poemak ipuinekin  
Felipe Juaristik), esanahiaren prozesu geldoa, poema luzea, espazio eta den-  
borako agerbide nahikoak. Poemaren kontzeptuan da xaloa estetika hau, poe-

maren ulerkortasunean agertzen du bere gogo. Estetikaren aldetik da ulerkorra: esperientzia poesiak agertu duen argitasunarekin bat eginez da zuzena poesia. Berrizbeitiaren estetikak, Kavafis-i zerbait zor dion heinean, neobarrokismoa eta narrazioa behar ditu, esperientzia poesia eta neobarrokia biltzen ditu.

Xalotasunaz ari denean idazlea, pentsa bide dugu estetikaz ari dela eta inondik inora ez lexikoaz. Lexikoa, ez da dudarik kultista da, baina honetan ere badu justifikaziorik Berrizbeitiak: zaila da, baina neurri baten tradiziozkoa. Eta lehenago ikusi dugu nola lotzen duen, Bernardo Atxagaren hitzen bidez, tradizioa eta publikoaren onarmen edo ulermena.

Baina guzti hori, agian, teoria besterik ez da. Eta Berrizbeitiarengan ideia bi agertzen direla esan beharko genuke. Estetika eta poemaren asmakizunean, narrazio-teknikaren bidez, xalotasuna bilatzen du, hiztegi aldetik, ordea, ezin esan dezakegu sinpletasunaren bidez agertzen denik.

Kontzeptuen azalpenean, eta ustezko kontraesanaren bihotza ez dugu ulertuko beste hau kontuan hartu gabe, badago hitz bat gunean aurkitzen dena: “bertutea”. Xalotasuna ez da soilik agertzen lotuta ulerkortasunari, bertuteari ere lotua agertzen da. Zer adierazi nahi du honek? Arazoa da bertutea lotua agertzen dela “girgilaria” kontzeptuarekin, arazoa da idazleak maila desberdineko kontzeptu bi lotzen dituela: morala bata, eta estetikoak bestea. Bertutea aipatzeak adierazten du poesia hau ez dela soilik adornuzkoa, estetikoak, alperrikoa. Bertute duela esateak jartzen gaitu esanahia duen poesiaren aurrean. Nolako esanahia? Idazleari kasu egingo bagenio, eta ez dago beti idazleei kasu egin beharrik, bertuteak adierazpen estetikoak izango luke. Berrizbeitiaren lanaz hitz egin dutenak bat etorri dira azpimarratzen *Eremu karroinduak* liburuak mehatxu zehazgabe bati erantzunez idatzi dela, etsaiak sartu dira poesian eta horren aurrean poetak erantzun egiten du. Testua hau da, eta liburua zabaltzen du:

Poesiaren erresuman sartu dira etsaiak ...  
eraiki dute kanpamendua izenlagun haundiosez  
figura bihurri eta hutsalakeriez ...  
Poesiaren erresuman oraino idazten da  
baina jagoitik poemak debeku dira... (EK, 15)

Berau komentatu dute Itxaro Bordak eta Felipe Juaristik. Lehen irakurketa baten testuak sinpletasunaren aldeko adibide praktikoa izango litzateke. Baina, ikusten denez, proposamena urrunago doa.

Proposamena ideologikoa ere badela esan dezakegu. Bertutea bigarren esanahiaz konpromezuarekin lotuko litzateke. Poemak badu “Eurak eta gu”ren arteko banaketa gogoratzen duen zerbait, badu idealaren (poemak) eta errealtatearen (idatzi) arteko banaketa, badu Kavafis-en barbaroen arrastorik: etorri dira barbaroak eta gure artean dira. Nola ez lotu irudi kavafiar hori libu-

ruan agertzen diren konpromezu poemekin? Nola ez gogora ekarri “Sinfonia palestinarra” edo “Dien-Bien-Phu” poema anticoloniala? Azken batean lot dezakegu iritzia Euskal Herriarekin, eta honen, Arrietaren obran gertatzen den bezala, ametseko irudiarekin:

Gure herria poeta eta gerlari herria izan da  
eta hortakoz liburuak idazten ditut, eta hortakoz ezpataz hilen naiz  
hortakoz, Herioa, Gaua, Odola dira ene Jainkoak  
eta hortakoz Herri Haidor bat ene ametsetako jauregia... (EK, 57)

Bertuteak, hala ere, badu beste esanahirik poesia honetan. Nolabaiteko ikuspegi moralarekin elkarrizketan ikus dezakegu. Berrizbeitiak proposatzen du bere poesietan iritzi bat denbora, adiskidantza, bizitzari buruz:

Eta guztiarekin ere, gauza bat badakit:  
biziak eman ez didana  
herioak kenduko dit... (EK, 57)

Kavafis-engandik, agian askotxo aipatzen ari garen idazlearengandik, ikasitako teknika da. Poemak, anitzetan, joera diskurtsibo edo narratiboa du. Kulturalistetan ohi denez, askotan pertsonaia batek hitz egiten du.

Erritmoa motela da, erretorikak bere aldea hartzen du, errepikazioa nagusitzen da. Eta bukatzeko zitzada labur batek laburbiltzen du poemaren gunea, poetaren filosofia agertu arte. Berrizbeitiak idatzi du jeisten eta galtzen ari den mundu bati buruz:

ene urratsek lurrean pausuz pausu izkribatu duten iheroglifikoa  
eta, azkenik, nire etorkizuna ere nirea da, eta hartan, bukania  
fina, pazentziaz eta isilik eni so  
bi metro luzeko ahanzmen zizaretsua... (ZJ, 53)

Badu Nietzsche-ren eraginik mundu ikuskeran. “Sinesten dut” otoi kristauaren parodia agertu du, formak zainduz eta mezua aldatuz:

Sinisten dut bizitza bakar hori hiru zatitan  
partitzen dela  
txarra, txarragoa eta txarrena  
hirurak ezberdinak izanik hirurak bat direla  
bat muina eta hiru izena ...  
Sinisten dut dohakabeak garela  
eta gainerako guztia  
digresioa dela... (EK, 71)

Poetarentzat bizitza ezezkortasunean mogitzen bada ere, ez da hori soilik “bertutea”ren egina. Berrizbeitiak mantentzen du mila elementu psikologiko zein filosofikori buruzko bere iritzia. Badaki:

Ohantze bakoitzean historio triste baten tolesdurak  
sintaksi nahasizko narrazioetan... (ZJ, 89)

aurkitzen direla, baina neurri berean:

Adiskidetasuna da lore usaitsuzko baratz zilarra  
Aldiaren euriak urtatua  
Fidantzaren ekiak gozatua... (EK, 47)

Ikuspegi, agian, metafisiko horrek bidali du Berrizbeitiaren poesia gai kontzeptualak tratatzera, hala ere ez du ahazten sentipenen adierazpidea bere poesian.

Pixkanaka igaro gara bere poetikatik bere gaiak tratatzera. Zalantzarik ez da munduari buruzko ikuspegi ezezkor horrek, ikuskera tragikoak moldatzen duela poesia honen esanahiaren alderik garrantzitsuena. Heroi erromantikoen antzera Berrizbeitia paradisuetatik at da, galdua da eremuan eta bizitzarako zentzu bila ari da.

Hasieran desertuaren harea izan zen.  
Haren bakardadean gizon batzuk  
beren izua Jainko bakar baten gerizan estali zuten  
eta gero geriza hori berriz desertu bilakatu zen.  
Hasieran azkena izan zen  
azkenean hasiera etengabe arra hasten... (EK, 26)

Berrizbeitiak azaldu ditu zeintzuk diren bere gairik maitatuenak *Eremu karroinduak* liburuaren hitzaurrean:

Liburu hau irakurtzera jartzen dena laster ohartuko da poema hauek hiruzpalan ardatz edo kezka nagusiren inguruan mugitzen direla. Herria, Artea, Denbora... Bakoitza bere garaiaren semea da, eta gu, euskaldun garenok eta izkribuetan pasa denbora baino zerbaixka gehiago bilatzen saiatzen garenok, inguruan ikusten ditugun argi eta itzalen islada baizik ezin izan gaitezke. (EK, 7)

Artea, poesia bere gairik garrantzitsuenetarikoa da, baina idazkeraz arduratua badago, estetika bere kezka nagusia bada, ez da hizkera poetikoa bere hartan isolaturik ikusten duelako errealitateaz bat eginda baino. Poesiaren guneaz, poesiaren izaerari buruzko, zer ote den poesia erantzun nahiaz hainbat poema idatzi ditu: “David Klim” (ZJ, 20) “Diotokoylosen mandatu” (ZJ, 21), “Idaztean” (ZJ, 38), “Hitzak diraukuno” (ZJ, 44) e. a. Gorago ikusi dugu nola egituratu dituen Berrizbeitiak bere liburuak, nola txandakatu dituen poema askeak eta tradizio kutsukoak, lerraketa etenez, nola osatu duen liburu hiru poema aske eta bat lotua, erritmoa bilatuz, eta nola salbuespen bakarra gertatzen den liburu bakoitzean eta poema aske bategatik beste tradizioko bat agertzen den, azpimarratu dugu *Zoperna jeneralan* “Izkribazalearen para-

bola” deituriko poemak eteten duela erritmoa, eta *Eremu karroinduaken* “Sinfonia Palestinarra”k (nahiz eta bere barnean hiru zati direla aipatu behar). Ez zaio irakurleari kostatuko bien artean dagoen lotura eratzten. Interpretazio gisa, esan dezakegu bien artean beirazko zubia dagoela. “Izkribazalearen parabola”k iraunkortasunaren gaia aurkezten du. Izkribazaleak ezilkortasuna lortuko du pertsonaien bidez:

Figurak har zezan eskura haren buruhezurra  
eta erran zezan hizkuntza basa batez  
*“To be or not to be, that is the question”*  
eta manera hortaz izkribazaleak iraun zezan  
hauts eta amets gizonen pentsamentian... (ZJ, 58)

Hamleten irudiaren bidez iraun du “hauts eta amets” idazlearen irudiak. Heriotza (“Haurra eta katabuta”, ZJ, 31) hain garrantzizkoa den poemategian, iraunkortasunak eta eternitateak berebiziko zeinuak hartzen dituzte. Aldiaren joanaren aurrean, heriotzara doan bizitzan, iraukortasunak indar metafisikoak hartzen ditu. Mundua heriotzarako bide definitzen den liburuan:

Holaxe duk mundua  
non sortzen den guztiak  
hiltzen  
besterik ez dakien... (ZJ, 38)

hitz poetikoak espektro zabaleko esanahiak betetzen ditu. Bizitzarako bide da, iraunkortasunaren seinale, baina guztiaren gainetik sinbolistek eta idealistek hitz poetikoarentzat nahi zuten esanahia hartzen du: hitz poetikoa hitz magikoa da, errealitatea aldatzen duena, munduan bada hitz bat, ezkutua, errealitatea aldatzeko gai dena. Hura eskuratuz gero, dena aldatzen da. Begira dezagun zein indar ematen zaion liburuan hitz poetikoari. Lehenik irauteko duen indarra azpimarratzen du idazleak:

Oraindik ez gaude galduta  
zeren hitzak diraukuno  
bizirik baikaude, hire  
edo haren bortza izanik ere  
bizirik, eta hitzak biltzen baikaitu  
konjuro edo zemai baten antzo  
eta ezilkor bihurtzen  
hiltzeko orena hel dakigun artio... (ZJ, 44)

“Espresio perfeta”ren bila (ZJ, 50-51) abiatuko da poeta, jakinik, hala ere, beharbada ez dagoela:

Behar bada espresio perfetik ez dago —egiten duzu—  
forma eternorik ez agian irudiaren irudiarentzat... (ZJ, 51)

Baina abiatuko da idazlea eta saiatuko hitz sekretuaren bila:

...elezahar baten murmurio goibel bat ohatuko da zu baitan  
eta harrabotsa haziz joanen da  
finean segretuaren hitzak zure buruan  
eztanda egin arte.  
Orduan biziko zara  
betiko... (EK, 109)

Garbi baitu poetak egia non dagoen ez dakiela (EK, 121), baina, hala ere, haren bila ibili beharra dagoela, ezin baita bere hartan geratu:

Egiaz, egia non dagoen ez dakit  
baina badakit mitxeleta bat dela  
eta atsegin dut pentsatzez  
ixtanpatez  
agian lerro hauetan ere pausatu dela... (EK, 121)

Antzeko ideiak darabiltza poesia edo poeta definitzen dituenean. Zeren, azken batean, poesiak lortuko baitu idealtasunaren mundua:

Oro leheneratuko da  
miztoa eta ezta, ezpata eta luma  
urzapala eta gabiraia, eguzkia ta itzala  
palazioa, etxola ta ziega  
etorri behar baita eguna  
dena berdin izatekoa... (ZJ, 19)

“Dena berdin” utopiaren zantzupean agertzen da poesia hau. Berdintasuna nahi da etorkizunerako. Utopia komunistaren ohiartzuna? Agian.

Poesiaren indarrak mogitzen du mundua? Bai eta ez, Berrizbeitiak baitaki ez dela ezer aldatzen, eta hala ere sinisten jarraitu behar dela aurrera. Neurri baten esanguratsua da *Zoperna jenerala* liburuko bukaera. Liburu guztian zehar presente egon den Kavafis nagusiaren omenez idatzitako poema da: “Alexandriako agurea”. Konfundigaitza da pertsonaia hori: Alejandrian bizi da eta Konstantinos deitzen da. Eta bere poeta-izaeran biltzen du liburuak zabaldu nahi duen filosofia osoa:

Ez dakit gauza askorik; agian, bakarrik hitzak antolatzen  
gure leinu jipoituaren hitzak ...  
hetaz balia poemak izkribatzen ditut  
poema tipi, soil, doiak  
alosiaren eta malenkoniaren opari xuhurrak ..  
munduaren itzulirik finera bakardade simple honetara  
ekarri duen agure honek  
behar duen guztia jadanik bere baitan baitu  
bere baitan dena, bai, eskumenean:

astia, papera eta luma  
tristura zerbait orobat  
eta geroari bere oihartzun bat uzteko gogoa... (ZJ, 100)

Horixe da gakoia: aldiaren gainerik gogoa eramatea eta oroimenean gertzea, aldiaren sitsak jan ez dezala oroimena.

“Sinfonia palestinarra” deituriko poema irakurtzeko garaia dugu orain. Tonua desberdina da, nahiz eta estiloa bera izan. Baina tonuaren eta estiloaren gainerik gaiak eman dio testu horri besteekin lotzeko parada.

Semantikoa dugu lotura, horretan ere nagusia delako irauñ nahia. “Sinfonia palestinarra” horretan herri gisa irauñ nahiak ematen dio tonu garrantzitsua poemari. Aitak, Abdulla izenekoak, zuhaitza landatu du irauñ-kortasunaren seinale. Irudi bizien artean, Berrizbeitiak metafora nagusia aukeratzen du esanahia begiztatzeko, ikusmena adierazteko. Hemen, Sarrionandiaren poema bat gogora ekarriz, zuhaitza da kakoia:

Ni bezain zaharrik, bazen ene baratzean  
laranjondo bat ...  
Gaur goizean hilik aurkitu dut  
adarrak idor, enborra ustel  
bizitza huntaz etsia hartua irudia ...  
Orain berri bat sartu beharko dut  
ez dadin eten lokarria ...  
Eta, agian ere, oroituren dute gizon hura zoinak  
esperantza zelarik galdua  
izan baitzuen kuraie ereiteko  
lur okupatuan  
hazia.

Etsipenaren aurka bere ausardia erakusten duen gizonaren apologiak badu aurrean, ispiluaren isla gisa, beste eredu bat: semearena. Hiltzera doanean, bere azken egunean, Berrizbeitiak Euskal Herriko omen den egoerarekin, Intifadako gudari honen paralelotasuna laster igertzen da. Hark ere ametsezko lurra eta herria maite ditu, eta bere odola emateko prest agertzen da, erretorika sentsible bezain gotorrean:

Oi ene lurra, zure semea mintzo zaizu  
gordagi huntan ezkutaturik, zelatan  
odola ixuriko duen arma eskuan  
zure egarritz.  
Ene sorlekua amets bat da... (EK, 95)

Zentzu honetan poemategiak, estilo neobarroko eta kultistari muzin egin gabe, konpromezuaren bidea hartzen du. Bazterreratu direnen gorazarrea egin du eta altxatu direnen goraiapamena. Inperialismoaren eta kolonialismoa-



ren aurkako joerak agertuko ditu, “lur okupatuak” libratzen saiatu direnen epopeia lirikoa idatziz.

Giro honetako da “Dien-Bien-Phu”:

Ene populua ene zain dago ...  
Egiaz ene izena zaila da  
frantzes ezpainentzat ez da ebakia  
hainbeste seme eta ohore galduko diren tokiaren izena  
ebakia izango ez den bezala... (EK, 65)

bere joera pertsonalarekin: lehen pertsonan mintzo da heroi anonimoa. “Hariaren desbiribiltzea” (EK, 29) edo “Hasiera eta azkena” (EK, 25) poemetan, ordea, galtzaile eta umilatuen garrasi eta malkoak historia guztian zehar mugitzen dira. Poema filosofikoak dira, borgianoak, denboraren araua puskatzen dutenak, historia une bakar batean gertatuko balitz bezala aurkezten dutenak, “aleph”aren irudira. Poema hauetan, historia eta literatura, aurrea eta atzea nahastu egiten dira joko ilusioko bezain garbian. Joko intelektualak? Ez bakarrik. Mindurak aldiak aldatzen dituela esateko manerak. Baten garbi azaltzen da munduaren aldaketaren agerpena:

Hasiera gizonaren negarra izan zen.  
1881. eko progromean Lodz-eko ghettoke agureari  
biloba hil zioten. Haren malkoak hegalez airaturik  
lurrak eta aldiak trabesaturik... (EK, 25)

Berrizbeitiaren estiloan ezaugarri nagusi bihurtzen den jokoaren bidez aipamen zehatza (Losz-eko programa, Intifadaren aipamena) aitzakia besterik ez da helburu filosofikoetara heltzeko,

Hasieran azkena izan zen  
azkenean hasiera etengabe arra hasten... (EK, 26)

ikusteko froga mingorra besterik ez.

Denbora une bakar baten agertzen bada, nortasuna mila ispilutan zatikatzen da “Hariaren desbiribiltzea” deituriko poeman. “Ezezkorraren kredoak” bere joera nihilistarekin poetaren alde ezezkorrarekin egiten badu topo, poema horrek, ezezkortasunean bizi arren, abiatu eta borrokatu egiten duenaren kredo osatzen du. Bere aitortza zuzenarekin amets baten xerka abiatu den giza-semearen irudia sortu du Berrizbeitiak, bere historia kontatuz, lehenik,

Nire bizitzaren haria duela berrogei urte hasi zen  
desbiribiltzen munduan  
borroka zailezko errepide patarretan  
nekean eta ametsetan.  
Nire izenik ez dut esango —zer munta du izenak  
zauriak denonak direnean?... (EK, 29)

Anonimotasunaren bidez identifikazio bideak zabalik dituenean, gerrila mogimenduen aipamenak egiteko zabalik, pertsonaiak bere azken momentuko, hil agineko pentsamentua eskaintzen du:

Farabundo Martiko azken ofensiban ibili naiz  
Guayacal bataloiko kapitain.  
Atzo preso hartu naute.  
Bihar Carolinan edo Missourin  
jaiotako berun puska batek zigilatuko du  
nire adimenaren jauregia... (EK, 29)

Heroi galdua da hau ere, borrokaren etorkizuna garbi ez duena:

Nire saria ez zen garaitza izan  
baina ihesa, eta herri urrunaren oroitmin  
arrailgarria desolaziozko herbeste bartean... (EK, 29)

Ez daki etorkizuna nola izango den, merezi ote duen bere borrokak. Baina, galderak zabalik uzten du, behintzat, ilusioaren ordaina:

Zer marrazki eihotzeko inork ez du jakingo sekulan... (EK, 29)

Poema honen filosofia, konpromezuari buruzko filosofia, loturik dago “Sustrairik ez duen arima” deituriko poemarekin:

Sustrairik ez duen arima  
da nola urik ez duen iturria  
edo maitalerik ez duen ohea  
edo odolik edan ez duen ezpata  
edo itsasorik igaro ez duen ontzia... (EK, 85)

Konpromezua sustraitua izatea baita, era berean, era paradoxalean doha-kabe eta libro izatea, baina libro izateko modu bakarra. Gaia aldatuz, erudizioa, irudimena, aipuzaletasuna, sententzia eta aforismoetarako joera, ingenioa, esaldien erritmo pausatua horrek guztiak defini lezake Berrizbeitiaren idazteko joera. Borges eta Kavafis esan du berak. Eta bai, Borges eta Kavafis.

Sententzia kutsua du Berrizbeitiaren estiloak, erretrauetatik hurbil den joera hartzen du bere idaztancerak:

Bide bakar bat dago xehe bakarrarentzat... (ZJ, 89)

irakurri dezakegu, adibidez, eta horri buruz pentsatzen geratu.

Berrizbeitiak erabiltzen ditu aliterazioak, baina joskera joko, hiperbaton xumea, kontzeptuen arteko jolasa, da gehien maite duena.

Esperientzia poesiatik hurbil, Kavafis baita horren erabilpenean nagusi, Berrizbeitiaren poetikak lerratze eta zerrendapenak maite ditu, pilaketak:

Miztoa eta ezta, ezpata eta luma  
urzapala ta gabiraia, eguzkia ta itzala... (ZJ, 19)

Bai elementu poetikoetan, bai anafora eta paralelismoen bidez eraikitako poemetan:

Adiskidetasuna dela itsaso bat zointan ...  
Adiskidetasuna da uso xuri bat, munduaren lau hegalkak  
Bildurik dituen ...  
Adiskidetasuna da mintzaira bat zointan ez dagoen  
Ele itsusirik ...  
Adiskidetasuna da lore usaitsuzko baratz zilarra...  
Adiskidetasuna da zelai ferdezko parabisu bat  
Eta hartan lauazka  
Bi zaldi:  
Batari deritza zu  
Eta besteari deritza ni... (EK, 47)

Apropos jarri dugu poema horren bukaera, zeren horrek uzten digu ikusten zein den Berrizbeitiaren teknikan maitatuena. Pilaketa paraleloaren ondoren, bukaeraren garrantzia dudaezinezkoa baita bere poetikan. Ikus dezagun nola metaforizatzen duen adiskidetasuna, gehienetan elementu sinestesikoen bidez: uso xuri, itsaso, zelai ferdezko parabisua... eta nola metaforizatzen duen aipamen abstraktoen bidez ere: mintzaira bat. Ikus dezagun hala ere, nola bukatzen duen erritmoa aldatuz bukaeran (bertso luzeen eta bertso laburren arteko kontrajarpenean) nola erreferentzia metaforikoetatik igarotzen den zuzenetara, hizkera literariotik, hizkera sinplera.

Narrazioa maite du poemategi honek; eta denbora eta espaziozko erreferentziak aipaturik hasten dira hainbat poema:

Orleansen  
gogoangarriko primaderan  
egur meta bati su ematearren  
hiru dukat jaso zuen borreroak... (ZJ, 46)

Baina egia da desberdintasunak aurkitzen direla liburu bien artean. *Zoperna jenerala* narratiboagoa da Kavafis-en ereduak aginduko balu bezala. Meditaziora eta hausnarketara hurbilago agertzen da, ordea, *Eremu karroin-  
duak*, honetan ere narrazioa presente dagoelarik.

Edozein kulturalistaren antzera Berrizbeitiak zitak maite ditu, urruneko kulturei egindako aipamenak biltzea eta agertzea. Nahiz fikziozko izan, nahiz historiko bere oinaldeetan agertuko dira: David Klim, Diotokoylos izkribatzailea, Deman, Alexandriako Konstaninos, idazleak eta idazleen sorkari fikziodunak: Hamlet, zein Robinson, eta haien ahotan jartzen du Berrizbeitiak poemaren indarra.

Hala ere, bada pertsonaia bat, François Villon poeta, poetika honen giltza bihurtzen dena. Berrizbeitiak hizkera poetiko bat asmatuz, estetiko gerta dai-

tekeen hizkera bat sortuz hasi du bere ibilbidea, baina estetizismo hutsean eta ustelean ez jausteko mezuz hornitu eta aberastu ditu bere testuak.

Honetarako Villon-en adibidea nagusitzat jotzen da testuan Villon-ek urruntzen baitu testua girgileria hutsetik, honelako estetikak hurbil duen arrisku garratzenetatik, hain zuzen ere.

Poesiaren artea zikindu duten  
fartzuntzien kantorea  
zer kantore tristea  
zer hustasunezko baneloria  
zer harrabots eta zer deuseza... (EK, 61)

Beraz, balio horien aurkako poesia eraiki beharra dago. Mezuz hornitua. Eta bere hausnarketetan zenbaitzuetan agertzen badu ere Berrizbeitiak horrelako ziurtasunik ezaren tonua, nolabaiteko zalantza agertuz, bidea erakustea poetaren zeregina ez balitz bezala, tanteatzen ari den filosofiaren gisa; anbiguotasun nahikoa sortuz:

Egia non dagoen ez dakit  
baina badakit hurbilago duela  
bila dabilkionak... (EK, 120)

ondoren ematen ditu bere iritziak. Horien artean poesiaren helburuak toki aparta betetzen du guztiaren barnean.

Ezin idatzi daitekenean letu egin behar da  
ezin letu daitekenean bizi ...  
bizi ere ezin daitekenean  
zer egin behar ote den jakin gabe... (ZJ, 20)

Poesia idaztea mito bihurtzen da testugintza honetan. Poesiak zentzua bilatzen dio heriotzarekin bukatzen den bizitzari. Baina ez du poesiak erabateko eta ziurra den zentzua aurkituko. Bere lana, poema hartan esaten den bezala “dolumen eta esperantza” artean dagoen bide estua bilatzea da.

...ber hitzez  
ber oinazez mintzatuko den  
dolamen eta esperantzazko solasa... (ZJ, 25)

## **Bibliografia**

BERRIZBEITIA, L. (1987): *Zoperna jenerala*. Pamiela. Iruñea.  
— (1992): *Eremu karroinduak*. Elkar. Donostia.

BORDA, I. (1993): “Karruaren eremüetarik”. *Argia*. 1.130. 1993-IV-18.

EGUZKITZA, A. (1995): “Eremu karroinduak”. *Maiatz*. 21. 17.

- JIMENEZ, E. (1993): "Ohar batzuk euskal poesiaz". *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 219. 254.
- JUARISTI, F.: "Kultismoaren bidea".
- MENDIGUREN, X. (1986): "Zoperna Jenerala". *Argia*. 1.186. 1986-II-7.
- ZUAZALDE, D. (1987): "Luis Berrizbeitiak iazko Lizardi Saria kaleratu". *Argia*. 1.176. 1987-XII-6. 47.



## JOXE AUSTIN ARRIETA KONTZIENTZIA ZORIONGABEA

Hiru poema libururen egile (eta laugarrena bidean duelarik) Joxe Austin Arrieta idazleak uzta ederra utzi digu poesiaren alorrean. Itzultzaile eta narratzaile gisa ezagunagoa den arren ezin zaio nortasuna ukatu bere lanari. Hizkeraren erabiltzaile trebe, euskararen maisu aratz, Arrietak bere eskuko egin ditu hiru poema liburu, neobarrokoak, hizkera erregistro desberdinen agerpen, hizkerarekin mozkorturik, hitzarekiko maitasunean.

Laugarren poemategi honen aurrean, idazleak berak aitortzen du aldatu egin duela, neurri batean, bere idazteko era, eta, neke handirik gabe asma dezakegu lehen hiru liburuok batasun hari baten inguruan sortu direla. Gure asmoa, batasun hariok ehuntzen joatea izango da, hiruren artean diren berdintasunak aipatuz. Lehenago, ohi dugunez, baina, Joxe Austin Arrietaren poetikaren deskripzioarekin hasiko dugu lan hau, pentsakizun abstraktoari zor diogun tokia utziz.

### 1. Poetika

Deustuko Unibertsitatean 1994ko martxoaren 10ean irakurritako, eta *Jakin* aldizkarian argitaraturiko (eta ez ohi denez, *Enseiucarreanean*) lan luze-sakon batean eskaini digu Arrietak bere poesiaren nondik-norakoa. Egia da idazle hau irakurtzen den bakoitzean arazo bi izan ohi dituela irakurleak: batasun faltarena da lehena, edo, nahi bada, erregistroen ugaritasunarena eta, bigarrena, erregistroen artean ironia nagusitu egiten dela, eta, batzuetan, zer irrinahiez eta zer serio esan den ez dela askotan nabaritzen.

Batasunaren arazoaz gogoan dut Lasagabasterrek *Manu militari* nobelaren aurrean zuen zalantza. Batzuetan han erabilitakoari ahots desberdinen polifonia irizten zion, beste batzuetan lanaren batasunaren aurrean idazleak izan duen bikoiztasunerako joera. Beste horrenbeste esan dezakegu poetika hone-taz ere. Lehen lehenik idazleak (Harrietak) bere barnean bizi diren hiru per-

tsonaia aurkeztu dizkigu (Parlamentox, Maisu Beltza, Martin Bañez), hiru heteronimo pessoar haien bidez bere poetika azaltzeko asmoz, testua aurrera doan heinean haien pisua txikitzen ari den arren. Hirukoitasunak bizi du Arrieta, hiru pertsonaia nagusi, hiru nortasun. Askotan, eta hemen, irria eta ironiarekin egingo dugu topo, jolas egiten du egileak ideia honekin, batasunaren galerarekin, alegia:

Jolasa ... ez dakit jolasa den ere, jokoak hobeto: asko baitago jokoan, niretzat behintzat, nire oreka mentalarentzat, ez bainuke nahi neure barne-deskontzertu honek fisikoki ere, alegia, ez metaforikoki bakarrik, ... Santa Ageda delako etxe famatu horretara eraman nazan. (Arrieta, 1995, 69)

Desberdintasunaren interpretazio anitza zilegi ematen du, hala ere, idazleak:

Zeren aztertzen ari garen autore honen produkzioan elementu oso heterogenoak aurkitzen baititugu, bai tematikoak, bai teknikoak, erritmo, erreferentzia eta tonu diferente asko, gehiegi beharbada, eta horregatik zilegi da guztiz, zenbaiti aberastasuna irudi dakioketena, beste hainbati barreia-dura nahaspilatsua edota multi-epigonismoa iruditzea. (1995, 71)

Gizon karstikoa bainaiz, ez sarkastikoa, karstikoa: kare-harrizko paisaia zulatua, barne korrante anitzez interkomunikatua. (1995, 83)

Batasun eta koherentziaren alderdi honen gakoan ironiak lekurik har balezake ere, ez luke gutxiagorik hartuko hizkuntzari buruzko hausnarketak, eta hori baino gehiagotan egiten duena: idatziari buruzko gogamena, edo, bestelakoetan, apostila ironikoa.

Utz ditzagun, oraingoz, batasun eta ironiaren kontua eta azter dezagun, egilearen nortasunaz eta poetikaz testuak dioena.

Poetika lau (eta ez izenburuak aginduriko hiru horretan) zatitan banandua da: esplorazio panoramikoa, esplorazio poetikoa, esplorazio patetikoa, esplorazio peripatetikoa. Bakoitzak bere arlo jakina hartu du poetika honen marrazketan. Esplorazio panoramikoak, adibidez, ikuspegirik orokorra eskaini digu. Literatur mugimendu nagusien testuinguruan kokatu du Arrietaren poesigintza. Hobeto adierazteko modernitatearen kontua aipatu du zuzenenan. Arrietak garbi du ez duela bere burua postmodernitatean kokatu nahi, konnotazio politikoak dituelako, PSOerekin lotuegiak, nonbait, eta, beraz modernitatean kokatu du poesia, neurri batean, modernitatea izan zelako burgesiaren aurkako eztanda eta tximista.

“Postmodernoa”, hitz honek Euskal Herrian dituen konnotazio psoeistikotan ulerturik behinik-behin, badirudi ez dela. (1995, 75)

Modernitatearen barnean kokatzen denekoa era ironiko batez darabil:

Ondorioztatu beharko ote dugu, beraz, *Harrieta* honek erotikako erro-



re estratejiko bat jauki (edo, komenitu, barka) duela...? Eta beste errore estratejiko ez txikiagoa, bestearen korolariora edo, “*anphora*” hautsiaren zatiak lurretik jaso eta haiek berritsatsi nahi izatean? (1995, 76)

Galdera eran emana badago ere, modernitateak eman liezaioke Arrietari bere poesiaren lehen kokagunea. Beste kontu bat da nola gauzatzen den modernitate hori gure artean. Argudiatu duena Euskal Herriko atzerapena da: edo nahi bada Euskal Herrian modernitateak bizitzeko duen arazoa; horregatik, zalantzakor ikusten du modernitatea.

Hizkuntza poetiko modernoa transgresioa bada, zeren transgresio izan daiteke oraindik araua bera finkatu gabe daukan hizkuntz komunitate bateko modernitatea? Hizkuntzarena? Ez, ezinezkoa, aporia hutsa litzateke hori. Tradizioarena? Bai, hori posible da, eta egin izan da ... Ideologiarena? Bai, hori da posibleena, eta maizenik gertatu dena. (1995, 74)

Zerrendapenak arazoak sortu ditu, maila kontzeptual desberdinak darabilzkielako modernitatearen definizioan, eta, batez ere, bat bera azaldu ez duelako.

Guzti honek, modernitatearen ukazioak, balio dio literatura eta hizkera aldetik tradizioaren alde egiteko:

Zergatik hisikatzen du hainbeste (barkatu: zergatik insistitzen du hainbeste) Lizardik oraindik bizirik beharko lukeela gure artean...? Ez al da jabetzen *Harrieta* hau ... Modernitate europarretik, eta non-nahitarretik, formak eta korronteak, ideiak eta sentikortasunak, aspaldi geureganatuak ditugula, eta Kavafis edo Pessoa edo Elliot (*sic*), esate baterako, Oihenart baino inportanteago direla guretzat, hurbilago ditugula? Ez al du ikusten *Harrieta* honek, poesia beharrean, filologia edo folklore eruditoa egiten diharduela? (1995, 76)

Berriro galdera eta baieztapenik ez inon. Hizkera aldetik, Lizardi eta Oihenart, tradizioaren aldeko, hizkeraren aberasgarri. Konforme. Ideologian ere bai? Ez dut uste. Hitzaldiak aurrera egin ahala garbi azaldu baitu bera eta bere belaunaldikoak ez ote (zalantza berriro!) dauden marxismo-freudianismo-estrukturalismoaren inguran, “baliteke” (balizkoa, berriro). Horregatik besterik ez balitz ere, modernitatean koka beharko genuke Arrieta, nahiz eta konturatu den modernitatea poetikoak zein eragin izan duen herri honetan:

Badirudi ahaztu egiten zaigula herri txiki, menperatu eta kulturalki erabat kolonizatua izan garela beti, hizkuntza subnormal (izatu) baten jabe ia gabea. (1995, 73)

Modernitatearen kinkan (Lizardik ere esaten zuen modernitate saio zela berea) garrantzi gutxikoa da Arrietaren bigarren ezaugarri orokorra; eklektizismoarena, alegia.

Irakur dezagun honetaz Kandela taldekoek 1984. urtean esaten zutena:

Bigarrenean (*Neurtitz neurgabeak* liburuan) esperimentalismo handiegia kausitzen dugu, norabiderik gabekoa. Zenbait kasutan, estilo arras ezberdinak nahasten dituen ... agian ekletiko izan nahiko du baina ez diogu ikusten nondik nora joan nahi duen. (1984, 45)

Esaldi horrek Arrietaren eklektizismoaz hitz egitez aparte, poetika baten jabe ez izatearen salaketa ere jartzen du paperean. Ez naiz ni, poetika bat laburtzen dabilena, orain hasiko poetika bat edo asko diren testugintza honetan, batez ere aniztasuna, behintzat, baieztatzen duen idazle batengan. Baina bai azpimarratu nahi nukeela bai aniztasunak eta bai eklektizismoak marrazten dituztela Arrietak urrunetik ere ikusi nahi ez lukean postmodernitatearen aurpegiaren marrak.

Esplorazio poetikoan Arrietak baieztapen sendoa egin du hitzaren alde, agian norbaitzuentzat erradikalegia gerta daitekeena:

Poesia ez da *zerbaitetaz* mintzatzea, ezta *zerbait* adieraztea ere (dela ideologia, dela bizipena, dela bizipoza). Poesia ez da eduki batzuen transmisio edertua ...

*Hitza* da poetikotasunaren alfa eta omega. Hitza ehundaka edo milaka printzatan ezpaldua ... *Poiesis!* Hitz Egitea, Berba Egitea. (1995, 77)

Eta pixka bat beranduago:

Gauza bat nabarmendu nahi nuke gehienbat: *hitzari dion* (Juan Mari Lekuonak) *errespetua*. Berak, badaki, ondotox jakin ere, hitza dela gure *materia prima ... et ultima*. (1995, 79)

Ezin ukatu hitzaren eremuan nagusi dugula Joxe Austin Arrieta. Nola ez aitortu hitzaren jokoak sortzen duen gozamena? Bere lana aztertu duten ikerlari nagusiek (J. M. Lekuonak eta Paulo Iztuetak) hitzak sortzen duen aberastasun inpresioa aipatzen dute lehenik. Euskalkiak ongi ezagutzen ditu Arrietak, lexiko aberatsa darabil, gai da erregistro desberdinak erabiltzeko... Hala ere, nahikoa ote da hitza poesiarako? Hitzarekiko duen atxekimendu estuaren gaintetik, Arrietak jartzen ditu, berriro ere ironiaren begirada urrunaren lainoaren bitartez bada ere, hainbat bizipen:

Hona hemen hurbilketa metaforikoa: zeintzuk dira poeten lanabes nagusiak? Hitzak, metaforak eta metonimiak, eta hitzak eta sentimenduaren legamia, eta hitzak, eta pentsamendu berriaren irinaz egindako orea, eta hitzak eta ore berriari nahasitako ore zaharraren ikuttua. (1995, 78)

Gaintetik (edo azpitik) jarri dira sentimendua eta pentsamendua, baina kuriosoa da bidaia: hitzean jaio da esaldia “ore zaharrak” osaturiko hitzetan bukatzeko. Zalantza dut erretorika (edo teorika) guztiaren ondoren hitzak ez ote dion gaina hartzen beste guztiari. Zalantza:

Liburu bakoitzean gutariko bakoitza hustu egiten da. Hustu egiten du bere barrua, erraiak mostradorera ateratzen ditu, brausta. (1995, 85)

esan aurretik:

...hitz poetikoarekiko sorrera-konpromisu gotor gisa kalifika genezake-en praxi horretara. (1995, 81)

aitortzeak ez ote duen jolasa berriro hitzaren eremura ekarri.

Ez baita berdina “hitz poetikorekiko” konpromezua hartu eta “poesiarekiko” hartu. Agian, bigarren hau absolutoegia da. Baina lehenak, hitz poetikoarekikoak, ongi adierazten ditu, batetik, poesia honen alderik ederrena, eta, bestetik, bere inguruan sortu diren zenbait iritzi: zaila da, Kandelakoek: “nahiko irakurgaitz gertatzen da”, erreferentziak agintzen du, estiloak ito du poesia, eta abar. Hitz poetikorekikoak jarri dio muga poetikari. Eta idazleak esan arren, “poesia” ez da prosaren bariazio ornamentala”, prosatik asko du honek, eta ez honenbeste egitura narratiboak erabiltzen dituelako, hizkera poetikoaren tratamendu zabalean baino.

Geroago ikusiko ditugu Arrietak hitzaz emango dituen beste iritziren batzuk eta goazen orain, esplorazio patetikoa gainbegiratzeko. Ideia bi nagusituko nituzke alor honetan, idazlea bere izaerarekin tapust egin duen alorrean hain zuzen ere. Lehena, eskaria da: Mauron, Frantziako kritikorearen lanean oinarrituz, Arrietak metafora errepikatuetatik mito pertsonalera igarotzea eskatzen dio irakurleari. Idazlea hurbilegi da obratik eta zail zaio psikokritika eta mitokritika egitea. Behin eta berriro agertzen diren metaforen bidez bidea genuke idazleak barrenetik esan nahi duenera heltzeko. Literatur kritikan oso erabilgarria da, berez, metodologia. Kontua da idazleak bere mito pertsonalak ez dituela azaltzen (behar ere ez, nahi ere ez), nahiz eta zerbaitzuren berri ematen duen:

Pistak, aztarrenak, nik uste, ugari utzi ditu hiru poema-liburuotan, eta prosazkoetan ere bai, Andozeko ibarrak, Lantainako alabak, kiskalerrak, teluria krepuskularrak ... guzti honek, eta beste askok, izan behar dute barne-loturaren bat. (1995, 84)

Bigarren ideia, bere garbitasunean, erabilgarriagoa da. Narratibitatearen eta poesiaren arteko lotura aurkeztu digu, eta metaforak erabiliz bata okindegiarekin lotzen du, bestea harategiarekin:

Okindegia: narrazio, fikzioa; hau da norberaren kezka, pentsamendu, oroitza eta ametsei buruz norberarekin zerikusirik ez omen dukeen historia baten bitartez hitz egiteko —eta ondo hitz egiteko— abilezia. Harategia: poesia, lirika, hau da norberari buruz —eta norberaren gogoz kontra sarritan— zuzenki hitz egiteko ingenuitatea, doi-doi hitz ederren, errimatu edo errimatuen, irudi / pantailaren mozturpean, historiak eta istoriorik gabe. (1995, 85)

Poesiaren kontrolaren gaia datorkio ondoren eta ondorio, ez baita ofizio xamurra.

Nola, azken batean, idatzi daiteke poesiarik, *mintzoen mintzen* itsasoan ito gabe? (1995, 86)

Galderak uste baino garrantzi handiagoa du horixe baita Arrietaren arriskua. Erantzunak, ordea, ez dira zehatzak, orokorrak baino: mikro-narrazioa, egituraketa, errima eta erritmoa, eta, azkenean ironia:

Nork bere buruaz barre egiteko ahalmen hori ... zoramenaren kontrako asegururik onena. (1995, 87)

Ulergarria da Arrietak arretaz ihardutea ironiaz bere baliabiderik leialena baita hitzaren zurrumbilao jarraitzeko, eta poemaren egitura sortzeko orduan ere bai, ulerkaitza dena, halaber, zera da, guzti hori:

...lirismo hutsaren Labe Garaitik... (1995, 86)

ihes egiteko sortzen dela. Lirismoak ez du gai poesia honetan eta horrek eman du, agian, poesia honetan gerta den itxuraketaren berri, hain zuzen ere horrek azaldu du narratiba eta poesiaren artean gertatu den kontraesanaren berri.

Laugarren begiradak esplorazio peripatetikoa du izenburutzat, eta alderik garbiena dugu. Baieztapenak zuzen egin ditu idazleak, aurpegia garbi azaldu, ironiarik eta galderarik gabe. Atal honetan, definizio orokorretara itzuliz berriro, Arrietak bere zutabe ideologikoak agertu ditu, mila zertzeladaren artean.

Politika, filosofia, ideologia, kontzientzia eta gizarte-ihardueraren eremuan gabiltza. (1995, 90)

Eredua azaldu ondoren, istorio eta kontakizumen bidez eman du Arrietak berearen berri. Berea iharduera konprometitua da. Celaya-ren ohiartzupean kokatzen da; eta haren bertso famatua aipatu du, "Maldigo la poesía de quien no toma partido, partido hasta mancharse", ondoren pasarte zuzen batean bere helburua zehazteko:

Neskak arrastiriko kontrargitan juramentua egiten duenekoaz, bere lurra ez duela inoiz abandonatuko. (1995, 91)

Aipatu dugu lehenago ere; Arrietak 68ko Maiatzaren itzalpean jartzen du bere burua, modernitatearen aitapontekoen jarrerren segizioan: marxismo-freudismo-estrukturalismoaren esparruan. Definizioa postmodernitatearen aurka agertzen da, izan ere ideologia kontserbatzaile baten irudia delako:

Ahalegin teoriko sakon eta zorrotz haien aldean, oraingo postmoderniaren filosofia guztia, eta bereziki, berorren ondoriozko errezetario estetiko ergela, oilo-zirina besterik ez dela. (1995, 93)

Entzungor egingo diogu esaldiaren azkenalde serio eta sakonari eta erreparatuko diogu ideologiaz osatzen duen iritziari: eta Arrietak ondo azaldu du bere ideologia dominantearen hedapenaren ukazioa, gizarte mediatikoaren tranpak askatzea, kapitalismoaren fase ultra-antihumanoa salatzea. Faszismoa, arrazismoa eta xenofobia zabaltzen diren momentuetan poesia klasikoa idaztea.

Ideologia honen azken zertzelada geratzen zaigu. Poetika honetan askorik aipatu ez bada ere, Joxe Austin Arrietak badu kinka joera erlijio eta fedearekin. Poetikaren alde honetan esaldi bakarra eskaintzen dio gaiari. Bakarra eta esanguratsua:

*Jose-bar-Joseph-en ez gorrotorik ez amodiorik gabe. (94)*

aurkitzen dela dio. Gutxitxo liburuetan gaiari eskainiko dion tokirako.

Itzul nadin, baina, poesiaren gaira. Poeta definitzeko Arrietak Barthes-en aipua darabil, eta idazlea “una conciencia infeliz” dela dio. Metafora nagusiztat hartuko dugu definizioa poesiaren irakurketa egiteko orduan.

## **2. Arrotzarena. Kontzientzia zoriogabea**

Erronka bota du Arrietak. Metaforen bidez bere mitoa zein den azaltzea eskatzen dio irakurleari. Horretan hasiko naiz erronkari muzin egin gabe. Irakurketaren lehen pausoa, hasieratik hasiko nintzateke, jakinik irakurketa bat besterik ez dela hau.

Irakurketa honek abiapuntutzat hartuko du Arrietaren lehen liburua: *Arrotzarena*, denboraren poderioz pixka bat ahaztua, edo nahi bada ondorengo liburuen pean geratu den lehen liburu hura, pixka bat Camus-en *Arrotza* gogora ekartzen duena, bai Camus-ena, euskarara itzulpena ezagutu zuen hura.

Arrietaren arrotzak existentzialismoaren itxura galdu du, eta janzkera klasikoaz agertu da. Gaiaren aldetiko janzkera klasikoa Kandelakoek ikusi zuten.

Edipo Kolonon bezala altxor baten bila doanaren pozaz irekitzen da liburua. Eta hondartza ondoan pikondopean aurkitzen dugun agure itsuak, badirudi trajediako Tiresias agure igarle eta itsuarekin baduela zerikusirik. (1984, 43)

Gainera azpimarratu zuten joera sinbolikoak joera narratiboa estali egiten zuela:

Nahiko irakurgaitz gertatzen da liburua ... baita ere hari bati jarraiki eginiko poema bat izaki, gertaeren berri gutxi ematen zaigulako. (1984, 43)

Iluna da agian narratibitatea, baina garbia da zentzua. Lurraldetik kanpo dagoen pertsonaiaren (arrotzaren) inguruan osaturiko liburua da, beraz. Arrotz horrengan, neurri berean agertzen dira pertsonaia bi: Edipo eta gizon modernoa, paradisutik kanpo, zorionik gabe bizi den heroie erromantikoa. Biek bat egiten dute, baina, kontzientzia erdibanatu baten agerbide izaten diren neurrian. Kontzientzia zoriongabearen zeinu eta ikur diren neurrian. Rafael Argullolek azaldu zuen heroie erromantikoak, heroie modernoak, kontzientzia erdibitua zuela: ideala maite zuen, eta, une berean, errealitate eta historian bizitzen behartua zegoen.

Lehen liburu honetan pertsonaia “arrotza” bada, bigarreanean, “erromes umila” da, edo, bestela:

...eta jabetuko gara— jabetu  
ibiltari bakan soilak  
izan garela.

Aipu biotan, beti ere, bizitzako alde biotan zehar dabilen pertsonaia da, eta *Arrotzarenan* bezala, kutsu existentzialista hartzen du.

Hirugarren liburuko protagonistak ere, Lizardi oroituz, basora irten duen pertsonaren tankera hartzen du. Inoiz, elementu autobiografikoak kontutan harturik marinelaren irudia hartzen du, edo arraunlariarena.

Heroi horren antzera Arrietaren arrotzak ere mundu banandu hori bizi du. Joan da joan altxorraren bila.

Gaur geroz uhinen laztanei  
entzungor eginen diet?  
hala erabaki zuen  
hondartza galduko  
gizon galduak.  
Eta zabuka zuzendu zen  
han nonbait  
harkaitz artean  
—edo baso itzaltsuan ote?—  
izkutaturik zentzan  
altxor preziatuaren bila... (ANN, 9)

Altxor hori, ordea, ez du inoiz aurkituko gizon galduak. Behingoz agure itsuak adierazten dio bere altxorra txoriek ebatsi dutela

...hegaztiek ziatela  
bilatzen duana ebatsi... (ANN, 10)

Arrietaren konposaketa lanean arrunta denez, kontrajarpena agertzen duen sarrera baten bidez, eta Kandelakoek ikusi zuten eran.

Ene! ordea (ANN, 16)

baten bidez, hitz markatu, kontrajarpena agerian uzten duen harriduraren bidez, guztiz aldatu du giroa idazleak.

Txaplasta edo collage teknikaren bidez Arrietak pertsonaia honen maldan behera azaldu du. Lehenik narrazioa dator, ondoren *Ediporen* itzulpenak, ez dira faltako kantu zaharren aipuak, Arrietak hain gogoko dituen Berreterretxe eta Lantainako alabaren kantuen bidez, edo poesia lirikoaren moldez. Zati guztiek osatzen dute etsipenaren alegoria. Alegoria politikoa; indarkeriarekin lotzen dena,

Errepideko hertzain ezainak  
ez zuen arrotza atotsi ...  
soroak oro kiskali  
uztarik gabeko gorroto etsi  
aunitz etxetariko nigar-karraxi  
basapizti erraldoien urratsak nagusi  
arrotzak esan zuen:  
Munduan den inork  
ezin hau onetsi... (ANN, 21)

Alegoria metafisikoa, heriotzarekin lotuko duena:

...hau mundu sorberri dohakabe  
hain goiz suntsitu baitzaigu... (ANN, 16)

Edo Kandelakoeak aipatu zuten bezala:

...aditzen da nonbait atabal urruna,  
Heriok mezu arin ohi du bialdu... (ANN, 26)

Konpara beza irakurleak irudia beste aipu honetan:

Gaurtik gaurako argigune labur  
ei da bizitza, herio-iruntzi,  
atabal urrunen durundi... (BPP, 122)

Amets bat betetzea da poetika honen ziorik maitatuena: Amets aberria osatzea, edo aberriaren ametsa egitea da kontua. Hegaztiek, aurreko iritzi emaileek heriotzarekin lotu bazuten ere, badute esanahi zabalagorik testuan, haiek dira altxorraren jabe, haiek ezagutzen dute non aurkitzen den altxorra:

...eresiak  
dantzuz  
kurriloen hegada gorak eta  
kaioen karraxi ozenak  
  
lagun  
desiozko hegazti desiatuek  
behinola ebatsirikoa  
itsasoaren bizkar amoltsuaren gainean

noiz datorkiokeen  
haiduru... (ANN, 29)

Puntu honetara helduaz, gaiaren inguruko arazotxo bi aipatu nahi nituzke. Hegaztia, dirudienez, Arrietaren metafora obsesibo horietakoa dela aipatuko nuke lehenik, aztoreak, arranoak usu agertuko baitira hurrengo liburuetan ere. Eraginen berri ere laster igarriko dio irakurleak (badakizue zein den eragina- ren izen berria? Metapoesia!). Lizardi da ahora datorren lehen izena.

Harira itzuliz gero, altxorraren bilaketa ere metafora errepikatua da idaz- keta honetan. *Bertso-paper printzatura* liburuaren bukaerako aipu bat (badaki- zue zein den aipuaren izen berria? Paratestu!) alderatu nahi nuke hona, gai bera erabiltzen duela sinesturik. Hona hemen testu hori:

Harpe batean altxor miragarriak aurkitu ditugulakotan, egun argira itzultzean, berriz, esku artean harri faltsuak eta beirakiak besterik ez dakarzgula ohartzen gara; eta, hala ere, ilunbetan dirdir izarniatzen da, oraindik, aldagaitz, altxorra (Meterlincek-Robet Musilek aipatua). (BPP, 124)

Altxor hitzak, sinboloak, *Arrotzarenakoan* hartzen duen esanahitik urrun dago hemengoa. Hemen, beharbada, poesiaren altxorraz ari da egilea; hon- doratu da poeta hitz ederraren bila eta berriro argira itzultzerakoan hitzak edertasun osoa azaltzen ez duela ikusiko du. Argi eta ilunaren arteko kon- trajarpenak eta benetako eta gezurrekoaren artekoak garbi agertzen dute desio eta errealitatearen arteko kinka hizkuntza poetikoaren mugan. Arrotzak askoz ere balio absolutuagoa eman dio altxorrari. Baina biak datoz bat puntu batean, altxorra desiatzen dena da, batzuetan ametssez desiatzen dena. Eta garbi dago errealitatean eta hizkera poetikoan ez dela nahi dena beti lortzen.

Heroie desterratua da, desherriratua eta hori da, kontzientzia erdibitua, artista modernoaren itxura eta sinboloa. Beraz, ausentziaren poesia da, esku- ra ez dagoena, lortu ez dena, ikusten ez dena:

Banekus, Ama, Amets. Euskal Herri... (BPP, 113)

Ausentziak forma handiak eta ugariak hartzen ditu poemategi honetan. Eta, agian, eskura ez dagoenaren araberrako poesia dela esan dezakegu. Arrotza arrotz da bizitzaren hainbat alorretan.

Nahi eta ezinak aurpegi desberdinak ditu testuan. Lehen-lehenik, eta kro- nologikoki arituko naiz, ausentzia afektiboak sortzen ditu, urrun dagoen adis- kidearen irudipean, osatzen ditu lehen poemak: kartzelan dagoenak sortzen ditu “Osatuko neskatzaren koplak” eta Sarrionandiari eskainitako “Espe- txekuarena” lauaxetianoa. Aitaren heriotzak sorturiko ausentziak eragiten du “Aitaren heriotzean”.



Nahi eta ezinak sortzen du Arrietarengan amets politikoa ere, eta hau, nola ez?, konstantea da bere idazkeran.

Hil dira zure amets-aberriak  
lehen antzik ez du gaur Euskal Herriak  
iraungi ote iraun-egarriak  
bakanduaz gain gure poz-irriak... (ANN, 37)

KISKALERRI MUTUAN  
gu mintzo ezik  
nor mintza daite?  
Eta gu uzkur bagaude,  
NOR gure buruen JABE?... (MM, 84)

Elkarrizketa batean aitortzen duenez:

Nire buruari galdetuko banio: ni zer naiz euskaltzale abertzalea edo abertzale euskaltzalea ez nuke jakingo zer erantzun, ez bada biak txanpon beraren bi aurpegiak direla. (Arrese, 1988, 40)

Joera konpulsiboan (“Imprecatio”, “Eraso errepikatua”) Arrietak kinkan agertzen du bere burua. Baina kinka, herriarekiko zuzen agertzen bada, bortitz agertzen da poesiarekiko. Ez dakit nire susmoa den baina Arrietarengan badago definigaitza gertatzen den puntu bat, definizioak zail egiten zaizkio, inguru-minguru dabil. Bibliografian aipatzen ditugun elkarrizketen izenburuak (eta onartutik kazetariak aukeraturiko esaldiak direla) honelako itzuli-mitzuli (mintzuli)ekin egingo dugu topo: “Susmoa dut”, “Ez nekien”, e. a.

Poesiaz ari denean, itzulbidea argiagoa da, sintonia bere osotasunean agertzen da, hizkera poetikoaren fenomenologiaz arduratua balego bezala agertzen zaigu idazlea (norbaitek ikus lezake haren hezkuntza kristauak utzirik azterna honetan, ez naiz hori ni izango, ordea).

Esanguratsua da *Neurtitz neurgabeak* liburuko, lehen poema, poesiari buruz egin eta hari eskainia:

Gorroto zaitut  
zu  
argi mehe hau  
daratulu xuria  
zaitudan hori:  
poesia maitea... (ANN, 34)

Gorroto eta maitasunaren arteko jokoak mugetara eramana bada bere bortitzean, konplexuagoak dira hurrengo liburuko aipamenak. Gorago ere ikusi dugu nola *Bertso paper printzatuak*en idazleak aipu esanguratsua jartzen duela poesiaren gaitasunaz errealitatea gauzatzeko.

Modu bitara uler dezakegu mesfidantza joera hori. Batetik, tresnerian jar-tzen du kezka Arrietak, elkarrizketetan usu agertzen baitu euskararen egoki-tasunaren gaia:

Trinkotasun hori (Yourcenarren estiloaz, alegia) euskaraz ematerik ba ote zegoen izan huen pausu hori ematera bultzatu ninduen tema ... euskarak zen-bait gauza esateko duen ahalmena oso bajua dela, eta inork gaizki interpreta ez dezan esan nahi diat oso urrun gaudela European zehar edozein hizkuntza-tan dagoen standard literariotik. Hizkuntza guztiak badute beren malgutasu-na, mendetako tradizio literarioz sortutako standard bat. (Landa, 1986, 30)

Baliteke, nahiz eta honen frogarik ez dudan aurkitu, bere buruaz ziur ez izatea idazlea poesiaren alorrean, baliteke, eta litekeela ahalezko maila hutse-an jarri beharko genuke.

Baina ez, poesiaren ahalmenaz ari dela pentsatzerik bada Arrietaren tes-tuetan. Horrela *Mintzoen mintzak* liburuko aintzin solasa poetikotasunaz egi-ten den galdeketa da. Isiltasunetik hizkuntza poetikora ematen den pausua da liburuko lehena:

Isiltasuna omen lehen mintza:  
Iarmintz kiskaliaren basa eremua barnetuz,  
arnasaren zolaren zuloa ...  
Hor kanpoan  
goizaren eztanda  
Hemen barruan:  
zoko-usaindun putzuaren  
mintzorik-ezaren mindura ... (MM, 18)

Esangarria da oso azken ahapaldiko banaketa. Kanpo eta barne aldeko era-bateko banaketa lehenik, errealitatea azaltzeko ezintasuna ondoren, mintzorik-ezaren minduran. Ez dakit hau nahikoa den ondoriorik ateratzeko, baina bi datozkit errestan burura: Lizardirengan ez bezala bananduta daude kanpo eta barne, eta erromantiko on guztiengan bezala hitz poetikoak nahikorik ematen ez duela uste du poetak. Poesiarena da azken ausentzia. Edo bere hitzak erabiliz:

“Idazteko desioa ilunkiago baina beti da desioari buruz idazteko desioa; azken finean, desio ezinezkoari buruz idazteko desio ezinezkoa” dio Guido Mannoni literatur kritikoak. (Arrieta, 1995, 66)

Eta hala ere, saiatzen da.

### 3. Hitza eta poesia

Joxe Austin Arrietaren poesiak idatzi duten guztiak azpimarratu dute bere estiloa, euskarekiko lotura, aberastasuna, euskaraz duen konpetentzia, eta are-ago, hari dion maitasuna.

Marguerite Yourcenar-en *Hadrianoren oroitzapenak* euskaratzean Arrietak bereganaturiko luma aberats, kultista eta estilo berezikoa ...

Lexikon mailakoa zen aurrenekoa (susmoa), Arestiz geroztiko poetek baino gehiago behartzen gintuelarik hiztegia erabiltzera; ... metaforagintza ausarta eta kultoa hirugarren, modernotasun haize bafadaz. (Lekuona, 1986, 10-11)

Afizioz euskal klasiko eta modernoaren irakurle saiaturia izateaz aparte, ofizioz linguista ere badelako, guzti horregatik eta, agian, gehiagorengatik, Joxe Austinek ederki asko ezagutzen ditu euskararen zoko lexikalak eta gramatikalak ... Darabilen literatur hiztegia gutxitan ikusi ohi den horietakoa da. Oso berea. Adjektibazioetan oparo eta ugaria dugu eta neologismoetan, aldiz, urria. (Iztueta, 1995, 48-9)

Esan genezake hemen ere euskararen ezagutza sakona duela baina agian zenbait kasutan nahastu egiten dituela hiztegiaren maiztasun eskasa eta literariotasuna. (Kandela, 1984, 45)

Hitzaren bilaketa eta bilakaera, helburu literarioez gain ... Hizkuntzaz ari garenez, euskarari dion begirunea aipatuko nuke. Hainbeste maite dituen behialako eleak arretaz biltzen ditu eta bere testuinguruan kokatzen ... Zeren bait dakigu, harria bezala, hitza ezin daitekeela errotik erauzi, bestela arma betirako galtzen duelako. (Iturbide, 1991, 44)

Gerora ... hizkuntzaren menderatze arras sakona agerianago utzi zenuen, bai lexiko mailako alor semantikoak zehaztuz, eredu dialektologiko anitz lerro berean pilatuz, ekialdeko euskalkien presentzia handiagotuz, bizkaiko kutsu lexikoa ere hartuz. (Camino, 1985, 32)

Iruzkina egileez gain idazleari emanez gero hitza, gai bera azalduko zaigu, hizkerak merezi dion errespetua:

Kontu berezia izan diat beti gure hitz ondarearekin eta egia esatea nahi baduk, normalean modu oso garbizale batean jokaten diat. Nire ustez ikaragarria da euskarak duen hitz eta esanmoldeen ondarea, benetako altxor bat, eta ondare hori bazterrean geratu duk. (Landa, 1986, 31)

Bai nigan eta bai beste lankide askorengan hizkuntzaren kalitateareko ardura zentrala dela ezinbestekoa. (Arrieta, 1989, 65)

Kontua ez da soilik hiztegi edo hizkera, mintzoen mintzak nagusitzen direla hemen, tradizioaren aldeko apostu bat ere egin dela baizik. Eta hau, beste barik, poetikaren alor nagusi bihurtu da Arrietaren lanean.

Gure ziklo poetikoetan zenbait autore zahar oso azkar hilobiratu ote ditugun susmoa dut, eta ni Lizardiar peto-pettoa naizenez, Lizardiren berrirakurketa bat, birkokaketa bat burutu dut. (Mikel Arrieta, 1989, 61)

Esaldiak agerpen argiagoa du “Hiru liburu. Hiru begirada” artikuluan non ideiaren exegisia egiten den. Lizardi hilobiratu esaldiak Atxagari eginiko erreferentzia da. Hark Rimbaud maite zuen antzera, eta Europako tradizio poetikoa Euskal Herriko tradizioaren gainetik jarri, Arrietak nahiago du barne tradizioari atxeki.

Edo praxis poetikoan agertuz:

(Noren baimenez  
ehortzi hinduten  
muxika-hezurrean,  
Lizardi?)  
Beso bakan eztiak  
eguzki-izpiz gozoro  
bilduak  
(piroteknariak gabe). (MM, 9-10)

Tradizio poetikoaren alde egiten duen poetika honek baditu abantailak. Juan Mari Lekuonak gogoratu digu bat:

(Intra literatura) mundu hau sugerikorra da, oroitzapen kolektiboz potentziatua; errealitatean baino gehiago literatur bizikunetan oinarritzen den altxorra isladatzen du. (Lekuona, 1986, 24)

Bigarrena, ez da zalantzarik, hizkeraren aberastasuna da. Baina, nik uste, badu arazorik. Eta batez ere teoria mailan, nahiz eta ezaugarri bat edo beste praxian ere agertu. Kontua da Arrieta ari dela, berak esaten duen bezala; “zahagi zaharretan, ardo berria” isurtzen. Material tradizionalerik poesia modernoa egin guraz. Eta egia bada ere horrek modernotasunera garamatzala, Juan Mari Lekuonak hainbat oreka egin ditu bere prologoan modernotasuna ikusi nahiz, abanguerdien aurretiko modernotasuna, sinbolismoari atxikia, ez baitu alferrik zititzen Mallarmé. *Bertso-paper printzatuak* liburuaren atarian, eta berriz, erabiltzen du gaia bere poetikari hasiera emateko.

Modernotasun honek, bat-batean, arazo bat jartzen du: zaila da, ulertzaila, hermetikoa eta hori berezkoa du eta gainera, esan behar da, Arrietak oso testu ederrak lortzen dituela ildo horretan. Egia da, hala ere, zailtasuna ez dela, berez, poetika uxatzeko edo baloratzeko joera, estilo ezaugarria besterik ez da, eta garai batean ulerkitza dena, hurrengoan ulerkor bihurtu daiteke:

Jendeak hitz bat ez duela usaitu ere egiten? Normala duk hasiera batean, baina egunen batean erabilkera normaleko hitzak izan daitezen noizpait hasi beharko da. (Landa, 1986, 31)

Arazoa da, baina, hizkera kultista horrek ez duela balio Arrietak egin nahi duen poesia abertzalearentzat, berez ulerkorra izan behar duenarentzat. Lekuonak esandakoaren gauzetik (“errealitatean baino gehiago literatur bizikunetan oinarritzen da”), literaturaren gainean eraikitakoa, errealitateaz osa-

tutakoa. Begira zer dioen Iztuetak “Poiesis: Hitz Egitea” formula azaltzen duelarik:

Formalismoaren aitortza garbia da hori, gaizki ulertu ez badut bederen. Ikuspegi honen arabera, hizkera poetikoaren ardatza, beraz, hitz jokuen barazioetan datza, deitu itzazu horiek metaforak, metonimiak, sinboloak, fantasiak, sinestesiak, paranomasiak, etab. Baina kasu, teknika formalak lehenesteak ez darama gizarte bizitzari entzungor egitea. (Iztueta, 1995, 55)

Egia da hori, kontua da baina, gai horrek beste hizkera bat eskatzen duela. Eta horretaz konturatu da Arrieta ere.

Gai politikoa erabili behar duenean:

Egia duk joera handia daukadala nobeletan berebiziki nire bizitzatik ateratako gauzak azaltzeko eta kontatzeko. (Landa, 1986, 31)

Bere poema gehienetan datoz, askotan ebokazioz eta bestetan izen eta guzti, bidean eroriak ... Abertzaletasunaren damu ez den poeta ganboarra dugu Joxe Austin. (Iztueta, 1995, 31)

hizkera eta eragina bera ere aldatzen ditu. Poesia sinbolista egiten duenean, Lizardi, Lauaxeta, Mirande eta Ohienarten zantzuak entzuten baditugu, aberzaletasunaren eremuan herri literaturaren eragina darabil. Edo, bestela, narratibitatearena.

Har dezagun, adibidez, *Bertso-paper printzaturia* liburua. Lehen aldean poema sinbolistak dakartza. Ondoren poema ulerkorrago (“Ene maitia, ene loria”) eta konprometituagoak (“Antsigarturiko lora”, “Garaikoetxea omen zen”), guztiek jarraitzen dute herri literaturaren eragina. Eta zerbait gertatu bada kritikaturia poetika honetan horixe da:

Ez dirudi, ohartuki behintzat, estrofismoari buruz erizpide eta praxis berririk planteratu nahi lukeenik, aurrekoen langintza estetikoari atxekitasuna eta ardura auto-pedagogikoa erakutsi baizik. (Lekuona, 1986, 18)

Estrofagintzan, J. M. Lekuonak abisatzen zionez, ez omen du asmatu. Ahapetik, bide honetatik ez segitzeko aholkua ere ematen dio. Beno ba, utz ditzagun alde batera trikitrixaren doinura kantatzeko horiek edota bertso-paperak idazten dituztenentzat ... Tonu-kontua da, beraz. (Iztueta, 1995, 58)

Eta, badirudi idazlea ere konturatu dela horretaz:

Juan Mari Lekuonari asko zor diot ... kritikatu egiten nau, serioki ... bere ohizko fintasunez, zera aholkatzen dit: ez dagokidan ofizioetan muturrik ez sarteko, bertsoak eta paratzeari uzteko, erregistro horiek, bai liriko-ki, bai satirikoki, landuta daudelako. (1995, 79)

Egia da zenbait poema engagéak, filosofiaren erakusleak, erregistro kul-

tuetan emanak daudela, adibidez, “Baneki, Aberri” (BPP, 113). Baina Iztuetak dioenez “tonu kontua” da. Hartu egingo diot esaldia, eta berak bertso-paperetan aurki daitezkeen pitxi ederrak aipatzeko erabili badu ere, nik poesia honetan gerta den banaketa adierazteko erabiliko dut. Bai, tonu kontua da, eta bat erabili da hizkera batez, eta bestea, herri-kutsuko poemetan.

Tonu banaketa, diferentzia txikiz, baina gertatzen da *Mintzoen mintzak* poema liburuan, batez ere “Mintzo zaharra” aldean, non narratibitatea (poetaren historia) eta lirika (poetaren historia txertatuko testuak) batzen diren. Onartu behar dut, hala ere, poema liburu honetako bigarren aldean, zailtasunak baretu diren eran, tonu baterakorra mantendu dela.

Batasunaren arriskua beti dago hor, nonbait. Arrietak Arrietari egindako elkarrizketan planteiatzen da kaxoa:

—Beharbada ugaritasun honek liburuaren osotasuna zertxobait puskatzen du?

—Badago nolabaiteko bilakaera bat, aukeraketarako hurbiltze bat badago. Baina gorabeherak baldin badaude ere, ez naute gehiegi kezkatzen, nere ustez liburuak nolabaiteko haria bait du, egiturazko batasuna baduela deritzot. (Mikel Arrieta, 1995, 65)

Aipatzekoa da nola jartzen den batasuna egituraketan, eta onartzen den tonu aldaketa. Joxe Austin Arrietak aipatu duenez, batzuek aberastasuna ikusiko duke joeran, beste batzuk nahaspila.

Egituraketaz hitz eginez *Bertso paper-printzatuak* liburuan erabili denaz hitz bi esan nahi nuke. Jakina denez, liburu honek ere badu bere bilakaera. Batasuna alde bitan dager. Sail bakoitzaren buruan idazleren baten aipua jarri da, eta aipuak, gai jartzaile gisa harturik, hari loturiko gaia zabaltzen du. Gutxi gora behera, hauek ditugu gaiak: Jainkoa, mairu baratzekoak, itsasoa, paradisu galdua, eskua, laberintoa, gartzela, emaztea, amodioa, konpromezua, aurrera jo beharra, politika zaharra, Joseba Arregi, Aberria eta Erlijioa. Gai andana, dudarik, ez kontua ez da gaia, kontua erabilitako teknika da: beste idazleren baten aipuari buruz osaturiko “bariazioa”, nolabait testua aitzakitizat hartzea norberarena agertzeko. Jarrera honen teknikak izen garbiak ditu: *amplificatio* jarrera da horrek adierazten duena. Arrieta maisu da itzulikako diskurtsoa egiten, bertsolarien antzo, norbaitek esan duenari erantzuten, zertzelada jartzen, beste ikuspegi batetik adierazten. Agian metatestuak (testuei buruzko testuak) sortzeko jarrera horrek, bersorketaren jarrerak sortzen du harridura pixka bat, poesia hau bersorketa prozesu bihurtzen duelako. Beharbada, joerak poesia honek duen alde arrazionalista indartzen du. Arrazoizko alde hori, puntu ugarritan ikusteko modua dugu: lehenago ikusi dugunez, Arrietarena kontzientzia piztua da, galderak egiten dituen, problematizatua; beste aldetik ikuspegi ugariak eta tratamendu ugariak maite ditu, ahalbide guztiak esploratuz; *Bertso paper printzatuak*en herri poesiaren eragina ez da genero batera mugatzen,

bertsolaritzara adibidez, ez, molde eta modu desberdinak behar ditu, espresio molde guztiak agortu behar balitu bezala: bertsogintza, kopla zaharra, trikiti-kopla, artazuriketako moldeko ahapaldia...

Poesia honen zutabeak bersorketa, birtuosismoa eta hizkera aberatsa dira. Mugak azken punturaino eramaten saiatzen den literatura baten aurrean gaude. Arriskuak sobera dira eta haietaz, Arrietarengan miresten dudan begi zoli eta argiz, mintzo da. Birtuosismoaren arriskua akademizismoa da:

...poesia lore-jokoekin  
sarriegitan, Sarri  
nahastu izan dudan hau (MM, 95)

Eta ironia ez da gai esaldiaren ozpinezko lurrina estaltzeko, poeta benetan ari dela ezkutatzeko. Hizkera aberatsaren arriskua ulerkaitz bihurtzea. Bere poetikan *Bertso-paper printzatuaki* hasiera ematen dion poema irakurri ondoren hauxe dio:

Mallarmé-ri baino gehiexeago ulertu diogu... Ala ez?... Zergatik ez da ulertzen? Zer? Hitzak?... Je suis desolé. (1995, 76)

Baina bada beste arrisku bereziagoa, berak komentatua neurri berean:

Ez al da konturatzen *Harrieta* hau, aukera horiek egitean, bere poesia erabat at kokatzen ari dela, poesia *erreakzionarioa* egiten ari dela, eskritura eskripturario bat, epitafia ukroniko bat ia?. (1995, 76)

Hitzak bereak dira, ez beste inorenak, eta Iztuetak idatzi duenez, autokritikoegia agertu du bere burua.

Oihartzunak eta bariazioak ugari dira testuan:

Etxekoen artean asko dira, bere hitz poetikoekin esateko “Olerki’s Liskar Clubean” sartzten dituenak: Etxepare, Oihenart, Axular, Etxahun, Barrutia, Azkue, Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Aresti, Mirande, J. M. Lekuona, J. A. Artze, Atxaga, P. Perurena, Sarrionaindia (*sic*), K. Izagirre, F. Juaristi eta Jon Juaristi. (Iztueta, 1995, 53)

Idazle trebea da, guztiaren gaintetik Arrieta, eta bere lanez arduratu direnek espresabideen zerrenda luzea eman dute bere poesia, arrazoiz, goraiatzeko. Iztuetak errekurtsu poetikoei begiratu die eta hoskidetasunak, hitz jokoak, zantzu sinestesikoak aipatu ditu. Juan Mari Lekuonak egiturak eta diseinu paraleloak, zurubiaren irudipekoak, txaplasten kontrajarpenak, esaldien errepikan oinarriturikoak, kontraposizioak eta forma espazialak aipatu ditu eta Mikel Arrietak hauxe azpimarratu du:

Konposaketa tekniketarako dagokienez, ugaritasuna da nabariena: hitz-jokoak, bertso libreak, prosa tipografia desberdina, collageak. (Mikel Arrieta, 1989, 65)

Forma kontuak, azterketa formala. Iztuetak, behinik behin, ikusi du sinboloen eragina testuan.

Baditu, hitz maite-maiteak, magikoak, behin eta berriz hiru liburuetan errekipatzen dituenak: hots, itsasoa eta ura. Aita arrantzalearen taupada ahantzezinaren ukitu kezina? Agian. Heraklitok irudikatu bezala, bizitzaren joanairaren ezinbestekotasunaren aurrean makurtu beharra? Agian. (1995, 57)

Sinboloen irakurketa aipatua dudanez, hausnarketa txikia egin nahi nuke idazkera eta egituren artean sortzen den loturaz. Idazketa, garbi dago, aberatsa da. Eta Joxe Austinen idazkeran hitz jokoak nagusi dira:

(Mors-en Morse, Mars-en Venus). (BPP, 48)

Garbi dagoenez kontzientzia osoz erabilitako estilo kontua da:

Konstante bat mantentzen saiatu naiz, hizkuntza beraren sonoritatea, hain zuzen ere. Ikuspegi horretatik sartuko lirakeke, hitzaren beraren erakarpena, hitzen durundioen arabera eginiko hitz jokoak. (Mikel Arrieta, 1989, 65)

Hala ere, berriki kritikatu egin da joera:

Nire aurreko poetikan hitzen plazerrak mozkorturik idatzi izan diat sarritan eta poema zenbait rekargatuegiak ateratzen hituen. (Agirre, 1995, 43)

Honelakoetan, erregistro aldaketan (orain arrunta, gero altxatua), zein idatzitako hitzari ezpalak ateratzen, idatzitakoaz hausnartzen, papereraturiko hitzari alde ezutuak agertzen nagusi da Arrieta eta hori da bere bertuterik nagusienetakoa, duen iturria. Horren aurrean egiturak, eta gogoratu Lekuonak aipaturikoak, simetrikoe giak dira, kanpotik ezarriak, agian, mekanikoe giak, sinbolismo erakoak, bai, baina literaturan arras bizitza luzea dutenak.

Joxe Austin Arrietaren poesiak zertzelada handiak ditu. Honaino desioaren mugetan.

Alfer-gatazka, deitore ertzo  
zena eta datena ez dena  
bai bait da soilik diraukeena. (BBP, 64)

higitzen den poetaren lanaren irakurketa.

## Bibliografia

- ARRIETA, J. A. (1983): *Arrotzarena. Neurtitz neurgabeak*. CAP. Donostia.  
— (1986): *Bertso-paper printzatuak*. Elkar. Donostia.  
— (1989): *Mintzoen mintzak*. Elkar. Donostia.



- (1995): "Hiru liburu, hiru begirada". *Jakin*. 86. 65-95.
- AGIRRE, J. (1995): "Bi pisu astun". *Egin*. 1995-XI-7. 43.
- ARRESE, G. (1988): "Joxe Austin Arrieta". *Argia*. 1.220. 38-41.
- ARRIETA, M. (1989): "Susmoa dut zenbait autore zahar oso azkar hilobiratu ote ditugun". *Argia*. 1.258-9. 64-5.
- CAMINO, I. (1985): "Hadrianoaren oroitzapenak". *Argia*. 1.070. 32-3.
- ITURBIDE, A. (1991): "Joxe Austin Arrieta: Mintzoen mintzak". *Hegats*. 5. 44.
- IZTUETA, P. (1995): "Joxe Austin Arrietaren literatur lanak". *Jakin*. 86. 43-63.
- KANDELA TALDEA (1984): "Arrieta, J. A. Arrotzarena. Neurtitz neurgabeak". *Euskal letren dantza*. Hordago. Donostia. 42-45.
- LEKUONA, J. M.: (1986): "Hitzaurrea" in *Bertso-paper printzatuak*. Elkar. Donostia. 7-26.
- LANDA, J. (1986): "Joxe Austin Arrieta". *Argia*. 1.123. 27-31.



## PATZIKU PERURENA IRUDIMENAREN EREDUAN

### 1. Poetika

Izen hori merezi duen artikulu bakarra ezagutzen diogu Patziku Perurenari: “Poesia ez ote da hitzari berari buelta ematea?” testu laburra, 1991. urtean *Enseiucarrean* aldizkarian argira emana. Poeten arteko elkarrizketara gonbidatu duteneko beste artikulu bi ezagutzen ditut, bata: “Goizueta aldeko kanta xahar batzuk” 1992ko urtean Labayru Ikastegiak eraturiko eta titulu berarekin argitaraturiko *Gaurko poesia* mintegian eta, bestea, Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian 1991. urtean eratu zuen ikastaldian; hemengo hitzaldiak “Orixeren poesia” zuen izenburua. Baina bietan zeharbi-dea aukeratu du Perurenak, bere poetika azaldu beharrean bere ekintza praktikoa eragina duten pozedurak, formulak eta hitz andana agertu ditu. Beraz, *Enseiucarreaneko* lanari lotuko gatzazkio poetikaren azalpenerako, eta alde batean utziko hurbileko azterketa baterako baliogarri gerta daitezkeen beste hitzaldi luze biok.

“Poesia ez ote da” testu labur-laburra da berez. Bere laburtasunean, baino zehatza da, batzuetan, agian, zakarra bere baieztapen borobilegietan, baina ezin uka egilearen pentsakizuna zorrotz eta zuzen ematen duela, esandakoa eztabaidagarri suertatzen bada ere noizbaitetan, *boutade* hutsa ez esatearren. Bere laburtasunean, baina testua ez dago bakarrik. Zenbait ideia agertu ziren sakabanatu eta barreiatu *Emily* liburuan.

Mintegia 1989-1990. urteetan zehar eratu omen zen eta testua 1991. urtean agertzen da. Datuan jarriko dugu lehendabizi arreta, Perurenaren liburu gehienak eginda eta argitaratu direnean agertu baitzen. Horrek zerikusi handia du, poetika horiek bere lanaren zehaztapen handienetarikoa delako, neurri handi batean.

Normala denez, irrazionaltasunaren defentsa eginez hasten du bere berbaldia Perurenak:

Gauza jakina da Grezia Zaharrean filosofia eta poesia gauza bera zirelakoan, arrazoizko pentsamenduaren morrontzan jartzen zela, alegia, irudimena. Frustazio naro baten ondorio direneko dadaismo eta surrealismoa kenduz gero, nere ustez, historian zehar pentsamenduak ito egin du giza irudimena kasik arruntean. Eta poesiaren alorra, deus bada ere, irudimen hutsarena da. (1991, 107)

Perurenarengan ohikoa den baieztapen orokorregiak egiteko zaletasunaz aparte, irudimenaren bindikazio nagusia egiten da poetikan. Geroago zabalago ikusiko dugunez, *Emily* liburuan ere antzeko joerak agertzen ditu poetak. Ez dira, beraz, harritzekoak joera eta baieztapena. Nabarmenagoak dira ahazmena eta aipamena. Aipamena dadaismo eta surrealismoaz egiten dena da. Nabaria, hain zuzen ere, Perurenak gutxi duelako mogimendu hauetatik, koplak zahar tradizioaletan aurki genezakeen irrazionalismo tradizionala surrealismoaren parean, zuzen egin ez daitekeena, jartzen ez badugu behintzat.

Ahazmena Erromantizismoa da, hain zuzen ere, irudimena berbaloratu zuen literatur mogimendua. Ez da ongi ulertzen zergatik bota duen esaldia egileak, hain zuzen ere, bera eta bere poesiagintza Erromantizismotik hain hurbil egonda, eta dadaismoa eta surrealismoa gutxi agertzen direnean bere lanean. Okerrago ulertzen da aurreko poesiaren ukazio borobila testuan:

Orain arte izan diren poeta guztiak, nolabait esateko, poeta frustatuak baizik ez dira izan. (1991, 107)

Eskerrak bere burua ere, nonbait, zerrenda horretan kokatzen duela, onartzen duenean, irudimenaren mundua oraindik konkistaturik gabeko lurralde dela:

Bai, irudimena, gizonak oraino konkistatu gabe daukan lurraldea da, eta lurralde hori konkistatu bitartean, ezin da hitzegingoesiaz, izan ere, hori, lurralde eder horixe, eta horixe besterik ez bait da poesiarena. (1991, 107)

Esaldi borobilegiek urduritu egin bagaituzte ere, diren neurrian hartu behar dira, uste, asmo edo sinesmen baten agerbide. Eta garbi dago irudimenaren mundua dela Perurenarena.

Hemendik aurrera zail xamarra zaio irudimena zer den gauzatzen. Eta gehiago du idealaren ezin definituko izaki gisa, eta ez, ulertu dezakegun zer-bait gisa

Hitzera makur ote liteke irudimena? Ez ote da hitz kodifikatua baino haruntzago gelditzen irudimenaren paradisoa? ... Edo, bestela esanik, hitzaren bitartez irits ote liteke irudimenaren lurralderaino? (1991, 108)

Paradoxa bat planteatzen ari da Perurena. Irudimena *beste aldean* dago, hitzaren beste aldean. Sinbolistek adierazi zutenez, hitzak baditu eragozpenak

edertasun hutsera hel dadin, horregatik indartu zuten musikaren indarra, musika poesian ere bai. Ildo berean aurkitzen dela dirudi Patziku Perurena. Baina honen erradikaltasunak (bere sinplikerian bortitzago agertzen denak) irtenbiderik gabe uzten du paradoxa, edo hobeto esateko, erradikaltasunak ez du definitzen zer den egin nahi dena.

Hitzari itzulia ematea, isiltasunaren agerpenaren alde jartzea da Perurenaren ustean. Paradoxak isiltasunaren balorapena dakar. Pentsakizun kristauan Jainkoaren aurrean sentitzen zen miresmenaren eragina bazen isiltasuna, Perurenaren usteetan ere berdin antzera gertatzen da irudimenarekin.

Irudimena non sortzen da? Eta non burutzen? Isiltasunean agian? Zibilizaziorik, kulturarik, eta pentsamendurik gabeko kontenplazio isilean bakar bakarrik, agian? (1991, 108)

Puntu honetan poetikak Perurenaren nahi izanaren gogoia adierazten du, baina besterik ez. Agian, hurren etorriko den liburuaren proiektu ere bihurtzen da.

*Isileko kantak*, hain zuzuen ere, horixe da paradoxaren agerpena, nahasmen kontzeptualaren agerbide. Liburu honen atarian, apailatzaileak edo Patziku Perurenaren ahotsa hartzen duen pertsonaiak komunikazioaz eta gizakiak gizartean betetzen duen tokiaz hitz egiten du. Hona liburuaren atariko hitzak:

Bizitzeko nahitaez elkarrekin komunikatu beharreko kontua, gizabana-koa desegiteko gizarteak asmatutako kontzeptu faltsua baizik ez du. (IK, 21)

Gai berdinak agertzen ziren *Emily* liburuan:

Enetzat poesia, komunikazioa baino gehiago inkomunikazioa bait da, gizarte zabalari begira behinipen. (E, 71)

Liburu honetan agertzen zen jada isiltasunaren gaia, komunikazioenaren ondoan. Isiltasunak, ordea, toki handiagoa hartzen du *Isileko kantak* liburua- ren egile den Fidelen esanetan. Pentsamendu llabur gisan eskaintzen ditu idazleak isiltasunari buruzko bere iritziak. Molde desberdinetakoak: paradoxak, baieztapen kankailuak, filosofia itxurako esaldiak... Baina denak isiltasunaren alde. Hona filosofia honen laburpena:

Isiltasunak, mundu honetako gauza bakoitzari berez dagokion ahotsa edertzen dio. (IK, 23)

Isiltasuna asmo eta helburu gisa. Baina hitza eta poesia praktika gisa. Bien arteko zubian higitzen da Perurenaren poesia, hurrengo orrialdeetan irakurri-ko duguna.

## 2. Pertsonaien ahotsa

Patziku Perurenak bere burua apailatzaile gisa aurkezten du bere poema liburuetan, poesia perspektibismo jokoan sartuz, poemak marko baten barruan kokatuz. Beste norbaitenak, Joannes d'Iraolarenak, Emilyrenak, Iraingo apaiz gaztearenak edo Fidel adiskidearenak balira bezala aurkezten ditu bere poemak, pertsonaia guzti horien mozturpean bere izaera ezkutatu. Horien eskuizkribua aurkitu duenaren fikzioa erabili du Perurenak haien poemak transkripzioa egingo balu bezala. Pessoa asmaturiko heteronimoen jokoak? Ez, zuzenean, Pessoa-ren heteronimo bakoitzak bere ahots propioa baitzuen, eta Perurenaren poeta bakoitzak Leizarraren ahotsa erakusten du, ez dute fikziozko autonomiarik, mozturpe guztietan Perurenaren irribarre maltzurra, begirada zorrotza, bizar gorria ageri dira, eta bere joera, bere poesia moldea.

Joko hori, beste norbaiten luman jartzea norberaren tintaren kolorea teatralizazio barrokoarekin lotuenezake, barrokoak gehien maite duen irudia baita antzerkiarena; eta mundua antzerki gisa ulertuko du, denbora muga ezin eta aldakorren barnean ez baitago ikusterik zer den zentzuzko eta zer gezurrezko, zer itxura, zer benetakoa. Beste norbaiten itxura hartzen du poetak, baina, ispilu jokoak balitz bezala, izaeraz eta nortasunaz galdetzeko era besterik ez da. Nitasunaren inguruko galdera. Eta erantzuna *Emily* poema liburuan:

*Ni ez naun ezer*  
Ni naizela uste dudana,  
naun ni, edo  
izatea gustatuko litzaidakeena.  
Jendeak benetan naizela  
uste duena  
naun ni, edo  
izan naitekeela uste duena.  
Hortaz, izatez, ez naun ezer,  
mundu zabaleko teatroan  
pertsonaia irreal bat baino. (E, 76)

Pertsonaia munduko teatroan aurkitzen da. Barrokoak nahi bezala, pertsonaia irreal da. Baina poemaren hasieraz kargutzen bagara, nola ez ekarri gogora Unamuno eta existentzialismoa, nola ez gogoratu existentzialistek izaeraz duten galdera: zer ote den izana? norberak bere buruaz uste duena ala bere usteaz duen iritzia. Ugaria eta multiplikatu da izana. Eta bestearen lanaren apailatzaile izateak bere karguak ditu, azken batean nitasunaren ezabapenaren ardura hartzen du bere gain, izaeraz izanaren arima desagertzeko jokoa ari baita Perurena. Rimbaud-en esaldi nagusia idazten du kopetan: "Beste

norbait naiz”, eta esaldia aipatu egingo du poemategiko orrialdeetan. Nortasunaren galera gertatu da, eta identitateen jokoan ahots poetikoa besterik ez da geratu.

Gauza kuriozosa da ere, nola bere idazlan guziak bigarren pertsona bati zuzendurik dauden. Jarrera honek —poemen sarreran ematen den arrazoiak gain— mila interpretazio gehiago izan lezake. Ausaz, ez zuen bere “*nitasunean*” sinistuko, ez zuen bere buruaren existentzia sinistuko, bere burua beste pertsonaia arrotz bat baino ez zela usteko zuen (bere poema batean gisako zerbait nabari da, behintzat), eta honela pertsonaia arrotz horri idatziko zion, bidenabar bere buruari edo bere buruaz idazten zuelarik. Edo behar bada, ukatu egin nahi izanen zuen bere burua, bat bederaren burua gezur hutsa dela adierazi, bere egoerakin eskizofreniaz eta ironiaz jokatuaz. (E, 12)

Horrela idazten du Patziku Perurenaren ahotsa antzezten duen pertsonaiak Emily pertsonaiak. Zuzen eta serio hartu behar ditugu hitzok? Baietzean nago orohar, ironia ahaztu barik. Eta horretan nago oraindik, Patziku Perurena idazlearen nortasuna, bere joera *manieraz* bihurtu aurretik dabilelako, eta diena ontzat hartu behar zaio. Baina ironiarekin kontu handia izan behar da, noiz edo noiz idazlearen pertsonaia maskara eta mozorro bihurtzen delako. Gaiaren hariaren joan-etorrian hainbat mataza ondo lotu gabe uzten ditu idazleak, hor dira diskurtsoaren jira-birak, ahalerazko aditzen errepikazioa, arrazoiak garbi ez ematearen joera eta aipuak (“zaila da jakiten”, “Nik ez dakit”). Zalantzaren jokoak ironiaren atearen aurrean jartzen bagaitu ere, aurreko aipuan sendotasunak argi izpia dager eta ausaz eta beharbada guztien atzetik badago teoria luze baten agerpena. Tonuak *Isileko kantak* liburuan bere Fidel lagunaren poesia gaiak aipatzerakoan erabili den ziurtasuna gogora ekartzen du.

Ironia baino, ez da falta idazleak berak, Patziku Perurenak hitzaurrea jartzen dienean liburuei, eta kritikoren batek muturra sartu aurretik, berak aipatzen du zein den liburuaren artean kokaturik agertzen den poeta, eta bien arteko zirrikituan dager ironia. Hitzaurrerik txiroena *Joannes d'Iraolaren poema bilduman* aurkitzen dugu, ia-ia edizioari buruzko ohar batzuk besterik ez dira.

*Emily* liburuan, aldiz poetak askoz ere sarrera handiagoa egiten du eta zertzeladak ugalduek; gainera “Biografiaren tanta batzuk” eskaini ditu idazleak berak sorturiko pertsonaiaren gorpuzketa osatu nahi izango balu bezala, eta, gutxi balitz bezala, sail bakoitzari “Sarrera” jarri dio apalatzailleak. *Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharratik* hasita beste estrategia bati ekin dio Patziku Perurenak: kontaktaren bidea hartuz, narrazioak kokatzen du, testiguen galdetuz gainera, testu poetikoa ikerketa-girotze baten jokoan, “erlatu enmarkatu”aren teknika jarraituz, literatura harrigarria hurbiltzen da idazlea, narrazioaren barneko narrazioaren teknika jarraitzen duelarik kontaktaren

teknika erabili izan da *Isileko kantak* liburuan ere. Baina narrazioaren gainetik, edo azpitik, testuak badu beste joera nagusia: pertsonaiari buruz dioenean Patziku Perurenak bere filosofia marrazten du:

Mirandek euskararen prosodiaz jabetasun handi handirik ez ote zuen iruditzen zitzaion Fideli; belarriz behar bezala gozatu gabeko hizkuntza lehorra ez ote zen izan harentzako euskara. (IK, 21)

edo bizitzari buruz, azken batean azaldu egiten bai zaizkigu poemategian agertzen diren gaiak, logikoki agertzen direlarik hitzaurregileari agertzen zaizkion iritziak:

Fidelek ez zuen sinesten amodioaren kontzeptuan ere. Ez, ez zuen sinesten amodioaren kontzeptu mistiko edo izpiritualean. Ez zuen sinesten maiteminean ere. Harentzat, *maitemina* eta *gizamina* gauza bera ziren: sufrimentu hutsa, zibilizazioaren ondorioz zabaldutako giza pozoiz hutsa. (IK, 17)

Hitzaurre egile eta pertsonaien arteko ahotsen artean joko bikoitza agertzen da, beraz. Apailatzaileak azalpenerako hizkuntza logiko-deskriptiboa erabiltzen du, pertsonaiak egiten duelarik hizkuntza poetikoa. Baina pertsonaiatz ari denean filologo kumeak egilearen aurpegiko trazak marrazten ditu ispilu batean aurkituko bagina bezala, paradoxaren indarrez.

Kontraste joko honek badu zerikusirik erabilitako hizkuntza motarekin ere. Apailatzaileak hitz lasoa erabiltzen duen artean, pertsonaia-idazleak hitz neurtua. Logikoa zen neurri batean, baina ohar bi egin nahi nituzke honetaz, arazoa ez baita zuzenean distribuzio kontu bat soilik, prosa kritikarako, hitz neurtua sorkuntzarako. Sakonetik begiratuta literatur generoen kontua dugu. Patziku Perurenak generoen arteko mugak hautsi nahi lituzke (agian, gaur egun ulertzen dugun idazlea originalaren irudia puskatu nahi duen modu berberan, jakina baita bere liburuetan beste egile batzuen pasarteak aurkitzen direla, metatestu gisa, Perurenaren materialen artean integraturik) hitz laso poetikoaren generoa ere landuz. Hizkera logiko eta kritiko hori poetikoa ere baita, estilo borondatea agerian uzten duelako. Baina prosa lirikoa landu du neurri berean *Emily* liburuaren hainbat pasartetan, gutunetan adibidez. Hitz lasoa ez da erabiltzen soilik saiogintza eta poesia orrialdeetan batzeko. Ez, generoan arteko muga zehazgabea urrunago doa hitz laso poetikoa idazten denean, prosarekin ere poesia egiten denean.

### 3. Irudimena nagusi

Irudimena elementu nagusitzat jotzen da poetika honetan. Hala baieztatzen da, behintzat, *Emily*ren poema baten aipu gisa agertzen den P. P. ren (Patziku Perurenaren) poeman. Egia esateko, egilearen izena poemetan ikus-



ten dudan lehen aldia da eta bitxitasun horrek adieraziko luke ezerk baino hobeto zein garrantzia ematen zaion kontzeptuari:

Imajinazioak unibertsoa,  
gauza orok baino lehen  
habitatu zuen; gu baino  
lehenagokoa da imajinazioa,  
imajinazioaren semeak gara gu. (P. P. )

Irudimenaren seme-alabak dira pertsonaia-poetak eta hauen emaitzak. Irudimen erromantikoaren kontzeptuak toki handia du poesia honetan, ikusi besterik ez dago nolako paratestuak, nolako irudiak erabili izan diren *Emily* eta *Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharrean*, aipagarria delarik, batez ere, honetan jarritako Friederich pintorearen irudia: “Ibiltaria laino gainean”. Paisaiaren moral bat eraiki zuen Friederich-ek eta paisaiaren moralala sortzen du, neurri handian, Iraingo apaizak.

Irudimenak funtzio bi betetzen ditu, alde batetik, arrazionalismoaren aurka joateko joera azpimarratzen du; bestetik, hitzen eta motibo poetikoen arteko loturak sortzen ditu. Patziku Perurenak irudimenaren alde egiten duenean, bere erro erromantikoak azaltzen ditu, Nietzschere-zen zaletasunaren izpiak argitzen duelarik testuaren itzala.

Aunada al culto de las emociones estuvo la exaltación romántica por encima de la razón. En palabras de Shelley: “La razón es a la imaginación como el instrumento al agente, como el cuerpo al espíritu, como la sombra a la sustancia” ... hemos de notar un importante motivo del hincapié romántico en la imaginación: a saber, la idea de que la imaginación y sólo la imaginación podía ayudar al artista o al poeta a hacer justicia a la unicidad o peculiaridad del objeto particular que hubiese decidido retratar. (Schenck, 1984, 27)

Arrazionalitatearen aurka mogitzen den neurrian, irudimenak bere bideak irekitzen ditu literaturan. M. H. Abrams, erromantizismoaren ikerlariak honako forma hauetan ikusten du irudimenaren eragina literaturan (1994, 166-187):

a) Pentsakera sistema aldakor eta mugikorra da eta kontraesana bere mototarra da.

b) Batasun galdua eta batasun berraurkitua. Erromantikoentzat gizakia oinarriz eta jaiotza unean baturik bizi zen izadiarekin eta pentsakizunak banandu duenez, mundu honetan batasuna berreskuratzeko asmoz bizi da.

c) Espiralean egiten den mugimentua da bizitzan nagusi. Gizakiaren helburua batasun galdua berreskuratzea bada ere, berreskurapena beste eremu nagusiago batean agertzen da.

d) Norberaren heziketak eramango gaitu erredentziara, gizakiaren bizitzak aurrera egingo du honek barne heziketa egiten duen neurrian.

e) Etxera itzultzeko bidaia gai nagusia da erromantikoen artean. Gizakia galdurik dago mundu honetan eta itzuli nahi du.

f) Filosofia eta literaturan arteko lotura. Joera honen arabera literatura filosofia baten agerbidea da, bizitzari buruzko pentsaeraren agerbidea. Horrela, filosofoiak agertzen zuen higidura geldiezinaren formen artean aurkitzen ditugu pertsonaia deslaxiak, bere herritik irten eta helmuga batera heldu nahi dutenak. Lurrez lur dabilen irudia orokortu egiten da eta zenbait kasutan pekataria da, gizartetik urrundu dena.

Ezaugarri horien aipamena irakurriz beste barik etorri zaizkigu burura Patziku Perurenaren pertsonaiak. Kontraesanez beteak dira, paradoxa maite dute, mugikorak dira unoro-unoro. Emily pertsonaia litzateke, agian, paradoxa maite duena, eta Fidel bere barne heziketa azken punturaino eramán duena. Pekatari eta ibiltari dugu, ordea, Iraingo apaiz gaztea.

Erromantizismoa maite da, bai:

Esan bezala, poeta erromantikoak omen zituen gustoko: Hölderlin, Leopardi, eta batez ere, “gizona desioak eraiki, eta errealtateak desegin egiten duela” esaten zuen poeta andaluz bat. (E, 29)

Baina etxera, bakera, paradisura itzultzeko joera honetan Nietzschere-  
ren bitalismoak ere bere joera nabarmena utzi du.

Bakartiak eta era berean (barne heziketa egin dutelako), aristokratikoak dira pertsonaiak, batez ere Fidel; gizartetik kanpo kokatzen duena bere burua:

Giza zibilizazioa?... Utikan! Izpiritu absurdo baten pozoia! ... Izan ere, ez baita isiltasuna baino iraultza zinezkoagorik giza izurrite honi bizkar emateko. (IK, 13)

Baina Fidelek, ez da esan beharrik, gizartean ere ez zuen sinesten eta, nola sinestuko zuen ba iraultzan! (IK, 21)

Bere bakar eta bakantasunean, pertsonaiok errugabeak dira, paradisu galdu baten bila ari direnak. Errugabe izatea, edo pekatuaren kontzientzirik ez izatea batez ere Iraingo apaizarengan agertzen da. Haren jarrera “garbia” Patziku Perurena egilearen probokazio gogoarekin batzen da.

Poza ematen du apaiza gazte honen gauzak hain garbi eta klaro esateko moduak. (IA, 11)

Joannes d’Iraola alde batera uzten badugu, bera baita zehaztasunik gutxien duen pertsonaia, (“ibiltari mentuzalea” zela esaten zaigu), beste hirurak galdu egiten dute urte aroetakoa ohi den barne oreka eta horren bila abiatu-  
rikoak dira. Emilyk sorgin izpiritua du, enigmaz inguraturik bizi da eta haren inguruko poesia misterioz beterik agertzen da, pertsonaia Palazio Grisean bizi delarik bakarrik:

Ez omen zuen onartu sekulan bere ondoan inor, baldin bere abentura izpiritual hura konprenituko zuena ez bazen ... Bere bakardade isilean bizi zuen mistizismo hari indar gehiago emateko, zuriz jantziko zen beti handik aurrera gure andere enigmatikoa. (E, 27)

*Emily* liburuaren epilogoan Patziku Perurenak jokoak bukatu egiten du, Joannes Emilyren neba zela iradokiz:

Biografiari dagokion atalean gauza bat ahaztu zait. Emilyk bazuen neba bat, bera baino urte batzuk zaharragoa zena, eta herri tipi hartan Joannes deitzen ziotena. (E, 167)

Iraingo apaiza neskaxa itsuaz maitemindurik bizi da, eta Fidel, *Isiliko kantak* liburuaren egilea apaiz semea da. Bakanak, beraz, eta bakartasunean bizi direnak. Izadiaren gorazarrea bihurtuko da hiruren joera nagusi. Elurra da Emilyk harrigarritzat duen eguraldiko aldea.

Natura ere maite zuen oso. (E, 30)

Iraingo apaizak izadia du helburu nagusi, eta kantutegiaren lehen aldea, izadiari gorazarre egiteko asmoz oratu du. Eta Fidelek ere, koplak zaharrari fidel, izaditik hartuko ditu bere sorkuntzarako iturriak. Izadiaren agerpen hori ez ote da paradisu galduaren nostalgia? Ez ote batasun galdura itzultzeko ahalegina?

Paisaiaren moralak aipatu dugu lehenago, eta paisaiaren mistizismoa esan genezake orain. Emilyk leihotik begiratzen duenean infinitoa ikusten du, laino gainetik ari den Friederich-en ibiltariaren antzera.

Wordsworth-en ideiak errepasatuko bagenitu, izadiak baretasunareko eta hausnarketarako duen garrantziaz konturatuko ginatke. Perurenaren paisaiak zerikusi handia du erromantizismoaren izadi joera baketsuarekin (ekaitzak agertzen ez direlarik). Egia da tratamendu honen aldekoa dela aukeratu duen koplak zaharraren teknika, eta herri literaturarena orohar. Teknika horrek sugerentziara jotzen duenez, eta ez deskripziora (*Isileko kantak* liburuko poemak dira tankera luzeko bakarrak), Perurenaren izadiak ez du ematen topiko erromantikoak erakutsi digun joera bortitzaren aurpegirik. Ez, berea baretasun eta baketik hausnarketara eramango gaituena da.

Irudimenean sinesten duen poeta bada ere, liburuaren egiturak eta zatiketak eskema ongi pentsatuak uzten dituzte agerian. Beste hitzekin esateko, irudimenak pakea egiten du arrazoiarekin liburua eratzeko orduan. Pertsonaien eta egilearen arteko jokoak hemen agertzen du bere bikoiztasuna. Irudimena gidaritzat harturik, egin dituzte pertsonaiek poemak. Apailatzaileak, egileak zuzenean, atondu eta ordenatu egin ditu. Haiek irudimenaz jokatzaren dute. Honek arrazoiz.

Horrela Joannes d'Iraolaren poemategian hiru ataletan banatzen da poemategia: "Haurtzaroa", "Gaztaroa", "Heriotza", bizitza osoa irudikatuko

lukeen bidaian. Bada, horrezaz gain, zer esan, zeren goiko horiek baitira poemategian agertzen diren izenburuak. Hitzaurrean bestela eman ditu apailatzaileak.

Lehen atala beraz, “haurtzaroaren misterioak” osatzen du poemak zorion betean bizitzen diren aroak. Bigarrena: “bizitzari aurpegi eman beharrean misterioak”, bizitzeko ezinbestean poemak ontzen diren aroak. Hirugarrena eta azkena: heriotzaren misterioak ... heriotzaren ataurrera biltzen diren poemen aroak. (JI, 11)

Ez da soilik izen kontua, izen desberdinak eman dituela hitzaurreko oharretan eta testuan, zerbait sakonagoa da aipatzen dena, poemategi osatuaren itxura agertzen du Patziku Perurenak, onartuz, jokoaren jokoz:

Poema bakoitzaren autonomia osoz osatzen den bilduma baizik ez luke behar honek. Halere, nolazpaiteko itxura edo tajuketa eman nahiz, aurreneko poemak erakusten duen garapidea eman diot. (JI, 11)

Beste kontu bat litzateke sail bakoitzean kokaturiko poemen gaiak ongi egokitzen diren aurrez jarritako adinari loturiko gai nagusi horri. Ez dakit nik zer erantzun. Nire irudiko atalaren gaia eta poemen artekoa ez da zuzena. Gaztaroko zenbait poemek badute zerikusi eta loturarik Heriotza sailekoekin, nahiz eta idazlea, borondatez, saiatu den aurrez jarritako asmoari lotzen, eta hola “Haurtzaroa”n kokatu ditu gurasoen irudia, neskatxan adiskidantza gisako gaiak. Eta “Gaztaroa”n tristuraren eremuak eta sentibera ilunak eta erabakiak hartzeko orduko kezakak. “Heriotza” sailean ez da falta “Herioak” eta “Adio” (JI, 72) deituriko poemak. Baina era berean agertzen dira “Haurtzaroa”n denbora etenezineko sinboloak, iluna, arratsaldea, ilunabarra, udazkena.

*Emily* poemategian bestelako irizpideak banandu ditu atalak; irizpide filologiko-edo dei dezakegunak. Apailatzaileak Emilyren testu desberdinak izan ditu eskuartean. Gutunak, poemak, epigramak eta apokrifioak, lau genero desberdin sailkatu ditu eta testuak hor jarri. Bere aldetik, apailatzaileak ordenamendua egiteaz gain, hitzaurrea, biografia tantak eta epilogoia idatzi ditu eta gainera atal bakoitzari sarrera. Literatur genero desberdinetan sailkatu ditu testuok, lau atal nagusi osatu arte. Gaiak ez du orain agindu, baizik generoak. *Emily* liburuaren gaia galdera behin eta berrirokoa baita nortasunari buruz eta modernitateari buruz, gai filosofikoa behin eta berriro ehiotua.

Berriro gaiak sailkatuko dute *Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharra*. Hiru sail nagusi hemen ere: “Egunac”, “Gauac” eta “Eta gaiñera gaiñecoac”. Honela hitz egiten du apailatzaileak sarreran:

Eta zer da, bada, kantutegi honetako EGUNAC delako atala, landare, animaliei eta hegaztiei egiten zaien gorazarrea ez bada? Eta landarezalea dena naturazale ere izatea, gauzarik zentzuzkoena ez al da? ... Honez gainera,

GAUAC delako atalak neska itsuaren aipamen ugari dakazki; eta amodiozkoak ere bai nahasian. Hortaz, nork esan GAUAC delako atalak *Iraingo* apaiz gazte hark hain maite zuen neskato itsua sinbolizatzen ez duenik? ... Eta, hain justuki ere, ez al dute ETA GAÑERA GAIÑECOAC deritzan ataleko kanta horiek herriz herri bildu izanen zituen kanta askoren taiua? (JA, 14-15)

Egileak ematen ditu atal bakoitzaren zentzu nagusia, eta gainera, azken atalari dagokionez, Perurenari atsegin zaion moduan, egilearen kontzeptuarekin jolasean ari dela aipatzen digu, herrietatik bildutako poema batzuk bereak balira bezala aurkezten dituelarik, ezaguna da eta Perurenak lan handia egin duela Leitzako folklorea biltzen.

Liburu honetako sailek gai aldetiko lotura handia dute, sail bakoitzeko batasuna *Joannes d'Iraola* liburukoa baino finkoagoa da.

Espazialtasunak ematen die batasuna *Isileko kantak* liburuko alde desberdinei. Zenbaki magikoekin jolastuz, lehendabiziko sail biek gai aldetiko lotura dute: “Isileko kantak” eta “Irudimenezko jostaketak” dute atalen izenburutzat. Biek osotzen dituzte bere joeran errealtate baten alde biak. “Testamentua” deituriko poemak zabaltzen du liburua eta nagusia da poema Perurenaren asmoen agerbide gisa. Poetika osatu arte “Testamentua”k idazlearen pentsakizunaren islada osatzen du:

Gorde egiten du bere burua letra zahar artean  
Eper gorriak gari onduen tartean bezala... (IK, 31)

Patziku Perurenaren poesian beti egon da presente lan poetikoak sortzen duen ardura, hizkera poetikoari buruzko pentsakizuna. Eta “Isileko kantak”ek berak atsegin dituen paradoxen bidetik jotzen badu ere, hain zuzen ere isiltasuna adierazpide den heinean da hitza baino aproposagoa barnea jaulkitzeko, “Testamentua”k poetaren sinesmen kanta azaldu du. “Irudimenezko jostaketak” sailak poesia zer ote den galdetzen duenarentzat erantzun izan nahi du.

Ondoren poetak bost sail nagusitan banatzen du liburuaren gaia, titulu bakoitza hitz biz eman da argitara. Lehenak saileko gai nagusia du aipamen, bigarrenak espazio bat azaltzen du. Begira dezagun zerrenda: “Udatzenaren magalean”, “Amodioaren zurrunbiloan”, “Denboraren errotan”, “Heriotzaren planetan”, “Isiltasunaren tenpluan”. Bost gai nagusi poetika bat azaltzeko: izadia, amodioa, denbora, heriotza eta Jainkoa, eta isiltasuna. Eta denak errotan bezala, indar zentripetoak higituko balitu bezala.

#### 4. Eta, hala ere

Liburuen egituraketan nolabaiteko zentzuaren batasunak bultzatu du poeta testuak osatzera eta inguratzen adar baten inguruan. Baina ez genituzke alde batera utzi behar liburuetan zehar nonahi idazleak barreiatu dituen arrazoia-  
ren aurkako iritziak.

Bat gogoratzearren, Emilyren apailatzaileak jarritako hitzak ekarri nahi nituzke hona:

Imajinazioa goreneco mailan jarriaz, zera esan zuen William Blakek, imajinazioak huts egitean arrazoiaren baitara erortzen ginela, eta arrazoiak huts egitean instintoaren baitara. (E, 131)

Non agertuko litzateke poeta honengan imajinazioaren indarra? Puntu bitan ikusten diot nik ahalmen horren xarma, zein baino zein garrantzitsuagoa poetika honetan.

Alde batetik, Patziku Perurenak sinesten du kopla zaharren irrazionalismo poetikoan. Haiku japoniarren teknika ikaragarri hedatu da gure artean eta denok dakigu jada izadiko ikuskizun eta errealtatearen arteko loturak islada eta ezuste politak sortzen dituela. Eta haikuzalea da Perurena, zehatza da bere poesia lanean eta nahiago du kopla zaharraren metrika estu eta neurtua.

Kopla zaharren estetikaren bidez irrazionaltasun poetikoaren bidetik bide zuhurra erakutsi du Patziku Perurenak izadian diren irudi magikoak papere-ratzeko. *Emily* liburuan “Epigrama” saila zabaldu zuenetik aurrera ez da falta bere liburuetan kopla zaharraren ohiartzunik:

Abuztuko ilunabar luzeetan  
euriaren zain ziauden laborariak,  
gisa berean espero dizkinat nik  
urpeko hire bi begi zuriak... (E, 108)

Kopla zaharrak izadira begiratzen du, baina ez bakarrik. Begira beste honetan nola kopla zaharrak azalaratzen duen barne ikuspegia.

Irudimena eta sendimendua  
hari biko harpa isilak  
besterik ez omen gaitun, izan  
hire homonimoak hala zionan. (E, 114)

Izan ere kopla zaharraren irrazionaltasuna izadiarekin lotzen bada, Sarrionandiarengan ere aurkitzen den “Epigrama” kontzeptuak, poemaren laburtasunaz gain, beste joerak hartzen ditu: paradoxak, joko ironiko zein pentsakizun zorrotzaren agerpenak. Halere, Sarrionandiaren eragina zenbatekoan den ikusteko bego hemen haren aipamenean eraikitako poematxoak:

Izuen gordelekuetan bildu ditun  
maiatzaren lehenean paganoitsuak... (E, 119)

Ez da Perurenaren olerkigintzan aurkitzen den durangarraren eragin bakarra. *Joannes d’Iraolaren poema bilduma* zabaltzea besterik ez dago haren eragina begi aurrean aurkitzeko:

Ez dut orojakileentzat eskribatzen ...

Ez dut patrikeran egutegia daramatenentzat eskribatzen...  
Ez dut eskribatzen mirail aurrean orrazten direnentzat  
Haatik, beste harentzat eskribatu ohi dut  
nehoiz, nehon deusik erraitea ausartu ez denarentzat... (JI, 14)

Irudimenak, gure gai nagusira itzuliz, berebiziko helburua betetzen du poetika honetan. Irudia aurkitzeko orduan begi zolia izateko ahalmena da irudi poetiko berri eta estonagarriaren aurrean, irudimenak agintzen du ezusteko loturan, edertasuna bilatzeko, elementu tradizionalekin lotura berriak egiteko joeran. Larria eta larregia ez balitz, esango nuke Perurenak surrealismoa egiten duela tradizioetik aukeratuko sinboloekin:

Gau hegaztiak pausatu dira  
hilargiaren karelan,  
Ibai mozkorrek marmarrez doaz  
ilunaren ardangelan,  
Lizar hostoak negarrez daude  
haizearen xaramelan. (IK, 81)

Irudimenak begian agintzen du, baina aginte bera du belarrarian, erritmo tradizional eta ezaguna maite du Perurenak, eta hizkeraren aukeran askatasunez eta aberastasunez jokatzearan ere irudimena erabili du leitzarrak. Berak Fidel heteronimoaz dioena sinatuko luke, txiripaz aurpegia agerian jarri behar izango balu:

Euskal poeten artean berriz, badakit Orixe oso gogoko zuela. (IK, 20)

Baina Orixeren itzala nagusitzen hasten da, nire aburuz, *Emily*neko “Epigramak” sailetik aurrera, eta luzatzen herri tradizioa hedatzen den heinean. Lehenago beste bide batzuetatik ibili dela nabaritzen zaio Perurenaren pauso poetikoari.

*Joannes d'Iraolaren poema bilduma* liburuak erakusten du kulteranismoaren arnasik. Exotismorako duen joera eta toki urrun bezain aparten aipamenean, poemak inguratzen dituzten oharren pertsonaiengan nabari da Sarrionandiak edo *novísimoek* utzitako tendentzia, ez alferrik liburu honetako lehen idazle aipatuak Sarrionandia eta Atxaga baitira. Gerora ere, batez ere *Emily* liburuan, irakurketa desberdinen pisua handia da. Herri arnasaren konpasean hasten da Perurena Orixerengana hurbiltzen.

Irudimenak, beraz, detaile tipi politen aukeran agertuko luke ahalbidea, poesia zabala egiteko gogoan, elementu desberdinen aukeran, hauen loturan.

Baina beste alor batean ere agertzen du irudimenak bere lana. Patziku Perurenaren poesiak badu itxurazko ezaugarri bat, forma aldetik monotematikoa dela ematen duena, nekatu arteko *tour de forcea* dela esango genuke, hariari tira eta tira dabilena. Irudimenak laguntzen du mikrokosmoaren hedapenean. Ikuspegi desberdinen planteamenduan laguntzen du irudimenak.

Prozedura honelakoxea dela esan genezake: liburuek badute tonu nagusia eta horren inguruan moldatzen dira beste molde batzuk, bide luze eta zuzena da liburuak aurrean duena, baina inguruak ere agertu behar ditu, bide zuzenetik inguruetara doan higiduran eta aukeran laguntzen du irudimenak. Horrela, *Emilyn* adibidez batasuna idatzizko testuek ematen dute. Baina idatzian tonu desberdinak erabili izan dira, gutunetatik epigrametara, idaztanke-ra desberdinekin lantzen delarik.

Ardatza bat da, nahibada, idaztankera eta horren inguruan osatzen ditu idazleak forma desberdinak. Aldakuntza irizpidea, beraz, zera izango litzateke: idatzian tonu desberdinen eta forma aldakorren bila abiatzea.

Metrikak osatuko luke, agian, *Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharreko* moldea. Herri literaturaren eragina nabaria da testuan, eta koplak zaharra eta koplak badira ere ahapaldirik erabilienak, idazleak bere ezagutza erakusten du molde ugari ezberdinetan moldaturiko poemak eratuz: seikoak, zortzikoak, koplak. Gai aldetik ere herrikoitasunaren barnean joera desberdinak hartu ditu: haur kantak, irri bertsoak, kanta lirikoak... Ugaritasuna, aberastasuna litzateke mundu txiki honen ezaugarri nabariena, beraz.

*Isileko kantak* liburuak, bere aldetik, gai aldetiko hedapena egiten du munduari buruzko filosofia nagusia agertu arte. Amodioa, denbora, heriotzaren aurpegiak erakusten dituelarik poetak, filosofia osoa sortzen du testuaren inguruan.

Mundu txikian jarri du bere eremua Patziku Perurenak, baina era berean jakin izan du mundu txiki horren bariazioak agertzen, munduaren ikuskera zabalduz eta poemaren tonuak eman lezakeen nekadura arinduz.

## Bibliografia

- PERURENA, P. (1985): *Joannes d'Iraolaren poema bilduma*. CAP. Donostia.  
— (1987): *Emily*. Elkar. Donostia.  
— (1988): *Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharra*. Pamiela. Iruñea.  
— (1993): *Isileko kantak*. Pamiela. Iruñea.
- PERURENA, P. (1991): “Poesia, ez ote da hitzari berari buelta ematea”. *Ensayo*. 6. 107-109.  
— (1993): “Goizueta aldeko kanta xahar batzuk”. *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao.
- ABRAMS, M. H. (1992): *El romanticismo: Tradición y Revolución*. Visor. Madril.
- HONOUR, H. (1994): *El romanticismo*. Alianza. Madril.
- SCHENK, H. G. (1983): *El espíritu de los románticos europeos*. FCE. Mexiko.



## LUIGI ANSELMI

Luigi Anselmik poeta ezkutuaren fama du, agian *poète mauditena*. Ezizenaren atzean ezkututzen den poetak bere burua estaltzen du, eta bere lanari ematen dio horrela garrantzirik ahaltuena. Gerardo Markuleta, adibidez, honela mintzo zen haren liburu baten iruzkina idazten zuelarik:

Laugarren liburua dugu hau, baina, hala ere, Luigi Anselmi ez dugu oso ezagun. Ez daukat gogoan bere poemarik sekula kantarako erabili ote den, ez da prentsan aritzen, ez da ETBn agertzen, gure poesiaren antologi-apurretan eta historia-zentzuetan ez da ageri. Izenak ezizen itxura du; jaioterria Vinogrado (Bilbo / Bilbaoren *alter egoa*) omen du. (Markuleta, 1993)

Berak baino lehenago arazo honi lerro batzuk eskaini zionik izan zen:

Ez dakigu izen xeble horren atzetik zein idazle ezkututzen den, baina zinez esaten dizuegu oso poeta ona dela. (XX, 1984)

Bost poema liburu idatzi ondoren (hiru euskaraz eta bi gazteleraz), lainoa hasi da zabaltzen, nahiz eta, oraindik, mantentzen den misterioa. *Bacchabunda* bere poema liburuan idazlearen erretratua dator, Urrutia Kapo marrazkilariak egina. Hortxe esaten zaigu 1954. urtean jaio zela Bilbon. Luis Gutierrez Larreak, hauxe baita benetako izena, gurago izan du bere burua eta bere lana Sarrionandiaren ipuin batetik hartu duen izenpean aurrera eraman. Eta hori helburu bi betetzeko asmoz, lehendabizi, literatur pertsonaia sortzeko helburuarekin, osatzeko asmoarekin, horrela literatur lana fikzionatzen du, asmamen bihurtzen bizitza eta literatura banatzen dituelarik eta ez, hain zuzen ere, Markuletak nahi duen moduan nahasketa egiteko joerarekin:

Literaturaren gaineko literatura: bizimodua literatura eginik, literatura bizimoduan nahastuz. (1993)

biografia alde batera uzteko baino; bigarren bizimodua asmatu duela esan genezake, liburuetan soilik agertzen dena eta Gabriel Aresti euskaltegiko ira-

kaslearekin bigarren alde batean agertzen dena soilik. Biografia honela antzaldatua agertzen da, bere pisu biografikotik deserrotua.

Badu, hala ere, joerak bigarren helburu bat. Literatur pertsonaiaren asmatena indartzen delarik, benetako pertsonak pertsonaiari garrantzia ematen diolarik, pisu handiagoa hartzen du poesiak berak, inolako bereizgarririk gabe agertzen duelarik, bilutsik, poema bera. Hona hemen, eta bidenabar esan dezagun, datuak ez baitu indar handirik, idazlearen argazkiarekin batera agertzen den *Eginek* argitaraturiko artikulua batean zer esan den

Luigi Anselmi puso este título (“Una botella al mar”) al libro de poemas porque para él hacer poesía es como arrojar botellas al mar sin saber quién va a ser el que las va a recoger, si es que alguna vez llegan a algún destino.

Anselmi citó al poeta José Emilio Pacheco para defender el anonimato del creador de poesía. Anselmi subrayó que los poetas no tienen que estar pendientes de salir en los papeles para expresar sus ideas, porque su medio es la poesía.

El poeta no busca la celebridad, sino ser leído ... (La poesía) es el lugar de encuentro con la persona ajena. Cuando leemos poesía no leemos a otros, sino que nos leemos a nosotros mismos a través de los versos. Los poemas no son de los poetas, sino del lector que decide si los lee o no.

Filosofia hau jarraiki, Luis Gutiérrez Luigi Anselmiz jantzi da, bere izaera asmatu du, eta, zalantzarik gabe, bere ahotsa sortu du, esperientzia poesiak nahi zuen eran, poetaren bigarren nortasun bat eraikiz bertsoen bidez, zeren Luigi Anselmiren biografia bere liburuetan dagoela esan baitkenezake.

Anonimotasun aukeratuak lagundu badu ere poetaren lana, Luigi Anselmik lagun talde garrantzitsua izan du inguruan, talde partaide gehienak ere Pamiela argitaletxearen ingurukoak direlarik. Jose Enrique Urrutia “Kapok” egin dizkio beti bere liburuetakoa marrazkiak, Txema Larrea, irakasle eta idazlearekin dituen loturak ere ezagunak dira literatur giroetan. Eduardo Gil Bera ere bere poesiaren defentzaile sutua izan dugu. Inoiz, Kaporen eskutik, liburuko marrazkiak lagunarte honi omenaldi egiteko bide ere izan dira. Anonimo bai, beraz, baina ez bakarrik.

Gainera, Luigi Anselmiren poesia zutabeak ez dira inondik inora arinak. Ezagutza handiko poeta dugu, irakurketa oparokoa. Eta horrezaz gain, influentziak ongi barneratu dituen poetaren itxura erakusten du bere esaldi fin moldatuan. Sarrionandiaren ipuinetatik datorkiola izena esan ohi da, eta Markuletak ere horixe aipatu du:

Poesi hizkerari dagokionean, izango da Luigi Anselmi Sarrionandiaren leinukoa dela esaten duenik: hitzarekiko arreta, hautapen dialektaletarako joera, baina beti komunikazioari traba larregirik jarri gabe, aipamen hutsalari lekurik eman gabe. (Markuleta, 1993)

Pamiela argitaletxeak zabalduko eta Txema Larreak sinaturiko guziz serioetan hartu ezin dezakegun orrialde batean hor ere ageriz eta era berean estaliz ari den, orrialdean, hauxe esaten zaigu Luigi Anselmiri buruz:

La familia queriendo salvarle de sí mismo y también de cualquier filiación con la guerrilla secesionista, le envió a Hampshire. Y allí —flowerrak pikapaztatzen— adquirió un inglés aceptable y unos rudimentos de jardinería ... Con esta base comenzó a escribir poesía, en inglés, obviamente.

Iritziaren joera ironikoa nagusi-nagusia bada ere, testuak egia jakina mozorrotzen du: ingeles poesiaren eragina poetika honetan. *Desirako alegiak* liburuako aipuak errepetatuz, beste barik, ikusiko ditugu hainbat ingeles poeta: Emily Dickinson, T. S. Eliot, Ezra Pound, W. H. Davies, euskal errefranekin eta bertsolariekin nahastuta. Liburuaren barnean Wells eta Auden aurkituko ditugu, hizkuntza originalean aipatuak. Horrela, bere kide batek, Gil Berak adierazi du poetaren eta Ingalaterrako literaturaren arteko harremana: Pound-en eragina aipatzen du, batez ere, iruditeriaren erabilpenean. Eta hori omen da loturarik sendoena Luigi Anselmi eta Irla nagusiko poesiaren artean. Euskaldunen artean, Sarrionandiaz gain, Miranderen eta gerra aurreko poeta nagusien irakurketak nabari zaizkio Luigi Anselmiri, Lauaxeta eta Lizardirena, alegia.

Denborarekin, eta astiro-astiro Luigi Anselmi kulto poeta bihurtzen hasia dela dirudi, “zinez esaten dizuegu poeta ona dela” idatzi zuen idazle ezezagun hari kasu ginez. Gai berau jorratzen du Markuletak ere bere aipamenean:

Liburu hau (*Bacchabunda*) diska balitz, “disque de culte” izango litzateke inizatuentzat, merezi bai baina publiko zabalari heldu ohi ez diren horietakoa. (1993)

Pertsonaren irudia, ahal den neurrian, marraztu dugu, orain bere poesia irakurtzea geratzen zaigu, berak aholkuz emandakoa bete behar dugularik: lanari heldu eta lanaren bidez, benetako poeta ezagutu. Bide horretan, pertsonari buruz irudia tinkoa zabaldu den heinean, anonimoa, ezkutua, baina kalitatezko eta kultuzkoa, zabaldu da beste irudia poetari buruz, ardoa eta hiriaren artean, hedonismoan sinesten duen poetaren irudia.

Bada garaia baina, liburu zabalteko eta irakurtzeko ispiluaren beste aldean.

## 1. Ispiluaren beste aldean

*Zoo ilogikoa* poema liburu zabalduaz, besterik gabe, agertzen dira Luigi Anselmiren poemetan nagusi izango diren ezaugarriak. Han dago, adibidez, poema itsasora bidaliriko botela dela baieztatzen duen iritzia.

Itsasoko ur gainean  
kulunkatzen diren  
botila ur guztiek  
mezu triste bana  
daramate  
odolik gabeko  
bihotzean... (ZI, 62)

Ezaugarri amankomun batzuez hitz egin dute irazkin egileek. Hauetatik hasiko gara, Luigi Anselmiren poesian aurkitzen den gunea definitu nahiez. Eduardo Gil Berak, adibidez, tonuaz hitz egiten du Anselmiren poesiaren eza-gutza egin nahi duenean, eta haren “imajinazio ikaragarria” goraiatu; Patziku Perurenak ere, “imajina ederreko eta sentipen zoragarriko” poeta dela idazten du. Hizkeraz hitz egin dute Edorta Jimenezek “Berkak, zehatz eta tentuz hautatuak” direla baietsiz; Gerardo Markuletak, ordea, poemak Sarrionandiarekin lotura dutela, hizkera mailan bederen, ohartu ondoren, beste hau gaineratu du:

Anselmik bere bidea egiten du, hizkeran zein moldeetan, gainera metaforarako eta paralelismorako ahalmen boteretsua erakusten du.  
(1993)

Tonuan eta hizkeran batasun haria aurkitzen badute idazleok, ez du horrek esan nahi poetikan beste loturarik ez denik aurkitzen Luigi Anselmiren lanean. Hasteko, gai aldetiko batasuna aipatu beharko genuke. Gaiez hitz egiteko orduan, arazo metodologikoa azaltzen zaigu, hitzgai hau modu bitara aurkeztekoa baitugu. Gainetiko irakurketa bat egin dezakegu, eta begi bistakoa dena aipatu; horrela Gerardo Markuletak begi zorrotzez deskribaturiko hirukoitasun hartara, “Arnoa, larrua eta gaua”, helduko ginateke. Eta horrela da, izan ere, hiru hitz honetan Luigi Anselmiren poesia lanean aurki daitezkeen gaiak agertu zaizkigu.

Dena dela, oharpen txikia egin nahi genuke hemen. Hirukoitasun hori *Bacchabundaren* lana deskribatzeko egina da, eta arno eta gauaren gaiak *Desirako alegien* inguruan sorturikoak dira. *Zoo ilogikoan* ardoaren gaiak bere tokia hartzen hasia bada ere, gauak ez du betetzen ondorengo liburuetan agertuko duen toki berezirik. Ardoak bai, ordea, zabaltzen du idazle honengan nagusia izango den hedonismoaren atea:

Arnoa edaten  
duzunean  
ez egin negarrik  
isurki preziatuaren  
xorta bat ere  
alferrik ez galtzeko... (ZI, 61)

Bada, dena dela, gaien deskribapenera heltzeko bigarren zeharkako bidea: metafora nagusiena. *Zoo ilogikoa* ez da tituluak hori adierazten badu ere, bestiario bat, alegi liburua, nahiz eta animaliak eta, zuzenago dena, alegoria agertu liburuan zehar, eta ez da alegi bilduma, nahiz eta sinadurarik gabeko ohar-txo baten: “animaliak” dira protagonista” idatzi Edorta Jimenezek. *Bacchabundan* idazlearen adiskideak agertzen direla eta, “bestiario txiki eta elegantea” egin duela uste izan. *Zoo ilogikoan* nagusia dena, eta beste liburu-tan agertuko dena, ispiluaren beste aldean dagoena ikusteko gogo da:

Ispiluaz bestaldean  
usoak beltzak dira,  
beleak dira txuri,  
lehoia humil, ardiak  
krudel eta otsoa otzana ...  
Zoriontsuak ispiluaz  
bestaldeko txoriak  
zeren karioletako  
orma krudel guztiak  
gardenak diren eta  
teilatua urdinak ... (ZI, 17)

Begira dezagun irudi berdina *Desirako alegiak* liburuan:

Ispilu barneko  
irudi guztiak  
gelditu dira ...  
Eta betazaletan  
pinpilinpauxak  
ez dira jagoiti  
berriz pausatuko  
kristalezko lore  
zimelduetan... (DA, 100)

Egia da, azalaldeko irakurketa eginaz, zoo hitzak berarekin dakarrela animalia-aren esanahia, eta animaliak alegiekin lotzen ditugula, eta, horren ondorioz, *Desirako alegiak* liburuarekin lotura egin. Irakurketa honek liburu honen bigarren hitza “alegia” hartuko luke kontuan, eta ez, hain zuzen ere garrantziko den lehenengoa: desira.

Eta hau dugu hitz giltza, Luigi Anselmiren poesia desirari buruzkoa baita. *Zoo ilogikoan* desiatzen eta inoiz lortzen eta beste zenbaitetan lortzen ez denaz ari da:

Udazkena etortzerakoan  
zuhaitzen abarretan  
pausatutik zeuden  
hosto horiek

hegaz egin zuten  
hegoalderantz  
abiatzen ziren txorien  
atzetik joan  
nahirik bezala... (ZI, 20)

Poema irakurriz batera ikus lezake irakurleak txorien atzetik hegaz egin nahi duen hostoa idazlearen irudia bera dela, eta beste zerbaiten desirak, ispi-luaren bestaldean egotearenak, alegia, bultzatzen duela sormena Luigi Anselmiren poemategian. Agian, nahikundearen eragina gotorragoa da *Zoo ilogikoan* poetak maitearen irudiaren bila dabilenean eta maitasunari buruzko poemetan.

Huntza ormetan bezala  
nahi nuke nik  
eskuak heda litezen  
zure larru ezti  
malgu, epelean... (ZI, 40)

Beste horrenbeste aurki dezakegu *Desirako alegiak* liburuan:

Nik ere joan nahi nuke  
herrestan edo marraz,  
itsasoz, lur lehorrez,  
edo zeruan barna.  
Nik ere joan nahi nuke  
noranahi edonola ... (DA, 28)

Hain zuzen ere, *Zoo ilogiko* eta *Desirako alegiak* artean dagoen lotura ez da zoo eta alegien artean egiten, desira eta ilogiko hitzen artean baino. Ilogikotasunak mezu bi eskaintzen dizkigu poesia honetan. Batetik, irrazionalismoaren baieztapena da, mundu logikoaren gainetik at aurkitzen denaren agerpen nahia, beste aldetik, poesia horretan nagusi izango den ironiaren agerbide da. Luigi Anselmiren begiradak beti izango du egunerokotasun arruntaren azpian gordetzen dena, ezkutuan dagoena agertzeko beta. Zenbaitetan ironia joko hori, joko berbala besterik ez da eta hitz joko batean agertzen du bere indarra:

Agian  
zoriontsuak bagina  
ez genuke  
horrenbeste edango ...  
Alabaina  
nola izan gintezke  
zoriontsuak  
edan gabe... (ZI, 25)

Edo hitz baten azpian gordetzen den mezu ezkutua agertzen duenean ere, antzeko joko linguistikoan jartzen du eskuaren trebezia Anselmik, nahiz eta norbaiti, joko “errezegia” gertatzen dela irudituko zaion, “Beefeater” deituriko poeman bezala, non Ginebra erreginaren izanarekin jostatzen den.

Sir Lancelot du Lac  
eta biok  
bat izan gintezkeen  
nolabait  
ni zalduna  
ez naizen arren ...  
bion amorantea  
GINEBRA erregina  
delakotz ... (ZI, 64)

Baina hitzen azpian ezkututzen diren jokoak agertzeko behar duen habileziaz beste behar da bakartasunaz hitz egiteko, eta errealitatearen barnealdean ager daitekeen mingostasuna ikusteko eta deskribatzeko, eta horixe, hain zuzen ere, da Luigi Anselmik egiten duena eta bere poesiarri argi xarmanta ematen dion joera:

Bakardadearen desanparoan  
nago murgildurik.  
Arratseko bostetan  
gautu du dagoenekotz  
eta euria ari du etengabe.  
Kale grisen bestaldean,  
hasperenek astindu gortinen atzean  
nonbait zaude zu ...  
Hor zaude zu, nonbait,  
gortinen atzetik  
hiriko paraje mortuari so  
ezer ikusteke,  
begiak malkotan, ikabilak hertsi,  
zure irribarrea  
iragan paisaia lainotsuen xerka  
dihoalarik... (ZI, 80)

Iragan paisaia eta paraje mortuen artean zabaltzen den sentipenean dager Anselmiren ironia, errealitateaz agertzen duen etsipen puntua, nahi eta izanaren arteko kinkan. Ez du itxaropenik agertzen Anselmik poesiaren etorkizunean, horregatik idazten du izadiak ezabatuko duen poesiaz; ez du irteerarik aurkitzen egunerokotasunaren laberintoan eta errealitatea sufrikaitz agertzen zaio.

Bere poesian ezaguna da asmo baten bila ibili ondoren dena galtzen duen pertsonaiaren irudia:

Neguaren txoria  
irrikitzen zegoen  
hegoaldeko zeruak  
bere hegal leunez  
laztantzeko.  
Bidaiari ekin zion  
enaren atzetik,  
baina heltzeko zorian  
zegoenean  
luma zuriak  
urtu zitzaizkion... (ZI, 55)

Txori horren antzera mugitzen da bizitzan poetaren irudia, bakartasunetik ihes egin nahian, etsipenetik gertu, nora ezean, konturatuz agian elkartasunak ere ez duela berorik eskaintzen gizasemeen bihotzetan:

Agur batekin  
amaitzen diren gauetan  
bela untzi ezberdinetan  
itsasoratzen gara,  
haizeak  
amets berberaren  
irlaraino  
bultzatuko gaituen  
esperoan... (ZI, 78)

Etsipenaren inguruan kokatzen den etsipena da poesian nagusitzen dena, ez hitz joko edo ideia joko sotiletan agertzen da, poeta bere biluztasunean agertzen duena da ironia, eta zorionik ezaren eta bakartasunean uzten duen ironiak betetzen du testuan funtzio sinbolikorik bereziena. Estalperik gabeko bakartasuna da Luigi Anselmik adierazten duena bere poetikan.

*Zoo ilogikoa* liburuak poetika eta esanahi guztion aurreikusketak eskaintzen du. Eta agian, ondoren agertuko diren liburuekin duen desberdintasunik nabariena gaiak agertzeko joera soltean datza. Pentsakizun sistema aurreikusita dago, sinboloak ere berdinak dira: arnoa, gaua, bakartasuna. Baina, oraindik poetak ez du haiekin sitema oso bat agertu. Gaua ez da, oraindik, hiriaren laberintoak duen irtenbide bakarra nahiz eta zenbait aipamen soltetan agertu. Bere izaeran, ez da askatasun bide:

Baina gauak  
harrapatu zuen supitoki  
eta izarrek  
ez zioten  
goizerako bidea erakutsi... (ZI, 66)

Hiria ere poema gutxitan agertzen da, eta haren tokia eta irudiak sortzeko



munduaren iturria izadiak hartzen du. Lehen poemategiko geografia nagusia izadian kokatzen da. Eta geografiaren tratamenduan erabili den sentiberata-sunagatik ere desoreka agertzen da poemategi honetan.

Alegoriarako tendentzia askotan du Anselmik, asmo moral batek bulztatuko balu bezala bere idazkera, irudi bakoitzaren atzean irakurketa edergarria agertuko balitz bezala. Teknika aldetik ere, kontrajarpen soiletan, aurkako ideien aurkezpenean oinarritzen ditu poemak, eta nahiko du ideia kontrajarria poemaren eraikuntzarako. Begira beza irakurleak adibide garbi hau:

Zerua laino balego.  
Euria arituko balu  
edo ilargiak  
peto-peto begiratuko banindu ...  
Baina ateri dago... (ZI, 39)

“Baina” hitzak sortzen duen ideia arteko kontrasteak sortu du poemaren gunea. Eta horrelako agerpen sinpleak askotan egin ditu Anselmik poemategian.

Tartean, eta Gerardo Markuletak ere ikusi duenez, paralelismoak indar handia hartzen du poeta honen eskuerean, bai anaforaren bidez sorturiko paralelismoetan, bai joskeran oinarrituriko paralelismoan. Hona hemen adibide bakarra teknikak poesia nola eratzen duen erakusteko:

Zikoitz eta zekena izateagatik  
ez du ia txoriak  
ene eskuetan  
habia eraikiko.  
Zikoitz eta zekena izateagatik  
ez du ia bedatsak  
lore berriz  
ene gorputza beteko ... (ZI, 28)

Eta horrela jarraitzen du poetak “zikoitz eta zekena izateagatik” bertsoa behin eta berriro errepikatzen duelarik ritornello baten gisa. Noiz edo noiz poemaren bukaerako irrizko amaiera aukeratzen du Anselmik, Lauaxetaren irri bukaera gogorarazten duen teknika papelera erakarriz.

Orain arte zerrendatu ditugun espresamoldeak, hizkera aukeratuak, kontraste egiturak, paralelismoak eraikitako poemak, ironia finak bukatzen duen amaierak, zuzen definitzen dute Luigi Anselmiren poesia sinbolismo arin baten inguruan. Eta, agian, horixe da *Zoo ilogikoak* uzten duen inpresiorik argiena.

Zerrendan falta da, hala ere, aldizkari irazkinetan gutxi aipatzen den ezau-garria: bertso lerroaren eraketarena: bertso laburrak maite ditu Anselmik. Bi,

hiru, lau silabako hitzez osaturiko erritmo paraleloa. Poesia sentimental eta fin, ia-ia rokoko baten mugetan aurkitzen gara, modernismoari asko zor dion estetika biguin batean. Arrazoiz banatzen du Edorta Jimenezek bere erreseinan poesia transzendentala eta gauza fin eta ederrez saiatzen dena. Luigi Anselmik bigarren sail horietakoa egin ohi du, fineziaz, sentsibilitatez, ironiaz ere bai, noski, eta gainera mundu oso eta pertsonalaren adierazpen izan nahi duen poesia eraikiz.

## 2. Hiria eta bizitza

*Desirako alegiak* liburua Luigi Anselmiren euskaraz idatzitako bigarren poema liburua da, jakina baita Anselmik euskaraz eta gazteleraz argitaratzen duela poesia. Liburuak gai nagusi desberdinak lantzen ditu bere barnean. Zerrenda luzea egina da, hona hemen haietariko batzuk: maitasuna, hiria, bizitza, jendea, gaua, izadia.

1988. urteko Xalbador sarian aipamena lortu zuen liburu honek sarrera berezia du, eta, ziurrenik, sarrera honek bideratu ditu ondoren liburuari buruz egin diren irakurketak. Honela dio sarrerak:

Lipu ankerra dugu hiria, zenbatu ezinezko erro beltzez horniturik; laberinto korapilatsua zeinen elkar-gurutzatutako karrikek estekatzen bait gaituzte eguneroko betebeharrei ... Hiriak duen irteera bakarra gaua da, eta bertatik deserri edo hobeki esan, desirirantz egiten dugu ihes. (DA, 7)

Hitzaurreko hitz hauek osoki lotu dituzte interpretazioak. Luigi Anselmik pisua eman die hiriari eta gauari. Baina, poemategiaren irakurketa astitsu batek izadiaren garrantzia azpimarratuko luke, hiriarena bezainbat. Poemategiak ez du hirian kokatzen delako, izadiarekin eten egiten. Hirian poetak aurki lezakeen izadiak ere garrantzi handia hartzen du.

Poemategiak abiapuntu jakina hartzen du, eta puntu hori da, hain zuzen ere, testu hau eta aurreko *Zoo ilogikoa* lotzen duena. Poemategiaren erdian poetaren esperientzia dago, poetaren begirada, nitasunaren sufrikario inguruan atentzioa jarriaz.

Hitzaurreko hitzoren aurrean bide bi zabaltzen zaizkio irakurleari. Edo zuzenean hartzen ditu, gai horien tratamendua goraipatuz. Edo sakonean irakurtzen du, eta poetak duen etsipena hirian baino harago jartzen du, eta gauaren gaian jarri beharrean irakurketa, desiraren gaian jartzen du. Orain arte lehenengoa nagusitu da irazkinetan. Luigi Anselmiri txalotu egin zaio hiriaren aurka duen joera eta goraipatu gauaz egiten duen trataera. Horrela ahaztu egin da poetak luzatzen zuen beste mezu sakonago bat: bizitzaz dago etsipendua eta desira, eta ez gaua, da bizitza arruntetik duen irtenbidea.

Ikuspuntu honek, besteak ez bezala, izadia eta luma batu egiten ditu poetak duen ikuspegi etsipenduaren menpe, eta ez ditu banatzen. Izadiak, ala hobe, hiriko izadiak ikaragarritzko garrantzia baitu poemategi honetan.

Poemategia ikusten dudan moduan kaleidoskopioa da. Gunean, bihotzean, poetaren begirada dago, “Ezerezaren begiralea” (DA, 100), hain zuzen ere. Eta begirale horrek ingurua interpretatzen du.

Inguru horretan agertzen zaizkio mila elementu desberdin. Hiria, lehenik, laberintoaren, bizitzaren metafora dena; baina izadiaren aurkako errealitatea ere bai:

Hiria eraikitzean  
euli beltzek uxatu  
zituzten tximeletak,  
ibaiari lausotu  
zitzaizkion begiak,  
usoei uhertu  
hegaletako lumak  
eta, izarrak iraungiz,  
etxe zokoetako  
lipu beltzak jabetu  
egin ziren ortzeaz... (DA, 11)

Hiria, ordea, laster bihurtzen da errealitate metafisiko eta subjektiboaren metafora, izadiaren etsai baino gehiago tristuraren erreinua da:

Tristuraren erreinuan  
atergabeko euria  
ari dueno  
oroitezaren kopa  
amaitezina  
alferrik hustu naihan  
joaten zait astiro  
arratsalde goibela... (DA, 15)

Itxaropenik gabe etsipendua begiratzen ditu poetak inguruko beste izakiak: hiriaren ondoren izadia. Poetaren itxaropenik gabeko joera honek:

Lehorreko hiri honetan  
bizi garai guztiak  
itolarrian gabiltz  
hegaztiei begira....  
Ai, gure han murgildu  
ahal izango bagina... (DA, 18)

mugatzen du poemategia. Itolarriaz, nekaduraz, osaturik agertzen den sentipenaren bidez begiratzen du poetak bere mundua. Izadiak eta izadiko izaki txikiak (izarra, ilargi zurbila, txoria, haizeak) balio diote poetari bere mundua

sor dezan; analogiaz beteriko mundua dugu hau, izadia pertsonifikatu egiten duena, izadia desiraren metafora bihurtu dadin, alegoria nagusitzen den literatura teknikan. Alegoria maite du Anselmik bere lanaren taiukeran. Eta izadia nahi lukenaren metafora nagusi bihurtu zaio:

Aintzinako marinela bezala  
irla misteriotsuetan  
izkutaturiko altxorren xerka  
abiatu ginen gu  
inongo kartetan azaltzen ez zen  
zoriontasunaren bila... (DA, 29)

Desiraren hegaletan agertu zaizkio poetari beste bizitzako elementuak, gaua:

Gaua zen zulo hura  
eta azkenik irentsi  
zuen hiria bera ... (DA, 32)

alkohola, liburuak, idazlearen paper orria... egunerokotasuna. Saiatuko da poeta, *Zoo ilogikoan* egiten zuen bezala, keinu niminoetan zentzu bat irakurtzen, izadiak idatzitako poema irakurtzen indarrak jartzen dituen eran, baina ezinezko zaio:

Ortzean  
hegaberen olerki iheskorra  
irakurri nuenean  
liluraturik geratu nintzen ...  
Sumindurik  
plama urdina  
erauzi  
eta eskuan amorrutuz  
tolestu ondoren  
gaueko paperontzira  
jaurtiki egin nuen... (DA, 53)

...eta hegaberek arrapaladan  
ezabatzen dituzte zeruan  
berriki izkiriatu  
olerki ulertezinak... (DA, 84)

Hiriaz eta izadiak egin duen irakurketaren ondoren poetak beste mundu batzuk esploratzen ditu, inguruan miaketa jarraituz, bere barne mundua ere alegi bihurtuz, Luigi Anselmiren poesian ohi denez, kanpo errealitateaz agerturiko alegiak beti du, liburuaren amaieran, heriotzari buruzko hausnarketa. *Zoo ilogikoan* maitasun galduak hartzen zuen kanpotik barnerantza poetak egiten zuen bidean tokia. *Bacchabundan* "Suizida bati eskutitza" dei-

turiko poemak adierazi du nola osatzen den heriotza gaia poemategian. *Desirako alegiak* liburuak ere subjektibitatez egiten du bidaia eta poesia, maitasuna, heriotza dira liburuaren bidaiaren bukaerako aukeratzen diren gaiak.

### 3. Catulo-ren omenez

*Desirako alegiak* liburuaren aipu batean Robert Burns-en Epigrama bat biltzen zen. *Bacchabunda* liburuak bide hori jarraituko du Catulo poeta latinoaren azpian jartzen delarik liburu osoko tonua. Lagun arteko omenaldi ere bada liburuaren hein batean, baina ez hori bakarrik. Bistan denez, urrunago doa Luigi Anselmiren poesia.

Has gaitezen baieztapen sendo batetik: *Bacchabunda* Luigi Anselmiren estetikaren ziturik oparoena da, tonuaren batasunagatik, mundu ikuskeraren borobiltasunagatik, poemen teknika nagusiagatik, esku era ziurragatik, poesia sortzeko orduan erabili duen koherentziagatik. Liburu honetan aurkitzen da Luigi Anselmiren poetikaren orain arteko joerarik umatuena.

Ezaugarri estetiko biren artean eraiki du Anselmik bere liburuaren alde batetik, errealismo intimista dei dezakegun poesia joera indartu egin du. Bestetik kulturalismoa zabaltzen joan da poesia orrialdeotan. Errealismo intimistaz zera adierazi nahi dugu, egunerokotasunetik at joateko gogoia.

Paralelismoak oraindik egon badaude ere, poesia teknika nagusia narratibitatea izango da. Poetak kontatu egingo ditu bere eguneroko gertaerak, adierazpen minimoa izango da poemaren abiapuntu, beti ere poetaren eguneroko esperientziarekin lotua izango den anekdotak hartuko du poema hasteko ardurara:

Gauaz abiatu naiz etxetik  
gure ustezko biltokira  
ene urratsak zuzendurik,  
eta bertan zain egondu naiz  
ginebraren aurrean luzetsirik... (B, 32)

Esperientzia poesiatik hurbil, ez baita alferrik zititzen Gil de Biedma poema baten edo bestean, poetak ingurua atzematen du bere tonuari hasiera emateko. Deskripzio agorretatik, ordea, elementuok urruntzen dute: subjektibazioak, errealitatearen ikuskera pertsonalak, erretorizismoak, hiztegi aukeratuak zein bertsoaren erritmo zainduak, eta tonu moralak, bizikerari buruzko iritzi bereziak.

Koordenada hauetan sortu da Luigi Anselmiren poesia, gauzatik sentiberatasuna eta sentiberatasunetik poemara doan bidaia berezian. Ez dakit nik hau guztia ez ote den alegoriarekin batu behar eta poetak edozein gauzarekin alegoria, irakaspen moralak eskaintzen duela ez ote genuen esan behar.

Gorago aipatu dugun poemaren gunea ez da kanpoko hiriaren egoera deskribapena, poetak barrendik sentitzen duen egoeraren aipamena baino. Horrela edaten duen ginebra bere egoeraren metafora bihurtzen da, bakartasun eta etsipenaren metafora:

Eta zurrut laburretan  
ginebra desagertuz joan da,  
eta ginebrarekin batera  
itxaropena ere... (B, 32)

Poemak narrazioaren bidea hartzen du berririo, anekdotara itzuliz, protagonistaren tabernarik tabernako segizioa jarritziz.

Amaitu da ginebra  
eta ordaindu bezain fite  
kaleratu naiz... (B, 32)

Helburua ez da errealismoam geratzea, inguruko errealitateaz dostatzea baino, inguruko gauza arruntan joera sinbolikoa agertzea baino:

...ohartu naiz edalontziak  
ez zirela iadanik  
etengabe haziz doan  
iragan ezin-etsizko neurtzen zuten  
hare-erlojuak... (B, 32)

Alkohol-parranda, denborari buruzko hausnarketa bihurtzen du Anselmik. Joera poetiko honetaz ohar bi egin ditzakedala iruditzan zait: metaforizazio prosezua, errealitatekin hausnarketara doan bidea zuzen egiten du Anselmik, eta hausnarketa bera ez da ohi izan poetizatzeko ahalbide, beti ikustezko zerbaitetik hasi behar du poema; modu bi ditu poetizaziorako aitzakiak aukeratzeko, edo poetaren bizitzaren aipu egiten du:

Egun  
hire saiets epeletik  
aldendu naun... (B, 29)

edo izadiaren edozein elementu edergarriz baliaturik hasiera eman ohi dio poemari:

Lainoz janzten da zerua  
larrazkena heltzean,  
eta lurra katazuri  
larruz negu minean... (B, 16)

Izadiak egin ohi duen trataera horrek eman dio poetika honi bere tasunik aipagarriena, Luigi Anselmiren estiloaren markarik ezaugarriena. Izadia poemizatzeko joera berezia dago Anselmik. Batzuetan koplak zaharren estetika-

tik hurbil, besteetan izadiaren aukera sugerentziaren indarrez janzten delarik beti ere izadiaren aukerak xirarra berezia sortzen duelarik, Luigi Anselmiren poesia izadiarekiko oharpenetan definitu izan da.

Hala ere, nire ustez, poemarik hunkigarrienak niretasuna eta izadia bate-ratsu biltzen direnean sortzen da, barne esperientzia eta kanpo esperientzia batera agertzen direnean:

Hemen bizi eta, menturaz, hiltzen  
naizelako badakit  
hiri hau primadera  
estaltzen duen hilarri zabala  
baino ez dela ...  
Noiz behinka  
esku errukitsu batek  
lore sorta zimelak uzten ditu  
zirrikitueta,  
azpian lo datzan eta sekulan  
atzarriko ez den  
udaberria oroituz ... (B, 13)

Joera kulturalista ezinbestean indartu egin da liburu honetan. Catuloren omenez idatzi denez testua, erreferentzia klasikoak gehitu egin dira lehenago garbiak ziren eragin ingelsei.

Catuloren epigramen gidaritzapean, zabaldu ditu liburuak Luigi Anselmiren poetikan nagusi ziren beste gai batzuk. Ardoaren gozarrea liteke aipa beharreko lehena, nahiz eta alkohola (eta Luigi Anselmi ezizenez eta benetako izenez agertu zen Pamielak argitaraturiko alkoholari buruzko anto-logian) ez den hain gai hedatua poemategi honetan. Noiz edo noiz lotu izan da Luigi Anselmiren tonu poetikoa hedonismoarekin eta bizitzeko gogoare-kin. Ez dut nik holakorik ikusten. Ardoa eta alkohola etsipenarekin lotuago-ak agertzen dira hemen.

Bizi gogoia sakonago agertzen da maite kantetan. Maitepozaren agerpena behin eta berriro hartzen du gaitzat poetak. Maitasun gozatuaren experien-tziak bultzatzen du idazkera. Zenbait poematan (“Seaska kanta” deiturikoe-tan, adibidez) pozak osatzen du poema. Beste zenbaitetan poetak maitearen nostalgiapen idazten du:

Bart gure ohantzean  
neu bakarrik etzanda,  
elkarrekin izan gineneko  
lurrin gozo zaharra  
usnatu ahal ukan dut ...  
Eta nostalgiak janda,  
loak eraman nau  
iadanik, hain segur,

ahantzi dukezun  
zeure ametserraino (B, 27)

Maitearen faltak sortzen duen ondorioa agertzen du poetak liburuaren azken aldean, heriotzari buruzko hausnarketa. Ardoa, maitasuna, adiskideak bizitza irudiz bohemiaoren agerpena. Eta ondoren poesiari buruzko ohar irri-garriak, eta gero, heriotza. Izadi eta lore, tximeleta eta dirdai guztien xomorroa heriotza da. Luigi Anselmi poetak horixe ere badu, espresaeren xarman-tasunak bizitzari buruzko ikuspegi etsipendua agertzen duela.

Poesiaz agertzen duen ideia bizitza, heriotza eta maitasunari erabat lotua agertzen da. Esanguratsua da nola heriotza momentuetan ere poetak ironia pixka bat erakusten duen poetaren izaeraz, edo, beste era batez esateko, per-tsonen izaeraz:

Bai, poetak guztien isilean  
—soinean daramaten  
gizalariaren isilean ere—  
hil ohi dira ...  
Baina zenbaitetan,  
gaurkoa bezalako  
arrats euritsuetan, adibidez,  
tristura izpi batek jotzen die bihotza  
eta berpizten ditu... (B, 55)

## Bibliografia

ANSELM, L. (1985): *Zoo ilogikoa*. Pamiela. Iruñea.

— (1988): *Desirako alegiak*. Pamiela. Iruñea.

— (1992): *Bacchabunda*. Pamiela. Iruñea.

JIMENEZ, E.: “Bestiario ttipia”. *Egunkaria*. 31-I-93. 33.

LERTXUNDI, A.: “De falsas urgencias”. *Deia*. 7-VII-90.

MARKULETA, G.: “Arnoa, larrua eta gaua”. *Diario Vasco*. 13-I-93. 4. or.

PERURENA, P.: “Oi! Desirako alegiak”. *Nafarroa gaur*. 23-IV-. 94. zb.

PERURENA, P.: “Urak sua harten duenean”. *Nafarroa gaur*. 22-XI-88. 2. or.

X. X.: “Zoo ilogikoa”. *Argia*. 21-XII-84. 4. or.



## ANDOLIN EGUZKITZA SENTIMENDUTIK GORA

Andolin Eguzkitzaren poesia *minor* gisa aipatua izan da, agian, idazleak berak eman diolako izen hori. Santurtzin 1953. urtean jaioa, ezaguna da bere ikerketa zientifikoagatik. Hizkuntzalaritzako irakaslea, joskeraz lan interesgarriak egin ditu. Deustuko eta Salamancako Unibertsitateetan ikasi ondoren, Kolonia, Iowa, eta Californiako. Unibertsitateetan ere izan da, master mailako ikasketak egiten. Gaur egun, Gasteizko Filologia Fakultatean ari da eskolak ematen.

Halaz ere beti izan du literaturzaletasuna gogoan, eta hasieran literatur ikerketa eta testu edizioetan lan egin bazuen ere, badu nobela labur bat argitaratua eta poema liburu bi: *Orhiko mendirantz, urratsez urrats* (1986) eta *Mila urte igarota ura bere bidean* (1993).

Eguzkitza berandu hasi da poesia argitaratzen, baina memoriak Pott bandaren inguruan gogoratzen du, *Thule* deitu behar zuen aldizkari bat montatzeko ahalegiten. Agian lerro hori izango du lehen liburuko “Islandia” poemak. Ez dut nik ezagutzen Eguzkitzaren poetikarik, baina badu poema bat, prosaz, hortaz uste duena nahiko garbi azaltzen duena:

*Idaztearen beldurrez...*

Idaztearen beldurrez, idazten dudana baliotsu ez ote den beldurrez, sarri askotan neure buruari itaundu diot poesia zer ote den. Poesia nork bere bihotza eta hatsa deskribatzea ote den ala lagun protsimoarena... Apika, ez dudan maiteari abestea edo nahi nukkeen lagun edo emakume ederrari kantatu bat egitea. Agian, adiskide minak oroimenetan erabiltzea edo betiko neure fantasiak ahanztea. Eta beldurrez jarraitu dut idazten. (OM, 19)

Arazoi askorengandik astiro irakurri beharreko testua, lehenik harritzen duenak balioari egiten zaion aipamena da, testuaren autonomia laburtzen duelako, eta laburtu, hain zuzen ere, ideia erromantiko baten menpeko jarritz. Nork ez du inoiz izan ezhilkortasunaren gaiaren inguruan? Hemen honelako

zerbait adierazten da, zuzen-zuzen. Idatzi egiten da, baina ez estetikaren ize-  
nean, balioaren galdera adoleszentean baino.

Bigarrenez, ziurtasun falta batek onartuko gaitu poemategiaren ataurrean. Idazlea ez dago ziur, eta ez digu orain galdera eta sentimendua jartzen balio-  
aren errainuan, poesiaren izaeraz ari da. Eta hortan definiziorik gabe uzten du bere lana. Zer ote da poesia? Eta hiru kontrajarpenek osatzen dute erantzunik ez duen erantzuna: ni ala adiskidea; ez den norbaitetaz edo irudiaz hitz egi-  
tea, oroimena ala fantasia? Pareak astiro irakurriz gero, konturatuko gara opo-  
saketa ez dela hain kontrajarria. Zer jartzen da azken finean buruz buru? Nire eta besteen sentipena, baina, sentipen honetan dago kontua, bera da bat, bera kontrajarpenaren batasun. Horregatik esan dezakegu testugintza honetan gunearen bihotza, sentipena, ez dela kontrajartzen, eta bai, ostera, ingurueta-  
ko (nire, zure) arazo bihurtzen. Komenigarri egingo zaigu hitza gogoratzea, zeren horretan baitago poemagintza honen gunetariko bat. Sentipenen poe-  
sia egin nahi du, batez ere, idazleak, eta pathos maila horretan jartzen du bere borondatea. Hala diosku behintzat, bere hitzatzean, bere poemak “Maitasunezko edo bakardadezko” direla aipaturik.

Bada, horrezaz gainera, beste definizioen bat aurrez jarririk poema har-  
tan: oroimena edo fantasia al da poema? Ez da dudarik 80ko hamarkadan gai garrantzizkoa dela oroimena eta gai horren inguruan kokatzen dela sujeto poetikoaren agerbiderik nagusia. Norberaren historiaren oroimena da hemen planteatzen dena. Ez da ulertzen ondoegi nola egin litekeen poesia fantasien *ahazmen*arekin, egiten den kontrajarpenaren indarrez ez bada. Baina bego gai horren ezintasuna eta gera bedi irakurlea oroimen eta fanta-  
siaren arteko joko poetikoarekin.

Oroimena ala fantasia? Eta bat-batean sortzen da gogoan Mirandaren ber-  
tsoaren oihartzuna:

Nor zara? Ala bethi gezurrezkoa?  
Gogorapen, ala irudi soil bat?

Oroimena eta fantasia; oroimena eta ahazmena, errealitate beraren ispilu bi, zeren berriro “adiskideen” oroimena proposatzen baita gai gisa, edo bes-  
tela “nire” fantasia, berriro sentsibilitatearen eremura bidali da poesia gaia. Adiskidetasuna, poetikak ahantziz eta poemak irakurriz, da liburuko gai nagusia.

Izenburuari kasu egiten badiogu behintzat, zeren “Orhiko mendiak” ale-  
goria baten funtzioa betetzen du, edo nahi bada, testuan barrena azaltzen den, irakurria ematen den metafora batena, poemategia bukatzen duen testuan, honela dio poetak:

Orhiko gailurrean.  
Adiskidea

Orhiko bortuan  
ikusten den  
txoria bezalakoa da,  
urrun,  
ia ezin ikutuzkoa,  
eta hurbitzerakoan  
edozein unetan  
desager daitekeena... (OM, 50)

Beraz, *Orhiko mendirantz urratsez urrats* joateak prozesu (aszetiko edo inizatiko) baten berri ematen du, jakinik, hala ere, behin eta berriro hasten den prozesua gertatzen dena hor, heldu, ez-heldu gogor batean kunplituko dela bizitza.

Zalantza, desoreka, bizitzaren patua, adiskidantza joera guztiak poemotan. Edo, baita ere, liburu ataurreko lema bezala aukeraturiko Dylan Thomas-en aipuan:

Poemok, bere gordintasan, zalantza eta nahasmenekin Gizonaren maitasunez idatzi ditu eta Jainkoaren gorazarrez, horrela egingo ez banu munduko gizonik lerroena izango bainintzateke. (OM, 9)

Berriro aipamen berdinak. Gordinkeriaren orde jar dezakegu, zintzotasuna, zalantza: Erromantizismoak poesiarentzat gorderiko balioak. Pertsona baten nitasunak hitz egiten digu poesia honetan, bere barne kezka eta zalantzez, burua nahastua duela defini beharrez. Hor kokatzen da nitasun baten agerpena. Ez da nitasuna fikziozkoa izango, osotasun eta zintzotasunean agertzen dena baino, irakurlearekin uruntasuna bilatu gabe, finean, Andolin Eguzkitzaren biografia toki urrunetan gertatu eta kokatu baita.

Zintzotasunak adierazpen bi hartzen ditu bere espresagai: protesta zuzena egiterakoan, hori nahikoa balitz bezala heriotzaren aurrean, eta adiskeraren bilakabide ezin aspertu horretan, adiskidantza oreka baita, aterpea, eta poetak nabari du bat-batean doala, ez duela jokoak galbidea besterik.

Antzeko sentimenduak aurkitzen dira bere bigarren poema liburuan: *Milla urte igarota ura bere bidean* (1993). Agian, poemak, bere hedaduran, narratiboagoak bihurtu ditu idazleak, deskripziorako joera nabarmentzen zaiolarik, sentipen indarrari beste heldutasun bereagoa eman zaie.

Heriotzaren gaiari ere toki aparta bilatu zaio testuinguru honetan. Eta 1986. ean heriotzak pisua bazuen:

Herenegun hil zen.  
Atzo arratsaldeko zortziretan ehortzi genuen,  
eta hartzara somatu hil behar dugula,  
ez dagoela ezereza besterik... (OM, 16)

Orain lehen mailara dator denboraren etengabeko igaroa. Liburuaren izenburuak, nonbait, ibaiarekin adierazten du denboraren joan etengabea; nahiz eta niri iruditu, erran zaharrak zerbait adierazten badu gauzen ziklotasuna dela: denborak aurrera egin arren, ura beti joango da bere bidean, eta nonbaiteko aldaketak hor izango dira babes eta orekatuak. Baina dena delakoa bada ere erran zaharraren mezuaren interpretapena, denborak ezinbesteko garrantzia du bigarren poemategian:

*Panta rei*  
Ura bezalakoa naiz,  
libre, labankor, orakaitza,  
inon edeten ez naizena,  
inork hartzen ez nauena  
eta erreten pare bat igarota,  
malkorik malko  
itsasora heltzen naizena... (MU, 63)

Itsasoratzen den ibaiaren irudi ezaguna askotan agertzen da poemategian, inoiz Manriqueren aipua ere egiten delarik.

Heriotzaren aurkako sentipena protestetan agertzen da, zuzen eta gordin.

Protesta egiten ziat.  
Mikel,  
ez delako gizalege.  
Eman biezaa Jaungoikoak  
denbora amaitzen direneko  
bakea... (OM, 26)

Noski, bigarren protesta bakardadearen aurka da:

Bakarrik nagoelako  
egiten dut protesta... (OM, 30)

Bakardadea sentipen erromantikoa izan da, baina poetika honetan gorrotatu egiten da, maitasun eta adiskidantza falta delako. Eta hori bihurtzen da sentipen nagusi poetaren barnean. Bakardadea frakasoaren irudia da edo, nahi bada, patetismoarena. Liburuotan orriz orri saiaturko da poeta bakardadearen aurka, bakarrik izatea norberaren irudia ispiluan ikustea baita, norberaren burua galdutzat jotzea.

Bakardadea da herioen beste izena, bigarren maskara esan dezakegu guk ere, Atxaga parafraseatuz, eta irakurri:

Agur egitean  
maitasunez eman diok musu,  
heriotzeak  
bakartadean harrapa hintzakeetako  
beldurrez betea... (MU, 44)

izurritek, modernoaren mamuak paretean kinu latza egiten duen bitartean.

Ez dira hauek liburu bien artean egin ditzakegun paralelismo bakarrak. Beste bi esanguratsu agertzen dira poemategioetan, eta bat anekdotikoa. Hemendik hasita, konturatu gaitezcan nola hasten dira erreferentzi arrunt batekin liburu biak:

Lehengo egunean  
bulegotik irten eta... (OM, 13)

Arratsaldeko sei t'erdia dira.... (MU, 19)

Anekdotak hutsa da, edo, beharbada, kasualitatea, baina ongi adierazten dute nola hasten den idazlea bere ikuspegi lasaitik hitz egiten, nola bere begia bihurtzen den poetikaren gune, nola nitasunaren historiak hartzen duen toki mundu poetiko honetan. Eta alde honetik aipa genezake idazlea bera eta bere adina, gai poetiko bihurtzen direla liburu bietan.

Esanguragotsuak dira beste paralelismo garbiagoak. Adibidez: “Islandia” eta “Groenlandia” deituriko poemak, edo Dylan Thomas eta Donald Justice-ren arabera, edo haien ahotsaz egindako poemak.

Iparraldeko lurraldeek, gogora ekarri dugu gorago *Thule* deituriko aldizkari bat atera gurean ibili zela, utopiaren desioa adierazten dute, Miranderen lur mitikoa.

Bien arteko kidetasuna poetak berak azpimarratzen du:

Zure ondoan, oster, Islandia sotila,  
goroldioz berde...  
biak amodioz  
leun eta zoliak... (MU, 37)

Baina poemak arras desberdinak dira. Islandia poetaren pausatokia den artean, heriotzatik irteteko amesbide, joera maitekor eta ametsa:

Heiagora egingen dut  
eta nigar,  
adiskideak dauzkadalako ...  
goroldioz leunduriko harkaitz latzak,  
Islandia,  
Larrañe eta  
Jerusalem,  
Txilen, Alemanian eta  
Kalifornian utzi ditudan  
arimapurrak... (OM, 41-2)

Groenlandia, oster, metafora politiko bat da ia, amesleku hau ere, baina Europa birjina, garbi baten estalpe eta babeska:

Groenlandia eskerga  
gizakiaren ametsen kokaleku... (MU, 37)

Antzeko kontrajarpena gertatzen da contrafactum bietan. Dylan Thomas-en arabera eginiko poemak egoera politiko baten aurka altxatzen den oihua izan daiteke:

Ez gaitezen kortes izan, ez mazal,  
ezpere erre eta jauzkor!  
Mendeku hartu behar dugu  
argia kendu digutenen kontra,  
herioak ekarri heriotzaren  
arnasarik gabeko utzi nahi gaituzten izpiritu latzen kontra... (OM, 27)

Donal Justice-ren araberakoak, ordea, tonu intimo eta lirikoa izatea bilatzen du, maite kanta zolia:

Lertxoinen ene saldoari  
Afrikarantz zuzenduko duzulakoan,  
eta hegoaren beroaz xamurtuko zaizulakoan  
eneganako bihotza  
hor naukazu  
beti  
zure gorputz eztiatz  
goxatzeko esperantzan... (MU, 53)

Hiru-lau paralelismook aipatzen baditugu, nire ustean, liburu bien artean dagoen tonu batasuna azpimarratzeko izan da. Sinestua nago Andolin Eguzkitzaren poemagintzan hori dela ezaugarriarik nabarmena: hizkera baten hedapena sentipen finen adierazle izateko. Ez dira liburu biak berdinak, noski. Baina sentipen mundu eta agerbide baten adierazle dira. Eta bai mezua eta bai hizkera pareko agertzen dira bietan.

Sentipen bigun batek adierazten du mundua:

Ene bihotza laño dago... (OM, 37)

diosku bertso batean poetak, eta horrela agertzen da bere poesia, laino leun batek lausotua, Lizardirena bezala. Hizkera poetiko honetan indar bik tiratzen dute alde banatara: eguneroko hizkuntzaren dirdirak, eta zaletasun filologikoren erroak.

Miranderen lanaren apailatzaile eta ikertzaile izanik, Tartas ahaztu gabe, gainera, Andolin Eguzkitzak zabaldu du gure artean Zuberoarekiko lilura, beste idazle bizkaitar batzuegan ere nabaria dena, eta Sarrionandia, Berrizbeitia eta Madariagak ere badute honetaz zer esanik.

Hizkera erregistro hain desberdinen erabilerak egoki adieraziko luke, apika, izen eta izan nahiaren arteko kinka. Eta ez dela horrela uste dut. Zer gertatzen zaio poesia honi? Lar handia dela erregistro bien arteko aldea, eta batasun poetikoa, lexiko mailakoa behintzat, eten egiten dela, nabarmen. Tonu literarioa ez da geratzen ez esperientziaren hizkera malguan, ez eta ere zuberokulturalistan.

Hizkera mailako joera begibistakoa bada ere, horrenbeste gertatzen da, harat-hona antzekoa erritmo mailan. Bertso luze eta laburrek desegoki osatzen dute poemak belarrian sortzen duen musika. Bigarren lanean gehiago landu dira ene iritziak ukatuz ere, aliterazioa eta musikaltasuna. Azal-azalean diren beste berezitasun bi ditu poetika honek. Nolabaiteko exotismoa, batetik. Bestetik, norberaren esperientzia adierazteko gogoia.

Exotismoa atzerriko hiriak aipatzeko (ai! Aipamen huts besterik ez askotan!) joera nabarmena dago. Poetaren esperientzia toki urrunetan kokatzen da. Eta hiri arrotzak eszenatoki berezia du bere buru apartatua ikusten duenarentzat.

Exotismoa joerak jarraitzen du ingelesez idatziriko tituluetan, poeten aipuetan, poeten moldeetara idatzitako testuetan.

Agian, exotismoa kutsu honek *novísimoen* estetikara hurbiltzen du Eguzkitza. Baina badu haiengandik diferentziarik. Nahiz eta Dylan Thomas askotan aipatu, bere estetika falta ditu galestarraren umorea eta, sakonagoa dena, surrealismoa.

Bai, aitorpen kutsukoa da Andolin Eguzkitzaren poesia, nitasunaren ingurukoa, barne kezka adierazteko eta azaltzeko jaioa. Aitorpen kutsuak prozedura biren bidez lortzen du: nitasunaren erabileraz, eta narratibitatearen bidez.

Zentzu honetan, esperientziaren poesiara hurbiltzen da Eguzkitza; eta autobiografiaren pasarteak balira bezala ematen digu bere bizitzaren joanaren berri:

Linguistika-institutuko liburutegian ezagutu zintudan,  
eta eder ez izateagatik ere, erakargarri agertu zintzaizkidan (MU, 19)

Preziosoz esaten zaigu non, noiz, zer,... erreferenteak tokiak, garaiak, espazioek adierazten dute giro bereziegia. Zehaztasun guztiok, zalantzarik ez, narratibitatearen kutsua damaiote liburuari.

Narratibitatea eta hizkera arrunta loturik doaz. Eta hemen ere hala gertatzen da. Eguneroko hizkeraren berri nonnahi aurki dezakegu:

Gero birritan egin zintudan bisita.  
Zure etxean sartzeko oinetakoak erantzi nituen,  
eta iparralde arreko hiri ederrorren arratsalde hitsetan  
berba egin,  
berbaz luze,  
segundoak itzuri nahiko balira bezala... (MU, 20)

Baina ez dakit nik zer sentitzen duen poetak horrelakoen aurrean, zeren bat-batean nabari du erregistroa aldatzeko beharrezana, eta modu bi aukeratzten ditu: edo erregistro literarioagoa bilatzen du, topiko ederra erabiliz, edo norberaren gomutara bidaltzen du narrazioa.

Begira adibideari:

Arratsaldeko sei t'erdiak dira,  
Martxoko azken ostegunekoak, ostegun saildukoak,  
eta pinuen arteko pagoa bezala uzten nauen egun goibelak  
zure oroitzapena ekarri dit... (MU, 19)

Eguneroko hizkuntzarekin nahikoa ez balitz bezala, poetak bere konbentzio literarioa agertzen du, bat-batean, izadiaren elementu sotilak, pilaketak, erreferentzi mundua.

Aitorpenak duen arriskueteriko bat erreferentzia irakurleari urrun gerta dakiokela da. Idazleak bere kontuak aipatzen ditu. Aitorpenak duen galbidea pertsonalegia izatea da, idazleak ematen dituen erreferenteak datu huts bihurtzearena, aipamenak aipamen huts izatea, bere irudi mundura ez igarotzea.

Aitorpenak duen irtenbidea sinbologia bideak zabaltzea da. Idazleak bere esperientzia denen esperientzia bihurtzen ahalegindu beharko litzatekela. Horretan saiatzen da Eguzkitza eta bada poema gogoangarririk "Gaur arratsaldean", adibidez. Gogoangarria, tonu bakar baten inguruan hedatu delako poema, eta bere bukaera apurka-apurka lortu delako.

Gaur arratsaldean  
maite duan lagun batez egon haiz berbaz,  
etxean, bibliotekaren erdian  
bazkaldu zareten mahai borobilaren inguruan. (MU, 23)

Testuak hartu du bere joera malenkoniatsua, eta maldan behera doa bere bukaera tristera:

Azkenean baina,  
itaundu dioanean adiskidantza  
lotura sendoagoa batez josi gura lukeen,  
ezetz esan dik, ezin duela,  
eta zoriontsu izanagatik ere, nigar  
egin duk eure bihotz barreanean  
berak ez ikusteko moduan... (MU, 44)

Poema honekin testuan diren hainbat gonbaratuz gero, garbi azaltzen dira zeintzuk diren testuotan gertatzen direnak. Hizkera poetikoa hizkera logikora itzuliko bagenu, arazo nagusia, beraz, norberaren esperientzia bihurtzea izango litzateke.

Horrelako planteamenturik Gil de Biedma-gan, eta, oro har, berrogei eta hamarreko eskolan aurkitzen da. Baina honetan diran hiru lau ezaugarri nagusi falta dira poemategi honetan.

Hizkera arruntaren manipulazio poetikoari ez zaio etekinik atera. Eguneroko hizkera erreferentziala da eta poemaren marku kronotopikoa adie-



razteko balio du, baina manipulaziorik ez denez egin hizkerarekin, hor dago bere hartan, erreferentzi huts gisa.

Poemen erpin joerak ez dira zaindu. Poemek gihar barik bukatzen dute. Egia da, sentimentu baten adierazpenarekin amaitzen direla, baina horretara heltzeko prozedura psikologikoak zein teknikoak gogor eta desorekatuak, nahiko arrazoigabeturik azaltzen dira, maila narratiboan salto handiegiak egin direlako, ziurki.

Begira adibide hau eta nolatan doan poema “ustekabez”, kausa ondo azaldu barik bere bukaerara:

Neke neke eginda  
begiratu zaitut gaur  
goizean  
gau osoa  
zutaz gogoetaka eman eta gero  
ustekabez agur egin didazunean  
pasabidean. (MU, 45)

Dena doa une batez, dena kolpean. Irakurlea ez dago prestaturik esaldi bakar batez (“gau osoa / zutaz gogoetaka eman eta gero”) poemak adierazi nahi lukeen tentsioa jasoteko. Klimax faltan bukatzen dute horrela poemek, azken ziztada ez delako bilatu, edo beti berdin antzekoa delako.

Poetika hau oso deskriptiboa da. Ene ustez, sugerikorra izatea falta zaio. Edo aipamenak zehazgabe geratzen dira:

Berbetan hasi ginen eta  
bebingoan jakin nuen,  
oi Hadassa zein zen zure kemena,  
zelakoa zure oldar eta larderia... (MU, 19)

Aitortu behar dut nik ez dudala jakin zein diren emakume honen kemen, oldar eta larberia. Emozio maila hutsa da, ala, emakumearen sorlekua kontu harturik, irakurketa politikoa egin behar dut?

Ostean, oso deskriptiboa da beste zenbait elementutan: deskripzio fisikoetan, adibidez.

...begi beltz, ile kirru eta jantzi  
ez hain egoki... (MU, 19)

...zure gorputz  
sendo, polit, beltzaran,  
azal leunaren  
nahiak... (MU, 23)

...sendo, zirats, azal leun,  
bihotz ezta... (MU, 26)

Gorputzen hedonismoa ondo zainduta dago testuan. Baina ez dakit deskripzioak ez ote diren teknika ezagunegi baten bidez eginak.

Ene iritziz, tonu deskriptiboak aitorten zuzena adierazi nahi du: poeta-ren nitasunari, liburuko nitasunari gertatu zaiona. Eta, agian, bertan dago gakoa: hari igarotakoaz hitz egiten du poetak, eta ez guri. Identifikazio prozedura ez da nahikoa, idazlearen azken erreferentzia joera erromantikoa delako. Erromantizismoa maila bitan: kontzeptu poetiko gisa, eta teknika gisa.

Kontzeptu poetiko gisa, erromantsizismoak sentipenen deskripzioa bilatzen du, baina irakurlearen identifikazioa bilatu gabe. Teknika gisa, sentipenak badu bere espresaera, nigarra. Andolin Eguzkitzaren poetikak sentipena adierazi nahi du, baina sentipena estutzen denean, definitu beharrez dagoenean, poetak nigar egiten du.

Zintzotasun eta aitorten aldetik horrela gertatuko zen, ziurrenik. Baina teknika aldetik, ez da soilik, simple eta ezaguna, larregizkoa da:

Malkoak  
darie ene begioi... (MU, 22)

...nigarrez  
desegin nitzen zoro... (MU, 24)

...nigar  
egin duk heure bihozparrenean... (MU, 44)

...nigar eragin... (MU, 45)

...otoitz, nigar, jauzi dut egiten... (MU, 47)

Idazleak asmatzen du, hala ere, behar denean esperientziatik sinbolora iragaitea. Eta neurria dena, neurrira adierazten. Sentipen kutsuzko mundu horrek joera bi agertzen ditu. Bat maitasuna da.

Bestea gorrotoa edo ziurtasuna, euskaldun izatearen ziurtasuna:

Euskalduna bainaiz,  
Euskal Herriko lur sagaratuaren seme errumesa,  
mundu honetan ezin lapur diezadaketen dohain bakarra... (MU, 39)

Hain aditz luzeen poetikotasunaz zer mintza badago ere, ez dago gutxiago “euskalduntasun” bezain kontzeptu zabalaz esatea.

Ez dator baina, gaizki adibidea esateko testuak gordetzen duela joeraren bat mezu politikoa adierazteko.

Esperientzia jasotzeko bigarren joera analogikoa da. Metaforaren bidez, elementu geografikoa (Groenlandia edo Berlin) sinbolo politiko bihurtzen da. Politiko, edo, agian hobe, utopiko: norberaren gurarian oinarritzen da, irudi baketsua; hala nola “Berlin” poeman.

Eta hire musika pianoan entzuten dudala,  
bihotza banatzen zaidak  
hire kaleak eta eskuak bezala: alde batean  
Unten den Linden;  
bestean  
Kurfurstendamm,  
alde batean desira  
etsipena bestean... (MU, 30)

Orain arte sentipen prozesu honen alde erromantikoa azaldu dugu. Aitortu behar dugu sentipena adierazteko ez dela alde bakarra, bikoitza da, nik ikusten dudanez.

Sentipenaren espresabide erromantikoaren ondoren, badago beste espresera modu bat, agian poemarik ederrenak sortu dituena: honi espresabide cernudiarra dei diezaioket.

Cernuda poetak, bidenabar aipuen artean agertzen ez denak, desioari buruzko poema ederrak idatzi ditu. Horren oihartzunik nabaritzen diot Eguzkitzaren poemategiari.

“Desira” bezalako poemek (MU, 27), hain zuzen poemategiaren hirugarren saila uzten duten laurek badute elkarrekin zerikusirik, orainarteko ikuspegia zertxobait zuzentzen digutelarik.

Poetaren zintzotasuna agertzen denean, poemak lortzen du kadentzia berezia, nahiak eta ezinak borrokan jarriko balira bezala, azalean utziaz diskurtso zuzena, eta, era berean, eratua. Lau poema hauetan, “Oraina”, “Trez banindoa bezala”, “Donald Justiceren arauera” eta “Lehengoz”, diskurtsoa ez doa topiko erromantikoa indartzera, baizik eta, joskera joko sendoetan tristeziaren lainoa hedatzera.

Lau poemok badute bukaeran aurrerakoei eskatzen genien bukaera klimatikoa, eta poemek zuzen jotzen du desilusioaren bidera, sugerentzia edo metaforaren bidez. Begira dezagun teknika horri bukaera honetan:

...ibili garelako beti frutu bakarroren antsietan  
besarkatzea beharrezko zaigun gorputzaren esperantzan... (MU, 56)

Edo trenaren soinua errepikatzen duen aliterazioan:

Maite zaitut eta ez dakit nola  
biziko naizen zure zatotsik gabeko  
mundu gor honetan... (MU, 51)

Baina egiazkotasuna beste poema honek lortzen du, aitortpena, literatur teknikaz biltzen duen adibiderik aipagarrienean:

Arren, utz ieziadak hire gorputz ederra maitatzen,  
utz ieziadak geure bihotzak estekatzen

izan gaitzkeen zorioneko  
izan gaitzkeen plazerrez  
hil gaitzkeen elkarren gosez (MU, 49)

Aitorpenak lortu du patetismotik ihes egitea, lortu du liburuaren hasieran jarririko Pavese-ren poemarekin bat egitea, idazleak aurkezten duen bakardadea tolestea.

### **Bibliografia**

- EGUZKITZA, A. (1986): *Orhiko mendirantz urratsez urrats*. Pamiela. Iruñea.  
— (1993): *Mila urte igarota ura bere bidean*. Susa. Donostia.
- EIGUREN, F. (1993): "Sarrera"n. EGUZKITZA, A.: *Mila urte igarota ura bere bidean*. Susa. Donostia. 5-12.
- LANZ, J. J. (1994): *La llama en el laberinto*. Editorial Regional de Extremadura. Mérida.
- SALA-VALLDAURA, J. (1993): *La fotografía de una sombra*. Anthropos. Bartzelona.

## FELIX ZUBIAGA

### 1. Poetika

Felix Zubiagaren lana ez da oso ezaguna eta, horregatik, agian, iritzi kritiko gutxi bildu duena ere bada. Hala ere, Labayru Ikastegiak argitaratu duen *Gaurko poesia* liburuan Zubiagaren poetika aurkitzen da. Zubiagak, sona lortu du, Euskaltzaindiak eratzten duen Arrese Beitia saria irabazi baitzuen 1986. urtean. *Zure argi kliskak* lanari esker. Eta *Oi Emmanuel* obrarekin Lizardi Saria eskuratu du 1991. urtean.

Zubiagaren poesia euskal sinbolismoaren mugetan kokatzen da. Izadia eta sentimendu erlijiosoa ditu gai nagusizat eta forma aldetik, Lizardirengan ikasitako esaldiaren kontzeptismoa eta sugerentzia bidearen agerpena ditu zutabe nagusizat. Gandiagak *Elorri*n egiten zuen antzera hitzaren sotiltasuna maite du, espazio hutsekin jolastea irakurlearen irudimena zauritzeko eta horri tokia uzteko irakurketan.

Bere lanak irakurtzen hasi aurretik on egingo digu haren poetikaren berri izateak. Bere estetika mundua ezaguna da eta bide zabala du euskal poesiaren eremuan. Bere poetika, bere “Ene olerki munduaz”, ongi taitua dago hiru atal nagusitan: poesia-zaletasunaren zioak, poesia-gaiak eta formak.

Bere ardurak eta arrenkurak agertzen dituenean, ohikoa ez den egoera azaltzen digu Zubiagak, nobelatik poesiara igaro den idazlea dugu bera, eta gainera poeta berantiarra. Sinbolismoaren bideetatik jarraituz, izadiko elementuen irakurketa egiten saiatzen den poeta da:

*Kurtzemendi* (1981) ... Bertan agertzen dira nik gero ere atsegin izan dodazan gaiak: izadiko elementuak eta hareetan edo harengan nenkusan gogo mundua. (1993, 164)

Izadiarekiko joera panteista horrek mugatzen duen bide idealista gerraurreko poesian errotu zen, eta, ondoren, Lauaxeta eta Lizardiren jarraitzaileen bidez (Bizkaian Santi Onaindia, Paulin Solozabal, Balendin Aurre-Apr aiz) zabaldu da. Horregatik ez dira estonagarriak Zubiagak eskaintzen dituen ere-

duen eta anti ereduaren zerrendak. Ereduen artean, Arrese biak, Lizardi, Lauaxeta, Orixe, Mitxelena, Iratzeder, Gandiaga, Aresti eta Lekuona aipatzen ditu, ondoren hauxe gehituz:

Gogoko jatazan Lizardiren izadi-mina, Iratzederren formak eta Gandiagaren *Elorriko* zaulitasuna eta musikalitatea. (1993, 165)

Noski, antiereduaren artean abanguardiko poetak kokatzen ditu:

Gero 1980 hamarkadako autore berrien sarradan irakurketa barriak egin nebazan. Poesia ez dena edo antipoesia iruditu jatazan euretariko asko, bai formaz eta bai edukiaz. Hitzaren eta poetaganoraren prostituzinoa. (1993, 165)

Argi dugu bada Zubiagaren poesiaren kokapena. Beste zenbait idazlek bezala, bere poesiak hizkeraren erabilera xaloa erakusten du, liburuen eraketa egituratua, poesia neurtua. Baina ideia poetikoak aspaldian landutakoak dira eta bere praxis poetikoa, bere birtute guztiekin, tradizio idealistaren ildotik doa:

Ikusten direnetik susmo direnetara, edo fedez ezagutzen dodazenetara, edo orokorretatik eguneko bizkizunetara erraz dioat gogoia, analogiak kidegoia eta sinboloak argi dagistela... susmo dot misterioen egoitza. (1995, 169)

Hau irakurtzerakoan, nola ez gogoratu Lauaxetak poesian egiten duen zadorra, misterioa ulertzeko ahalegina? Ikuspegiari jarraiki, ez da faltako estetika idealistaren aipamenik ez Lizardiren oihartzunik, gaiak aipatzen dituenean:

Izadiko elementuak begiratu orduko, errealidade sakonago baten keina dagiste, espilu biziak bailitzazan ... Espirituari dei dagitsola ... Filosofia edo dagitsola ... Filosofia edo mistikako pentsakizun gotarranek ere, zeure begien aurretik eta bihozkeraren barrenetik igaroten ez badira, berbak astintzen zabilkez bakarrik. (1993, 170/174)

Gaien artean, izadia izango da nagusi. Baina Zubiagak defendatzen du zentzu etiko eta erlijiosoa bere poemetan. Eta beraz galdua, ilundua, kutsatua dagoen mundu baten aurrean bere fedea, Jainko-aintza erakusten du. Agian, iragarlearen papera beregain hartzen du, joera berezia poeten artean.

Poetak gogoaren askatasuna eta Jainko-aintza adierazi beharreko espiluaren apurketa salatzen dau. (1993, 171)

Egia da erlijio tradizionalistaren ikuspegia ekologismoaren izenean defendatzen duela, baina horrek ez du mozorrotzen bere gogo eratzaila. Ezin uka Zubiagak aipatzen duen ekologia, Jainkoak izadian agertu duen irudia besterik ez dena eta, neurri berean, joera salatzailea eta modernotasunaren (nahiz postmodernitatea deitu) ukazioa dena:

Galmendiaren ikusle denak, etsipenaren maisu izan barik, bizitzaren iragarle urten behar dau, kalteak itzuriteko bideak argituz. Izan ere, poeta, lurretik zerura eta iragokortasunetik betierera zubiginen diharduen igarle eta apaiz da. (1993, 177)

Etikaren izenean fedea agertzen du Zubiagak. Espresamoldeen aldetik, Gandiagaren eragina nabari zaie poemei. Eta horren jakitun agertzen da Zubiaga. Begira diezaigun bere estiloaren definiziorik sotilenari:

Nire poemak laburrak dira, arnasa estuko seme-alabak. Hitzaren uhariak ez neunke uxatu gura uneko sentikerea. Golpean oratu ezik, alperrikoa litzakit arrozoiementan hastea ... Poemetan labur naizenez, hitza ere neurtu dot eta laburtua sarritan. Neurtua denetik, herri-koplarien eta bertsolarien sena jarraitzen dot askotan ... Laburra denetik barriz, labur adjetiboetan, egiaren bilustasuna agertzearren edo gaiaren laburpena markatzekotan. (1993, 178)

Estilizazioa, soinua eta erritmoa dira poemategi honen ezaugarri nagusiak.

## 2. Zure argi kliskak

Liburuak banan-banan aztertu beharrean, irakurketa sakon antzekoa egingo dugu liburu honetaz, eta, ondoren, beste liburuen irakurketa orokorra egingo dugu.

*Zure argi kliskak* aroei eta izadiari buruzko liburua da, argiari egindako gorazarre, izadi eta “nizadi”aren arteko elkarrizketa.

Liburua hiru zatitan banadua dago. Lehendabizikoak aro tradizionalak hartzen ditu kantagai: “Umezaro”, “Subilaro”, “Jentilzaro”, “Onenzaro”, “Olentzaro”, “Kandelario”, aro nagusien inguruan “Eguzki” eta “Argia”ri buruzko poemak kokatzen ditu Zubiagak. Bigarren atalak, ilunaren inguruko fenomenoak hartzen ditu gaitzat: “Ekaiztea”, “Oilaritea”, “Ilundea”, “Aimarietan”, “Artizar”, “Nekaldia”, “Itzal”. Hirugarrenak, ilunaren eta gauaren sinboloak igaro ondoren, argiak sortzen duen sinboloaren agerpen egiten du, bere atentzioa argiaren alde semantikoan jarritz: “Eguarte”, “Albakoa”, “Eguzki Saindu”.

Liburuaren sinbologia argi-ilunaren artean kokatua da. Baina eraketak badu zerikusirik semantika arloan. Zubiagak bere material poetikoa hiru mailatan eratzen du, argiaren esanahi sinbolikoa nolabait ordenatuz. Atal bakoitzaren barnean irakurleak ordenamendua ikusiko du. Batetik arlo deskriptiboa dei dezakeguna ikusiko dugu. Lehen lana gaia aukeratzea eta moldatzea dugu: arlo semantikoa hartu, “aroak”, adibidez, eta horren inguruko hedapena aurkezten du. Elementu bakoitza deskribatua da, normalean, herri jakituriako aldetik, edo herri-ohiturei aipamen eginez. Horrela, “Jentilzaro” (ZAK, 7) Kixmi eta Jentilaren leidendarekin lotzen du Zubiagak. Herri argumentuak, ohiturak, koplak, esaldiak, hots-hitzak usu darabiltza bere egoera deskriptiboa aberasteko asmotan:

Aimaritakoak entzutean,  
umeok, laster etxera;  
etxeen bira ta ezkutuka  
ez ibili hortik zehar,  
hirugarren bueltarako  
ezpabe deabruak ...  
Din-dan-dan  
ez ibilteko iluntzean... (ZAK, 23)

Bigarren maila batean agertzen dira izenburu argirik ez duten poemak. Gandiagak *Elorrin* egin zuen moduan, poemetako lehen hitzak letra larriz agertzen dira, edo Igarleari atxikiak. Bigarren mailadia baloratiboa da, poetak deskriptiotik sinbolo biderantza izakiez bere irakurketa eskaini du, bere iritzia eman. Nolabait, lehenagoaren ikuspegi subjektiboa eta lehen pertsonan eskaintzen du:

*Ez jat egiten begiko*  
ustegabeko argia  
ez behingoan belarrirako  
ezentzun melodia  
Keinu urtika ortzitik  
ei zatoz nire bidera;  
zelan abestu neinke nik  
horren goi-tesiturara?... (ZAK, 8)

Bigarren maila horretan, poemak azaldu nahi duen sinbologia zabaltzen ari da. Liburuaren izenburuan “zure” honen azpian gordetzen den gizakia Jainkoa da, eta lehen pertsonan lehendabizikoan poetak hitz egiten badu, liburaren bukaeran Jainkoak agertuko du bere izaera lehen pertsonan mintzatuz:

Neu naz munduko argi  
zuek argimutil:  
nire jarraian datorren inor  
ilunpe ez dabil ...  
Neu naz munduko argi  
zuek argimutil:  
jende guztiei nire izenean  
zuek erakutzi... (ZAK, 54-5)

Jainkoaren izaerara heldu baino lehen, baina, Zubiagak, liburuari batasuna emanaz, Eguzkiari buruzko koplak txiki batzuk, sugerikorak, ia dekorazio olerkiak bere sinpletasunean jarri ditu. Testuok hasieratik bukaerarte mantentzen dute liburuaren mezua.

Atalen erdialdean eta bukaeraldean kokatzen dira eta liburuaren batasun hari dira. Hona hemen lehen ataleko biak:



Eguzki  
ni itxu, zu dirdai,  
Eguzki,  
ni gaua, zu oskorri... (ZAK, 8)

Eguzki  
zu izpi, ni begi,  
Eguzki,  
ni keldo, zu zoli,  
Eguzki,  
ni lotan, zu ernai... (ZAK, 17)

Gandiagaren usaia duten poema txikiok ez dute soilik batasuna ematen, arlo semantiko bermatzen dutela argi dago. Eta bermatu neurri bitan. Eguzki eta Jainkoaren arteko lotura agertzen dutelako. Begira liburuko azken poema.

Eguzki  
zu argi, ni mutil,  
Argia,  
dan-dana grazia,  
Eguzki,  
ni ames, zu ortzi  
Argia,  
amaren begia... (ZAK, 56)

Eta Jainko eta gizadiaren arteko banaketa erabatekoa agertzen dutelako.

### 3. Beste zenbait liburu

*Oi Emmanuel* liburuak 1991. urteko Lizardi Saria jaso zuen. Hiru zatitan banandua, (“Oi Jakinduria”. “Oi Eguzki”, “Oi Giltzarri”). Gabon kanten tradizio aparoa jasotzen du, era oso desberdinetan, ahapaldi zein tonu ugarietan, Jainkoaren jaiotza, eta honek gizonengan duen eragina azaltzen ditu. Gandiagaren *Gabon dut anuntzio* gogoratzen duen liburu hori herri tradizioaren barnean kokatzen da: gabon-kantak, Marijesiak... guztiak poesia tradiziozalea eragiteko.

Zubiagarengan nagusi dira kezka bi: ekintza erlijiosoaren ospakizuna eta horrek gizartean dezakeen eraginaren hausnarketa. Aurrerago ikusi dugun bezala salatari agertzen da Zubiaga gizarteak ortodoxiatik ihes egin duelako, eta horren konponbidea nahi luke.

92 poemotan zehar Zubiagak Gabonaren ospakizuna deskribatzen du, ekintzaren arlo guztiak kontuan harturik. Hala ere, lehen atalean jarritako aipuek ongi erakusten dute zein den poeta honen lehendabiziko ardura: “Poesia haseran Jainkozko gauzen erakusketa zan”, “eta gizartean egon-min nerea”. Poesia Jainkoaren hitz eta erakusgarri gisa eta gizarteko bizitza onar-

tiezinaz mindua. Poesiaren identifikapen honek eman dio testugintza honi duen joera erlijiosoa, eta gizartearekiko ardurak nolabaiteko ideologia tradizionalista.

Poesian gailentzen da neurtua izateko darabilen gogoia eta esaldien luzapenatarako Zubiagak darabilen joskera arnas luzeko modua.

*Kurtzemendi* (1981), *Uraren ohikuna* (1989), *Harri eta oihartzun* (1990) eta *Deslilurapen parabolak* (1990) liburuak estetika bera jarraiki eginak daude *Kurtzemendi* da zaharrena eta horretan nabariak dira euskal postsinbolismoaren zantzuak. Kurutze baten ikonoaz hasten den liburu honek, bai gai aldetik, bai erritmo eta molde metrikoez aldetik, gerra aurrean nagusitu ziren moldeen berria dakar. Izadirantza (“Euri”, “Ur”, Aize”) begira dagoen poetak, ohi duenez zentzu erlijiosoa ematen dio poemategiari:

Kurutzemendi, zeugan dago zure gaitzen osakaia, zeure erratuen eta bidegalduen onbideratzea. (K, 67)

Nagusi da, hala ere, hiztegiaren aberastasuna. Hiztegiak moldatzen du *Uraren ohikuna* deituriko liburua. Ura, eta uraren inguruko lexikoa hartuz, uraren zentzu sinbolikoan lan egiten du Zubiagak. Hiru zatitan banandua (“Ur barrena”, “Uharre”, “Ur goiena”) poemek katalogoen tankera hartzen dute hasieran. “Aquarium I” (UO, 8), “Aquarium II” (UO, 12), “Aquarium III” (UO, 13), “Hirureta” (UO, 17). Ura deitzeko edo “ur” hitzaren bidez sorturiko toponimioez katalogoak dira. Lexikoaren aberastasunaren alde egiten duen poetak begirada zehatza du zehatzerako. Poemak, ordea, molde txikiz osaturiko inpresio bilduma dira, hitzaren musikaltasunari adi, poetak Lauaxeta gogoratzen duten poema txiki eta olgetariak idatzi ditu.

*Harri eta oihartzunek* (1990) moldaketa bera da: hiru zati (“Haroimen”, “Harlandu”, “Harrigiltz”), sinbolo bati buruzko hausnarketa (harria kasu honetan) eta mundu baten adierazpena. Zubiagak aurrekoaren antzera jokatu du: objektu poetikoa hartu eta hari buruzko hausnarketa osatu.

“Ukapenaren penaz”, “Ondamenaren menaz”, eta “Jasanaren samaz” idatzitako liburua da *Desliluraren parabolak*, agian saileko libururik erakargarriena. Hiztegiaren joritasuna, herri lirikarako atxikimendua eta ikuspegi pertsonala dira liburuaren zutabeak. Testuak bilatzen du mundu modernoa, eta horren ikuspegi pertsonala. Herri mitoak berrirakurtzeko joera da liburuaren alderik aipagarriena, erritmorako erakusten duen joerarekin batera.

## **Bibliografia**

- ZUBIAGA, F. (1981): *Kurtzemendi*. Ibaizabal. Euba.  
— (1987): *Zure argi kliskak*. BBK. Bilbao.  
— (1989): *Uraren ohikuna*. Ibaizabal. Euba.

- (1990): *Harri eta oihartzun*. Ibaizabal. Euba.
- (1990): *Desliluraren parabola*. Ibaizabal. Euba.
- (1993): *Oi Emmanuel!* Ibaizabal. Euba.
- (1993): “Ene olerki munduaz”. *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 161-181.



## KARLOS SANTISTEBAN

Bibliografian ikus dezakegunez bide luzeko poeta dugu Karlos Santisteban. Haranburu, Kriselu, Sendoa... argialetxetan argitaratu du, eta horrek, agian, oihartzuna, hain urria gure artean, ukatu dio. Produkzio zabalako idazlea dugu eta bere lanean, poesiak izan du bere txoko garrantzitsua.

Karlos Santistebanen poemak zahar kutsua dute, estetika deskriptiboaren agertoki dira. Hiru-lau ezaugarri nagusitan molda dezakegu haren lana.

Hasteko, metaforaren pilaketan sorturiko poesia dugu. Poetak gai poetikoa aukeratu ondoren, horren definizio metaforikoa ematen saiatzen da pilaketa aukeratuz:

Bilbo, Bizkaiko hiriburu harrozk  
burdinezko besarkada goxo  
xiri-miriaren kadentzia geldoz  
kulunkatzen zaitu Nerbioi xehaskak... (TB, 9)

Poetak gai poetikoa begitandu du eta haren deskripzio poetikoa eskaini, horixe da bere funtzioa. Kanpotik begiratzen du gaia eta hari hurbiltzen zaio, hizkera poetikaren bidez objektuak gordea duen edertasuna antzeman nahiez.

Mosu xume batez  
mosuak baitira  
maitasunezko  
seilu  
eztitsuak... (H, 84)

Oro dut itsaso  
oro sentipen busti  
galtzen dira ene eleak  
kresalezko ozeano honetan... (BA, 7)

*Taupaka barnetik* izenburuak adierazten duen bezalaxe, barne ikuspegia azalaraztea da poetak lortu nahi duen helburu poetikoa. Sentimenduz osaturi-

ko eta sentsibilitatez beteriko ikuspegia da papereratuko duena, erromantiko-  
en usaina darien bertsoetan. Maitasunaren kontaketa narratiboan,  
Santistebanek erakusten du joera erromantikoa, eta distantziak distantzia  
direla-ere, noiz edo noiz bertsolarien tonua lortzen du:

Zutaz fido nintzela  
maitasun eroak itsu  
ordainaz hartua daukat  
mespretxuzko haizkorakada  
Maite zindudan zinez  
barreneko bihotzez  
oh! krudela zara  
gutziz kupidagabea... (AG, 15)

*Bizi aparran*, adibidez, itsasoaren barne sentipena dakar Santistebanek,  
Paisaiaren deskribapenak alde subjektiboak hartzen ditu. Baina, orohar, des-  
kribapenerako erabili duen tekniken zerrenda egin dezakegu.

Deskribapen erromantikoak bere legeak ezartzen ditu: kanpotik begirada,  
adjetibizazio ugalduearen erabilera, hiperbolearen agerpena, barne prozesu  
historikoaren kontaketa. Honela epaitu zuten Kandelakoek *Hitzak* liburua:

Odolik gabeko idazkera dugu, ozta ozta maitatzera irits gaitezkeen  
poema asko ditu ... freskotasan apur bat falta zaio, mamira heltzeko jartzen  
dizkigun traba guztiak jasan ondoren altxorra, benetako altxor izatea.  
(1984, 58)

Hala ere, poeta moderno baten lana irakurtzen ari gara eta Santistebanek  
inguraketa interesgarriak egiten ditu bere poesian gune den poesia diskurtsi-  
bo horren inguruan.

Espresamoldeen aldetik, ez du falta oihartzun surrealistik bere poeme-  
tan:

Erromako zubian daude  
zure bularrak eskegi  
kristalezko kolorez  
dariela eldarnio... (AG, 30)

Edo poesia bisuala idazteko ahaleginak ere ez dira faltako: *Hitzak* poema  
liburuaren bukaera aldean gertatzen den bezala. Joko tipografikoak ere bere  
tokia bilatzen du bai *Hitzaken*, eta baita ere *Taupaka barnetik* poemategian.

Forma aldetik aipagarriak dira hizkera poetikoaren eta arruntaren artean  
egiten dituen nahasketak. Espresibitatea bilatuz hitz hotsek funtzionaltasun  
handia dute poemategiotan:

Atrebentziaz beteriko zahatoa altxaturik  
edaten dut gogoz bertatik  
egundoko zingilipurkak

suhartuz  
ene barruko zalduna  
eup! eup!  
gora maitasuna  
eup, eup... (AG, 9)

Zergatik liluritzen dituzu  
oinetakoak gabeko krabelinak  
begirada lotsatuen lilitagian?... (TB, 87)

Metaforen harikaltzean irudimena erabiltzen badu, Santistebanek trebezia erakusten du hitzen arteko joko fonikoak bilatzen dituenean. Aise aurki ditzakegu adibideak bere lanean baina ikusgarria delakotan hauxe aipatuko genuke:

Poliki-poliki-ki-ki-ki  
astiro-astiro-astirotsu  
burdin indarrak  
galduz doaz gaztaroaren zuziak  
eta dinamismo hura  
behin izan zuten dinamismo hura  
hilez... (H, 20)

Hitz jokoetatik ingenio jokoetara igaro da idazlea, eta hauetan kontzeptu-zorroztasunik agertzen du behin baino gehiagotan.

1984. urtean Kandela taldekoek ikusi zuten hitz jokoen zaletasuna:

Karlosen kasuan badirudi lehenengo esanahia nabarmentzen dela, eta gainera fonetikoki (hartaraino maite dituen joku fonetikoei esker) erraz zaiola zuhaitza sinbolutik hitzetara iragaitea. Zuhaitzak biak elkartzen dituelako. Horrela zuhaitza bizitzaren eredu hartuz. “Hitza” (zuhaitz letretan “itz” bezala kausitzen bait dugu) ere izan daiteke bizitzaren sinonimo (agian, zuhaitz bezala -itza-z amaitzen delako. (1985, 56)

Hala Bergamin-i eskeinitako poesian, hitz jokia poema lerdan bihurtzen da:

Bizirik zaude bizi  
inoiz baino biziago hilondoan  
gorputzik gabe zure poesia  
Fenix berpiztua da  
bakarrik hiltzen baitira  
amets hilak dituztenak  
ez hilik amesten dutenak... (TB, 18)

Ura da urago  
erreketara jaitsia.  
Haritza da Haritzago  
hariztian bilduta... (BA, 21)

Forma aldetik barreiatua agertzen bada estetika, barne indar bati erantzun gurariz, beste horrenbeste gertatzen da gaien aldetik. Orohar gizaki baten barne inpresioen berri ematen zaigu poesia honetan, kanpo munduak barnean eragiten duena azaltzen duelarik poemetan. Normalean inpresionismoaren bidetik garamatza idazleak, euskara korrektua erabiltzen duelarik.

Baina, gai aldetiko gunea hor badago, ez dira falta poema militante garbiak, estonagarriak kalitate estetikoari begiratu, idazle honen lanean. Irmo adierazi du poetak:

Nere egia defendatzea dut  
arantzeak bezala...

Aresti gogoratzen duen bertsoan. Abertzaletasunaren eta bere sinboloren aldeko proklamak ez dira falta lan honetan:

Euskal Herrian  
odol gorririk  
egon artean  
oso gora bai besoak  
itxi-itxiak ukabilak.  
Gora bedi Euskal Herria  
oso gora ikurriña... (AG, 38)

Poema eta inpresio biltegi diren liburuetan adar biltzaile baten falta aurkitzen dut nik. Egia da hori dela idazlearen aukera eta ez dudala nik horren aurka ezer esango. Baina nolabaiteko batasuna mantendu du poetak *Amodioz eta gorrotoz* bere liburuan. Hor maitasunaren inguruko poetizazioa bilatu da, fenomenoaren arloak, ikuspegi desberdinetatik bilatuz: “Maitasunaren itzala”, “Zoradura maitez”, “Amodioren hondarrak”, “Maitegunetan Amodiozko mosuak”, “Maitasun pornografikoa”, “Maitasun faltsua”. Azken batean gai poetikoaren langintza anitza eskaini du idazleak.

*Olerki Durundioak* (1992) bere azken liburuak beste idazmolde bat aurkezten du, hiztegi aldetik, iparralderago joana, gai aldetik forma metaliterarioak maitatuz, agian, parabolak eta aforismoak nagusitzen direlarik. Molde txikiko poemak ugariagoak dira, eta honen bitartez Santistebanek ohi duen ikuspegia eskaini du, Poemategia iritzi bilduma da berak maite dituen gaien inguruan: euskara, maitasuna, herria, utopia. Indartu egin ditu joera ironikoak eta poesiak maite du molde jakin eta paraleloetan agerturiko egiturari. Noizbait hizkera joko (OD, 72) bihurturiko poemategi honek bere zentzua agertzen du Santistebanek mitologiaz baliatzen denean bere patuaren berri emateko. Hala ere, “Idatzi behar dut” (OD, 93) poemak erakusten duenez: “Idatzi behar dut... derrigorrez... ezinbestez... halabeharrez... noraezean”, barne indar batek bultzaturiko ibai harrotua da Santistebanen poesia.



## **Bibliografia**

SANTISTEBAN, K. (1983): *Hitzak*. Haranburu. Donostia.

— (1985): *Amodioz eta gorrotoz*. Haranburu. Donostia.

— (1987): *Bizi aparra*. Sendoa. Oiartzun

— (1991): *Taupaka barnetik*. Sendoa. Oiartzun.

— (1992): *Olerki durundioak*. Sendoa. Oiartzun.

KANDELA (1985): “Santisteban Hitzak”. *Euskal letren dantza*. Hordago. Donostia. 55-58.



## JOXEAN MUÑOZ

Liburu baten egile *Parentesiak (eta abar)* (1984) Joxean Muñozek orain gutxi *plaque* bat argitaratu du, motel zegoen poematika bati jarraipena emanez. *Begien bizkar* (1992) deitzen da bere azken emanaldia. Ez dugu aipamen handirik aurkitu lan honetaz. Baina *Argian* argitaratu zitzaion elkarrizketa bat eta han hiru lau zertzaladetan eman zuen bere poetikaz.

“Inperfektoa”, osagabea da lehenik irakurtzen duguna bere lanaz. Ez da poetika klasikoa, zatikatua baino, ia kubista, nolabait esateko:

Ni ari ninun “etabar”ekin, asko ateratzen delako, eta liburua ez delako gauza osatu bat, beti geratzen haiz duda horrekin “gauza gehiago esan daitezke” ... Lehen liburuaren ezperfektotasunaz ari zaigu Joxean.

Landua ez denik ezin da baieztatu. Poemek, hala ere, idazketa automatikoaren antza dute, edo jeinu surrealistaz osaturiko testuak dira:

Itsasontzi baten sirena hamabi ordukoak  
alkoholezko lorontziak sortzen ditu  
zure etxearen ukalondoan  
Zapi baten laztanez  
gaua flekiloz orratzen da... (PEA, 23)

Maitasun poemak idatzi ditu lehen liburuan Joxean Muñozek, agian Ustela Sailean egoki lirakeenak, intimismo puntu batekin, sentimentalismoari bizkar eman gabe. Baina bere testuek indar berezia dute: irudiak eta irudimenak jokatzen baitute testuotan.

Irudia da nagusi. Eta irudia hiru instantzia desberdin bilduz sortzen da: izadiko hiztegia (gaua, itsasoa, arratsa), eguneroko hizkuntza urbanoa (tutti-frutti, txintxeta, nata, telefonoaren numeroak, orden alfabetikoa), eta idatzi-koari buruzko hausnarketa. Poesia honek maite ditu zeinu linguistikoak, maite du hitzekin jolastea, hizkuntzaz aldatzea, parentesien artean aurrez esandakori esanahi berriak eta ezustekoak bilatzea. Hizkera heltzen ez den tokietara, heltzen da zeinu ortografikoa:

...edo zu  
telefonoaren numerotan hutsune  
—ni—  
( )  
...  
izan ere,  
( )  
minutuak ez dira mundu berrien izenak... (PEA, 25)

Hizkuntzaren balio plastikoaz arduratua dagoen Muñozek isiltasunaren poetikaren hurbil dagoenak, garbi azaltzen du zein garrantzizko egiten zaion idatzizkoari buruzko hausnarketa egitea. Maitasunaren ondoan, idazketak eta poesiaren izaerak mugatzen dute bere lana:

Zertarako detaileak, deskripzio personalizatuak  
denak alferrik badira, denek  
akabera berdina badute, errepetizioa-  
ren zirkuloan... (PEA, 33)

hainbeste egun adjetiboak jasotzen pasa eta  
pare bat edo zuhurki aukeratu  
eztizko edo azukre-  
aren sinonimoak  
—leku egokian—  
eta zer ajola du total... (PEA, 29)

Irudiaren ondoan, Gertrude Stein-ek egin ohi zuen moduan Muñozengan ere garrantzitsua da hitzaren errepikazioa, formak eta soinuak eman baitiote lanari bere gorputza.

Ostro bat  
beste ostro batek  
berdetzen. Abar bat  
eta abar  
bat... (PEA, 45)

Hizkera honekin ezustea sortu nahi du idazleak, gaiak sortu eta kurtsile-  
riatik urrundu:

Askotan poesia irakurtzen euskaraz, hasieran oso antzeko egiten zaiz-  
kidak denak ... euskaraz kapa literario bat zegok ... ez garelako normal  
espresatzen. (LM, 1985, 35)

Hizkera arruntaren hondakin gainean egindako lana da Muñozek aurkez-  
ten duena. Bere bigarren liburuan, arruntasuna eta zeinuen nagusitasuna  
galdu egin dira eta indar handiagoa eman zaio irudiari.

Ez da konbentzionala Muñozen darion lirikotasuna, berea duen mundu

oso koherentea moldatzen badaki. Irudi apur batzuekin etxea altzatzen du, bizpahiru flashetatik amodio eskena sortzen da. (Otamendi, 1992, 3)

Hamar poemek osaturiko plaquette honen helburua eguneroko errealitate-aren gainean eraikiriko supererrealismoa agertzea da, kanpo munduaren eta barne munduaren arteko batasuna txapladez eginak:

Zigarroa piztu.  
Zu.  
Itzala itzalaren meneko ...  
Zuk.  
Bular herabeak, bular herabe iratzarriak.  
Euria eta parabrisetako  
eskobilak... (BB, 6)

Eskuan dituen kodigo guztiekin lan egin nahi du poetak mundu moderno-aren hauskortasuna eta haren erritmoa bilatzeko asmoz. Horregatik, agian, dira hain garrantzitsuak zenbakiak poemaren barne egitura osatzeko.

...eta hainbat ilenti ttiki  
ordena baten bila... (BB, 5)

abiatzen badira, halaxe ari da poeta ere, orden horren bila, batez ere soinu- eta argiz munduak ematen duen nahasmenaren sentsazioa.

...hitz izatera heltzeko debekua zuten... (BB, 6)

hitzen bidez errealitate arin horri izena ematen.

## **Bibliografia**

MUÑOZ, J. (1983): *Parentesiak (eta abar)*. Hordago. Donostia.

— (1992): *Begien bizkar. Susa*. 28. 2b.

L. M. (1985): “Abenduko literatur booma, egileen hitzetan (II)”. *Argia*. 1.043. 1985-I-13. 34-5.

OTAMENDI, J. L. (1992): “Aiztoz egiten diren seinaleak”. MUÑOZ, J.: *Begien bizkar. Susa*. 28. 3.



## MIGEL ANJEL UNANUA

Tere Irastortzaren *Gabeziak* liburuaren ondoren Kriselu argitaletxeak mantendu zuen poesia argitaratzeko saila zabalik. Han agertu zuten bere obra Karlos Santistebanek, Martin Iturbek eta Migel Anjel Unanuak. Testu biren egile dugu berau: *Maiteminduen ildoan* (1987) eta *Ogen liliak* (1991), Lizardi Sariaren irabazle 1989. urtean. Sariak —bere arruntean— garrantzia badu ere, ez du lortu Unanua ezagutaraztea, agian Laidako argitarazioak ez zuelako zabalpen egokirik lortu.

Tere Irastorzak *Zurgai* aldizkarian agerturiko artikulua batean aipatzen zuen Unanua astiro ari zela idazten, inguruko snobismoa ahaztuz:

Migel Anjel Unanua bere erritmuaren bila abiatzen da; bere baitan duena kausitu lehenengo eta errekreatu gero; hori da imitazioa; forma narratiboez urrutiratu, diskurtsoaren perspektiba egokia hautatu eta idatzi. (1986, 27)

Zuazaldek ohiko poeten bidetik abiatzen ez dela idatzi du, eta poemaren taiuketari ematen diola garrantzia.

*Maiteminduen ildoan* maitasunaren gaia jorratzen duen liburua dugu. Atal bitan banandua, lehen atala zati bitan aurkeztua agertzen da. Banaketak badu bere zentzua gai aldetik.

Maitasunaren gaia liburu osoan zehar mantentzen bada ere formek zatikatzen dituzte, hein handian, liburuaren atalak. Elkarrizketa alegoriko biren bidez, neskaren eta mutilaren artekoa, harriaren eta ibaiaren artekoa, zabalitzen da liburua. Egia da ez ohikoak direla forma hauek, “sinfonikoak” deitzen ditu Zuazaldek, euskal poesian. Alegoria kutsua ere nabari da, nahiz eta Unanuaren formek beti bilatzen duten alegoriaren gainetik igarotzea. Hala aitortzen du Irastortzak:

Badira zera anitz, forma gabeak, uraren hezetasunaren antzera baizik komunikatzen ez direnak. Deskribapena ez da aski horrelakoetan; deskribapenak mundu onartuaren berri ematen bait du eta Migel Anjelek, euskal poesian gutxik bezala, narratibotasunera jotzen du. (1987, 5)

Maitasuna, agian, kontzeptu ezagunegiekin tratatzen da liburuko lehen alde honetan. Metaforak izadian aurkitu du agerbidea, eta neoklasizismoa kutsua daragio testuak:

... Lorea naiz  
lore ederra, zure irudimenak  
jantziko dizkion margoz  
eta usainez antsiatuko dena... (MI, 17)

Poeren itzal eta gidaripean idatzitako “Inoiz ez gehio” testuan Unanuak maitasuna galdera bihurtzen du:

Bere amodio galduaren  
egundoko gabezia ingartzen zuen  
Olerkariaren Gogoak... (MI, 23)

Maitasunaren irudikapenean, lehen irakurketan, topikoz jolasten badu ere, saiatzen da poeta topikoetatik ihes egiten: erritmoarekin egindako lana, onomatopeien erabilera, diskursoaren erregistro desberdinen agerpena: tresneria topikoetatik ihes egiteko. Lehen atalean, hala ere, poesia mota aldatu egiten da, eta poema elkarrizketatuetatik poema labur eta mingotsetara igarotzen da Unanua. Poema labur horietan mingotsa da ikuspegia, ezezkorra eta bizitzari buruzko iritziduna:

Ene bihotzean maite bat  
bizilagun nuen ...  
Maite min... (MI, 31)

Horixe izango litzateke estetika honen adibidea. Unanuak bere estetika bigunean bidaia luzea egiten du maitasunaren ildoan. Irastortzak aipatzen duenez bikoia da maitasunaren irtenbidea eta laberintoak egin duen irudia. Bigarren zatian, etsipenezko paisaia marrazten du Unanuak. Iruditeria trinkoa da: marinela, itsasoa, ontzia, abisoia eta sentimentu bakar bat: aldia, lantua, sentsazio bakar gisa.

Ontzi beltza Oraldiak  
oihal zuriak piztu ditu,  
Iretargiaren arrasto gorriak  
ur beltzean lerro gorria  
ebakitzen du... (MI, 43)

Nostalgiaz puzturiko poemak dira, bere sinpletasunean, egokiak, inpresionismo osatuak errepikazioekin, baina maitasunaren izaeraren aurrean jartzen gaituenak. Saileko bertso gogoangarriak aipatzearen; hona hemen tonu berria:

Oroitu nahi zaitut, oroitu  
ihes dohakidan izen



hori, amodioaren izen  
zador, ezpainetan ihesi.

Bigarren atalak molde desberdin bi lantzen ditu: “Jakinminez” deituri-koa 27 txatalez osaturiko poema luzea da, ondoren, Ligeia emakumearen irudiaren inguruko poemak ematen ditu Unanuak. Maitasuna zerbait misteriotsua da orain eta Ligeiak bere joera ametsezko eta etsipendua erakusten du.

Maitasunaren helezineko izaeraren aurrean kokatzen da Unanua:

Lotandik kimututa bailetorkidan... (MI, 68)

azalduz emakumearen irudia. Joko surrealistarentzat bidea zabaltzen badu ere, deskripzioak gehiago egiten du poeman. Bidaiariak jarraitu du bidea maitasunaren irudi baiezkorretik ezezkorreraino eta bidaia bukatzen duenean, Sarrionandiaren bidaiari hark egingo zukeen moduan, egoeraren aldaketa adierazten da:

Heltzean ... ez dut lorerik kausitu.  
Itzultzean, ez biderik, ez eta ene  
oinelakoen urratsarik ere... (MI, 76)

Bestelakoa da *Ogen liliak*, tituluari Baudelaire hain hurbiletik gogoratzen duen izenburua. Liburua zati bitan banandua da. Lehenak, “Ogen liliak”, sonetoz osatua da. Bigarrena, “Amodioa. Izua. Umorea”, kopla laburrez.

Alfonso Irigoienen ahaleginen ondoren, ez zen euskal poesian sonetora makurtu den liburu osorik. Liburu honetan Unanuak indarra eman dio joera klasikoazaleari (ez ote zen bere lehen liburu Horatio poeta aipatuz hasten?).

Hogeita bost sonetok osatzen du lehen aldia, eta soneto batek ixten du, adio gisa, liburu. Bizikunea eta paisaiaren agerpide estilizatua dira sonetoen ezaugarriarik garrantzitsuenak. Bizitzaren poz neoklasikoak bultzatzen ditu zenbait poema:

Zeinen argi, zeinen zabal ibarra  
Eguzkiak gartsu osorik joa;  
Gora irrintzi eta deiadarra  
Aboz betez pozkarioz ahoa... (OL, 19)

Badira hala ere, tonu errromantiko zolian, urkatuari eskainitako poema, tragedia kutsuzkoa eta iluntasunarekin jolasten duena:

Urkatik zintzilik nebatxoa!  
Ez da gaurkoa, tragedia bera  
Menderik mende errepikan doa:  
Begirada ez irauli atzera... (OL, 21)

Hala ere, marra zuzen batek eraikitzen du poemategiaren batasuna: bizitzako zentzuaren bila abiatzen da poemategiko nitasuna, eta galdera honek ematen dio argia testuari:

Emaro doala bizitzan oro  
Gaztaro guruzbide honetan... (OL, 14)

Zalantzatik irteteko ametsezko lurrak, ezinezko lurrak, amesten ditu Unanuak:

Bada Lur eremu bat, inoiz hemen  
Geographo gorriak egon ziren  
Mugak neurtzen, oro zen handitasun:  
Haize lerro bat eta bi heren zu... (OL, 30)

Izakiari buruzko galderak argitzen du, ene ustez, poemategiko soneto ederrera, XXIV.a, bere joko existentzialistarekin, bere agerpen zalantzakorrarekin:

Dena gezurra balitz, bai Zu bai Ni,  
Ez deuseza, zerbait bai, baina hemen  
Gauzeza bezala entzuten den  
Izakizun huts honetan ageri ...  
Zer da hor oihumin! Zer da aiena!  
Larritasuna eta etsipena?... (OL, 34)

Bigarren aldiko poema laburrak koplazahar eta haikuen artean mogitzen dira teknikoki, eta izenburuan aipaturiko gaiez, maitasun, izu eta umoreaz ari dira.

## Bibliografia

- UNANUA, M. A. (1987): *Maiteminduen ildoan*. Kriselu. Donostia.  
— (1991): *Ogen liliak*. Laida. Bilbao.
- IRASTORZA, T. (1986): “Y de perfil”. *Zurgai*. 16. 27.  
— (1987): “Aurkezpena”. *Maiteminduen ildoan*. Kriselu. Donostia. 5-7.
- ZUAZALDE, D. (1988): “Maiteminduen ildoan”. *Argia*. 1.193-4. 1988-IV-3/10. 4.

## BIBLIOGRAFIA





## Bibliografia orokorra

- ALDEKOA, Iñaki: (1991): “Introducción”. *Antología de la poesía vasca*. Visor. Madril.
- (1993): *Zirkuluaren hutsmina*. Alberdania. Donostia.
- ELKARLANEAN (1989): *Poetas de los 70*. *Zurgai*. 1989ko abendua.
- (1991): *Enseiucarrean*. 6. zb.
- (1991): *Poesía vasca hoy*. *Zurgai*. Bilbao. 1991eko abendua.
- (1991): *XX. mendea*. *Hegats*, 4. zb.
- (1993): *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao.
- EUSKAL IDAZLEEN ELKARTEA: (1995): *Gaur egungo euskal idazleak*. EEE. Donostia.
- IZAGIRRE, Koldo (1990): “Mudos blues de la nada. (De la última poesía vasca. Repaso urgente)”. *Susa*, 25.
- KANDELA (1984): *Euskal letren dantza 1983an*. Hordago. Donostia.

## Hustutako aldizkariak

Anaitasuna	Hemen
Argia	Igandea
Egan	Jakin
Eguna	Larrun
Egunkaria	Literatur Gazeta
Enseiucarrean	Maiatz
Ere	Susa
Habe	Zurgai
Hegats	

## Bibliografia idazlez idazle

Jakes AHAMENDABURU

- (1988): *Isilka misilka*. Maiatz. Baiona.

(1990): *Gauean ontuts*. Maiatz. Baiona.

CAMINO, Iñaki (1989): “Jakes Ahamendaburu”. *Argia*. 1.236. 1989-III-12. 48.

HERRIA (1991): “Euskal idazle batzu mintzo”. *Herria*. 1991-3-28.

#### Henriette AIRE

(1989): *Egiaren Egarriz*. Maiatz. Baiona.

(1991): “Kultur homogenizazioaren aurrean...”. *Galeuzca*. 1. 25-7.

HERRIA (1991): “Euskal idazle batzu mintzo”. *Herria*. 1991-3-28.

KORTAZAR, Jon (1989): “Duena maitatuz”. *Correo*. 1989-X-19.

SASTRE, Pablo (1991): “Hemen ontsa naiz, bakartasunean”. *Argia*. 1.341. 1991-VI-2.

URZELAI, P. (1989): “Henriette Aire”. *Hemen*. 1989-VI-30.

#### Joseba ALKALDE

(1986): *Babiecaren hotzikarak*. Susa. Donostia.

#### Luigi ANSELMINI

(1985): *Zoo ilogikoa*. Pamiela. Iruñea.

(1988): *Desirako alegiak*. Pamiela. Iruñea.

(1992): *Bacchabunda*. Iruñea.

ITURBIDE, A. (1996): “Ardoaren graziaz”. *Egunkaria*. 1996-VI.

JIMENEZ, Edorta (1993): “Bacchabunda”. *Egunkaria*. 1993-I-31. 33.

JUARISTI, Felipe: “Lagunentzako liburua”.

LARREA, Txema (1987): “Luigi Anselmi”. *Zurgai*. 1987-XII. 47.

LERTXUNDI, Angel (1990): “De falsas urgencias”. *Deia*. 1990-VII-7.

MARKULETA, Gerardo (1993): “Arnoa, Larrua eta gaua”. *Zabalik*. 1993-I-13. 4.

PERURENA, Patziku (1988): “Urak su hartzen duenean”. *Nafarroa Gaur*. 22-XI-1988.

X. X. (1984): “Zoo ilogikoa”. *Argia*. 1984-XII-21. 4.

#### Iñigo ARANBARRI

(1986): *Jonas Poisson*. Susa. Donostia.

(1989): *Dordokak eta elurrak*. Susa. Donostia.

- (1990): "Hire ahotsaren balusari". *Galeuzca*. 1. 1990. 103-116.
- (1991): "Fotokopiagailua daukagu bihotzaren ordezt". *Galeuzca*. 2. 81-84.
- (1993): "Sarajevo mon amour". *Argia*. 1.439. 1993-VI-13.
- ARRESE, Gorka (1990): "I. Aranbarri: Entzerratu asko dago memoria liburu honetan". *Argia*. 1.275. 1990-I-14.
- JIMENEZ, Edorta (1986): "Jonas Poisson, gizartearen sabeleandagoen arraina". *Argia*. 1.092. 1986-II-23.
- JUARISTI, F. (1990): "Memoriaren erresuma". *Zabalik*. 1990-III-28.
- KORTAZAR, Jon (1986): "Jonas Poisson". *Deia*. 1986-V-17.
- (1990): "Poesia gaztea". *El Correo*. 1990-IX-5.
- MARTINEZ, L. (1996): "Ez da kritika landurik egiten". *El Correo*. 1996-VI-23.
- OTAMENDI, José Luis (1994): "Dordokak elurretan". *Hegats*. 10. 35-44.

### Jon ARANO

- (1985): *Bileterik gabe*. Susa. Donostia.
- (1990): *Malezia sorta*. Susa. Donostia.
- IRASTORZA, Tere (1987): "Y de perfil". *Zurgai*. 17. 1987. 27.
- JIMENEZ, Edorta (1991): "Malizia sorta zuzena". *Argia*. 1.329. 1991-III-10. 62
- LINAZASORO, K. (1991): "Mundua aldatzeko malezia piska bat". *Egunkaria*. 1991-III-9.
- UBEDA, G. (1991): "Nik idatzia ameskaizto bat". *Argia*. 1.327. 1991-II-24.
- ZABALA, Juan Luis (1991): "Jon Arano. Maleziaz idazten duen poeta". *Egunkaria*. 1991-III-2.

### Aurelia ARKOTXA

- (1993): *Atari ahantziak*. Pamiela. Iruñea.
- ARAMENDI, M. (1988): "A. Arkotxa". *Argia*. 1.195. 1988-IV-24.
- ASURMENDI (1994): "Atari ahantziak nonnahi agertzen dira bizitzan". *Zabalik*. 1994-IX-28.
- BORDA, J. (1994): "Carpaccio Iruñean". *Argia*. 1.473. 1994-3-6. 54.
- EGUZKITZA, Andolin (1994): "Aurelia Arkotxaren atari ahantziak". *Maiatz*. 23. 35.
- ETXEZAHARRETA, Luzien (1993): "Poesia atari ahantzien atzetik". *Egunkaria*. 1993-XII-7. XI.
- ITURBIDE, A. (1995): "Bluitasuna". *Egunkaria*. 1995-V-21.
- JUARISTI, Felipe (1994): "Urdina". *Egan*. 1. 258-9.
- (1994): "Urdinarekiko lilura". *Zabalik*. 1994-III-12.

## Joxe Austin ARRIETA

- (1983): *Arrotzarena. Neurtitz neurgabeak*. GAK. Donostia.
- (1986): *Bertso-paper printzatuak*. Elkar. Donostia.
- (1989): *Mintzoen mintzak*. Elkar. Donostia.
- (1995): “Hiru liburu, hiru begirada”. *Jakin*. 86. 65-95.
- AGIRRE, Joxean (1995): “Bi pisu astun”. *Egin*. 1995-XI-7. 43.
- ARRESE, Gorka (1988): “Joxe Austin Arrieta”. *Argia*. 1.220. 1988-XI-13. 38-41.
- ARRIETA, Mikel (1989): “Susmoa dut”. *Argia*. 1.258-9. 1989-IX-17. 64-5.
- CAMINO, Iñaki (1985): “Hadrianoren oroitzapenak”. *Argia*. 1.070. 1985-IX-8. 32-3.
- JUARISTI, E. (1989): “Poesiaz mintzo da batez ere”. *Zabalik*. 1989-IX-27.
- LANDA, Josu (1986): “Joxe Austin Arrieta”. *Argia*. 1.123. 1986-XI-2. 27-31.
- L. J. (1987): “Joxe Austin Arrieta”. *Argia*. 1.166. 1987-IX-27. 44-5.
- MARKULETA, Gerardo (1989): “Besteren mintz(o)ak”. *Zabalik*. 1989-XII-27.
- SAN MARTIN, Juan “Otsalar” (1985): “J. A. A.: Arrotzarena”. 1-2. 129.
- URIA-ANZA (1981): “Jose Austin Arrietarekin elkarrizketa”. *Susa*. 3. 11-15.
- X. X. (1989): “J. A. Arrieta”. *Hemen*. 1989-X-27.

## Bernardo ATXAGA

- (1978): *Etiopia*. Pott. Bilbao.
- (1983): *Etiopia*. 2. arg. Erein. Donostia.
- (1990): *Poemas & Híbridos*. Visor. Madril.
- OLAZIREGI, Mari Joxe: (1994): “Bernardo Atxagaren harrera literarioa: proposamen bat”. *ASJU*. 28-3. 683-706.

## Alex AZKUE

- (1981): *Poemak*. Ustela saila. Donostia.
- ALVAREZ, B. (1981): “Alex Azkueren liburu-esperantza”. *Argia*. 920. 1981-IX-27.
- SAN MARTIN, Juan (1980/1): “Alex Azkue. Poemak”. *Egan*. 173-177.



## Joakin BALENTZIA

(1989): *Espaloian dago munduaren zilkoa*. Susa. Donostia.

(1995): *Amaigabeko zikloa*. Kutxa. Donostia.

ARZELUS, S. (1989): "Joakin Balentzia". *Hemen*. 1989-VI-9.

CAMINO, Iñaki (1989): "Joakin Balentziak". *Argia*. 1.247. 1989-VI-20.

LAKASTA, J. K. (1994): "Nire poemak dira ipuin txikiak". *Egunkaria*. 1994-XI-15.

LANDA, Josu (1989): "Espaloian dago munduaren xiloa". *Argia*. 1989-VI-4.

## Iñigo BARANDIARAN

(1984): *Klick. sssh. klack*. Susa. Donostia.

L. M. (1985): "Abenduko literatur booma (II)". *Argia*. 1.043. 1985-I-13.

## Luis BERRIZBEITIA

(1987): *Zoperna jenerala*. Pamiela. Iruñea.

(1992): *Eremu karroindunak*. Elkar. Donostia.

BORDA, Itxaro (1993): "Karruaren eremuetarik". *Argia*. 1.430. 1993-IV-18. 71. or.

EGUZKITZA, Andolin (1995): "Eremu karroinduak". *Maiatz*. 21. 17.

ETXARRI, J. (1986): "Euskalkiak ezagutu". *Eguna*. 1986-XII-18.

JIMENEZ, Edorta (1993): "Ohar batzuk euskal poesiaz". *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 219-254.

JUARISTI, Felipe: "Kultismoaren bidea".

KORTAZAR, Jon (1988): "Literatura-zoperna, sorpresa jenerala". *Eguna*. 1988-I-14.

MARKULETA, Gerardo (1993): "Teoria eta praktikaren arteko desoreka". *Zabalik*. 1993-I-20.

MENDIGUREN, Xabier (1988): "Zoperna Jenerala". *Argia*. 1.186. 1988-II-7.

ZUAZALDE, David: (1987): "Luis Berrizbeitiak iazko Lizardi Saria kalera-tu". *Argia*. 1.176. 1987-XII-6. 47.

## Itxaro BORDA

(1984): *Nola bizitza badoan*. Maiatz. Baiona.

(1986): *Krokodil bat dut bihotzaren orde*. Susa. Donostia.

(1988): *Just Love*. Maiatz. Baiona.

- (1991): *Bestaldean*. Susa. Donostia.
- (1991): “Autojustifikazio erreza”. *Hegats*. 4. 229-238.
- ARKOTXA, Aurelia (1992): “Con Itxaro Borda en los caminos huidizos de la escritura”. *Zurgai*.
- ARRESE (1988): “Itxaro Borda. Just Love”. *Argia*. 1.222. 1988-XI-27. 47.
- ETXEZAHARRETA, Luzien (1994): “Hogei urteetako opera primak”. *Hegats*. 10. 13-20.
- HERRIA (1991): “Euskal idazle batzu mintzo”. *Herria*. 1991-3-28.
- HERRIZ HERRI (1984): “Itxaro Borda”. *Argia*. 1.030. 1984-X-7.
- IRASTORZA, Tere (1991): “Aintzin solas”. *Bestaldean*. 5-9.
- JUARISTI, Felipe: “Bestaldetik”.
- (1991): “Bestaldean zer dago?”. *Zabalik*. 1991-XI-20.
- LANDA, Josu (1990): “Ondokoek jakin dezaten ez ginela osoki zoriontsu”. *Argia*. 1.284. 1990-3-18. 63.
- LIZARTZA, Ritxi (1991): “Bestaldeko esperientzien kronika”. *Argia*. 1.358. 1991-10-27.
- (1994): “Euskal lurraldetasunaz”. *Argia*. 1.985. 1994-5-29. 56-7.
- MANDU, M. (1984): “Maiatz aldizkariaren bide berriak”. *Argia*. 1.028. 1984-IX-27.
- SUSA: “Urjentzia absolutuko literatura egin behar dugu”. *Susa*. 25. 18-23.
- ZABALA, Juan Luis (1991): “Itxaro Borda”. *Egunkaria*. 1991-X-19.
- ZELAIETA, Angel (1992): “Itxaro Bordaren agerpenak”. *Egunkaria*. 1992-I-4.
- ZUBIRIA, P. (1996): “Banekaldeko herrietan...”. *Argia*. 1.572-1.573. 1996-IV-14.

#### Jon CASENAVE

- (1987): *Zutaz amoroski*. Ustela saila. Donostia.
- (1985): *Ordu alferren segidan*. Elkar. Donostia.
- ANZA, M. (1986): “Ordu alferren segida”. *Susa*. 18. 6.
- BORDA, I. (1985): “Jon Casenave”. *Argia*. 1.078. 1985-XI-3. 35.
- LANDA-URIA (1982): “Iparraldean ez da kasik literaturarik egiten”. *Argia*. 935. 1982-V-30. 30-1.

#### Jean Louis DAVANT

- (1980): *Makila gorria*. Elkar. Donostia.
- (1982): *Denboraren aroak*. BAK. Bilbao.
- (1985): *Nahi gabe*. Caja Ahorros Municipal de Pamplona. Iruñea.

(1986): *Itsasoak iraultzan*. Maiatz. Baiona.

(1990): *Ihesi*. Maiatz. Baiona.

BILBAO, J. R. (1982): “J. L. Davant”. *Anaitasuna*. 1982-II. 16-21.

HERRIAK (1975): “Jean Louis Davant”. *Zeruko Argia*. 1975-VIII-10.

JUARISTI, J. (1982): “Hitzaurrea”. *Denboraren aroak*.

LARRION-ZUBIRIA (1992): “Jean Louis Davant”. *Larrun*. 13. 5-17.

URZOLA (1975): “Jean Louis Davant Euskaltzaina”. *Zeruko Argia*. 636.  
1975-V-11.

#### Rafael EGIGUREN

(1981): *Txipiroi bat edo beste*. Ustela saila. Donostia.

(1986): *Mugarrien garraioak*. Susa. Donostia.

PORTUGAL, X. (1982): “Txipiroiren bat edo beste”. *Anaitasuna*. 1982-11.  
39.

#### Andolin EGUZKITZA

(1986): *Orhiko mendirantz urratsez urrats*. Pamiela. Iruñea.

(1993): *Mila urte igarota ura bere bidean*. Susa. Donostia.

BORDA, I. (1994): “Gizon bakartien urratsak”. *Argia*. 1.466. 1994-I-16. 54.

ITURBIDE, Amaia (1995): “Uraren bidaia”. *Hegats*. 12. 79-82.

JUARISTI, Felipe (1993): “Ibilbide poetikoa”. *Zabalik*.

MINTEGI, Laura (1986): “Hemen ez gara egiten ari European egiten den literatura mota”. *Argia*. 1.102. 1986-V-4. 41.

URIARTE, I. (1993): “Mila urte igaro”. *Egunkaria*. 1993-II-1.

X. X. (1986): “Pamiela: Andolin Eguzkitzaren poeman (*sic*)”. *Nafarroa gaur*. 1986-4-12.

— “Hemen giro latza dago”. *Habe*. 10. 6-8.

#### Manu ERTZILLA

(1977): *Hitzik anitz idatzi dut*. Zugaza. Durango.

(1989): *Ezpondetako pneumak*. BFA. Bilbao.

AGIRRE, L. (1990): “M. Ertzilla: Poesia idaztean bere morroi bilakatzen zara”. *Argia*. 1.281. 90-II-25. 48.

GARAIZAR, J. A. (1978): “Manu Ertzilla”. *Zeruko Argia*. 1978-V-28.

KORTAZAR, Jon (1990): “Arnasa”. *Correo*. 1990-II-14.

## Eñaut ETXAMENDI

(1985): *Aurora*. Maiatz. Baiona.

## Patxi EZKIAGA

(1984): *Beldur naiz*. BAK. Bilbao.

(1986): *Aiodi Herriko kantak*. Kutxa. Donostia.

(1986): *Armagedon*. Eusko Jaurlaritz. Gasteiz.

(1986): *Gernika*. Erein. Donostia.

(1987): *Fadura*. Kutxa. Donostia.

(1988): *Ispiluaren isladaketak. Keiko eta beste udazkenak*. Elkar. Donostia.

(1990): *Terrala*. Sendoa. Donostia.

(1990): *Baladak*. Sendoa. Donostia.

(1992): *Haize Hurbila*. EHU. Leioa.

(1993): *Komediaren Jainkoa*. BBK. Bilbao.

(1991): "Poeta bizitzaren esploradorea da". *Enseiucarrean*. 6. 25-43.

(1993): "Dialektikaren muturrean". *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 185-208.

(1996): "Nire poesiaren bulkadak I". *Uniberriak*. 49. 13-14.

ARANO-ARRESE (1987): "Patxi Ezkiaga". *Argia*. 1.186. 1987-II-14.

ARANZABAL, A. (1990): "Moda guztietatik kanpoko liburua". *Egunkaria*. 1990-XII-22.

ARISTI, Pako (1994): "Itxaropenari mila orri idatzi dizkion poeta". *Zabalik*. 1994-IV-21.

BASURKO, S.: "Patxi Ezkiaga, sentimenduak larrugorritan daramatzen poeta". *Habe*. 125. 6-9.

BORDA, I. (1993): "Iraganean errefuxiatu naiz". *Argia*. 1.454. 1993-X-24. 54.

ERZIBENGOA, J. (1987): "Patxi gaurko poeta". *Arbola*. 7.

JUARISTI, Felipe (1994): "Gela beteko bakardadea". *Haize hurbila*. 13-37.

KORTAZAR, Jon (1994): "Haize hurbila". *Igandea*. 1994-IX-25.

MONASTERIO, X. (1991): "Patxi Ezkiaga bere ispiluaren aurrean". *Zurgai*. 44-5.

PASTOR, J. M. (1994): "Poesia ihesalditik ihes egiteko modua da". *Egunkaria*. 1994-IV-22.

X. X. (1987): "P. Ezkiaga, euskararen gudari suizida bat". *Hemen*. 1987-XII-24.

ZABALA, Juan Luis (1990): "Lau liburu berri". *Egunkaria*. 1990-XII-9.

ZELAIETA, Angel (1991): "Elorri eta Terrala". *Egunkaria*. 1991-II-23.  
ZUAZALDE, D. (1988): "Ispiluaren isladaketak". *Argia*. 1.214. 1988-X-2.

#### Kepa FERNANDEZ DE LARRINOA

(1984): *Gauerakoan*. Susa. Donostia.  
(1991): *Urteak joan zaizkit*. Bizkaiko Foru Aldundia.

MARKULETA, Gerardo (1992): "Poeta Bilbaotik pasian". *Zabalik*. 1992-IX-16.

#### Daniel GARBIZU

(1980): *Espaloietako ginola*. Ustela saila. Donostia.

#### Joxerra GARZIA

(1988): *Dena dela*. Baroja. Donostia.  
(1991): *Zotal egunak*. Kutxa. Donostia.

ITURBIDE, Amaia (1995): "Hizkuntza hitz joko bihurtzen denean". *Egan*. 2. 47-58.

JUARISTI, Felipe (1989): "Dena dela: liburu definigaitza". *Zabalik*. 1989-III-15.

MARKULETA, Gerardo (1992): "Zotal egunek negu gorria iragarri". *Zabalik*. 1992-II-19.

#### Txomin HEGI

(1989): *Arteka marteka*. Maiatz. Baiona.

BORDA, Itxaro (1986): "Txomin Hegi". *Argia*. 1.112. 1986-VII-13.

#### Juan Kruz IGERABIDE

(1985): *Notre Dameko oihartzunak*. Elkar. Donostia.

(1988): *Bizitzaren solasean*. Elkar. Donostia.

(1992): *Begi-niniaren poemak*. Pamiela. Iruñea.

(1992): *Egun osorako poemak*. Erein. Donostia.

(1994): *Sarean leiho*. Alberdania. Irun.

(1991): "Poesia musika da eta izaditik ateratzen ditu soinuak". *Enseiucarrean*. 6. 47-57.

- (1992): "Haur poesia eta lihoaren neke eta penak. ELKARLANEAN: *Haur literaturaren inguruan*. UEU. Iruñea. 41-63.
- (1995): "Hegoaldeko itsasoetan barna". *Egan*, 2. 29-46.
- AGIRRE, L. (1993): "Alberdaniaren bigarren uzta". *Egunkaria*. 1993-XIII-1.
- ARRIETA, Yolanda (1995): "Begi niniaren poemak". *Hegats*. 12. 59-66.
- GARCIA INES, N. (1993): "Igerabide". *Deia*. 1993-X-24.
- ITURBIDE, Amaia (1989): "Hiru poema liburu". *Hegats*. 1. 1989. 27.
- "Poema ikustea". *Egunkaria*. 1995-IV-16.
- JUARISTI, F. (1993): "Begi niniaren poemak". *Zabalik*.
- KORTAZAR, Jon (1994): "J. K. Iren begi niniak". *Igandea*. 1994-XI-6.
- (1989): "Olerkiarekin solasean". *Correo*. 1989-VIII-9.
- L. M. (1985): "Abenduko literatur booma (IV)". *Argia*. 1.045. 1985-I-27. 345.
- MADARIAGA, Juan Ramón (1996): "Sarean Leiho". *Pergola*. 50. 6.
- MARKULETA, Gerardo (1994): "Haikuak euskal erara eta beste". *Zabalik*. 1994-X-26.
- ORMAETXEA, A. (1994): "Euskal literaturaren zorioneko uneak". *Egunkaria*. 1994-X-21.
- SAIZAR, J. (1993): "Poesia eta ipuinaren untzian". *Argia*. 1.420. 1993-I-21.
- X. X. (1989): "Juan Kruz Igerabide". *Zabalik*. 1989-III-3.
- ZABALA, Juan Luis: "Tikiaren poeta handia". *Egunkaria*. 1994-XI-15.
- ZUAZALDE, David: "Juan Kruz Igerabide". *Argia*.
- ZUBIZARRETA, Patxi (1993): "Poesia ate joka". *Argia*. 1.917. 1993-I-10. 55.

#### Aitxus IÑARRA

- (1985): *Hirustea*. Susa. Donostia.

#### Tere IRASTORTZA

- (1980): *Gabeziak*. Haranburu Altuna. Donostia.
- (1983): *Gaua eta Gai aldaketak. Hostoak*. CAM. Bilbao.
- (1986): *Derrotaren fabulak*. Pamiela. Iruñea.
- (1987): *Osinberdeko kantoriak*. Pamiela. Iruñea.
- (1994): *Manual devotio gabea*. Pamiela. Iruñea.
- (1995): *Gabeziaren khantoreak*. Pamiela. Iruñea.
- (1991): "Enseiucarrean". *Enseiucarrean*. 6. 61-65.
- AIZARNA, M. (1987): "Tere Irastorza: sentimenduaren arrazoia". *Eguna*. 1987-V-21.
- BORDA, Itxaro (1994): "Ixiltasun eske". *Argia*. 1.509. 1994-XII-18. 48.

- (1996): “The until now new complete Irastorza”. *Argia*. 1996-VI-2.
- ERASUN, A. (1996): “Euskaldunak badakigu zer den gure herriko bestea, judutarrak, izatea”. *Argia*. 1.577. 1996-V-12.
- ITURBIDE, Amaia (1995): “Ahots baten bidean”. *Egunkaria*. 1995-IV-9.
- (1996): “La voz de un sendero desandado”. *Zurgai*. 106-109.
- (1994): “Txikitetasunak egiten eta moldatzen gaituenean”. *Hegats*. 10. 23-26.
- KANDELA (1984): “Irastorza, T.”. *Euskal letren dantza*. Hordago. Donostia. 93-96.
- KORTAZAR, Jon (1995): “Hausterrearen bidetik”. *Igandea*. 1995-II-5.
- LAKASTA, J. K. (1994): “Tere Irastortza”. *Egunkaria*. 1994-XI-3.
- MARKULETA, Gerardo (1994): “Literatur debozioaren esku liburua”. *Zabalik*. 1994-XI-9.
- MARTINEZ, L. (1995): “Euskal poesia asko saltzen da”. *Correo*. 10-XII-1995.
- MUJICA, Luis Mari (1991): “Euskal poesia berriaren teknika zenbait: Teresita Irastorza”. *Memoriae Mitxelena Magistri Sacrum*. Gipuzkoako Diputazioa. Donostia. 1.241-1.255.
- X. X. (1986): “Berbatan. Tere Irastorza”. *Maiatz*. 11.
- (1986): “T. Irastorza”. *Hemen*. 1986-I-17.
- (1996): “Tere Irastortza. Poesia espresio bide naturala”. *Maiatz*. 26. 21-22.

## Imanol IRIGOIEN

- (1988): *Argiaren barne distantziak*. Erein. Donostia.
- ARRESE, Gorka (1989): “Imanol Irigoien”. *Argia*. 1.232. 1989-II-12. 49.
- ARZELUS, X.: “Imanol Irigoien”. *Hemen*. 1988-XII-23.
- ITURBIDE, Amaia (1990): “Pinturaren eta poesiaren arteko ortzadarra”. *Hegats*. 3. 29.
- (1990): “Argia eta itzala hizlari”. *Egunkaria*. 1990-XII-22.
- (1993): “Adjetibizazioa J. Irigoieren ...”. *Jakin*. 74. 129-135.
- JUARISTI, Felipe (1989): “Itzalaren obsesioa”. *Zabalik*. 1989-XII-27.
- KORTAZAR, Jon (1990): “Argiaren arnasa”. *Correo*. 1990-III-1.
- M. A. (1989): “Imanol Irigoien”. *Eguna*, 1989-X-.
- X. X. (1989): “Argiaren barne distantziak”. *Hemen*. 1989-XI-3.
- (1989): “Imanol Irigoien, adinaren argiaren atzetik”. *Zabalik*. 1989-XI-1.

## Amaia ITURBIDE

- (1986): *Eskaileraren bi aldeetan*. Erein. Donostia.

- (1992): *Itzulbidea*. Erein. Donostia.
- (1994): *Gelak eta zelaiak*. Erein. Donostia.
- (1994): “Paisaia eta musikalitatea”. *Jakin*. 84. 125-7.  
—: “Poesía y nacionalidad” (argitaragabea).
- A. M. (1993): “Amaia Iturbide”. *Igandea*. 1993-III-21.
- GARCIA, N. (1994): “Amaia Iturbide”. *Igandea*. 1994-IX-25. 40.
- IGERABIDE, Juan Kruz (1996): “Amaia Iturbide: una poética de agua”.  
*Zurgai*. 120-122.
- JIMENEZ, Edorta (1986): “Eskaileraren bi aldeetan”. *Argia*. 1986-VII-13.  
41.
- JUARISTI, Felipe (1995): “Paisaia eta musika”. *Pérgola*. 1995-III. VIII.
- KORTAZAR, Jon (1986): “Bertso paperaren bi aldeetan”. *Deia*. 1986-VI-22.  
— (1995): “A. Iren gelak eta zelaiak”. *Igandea*. 1995-III-26.  
— (1991): “Desde la experiencia”. *Zurgai*. 26-27.
- MARKULETA, Gerardo: “La huida saludable y otros poemas”. *Insula*. 558.
- ORMAETXE, A. (1994): “Euskarazko poesia fruitu berri bi”. *Egunkaria*.  
1994-XII-3.
- ROJO, J. (1979): “Y de perfil”. *Zurgai*. 1979. 27-8.
- ZELAIETA, Angel (1992): “Bizitzaren amarauna”. *Egunkaria*. 1992-V-29.

## Koldo IZAGIRRE

- (1976): *Itsaso ahantzia*. Kriselu. Donostia.
- (1977): *Oinaze zaharrera*. Ustela saila. Donostia.
- (1978): *Guardasol ahantzia*. Ustela saila. Donostia.
- (1989): *Balizko erroten erresuman*. Susa. Donostia.
- (1981): “Hitzaurrea”. AZKUE, Alex: *Poemak*. Ustela. Donostia.
- (1990): “Mudos blues de la nada”. *Susa*. 25. Gehigarria.
- (1993): *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao.
- (1993): “Liliput debekatuak”. *Argia: Hamar urte euskal kulturaren 1983-1993*. 6-13.
- ABARDOI, I. (1977): “Zergatik bai”. *Zeruko Argia*. 741. 1977-VI-5.
- AGIRRE, J. (1987): “Mendekatuak, gestoak amorrazioaren ispilu”. *Hemen*.  
1987-XII-18.
- ALDEKOA, Iñaki: “K. Izagirre: artifiziotasunaren ukazioa”. *Zabalik*. 1990-  
-V-30.
- ARANO, J. M. (1990): “Idaztearen gazi gozoak maite ditu Koldo Izagirrek”. *Egunkaria*. 1990-XII-22.



- ARRESE-LANDA (1989): "Koldo Izagirre: Balizko erroten erresuma literaturtasunaren bindikapena izatea nahi nuke". *Argia*. 1.267, 1989-XI-12.
- ATXAGA, Bernardo (1977): "Literatura". *Anaitasuna*. 1977-VII-1.
- BAYO-ARRESE (1991): "Amodio mingotsen errodaia egunak". *Argia*. 1.349. 1991-VII-28.
- ETXEZARRETA, Ramón (1978): "K. I.: Guardasola ahantzia". *Jakin*. 8. 133-135.
- FAKI, JOSU, JOXAN eta ENRIKE (1980): "Koldo Izagirre mikrofonoarekin kontra". *Susa*. 2. 8-12.
- LANDA, Josu (1979): "Guardasola ahantzia: poema bat". *Jakin*. 11. 84-94.
- LETE, Xabier (1976): "Bi poeta gazte". *Zeruko Argia*. 1976-IV-4, (I) 1976-V-2, (II).
- M. A. J. L. (1984): "'Euzkadi merezi zuten' Komedia triste batda." *Argia*. 1.035. 1984-XI-11.
- MARKULETA, Gerardo (1992): "Ihesbidea aurrera bide denean". *Zabalik*. 1992-VI-3.
- MARTINEZ, L. (1995): "Idazlea mozarrotu egiten da". *Correo*. 1995-IX-3.
- MENDIGUREN, Xabier (1994): "Dinamita bustiaren arriskuak". *Hegats*. 10. 29-33.
- MENDIGUREN-LANDA (1987): "Koldo Izagirre: Ironia geroeta gehiago praktikatubeharreko arma da". *Argia*. 1.175. 1987-XI-29.
- S. J. (1979): "Gauzetan". *Anaitasuna*. 1979-IX-1.
- UBEDA, G. (1995): "Sugearen zuhurtzia behar dugu". *Argia*. 1.534. 1995-VI-11.
- URZELAI, P. (1989): "Koldo Izagirre: Ur tanta horrek zulatu dezake harria". *Hemen*. 1989-XII-29.
- X. X.: "Koldo Izagirre". *Habe*. 218. 6-9.

## Felipe JUARISTI

- (1985): *Denbora, Nostalgia*. Baroja. Donostia.
- (1987): *Hiriraren melankolia*. Baroja. Donostia.
- (1994): *Laino artean zelatari*. Alberdania. Irun.
- (1991): "Poesiak ezer aldatuko ez duela egia bada, zertarako idatzi poesia? Bizi behar delako". *Enseiucarrean*. 6. 81-100.
- (1991): "Poesiari buruzko ene gogoeta fragmentarioak". *Enseiucarrean*. 6. 101-103.
- (1992): "Hiru adjetibo joan zen hamarkadarako". *Egan*. 19-37.
- (1993): "Nostalgia-umoreraren melankoliaren erresuma igaroz". *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 209-217.

- AGIRRE, J. (1988): "Felipe Juaristi, poeta urbanoa". *Hemen*. 1988-VIII-29.  
 — (1993): "Felipe Juaristi". *Egan*. 2. 224.
- ALDEKOA, Iñaki (1993): "Felipe Juaristiren poesigintza". *Egan*. 1. 29-33.  
 — (1993): *Zirkuluaren hutsmina*. Alberdania. Donostia. 17-23.
- ARISTI, Pako (1992): "Felipe Juaristi: Inkonformista bat isiltasunaren diktaduran". *Zabalik*. 1992-VI-20.
- ARRESE, G. (1990): "Felipe Juaristi". *Argia*. 1.289. 1990-IV-29. 51-2.
- ETXARRI, J. (1987): "Berehala kaleratuko du F. J.k bere lehen nobela". *Eguna*. 1987-VI-16.
- GOSTIN, A. (1987): "Hiriaren melankonia egunerokotasuna gaur". *Hemen*. 1987-VII-3.
- IBARGUTXI, F. (1987): "Tristurazko vals geldia". *Zabalik*. 1987-VI-24.
- IGERABIDE, Juan Kruz (1995): "Laino artean zelatari". *Hegats*. 12. 67-75.
- ITURBIDE, Amaia (1989): "Hiru poema liburu". *Hegats*. 1. 25.
- JIMENEZ, Edorta (1993): "Berriro poesiaren badiara". *Egunkaria*. 1993-VI-6.
- KORTAZAR, Jon (1987): "Hiriaren sentibera". *Eguna*. 1987-VIII-6.  
 — (1993): "Laino artean zelatari". *Igandea*. 1993-VIII-15.  
 — (1994): "Epileg". JUARISTI, Felipe: *Guardiá en la boira*. Jardins de Samarcanda. Bartzelona. 77-93.
- LANDA, Josu (1987): "Felipe Juaristi, poesiatik bueltan". *Argia*. 1.150. 87-V-10.
- MARAÑA, Felix (1996): "La poesía de Felipe Juaristi". *Pérgola*. 50. II.
- MARKULETA, Gerardo (1993): "Ekaitz sasoian, poeta zelatan". *Zabalik*. 1993-VI-2.
- MENDIZABAL (1987): "Plazerra sentiarazteko poemak". *Argia*. 1.163. 87-IX-6. 5.
- PASTOR, J. M. (1994): "Juaristi: Gezurraren eta egiaren arteko eremuak". *Egunkaria*. 1994-IX-15.
- ZABALA, Juan Luis (1993): "Poeta ahots propioaren bila". *Egunkaria*. 1993-V-29.

## KARTXI

(1987): *Ihesi*. Susa. Donostia.

## Mari Jose KEREXETA

(1988): *Ezezagun baten koaderno*. Kutxa. Donostia.

ARANO, Jon (1989): "M. Jose Kerexeta". *Argia*. 1.231. 1989-II-5. 49.

ITURBIDE, Amaia (1994): "M. J. Kerejeta". *Egan*. 1. 255-6.

JUARISTI, Felipe (1989): "Ezezagun baten koaderno". *Zabalik*. 1989-II-1.  
MARKULETA, Gerardo (1995): "Ezezagun baten koaderno ahaztua".  
*Hegats*. 12. 51-57.

#### Gabriel KORTA

(1980): *Isiletik*. Ustela saila. Donostia.  
(1987): *Okaranak*. Susa. Donostia.

#### Manex LANATUA

(1984): *Hegatz urratua*. Egilearen argitarazioa.  
(1987): *Kilim*. Maiatz. Baiona.

#### Josu LANDA

(1979): *Ni eta nitarrak*. Autoedizioa. Donostia.  
(1980): *Haizearen itzalak*. Hordago. Donostia.  
(1983): *Ipurtargi beltza*. Susa. Donostia.

KANDELA (1984): "Landa Zumalabe". *Euskal letren dantza*. Hordago.  
Donostia. 38-42.  
X. X. (1980): "Josu Landaren itzalak". *Argia*. 1980-VII-13.

#### Jon Iñaki LASA

(1982): *Alizia eta biok*. Ustela Saila. Donostia.  
(1984): *Andaluziari ene bilduma*. Susa. Donostia.  
E. X. (1983): "Iñaki Lasarekin Aliziari buruz". *Argia*. 959. 1983-I-9.  
ETXANIZ, Xabier (1982): "Alizia eta biok". *Argia*. 956. 1982-XII-19.  
X. X. (1984): "Jon Iñaki Lasa". *Argia*. 1.029. 1984-IX-30.

#### Gemma LASARTE

(1985): *Hitz antzuen azokan*. Susa. Donostia.  
MENDIGUREN, F. J. (1985): "Hitz antzuen azokan". *Susa*. 14-15. 93.

#### Pello LIZARRALDE

(1978): *Hilargiaren hotzikarak*. Ustela saila. Donostia.

## Juanra MADARIAGA

- (1989): *Imentzioaren pergamuak*. Bizkaiko Foru Diputazioa. Bilbao.
- (1992): *Galera erreplikatuak*. Susa. Donostia.
- (1992): *Itsasontziak ozeanotan bezala*. BCH. Bilbao.
- (1993): *Elaien ausardia edo Itsasontziak ozeanotan bezala. Neguko antzarrak*. Deustuko Unibertsitatea. 19-66.
- AGIRRE, L. (1989): “J. R. Madariaga”. *Argia*. 1.232. 1989-II-12. 51.
- ARGUELLO, X. (1988): “J. R. Madariaga”. *Hemen*. 1988-XII-30.
- GARAI, Koldo Jule (1993): “Elaien ausardiari”. *Neguko antzarrak*. 15-6.
- ITURBIDE, Amaia (1990): “Hiru poema liburu”. *Hegats*. 3. 30-1.
- KORTAZAR, Jon (1989): “Barne giroak begietan”. *Correo*. 1989-IX-6.
- (1992): “Poema liburu baterako”. *Deia*. 1992-VI-6.
- (1994): “Poeta gazte bi”. *Igandea*. 1994-VII-31.
- LANDABURU, J. (1992): “J. R. Madariaga: Egungo poesia dispersioan egiten da”. *Egunkaria*. 1992-V-30.
- LIZARTZA, Ritxi (1992): “Heriotzari buruzko poemario honek erre egiten ninduen”. *Argia*. 1992-IV-24. 48-9.
- MARKULETA, Gerardo (1992): “Hilarri zizelkatuak”. *Zabalik*. 1992-VII-1.
- SANTA KRUZ, Ana (1989): “J. R. Madariaga”. *Eguna*. 1989-IX-14.

## Xabier MONTAIA

- (1983): *Anfetamiña*. Susa. Donostia.
- (1985): *Likantropo*. Susa. Donostia.
- (1988): *Narraztien mintzoa*. Susa. Donostia.
- ANTZA (1983): “Anfetamiñaren poemagintza”. *Argia*. 1.204. 1988-VI-26.
- ITURREGI, N. (1988): “Xabier Montoia, poeta ez den poesiegilea”. *Hemen*. 1988-VII-22.
- KANDELA (1984): “Montoia. Anfetamiña”. *Euskal letren dantza*. Hordago. Donostia. 30-33.
- MENDIGUREN, F. J. (1985): “Likantropo”. *Susa*. 14-15. 92.
- ZUAZALDE, D. (1988): “Narraztien mintzoa”. *Argia*. 1.209. 1988-VII-31.

## Josean MUÑOZ

- (1984): *Parentesiak (eta abar)*. Hordago. Donostia.
- (1992): *Begien bizkar*. Susa. 25.
- L. M. (1985): “Abenduko literatur boomaegileen hitzetan (II)”. *Argia*. 1.043. 1985-I-13. 34-5.

OTAMENDI, Jose Luis (1992): "Aiztoz egiten diren seinaleak". *Begien bizkar*. Susa. 25. 3. or.

ZABALA, Juan Luis (1992): "Joxean Muñoz: Separataren formula". *Egunkaria*. 1992-IV-15.

#### Omar NABARRO (JIMENEZ, Edorta)

(1985): *Itsastxorien bindikapena*. Susa. Donostia.

(1986): *Egutegi esperimental*. Susa. Donostia.

(1986): & URIZAR, Joseba: *Gizaeuropa*. Susa. Donostia.

(1987): *Gaua zulatzen duten ahausietan*. Susa. Donostia.

(1989): *Odoleko eskifaia*. Elkar. Donostia.

(1991): "Poesia eta ixiltasuna". *Galeuzca*. 1. 121-3.

(1993): "Ohar batzuk euskal poesiaz". *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 219-254.

(1993): "Olerkaria paseari hutsa da". *Zehar*. 22-23. 20-22.

ARISTI, P. (1994): "Berrogei urteko idazlearen heldutasun eta desengainua". *Zabalik*. 1994-X-12.

E. E. (1989): "Komunikabideetan irakurlea prestatu daiteke gerora literaturara joateko". *Eguna*. 1989-VIII-17.

GARITANO, M. (1985): "Edorta Jimenez". *Argia*. 1.082. 1985-XII-15. 34-5.

GOITIOZLA, I. (1986): "Gizaeuropa". *Argia*. 1.121. 1986-X-19.

J. J. (1987): "Omar Nabarro bere poesia liburu berriaz". *Hemen*. 1987-XII-8.

KORTAZAR, Jon (1986): "Omar Nabarroren poemagintza". *Deia*. 1986-V-24.  
— (1987): "Bizitzatik literaturara". *Zurgai*. 18. 27.

LANDA, Josu (1985): "Omar Nabarroren tematikan barrena". *Susa*. 14-15. 48-52.

M. A. (1989): "Omar Nabarro". *Eguna*. 1989-XII-21.

MENDIGUREN, F. J. (1985): "Itsastxorien bindikapena". *Susa*. 14-15. 90.

Z. D. (1985): "Susak bost liburu berri". *Argia*. 1.051. 1985-III-10. 33.

#### Eneko OLASAGASTI

(1985): *Gauzurtz baten izenak asmatzen*. Susa. Donostia.

Z.D. (1985): "Susak bost liburu berri". *Argia*. 1.051. 1985-III-10. 33.

#### Jose Luis OTAMENDI

(1980): *Egunsenti biluzia*. Ustela saila. Donostia.

(1983): *Azken undinaren kaira*. Ustela saila. Donostia.

- (1987): *Zainetan murrailak*. Susa. Donostia.
- (1990): *Poza eta gero*. Susa. Donostia.
- (1995): *Lur bat zure minari*. Susa. Donostia.
- (1991): “Zertarako poesia gizarte teknifikatuan?”. *Galeuzca*. 1. 117-119.
- ARANBARRI, J. (1996): “Beti penetan”. *Jakin*. 93-94. 181-2.
- ARANO, J. (1990): “Poza eta gero”. *Argia*. 1.306. 1990-IX-23.
- ARANO-LANDA (1987): “Jose Luis Otamendi”. *Argia*. 1.182. 1987-I-17. 52.
- AROZENA, I. (1996): “Orain oso zaila daukate poeta berriek”. *Egin*. 1996-IV-28.
- GOSTIN, A. (1987): “Otamendi, tristura eta bakardadearen poeta”. *Hemen*. 1987-VIII-7. 25.
- ITURBIDE, Amaia (1994): “Jose Luis Otamendi. Poza eta gero”. *Egan*. 2. 277-8.
- JIMENEZ, Edorta (1995): “Indartsua eta borobila”. *Egunkaria*. 1995-IX-23.
- KANDELA (1984): “Otamendi J. L.”. *Euskal letren dantza*. Hordago. Donostia. 97-101.
- KORTAZAR, Jon (1995): “Otamendiren amildegiak”. *Igandea*. 1995-X-22.
- LANDA, Josu (1981): “Jose Luis Otamendi egunsentia biluzten”. *Argia*. 905. 1981-III-15. 29.
- MARTINEZ, L. (1996): “Poesiak bizitzaren indarrak aztertzen ditu”. *Correo*. 1996-III-3. 54.
- PETRIKORENA, J. (1995): “Sufrimendu, gabezia eta esperantzaren lurra”. *Argia*. 1.537. 1995-VII-2.
- UBEDA, Joxi (1996): “Susa inguruko poesigintzaren aitortza txiki bat izanda”. *Egunkaria*. 1996-IV-16.
- ZABALA, Juan Luis (1995): “J. L. Otamendi: aldaketa bilatu eta aurrerapausoa egiten saiatu naiz”. *Egunkaria*. 1995-VI-22. 26.

#### Patziku PERURENA

- (1984): *Joannes d'Iraolaren poema bilduma*. CAP. Donostia.
- (1987): *Emily*. Elkar. Donostia.
- (1988): *Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharra*. Pamiela. Iruñea.
- (1993): *Isileko kantak*. Pamiela. Iruñea.
- (1991): “Poesia, ez ote da hitzari berari buelta ematea?”. *Enseiucarrean*, 6, 107-109.
- (1993): “Goizueta aldeko kanta zahar batzuk”. *Gaurko poesia*, Labayru Ikastegia, Bilbao. 131-159.

- AGIRRE (1989): "P. Perurena, erromantizismo beltzaren debotoa". *Hemen*. 1989-III-31.
- CAMINO-GOSTIN (1990): "Patxiku (*sic*) Perurena". *Argia*. 1.296. 1990-VI-17.
- J. A. (1987): "Patxi Perurena, lirikaren zidorretatik". *Argia*. 1.138. 1987-II-15. 41.
- JUARISTI, Felipe (1985): "Patxi Perurena Loiarteren Joannes d'Iraolaren poema bilduma". *Literatur Gazeta*. 2. 7.  
— "Isileko kantak".
- KORTAZAR, Jon (1987): "Emily, literaturaren lilura". *Eguna*. 1987-VII-23.  
— (1987): "Prosas". *Diario* 16. 1987-XII-15.
- MARKULETA, Gerardo (1993): "Erretxinaren kirrinkak eta gozokiak". *Zabalik*. 1993-VII-14.
- MENDIZABAL, M. (1987): "Emily". *Argia*. 1.158. 1987-VII-5. 5.
- SAIZAR, J. (1992): "Sinbologia aldetik hemen kolorea nola erabili den jakin nahi nuen". *Argia*. 1.395. 1992-VII-12. 42-3.
- X. X.: "Patxiku Perurena. Sentitzen dudana botatzea gustatzen zait". *Habe*. 195. 6-9.
- ZABALA, Juan Luis (1994): "Marasmus femeninus". *Egan*. 2. 278.

#### Karlos SANTISTEBAN

- (1983): *Hitzak*. Haranburu. Donostia.
- (1985): *Amodioz eta gorrotoz*. Haranburu. Donostia.
- (1987): *Bizi aparra*. Sendoa. Oiartzun.
- (1991): *Taupaka barrenetik*. Sendoa. Oiartzun.
- (1992): *Olerki durundioak*. Sendoa. Oiartzun.
- KANDELA (1985): "Santisteban. Hitzak". *Euskal letren dantza*. Hordago. Donostia. 55-58.
- ZAMAKOLA, Z.: "K. S.: Barnekoerrima eta soinua landu ditut". *Egunkaria*. 1991-IV-13.

#### Joseba SARRIONANDIA

- (1981): *Izuen gordelekuetan barrena*. BAK. Bilbao.
- (1987): *Marinel zaharrak*. Elkar. Donostia.
- (1992): *Gartzelako poemak*. Susa. Donostia.
- (1995): *Hnuy illa nyha majah yahoo*. Elkar. Donostia.
- (1992): "A través del laberinto". *Ocho poetas raros*. Ardora. Madril. 213-217.
- ALDAI, X. (1996): "Bizitza bera bezala bizitza bera". *Egunkaria*. 1996-III-2.

- ALDEKOA, J. (1989): "Itsaso gartzelatua". *Hegats*. 1. 5-10.  
— *Enseiucarrean*. 6. 113-118.
- AZKARGORTA / XAMARDO (1989): "Gartzela poesia". *Susa*. 23-24. 174-181.
- AZURMENDI, J. (1988): "Saio politikoa perspektiba literariotik". *Larrun*. 7. 128-130.
- ELKARLANEAN: "I. G. B.ri hurbilketa semiotikoa". *Enseiucarrean*. VII. 81. or.
- GARTZIA, J. (1985): "Joseba Sarrionandia: Ni ez naiz hemengoa". *Literatur Gazeta*. 1. 4.
- IBARGUTXI, F. (1987): "Urrutiko parajeetatik hemengo oinazera". *Zabalik*. 1987-XII-18.
- ITSASO (1981): "Joseba Sarrionandia". *Anaitasuna*. 1981-VII. 25-28.
- IZPIZUA (1989): "Marginalia: Totalitarismoaren marjen hutsalak". *Literatur Gazeta*. 11-12. 3-8.
- JIMENEZ, Edorta (1989): "Ziegako biblioteca". *Susa*. 23-24. 6-15.
- JUARISTI, Felipe (1988): "Poesiaren lekua". *Literatur-Gazeta*. 10. 7-8.  
— (1988): "Marginalia, razionalitate marxista-leninistaren bidetik". *Zabalik*. 1988-VII-27.  
— "Gartzelan ere libre".
- KORRIKA (1985): "Joseba Sarrionandia". *Argia*. 1.061. 85-VI-26. 36-7.
- KORTAZAR, Jon (1982): "Joseba Sarrionandiaren Izuen gordelekuetan barrena". *Jakin*. 23. 133-141.  
— (1988): "Literaturatik bizitzara". *Eguna*. 1988-I-7.  
— (1996): "Barne garrasia". *Deia*. 1966-V-12.
- MADARIAGA, Juan Ramón (1995): "Sarrionandia estreinako aldiz". *Hegats*. 12. 35-40.
- MARKULETA, Gerardo: "Joseba Sarrionandia: poetika baten garapena". *Argitaratugabea*.  
— (1991): "Joseba Sarrionandia: Haizea eta Burdinaren dialektika". *Zurgai*. 28-29.  
— (1990): "Sarrionandia: samurtasuna berreskuratua". *Zabalik*. 1990-I-31.  
— (1990): "Sarrionandiaren samurra zertan den". *Zabalik*. 1990-II-28.  
— (1992): "Baltza, latza eta garratza". *Zabalik*. 1992-XII-2.  
— (1993): "Deserriko eruditoaren jolas berriak". *Zabalik*. 1993-X-6.
- MENDIGUREN, Xabier (1987): "Marinel zaharrak". *Argia*. 1.188. 87-II-14. 6.
- MOLLARRI, J. (1983): "Beste intxaur azal baten barrendik". *Argia*. 989. 83-10-16. 32-3.
- MORAN, G. (1996): "Pasión y guerra de Joseba Sarrionandia". *La vanguardia*. 1996-VI-8.
- OTAMENDI, J. L. (1996): "Nora itzuli?". *Argia*. 1.566. 1996-II-25. 45.
- PERURENA, Patziku (1988): "Marinel baten poemagintzaz". *Zabalik*. 1988-II-?.



SAN MARTIN, Juan (1986): “Joseba Sarrionandia. Ni ez naiz hemengoa”. *Egan*. 3-4. 203-207.

SANTXO, Joseba: “Sarrionandiaren olerkia aztergai”. *Enseiucarrean*. V. 149.

SUNYOL, Víctor. (1995): “De Mirall en Mirall”. *El Nou*. Vic.

ZELAIETA, Angel (1985): “Euskal literatura eta gizartea Sarrionandiaren ‘Ni ez naiz hemengoa’”. *Jakin*. 35. 118-127.

#### Gorka SETIEN

(1985): *Ez sinkronia*. Susa. Donostia.

MENDIGUREN, F. J. (1985): “Ez sinkronia”. Susa. 14-15. 89.

#### Imanol TXABARRI

(1985): *Hitzak naroa*. Maiatz. Baiona.

#### Migel Anjel UNANUA

(1987): *Maiteminduen ildoan*. Kriselu. Donostia.

(1991): *Ogen liliak*. Laida. Bilbao.

IRASTORZA, Tere (1986): “Y de perfil”. *Zurgai*. 16. 27. or.

— (1987): “Aurkezpena”. *Maiteminduen*. 5-7.

ZUAZALDE, David (1988): “Maiteminduen ildoan”. *Argia*. 1.193-4. 1988-IV-3/10/ 4. or.

#### Joseba URIZAR

(1986): & O. Nabarro. *Gizaeuropa*. Susa. Donostia.

(1992): *Girovago*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.

GOITOLZA, I. (1986): “Gizaeuropa”. *Argia*. 1.121. 1986-X-19.

JIMENEZ, Edorta (1993): “Harginaren eskua”. *Egunkaria*. 1993-V-15.

ZABALA, Juan Luis (1993): “Poema simple baina sendoak”. *Egunkaria*. 1993-V-22.

#### Pello ZABALETA

(1980): *Zurubi luzea*. GAK. Donostia.

(1990): *Lastozko zubia*. Hots. Legazpia.

(1990): *Bi poema t'ardi*. Elkar. Donostia.

- (1995): *Bigarren bizia*. EHU-UPV. Leioa.
- EZKIAGA, Patxi (1995): "Pello Zabaletaren poesia bihozdua". *Zabalik*. 1995-VI-28.
- IBARGUTXI, F. (1991): "Pello Zabaleta: Ni ez naiz leiharako jaio". *Zabalik*. 1991-II-27.
- X. X. (1990): "Pello Zabaleta: 'Herria hemen ez dagoena da'". *Hemen*. 1990-VI-8.
- ZABALA, Juan Luis (1995): "Bizitza ofizialaren ondoan beti dudan bigarren bizitza da poesia". *Egunkaria*. 1995-IV-12.

#### Austin ZAMORA

- (1986): *Ezin errana*. Maiatz. Baiona.
- (1988): *Hatsaren bustia*. Maiatz. Baiona.
- ARRESE, Gorka (1988): "Austin Zamora. Hatsaren bustia". *Argia*. 1.222. 1988-XI-27.
- BORDA, Itxaro (1986): "Austin Zamora". *Argia*. 1.111. 1986-VII-6.
- HERRIA (1991): "Euskal idazle batzu mintzo". *Herria*. 1991-3-28.

#### Felix ZUBIAGA

- (1987): *Zure argi kliskak*. BBK. Bilbao.
- (1989): *Uraren ohikuna*. Ibaizabal. Euba.
- (1990): *Desliluraren parabolak*. Ibaizabal. Euba.
- (1990): *Harri eta oihartzun*. Ibaizabal. Euba.
- (1992): *Oi Emmanuel*. Ibaizabal. Euba.
- (1992): "Ene olerki munduaz". *Gaurko poesia*. Labayru Ikastegia. Bilbao. 161-181.
- MENDIGUREN, Xabier (1987): "Zure argi kliskak". *Argia*. 1.188. 87-II-14. 7. or.
- MUXIKA, Luis M.<sup>a</sup> (1993): "Zubiaga Félix. Oi Emmanuel". *Egan*. 2. 223-4.

ERANSKINA  
POEMA LIBURUAK URTEZ URTE

**1980:**

- ALEMAN, G.: *Iraganaz*. Elkar. Donostia.  
ANASAGASTI, P.: *Olatuak*. EFA. Arantzazu.  
DAVANT, J. L.: *Makila Gorria*. Elkar. Donostia.  
ENBEITIA, J.: *Inguruaren arduraz*. Hordago. Donostia.  
GARBIZU, D.: *Espaloietako ginola*. Ustela. Donostia.  
IRASTORZA, T.: *Gabeziak*. Haranburu. Donostia.  
KORTA, G.: *Isiletik*. Ustela. Donostia.  
LANDA, J.: *Haizearen itzalak*. Hordago. Donostia.  
OTAMENDI, J. L.: *Egunsenti biluzia*. Ustela. Donostia.  
TEJERIA: *Zernahi batez*. Erein. Donostia.  
ZABALETA: *Zurubi luzea*. GAK. Donostia.

**1981:**

- AZKUE, A.: *Poemak*. Ustela. Donostia.  
EGIGUREN, R.: *Txipiroiren bat edo beste*. Ustela. Donostia.  
LETE, X.: *Urrats desbideratuak*. GAK. Donostia.  
SARRIONANDIA, J.: *Izuen gordelekuetan barrena*. BAK. Bilbao.

**1982:**

- DAVANT, J. L.: *Denboraren aroak*. BAK. Bilbao.  
LASA, J. J.: *Alizia eta biok*. Ustela. Donostia.  
URRETABIZKAIA, A.: *Maitasunaren magalean*. GAK. Donostia.  
ZABALETA, J.: *Eskuaren Fereka*. Hordago. Donostia.

**1983:**

- ARRIETA, J. A.: *Arrotzarena. Neurtitz neurgabeak*. GAK. Donostia.  
BIDEGORRI (ANSORENA): *Emeki itxaropendutako egunkaria*. BBK. Bilbao.

IRASTORZA, T.: *Hostoak. Gai eta gau-aldaketak*. BAK. Bilbao.  
MONTOLA, X.: *Anfetamiña*. Susa. Donostia.  
OTAMENDI, J. L.: *Azken undinaren kaira*. Ustela. Donostia.  
PUERTO DE STA. MARIA: *Intxaur azal baten barruan*.  
SANTISTEBAN, K.: *Hitzak*, Haranburu. Donostia.  
ELKARLANEAN: *Zergatik ez Sigrid?* Susa. Donostia.

#### **1984:**

ALBIZU, B.: *Olerkiak*. Santi Onaindia. Zornotza.  
BARANDIARAN, I.: *Klick-sssh-klack*. Susa. Donostia.  
BORDA, I.: *Bizitza nola badoan*. Maiatz. Baiona.  
FERNANDEZ DE LARRINOA, K.: *Gauerakoan*. Susa. Donostia.  
KARTXI, T.: *Ihesi*. Susa. Donostia.  
IGERABIDE, J. K.: *Notre-Dameko oihartzunak*. Elkar. Donostia.  
LASA, J. J.: *Andaluziari ene bilduma*. Susa. Donostia.  
MUXIKA, L. M.: *Aire neurtuak*. Haranburu. Donostia.  
MUÑOZ, J.: *Parentesiak eta abar*. Hordago. Donostia.  
JIMENEZ, E.: *Itsastxorien bindikapena*. Susa. Donostia.  
URKIZU, P.: *Zeren azken finean*. GAK. Donostia.  
ZUBIRI: *Bidetik ametsetan*. Edili. Donostia.

#### **1985:**

ANSELMÍ, L.: *Zoo ilogikoa*. Pamiela. Iruñea.  
ARANO, J.: *Bileterik gabe*. Susa. Donostia.  
BARAIAZARRA, L.: *Hitzezko txirlorak*. Elkar. Donostia.  
CASENAVE, J.: *Ordu alferren segida*. Elkar. Donostia.  
DAVANT, J. L.: *Nahi gabe*. NAK. Iruñea.  
ERDOZAINZI-ETXART: *Herri honen erraietan*. Maiatz. Baiona.  
ETXAMENDI, E.: *Aurora*. Maiatz. Baiona.  
EZKIAGA, P.: *Beldur naiz*. BAK. Bilbao.  
IÑARRA, A.: *Hirustea*. Susa. Donostia.  
LASARTE, G.: *Hitz antzuen azokan*. Susa. Donostia.  
JUARISTI, F.: *Denbora, nostalgia*. Baroja. Donostia.  
MONTOLA, X.: *Likantropo*. Susa. Donostia.  
OLASAGASTI, E.: *Gauzurtz baten izenak asmatzen*. Susa. Donostia.  
ONAINDIA, S.: *Nere baserria*. Egile editore. Zornotza.  
PERURENA, P.: *Joannes d'Iraolaren poema bilduma*. GAK. Donostia.  
SETIEN, G.: *Ez sinkronia*. Susa. Donostia.  
TXABARRI, I.: *Hitzak naroa*. Maiatz. Baiona.  
ZABALETA, P.: *Sekulan betiko*. AFA. Gasteiz.

#### **1986:**

ALDELUR, A.: *Itsas oiartzunetan oro malenkonía*. GFA. Donostia.

ALKALDE, J.: *Babiecaren hotzikarak*. Susa. Donostia.  
 ARANBARRI, I.: *Jonas Poisson*. Susa. Donostia.  
 ARRIETA, J. A.: *Bertso paper printzatuak*. Elkar. Donostia.  
 BORDA, I.: *Krokodil bat daukat bihotzaren orde*. Susa. Donostia.  
 DAVANT, J. L.: *Itsasoak iraultzan*. Maiatz. Baiona.  
 EGIGUREN, R.: *Mugarrien garraioak*. Susa. Donostia.  
 EGUZKITZA, A.: *Orhiko mendirantz urratsez urrats*. Pamiela. Iruñea.  
 EZKIAGA, P.: *Aiodi herriko kantak*. GAK. Donostia.  
 —: *Armagedon*. Eusko Jaurlaritza. Gasteiz.  
 GANDIAGA, B.: *Gabon dut anuntzio*. EFA. Arantzazu.  
 IRASTORZA, T.: *Derrotaren fabulak*. Pamiela. Iruñea.  
 IRIGARAY, J. A.: *Biziminaren olerkiak*. Pamiela. Iruñea.  
 IRIGOIEN, A.: *Orbel eta orri*. Egile Editore. Bilbao.  
 ITURBIDE, A.: *Eskaileraren bi aldeetan*. Erein. Donostia.  
 KORTA, G.: *Okaranak*. Susa. Donostia.  
 JIMENEZ, E.: *Egutegi experimental*. Susa. Donostia.  
 SANTISTEBAN, K.: *Amodioz eta gorrotoz*. Haranburu. Donostia.  
 SESTORAIN, G.: *Basamortuan oasiaren bila*. Maiatz. Baiona.  
 UGARTE, M.: *Jatorriaren erotik*. Itxaropena. Zarauz.  
 URIZAR, J.-JIMENEZ, E.: *Gizaeuropa*. Susa. Donostia.

## 1987

ARROYO, G.: *Eskeintzak*. Baroja. Donostia.  
 BERRIZBEITIA, L.: *Zoperna Jenerala*. Pamiela. Iruñea.  
 EZKIAGA, P.: *Fadura*. GAK. Donostia.  
 —: *Gernika*. Erein. Donostia.  
 IRASTORZA, T.: *Osinberdeko kantoriak*. Pamiela. Iruñea.  
 ITURBE, M.: *Eztigai zulatua*. Kriselu. Donostia.  
 —: *Haizeak ekaitza sortuko du*. Kriselu. Donostia.  
 JIMENEZ, E.: *Gaua zulatzen duten ahausietan*. Susa. Donostia.  
 JUARISTI, F.: *Hiriaren melankonia*. Baroja. Donostia.  
 LANATUA: *Kilim*. Maiatz. Baiona.  
 OTAMENDI, J. L.: *Zainetan murrailak*. Susa. Donostia.  
 PERURENA, P.: *Emily*. Elkar. Donostia.  
 SANTISTEBAN, J.: *Bizi-aparra*. Kriselu. Donostia.  
 SARRIONANDIA, J.: *Marinel zaharrak*. Elkar. Donostia.  
 UNANUA, M. A.: *Maiteminduen ildotik*. Kriselu. Donostia.  
 ZAMORA, A.: *Ezin errana*. Maiatz. Donostia.  
 ZUBIAGA, F.: *Zure argi kliskak*. BBK. Bilbao.

## 1988

AHAMENDABURU, J.: *Isilka-misilka*. Maiatz. Baiona.

ANSELMÍ, L.: *Desirako alegiak*. Pamiela. Iruñea.  
BORDA, I.: *Just Love*. Maiatz. Baiona.  
EZKIAGA, P.: *Ispiluaren isladaketak*. Keiko. Elkar. Donostia.  
GARTZIA, J. R.: *Dena dela*. Baroja. Donostia.  
IDOATE, T.: *Arantzak elorritik begiratzen dizu*. Pamiela. Iruñea.  
MONTÓIA, X.: *Narraztien mintzoa*. Susa. Donostia.  
PERURENA, P.: *Iraingo apaiz gaztearen kantutegi zaharra*. Pamiela. Iruñea.  
RIKARTE, J.: *Bide ertzeko poema bilduma*. Pamiela. Iruñea.  
VILLASANTE, M.: *Xaguak soka saltoan*. Baroja. Donostia.  
ZAMORA, A.: *Hatsaren bustia*. Maiatz. Baiona.

### 1989

AIRE, H.: *Egiaren egarriz*. Maiatz.  
ALDALUR, A.: *Hainbat gau izarrik gabe*. BAK. Bilbao.  
ARANBARRI, I.: *Dordokak eta elurrak*. Susa. Donostia.  
BALENTZIA, J.: *Espaloian dago munduaren xilkoa*. Susa. Donostia.  
ERTZILLA, M.: *Ezpondetako pneuma*. BFA. Bilbao.  
GIL BERA, E.: *Hortus botanicus*. GK. Donostia.  
HEGI, T.: *Tarteka marteka*. Maiatz. Baiona.  
IGERABIDE, J. K.: *Bizitzarekin solasean*. Elkar. Donostia.  
IRIGOIEN, J.: *Argiaren barne distantziak*. Erein. Donostia.  
IZAGIRRE, K.: *Balizko erroten erresuman*. Susa. Donostia.  
JIMENEZ, E.: *Odoleko eskifaiak*. Elkar. Donostia.  
KEREXETA, M. J.: *Ezezagun baten koadernoak*. GK. Donostia.  
MADARIAGA, J. R.: *Imentzioaren pergamuak*. BFA. Bilbao.  
ONAINDIA, S.: *Olerki guztien bilduma*. Karmel. Larrea.  
URTZI: *Herri bat erdibituz*. Egile editore. Bilbao.  
ZUBIAGA, F.: *Uraren ohikuna*. Ibaizabal.

### 1990

AHAMENDABURU, J.: *Gauean Ontuts*. Maiatz.  
ARANO, J.: *Malezi sorta*. Susa. Donostia.  
ETXEZAHARRETA, J. M.: *Hazperen ttanta*. Sendoa. Oiartzun.  
—: *Zalantzaren aztarnak*. Sendoa. Oiartzun.  
EZKIAGA, P.: *Baladak*. Sendoa. Oiartzun.  
—: *Terrala*. Sendoa. Oiartzun.  
GAZTELU: *Poesiak. Antologia*. Etor. Donostia.  
ITURBE, M.: *Itsasoaren itxaropen gazia*. Sendoa. Oiartzun.  
LEKUONA, J. M.: *Mimodramak eta ikonoak*. Erein. Donostia.  
MARKULETA, G.: *Larrosak noizean behin*. Erein. Donostia.  
MUNIATEGI, S.: *Olerki guztiak*. Karmel. Bilbao.

OTAEGI, J. L.: *Poza eta gero*. Susa. Donostia.  
ROJO, J.: *Arrodaren gunea*. BFA. Bilbao.  
SALMAS, J.: *Ameslarien ixiltasuna*. Islada. Donostia.  
TOLOSA, A.: *Satorrak*. Susa. Donostia.  
URKIXO, J.: *Berbak legezko aiztoak*. Susa. Donostia.  
ZABALETA, P.: *Bi poema t'ardi*. Elkar. Donostia.  
ZUBIAGA, F.: *Desliluraren parabolak*. Ibaizabal. Euba.  
—: *Harri eta oihartzun*. Ibaizabal. Euba.

